

Eusko Jaurfiritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

**MASKULINITATEAK
ETA BERDINTASUNA:
JAKINTZA-ALOR ANITZEKO
AZTERKETA**

AURKEZPENA



Gizonduz Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak, bultzatutako ekimena da, eta 2007ko azaroan eman zituen lehen urratsak, gizonen kontzientziazioa, parte-hartzea eta inplikazioa sustatzeko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde.

Besteak beste, Gizonduz ekimenaren markoan, 2009ko martxoan, batez ere gizonen zuzendutako berdintasun arloko sentsibilizazio eta prestakuntza programa jarri zuten abian, ondorengo premisa honekin: sentsibilizazioa eta prestakuntza dira pentsamolde eta portaera aldaketaren giltza, eta, beraz, gizonen sexuen arteko berdintasunaren alde kontzientziazio, gaikuntza eta konpromiso handiagoa izan dezaten neurriak proposatuta, errazagoa izango da sexuen araberako eredu soziokulturalen aldaketa; aldaketa hori, hain zuzen ere, ezinbestekoa da emakumeen egiturazko desberdintasun egoera sortzen duten prozesuak edo faktoreak zuzentzeko eta emakumeen zein gizonen garapen aukerak indartzeko.

Sentsibilizazio eta prestakuntza programa horrek oso harrera ona izan du; 2009ko eta 2010eko edizioetan 3.000 lagunek baino gehiagok hartu zuten parte, eta ikastaroetan parte hartu dutenen % 55 inguru gizonak ziren. Gainera, gogobetetze maila oso handia izan da. Nabarmentzekoa da ia partaide guztien iritziz, ikastaroak bizitza pertsonalerako zein bizitza profesionalerako erabilgarriak izan direla.


Aurretiazko lan bezala, sentsibilizazio eta prestakuntza programaren ikastaro presentzialen oinarri moduan, Emakundek maskulinitatearen eta generoaren alorreko hainbat adituren laguntza izan zuen. Gaien eta ikuspegi berrien egoera jasotzen zuen proposamen teorikoa sortu zuten, baita edukiak pedagogikoki garatzeko esku-hartze praktiken eta dinamiken proposamena ere.

Hain zuzen, dokumentu honek adituen proposamen teorikoak biltzen ditu, eta haiei nire eskerrik zintzoena helarazi nahi diet.

Material hauek lagungarria izatea espero dugu ikuspegi pertsonaletik zein profesionaletik, gizonen, berdintasunaren eta maskulinitatearen alorrekin lotutako gaietan eta oso desberdinak diren hainbat arlotan –hala nola osasuna, zaintza, giza eskubideak, indarkeria maskulinoak, emakumeen aurkako indarkeria, bide segurtasuna, drogamendekotasunen eta kriminalitatearen prebentzioa– sakondu nahi duten guztientzat.

María Silvestre Cabrera

Emakunde - Emakumearen Euskal Erakunde zuzendaria



Eusko Jaurjaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

EMAKUMEEN GIZA ESKUBIDEAK ETA MASKULINOTASUN HEGEMONIKOAREN ERAIKUNTZA

*FEMINISMO ANTIMILITARISTAREN
IKUSPEGIA*

Dominique Saillard, Oreka Sarea S.L. 2010

AURKIBIDEA

1. Generoa eta giza eskubideak. Zertaz ari gara?	5
1.1. Emakumeen eskubideak giza eskubideak ere badira	5
1.2. Giza eskubideen nazioarteko legediak genero gaietan izan duen bilakaera	7
1.3. Lehen ondorio batzuk	10
2. Eredu maskulino hegemonikoa eraikitzea: giza baliabideei feminismoaren eta antimilitarismoaren ikuspegia aplikatzea	11
2.1. Analisi feministak bakegintzarako egindako ekarpen batzuk	11
2.1.1. Indarkeriak ezagutaraztea	11
2.1.2. Bake negatibotik bake positibora	12
2.1.3. Giza segurtasuna gure segurtasuna da	13
2.1.4. Askotariko nortasunen balorazioa eta nortasun murriztaileari kritika...	14
2.2. Militarismoa: maskulinitasun hegemonikoa eraikitzeko tresna	15
2.2.1. Gerra indarkeriaren continuum-ean, eta emakumeen giza eskubideetan duen eragina	15
2.2.2. "Gizon militarra" eraikitzea, maskulinitasun hegemoniko gisa	15
3. Feminismo antimilitaristak maskulinitasunaren eredu alternatiboak eraikitzeko egin dituen ekarpenak	18
3.1. Indarkeria eta indarkeriazaleak desnaturalizatzea eta desmitifikatzea	18
3.2. Desobedientzia balioestea	19
3.3. Barruan dugun etsaia suntsitzea	19
3.4. Zaurgarritasuna onartzea	20
4. Bibliografia	21

1. GENEROA ETA GIZA ESKUBIDEAK. ZERTAZ ARI GARA?

1.1. EMAKUMEEN ESKUBIDEAK GIZA ESKUBIDEAK ERE BADIRA

Joan den mendeko 90. hamarkadaren hasieran, emakumeen eskubideak giza eskubidetzat hartu ziren esplizituki; Historia hurbilaren lorpen esanguratsuenetariko bat dela esan daiteke. Aldez aurretik, militante eta teorialari feministek egindako lana ongarri izan zen aldaketa sakon horiek gertatu ahal izateko.

Alicia Soldevillak¹ planteatutakoaren arabera, emakumeen nazioarteko giza eskubideak aitortuak izateko, beharrezkoa izan zen sei baldintza egotea, alegia:

1. Banakoek eskubideak eskuratu behar izan zituzten Estatutik, nazioarteko legeen arabera.
2. Nazioarteko giza eskubideen kontzeptua onartu egin behar zen.
3. Emakumeak legezko eskubideak edukitzeko gauza zirela onartu behar zen.
4. Gizonek eta emakumeek eskubide berak eduki zitzaizketen ideia onartu behar izan zen.
5. Feminismoak metodologiak eta teoriak garatu behar zituen, emakumeen bizitzak aitzinean jartzeko eta alor publikoaren eta pribatuaren arteko bereizkuntza artifiziala ezabatzeke.
6. Nazioarteko giza eskubideen teoria eta praktikaren joera androzentrikoa agerrarazi egin behar zen.

Carmen Posadaren ustez (Kolonbiako CERFAMI GKE), Giza Eskubideen eta Generoaren arteko loturak perspektiba aldatzea planteatzen du nahitatez: "emakumeak -eskubideen eremuan- talde isolatu eta "zaugarri" gisa ikusteari utzi, eta mendetasun-harremanen egiturazko kausak identifikatu, ulertu eta aldatu behar dira, kausa horiek baitira giza eskubideen gozamina funtsean eragozten dutenak."²

Marcela Lagardek beste modu batera adierazten du: "desberdinen arteko berdintasun humanoari buruzko mitoa apurtu behar izan zen"³. Mito hori Frantziako Iraultzarekin sortu zen, eta orduko Giza Eskubideen eta Herritarren Eskubideen Adierazpen Unibertsala deituriko 1789ko adierazpen entzutetsuarekin. Bi urte eskas igaro ondoren, adierazpen hori Olympes de Gouges aristokratak (plebeio jaioak) beste Adierazpen batean parafraseatu zuen, zeina ez baitzen horren ezagun bihurtu; hala ere, mugimendu feministaren ustez, eskubide-berdintasunaren aldeko emakumeen borrokaren mugarrietako bat da.

"Emakumeen eta emakumezko herritarren eskubideen Adierazpena"ren bidez, frantses iraultzaileei gogorarazi nahi ziren 1789ko testuan aipaturiko eskubideak ez zirela inondik ere unibertsalak, alde batera uzten zituztela aliatu leialak izandakoak, Iraultzan ez baitzen merezi bezala aitortu emakumeen zeregina.⁴ Emakumeak "Hirugarren Estatu Hirugarren Estatu" bihurtu ziren, eta horrek eragin zuen Olympes de Gougesen idatzia, emakumeek kolektibo gisa pairatzen zuten zapalkuntzaren lehen salaketatzat jo daitekeena. Epai zorrotz hau du gizonari buruz: "Arraroa da, itsua, zientziez blaitua eta ezjakintasunik barkaezinez endekatua, argitasun eta zolitasunez beteriko mende honetan; despota baten pare agindu nahi du ahalmen intelektual guztiak jaso

1. Alicia Soldevilla (2008).

2. Carmen Posada, Derechos Humanos y género. En: www.mundubat.org/documentos/200734.doc

3. Marcela Lagarde (1998).

4. Gaur egun nork ezagutzen du emakumeek Frantses Iraultzan egindako ekarpen nagusietariko bat? Hala nola, emakumeek Versaillesko Mar-txa antolatu zuten, Louis XVI. Erregea landa-egoitzatik Erreinu hiriburura itzul zedin behartzeko; "Kexen Koadernoak" idatzi zituzten, beren aldarrikapenak jasotzeko eta emakumeen klub politikoen jarduera latza jasotzeko; klub horiek itxi egin behar izan zituzten, Terrorre Jakobi-noaren lehen urteetan. Ikusi: Los feminismos a través de la historia, II. Kapitulua, Ana de Miguel, "Feminismo moderno"; Creatividad Feminista web-orrialdean lortu daiteke. Iturria: <http://www.nodo50.org/mujeresred/feminismo.htm>

5. Ana de Miguel, "Feminismo moderno", ibid.

zituen sexu baten aurrean, hots, iraultzaz gozatu eta dagozkion berdintasun-eskubideak aldarrikatu nahi dituen sexuaren gainean, behingoz esateko”⁵. Haren etsenpluari jarraitu zion Mary Wollstonecraft ingelesak: Emakumeen Eskubideen Errebindikazio ospetsua idatzi zuen, 1792an. Olympe de Gougesek, bestalde, “Iraultzaren etsaien” patua ezagutu zuen: gillotinan hil zuten urtebete geroago.

Garai horretakoak ditugu emakumeen eskubideei buruz harrotasunez egindako lehenengo baieztapenak, jendartera eramanez eta esplizituki gai politiko bihurtuak.⁶ Napoleonen kode zibil berriak –eragina Europa osora hedatu da orain gutxira arte-, urte batzuk geroago, emakumeak beren patura itzuli zituen irmoki, emazte eta ama izatearen patura, gizonezkoen babespean utzirik. XX. mendearen erdialdera arte itxoin beharra dago, Giza Eskubideen nazioarteko legegia beharrezko eboluzio bat islatzen hasi zen arte.

Nola azal liteke Giza Eskubideak generoaren aurrean horren denbora luzean itsu egotea? Gakoak, beti bezala, androzentrismoan daude, zeina Giza Eskubideen eremura iragazi baita –beste eremu askotan bezala-, sortu zenez geroztik. Eskubideen kontzeptua osatzerakoan, emakumeen bizitzari eragiten zieten arazoekin esplizituki loturiko gaietan ere, askotan alde batera utzi dira emakumeen ikuspuntuak, eta kontzeptuen formulazio zuzenetik kanpo utzi dira, hasierako hamarkadetan bederen. Carmen Posadak emakumeak baztertzea eragiten duten **hiru faktore garrantzitsu** aipatzen ditu:

a) Alde batetik, **espazio publikoaren eta espazio pribatuaren arteko banaketak** Giza Eskubideen kontzeptua osatzerakoan duen **eragina**; hasieran espazio publikoari baino ez zitzaizkion aplikatu, jarduera-eremu baliodun bakartzat hartzen baitzen. Ondorioz, eremu pribatukotzat jotako gaietan “ez esku hartzea”ren filosofia gailendu zen, eta emakumeen aurkako eraso, erailketa, bortxaketa eta torturak zigorgabetasun erabatekoaz geratzen ziren. “Azken bi hamarkadetan soilik”, dio Carmenek, “emakumeen mugimenduaren presioei esker ikusi zen nola genero-mendetasuna eta indarkeria errealitate politikoak diren, giza garapenaren espazio guztietan eragiten duten interes, ideologia eta instituzio patriarkalek eraikiak eta iraunaraziak”⁷.

b) Bestalde, **giza eskubideen belaunaldien hierarkizazioa dago** eta, horrekin batera, nazioarteko zuzenbidearen ahalegina, historian zehar, estatuek eragin duten eskubide zibil eta politikoaren urraketa salatzea bideratu izana.

Gogora dezagun, Karen Vasak jurista txekiarrak proposatu zuela (1979an) Giza Eskubideak hiru belaunalditan sailkatzea, Frantses Iraultzaren goiburuari jarraituz: Askatasuna, Berdintasuna, Elkartasuna (sororitaterik ez, ikusten duzuen bezala!).

Eskubide zibilak eta politikoak **lehenengo belaunaldizat** hartzen dira. Estatuari gizakiaren funtsezko eskubideak beti errespetatzea inposatzen diote (bizitza, askatasun, berdintasunerako eskubidea, etab.).

Bigarren belaunaldian, eskubide kolektiboak daude, Eskubide Sozialak, Ekonomikoak eta Kulturalak. Industria-iraultzaren ondorioz sortzen dira: Estatuarentzat betebeharra dira, baina progresiboki betetzekoak, estatuaren ahalbide ekonomikoaren arabera.

Hirugarren Belaunaldia 1980. urteetako doktrinan sortu zen, Herrien Eskubideak edo Elkartasun Eskubideak deiturikoek osatzen dute. Nazioen arteko eta nazioak osatzen dituzten taldeen arteko lankidetzaren ondorioz sortzen dira. Kategoria horretan sartzen dira, Bakerako

6. G. Fraisse, *Musa de la razón*, Cátedra, Madrid 1991, 191. orr., Ana de Miguel, “Feminismo moderno”, *ibid.*

7. Carmen Posada, *ibid.*

Eskubidea, Garapenerako Eskubidea, Ingurumen osasungarri baterako eskubidea, etab.⁸

Lehen belaunaldiko eskubide zibil eta politikoei lehentasuna eman izan zaie, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen kaltetan (2. belaunaldikoak) eta hori oso oztopo handia izan da genero-ikuspegia giza eskubideen teorian eta praktikan txertatzeko. Carmen Posadak azpimarratzen duenez, "emakumeen eskubideen funtsezko alderdi batzuk askatasun zibil eta politikoen esparruan kokatzen badira ere, emakumearen kontrako abusu asko sare sozioekonomiko zabalago baten zati dira, non emakumeak zaugarriago geratzen diren, bortxaketa politikotzat edo Estatuak zuzenean sortutakotzat jo ezin diren bortxaketekiko. Emakumeen arazoak guztiz ebazteko, funtsezkoa da eskubide batzuk barne hartzea, hala nola, elikadura, osasun, hezkuntza, etxebizitza eta lanerako eskubidea edo indarkeriarik ezerako eskubidea -Giza eskubideen Adierazpen Unibertsalean argiro aipatuak-"⁹. Katarina Tomasevskiren ustez, eskasa da giza eskubideen egungo estrategietan eskubide sozial eta ekonomikoek duten presentzia, eta egoera hori, gainera, Estatu eta ekonomia zein bere aldetik abiatu izanari zor zaio.¹⁰

c) Eta hirugarren elementua, **giza eskubideen erakundeetako androzentrismoa dugu**. Emakumeen proportzioa handiagoa izateak instituzioetan genero-kontzientzia handiagoa dakarrela bermatzerik ez badago ere, ezin uka emakumeak (batzuk, guztiak ez) borrokatzen direla kontzeptuen eta araudien esparruak zabaltzearen alde, hain justu ere, gizadien artean diskriminaturik dagoen erdiaren beharrak kontuan har daitezten. Emakumeen ordezkartza eskasa izateak ondorio maltzurra ahalbidetu du, Nazio Batuen sisteman soilik "emakumeei buruzko gaiak" tratatzeko diren arlo eta erakundeak sortzean, hala nola, Emakume Izateari buruzko Batzordea eta Emakumearen kontrako Bereizkeria ezabatzeari buruzko Komitea (CEDAW). Instituzio horiek berebiziko garrantzia izan dute emakumeentzat, baina aldi berean, beren ikuspuntuak, interesak eta beharrak zedarrituta laga dituzte, eta ondorioz zaildu egiten da nazioarteko zuzenbidearen "korrante nagusian" genero-ikuspegia erabat txertatzea (mainstreaminga).

1.2. GIZA ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO LEGEDIAK GENERO GAJETAN IZAN DUEN BILAKAERA¹¹

Nazio Batuen historiara genero-ikuspegiak hurbilduz, ikusiko dugu nola txertatu diren mugimendu feministen aldarrikapenak, herrialde bakoitzean egon diren erresistentziak eta Nazio Batuen Erakundearen gisako ezaugarri eta dimentsioak dituen erakunde baten mugikortasun geldoa.

Abiapuntua 1945eko ekainean sinaturiko Nazio Batuen Gutuna da, non hiru helburu nagusi islatzen diren: etorkizuneko gerrak prebenitzea, aurrerapen ekonomiko eta soziala sustatzea eta emakumeen eskubideak babestea¹². 1948ko abenduaren 10ean sinatutako Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren hitzaurrean ezartzen denez, pertsona guztiek izan behar dituzte eskubi-

8. Magdalena Aguilar Cueva, Las tres generaciones de los Derechos Humanos.

<http://www.juridicas.unam.mx/publica/librev/rev/derhum/cont/30/pr/pr20.pdf>

Doktrinak gehien onartzen dituen hiru belaunaldiak aipatzera mugatzen gara, baina giza eskubideen laugarren belaunaldi bat sortzen ari dela dio zenbaitek, hala nola David Vallespín Pérez, Franz Matcher, Antonio PérezLuño, Augusto Mario Morillo, Robert Gelman eta Javier Bustamante Donasek. Dena den, horren edukia ez da argia, eta egile horiek ez dute proposamen bakarra aurkezten. Normalki, hirugarren belaunaldiko eskubide batzuk hartzen dituzte, eta laugarrenean sartzen, ingurumenerako eskubidea edo bioetikari buruzko alderdiak, esaterako. Javier Bustamantek baieztatzen duenez, laugarren belaunaldia teknologia berrien ondorioz sortzen da; beste batzuen ustez, bereizketa, honetan legoke: lehen hiru belaunaldiek gizartearen kide bezala hartzen dute gizakia; laugarren belaunaldian, berriz, espeziatzen (informazio gehiago: http://es.wikipedia.org/wiki/Derechos_Humanos)

9. Carmen Posada, ibid.

10. Katarina Tomasevski (2004).

11. Atal hau Leire Idarraga Espelen laguntzaz idatzi da (Oreka Sarea S.L.).

12. Folquera, Pilar (2006)

deak eta askatasunak, inolako bereizkeriarik egin gabe, hots, arraza, kolorea edo sexua edozein dela ere. Adierazpen horren 1. artikuluan laburtzen eta jasotzen da gainerako artikuluetakoa, bai eta geroko gainerako konbentzio eta itunak ere. Hau dio:

“Gizaki¹³ guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu behar dute”

Adierazpenaren 30 artikuluetan, pertsona terminoa erabiltzen da, 16. artikuluan izan ezik, non ezkontzari buruzko eskubideak tratatzen diren:

“Gizonek eta emakumeek, ezkontadinetik aurrera, ezkontzeko eta familia eratzeko eskubidea dute, arraza, herritartasun edo erlijioagatiko inolako mugarik gabe; eta, ezkontzari dagokionez, eskubide berberak dituzte bai ezkontuta jarraituz gero eta bai ezkontza-lotura ezabatuz gero ere”.

Giza Eskubideen Adierazpenaz gain, garrantzi handiko nazioarteko itun bi aipatu behar dira: Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna eta Eskubide Zibil eta Politikoen Ituna.

Biak 1976an sartu ziren indarrean, eta juridikoki lotesleak dira berretsi dituzten herrialdeetan. Azpimarratzekoa da itun bietan Adierazpenean oinarritutako artikulua txertatu direla, eta horietarik askok oihartzun handia dutela emakumeen giza eskubideen eta ugalketa-eskubideen alorrean. Gaur arte, estatu kide askok ez dituzte itunak berretsi, eta beste horrenbestek bai, baina zenbait artikulutan erreserbak ezarri. Oraindik ere emakumei buruzko materialak traba handiak aurkitzen ditu oso bestelakoak diren herrialdeetan, hala nola, Estatu Batuetan, Iranen eta Indian.

Emakumeen Eskubideei buruzko eremu zehatzagora joz, aipatzekoa da Emakumearen Batzorde Sozialak eta Juridikoak egindako lan handia, konbentzio hauek onartzea ekarri baitzuen:

- Emakumearen Eskubide Politikoei buruzko Konbentzioa (1952).
- Emakume Ezkonduaren Nazionalitateari buruzko Konbentzioa (1957)
- Ezkontzeko Oniritziari buruzko Konbentzioa (1962)

60ko hamarkadan, aldaketa handiak gertatu ziren Nazio Batuen testuinguruan. Beste herrialde batzuk sartu ziren –batzuk garapen bidean zeuden, eta beste batzuk, deskolonizazio-prozesuan murgilduta-, eta ondorioz, ikuspegi berri bat ekarri zuten eztabaidagai askotan, besteak beste, emakumei buruzkoetan. Errealitate berri horiek erakundearen norabidea aldatzea eskatzen zuten, Giza Eskubideen ikuspegi etnozentrikoa eta androzentrikoa alde batera uztea eta aniztasunean gehiago zentratzea.

Hamarkada horretan zehar, bi funtsezko gertakari mugarri bilakatu ziren genero-politikan: alde batetik, 1967an, Biltzarrak emakumeen aurkako bereizkeria oro deuseztatzeari buruzko Adierazpena (CEDAW) kaleratu zuen, Emakumeen Eskubideak defendatzeko erreferente bihurtuko zena mundu-mailan .

Konbentzio horren alderdi garrantzitsuetariko bat definizioa da, hots, emakumeen aurkako bereizkeria zer den definitzen du: “... “emakumearen aurkako bereizkeria” esamoldeak agertuko du sexuan oinarritutako bereizketa, bazterketa edo murrizketa oro, halakoen xedea edo ondorioa denean kaltetzea edo deuseztatzea (politika-, ekonomia-, gizarte- nahiz kultura-esparruetan,

13. “Gizaki” esaera ez zen erraz erabaki: 1946an, Emakume Izateari buruzko Azpibatzenordeak askotan aurre egin behar izan zion tutore zuen erakundeari -NBEko Giza Eskubideen Batzordeari-, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala idazterakoan. Emakume Izateari buruzko Azpibatzenordeak lortu zuen hitzaurrearen jatorrizko idazkera aldatzea: “gizon guztiak anaiak dira” kendu, eta horren lekuan, “gizaki guztiak libre jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela”. Giza eskubideen Adierazpen Unibertsalaren azken testuan hizkera inklusiboa erabili zen, eta horrek etorkizuneko hizkera zehaztu, eta Iraultza Frantsesaren Adierazpenaren legatuarekin moztu zuen. (Katarina Tomasevski, 2004)

esparru zibilean edo beste edozein esparrutan] emakumeari aitortutako giza eskubide eta oinarrizko askatasunak, eta horien izatea eta egikaritzea, haren egoera zibila gorabehera, gizonaren eta emakumearen arteko berdintasuna oinarri”. Konbentzioan tratatutako gaiak hauek dira: amatasuna, prostituzioa, partaidetza politikoa, nazionalitatea, hezkuntza, lana, osasuna, eskubide zibilak, sozialak eta kulturalak, emakume landatarrak, familia eta ezkontza, besteak beste.¹⁴

Eduki baliotsu hori gorabehera, adierazpen hori ez da loteslea, eta horregatik, ez da nahitaez betebeharrekoa; ondorioz, antolakunde feminista askok borrokan jarraitzen dute Estatuek Adierazpenaren klausula batzuei jartzen dizkieten “erreserbak” ken ditzaten eta CEDAW-ren Hautazko Protokoloa berretsi dezaten (ikusi aurrerago). Kanpaina horien adibide dira herrialde arabiar batzuetako emakumeek “Berdintasuna, erreserbarik gabe”¹⁵ lelopean bultzatzen dutena.

Mekanismo horien eragina aztertuta, oso eraginkortasun eskasa dutela ikusi da. Hainbat faktorek eragiten dute hori: alde batetik, gai hauetan herrialde askok ez du borondate politikorik, eta bestetik, erlijio eta kulturaren aldetik oso jarrera kontserbadoreak daude, emakumeen zeregin tradizional eta mendekoari eustearen alde egiten duten jarrerak; horrekin batera, ez da ahantzi behar erakunde judizialen moteltasuna.

CEDAW onartu ondoko urtean, Giza Eskubideei buruzko Teherango Konferentzia egin zen, eta 29 ebazpen lotesle onartzea lortu zen. Horretan bereziki azpimarratu zen erkidegoen garapen-testuinguruetan emakumeen egoera eta emakume landatarraren egoera hobetzea. Lehen aldiz, finantziarioa zuten neurri espezifikoak proposatu ziren, emakumeek antisorgailuak erabiltzeko eta hezkuntza eta prestakuntza jasotzeko aukera izan zezaten.

1981eko irailaren 3an, emakumearen aurkako bereizkeria modu oro Deuseztatzeko Konbentzioa idatzi zen. Lehenagotik egindako lanari esker (1967ko adierazpena, mundu mailako ekintza-plana), gai horiek nazioarteko tratatuen parte izatea lortu zen azkenean. Une horretan 20 herrialdek berretsi zuten, eta herrialde sinatzaileen sistema juridikoetan eta barne zuzenbidean txertatu zen.

CEDAW-ko lanek 1999an Konbentzioaren Hautazko Protokoloa onartzea lortu dute. Protokolo hori tresna juridiko bat da, generoagatiko bereizkeria jasan duten emakumeei CEDAW-ren aurrean salaketak jartzeko aukera ematen diena. Batzordeak aukera ematen du halaber, Emakumeen Eskubideak larriki urratzen diren egoeretan ikerketak egiteko; hala egiten da Ciudad Juárezen (Mexiko), non emakumezko ugari hil eta desagerrarazi dituzten, erabateko zigorgabetasunaz, orain artean.

Azpimarratzekoa da Konbentzioaren garrantzia, emakumeen egoeraren hiru alderditan jartzen baitu arreta: 1) emakumeen egoera juridiko eta soziala eta eskubide zibilak; 2) sexu eta ugalketa eskubideak; eta 3) sexuen arteko harremanetan kultur faktoreek dituzten ondorioak. Horrela, urteetan mugimendu feministak garatutako teoria batzuk jasotzen dira.

Aldi berean, lorpen garrantzitsuak ekarri dituzte ondoren egindako nazioarteko konferentziek ere (Mexiko, Kopenhage, Nairobi eta Beijing 1975-1995). Eskaera feministen zuzeneko ondorioak izan ziren, aukera eman baitzuten “mugimenduaren oinarriak eta antolamendu arauak zabaltzeko eta nazioarteko agenda politikoa eraldatzeko”¹⁶. Beijingo¹⁷ konferentziaren ondoren onartzen da etorkizuneko gizartea eta erabateko garapen ekonomiko eta soziala ez direla gertatuko emakumeek erabateko partaidetza izan gabe. Argiro esaten da emakumeen politikak ezin direla sektorialak izan, politika multzoaren barruan txertaturik egon behar dutela, lehen aipatu-

14. Instituto Interamericano de Derechos Humanos (2008).

15. Association for Women’s Rights in Development elkartearen web-orrialdea ikusi: <http://awid.org/eng/Issues-and-Analysis/Issues-and-Analysis/Equality-without-reservation>

riko zeharrekotasun-printzipioari jarraituz (mainstreaminga). Nazio Batuentzat gai hori lehen-tasunez jotzen da, eta gobernu eta antolakunde guztiei eskatzen zaie emakumeen eskubi-deak babes ditzatela behar diren tresnen bitartez, CEDAW-ren bidez, bereziki.

Emakumeen mugimenduaren eragina aipatu nazioarteko konferentzietatik harago islatu zen: Giza Eskubideei buruz Vienan 1993an egindako Mundu Konferentziara¹⁸ hedatu zen, bai eta hezkuntza, ingurumen, garapen eta herritarrei buruz egindako beste batzuetara ere. Genero-berdintasuna 90eko hamarkadan agertu zen, emakumeen antolakundeak luzaroan borrokan aritu ondoren; ez zen agertu gizadiaren erdiari soilik eragiten dion gai gisa, baizik eta gainerako problematika guztiak zeharkatzen dituen gai gisa.

90eko hamarkadara arte, bikotekideek edo bikotekide ohiek emakumeen kontra egiten zuten indarkeria, batik bat, gai pribatutzat eta etxe barruko eremutzat jotzen zen, baina hortik aurrera, Giza Eskubideen urraketat hartu zen¹⁹. Horri haritik, Nazio Batuen sistematik kanpo, aipagarri da Amerikako Estatu Erakundeak (OEA) 1994ko ekainean onartu zuen Konbentzioa, Emakumearen Kontrako Indarkeria Prebenitu, Zehatu eta Erauzteko Konbentzio Amerikarra (Belem do Paráko Konbentzioa izenez ere ezaguna). Konbentzio hori nazioarteko lege-tresna bat da, alde batetik, emakumeek indarkeriarik gabeko bizitza izateko eskubidea dutela, eta bestetik, emakumeenganako indarkeria giza eskubideen urraketa dela aitortzen duen lehena munduan. Horretaz gainera, babes-mekanismo bat ere badu: Giza Eskubideen Ameriketako Gortean eskeak aurkezteko aukera.

1.3. LEHEN ONDORIO BATZUK

Emakumeen giza eskubideen bilakaera laburki birpasatu ondoren, ondorioztatzen denez, baldin eta nazioarteko legediak bereizkeriarik eza lehenetsi bazuen, eta bereizkeriaren debekua azkar samar lortu baldin bazen ere, eskubide indibidual eta kolektiboetan artean nahitaez behar den orekarako aurrerabideak -indibidualki nahiz estrukturalki- oraindik ere askoz polemikoagoak eta lortzeko zailagoak dira. Carmen Posadaren ustez²⁰, oraindik bada tarterik honako funtsezko baldintza hauek lortzeko:

- Gizon-emakumeen funtsezko giza-beharrak betetzeko eskatzen diren oinarritzko baldintzatzat hartzea giza eskubideak.
- Giza eskubideak gozatzerakoan, sexuaren arabera egun dauden aldean kausatzat hartzea botere, nagusitasun eta mendekotasun harremanak, bizitza publikoaren eta pribatuaren dikotomia eta sexuaren araberrako lan-banaketa.

16. Virginia MAQUIEIRA (2006)

17. Beijingo Konferentzian, 12 ekintza-arlo mugatzen dira: pobrezia, hezkuntza, osasuna, indarkeria, gatazka armatuak, ekonomia, erabakimena, berdintasunerako mekanismoak, giza eskubideak, komunikabideak, natur baliabideak eta ingurumena, neskatilak. 4. alorrean zehazten denez, emakumeenganako indarkeria emakumearen borondatearen kontra egiten den oro da, kalte fisikoa, sexuala edo psikologikoa sortzen duena, baita ere, senarrak egindako bortxaketa, mehatxuak, hertsatzea edo askatasuna nahierara kentzea, nola bizitza publikoan hala pribatuan. Honako hauek ere bai: familian adingabeei tratatu txarrak ematea edo haietaz abusatzea, lanean edo eskolan erasoak edo sexu-jazarpena egitea, emakumeen trafikoa, behartutako prostituzioa edo herrialde jakin bateko Estatu batek egindako edo egiten utzitako indarkeria oro. Gatazka armatuen alorrean (5. alorra), aitortzen da biktimia zibilak -gehienetan emakumeak eta haurrak- maiz borrokalarien artean izandako bajak baino gehiago izaten direla; babes-neurriei ekiten die, bai eta emakumeak gatazka eraldatzeko prozesu eta mekanismoetan txertatzeko neurriei ere.

18. Vienan, emakumeenganako indarkeria giza eskubideen urraketat hartu zen lehen aldiz, nahiz eta lehenengo nazioarteko tresna espezifiko urtebete geroago onartu zuen, Belem do Paran, Amerikako Estatu Erakundeak (OEA).

19. Halaber, Katarina Tomasevskik (2004) dioenez, "Giza eskubideak zer diren (eta zer ez diren) oker ulertzea bereziki da nabaria gobernuaren zainzapean dauden pertsonen egindako torturen eta emakumeek senarrendandik jasaten duten abusu fisikoaren arteko aldeari dagokionez. (...) [Kritikatu egin da] torturatua ez izateko askatasun-eskubidea interpretatzerakoan familia-indarkeria sartu ez izana. Porrota da hori, " Estatuaren zainzapean dauden giza-eskubideei dagokienez gobernuak dituzten betebeharren eta familia bateko kideen artean dauden botere-abusuei dagokienez gobernuak dituzten betebeharren arteko aldearen ondorioa".

20. Carmen Posada, ibid.

· Nazioko eta nazioarteko sistema juridikoak –Giza Eskubideen sistema barne- botere-mendekotasun harremanak birsortzen dituzten kontzeptuetan funtsatzen direla aitortzea; halaber, emakumeak beren eskubideak baliatzea eragozten dien desberdintasunak -gizartean eraikiak- zeintzuk diren ez dakitela aitortzea.

· Giza eskubideen kontzeptua osatzen badugu emakumeak barne hartuta eta sexuen artean de facto dauden desberdintasunak kontuan hartuta, kontzeptu horretan funtsatuta, helburuak, helmugak eta estrategiak zehaztea; alde batetik, sexuen arteko botere desorekak eta asimetriak murrizteko -funtsezko beharrak betetze aldera-, eta bestetik, emakumeak eskubidedun subjektu gisa kokatzeko, haien aukerak garatzeko eta haien autonomia lortzeko.

2. EREDU MASKULINO HEGEMONIKOA ERAIKITZEA: GIZA BALIABIDEEI FEMINISMOAREN ETA ANTIMILITARISMOAREN IKUSPEGIA APLIKATZEA

Maskulinitasun ereduen artean eta Giza Eskubideetan genero-ikuspegia txertatzeko egin den lanaren arteko lotura ezartzerakoan, antimilitarismoaren eremuan bakezaleek eta feministek egindako azterketa zehaztea aukeratu dugu. Zergatik? Hainbat arrazoiengatik:

a) Lehenik, feminismo bakezalearen ekarpenak arras erabilgarriak izan dira eredu maskulino hegemonikoa erakutsi, salatu eta eraisteko, eredu hori baitago emakumeen eta gizonen giza eskubideen eremuan munduan gertatzen diren urraketarik handienen jatorrian. Ikusiko dugunez, eredu horrek maiz emakumeen gorputza –eta gizon batzuen- gudu-zelai gisa erabiltzen du, “etsaia” menderatu eta uzertzeko.

b) Bigarrenik, guda-zelai honetan paroxismoa eramaten dira eguneroko bizitzan askoz ere gordeago sartzen diren elementuetarik asko, eta hala ere, giza eskubideen urraketa goriak dituzte, etxean emakumeen aurka egiten den indarkeriari dagokiona bereziki. Analista feministek eta bakezaleek “indarkeriaren continuum”a deritzote, “etxeko” indarkeriatik hasita, indarkeria belikoraino doana.

c) Hirugarrenik, azterketa antimilitarista eta feministak indar handia du proposamenak egiteko, maskulinitasun hegemonikoa eraisterakoan (eredu hori giza eskubideen urratzaile izaki) eta sozializatzeko eredu alternatibo batzuk -gure gizarteetan dauden berdintasun eta bakegintzarako idealetatik hurbilagoak- bilatzerakoan.

2.1. ANALISI FEMINISTAK BAKEGINTZARAKO EGINDAKO EKARPEN BATZUK

2.1.1. Indarkeriak ezagutaraztea

Eskuartearen dugun gaiari dagokionez, mugimendu feministaren eta bakezalearen ekarpen garrantzitsuetariko bat **gatazka armatuetan emakumeen giza eskubideen urratzeak ikustaraztea** izan da.

Gaur egun, giza eskubideen eta mugimendu feministaren ekintzaileen ahaleginari esker, oso ondo dakigu zeintzuk diren gatazketan emakumeen aurka erabiltzen den **zuzeneko indarkeria**-ren modu nagusiak. Azterlan interesgarriak daude bortxaketa masiboak gerra-arma gisa erabil-

tzeari eta horrekin lortu nahi dituzten helburuei buruz: larderia, mendekua, etsaia adoregabetzea, "beste aldeko" gizonak umiliatzea, bortxatzaileen "gorputz espiritua" tinkotzea, garbiketa etnikoaren estrategia, etab. Aurrerago helduko diogu gaiari.

Emakumeenganako indarkeria errefuxiatuen esparruetan ere gertatzen da, eta gerra ondoren ere bai, borrokalari izandako senar edo bikotekideen eskutik oraingoan.

Zuzeneko indarkeria honetaz gain, emakumeenganako **egitura-indarkeriaren** ondorioak ere oso dira argiak: munduko biztanleen erdia dira emakumeak, baina jabetzen % 1 baino ez dute; elikagaien % 50 ekoizten dute, baina munduko errentaren % 10 baino ez dute jasotzen; batez beste, gizonak baino ordu gehiago ematen dute lanean, etab.

Azkenik, **indarkeria kulturalak** zuzeneko eta egiturazko indarkeria justifikatzen laguntzen du, "milaka urteko tradizioen" izenean edo hainbat agindu erlijiosoren izenean, genitalen ablazio-praktika krudelak edo beste mozketak batzuk gertatzen direnean²¹.

Laburbilduz, feministen iritziz, indarkeria (hainbat modutan) baliatuz, gizonak botere-posizioetan kokatu ziren, eta herritartasun-eskubide guztiak lortu zituzten; emakumeei, aldiz, zaintza- eta artatze-zereginak izendatu zitzaizkien batez ere (indarkeriarik gabeak), eta eremu pribatuan baztertuta geratu ziren, erabakimen eta botere ardatz publikoetatik urrun.

2.1.2. Bake negatibotik bake positibora

Kontuan hartuta gure gizarteetako indarkeria-mota horiek (gatazka armatuetan areagotu egiten baitira), hirurogeiko hamarkadatik aurrera, mugimendu feministak analisi bat elikatu du, eta aldi berean, ontzat eman, non, bakearen nozioa emakumeenganako indarkeria mota oro barne hartu arte hedatzen duen, gatazka armatuetan gertatzen direnak ez ezik, gainerako indarkeria guztiak ere barne hartzeko.

Analisi feministari esker, bi kontzeptu formulatu dira, Johan Galtungek **bake negatiboa** eta **bake positiboa** izendatu dituenak. Lehen kasuan, gatazka armaturik ez dagoen egoeraz ari gara (normalean erabiltzen den zentzua da, "bake" hitza "gerra" edo "auzi" hitzen kontrara jartzen baita); **bake positiboaren kontzeptua**, berriz, askoz harago doa: bake positiboaren egoeran gatazka armaturik ez egoteaz gain, ez litzateke inolako indarkeriarik egon behar, mota batekoa ere ez -zuzenekoa, egiturazkoa, kulturala-.

Kritika feministak eta bakerako ikerketaren ekarpenek lortu zuten bakearen kontzeptua Nazio Batuen sisteman ere aldatzea, non nazioarteko lobby feminista emaitza aipagarriak lortzen hasi zen, Emakumeen Beijingo Mundu Konferentziaren ondoren (1995). Konferentzia horren Ekintza Plataforman, bakea emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari loturik -bereizi ezinik- dagoela aitortu zuen. Bost urte geroago, Segurtasun Kontseiluak 1325 Ebazpena hartu zuen, zeina bake-erakuntzan emakumeen zeregina nazioartean aitortzeko mugarri garrantzitsua bilakatu baitzen. Ebazpenean, Estatu kideei dei egiten zaie ekintzak abiatzeko lau arlo desberdin eta ekarri loturikoe-tan: bake-prozesuetan eta erabakimenean emakumeen partaidetza areagotzea; bakea iraunarazteko entrenamendua, genero-ikuspegitik; gatazka armatuetan eta gatazka ondorengo egoeretan emakumeak babestea; Nazio Batuen informazio-sistemetan eta datu-bilketan zeharka generoa sartzea, eta programak abian jartzea.²²

21. Beste iturri batzuen artean, ikusi:Carmen Magallón (2006), Irantzu Mendia (2009), Jeanne Vickers (1993).

22. United Nations (2005); Carmen Magallón (2006), 157-161. orr.

2.1.3. Giza segurtasuna gure segurtasuna da

Bakearen kontzeptua eta bake-eraikuntzan emakumeek izan behar luketen zeregina berrikus-terakoan, 80ko hamarkadan, feminismoak sakonki eztabaidatu zuen Nazioarteko Harremanetan eta Segurtasun Azterlanetan segurtasunari buruz gailentzen zen nozio tradizionala.²³ Nazioar-teko Harremanak ez dira neutralak, sakonki “generotuak” baizik; horregatik, analisi feminista galdera batzuetan zentratu da. Galdera horiek Giza Eskubideen doktrina- eta legegintza-markoa hedatzeko aldarrikapenak elikatzeke ere balio izan dute. Ikus ditzagun planteatuko galderak:

Nork definitzen eta interpretatzen du segurtasuna? Segurtasunari buruzko pentsamolde tradizionala nagusitasun maskulintik antolatu da –korronte intelektual gehienak bezala-; emakumeen esperien-zia, jakintza eta ikuspegia, berriz, aldi batera utzi dira edo gutxietsi egin dira, nahita eta sistematikoki.

Nola definitzen da segurtasuna? Ikuspegi tradizionalaren arabera –zeina antzinako Bake erro-matarretik baitator-, segurtasunak babesa esan nahi du, Estatuaren kontrako -kanpoko nahiz ba-rruko- erasoetatik babestea. Feminismoak egindako kritika nagusiaren arabera, definizio horrek ez du kontuan hartzen segurtasunaren mehatxu nagusia eta etengabea gizakien oinarrizko beha-rrak ez estaltzearen ondorioz sortzen dela batez ere. Horretaz gainera, ez ditu kontuan hartzen “pribatu”tzat jotzen den eremuan (esaterako, etxean) gertatzen diren giza eskubideen urratzeak.

Nola definitzen da bakea? Ikusi dugunez, gogoeta hori estuki loturik dago bakeari buruz nagusi den ikuspegia gainditzeko beharrarekin –zeren eta, ikuspegi horren arabera, bakea gerrarik eza baino ez da, eta auzien agerpen bortitzak eta agerikoak aztertu eta horiei aurre egitera mugatzen da-. Horren haritik, feminismoak “publikoa” eta “pribatua” nozioen arteko ohiko bereizketari aurre egin nahi dio, eta ondorioz, “gerra” eta “bakea” nozioei. Feministek **emakumeen aurkako zuzeneko indarkeriaren continuum-a** nabarmendu dute, alegia, gerra-garaian generoan oinarrituta baliatzen den indarkeria-tik hasita, bake-garaian egunero baliatzen den indarkeria matxistaraino doana. Eta egiaztatu dute bai egiturazko indarkeria bai kulturala emakumeen ongizate eta gaitasunaren aurkako mehatxu iraunko-rrago eta funtsezkoagoa zela kanpoko edo barneko ustezko “etsaiek” egindako eraso oro baino.

Noren segurtasuna? Esan dugunez, segurtasuna Estatuarekin estuki lotzen da, eta ondorioz, instituzioak eta erakundeak babesteari ematen zaio garrantzia. Aitzitik, ikuspegi feministak pert-sonak jartzen ditu erdi-erdian: zaurgarritasun handiengan dauden pertsonak babestu nahi dira, baina soilik “talde” pasibotzat edo biktimatzat hartu gabe. Orain arteko segurtasun-mekanismo nagusiek alde batera utzi dute genero-indarkeria eta botere-guneetatik urruti dauden talde eta populazioen kontrako indarkeria –hala nola herri indigenen aurka erabilitakoa-.

Nola eusten zaio segurtasunari? Ikuspegi errealistatik, batez ere logika militaristaren bidez eus-ten zaio segurtasunari; horren erakusgarri ditugu “armamentu-norgehiagoka”, “izuaren aurkako gerra”, “prebentzio-gerra” eta abar. Aitzitik, segurtasunera ikuspegi feminista eta bakezale beten arabera hurbiltzen bagara, militarismoa da pertsonen eta –bereziki- emakumeen segurtasuna-ren mehatxu handiena, zeren eta: a) balio patriarkalaren adierazpen gorena da; b) lotura sendoa dago militarismoaren eta sexismoaren artean; gizarte-gastuen baliabideak desbideratzea dakar; eta d) emakumeenganako indarkeriaren logika indartzen du, makro mailan zein mikro mailan.

Zein da sistemaren logika? Hurbilketa tradizionalan, metatze ekonomikoaren logika da sis-temaren euskarria. Nazioartean gailentzen den logika horren aurrean, feminismoak bizitzaren iraunkortasunaren logika defendatzen du, zeinak erdigunean pertsonen egon behar dutela be-rresten duen, berriz ere²⁴. Aurrerago jarraituko dugu gaiarekin.

²³. Feministek berriz interpretatutako segurtasun-kontzeptuari buruzko atal hori Irantzu Mendiarekin batera egin zen, HEGOA institutuak 2008an Giza Segurtasunari buruz antolatutako mintegi batean. Horri buruzko argitalpen bat prestatze-bidean da.

²⁴. Anna Bosch, Cristina Carrasco eta Elena Grau (2003).

2.1.4. Askotariko nortasunen balorazioa eta nortasun murriztaileari kritika...

Emakumeen giza eskubideen urratze gogorrenak “nortasuna”rekin zerikusia duten gatazketan gertatzen dira; “nortasun nazionala”ren irrika dela-eta “errekonkista”ren elementu sinbolikoa egoten da horrelakoetan. Gatazka mota hori elikatzen duten dinamika konplexuak deskribatu gabe, esan dezakegu “komunitatea” benetako edo alegiazko mehatxu baten aurka babestea izan dela historian zehar borrokara eta heriotzara pertsona gehien (gehienetan gizonak) eraman duen arrazoietakoa bat.

Gizonak defendatzaileak ziren; emakumeek, berriz, hainbat rol hartu dituzte beren komunitateetan. Komunitate horietako kide izan arren –kidekoak bezala-, gizonei ez bezalako jarrerak eskatzen zaizkie, eta bestelako erregulazioak aplikatzen. Hori emakumeen posizio paradoxikoari loturik dago: komunitatearen “barruan” eta “kanpoan” daude aldi berean. Hau da, emakumeak kolektibitatearen barruan “kanpokoak” eta “bertakoak” izatearen sinbolo dira aldi berean.

Sinbolo diren aldetik, emakumeek bere taldekoen ohorea ordezkatzeko dute (gizonak “beren” emakumeen ohorea defendatzera ateratzen dira, etsaiak mehatxatua baitago -benetan edo sinbolikoki-. Gogora dezagun gatazketan emakumeak bortxatzen direnean, askotan haien gizonak –emakumeak “babesten” jakin ez dutenak- umiliatzeko izaten dela). Aldi berean, komunitateak berak kultura eta tradizioa aitzakiatzat hartzen du “bere” emakumeak hainbat modutan kontrolatzeko, eta emakumeak, sinbolo direnez, ez dira atera behar taldearen arau hegemonikotik. Eta horrela, izugarrikeriak gertatzen dira, hala nola, adulterio giletzat jotako emakumeak harrika hiltzea edo oinarri-oinarrizko eskubideak urratzea, esate baterako, jantzeko, joan-etorrietarako eta hezkuntzako eskubidea, besteak beste.

Kide izatea generotuta dagoenez, emakumeak aldi berean komunitatearen sinbolo eta traidore potentzialaren sinbolo izatearen gatibu geratzen dira. Izaera hori argitara emateaz gain, analisi feministak agerian utzi du emakumeen segurtasunaren arriskurik handiena ez datorrela kanpotik -hala sinetsarazi nahi diguten arren-, talde barrutik baizik: askotan, kide izatearen lotura emozionalak dauden lekutik dator mehatxua, zeren eta emakumeengandik hurbilen daudenek baliatzen dute bortizkeriarik handiena. Ohorearen logikak eramaten ditu hainbat gizon beren bikotekideak zorrozki kontrolatzera, gizon horiek “beren jabegotzat” hartzen baitute emakumea (“joaten bazara, hilko zaitut”).

Laburbilduz, emakumeenganako arrisku fisikoa (eta psikologikoa) –kidego talde nagusikoa edo kanpokoak izan- orain gutxi arte, oso gutxitan eta oso eskas aipatu izan da segurtasun eta osasunari buruzko eztabaidetan, eta ondorioz, giza eskubideak babestearen eremuan.

Inposatutako –naturalizatutako- nortasunekiko arbuioa mugimendu feministaren arduraren nagusietako bat izan da beti. Chantal Mouffe-k, adibidez, nortasun esentzialistak egotea ukatzen du, emakumei ideia hau aplikatzeko: kanpokoak –askotarikoa eta kontraesankorra izaki- eraikitzen gaitu (“gertagarri loturiko nortasun nomada” aipatzen du²⁵). Banakoari nahi duen bezala definitzea ahalbidetzen dioten ahalduntze-prozesuak indartzean datza irtenbidea. “Emakume eta gizonentzat -Magallónen hitzetan- bakea defendatzea aukera bat da ... nortasun-gatazkaren horizontean markaturikoa: inposatutako nortasunetik gustuko ez duguna kritikatu behar da, eta garena eta izan nahi duguna balioetsi.”²⁶

25. Magallón (2006), 220. orr.

26. Magallón (2006), 230. orr. Nortasun-gatazkek emakumeen giza eskubideekiko duten eraginari buruz, egile feminista eta bakezaleen artean, oso interesgarriak dira Cynthia Enloe (1989, 2007, 2010) eta Cynthia Cockburnen lanak (1998, 2007).

2.2. MILITARISMOA: MASKULINOTASUN HEGEMONIKOA ERAIKITZEKO TRESNA

2.2.1. Gerra indarkeriaren continuum-ean, eta emakumeen giza eskubideetan duen eragina

Gatazka armatuetan emakumeen giza eskubideak urratzeari laburki helduko diogu berriz ere. Alde sinbolikoena aztertuko dugu, eta horren bitartez jakingo dugu zein den gure gizartean oraindik ere nagusi den maskulinitasun-eredua, zeinaren adierazpen muturrekoena militarismoan agertzen den.

Adierazi dugunez, emakumeen antolakundeek gerra-garaiko armatzat eta estrategiatzat katalogatu dituzte emakumeen kontrako eraso fisiko masiboak eta sistematikoak. Izan ere, agintari politikoak, armadak eta talde paramilitarrak eraso horiez baliatzen dira etsaien emakumeak eta gainerako biztanleak umiliatzeko, adorez gabetzeko eta haien erresistentzia-gaitasuna ahultzeko, eta horrela, horiekiko nagusitasun-gaitasuna eta boterea erakusteko. Emakumeen bortxaketa masiboaren fenomeno hau askoz larriagoa da garbiketa etnikoak deiturikoak egin diren gerretan edo arrazen arteko gorrotoa areagotu diren gerretan, hala nola, Jugoslavia ohian 1991 eta 1995 artetan gertaturiko gatazka armatuetan eta Ruandan 1994an gertaturiko sarraskietan. Tamalez, sexu -eta genero-indarkeria oraindik ere gerrako arma modura erabiltzen da egungo gatazka armatuetan, esaterako Sudango Darfur-en, Afganistanen edo Kongoko Herri Errepublikako Nord-Kivu aldean.

Gerretan gertatzen diren bortxaketak taldean egiten dira (hainbat soldaduk edo paramilitarrek emakume bera bortxatzen dute), publikoak dira (emakumeen senideen aurrean egiten dira, bortxaketan parte hartzen duten beste soldadu batzuen aurrean ...) eta bortxatutako emakumeak hil egiten dituzte. Bizirautea lortzen duten emakumeek, bortxatuak izatearen ondorioz, ondorio fisiko eta psikologiko izugarriak izaten dituzte (sexu-gaixotasunak, haurdunaldiak, abortuak, lotsa, erru-sentimendua, erasotzaileekiko beldurra...), eta gizartean ere ondorio larriak izaten dituzte (senarrek edo senitartekoek arbuia egiten dituzte, gizartean bakartuta geratzen dira, lana/diru sarrerak galtzen dituzte...).

Noski, gatazka armatuak amaitzean emakumeen aurkako sexu-indarkeriazko krimen gehienak zigorrik gabe geratzea pizgarri da emakumeenganako sexu-erasoak hedatzeko eta etorkizunean armaturik daudenek -edo beste gerra-testuinguru batzuetan- krimen horiek egiten jarraitzeko.

Emakumeen gorputza gudu-zelai gisa erabiltzea nagusitasun matxistaren paradigma bihurtzen da. Hedaturaz, "bake" garaian (bake negatiboa, lehenago ikusi dugun bezala), emakumeen sexu- eta ugalketa-eskubideen gaiari heltzean, Alicia Soldevillak esandakoaz konturatu beharra dugu: "gorputzetan estatuak, gizarteak, erlijioak, familiek eta merkatuek esku hartzen dute, eta ondorioz, emakumeen gorputzak botere-harremanen adierazpen bihurtzen dira. Horrela, emakumeen gorputzak eta sexu-aniztasunak proiektu autoritarioen edo demokratikoen erdigunean daude".²⁷

2.2.2. "Gizon militarra" eraikitzea, maskulinitasun hegemoniko gisa

Garai modernoetan, soldadutza -hots, Estatuak aginduriko indarkeria erabiltzeko ahalmena- herriartasunaren adierazpenetariko bat izan da gizonentzat (libreta militarra behar bezala eduki behar zen botoa emateko edo zenbait eskubidez baliatzeko). Hain justu ere gerra-garaian emakumeek egindako ekarpenari esker -lantegietan sartu baitziren mobilizatutako gizonezko langileak ordezkatzeko-, emakumeek botoa emateko eskubidea lortu zuten herrialde batzuetan, Lehen Mundu-gerraren ondoren (Ingalaterra, Eskandinavia) edo Bigarren Mundu-gerraren ondoren (Italia, Frantzia).

Gertakari horrek erakusten du historikoki gizartean balio handiagoa eman zaiola bizitza arriskuan jartzeari edo inori bizia kentzeari, bizia eman eta bizia gordetzeari baino, eta horrek ahalbidetu du hierarkizatze-prozesua, alegia, tradizionalki maskulinoa izan dena tradizionalki femeninoa izan denaren gainetik jartzea. Emakumeen giza eskubideen urratzearen jatorrian dagoen nagusitasun-sentimendua eraikitzeko zutabe nagusietako bat da aipatu hierarkizazioa. Virginia Wolf-ek ere este-reotipatutako maskulinitasuna eraikitzearen eta menderatzeko nahiaren arteko lotura aztertu zuen "Trois Guinées" eleberrian; nahi hori, behar izanez gero, indarkeria edo gerra bilakatu daiteke.²⁸

Connell-ek adierazten duenez, maskulinitasunaren eta indarkeriaren arteko lotura dirudiena baino konplexuagoa da. Instituzionalizatutako indarkeriak (adibidez, armadek darabiltena) maskulinitasun-mota bat baino gehiago eskatzen du. Genero-harremanak desberdinak dira jeneral batek erabili eta infanteriako soldatu batek erabili; izan ere, armadek berezita entrenatzen dituzte biak".²⁹

Gasteizkoak Kolektiboak, 2008an argitaraturiko "Los ejércitos humanitarios y la violencia sexista militar" azterlan bikainean, "gizon militarra" eraikitzeko mekanismoak aztertzen ditu zehazki. Horretarako, indarkeria mota bi erabili behar direla azaltzen dute.

1) Alde batetik, **indarkeria militar ofiziala**, gerrarako prestatzeko bideratua: gudarako prestatzeko ariketak eta praktika sinbolikoak, hala nola desfileak (armadek gizartea defendatzen dutelako ideia zabaltzeko erabiltzen dira). Entrenamenduaren funtzioa inor hiltzeko eta norbera hitzeko prestatzea da. Sozializazio sekundarioko prozesu hori diziplinaren bidez, indibidualtasuna deuseztatuz eta mortifikazio sistematikoaren bidez egiten da.

2) Baina **indarkeria paraleloa** ere behar da, hau da, soldaduek jasaten duten kalteen multzoa, defentsa prestatzeko esplizituki balio ez badute ere. Agintariek troparekiko duten arbitrariotasunez ari gara, gizonezko soldaduen arteko edo gizonezko soldaduen eta emakumezkoen arteko indarkeriaz, soldatu berriei egiten zaizkien iskezes (erabat sexualak izaten dira asko) eta emakumezko militarren kontrako sexismo-adierazpenez. Indarkeria horrek esperotako profila ematen ez dutenen bizitza aldatzen du, jasanezin egiteraino; bazterturik geratzen dira taldean, edo taldetik kanporatzen dituzte. Indarkeria paraleloa behar da indarkeria ofizialaren funtzioak osatzeko.³⁰

Gasteizkoak kolektiboaren arabera, indarkeria biak honako honetara bideratuta daude:

- Gorputzaren espiritua sortu eta indartzera, ohore-kode batean eta instituzio barruko solidaritate-kode batean oinarrituta, taldeko kide izatearen sentimendu sendo bat sortuz.
- Helmugako komunitate bat antolatzea, non arrisku eta zailtasun komunak bizitzen dituzten.
- Norberaren eta inoren sufrimenduaren aurrean bihozgabetzea.
- Indarkeria naturalizatzea.

Kultura militarren alderdi garrantzitsu bat da misoginia eta homofobia oinarrituta dagoela: maskulinoari buruz eskaintzen den kontzeptua, ez da femeninoaren desberdina, aurkakoa baizik (femeninoa arbuiatzeko). Ikusmolde horrek homofobia sortzen du, emagizona arbuiatzen duena (hau da, sinbolikoki, gizonean dagoen emakumezko izaera arbuiatzen du).³¹ Ez dago gogorarazi beharrik, armadan maskulinitasun edo femininitasun eredu tradizionalaren gisakoak ez diren pertsonak izaten duten patu tristea. Kasurik onenean, gayak eta lesbianak onartzen dira, baldin eta beren sexu-aukera ahalik eta gehien ezkututzen badute. Amerikar armadaren "Don't ask, don't tell" (ezer ez galdetu, ez ezer esan) politika entzutetsua gogora dezakegu; Obama presidentek problema ugari ditu hori ezeztatzeko.³² Baina kasurik okerrean, abusu itzelak eta jazarpina pairatu behar izaten dituzte, eta askotan erakundetik botatzen dituzte; hori gauzatzen dutenei, ordea, ez diete zigorrik ezartzen.

27. Alicia Soldevila, ibid. 28. Citada en Carmen Magallón, 214. orr. 29. Connell, 1995. Egileak berak ingelesez itzulia.

30. Gasteizkoak, 2008. 31. Gasteizkoak, 263 orr. 32. Ikusi prentsa, 2010eko urrikoa.

Baina, sexualitate “normalizatu”en eremuan ere (i.e. heterosexualitatea), sexismoak emakumezko soldaduei kontrol zorrotza ezartzen die; badirudi emakume horiek bi ereduren artean baino ezin daitezkeela egon: “puta” gisa edo “urdanga” gisa. Gauzak horrela, argi dago: emakumezko soldadu bat (mailaduna izan edo ez) kideek bortxatuz gero, “emakumearen errua” izango da, eta nekez lortuko du goikoen babes, agintari militarrek kezkatuago egoten baitira bortxaketak kanpoan izan dezakeen oihartzunaz, barruan nagusi den zigorgabetasunaz baino³³.

Badakigu kultura militarra abesti pornografikoez beterik dagoela, abesti horietan gizonen balentriekin lotzen direla sexu-indarkeria asko.³⁴

Entrenamendu militarretik guda-zelaiaren errealitatera igarota, Iraken egin berri den gerra eta armada aliatuek atzemandako preso irakiarrekiko izan zuten jokabidea dela-eta, munduari bira eman zioten irudiak ikusi genituen. Kasu honetan, ezagunena emakume baten argazkia izan zen, ezbairik gabe: Lynn England soldatu estatubatuarra, preso irakiar biluziak uhal batekin paseatzen agertzen zen; edo bata bestearen gainean biluzik eta gordinki pilatuta zeuden gizonen ondoan irribarrez agurka agertzen zen. Giza eskubideen kontrako indarkerien egilea emakumezkoa izatea interesagarri izan daiteke generoa aztertzerakoan.

Abu Graib bide-erakusle izan zen: etsaia erabat umiliatzeko, hura nola feminizatu eta gauza bihurtu erakutsi zuen. “Bestea” “etsai” gisa eraikitzearen ezaugarrietako bat da: sexudun objektu femenino bihurtzen da -sexu-objektu azken batean-, autoritatea, prestigioa kentzeko. Gizona bada, umiliatzea da xedea, zeren eta, definizioz, “benetako gizon bat” emakume ez dena da, “marikoi” ez dena. Beti bezala, helburua “besteari” ahalmena kentzea da, gero bestearen ahalmenaz jabetzeko (sinbolikoki eta benetan). Abu Graibeko argazkietan agertzen diren antzezpenen bidez, presoak animalien mailara jaitsi nahi ziren (musulmanak izaki, garrantzitsua da), eraso eta bortxatu zitezkeen izakien mailara, hau da, emakumeen mailara). Irudi horiek benetan are gehiago harritu gintuzten, emakumezko bat agertzen zelako eta torturatzaileei laguntzen zielako (beste soldadu guztiak gizonenak ziren); iseken jomuga izandako gizonen umilazio-sentimendua areagotzeko, ezbairik gabe. Hipermilitarismoaren adibide dira, emakumeak genero-amu gisa erabiltzen dituen³⁵, nahasteko eta lardaskatzeko³⁶.

Noski, esan berri dugunak ez du zerikusirik agintari militarrek guri -gizarteari- igorri nahi diguten mezuarekin. Komunikazio-politikan, gazteak erreklutatze xedez ematen duten mezuak dienez, armadan sartzeak “heldu egiten” laguntzen die gazteei, bizitza zer den ikasten, formatzen, eta etorkizunean lanpostu hobeak lortzen.

Izan ere, soldadutza –egon dagoen herrialdeetan- helduen bizimoduan sartzeko errito bezala saltzen da. Armadek beren “homo militarus” eredia berreraikitze jarraibideak zeintzuk diren ikusteko, Youtuben dauden iragarki militar batzuk ikusi besterik ez dago.

Armadan sartzeko gazteentzat egindako iragarkietan, adorea, abentura, expertise-a eta lider izateko gaitasuna nabarmentzen dira. Gizarteari erakusten zaizkion irudietan, gizatasun handiko soldadua-

33. Nazio Batuen soldaduek, “Kasko urdinak” sonatuek egindako sexu-indarkeriaren kasuak dira gehien ezkatatu direnak. Hainbat txostenetan salatu ziren indarkeria horiek; Gasteizkoak kolektibo antimilitaristak gai horri heltzen dio bere azterlanean, Nazio Batuen agintari militarrek emandako erantzun eskasa salatzeke.

34. Gai honi buruz, Gasteizkoak kolektiboarenaz aparte (bereziki 265-266 orr. eta hurrengoak), hainbat egile aipa daiteke. Berriz ere aipatuko ditugu Carmen Magallón, Cynthia Enloe eta Cynthia Cockburn. Ikusi bibliografia orokorra.

35. Honekin ez dugu esan nahi England soldadua eta beste emakume egile batzuk beren egintzen erantzule ez direnik (berriki irakurri ditugu armada israeldarreko emakume batek preso palestinarrei buruz egindako adierazpen umiliagarriak, baita argazkiak ikusi ere), baizik eta, indarkeriazko sozializazio-eredua duen kultura hipermilitarizatu batean, esperotako jokabidera moldatzeko presioa gizonentzat adinako gogorra dela emakumeentzat ere.

36. Gasteizkoak, ibid, 284.orr. Abu Graib-ren gaiari buruz, Robin L. Riley et al (2008) ere ikusi.

ren irudia zabaltzen da, errefuxiatutako umeak besoetan dituztela, tokiko herritarrekin futbolean jokatzeko, hau da, soldatu onberak dira, babesleak. Eta berdintasunaren gotorleku bihurtzen direla diruditenak agintari politikoak eta armada profesionaletako militarrek izaten dira, eta soldadu eskasiagatik arduratuta, etorkizuneko emakumezko soldaduek erakartzeko iragarkiak ematen dituzte telebistan, zeregin militarra ama izatearekin bateragarria dela ziurtatzeko: "militar izateak ez dizu eragozten emakume izatea. Indar armatuetan berdintasuna egiazkoa da zu bezalako 15.000 emakumerentzat. Soldadu eta aukera berdintasuna, berdintasunak ez dizu eragozten ama izatea eta.... militar izatea. Indar armatuak: zuk nahi duzun aldaketa."³⁷ Hori da mezua. Oso bestelakoa da sexu-jazarpena jasan duten edo kideek edo goikoek bortxatu dituzten emakumezko militarren errealitatea.

Asko zehaztu gabe, atal hau ixteko, beste talde armatu batzuetan dauden emakumeen egoera aipa dezakegu, hala nola, gerrilletako edo talde paramilitarretako emakumeena. Emakume gerrillariak –eta horien borrokarekin bat egiten duten emakumeek– esaten dutenez, gerrillan sartzean burujabe bihurtzen dira, eta kantinera edo erizain dabiltzanean ere, eraikitzen duten proiektu kolektiboa zeregin horien izaera etxetiarretik harago doa. Haien ustez, burujabetza iraultzaren bidez –edo nazio askapenaren bidez– etorriko da, eta gerraren ondoren, emakumeek erantzukizunpostuak lortuko dituzte, bai eta jomuga duten aurrerabide politiko eta sozialak ere. "Ilusioa baino ez!" erantzuten dute beste feminista batzuek: askapenerako armadetan, emakumeak ez daude bereizkeriatik libre, horietan oso sexu-dinamika tradizionalak baitaude oraindik ere. Kalashnikov bat eta haurtxo bat besoetan dituela, emakume gerrillariaren irudi erromantikoak ideal patriarkalak eta militaristak betikotzeko balio du. Emakumeak agindu-postuetara iristea gehiago izaten da urgutzia militar baten ondorioz, ideal askatzaile baten emaitza baino; izan ere, betiko moduan, ideal horiek "azken garaipena" lortzearen barnean geratzen dira. Latinoamerikako hainbat herrialdetako esperientziak erakusten duenez, emakume gerrillari askok "sukaldera itzuli" behar izan zuen, enplegua eta erantzukizun publikoak desmobilizatutako gizonen esku utziz³⁸.

3. FEMINISMO ANTIMILITARISTAK MASKULINOTASUNAREN EREDU ALTERNATIBOAK ERAIKITZEKO EGIN DITUEN EKARPENAK

3.1. INDARKERIA ETA INDARKERIAZALEAK DESNATURALIZATZEA ETA DESMITIFIKATZEA

Maskulinitasun hegemonikoa deseraikitzeke prozesuan, eragozpen sendo batekin topo egiten dugu: indarkeria naturalizatzearekin. Feminismoak salatu duenez, indarkeria naturalizatzea tresna filosofikoa eta politikoa da, emakumeak diskriminatzeke erabiltzen dena³⁹.

Bakezaleek nabarmendu dute beharrezkoa dela indarkeria desnaturalizatzea, sexuak desnaturalizatu ahal izateke. Magallónek gogorarazten digunez, "emakumeak eta bakea sinbolikoki batzean, politikatik at geratu ziren biak"⁴⁰. Azpimarratzen duenez, garrantzitsua da emakume bake-

³⁷. Espainiako Indar Armatuen telebista-iragarkia. Youtuben ikusgai: www.youtube.com/watch?v=URB9AnoaeI8. Espainiar armadako aukera-berdintasunari buruzko beste iragarki bat: www.youtube.com/watch?v=9usUob9y07A

³⁸. Normalean, borrokalari ohien eta horien seme-alaben beharrak ez dira kontuan hartzen bake-akordioak sinatzeko negoziatutako baldintzetan. El Salvadorren, adibidez, gerrillari izandako emakumeek, han bizitako prozesuarekin ilusioa galduta, Las Dignas talde feminista sortu zuten, beren esperientzia osatzeko eta beren aldarrikapenekin aurrera egiteko. Gai honi buruz, ikusi Norma Vázquez, adibidez (1996,2000).

³⁹. Ikusi, esaterako, Amelia Valcárcel (2004); Celia Amorós y Ana de Miguel, Eds. (2005). "misoginia erromantikoa" derizotenaren ahalegina dokumentatu dute, alegia, ordena naturalean sexu-hierarkia bat eraikitzeke, non emakumeen gutxiagotasun soziala justifikatzen zen eta eremu pribatuan ugalketa-rolerako baztertzen zituen.

zalea/gizon indarkeriazalea binomioa salatzea, estereotipoak indartzeko eta genero biak aldatu eta eraldatzeko gaitasuna ukatzeko baino ez baitu balio.

Indarkeria desnaturalizatzeko ahaleginarekin batera, heroiak desmitifikatu behar ditugu, al-daretik jaitsi behar ditugu; Virginia Woolfek inork baino hobeto azaltzen du, *Trois Guinées* liburuan: "mende guzti hauetan, emakumeak ispilu izan dira, gizonaren tamaina naturala bikoiz-tuta islatzeko gaitasun magikoa eta zoragarria duen ispilu. Ahalmen hori gabe (...), gure gerre-tako loriak ezezagunak lirateke, (zeren eta) ispiluak ezinbesteko dira ekintza bortitz edo heroiko ororako".⁴¹ Emakumeek gerra eta indarkeriazaleak goستن jarrai ez dezaten egindako dei argi hori Beltzezko Emakumeen ekintzaileek ere errepikatu zuten, umorea erabiliz. Urte asko ez dela, Balkanetako gerretako desertoreei monumentu bat jasotzea erabaki zuten, batetik, kul-tura gerrazalea eta herrialde horretan -oraindik ere- dagoen zigorgabetasuna salatzeke, gerra-kriminalak heroi militar bihurtzen jarraitzen baitute; eta bestetik, herritarrei aditzera emateko heroiak, agian, ez direla guk halakotzat jotzen ditugunak, borrokara joateri edo gerra babesteari uko egin ziotenak baizik, kausarekiko traidoreak, alegia.

3.2. DESOBEDIENTZIA BALIOESTEA

Bakezaleen gomendio hori kultura militarren eta gizartea militartzearen aurkako antidoto mo-duko bat da, jokabideetan matxismo-maila bati eusten laguntzen dioten elementuetariko bati aurre egiteko.

Azken urteetan, Estatu espainiarrean soldadutzaren kontra egin den intsumisio-kanpainak des-obedientzia zibilaren estrategia ezagunak erabili ditu (Ghandiren tradiziokoak), bere mezua za-baltzeko eta maskulinitasun militaristaz bestelako eredu batzuk eskaintzeko.

Beste batzuek desobedientziarako hezteak planteatu dute, edo Jesús Jaresek zioen moduan, "bakean ez egoteko" hezi, gogoraraziz ezingo litzakeela tiraniarik ezarri obedientzia itsurik gabe eta gobernatuen isileko laguntzarik gabe. Historian egoera asko aurki dezakegu, non gaitasun batzuk -hala nola leialtasuna, diziplina eta norbere burua sakrifikatzea- negatiboki sustatu ziren, sarraski-mekanismoei eta diktadurei bide emanez.

Horren aurrean, indarkeriarik ezaren filosofia eta praktikaren bidez, matxino eta disidente izateko ahalmena eta espiritu kritikoa bultzatu nahi izan dira, baita gatazkak indarkeriara jo gabe eraldat-zeko gaitasuna ere. Feminismoari buruz esaten denez, azken 200 urteetan odol-tandarik isuri gabe eraginik handiena lortu duen mugimendu soziala da, indarkeriarik gabeko metodoak erabili baiti-tu beti. Mugimendu desobeditzaile nagusia delako ere esan daiteke, patriarkatuak inposatutako genero-rolen aurka matxinatzea baitu ezaugarri. Hala dio Euskadiko Biltzar Feministen Koordi-nakundeak 1993ko martxoaren 8rako hartu zuen lema: "Intsumisioa Nahitaezko Familia Zerbit-zuari". Hala esan zuten Belgradeko Beltzezko Emakumeen taldeko ekintzaileek, gerraren aurkako 20 urteko borrokari buruzko memoria -Beti Desobeditzen!- argitaratu zutenean.

3.3. BARRUAN DUGUN ETSAIA SUNTSITZEA

"Bestea" aurkari izatetik etsai bihurtzea beharrezko baldintza da gerra bat egiteko. Etsairik gabe, gerrak ez luke funtsik. Ez dezagun ahantz, kultura matxistaren barruan, ahulenen kontra jotzea ez dagola nahitaez ondo ikusia: teoriarik, "norbera baino txikiago den inor ez da jotzen". Hortaz, emakume baten kontra (ikuspegi sexista baten arabera, "ahulago" denaren kontra) indarkeria

40. Carmen Magallón (2006), 208. orr. 41. Magallónen aipatua (2006), 215. orr.

erabiltzeko, harengandik sinbolikoki urrundu beharra dago, eta ez da emakumetzat hartu behar, "etsaitzat" baizik, "beste aldeko" kidetzat. Hau da, inor hiltzera eta norbera hiltzera motibatzeko, etsaiaren figura gogor eraiki behar da, ahalik eta monolitikoen. Gustuko ez ditugun ezaugarriak dituen pertsona oro edo pertsona-talde oro jotzen da etsaitzat, nagusi den nortasunarekin bat ez datorren oro. Eta talde bereko norbaitek etsaia eraikitzen lagundu nahi ez badu, hori ere "beste" taldeko egiten dute, kausarako traidore bihurtzen da. Eta hedapenez, matxinatzen den emakume "propioa" ere, traidore bihurtzen da, tratatu txarrak ematen dizkionaren etsai.

Mekanismo suntsitzaile honen aurrean, ekintzaile bakezaleek argudiatzen dutenez, norbere taldekoak kritikatzeko ausartu beharra dago, jarrera monolitikoak hausteko, eta kontuan hartu beharra dago "aurrean" ditugun pertsonen sufrimendua eta beharrak, gerran beste aldean daudenena; horrela hartuko ditugu aurkaritzat, ez etsaitzat. Eztabaida hori funtsezkoa da zenbait ikaskuntza eraisteko; izan ere, ikaskuntza horien ondorioz, zenbait gizonak mehatxutzat hartzen dute beren autoritatea zalantzan jartzea, eta ondorioz, indarkeriazko jarrerak hartzen dituzte beren buruak defenditu eta berresteko.

3.4. ZAURGARRITASUNA ONARTZEA

Público⁴² aldizkariaren editorial batean (2009ko maiatza), A gripearen "pandemia"n bete-betean geundela, Carmen Magallónek "zaurgarritasuna onartzea"ren erronka planteatu zigun, hau da, "sakonki onartzea zaurgarritasuna ez dela egoeraren araberakoa, gizakiaren ezaugarri bat baizik, zeinetatik bizitzarako ondorioak atera daitezkeen, baita politika publikoetarako ere, nazioarteko gatazkei eta indarkeriei aurre egiteko, bereziki".

Zaurgarritasun eza gurtzeak (badakigu gure buruak babesten, garaiezinak gara) triskantza handiak eta giza eskubideen urratze izugarriak eragin ditu gatazka-egoeretan. Egia da. Baina egunerokotasunean ere, zaurgarritasun ezaren bilaketa eta sentimendua maskulintzat kodifikatuta dago. Gizonezko gazteak, gizartean gizon izateko bidean, etengabe bultzatzen dira mugei desafio egitera eta arrisku-jokabideak izatera; horiek bakarka zaurgarritasuna ukatzeko moduak dira, zaurgarritasuna ahultasunarekin lotzen baita, eta, argiki, femininotasunarekin ("ez izan eme"). Aldiz, Carmen Magallónek gogorarazten digunez, "zaurgarritasuna ukatzen ez duen pentsamendua, alegia, zaurgarritasuna onartzen duena, umeak eta gaixoak zaintzeko lanen materialtasunetik sortzen da, historikoki emakumeen esku egon den zereginetik". Emakumeen esperientzia historikoak gutxietsita dauden artean -diosku-, edozein lider politikok zail du zaurgarritasuna onartzea eta gutxietsita ez geratzea, "belatzen" ustezko jokabide kementsuen aurrean "biguna" delako irudia eman gabe. Baina, zeren bitartez aitortzen da kemena? "Zaurgarritasuna koherentekei onartzeak indar handia erakusten du" Magallónen hitzetan. Proposamena, beraz, zaintzaren balioak eta praktika unibertsal egitea da, horrela garatuko baita, besteak beste, enpatia, "gizaki batek bestearen minaren aurrean duen ulermena" bermatzen duena⁴³. Gizonek eremu horretan dagokien erantzukizuna bere gain hartzen badute, emakumeek ez diete uko egin beharrik izango beren printzipio feministei (ez femeninoak), alegia, maitatzeko, txeraz zaintzeko eta emozioak adierazteko printzipioei, besteak beste. Printzipio horiek Giza Eskubideen kulturarako ongarririk emankorrenak dira, beste edozein baino gehiago.

41. Magallón, Carmen, 2009: "Asumir la vulnerabilidad". Público-n, maiatzak 3, 6. orr.

42. Ibid, 199. orr.

BIBLIOGRAFIA

- Amorós, Celia y Ana de Miguel, Eds. (2005): Teoría feminista: de la ilustración a la globalización, Volumen 1: de la Ilustración al segundo sexo. Minerva Ediciones, Madrid.
- Bedregal, Ximena (2006): "Virginia Woolf y su vigente análisis sobre la guerra". Publicado en Insurgente, disponible en la web de Tortuga, Grupo Antimilitarista ElxAlacant, en: www.nodo50.org/ortuga/virginiawoolftresguineas
- Blanchard, E. (2003), "Gender, International Relations and the Development of Feminist Security Theory". En Journal of Women in Culture and Society, vol. 28(4), University of Chicago.
- Brock.Utne, Birgit (1988): "The Development Of Peace And Peace Education Concepts Through Three UN Women Decade Conferences". En: Alger Chadwick and Michael Stohl, eds: A Just Peace Through Transformation, Westview Press, Boulder, pp. 170189.
- Cockburn, Cynthia (1998). The Space Between Us. Negotiating Gender and National Identities in Conflict. Zed Books, London.
- Cockburn, Cynthia (2007): From Where We Stand. War, Women´s activism and Feminist Analysis. Zed Books, London.
- Colectivo Gasteizkoak (2008): Los "ejércitos humanitarios" y la violencia sexista militar. Zapateo, VitoriaGasteiz.
- Consejo de Seguridad Naciones Unidas (2000): Resolución 1325, 31 de Octubre
- EmakundeInstituto Vasco de la Mujer (2008): Los Hombres, la igualdad y las nuevas masculinidades. Emakunde, VitoriaGasteiz.
- Enloe, Cynthia (1989): Bananas, Beaches and Bases. Making Feminist Sense of International Politics. Pandora, London.
- Enloe, Cynthia (2007): Globalization and Militarism. Feminists Make the Link. Rowan – Littlefield Publishers, inc. Plymouth.
- Enloe, Cynthia (2010): Nimo´s War, Emma´s War. Making Feminist Sense of the Iraq War, University of California Press, Berkeley.
- Fisas, Vicenç (1998): Cultura de paz y gestión de conflictos. AntrazytUNESCO nº 117, Icaria, Barcelona.
- Folquera, Pilar., "La equidad de género en el marco internacional y europeo" en V. Maquieira (ed.), Mujeres, globalización y derechos humanos, Cátedra, Madrid, 2006
- Galtung, Johan (1969): "Violence, Peace and Peace Research". En: Journal of Peace Research, vol. 6, Nº3, pp. 167191.
- Galtung, Johan (2003): Paz por medios pacíficos. Paz y conflicto, desarrollo y civilización. Bakeaz – Gernika Gogoratuz, Bilbao, GernikaLumo.
- Instituto Interamericano de Derechos Humanos (2008): Guía de capacitación de derechos humanos de las mujeres, San José, Costa Rica. Disponible en: http://www.iidh.ed.cr/BibliotecaWeb/Varios/Documentos/BD_125911109/guia_capacitacion_mujeres.pdf

- Jares, Xesús R. (1988): Educar para la paz. Concello de Santiago, Papeis de educación, nº 9, Santiago de Compostela.
- Jares, Xesús R. (2004): Educar para la paz en tiempos difíciles, Bakeaz, Bilbao.
- Lagarde, Marcela (1998): "Identidad de género y Derechos Humanos. La construcción de las humanas". En: Guzmán Stein, Laura y Gilda Pacheco Oreamuno (Comps.). Estudios Básicos de Derechos Humanos IV. Instituto Interamericano de Derechos Humanos / Comisión de la Unión Europea. Costa Rica. pp. 85125.
- Maalouf, Amin (2004): Identidades asesinas. Alianza Editorial, Madrid.
- Magallón, Carmen (2006): Mujeres en pie de paz, ed. Siglo XXI, Madrid.
- MAQUIEIRA, Virginia., "Mujeres, globalización y derechos humanos" en V. Maquieira (ed) , Mujeres, globalización y derechos humanos, Cátedra, Madrid, 2006: 5253
- Mendia Azkue, Irantzu (2009): "Aportes sobre el activismo de las mujeres por la paz". En: Cuadernos de Trabajo de Hegoa, nº 48, UPV/EHU, VitoriaGasteiz.
- Miguel, Ana de: Los feminismos a través de la historia, capítulo II de Ana de Miguel sobre el "Feminismo moderno", accesible en la web de Creatividad Feminista.
Fuente: <http://www.nodo50.org/mujeresred/feminismo.htm>
- Muñoz, Francisco A. (2001): La paz imperfecta. Collección Eirene, Editorial Universidad de Granada.
- Nash, Mary y Susanna Tavera, Eds.(2003): Las mujeres y las guerras. El papel de las mujeres en las guerras de la Edad Antigua a la Contemporánea. Antrazyt 189, Icaria, Barcelona.
- Posada, Carmen: Derechos humanos y género.
Disponible en: www.mundubat.org/documentos/200734.doc
- Riley, Robin L., Chandra Talpade Mohanty y Minnie Bruce Pratt, Eds (2008): Feminism and War. Confronting US Imperialism. Zed Books, Londres.
- Soldevilla, Alicia (2008): Derechos Humanos y género.
En: http://www.extension.unc.edu.ar/derechos_humanos_y_genero_a_soldevilla.pdf
- Sousa Santos, Boaventura de (2002): "Para uma sociología das ausencias e uma sociología das emergencias". En: Revista Critica de Ciencias Sociais 63. Octubre 2002Pagina 237280. Traducción parcial al español en: Las feministas y el sociólogo, Revista Cotidiano Mujer, Nº39, 2003. Disponible en: www.cotidianomujer.org.uy/
- Tomasevski, Katarina (2004):" Los derechos de las mujeres: de la prohibición a la eliminación de la discriminación". En Revista Aportes Andinos, nº12, Género y derechos humanos.
Disponible en: www.uasb.edu.ec/padh
- Vázquez, Norma; Cristina Ibáñez y Clara Murguialday (1996): MujeresMontaña. Vivencias de guerrilleras y colaboradoras del FMLN. Madrid: horas y HORAS.
- Vázquez, Norma, (2000): Las Mujeres Refugiadas y Retornadas, Publicidad Ramos.
- Vickers, Jeanne (1993): Women and War. Zed Books, London.



Eusko Jaureritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

LANTOKIKO SEXU ETA SEXUAGATIKO JAZARPENA ETA GIZONEZKOEN IDENTITATEEN ERAIKUNTZA

GEA 21

2009

AURKIBIDEA

1.Lantokiko sexu jazarpenari buruzko topikoak desegitea	25
1.1. Definitu aurretik kokatzea	25
1.2. Hiru alderdi topiko: boterearen, arauaren eta sexualitatearen arteko gurutzaketa	26
1.3. Jazarpena objektu edo adierazle patriarkal moduan	28
2.Jazarpena neurtzearen arazoa: fenomenoaren azalpena eta hedadura Espainian eta European	29
2.1. Arazo estatistikoa: zer neurtzen dugu?	29
2.2. Diskurtsoaren arazoa: esperientzia eta esperientziaren interpretazioa	30
2.3. Sexu jazarpenaren hedadurari buruzko zenbait datu	31
2.4. Jazarpena gizonen artean	34
3. Azalpenak: lanaren mundua eta feminitatea eraikitzea	35
3.1. Lanaren mundua eta feminitatea eraikitzea	35
3.2. Prestakuntza baxuko lanpostuak: bazterkeriaren esperientzia	36
3.3. Inguru feminizatuak: ezkutuko sexualizazioa	37
3.4. Inguru maskulinizatuak: ikusezintasunaren prezioa	38
3.5. Profesionalak: rola berriz interpretatzea	38
3.6. Zuzendaritzak: berdintasunaren irudipena	39
4. Azalpenak: lanaren mundua eta maskulinitatea eraikitzea	40
4.1. Gizon profesionalak: desberdintasun egokia	40
4.2. Prestakuntzarik gabeko gizonak: feminizatzearen beldur	41
5. Erantzunak mundu errealean	41
5.1. Ekintza sindikala: jazarritako emakumeari sinestea eta aukeratzen uztea	42
5.2. Ekintza sindikala: lantokiak eta lantokiko kultura aldatzea	43
6. Maskulinitateari, feminitateari eta jazarpenari buruzko ondorioak	44
7. Bibliografia	45

1. LANTOKIKO SEXU JAZARPENARI BURUZKO TOPIKOAK DESEGITEA

1.1. DEFINITU AURRETIK KOKATZEA

Lehendabizi, lan munduan eta hortik kanpo zabalduko eta emakume askok ezagutzen eta jasan duten esperientzia da sexu jazarpena. Baina kategoria tekniko-juridikoa eta termino mediatikoa ere bada. Sortu berri diren beste kontzeptu asko bezala, jokabide oso bestelakoak bildu eta mugatzen saiatzen da, larritasun eta ondorio desberdinetakoak, eta hor intersubjektibitatea oso garrantzitsua da. Hori dela eta, laurogeiko hamarkadatik, Estatu Batuetan ospe anbigua izaten hasi zenetik, zaila izan da mugatzea edo definitzea.

Sexu jazarpenaren «irudi publikoa» berrikusi aurretik, garrantzitsua da gizartearen fenomeno moduan dituen zenbait ezaugarri aipatzea:

1.1.1. Sexu jazarpena lantokian gertatzen da

Hau da, erakundeen teoria klasikotik hasita, pribatua kanpo uzten den inguruan gertatzen da. Industria gizarteetan gizarte bizitza antolatu zuen mundu sinboliko burgesak bi arlo banatu zituen: publikoa eta pribatua, eta bi ekonomiarekin (industria ekoizpenarekin eta etxearekin), bi esparru moralekin (elkarrekikotasuna eta berdintasuna legearen aurrean eta maitasuna eta familiari ematea), bi espazio eta denborarekin –bulegoa edo fabrika eta haren ordutegiak eta diziplinak ordutegirik eta karrerarik gabeko etxearen aurrean– lotu zituen. Baina, batez ere, bi subjektu desberdinekin: idealki, gizon ekoizle eta hornitzailearekin eta etxeoandrea den emakumearekin.

Irudi hori ez zen inoiz garbia izan –beti egon dira etxetik kanpo lan egiten duten emakumeak–, eta gainera, dagoeneko desagertu da bereizketa, baina eragin handia du lana zer den eta zer ez den bereizteak, eta, noski, emakumea eta gizona zer diren.

Zentzu horretan, jazarpena anormaltasuna da: mundu pribatuaren elementua, sexualitatea, mundu publikoan sartzen dena, ordaindutako lanaren munduan hain zuzen. Izaera anormal eta eskandalagarri horrek kontzeptuaren historian eta jazarpenari buruz dugun irudian eragina du. Halaber, oso betekizun garrantzitsua du fenomeno horren aurrean ditugun jarreretan.

1.1.2. Jazarpena genero indarkeriarekin lotzen da

Zalantzarik gabe, sexu jazarpena, jokabide agresibo, beldurgarri eta etsaitasunezkoa den aldetik, indarkeria mota bat da. Eta ez dago zalantzarik jatorriz sexismoarekin lotuta dagoela. Emakumeak mespretxatzea edo haien balioa gutxietzea da maila analitikoan bakarrik desberdinak diren zenbait jokabide sortzea laguntzen duena: kaleetan arrotzek egindako indarkeria; indarkeria etxean; indarkeria edo jazarpena lantokian. Haien helburua bera, hala ere, ñabardurak, sakonki, eta batzuetan tragikoki, garrantzitsuak dira: beste gizaki bat menderatzea eta mendetasun hori sentitzea, norberaren botereaz gozatzea.

Hala ere, indarkeriaren gaiarekin lotzea ez da erraza: Indarkeria sexistaren larritasuna eta garrantzia hain da handia eta oihartzun mediatiko eta politikoa hain dira handiak, non agenda publikoa markatu eta beste gai batzuk «kutsatu» baitituzte. Zenbait eragin positiboak dira: «genero indarkeriaren politika» bat egoteak, arlo batzuetan zapaltzeko zenbait modu daudela erakutsi du, baliabideak jarri ditu biktimen eskura, lehen arazo horiek ikusten ez zituzten gizarte talde asko sentsibilizatu ditu.««

Baina beste eragin batzuk, gure ustez, negatiboak dira: indarkeriarekin lotzeak gertaeren larritasuna aurrez mugatzera behartzen du, eta bazterkeriazko edo emakumeen askatasuna mugatzen duten portaera asko, beste gertaera batzuen larritasunaren aurrean txikiak diruditenak, arintzen ditu. Horrez gain, arazoei lege eta zigor erantzunak emateko joera indartu du. Joera hori, jazarpenaren kasuan, sortu zenetik dago eta neurri handi batean kalte egin dio. Zigor baliabide horren ondorioa da erantzun egoki bakarra duela: jazartzen duena salatzea, ikusiko dugun moduan, emakumeen erantzunak ugariak izan direnean; baita askoz ere moldakorragoak ere.

1.2. HIRU ALDERDI TOPIKO: BOTEREAREN, ARAUAREN ETA SEXUALITATEAREN ARTEKO GURUTZAKETA

Bigarrenez, iritzi publikoaren aurrean agertu ohi den sexu jazarpenaren zenbait ezaugarri berrikusi behar dira. Irudi hori zalantzan jartzea definizioa okertuko du agian, baina garrantzitsua da jazarpena gizarte fenomeno moduan kokatzea objektu tekniko moduan mugatzea baino; gutxienez, oraingoz.

1.2.1. Jazarpena nagusikeria moduan

Jazarpenaren irudi topiko eta mediatikoaren arabera, sexu desira asetzeko nagusikeriazko jokabidea da. Nagusikeria hori hierarkiarekin lotu ohi dute. Hau da, koadro topikoan, gizonezko nagusi batek emakumezko langile bat presionatzen du sexua lortzeko. Ikerketa feministek ideia hori beste modu batera esateko joera dute, eta honela adierazten dute: «gizonezko batek, edozein dela bere posizioa, sexua erabiltzen du emakumezko langile baten aurrean boterea lortzeko».

Ikusiko dugun moduan, ideia oso interesgarria da eztabaidatzeko. Kritikarik ez duen iritzia hau da: sexu desirak badaude –ziurtzat jotzen da– eta legezkoak dira, baldin eta beste pertsona proposamen, aurrerapen edo txantxari zintzotasunez erantzuteko, hura errefusatzeko edo onartzeko egoeran badago; hau da, berdintasun egoeran badago.

Kideen arteko sexu jazarpena ezin zaio esan, zenbait muga gainditzen ez badira salbu; indarkeria fisikoarenak, esaterako. Jazarpenaren definizio guztietan jazarleak kideak, bezeroak edo mendeak diren egoera jasotzen badira ere, irudi horrek diskurtsoetan jarraitzen du, eta gizarte balio handia du. Gizon eta emakumeen arteko harreman «normalak eta onak» alde batera uzten dituelako eta jazarpena ezohiko gertaeratzat hartzen duelako du balioa. Beraz, sexua eta boterea legezkoak dira, baina ez dira nahastu behar.

Ikuspegi horrek ez du kontuan hartzen boterea mota guztietako harremanetan dagoela, eta sexua hierarkiaren osagai bat ere badela. Ikusiko dugunez, sexu jazarpena gertaera baino baliabidea da, gizonezkoak eskura duten aukera eta zenbait baldintzatan erabil dezaketena, helburu desberdinak lortzeko. Emakumeek baliabide hori ez izatearen arrazoia aurrerago azalduko dugu.

1.2.2. Jazarpena objektu tekniko juridiko moduan

Auzitegietan hasi zen hitz egiten jazarpenari buruz. Jokabidea betidanik egon da, noski, baina haren tipifikazioa ez zen egin lehendabizi pentsamolde soziologikoan edo lan harremanak azaltzen dituzten teoretan; delitu edo falta zigorgarri moduan aurkeztu zuten.

Segurtasun juridikoak zigor daitezkeen portaerak argi definitzera eta mugatzera behartzen du. Jokabide bat lan zigorren edo zigor penalen bidez zigortuta badago, pertsonak zehazki zer dagoen debekatuta jakin behar dute. Jazarpena giza harremanen konplexutasunean edo ambiguitasunean kokatzen denez, zaila izan da beti zigortzea, eta gaia berez ambigua izatea leporatu diote.

Horregatik, sinplifikatu nahi dute, eta jazarpenzat har daitezkeen jokabideen zerrenda bat ekarri. Baina ez dira portaera objektiboak, keinu berak balio desberdina duelako kulturen, testuinguruen eta protagonisten arabera. Elementu subjektibo bat ekarriko da, beraz: jazarpena da emakumea jazartzen ari direla sentiarazten duena. Zenbait arauk zioten emakumeak «sentikortasun normala» izan behar zuela.

Horrela, zenbait gai auzibidera eramateak zalantzak sortzen ditu:

- Arazo tekniko juridiko izatetik –jokabide bat tipifikatzea– sakoneko arazo izatera pasatzen da, jazarpena berez gai korapilatsua edo anbigua izango balitz bezala.

- Horren ondorioz, bigarren hanka sartzea egiten da: emakumeak dira jokabide bat jazarpena dela frogatu behar dutenak, eta hartarako, emakumeak berak ezin daitezke izan ez anbiguo ez arraro.

Sozialki ongi bereiz daitezkeen egoera izatetik –jazarpena izan duen edozeinek zeri buruz ari garen badakielako– susmo berezia izatera pasa da: Eta emakumeak gezurra esaten ari badira? Eta egia puzten ari badira? Nola epai daitezke gertaera hain subjektiboak?

Emakumearen sinesgarritasunaren aurrean gaude berriz. Ikusiko dugunez, eskaera horrek, lantokian jazarpena jasaten duten emakumeen erantzunetan eragina du. Haien jokabidea garbia izan dela sentitzen ez badute, eraso fisikoa ez den harreman guztien anbiguitasunean nahastatuta daudela atzematen badute, gertatzen dena argi «tipifikatu» ezin badute eta «biktima onak» moduan, jazarpena jasaten duten emakumeak moduan eta zorrotz agertzen ez badira, ez dira ausartuko gertatzen dena kontatzeko; are gutxiago bide formalen bidez salatzen. Horrela, oso gutxi dira auzibidera joko dutenak.

Horregatik, giza harreman guztiak anbiguoak direla gogoratu behar da, kontratuak izan ezik (horregatik asmatu zituzten), eta anbiguitasun horrek ez diola garrantzirik edo larritasunik kentzen gai honi. Jazarpen jokabideen aurrean tipifikatu baino ulertu egin behar da.

1.2.3. Puritanismoa eta sexualitatea

Hirugarren topiko hau aurreko bietatik dator zuzenean: sexu jazarpenaren gaia Estatu Batuetan egin zen ospetsu, auzitegira eramandako zenbait kasurengatik. Berehala lotu zuten lantokietako eta unibertsitateetako emakume eta gizonen arteko harremanak esterilizatu nahi zituen puritanismo obsesiboarekin; bi inguru horietan, arauak eta zigorrak ezartzen hasi zirelako, hain zuzen ere.

Askoren ustez, adiskidantzako harremanen, harreman sentimentalen edo erotikoen naturaltasuna arriskuan zegoen, eta ez zela egongo inor gizartean ligatzera edo desirak adieraztera ausartuko zenik, zigortzearen beldur.

Ikuspegi horrek egiazko elementuak zituen, zalantzarik gabe, sexualitatea dagoen gaietara hurbiltzeko iparramerikar modurengatik, baina funtsean, oso interesatua zen. Lan mundu onuragarria eta berdintasunezkoa deskribatzen zuen, indarkeria edo abusua ezohikoak direla. Jazarpenaren kontrako arauak egitea haurra ur zikinarekin botatzea bezala izango litzateke, ingeles adierazpenaren arabera. Onuragarritzat hartutako harremanak mugatzea eta eragozteak, kasu bakanak saihesteko.

Ikuspegi horren aurrean, zenbait gauza gogorarazi behar dira: lehendabizi, sexu jazarpenaren helburua, lehen definizioan, ez zen sexu jarrerak bilatzea, baizik eta emakumeak baztertzeko moduak bilatzea. Lehen teoriarari eta abokatu amerikarrek argi zuten presio sexuala erabiltzea beste elementu bat zela, baina jazarpenaren asmoa emakumeek lanean aurrera egitea eragozteak edo gizonezko jakin baten botere edo nagusitasuna indartzea zela. Sexu izaera ez zen hain garrantzitsua; ez itzulpen «herrikoian» bezala, behintzat.

Bigarrenez, ikerketa askok frogatu duten moduan, sexu jazarpenak lotura handia du emakumeen lan diskriminazioarekin. Emakumeen lanari balio txikiagoa ematen zaion lekuetan gehiagotan gertatzen da, eta sexu izaerarik ez duten jarrera askorekin nahasten da: zereginak banatzea, portaeren balioa, enpresaren kultura mota eta abar.

Hirugarrenez, emakumeak eta gizonak ez dira berdinak sexualitatearen aurrean. Gizon askok naturaltasunez hitz egiten dute, baina askotan, emakumeek ezin dute naturaltasun beraz egin (ez eta homosexualak, emakume eta gizonak ere). Gure gizartean emakume bat sexu objektu edo subjektu moduan agertzen denean, desprestigiatu edo estigmatizatu daiteke. Bi irudi horietatik batek ere ez du zerikusirik eraginkortasunarekin eta balio profesionalarekin. Sexu desirak adierazteak edo bizitza sexual esplizitua izateak ez dituzte gizonak desprestigiatzen –beren lan inguruko kulturaren neurrian, noski; emakumeek, berriz, isekari edo desprestigioari aurre egin behar diete.

Makurrarazteko, jartzeko edo liskarrak hasteko arriskuan jartzen dira, edo hori gerta litekeela uste dute. Sexu jazarpenak, beraz, jokabideak erregulatzen ditu: emakumeak beren burua kontrolatzera behartzen ditu, sexualizazio maila esplizitua derrigorrezkoa den eta gizonen jokabideak agindu eta zibilizatzen dituen testuinguruetan izan ezik, haiek zigortzen baititu. Baina bigarren ondorio hori bakarrik kritikatzeko da, nahiz eta lehenengoa larriagoa izan.

Harreman naturalei edo onuragarriari buruz hitz egitea, beraz, bidegabea da. Gizon eta emakume guztiek ez dute askatasun bera lantokian. Zeri buruz ari garen ulertzeko, normalean emakumeek diren «zerbitzu» lan batzuen irudian pentsatu besterik ez da egin behar, inolako errealitatearekin bat datorrena. Horien artean aipa genitzake idazkarien, zerbitzarien edo erizainen lanak, sexualitatearekin edo maitasun harremanekin lotzen direlako.

1.3. JAZARPENA OBJEKTU EDO ADIERAZLE PATRIARKAL MODUAN

Sexu jazarpenaren inguruko topiko eta ideiarik ohikoenak berrikusita, beste «dilema» bati buruzko gogoeta egitea garrantzitsua da. Ez dago zalantzarik jazarpenaren definizio bat eman dezakegula, esaterako Europar Batasunak emandakoa eta zenbait herrialdetan arau askotan jaso zena. Hala ere, gaiari modu emankorragoan lotzen zaizkion beste batzuk ere badaude.

Gehien erabilitako definizioak erabiltzen baditugu, esaterako Europako Batzordearen 1991ko Gomendioa, ezinbestean irekia dela konturatuko gara; izan ere, jazarpena hau izango litzateke: «sexu jarrera eta gizonak eta emakumeak lanean duten duintasunean eragina duten bestelako sexu portae-rak. Horrek barne hartzen ditu nahi ez diren portaera fisikoak, hitzezkoak edo hitzik gabekoak...».

Jokabide horiek sakonago aztertzen direnean bi kategoria handi bereizten dira, egindako arau eta ikerketa nahiz inkestetan oinarritzat hartu direnak. Adostasun handia dago jazarpenaren «nukleo gogorraren», eraso fisiko edo sexu xantaiaren inguruan. Sexu xantai hori gertatzen da «pertsonek batek jarrera horri aurka egitea edo haren mende jartzea (esplizituki edo implizituki) oinarri moduan erabiltzen direnean erabaki batek, pertsona horrek lanbide heziketa jasotzeko edo enplegua izateko, enplegu horretan jarraitzeko, igotzeko edo dituen aukeretan edo enpleguari buruzko beste erabaki batzuetan, lan baldintza bat lortzeko edo lana uzteko aukeretan eragina izan dezan». (De la Fuente, 1997).

Baina horrek definitzea zailagoak diren zenbait jarrera edo portaera kanpo uzten ditu. Partaideak desberdinak izan daitezke horietan, banakoak edo kolektiboak, eta sexismoaren, mobbingaren, sexuagatiko jazarpenaren edo sexu jazarpenaren arteko muga ez dago garbi. «Giroaren araberrako jazarpena» esaten zaio horri. Ez da zorioneko terminoa baina oso zabaldua dago, eta Europako beste zuzentarau batek deskribatzen du:

«Hitzezko, hitzik gabeko edo nahi ez den beste edozein portaera fisiko gertatzen den egoera, asmoa edo eragina pertsona baten duintasunaren kontra joatea dela, bereziki egoera beldurgarri, zakar, iraingarri, mingarri edo laidogarria sortzeko asmoz egindakoa». (2002/73/EB zuzentaraua)

Horra definizioek zer dioten. Denek jazarpenaren helburua nabarmentzen dute, jazarpen duenaren asmoa baino gehiago. Gizon eta emakumeak ez dituzte bereizten guztiek, eta erasoaren edo kaltearen sexu izaera modu zuzenago edo zeharkako batean aipatzen dute.

Bigarren aukera bat dago, eta gure ustez, interesgarriagoa da. Kontua da ez itsutzea; sexu jazarpena mugatu eta neurtu behar da, eta gertaera bakan eta «katastrofiko» moduan ez da hartu behar, baizik eta sakonagoko egonezin baten adierazletzat. Desberdintasunaren eta emakume askok enpleguan eta lantokian jasaten duten bazterkeriaren adierazletzat hartzen badugu, gure arreta gunea handituko dugu. Emakumezko zenbait egilek proposatu dute, eta hori izan zen gure ikerketetan erabili genuen metodoa: jazarpena «sentsibilizatzeko kontzeptu» moduan (Lemon-check, 1997) eta adierazle patriarkal moduan (Torns, 1999) erabiltzea. Dagoeneko ez du axolarik zer den zehazki, baizik eta zergatik gertatzen den, zer lotura duen beste egoera batzuekin, nola erabil daitekeen gizarte bizitzaren eta lan munduaren korapilotik gidatzen gaituen bidetzat.

Eragiketa teorikoa badirudi ere, jazarpena modu horretara ikustea bertute praktikoa ere bada. Enpresetan, sindikatuen lanean, kontua ez da arau argi eta ezaguna edo funtzionatzen duen esku-hartze mekanismoa eta zigorra izatea, horren balio sinbolikoa handia izan arren. Esperientziaz eta trebakuntzaz baliatuz, egoera jakin batzuk ebaztea ez da xedea, hori ere oso garrantzitsua bada ere. Kontua da ulertzea jazarpena gertatzen dela hori gertatzeko aukera ematen duen lan giroa, rol batzuk, botere eta prestigio banaketa daudenean. Antza sexualitatearekin zerikusirik ez duen inguru hori hobetzeko lan egitea, berdintasunaren eta sexu jazarpenaren kontra lan egitea da.

2. JAZARPENA NEURTZEAREN ARAZOA: FENOMENOAREN AZALPENA ETA HEDADURA ESPAINIAN ETA EUROPAN

2.1. ARAZO ESTADISTIKOA: ZER NEURTZEN DUGU?

Sexu jazarpena definitzeko arazoak baldin baditugu, neurtzea ere ez da erraza izango. Hala ere, fenomenoaren hedadurari begiratzen dioten inkesta asko dago. Badirudi erakundeek eta ikertzaileek jazarpena gertatzen dela eta esku-hartzeak eta politikak justifikatzeko garrantzitsua dela frogatu nahi dugula.

Europar Batasunak 1999. urtean egindako azterketa konparatibo batean inkesta nazionalen datuak bildu ziren: Suedian % 2 jazarpen kasu gertatzen ziren; Austrian, berriz, % 81. Argi dago ez zirela gauza berari buruz hitz egiten ari.

Espainian egindako bi inkestetan lortutako datuak eskaini aurretik, jazarpena neurtzean emaitzen desberdintasuna azaltzen duten arazo metodologikoak gogorarazi behar dira:

- Datuak zeri buruz diren: informatzaileak ausaz eta proportzionalki aukeratzen ez dituzten ikerketek jazarpen kasu gehiago izateko joera dute; esaterako ahulagoak diren kolektiboak aukeratzen direnean –sindikatuei egindako inkestak adibidez–, edo jazarpena izandako pertsonak. Gure ikerketan, 16 eta 65 urte arteko gizon eta emakume aktiboak aukeratu genituen.

· Jazarri duten pertsonari nola galdetzen zaion. Askotan konbinatzen diren bi modu daude. Batean, inkesta egindakoari lantokian sexu azarpenik izan duen galdetzen zaio, eta hark bai edo ez erantzun behar du. Bi gauza neurtzen ari dira: pertsonak jazarpenik izan duen eta esperientzia hori jazarpena izan den edo ez baldin badaki. Beraz, kontzeptua zer den baldin badaki eta esperientzia nola interpretatu duen jakingo dugu.

· Bestean, ez da kontzeptua aipatzen; zerrenda batean zenbait egoera jarri eta haien artean baten bat izan duen galdetzen zaio. Normalean pertsona gehiagok bigarren galdera horri erantzuten diote, eta zenbait ikerketek «jazarpen tekniko» esaten diote lehenengoari. Zerrendan barne hartzen diren portaeren arabera luzeagoa edo laburragoa izango da. Zerrenda oso zehatza bada «jazarpen teknikoko» zifra ugari gertatzen dira, baina fenomenoak itxuragabetzen da.

· Denbora dimentsioa ere badago: azken hilabetei, azken urteari edo lan bizitzan zehar izandako esperientziari buruz galde daiteke, edo azken emaitzak aldatzen dituzten bestelako galderak egin daitezke.

Bi gai horien konbinazioa, laginak eta galderak egiteko moduak dira datuak hain desberdinak izatearen arrazoia, eta zalantzan jartzen du herrialdeen artean alderatzeak egiteko aukera.

2.2. DISKURTSOAREN ARAZOA: ESPERIENTZIA ETA ESPERIENTZIAREN INTERPRETATIOA

Egia esan, galdera bikoitza erabiltzea oso erabilgarria da, arrazoi teorikoengatik. Gizarte errealitate «berri» orotan, antzinatean egon bada ere, desadostasuna gertatzen da esperientziaren eta esperientziari ematen diogun izenaren artean.

Alde hori neurtzean gizarte errealitateari eta gizarte errealitate horretan parte hartu edo ikertzen duenak egindako lanari buruzko informazio handia lortzen dugu. Alienazioari buruzko eztabaida feminista edo marxistak gogora ekartzen ditu: alienazio objektiboaren antzeko zerbait existitzen al da? Klase kontzientziarik gabeko langile bat bere buruari engainatzen dion pertsona al da? Eta pozik dagoen etxekoandrea? Nork definitu behar du sozialki zer dagoen ondo edo zer gaizki? Eta modu antropologikoago batean: nondik hasi behar da neurtzen behatutako errealitatea, diskurtsotik eta ikertzailearen erreferentzia esparrutik ala ikertutako pertsonaren esparrutik?

Argi dago irtenbiderik ez duen eztabaida dela, baina kontuan hartu beharrekoa. Haren aberastasuna ateratzea da kontua. Jazarpenaren kontzeptuaren eta ikuspegi teorikotik, jazarpenzat har daitezkeen egoeren artean ondorioak atera daitezke, batez ere alde hori gizarte taldeen arabera aldatzen delako.

Baina datu batzuk eman aurretik, «alde» horren zenbait elementu gogorarazi behar ditugu, hau da, jazarpenaren esperientzia onartzeko eta horrela esateko zailtasunaren zenbait elementu:

· Berdintasunaren irudipena

Emakumeak, oro har, ez daude etsaitasunezko mundu sozial batean murgilduta. Gizartean duten posizioa mendekoa bada ere, moldatuta daude eta aurrerapen sozial handiko garai batean bizi dira; haien bizi baldintzak hobetu direla jakin badakite. Oro har, lanak ematen duen independentziaz, berdintasunak ematen duen gizarte botereaz gozatzen dute. Sexu jazarpenaren kritikariek diotenaren kontra, ematen dena berdintasunaren irudipena da. Gure kultura politikoaren eta gure oreka psikologikoaren barruan berdin tratatuko gaituztela uste dugu. Desberdintasuna agertzen denean edo bistakoa denean, mina eta frustrazioa handiak dira, baina alde batera utz daitezkeen bitartean emakume gehienak konformatzen dira eta beren bidea bilatzen dute dagoeneko gutxiengoa ez diren lan munduan, haien posizioak oraindik ahulagoa izaten jarraitu arren.

Hau oso garrantzitsua da datuak nahiz jazarpen kasuak interpretatzeko orduan: emakumeek handitu baino jazarpen egoerak txikiagoak dituzte.

- Elkarrekotasuna eraikitzea

Horrez gain, gizonekin duen lotura emozionalak emakumeen sentimendu hezkuntzarekin zeharrikusia du. Enpatia elkarren artekoa dela eta elkarrekotasuna posiblea dela konfiantza dute. Oro har, aurkitzen dute baina aurkitzen dutenean, eraiki eta simulatzen dute, haien aurrean dagoenak ez dituela hartzen subjektu autonomo moduan konturatzen diren arte. Sexu jazarpenari buruzko kontakizun guztietan osagai hori dago: antzematen dutena benetan gertatzen ari zaiela uste izateko zailtasuna; pertsonak moduan errespetatzen edo «ikusten» ez dituztela onartzeko zailtasuna. Shocka handia da, gizaki ororen sentimendu intimoaren kontra doalako, subjektu moduan ikusi orde besteren objektu moduan ikusten duena.

- Gizonezkoak babestea

Sexu jazarpena aipatzeko, eta are gehiago salatzeke, zailtasuna azaltzen duen hirugarren ezaugarria, gizonezkoak babesteko joera ongi hezia eta igorritakoa da. Emakumeak familiaren ongizateaz arduratzen dira, eta askotan, ingurura zabaltzen da. Giro hori apurtzea asko kostatzen zaie.

Bestalde, gizonen jarrera guztiak taldeak justifikatzen ditu, eta gehienez jota, haurren jarreratzat hartzen dira edo haien boterearen zati naturala dira.

Sexualitatearen inguruan hori begi bistakoa da. Emakumeak, tradizioz, sexualitatearen ondorioen erantzuleak izan dira, edukiak definitzeko eta mugak ezartzeko autonomiarik izan gabe. Noiz egon eta noiz ez erabaki behar zuten, ezkontza merkatuan egoteko desiragarri agertu behar zuten eta gizonen erantzun espontaneoaren arduradunak ere baziren. Kultura patriarkal horrek, krisian badago ere, portaeretan eta psikologia orokorrean eragina izaten jarraitzen du oraindik. Gizon batek emakume bat jazartzen duenean, emakumea gaitzesteko joera dago, emakume akatsgabea ez bada salbu.

Eta gizonen jokabideak naturaltzat hartzeko joera ere badago. Ezegokitzat, astuntzat, zakartzat har daiteke, baina oso gutxitan hartzen da aurrean duen emakumea gutxiesteko ekintzatzat. Gizon batek portaera hori izateak lotsaraz dezake, hala ere, kasu horretan, inguruak lotsagabekezia estaltzeko eta ezkutatzeko joera du.

2.3. SEXU JAZARPENAREN HEDADURARI BURUZKO ZENBAIT DATU

Datuetan bi motatako arazoak ikusi ditugu: lehendabizi, ikertzen duten pertsonen muga oso aldatzeko dituen objektu bat neurtzeko zailtasuna.

Bigarrenez, egoera jakin bat bizitzearen eta jazarpenatzat hartzearen arteko alde interesgarria. Kasu honetan, subjektuak du zailtasuna, esperientzia bat bereizten ez duelako, «sexu jazarpenaren» objektu teoriko moduan onartuz. Hein batean terminoa ez duelako ezagutzen gerta daiteke, baina kontzeptu berriak gure munduan oso azkar zabaltzen diren kontuan hartuta, azalpena beste bat dela uste dugu: emakumeek ez dute jazarpenatzat hartzen, gertatu zaiena hain larria ez dela uste dutelako, eta pentsatzera ausartzen ez direlako, edo gizon bat salatzea ez zaielako gustatzen.

Zailtasun horiek guztiak kontuan hartuta, 2000. urtean, inkesta nazional bat egin genuen Comisiones Obreras¹-ek eskatuta. Inkestatutakoan artean jazarpena neurtzeko hiru galdera egin genizkien, sexu jazarpenaren hiru «une» teorikoei zegozkienak.

· Lehendabizi, «jazarpena» esaten diogu sexu jazarpenaren portaera tipikoen zerrenda bati. Emakumeentzat, jazarpena horrela neurtuta, % 18koa da. Jarraian egoera desberdinei emandako erantzunak zehaztuko ditugu (pertsona batzuek egoera bat baino gehiago bizi zian dute, horregatik kasu kopurua baino gehiago dira).

JAZARPEN-EGOERA	Kasu kopurua	Jazarpen-egoera kopurua	Kasuen ehunekoa	Egoeren ehunekoa
Lankide edo nagusiren bat gehiegi hurbiltzen zen zugana edo zure espazio fisikoan behin eta berriz sartzen zen	82	134	56,5	91,8
Norbaitek harremanak izateko edo elkarrekin ateratzeko presionatu zaituela sentitu duzu	18	30	12,6	20,4
Nagusiren batek mesede sexualen bidez lan hobekuntzak lorzenituzkeela iradoki dizu	14	22	9,2	14,9
Lankide, bezero edo nagusiek nahi ez zenituen zirriak egin dizkizute	29	47	19,7	32,1
Lantokian sexu eraso izan duzu norbaiten eskutik	3	5	2,0	3,3
ERANTZUNAK - GUZTIRA	146	238	100,0	162,5

· Bigarrennez, beste jokabide eta egoerei buruz galdetu genuen, hitzekin eta inguruarekin zerikusi handiagoa zutenei buruz hain zuzen, beste ikerketa batzuetan «jazarpen arintzat» hartzen dituztelako. Portaera horiek jazarpenaren barruan ez sartzea erabaki genuen, gehiegi ez desitxuratzeko. Horrela, aldagai horri «sexismo» esan genion.

«Lantokiko sexismoa» aldagaia sortu genuen, eta galdetu genuen ea sexuarekin zerikusia duten azalpenik eta txisterik askotan edo gutxitan entzuten zituzten, kartel edo irudi pornografikorik erakusten zituzten eta emakumezko langileen eta jantziei buruzko errespeturik gabeko iruzkinak entzuten zituzten.

Ondorengo taulan lotura handia ikusten da sexismoaren eta jazarpenaren artean, eta horrek kontzeptuak bereiztea garrantzitsua dela erakutsi zigun.

1. Inkesta telefonoz egin genuen, eremu nazionalan, eta lanean ari ziren 16 eta 65 urte arteko 1.004 gizon-emakumeei egin genien. Lagina 600 emakume eta 400 gizonen artean banatu genuen, eta horrez gain, habitata, adina eta jardueraren sektorea kontuan hartu genituen.

JAZARPENA IZAN DU	SEXISMOA			GUZTIRA
	Sexismo handia	Sexismo arina	Ez dago sexismorik	
Bai	39%	20,9%	11,4%	18,5%
Ez	61%	79,1%	88,6%	81,5%
Guztira	100%	100%	100%	100%
Maiztasunak	77	230	299	606

· Hirugarrenez, jazarpenari buruz galdetu genuen zuzenean: «Lantokian noizbait sexu jazarpena jasan duzula uste al duzu?» Aldagai horri, «onartutako jazarpena» esaten diogu, eta baietza eman zuen pertsona kopurua txikiagoa da, beti gertatzen den moduan, jarrera zerrenda baten bidez azal dutako jazarpenaren aldagaian baino: emakumeen % 6,6. Beraz, zerrendan jasotako egoeraren bat bizi izan zuten emakumeen bi herenek ez zioten jazarpen esaten haiek izandako esperientziari.

Lanean ari ziren zenbait emakumeri 2006. urtean egindako inkesta berriago batean –Lan eta gizarte gaietarako Ministerioak egindakoa–, antzeko estrategia erabili dute. Larritasuna mailakatzeko aukera ematen duten jokabideen zerrenda batean oinarritutako «jazarpen tekniko» bereizten du. Horretan, hauek bereizten dira: jazarpen arina, hitzezko presiorako; jazarpen larria, presio psikologikorako eta jazarpen oso larria presio fisikorako. Aldez aurretik jokabide horien larritasuna alderatu da inkesta berean, elkarrizketatuei galdetuta.

Kasu honetan, langileen % 15ek dio azken urtean aipatutako egoeraren bat jasan izan duela, hitzezkoak nabarmenduta (jazarpen arina). Azken urtean sexu jazarpenik izan duten zuzenean galdetzen denean, elkarrizketatutakoen % 9,9k izan duela adierazi du. Ikerketa, beraz, «aitortutako jazarpenaz» ari da.

Jazarpena jasandako eta jazarpena egindako pertsonaren ezaugarriei dagokienez –kasu gehienetan jazarritakoa emakumea delako eta jazarlea gizona–, ebidentzia gutxi dago horri buruz. Aurretik aipatutako ministerioaren inkestaren eta beste ikerketa batzuen arabera, adina eragina duen faktorea da –emakume gazteenek jazarpen egoera gehiago jasaten dituzte. Gure inkestan bi ezauzgarri soziolaboralek bakarrik dute lotura handia jazarpen egoerekin:

- Arrisku faktore bat bananduta edo dibortziatua egotea da; ezkongabeen aurrean jazarpena izateko aukera bikoitza da, eta ezkonduen aurrean, hirukoitza.

- Beste arrisku faktore bat kontraturik ez izatea da. Kontratu faltaren bidez adierazitako lan ezegonkortasunak jazarpen egoerak bikoizten ditu, % 27 arte (batez besteko % 18ren aldean).

Gainerako aldagaiek, hala nola habitatak, enpresaren tamainak, jarduera sektoreak, heziketa mailak eta lan kategoriak, ez zuten alde garrantzitsurik izan.

Onartutako jazarpenari dagokionez, pentsa liteke jarreraren larritasunarengatik zenbait jarrera jazarpentzat hartzen direla eta beste batzuk ez. Azterketan, larritasunak baino jazarpen hori gertatzen zen testuinguruak eta egoeraren emaitzak eragiten zuten.

- Jokabidearen iraupena garrantzitsua da egoera bat jazarpenentzat hartzeko edo ez. Era gozpenak etengabeak direnean, jazarpen egoerak bizi izan dituzten emakumeen erdiak jazarpen esaten diete.

- Beste elementu garrantzitsu bat da norik egiten duen jazarpena. Jazartzen duena nagusi bat denean, emakumeen bikoitzak bizitzen ari diren egoerari jazarpen esaten diote.

- Eraitza beste elementu garrantzitsu bat da. Jazarpen egoera modu baketsuan bukatzen denean (hau da, neurririk hartu gabe), jazarritako lau emakumeetatik batek bakarrik onartzen du jazarpena izan duela.

Hortaz, aurretik aipatu dugun jokabideak txikiagotzeko joera ikusten da. Jazarpenak aztarna uzten du oroimenean, baina bakoitzak konpon badezake, eskandalurik gabe eta lan egoera arriskuan jarri gabe, emakumezko langileek aintzat ez hartzeko edo garrantzia mugatzeko joera izan ohi dute.

2.4. JAZARPENA GIZONEN ARTEAN

Gizonezkoen jazarpenak emakumezkoenak baino eragin txikiagoa du nabarmen. Laginean, proposatutako zerrendaren egoeraren bat izan dutela onartu dute gizonen % 8k. Bakarrik % 2k diote sexu jazarpena izan dutela. Jazarpena izan duten gizonezkoen artean, % 23 gizonek jazarri zuten eta gainerakoa emakumeek.

Esanguratsuena da ez direla lotzen jazarpena eta lan diskriminazioa. Bestalde, ez du batere eraginik lanpostuan baloratzen dituzten edo ez sentitzeak.

Gizonezkoek, azterketa kualitatiboa kontuan hartuta, gertaera bakantzat hartzen dituzte jazarpen egoerak, haien garapen profesionalean zerikusirik ez dutenak. Ez dago zalantzarik zenbait gizonen egoera gogaikarriak bizi izan dituztela lantokian, baina diskurtsoen arabera, datuen arabera baino gehiago, objektu sexual moduan tratatzea edo moduren batean presionatzea esperientzia askoz ere ohikoagoak dira emakumeen artean.

Izan ere, eztabaida taldeetan, gizonen berehala egiten zuten jazarlearena, horrelako zerbait egiteko gai ez zirela adierazteko, baina «jazarritakoaren» rolaekin ez ziren batere identifikatzen. Jazarpena nolabait ezkututzen dela esan liteke, maskulinitatea eraikitzean lotsakortzat jotzen delako biktima edo ehizatutakoa izatea, ehiztaria izatea baino. Hala ere, sortzen dena, kontakizunaren irudi maskulinoarekiko berezko identifikazioa da.

Emakumeei dagokienez, gizonenganako jazarpenari buruz hitz egiten dutenean, honela egiten dute:

- «Ez dakit nolakoa izango den jazarpenaren kontua gizonekin, egia esan...
- Ba jazarpena, berdin (barreak)
- Bai, oso ondo, baina esan nahi dut... Baina nik diot mutil hori asto jartzen bada, emakumeak ez diola berriz ezer egingo. Fisikoki indartsuagoa delako. Fisikoki indartsuagoa delako da.
- Horregatik eta lotsatuta sentitzen zarelako, emakumea gizona baino lehenago lotsatzen delako. Logikoki, mutil batengana joaten bazara eta moztzen bazaitu, ni behintzat guztiz lotsatuta geratuko nintzateke. Baina mutil batek, nahiz eta «ez, ez, ez» esan, jarrerari eusten dio, zuk zer pentsatzen duzun berdin zaiolako. Bera da ordaintzen dizuna»

Sexu jazarpenaren oinarriko bi elementuak hemen daude: jazarpena da besteren subjektibotasuna ez onartzea, ukatzea. Emakumeen kasuan, subjektibotasuna ukatzea, emakumezko

hezkuntza oro besteren beharrei erantzutean oinarritzen denean, oso zaila da. Emakumeek gizonak errespetatzen dituzte eta haien boterea onartzen dute. Beldurrak eta lotsak gizon bat jartzeara eragozten dituzte, duten jazarpenaren ikuspegi tipifikatuarengatik.

3. AZALPENAK: LANAREN MUNDUA ETA FEMINITATEA ERAIKITZEA

3.1. LANAREN MUNDUA ETA FEMINITATEA ERAIKITZEA

Sexu jazarpenaren hedadura eta haren loturak ezagutzea garrantzitsua bada ere, are garrantzitsuagoa da egoerak ulertzea, gizarte subjektuen diskurtso eta interpretazioetatik abiatuta. Hau da eztabaida taldeek lortzen dutena, jazarpenaren egiturazko posizioa berregitea, posizio multzo batean. Bereizitako gizarte posizio horiek taldeetan lortu ziren, zenbait ardatz bereizita:

- Sexua, bost emakume talde eta bi gizonen talde egin baitziren.
- Lan posizioa edo kategoria profesionala, prestakuntza apal, ertain eta altuko lanpostuak bereizi baitziren.
- Lan inguruneak, oso feminizatuta zeuden inguruetako lan taldeak (emakumezko erizainak, irakasleak, azafatak eta abar) eta oso maskulinizatuta zeuden beste batzuk (eraikuntza, garraio, segurtasun arlokoak) sortuz.

Garrantzitsua da gogoratzea gure ikerketan, taldeen eztabaidagaia lanari eta lantokiko harreman pertsonalei buruzko ikuspegia zela, eta sexu jazarpena talde dinamiken amaieran bakarrik agertzen zela. Halaber, garrantzitsua da adieraztea zazpi taldetatik bostetan gaia berez agertu zela, elkarriketaren harira, moderatzaileak sartu aurretik.

Gizonek eta emakumeek lanean duten posizio bereizia ulertzeko, bi ardatz gogorarazi behar dira:

Baina garrantzitsuena da rol hori lan ordaindutakoaren mundura aldatzen dela hein batean. Emakumeak gaizki ordaindutako eta hain seguruak ez diren lanpostuetan, zerbitzuetan eta laguntzeko lanetan aritzen dira maizago. Laguntza lan horiei, gainera, balioa kentzen diete, feministak direlako eta naturalizat hartzen direlako. Emakumearen izaeran zerbitzatzea dagoenez, zerbitzu horrek ez du merezi elkarrekikotasuna, ez ekonomikoa ez emozionala.

Posizio horrek errespetu txikiagoa ematen dio emakumeen autonomiari, haren espazioari eta denborari. Emakumeek berek zailtasun handiak dituzte laguntza eta zerbitzu lan asko lantzat hartzeko eta haiei balioa emateko. Aldi berean, lanaren arau horrek jazarpen egoerak arintzen ditu, norberaren mugak hain argi ez dauden hainbat egoera sortzen direlako. Emakumeen denbora, espazioa edo lanak argi mugatuta ez badaude, haien gorputza eta nahiak ere ez dira egongo.

Inkestak harreman sistematikoa erakusten zuen lanaren eta norberaren mugak hain argi ez zeuden enpresen eta jazarpen egoerak egotearen artean. Emakumeei «itxura ona» eskatzen zitzaientan lantokietan, enkargu pertsonalak egitea edo kafea eramatea eskatzen zitzaientan, hautatzeko elkarriketan haien bizitza pertsonalari buruz galdetu zitzaientan eta libre egotea funtsezkoa zen enpresetan, jazarpen zifrak gainerakoetan baino handiagoak ziren.

Argi dago ez dagoela determinismorik datu hauetan. Kafea eramatea eta sexu jazarpena jasatea ez daude continuum lineal berean. Baina giro sexistak jazarpena eragiten duen bezala, pribatua-

ren eta lanaren arteko mugak hain argi ez dauden eta eskaera asko eta emozionalak egiten diren inguruan, jazarpena gertatzeko arriskua ere handiagoa da. Eraikitako adierazlea da, baina haren garrantzia estatistikoa eztaba daezina da.

Lanaren, generoaren eta jazarpenaren arteko harremana azaltzeko bigarren ardatza, publikoaren eta pribatuaren arteko dikotomia ospetsuaren gainean eraiki diren esparruetan dagoen emakumeen presentziaren nobedade historikoari buruzkoa da. Bulegoetako, fabriketako eta lantegietako lana gizonen tokiak ziren duela gutxira arte. Lan mundua, haren errituekin, denboraren erabilerarekin, sinboloekin eta mitoeikin, maskulinitatea oinarritzat hartuz eraiki zen, eta gaur egungo bertsioa sortzen lagundu zuen.

Klase ertainen profesionaltasunari buruz, langileen moralari eta solidaritateari buruz, lankideak, nagusiak eta mendekoak hirugarrenekin erlazionatzeko moduari buruz hitz egiten badugu, maskulinitatea eraikitzeke moduekin lotzen zen: besteak beste, emozioak eta beldur pertsonak alde batera uztea, beste gizon baten nagusitasuna onartzea, egun osoa izatea lan egiteko, makinaren prestigioa eta gaitasun pertsonalen gaineko gaitasun teknikoak eta abar. Lantokian elementu askok osatzen dute araua, eta itxuraz neutroa den hondoa sortzen dute: hondo horretan, emakumeak arrotzak moduan nabarmentzen dira, hala ere, haien presentziak berehala aldatzen du errealitate hori.

Ondorengo adibideei esker, gai honetan, sexua, lan hierarkia eta jazarpenaren interpretazioa zenbateraino gurutzatzen diren uler daiteke. Ez bakarrik zenbait lanpostuk edo inguruk jokabide batzuk edo beste batzuk eragin edo azaltzen dituztelako, baizik eta gizarte talde batek esperientziari buruz egiten duen interpretazioarengatik.

3.2. PRESTAKUNTZA BAXUKO LANPOSTUAK: BAZTERKERIAREN ESPERIENTZIA

Lanaren eta jazarpenaren aurreko jarrera sexuaren arabera aldatzen da, baina baita lan jarrearen, hierarkiaren eta inguruaren arabera ere. Taldeen diskurtsoaren zenbait ezaugarrik ñabardura horiek ulertzeko aukera ematen digute. Prestakuntza apaleko lanpostuetan dauden emakumeengandik hasiko gara. Langileen ezaugarriarik tipikoena da argi atzematen dutela gizonetzkoenak baino okerrago ordaindutako eta baloratutako lanpostuetan daudela. Lan merkatuaren bazterretan, ospe eta karrera txikiagoko zerbitzuetan daude, eta lan erakundeek ere gutxiago defendatzen dituzte. Gainera hierarkia osoa dute eta gainera emakumeak dira, beraz, jasan ditzaketen lan erasoak sexistak dira. Klase eta genero esplotazioa batera aurkitzen ditugu, eta elkar indartzen dira. Erantzuna duintasuna eta distantzia emozionala da:

«Emakume eta pertsona moduan neure burua errespetarazten dut».

«Nagusiekin izandako tratua ez da inoiz pertsonala izan, beti muga bat jartzen dute. Nire lanarekin errespetatu ez nautela ikustean, errespetarazi behar izan dut neure burua, eta hori, mugak jartzea da, zu hor eta ni hemen, eta lan-tratua bakarrik izango dugu».

Normalean, lanpostu horietan dauden emakumeak oso feminizatutako inguruetan daude, baina nagusiak gizonetzkoak dira. Horregatik, jazarpen modu ohikoenak, baldin badaude, «tipifikatuak» dira, hau da, presionatzen dituen edo xantaia egiten dien nagusia, betiere hierarkian babestuta. Ondorengo kontakizuna lantokian sexu jazarpena nola ager daitekeen azaltzen duen adibidea da:

«Nirea mota honetako gauzak hasten direnean hasi zen, suposatzen dut, ze ederra, ze polita, ze xarmanta!, gauza guzti horiek. Niri egoera astuna egiten hasi zitzaidan, eta hartu ahal izan nuen jarrera bakarra beste lankide batzuekin zegoen gizon horren bulegoan sartzeari uztea, eta nire ordezkari beste bat sartzea izan zen. Istorioak asko kezkatzen ninduen; beraz, tira, ituna egin nuen emakumezko lankide batekin. Berak nire lanaren zati hori egiten du, eta nik harena, orekatzeko. (...)

Azkenaldian oso astun jartzen zen, gizon hori... eta harekin joan behar nuen dantzatzera, Pardo jauregira jatera eta... Nik beti esan nion ez nuela ezer hitz egiteko, ez jateko, ez askaltzeko, ez gosaltzeko gizon horrekin, eta orduan, egun batean, oso goiz, lantokian sartzen ari nintzela, igogailuan itxaroten, igogailuan sartu ninduen, nirekin jaitsi zen inoiz egon behar ez zuen solairu batera, han ez dagoelako bulegorik, aldagelak, komun batzuk eta zertxobait gehiago baino ez daude. Igogailuan bazterreratu ninduen, eta behin igogailutik aterata, tarte oso txikia zelako, atea ireki zen eta ezin izan nuen handik irten. Gainera etorri zitzaidan, bazterreratu, eta nahitaez ahoan eman behar nion musua. Haren aurpegia hiru zentimetrora baino ez nuen, eta nazka sentsazio handia izan nuen. Ez dakit, azaltzea zaila da, nazka, gorrotoa eta itotzeko gogoa delako. Barrutik zerbait apurtzen dizute. Ezintasuna, bai. Eta batez ere barrutik apurtuta sentitzen zare-lako. Une horretan bertan, nik, putaseme, kabroia, utz nazazu... Ez nion ostiarik eman lanpostua jokoan nuelako, eta etxean horrekin jaten dugulako. Bestela, egoera bestelakoa izango litzateke. Nik ez dut salatzen, kalean itxaron eta txikituko nuke, bai horixe! Gainera leku guztietan esan dut, ez dut lotsarik izan. Gero, ezintasuna, orain zer egingo dut. Itxarongo dut, ez dut itxarongo, kontatuko dut, ez...

Arauek eta iritzi publikoak ulertzen duten jazarpenaren ezaugarri guztiak dituen kontakizuna da. Hala ere, emakumeak beste urte etsi zion egoerari, zenbait ekintza saihestuz, erasoak jazarlea haren nagusiaren aurrean salatzea behartu zuen arte. Gainera, sindikatuari laguntza eskatu eta lortu zuen.

3.3. INGURU FEMINIZATUAK: EZKUTUKO SEXUALIZAZIOA

Lehen taldearen alde emozionala ez da posible bigarren inguruan, oso feminizatuta dauden lanpostuak daudelako. Besteak beste, idazkarien, azafaten, zerbitzarien, saltzaileen eta erizainen lanak, laguntza eta zerbitzu lanpostuak dira, eta definizioz, ezin da muga argirik jarri. Horrez gain, autonomia maila txikiagoa da. Funtsezko gaia ez da diskriminazioa, balioa kentzea baizik.

Talde honetako emakumeek beren lana ez dela baloratzen sentitzen dute, eta esplotazio emozional sotil batek handiagotzen duela. Gainera, askotan, gizonentzat lan egiten dutenez, asko kostatzen zaie lan eskaera eta eskaera pertsonala bereiztea. Besteren beharrei erantzutea baita, berez, haien lana eta meritua. Nola gorde daitezke distantzia eta duintasuna aldi berean? Haren diskurtsoan balioa kentzeko joera dago, gizarteak itzultzen dien lanaren beraren isla den irudiari aurreratzeko modua den ironia.

- «Izan ere, ohituta daude zenbait lanpostutako emakumeak ikustera; alegia, salmahai baten atzean kulerotxo batzuk saltzen...

-Ongi geratzen dira eta.

-... oso ongi geratzen dira, edo loradenda batean arrosa sorta bat salduz, izan ere, paregabeak dira.

-Edo irakaslea, irakaslea ere...primeran dago...

-Irakaslea hain zuzen, edo minigona hemendik daraman idazkaria kafea eramanez, dena erakusten duena. Hori, horrelakoa da haientzat lan egiten duen emakumea, eta orduan, noski, zu agertzen zara esaterako lan jantziarekin...

-Hori da, zuk horra eramaten duzun irudia». (G2)

Emakumeek beren ustez duten irudia azaltzen dute, hau da, ironia desitxuratzen duen ispiluan islatutako irudia. Baina lehen taldean dagoen beren kabuz «balio izateko» borondatearen aurrean, bigarren talde honetan gutxietsitako irudia onartzen dute, eta irudia bera handitzen dute, autobabes moduan. Izan ere, idazkariak eta langileak dira, eta irudi topikoarekiko distantzia aurka egiteko modua da, emakumeen zenbait lanek eragiten duten iritzi negatiboari aurreratu eta irudi negatibo hori barneratu.

Talde horiek kontatzen dituzten jazarpen egoerak oso bestelakoak dira, eta askotan hitzezkoak.

Hurrengo lekukotasunak egoera tipikoa irudikatzen du, baina adierazpena baino garrantzitsuagoa da emakumearen erantzuna.

«Izan nuen gero! Baina ez zen jazarpena berez izan; nik neuk ez nuelako horrela hartu. Agian nire jarrerarengatik izan zen. Hasieratik mespretxatu nuelako, eta berdin zitzaidalako zer esaten zuen... Baina bueno, altzari denda bat zen. Mutil nazkagarria, ezin dezakezue imajinatu. Hau da, horrelako tripontzi bat, hortzik gabe, ustelduta zituelako... oso itsusia. Inoiz ikusi dudan pertsonarik nazkagarriena. Bada egun batean esan zidan lanparak garbitu behar zirela, erakusten zirela, garbitzera joan behar zuela, minigonaz eta kulerorik gabe etorri behar nuela». (G2)

Aipagarria da gaztearen erantzuna: ez zen jazarpena izan berak jazarpenzat ez zuelako hartu. Txantxetan ari zen agian eta esandakoari ez zion kasurik egin, neurriz jokatu zuen eta horrek bestearen gainetik sentiarazi zuen. Sexualizazioa ezkutuan dagoen mundu honetan, txantxak, lagun arteko esamesak, onartzen dira eta ahozko jokoaren partetzat hartzen dira. Eraso fisikoak bakarrik ez du interpretaziorik onartzen. Bestalde, sexualitatearen inguruko giro barregarriak, ikusi dugun moduan, emakumeen autoestimua hondatzen bukatzen du mota honetako lanpostuetan. Sexualizazioaren eta jazarpenaren arteko lotura nabaria da talde honetan. Feminismoaren kritikariek nahi dutenaren aldean, lantokiko sexu askatasuna alde batean bakarrik dago. Langile gehientzat sexu objektu moduan agertzea (edo beraien burua berezko sexu gogoan duten subjektu moduan aurkezten saiatzea) ospe galtzeari edo apalkuntzari atea irekitzea da.

3.4. INGURU MASKULINIZATUAK: IKUSEZINTASUNAREN PREZIOA

Las mujeres en entornos donde son minoría tienden a negar cualquier diferencia. Insisten en que son "uno más". Se mueven entre el orgullo de pioneras y la vanidad que les produce la camaradería masculina, pero también relatan su lucha por la normalidad y graves episodios de iniciación e humillación antes de ser aceptadas. El siguiente relato describe la entrada de una mujer como jefa de jardinería de un grupo compuesto únicamente por hombres:

(...) Nik sexualki, dialektikoki eta fisikoki jazarrita sentitu naiz; nik, bai, jazarri nautela sentitu dut. Badakit inoiz ez dela gauza larririk gertatu, mehatxuan geratu da beti, baina egiazki, nik ez nuen indarririk izango ez eta lagun nahikorik izango salatzeko, hau esango bailukete: baina, tira, horrek zer uste du? Hori esatea ere... Egia esan, oso bakartuta sentitzen nintzen, nire munduan, baztertuta, eta dena irentsi behar nuela sentitzen nuen, denbora igaro behar zela haiek nire jarreraz eta egoeraz konturatzeko».

Emakumea benetako esperientzia bati buruz ari da, amesgaiztoa izango balitz bezala. Errealitatea beste batzuen zen, eta berak ez zuen indarririk (nagusitasunez, legezketasunez) bere errealitatearen ikuspegia ezartzeko, nabaria bazen ere.

Joera hori sexu jazarpenaren ezaugarria da: esperientzia izendatzeko zailtasuna eta inguruaren jarrera bat datoz. Inguru aurkakoa bada –bere taldea baitzen jazartzen zuena–, jazarritako emakumea ez da ausartuko protestatzeko eskubidea duela pentsatzera. Geroago bakarrik hartuko ditu gertaerak sexu jazarpenzat.

3.5. PROFESIONALAK: ROLA BERRIZ INTERPRETATZEA

Emakumeek beren lanpostua asko baloratzen dutenean, gizartean ospea duten inguruak dira, eta gainera, asko dira, beste talde batzuetan ia ematen ez den urratsa proposa dezakete. Lana-

ren mundua zuzentzen duten arauak eztabaidatzen has daitezke, eta berriz interpreta dezakete.

Urrats hau oso garrantzitsua da, ez delako norabide batean bakarrik egiten. Hau da, profesionalek eta teknikariek ez dituzte beren errituak, ordutegiak, eskumenak eta haien inguruetakoko balioak bakarrik berrinterpretatzen (herabez, noski). Barregarri utzi gabe egiteko, feminitatea ere berriz interpretatzen dute. Eraginkorrak eta balioetsuak diren eta prestatuta dauden emakumeak moduan aurkezten dute beren burua munduaren aurrean, ahaleginean nekatzeko arriskua dutela kontuan hartuta. Emakumeen edozein gehiegikeria ukatzen dute. Emakume janzkia, diskrezioa makillajean, seme-alaba kopurua; horiek guztiek feminitatearekin dute zerikusia. Ustez, feminitatearenak diren beste ezaugarri batzuk, hala nola marmarrean aritzea edo inbidia, gehiegizko sentikortasuna, urduritasuna eta abar, kontu handiz baztertzen dira, eman nahi duten irudia ez kaltetzeko.

Zalantzarik gabe beste talde batzuek baino askatasun handiagoa dute, baina kontrol eta rol aldatuta handi baten poderioz. Horrek, aldaketa garrantzitsuak ere ekartzen ditu gizonek maskulinitateari buruz ematen duten definizioan.

Talde honek ez du ukatzen diskriminazioa, eta jazarpen kasuak gertatzen direla onartzen du, hala ere, bere kontakizunetan batez ere beste gertaera batzuk agertzen dira: lantokian heldutasunik gabekotzat hartzeko edo balioa kentzeko ahaleginak (izen propioa erabiltzea, mailaz igotzeko zailtasuna eta abar). Pentsa genezake gehien defendatutako taldea direla: lan eskalaren goialdean daude, baina ez nabaritzeko eta gehiegi nabarmentzeko moduan, inguru mistoetan mugitzen dira eta haien lanek mugak eta autonomia dituzte. Horrek ez du esan nahi jazarpen kasu ugari daudetik; baizik eta diskurtsoek ez dituztela nabarmentzat jotzen. Emakume gaituek gizarte aldaketari aurre egiten dioten (edo laurogeita hamarreko hamarkadan aurre egiten zioten) baikortasunari esker, bazterkeria edo jazarpen kasurik larrienak txikiagotzen edo baztertzen dira. Berriz interpretatzeko lana beste bat da; eta beste bat da eustea interesatzen zaien diskurtsoa.

«Matxismoaren hainbeste gauza heltzen zaizkizu, ezen txiste berde bat ergelkeriatzat hartzen dudana».

3.6. ZUZENDARITZAK: BERDINTASUNAREN IRUDIPENA

Erakundeetan benetako boterea duten emakumeak gutxi dira, eta hein batean, gizonezkoen inguruetakoko emakumeak gogora ekartzen dituzte. Eta haien jarrera ere bat dator. Berdinak izango balira bezala tratatzen dituztela pentsatu behar dute; hori pentsatzeak igotzeko eta askatasunez mugitzeko aukera ematen dielako. Egia oso mugatua. Hitz egiteko, janzteko eta pentsatzeko moduak, lanak, aurka egin ezin dien arauak dituzte, gutxiengoa direlako. Profesionalek ez bezala eta nahiz eta botere handiagoa izan, ezin dute proposatu autoritatea eta feminitatea berriz interpretatzea; moldatu besterik ezin dute egin. Jazarpena sortzen denean, oso gogorra da zailtasun handiz eraiki den segurtasun horretarako:

«Neuk zuzendariorde orokor baten sexu jazarpena ere izan dut. Badakit zer den. Oso gogorra da. Erabateko zerrikeria da. Izan ere, zure lanpostuaren edo isiltzearen artean aukeratu behar duzu, hori bai, urrunetik... Ez dizu iletik tirako, baina horrela dagoen gizon batekin, telefonoz deitzen dizuna, kopa bat hartzera joateko. Oso gogorra da. Edozein unetan estortsioa erabiliko zuen (...) Nire nagusi zuzenari esaten nion, baina joan nintzenean bakarrik esan zion nire buruaren buruari. Konpainiako super burua zena, multinazional batekoa, hain zuzen. Eta iskanbila sortu zen. Osagai gehiago zeuden saltsan...».

Kontakizun honetan, dagoeneko ezagutzen ditugun zenbait elementu daude, hala nola faktore fisikoaren garrantzia. «Iletik tiratzen» badizu, kexa, salaketa, guztiz justifikatuta daude. Baina

gehiago dago: hitz egiten duen emakumeari enpresatik joan zenean sinetsi zioten. Horrela bakarrik zirudien biktima ona, eta ezin zion inork leporatu egoera baliatu nahi zuenik. Gainera, beste pertsona batzuek ere jazarpena jasan zuten, eta horrek entzutea lagundu zuen. Hala ere, ez zuen lanpostua berreskuratu.

4. KONTESTUAK: LAN EREMUA ETA MASKULINOTASUNAREN ERAIKUNTZA

4.1. GIZON PROFESIONALAK: DESBERDINTASUN EGOKIA

Gizonen kasuan, estatus desberdintasunak funtsezko papera du. Gizon profesional eta teknikoek, lanpostu kualifikatuetan eta ongi ordaindutako lanpostuetan daudenek, karrera onak nolabait egin dituztenek, gizonak eta emakumeak berdinak baina desberdinak direla uste dute, eta alde hori, hain zuzen, bizitzaren gatza dela. Emakumeei berezko ezaugarriak ematen dizkiete, batez ere amatasunaren inguruan eta maskulinitate klasikoa deskribatzen dute, nagusitasunari eta agresibitateari dagokienez, baina «zibilizatua» dena.

«Especializazioa berez gertatzen da. Aukera berdintasunetik eta pertsonen esperientzietatik dator. Lanpostu agresiboagoa, ardua oso handiarekin... gizon gehiago hurbilduko zaizkizu. Segurtasun handiagoa duen lanpostua, kontserbadoreagoa, ordutegi laburragoarekin, emakume gehiago hurbilduko zaizkizu».

Errealitatearen ikuspegi oso egonkorrean, jazarpena salbuespena da, botere handia duten eta atzeratuta dauden pertsonak egindakoa (fabrikak, lantegiak). Jazarpenaren ikuspegia bat dator ikuspegi mediatikoarekin, eta horrek, diskurtsoari dagokionez, talde hegemonikoa dela erakusten du.

Taldearen kezkarik nagusia, sexu jazarpena gizon eta emakumeen arteko harreman onetatik bereiztea da:

«Nire ustez, bakarrik jazar zaitzake zure gainetik dagoen norbaitek, hau da, kategoria handiagokoa den batek eta haren mende bazaude zerbait egiteko. Bestea ez da jazarpena; bestea da pertsona batekin denbora asko ematen duzunean, batak zein besteak oheratu zaitezketela pentsatzen duzuela, baina hori ez da jazarpena. Nire ondoan dudak neskari, nirekin lan egiten duenari, proposamenak egiten dizkiot, ez naiz jazartzen ari, eta gainera, ezin izango ninduke salatu jazarpenagatik... Hala ere, lantokitik kanpo egitea saiatuko nintzateke, baina egingo banu... nire ustez, jazarpena botere harremana da, norik agintzen duen erakusteko. Mesedeak egiten ez badizkidazu ez zaitut jazarriko».

Beste langile batek ez du uste bereizketa hain argia denik:

«Pentsa genezake leku batera doazela lan egitera, eta ez dutela egunero gogaitzen duten inor jasan behar, hamaika aldiz esan diotelako ez dutela ezer jakin nahi...»

Egia esan, taldea jazarpena bere ikuspegitik baztertzen ari da. Aztoratzen du, gizon eta emakumeen arteko aldeak, bateragarriak diren ezaugarrien banaketa neutrala ez dela frogatzen delako; gizarte botereen bereizketa da.

Gizonen botere eta autoritate hori eztabaidatzen hastea, haien egoeraren erosotasun zibilizatua zalantzan jartzea da. Argi dago ez dagoela gizakirik pribilegiozko posizioei erraz uko egiten

dionik, hain neurrigabetzat jotzen ez badira, gainera. Esan liteke taldea maskulinitatearen une onean dagoela. Boterearen zenbait emaitza partekatzen ditu, baina mehatxatua sentitu gabe.

4.2. PRESTAKUNTZARIK GABEKO GIZONAK: FEMINIZATZEAREN BELDUR

Oso bestelakoa da prestakuntzarik gabeko lanpostuetan dauden gizonen taldea. Nobedade historikotzat hartzen dute «lanaren munduaren desbibilizazioa», denentzat emakumeak egotea berria delako eta haien harremanak aldatu dituztelako. Funtsezko eragina positiboa dela uste dute, oro har, emakumeak egoteak ohiturak zibilizatu eta tratua hobetzen dituelako:

«Nire esperientzian oinarrituta, ez da gauza bera emakumeak edo gizonak egotea. Postetxean, imajinatu hirurogei gizon, erretzen, hor sartzeak nazka ematen du, usain txarra ere bazuen, eta emakume bat sartzen da, oso ederra gainera, eta hobeto usaintzen hasi zen... Eta hitz egiteko moduan, tira, imajinatu hor neska bat egongo balitz, aldatzen da, ez dakit...».

Hala ere, «beste kide bat moduan, eta ez emakume bat moduan» ikustera ohitu behar direla onartzen dute. Onarpen giro horretan ohar agresibo bat nabarmentzen da: emakumeen artean gutxiengo izatea. Horrek giro adeitsua heldutasunik gabeko giro bat bihurtuko luke:

«Orduan zu zara, beraz, emakumeak bere munduan jarraitzen du, txiste klasikoekin, emakumeen txantxa tipikoekin, eta zu haren jostailua zaren pailazotxo zara».

Diskurtsoan zehar behin eta berriz agertzen da beldur hori. Langile bat lan hierarkia horren azpitik egon liteke, baina gizona zen. Ezin zuen inork esplotatu zentzu emozionalean. Ez zuten «irenstera» behartzen eta buruekin zuen tratua areritsua bazen ere, gizonen arteko aintzatespen oinarri komun hori zuen. Emakumeak lankidea eta buruak direnean ez da hori gertatzen.

Gizon taldeak sexuen arteko joko politikoaren elementurik garrantzitsuenetako bat agerian uzten du: emakumeek aurrera egitearen arriskua ez dago boterea partekatzean. Arriskua boterea ez dena partekatzean dago. Arriskua dago baliorik gabe edo apalduta ikustean, hau da, emakume bat bezala tratatzean. Gauza bera esan liteke lanez eta etxeko lanez. Emakumeek etxetik kanpo lan egitea (hau da, gizarte balioa eta soldata izatea) zaila izan da, baina gizonak etxeko lanez arduratzea edo zainketa bere gain hartzea, ezinezkoa da. Gizarte aldaketan gai handia da beti hori: nor geratuko da balioa ez denarekin?

5. ERANTZUNAK EGUNEROKOTASUNEAN

Nola jokatu jazarpenaren aurrean? Lehen gomendioa da errealitatea eta emakumezko langileen erantzunak onartzea. Taula honetan hori adierazten da, eta 2006. urtean egindako inkestaren datuek berresten dute:

Erantzun gehienak indibidualak, iheskorak eta moldakorak dira. Saihestean eta aurrez aurre jartzean oinarritzen dira batez ere. Erantzunen bigarren aukera handia, lanpostua edo enplegua aldatzea da. Ikerketan zehar zenbait adibide ikusi ditugu. Jazarpen egoerak jasan dituzten pert-

JAZARPENAREN AURREAN EMANDAKO ERANTZUNAK	Jazarritako langile guztien %
Pertsona saihestu zuen	62%
Pertsonari aurka egin zion	56%
Portaerari ez zion kasurik egin	47%
Enpleguz aldatu zen	35%
Lanpostuz aldatu zen	28%
Nagusi hurren bati kexa azaldu zion	24%
Nagusiari kexa azaldu zion	23%
Lankideen babes bilatu zuen	18%
Enpresa batzordera edo sindikatura jo zuen	4,5%
Emakume elkartera batera jo zuen	4,5%
Lege prozedura bat hasi zuen	3%
Gutzizkoaren maiztasuna	111

sonen laurdenak bakarrik jotzen dute nagusiengana edo lankideengana. Azkenik, emakume gutxik hasten dute prozedura formala, enpresa-batzordearen aurrean, lan ikuskapena edo lan edo zigor salaketa. Artikuluan zehar, erantzun hauen arrazoiak aztertu ditugu:

- Gertaeren anbiguotasuna eta definizio eza, eta emakumeek «beren buruengan sinesteko» duten zailtasuna, haien subjektibotasuna ukatzen ari direnean.

- Gizarte inguruak ez ditu emakumeak sinesten.

- Inguruak gizona babesteko joera du. Gizona babesten dute, emakumeak baitira berek «probokatzen dituzten» gizonen erantzun sexualen arduradunak.

Hori guztia nabarmen agertzen da salaketaren ideia aurrean. Emakumeek, salatzeke, elementu oso argia behar dute, interpretatu ezin dena; eraso fisikoa esaterako. Horrez gain, ziur egon behar dute «biktima onak» direla, hau da, bi ezaugarri betetzen dituztela:

- Salaketarekin ezer ez irabaztea (hori posiblea izango balitz bezala).

- Aurretik portaera eztabaidaezina izatea.

Hurrengo kontaketa ongi ikus daitezke fenomeno horiek:

A«Neure buruari galdetzen nion: eta zergatik ez duzu lehenago salatu? Eta esaten nuen, zer salatuko dut? Gizon horrek polita naizela esan didala? Zuek orain gauza hainbesterako ez dela izan esaten ari bazarete. Hori esan izan banu, barre egingo lukete. Bai noski, kontua da beti justifikatu behar duzula. Goiz salatzen baduzu, goizegi egin duzu eta feminista erradikala zara. Ez baduzu salatzen...gustatzen zaizula eta onartzen ari zarela izango da.

(...) Nik hori (musua) erasotzat hartu nuen, nire intimitatea hausten ari zarelako, ahozkotik fisikora pasatzen ari baita (...) Noski, onartzearen arazoa da oraindik, zoritxarrez, ergel hori jasatea ez dela prozesu batean sartzea baino dramatikoagoa; izan ere, azkenean, lehendabizi zure hitza zalantzan jartzen dute, gero zintzotasuna, nahiz eta niri bost axola zintzotasuna, baina beste emakume batzuegan eragin handiagoa izan dezake horrek, eta gaizki eramaten da hori. Oso gaizki eramaten da.

5.1. EKINTZA SINDIKALA: JAZARRITAKO EMAKUMEARI SINESTEIA ETA AUKERATZEN UZTEA

Hortaz, funtsezkoa da ekintza sindikala malgua eta gogoetatsua izatea. Sindikalistak berak pres-

tatzea, gizonak nahiz emakumeak, eta legezko gaiekin eta zigorrekin ez itsutzea. Zenbait kasutan salatzea estrategia ona izan daiteke, emakumezko langilearentzat nahiz berdintasuna lortzeko. Baina emakumeak laguntza handia badu eta horrela nahi badu bakarrik lortuko du ondorio ona.

Baina gehienetan, jazarritako emakumeak behar duena inguruaren eta lan egiten duen erakundearen laguntza da. Langileek beren strategiako probatzeko, jazarpena saihesteko edo txantxekin erantzuteko, sentiberak izateko edo hain sentiberak ez izateko, deprimitzeko edo barre egiteko eskubidea dute. Egoera beren mesederako erabiltzeko eskubidea dute, hala ere, errealtatean ez da normalean gertatzen; ia ezin da aipatu. Emakumeak sexua beren mesederako erabiltzeagatik zigortzea oso zabaldua dagoenez, ez luke zentzu handirik izango.

Sinesteko jarrera tipifikatua eskatzea, sexu jazarpena bera bezalako opresio sakona da. Taldearen solidaritatea eta jazarpenaren giro areritsua, berriz, landu behar diren benetako aukerak dira. Etsaitasunezko giroa ez da gai ukatzailea. Enpresa eta giza baliabideen zuzendaritza askok ukatzen dute hori beren inguruetan gerta daitekeenik. Horrela, emakumezko langile batek erreklamatzeko aukera ixten ari dira. Gizarte gatazkak azaleratzea utzi behar da, eta auzitegietan konpondu ordez inguruan bertan egitea, gizarte bizitzan. Jazarritako emakume batek dena argi ikusten du.

«(...) Baina noski, lankideek alde batetik... gizagaixoa, ze pena...Lankideak harekin gosaltzera joango ez balira, agurtuko ez balute, ziur asko, arazoa berez konponduko litzateke, berak eskatu beharko bailuke tokiz aldatzea. Oso zaila da egun guztietan lanera joatea, inor ez zaituelako aurpegira begiratzen. Mundu guztiak hori egingo balio, baja eskatuko luke, egoera konpondu arte, edo lekuz aldatzea eskatuko luke, edo oporrak, zerbait, hau guztia konpondu arte».

Jazarpenaren arazoiek egiturazko dimentsioa eta dimentsio diskurtsiboa dute. Hau da, lantokian desberdintasun egoerak daudenean gertatzen dira eta okerrera egiten dute, eta diskurtsoak emakumeak ez dituen errespetatzen. Bi dimentsio horietan dago sindikatuek egin behar duten benetako ahalegina.

5.2. EKINTZA SINDIKALA: LANTOKIAK ETA LANTOKIKO KULTURA ALDATZEA

Beraz, jazarpen egoerak ez dira erakundeek eta sindikatuek «landu» behar duten oinarritzko elementua. Ikerketa honetan errepikatu dugunez, garrantzitsuena da jazarpenaren jatorria, mendetasun eta nagusitasun egoerak ulertzea eta zuzentzea.

Lantokian gizon eta emakumeen artean berdintasuna lortzeak aldeko fronte ugari ditu:

- Ordaindutako eta ordaindu gabeko lana baloratzea eta gizarte itun berri bat proposatzea, gizarteak, oro har, eta batez ere gizonak, ugaltzeko lanen balioa eta prestigioa bere gain har dezaten.
- Enpleguan okupazioak banatzea saihestea, lanpostuak sexu batekin edo bestearekin ez identifikatzeko eta lan munduan gizonen eta emakumeen inguruan dauden aurreiritziak eta estereotipoak desitxuratzeko.
- Emakumeei boterea izateko, nagusitasuna izateko eta mailaz igotzeko moduetan laguntzea, lantokian lan egiteko eta izateko moduak berriz interpretatzeko, eta emakumeei legezkoatasuna emateko erakundeetan agintzeko eta erabakitzeko.
- Emakumeen diskriminazioaren aurka borrokatzea, besteak beste, enplegua, soldata, kontratua eta lan baldintza egokiak lortzeko aukera izan dezaten.

· Lan kultura aldatzen ahalegintzea, eta pertsonen desberdintasuna baloratzen den, gatazka ukatzen ez den eta ebazteko modu berritzaileak eta bidezkoak bilatzen diren inguruak sortzea.

Ez dago jazarpena berez azaltzen duen enpresa motarik, are gutxiago giza talderik. Ziur gaude enpresa batek emakumeak baztertzen ez baditu, hautaketa prozesuak eta mailaz igotzeko prozesuak gardenak badira, lanaldiaren eta behar pertsonalen arteko oreka errespetatzen bada, lanak modu sexistaren bidez banatzen ez badira, askoz ere zailagoa izango da sexu jazarpen egoerak gertatzea edo onartzea. Egoera horietan emakumezko langileak gai izango dira beren baliabideekin arazo bati erantzuteko, edo enpresan salatzeko, beharrezkotzat jotzen badute.

6. MASKULINITATEARI, FEMINITATEARI ETA JAZARPENARI BURUZKO ONDORIOAK

Sexu jazarpena, funtsean, besteren subjektibitatea ukatzea da. Itxura eta adierazpen asko ditu, baina emakume taldeetako batek egiten duen bezala defini daiteke:

«Kontua da zure bizi espazioan, zure espazioan bertan, gustura sentitzen zaren espazioan sartzen ari dela; zuk espazio mentala duzu, ezta?, psikologikoa, eta hor sartzen ari da nolabait. Niretzat hori jazarpena da, berdin dit sentsuala den edo ez...».

Ez gizonak ez emakumeak ez dute ezaugarri berezirik beste pertsona bat jazartzeko edo jazarriak izateko joera izateko. Jazarpena beti norabide batean gertatzen bada, emakumeen subjektibitateak gizonenak baino gizarte balio txikiagoa duela da. Bada beste gauza bat da boterea: bestea ukatu ahal izatea da, subjektu moduan guttiz ez onartzeko, eta beraz, erabiltzeko.

Erabilera horren helburuak gizakiaren interesarenak berak dira: emakume handinahi bati aurre egitea, taldearen nortasuna indartzea, harrokeriaren eta indarraren plazera sentitzea, lan baliabideak edo erosotasuna lortzea lanean; baita sexu grina bat asetzea ere.

Jazarpenaren azken arrazoa besteren kontzientzia batekiko errespetu falta da, baliorik ematen ez zaiolako. Errespetuak bi iturri ditu: bestearekin identifikatzeko aukera edo bere boterea onartzea. Sexismoak bi horiek zailtzen ditu. Gizonak ez dira erraz identifikatzen emakumeekin, femeninoa den orotatik bereiziz eraiki dutelako beren nortasuna, baztertuz eta ukatuz.

Halaber, ez da erraza emakumeen nagusitasuna edo botera onartzea, gure gizarteetan eta duela gutxira arte, emakumeak ez dutelako izan ez nagusitasun ekonomikorik ez kulturalik. Hortaz, argi dago maskulinitatearen eta feminitatearen eraikuntza sexu jazarpenaren jatorrian daudelako. Horri aurka egiteak rola zalantzan jartzea ekartzen du, baina batez ere emakumeen botereari laguntzea, gure gizarteetan boterearen inguruan zaratarik gabeko borroka bat dagoela ezkutatu gabe.

7. BIBLIOGRAFIA

- Gutek, B (1989), Sexuality in the workplace: key issues in social research and organizational practice. En J. Hearn, D. Sheppard, P. Tancred Sheriff and G. Burrell (eds), The sexuality of Organization. London) Sage.
- Hearn, J , Parkin, W (1987), 'Sex' at 'Work': The Power and Paradox of Organization Sexuality, Brighton: Harvester Wheatsheaf.
- MacKinnon, C.A (1979), Sexual harassment of Working Women: A Case of Sex Discrimination. New Haven, CT: Yale University Press.
- Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa (2006): El acoso sexual a las mujeres en el ámbito laboral: resumen de resultados, Internet.
- Pernas, B., Román, M, Olza, J (2000): El alcance del acoso sexual en el trabajo en España, Secretaría Confederal de la Mujer de CC.OO., Madrid.
(2000) La dignidad quebrada: las raíces del acoso sexual en el trabajo, La catarata, Madrid.
- Pernas, B. (2001): «Las raíces del acoso sexual: las relaciones de poder y sumisión en el trabajo », Osborne, R. (koord) La violencia contra las mujeres. Realidad social y políticas públicas, UNED, Madrid.
- Pringle, R. (1989): Secretaries Talk: Sexuality, Power and Work, London, Verso.
- Rubinstein, M. (1987) : La dignité de la femme dans le monde du travail: rapport sur le problème du harcèlement sexuel dans les états membres des communautés européennes, Europako Batzordea.
- Stockdale, J.E, (1991) «Sexual Harassment at work», en Firth-Cozens, Jenny and West (eds), Women at Work, Open University Press, Philadelphia.
- Torns, T., Borrás, V., Romero, A. (1999): «El acoso sexual en el mundo laboral: un indicador patriarcal», Sociología del Trabajo aldizkarian, garai berria, 36. zk., 1999ko uda.
- Wise, S., Stanley, L. (1992): El acoso sexual en la vida cotidiana, Paidós Ibérica.



Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

DROGAK ETA GENEROA

Farapi S.L.
2009

AURKIBIDEA

1. Genero ikuspegia	48
1.1. «Generoaren» definizioa	48
1.2. Genero ikuspegia	49
2. Kontsumo mailak	50
2.1. Alkoholaren kasua	50
2.2. Beste substantzia batzuk	53
3. Beste datu batzuk	56
3.1. Genero ikuspegia droga-mendekotasunari buruzko ikerketetan	57
4. Testuinguru soziokulturala	60
5. Emakumeen kontsumoak, gizonen testuinguruak	62
5.1. Maskulinitateari buruzko ikerketak	62
6. Generoa eta performatibitatea	63
6.1. Maskulinitatearen definizio negatiboa	63
6.2. Boterea eta menderatzea	63
7. Frogapenak, gogortzea eta onartzea	64
7.1. Indarkeria	64
7.2. Arriskua	65
7.3. Kontsumoa gizonen jarduera moduan	65
8. Emakumezko kontsumitzaileak aisialdiko testuinguruetan	66
9. Consumo en contextos de ocio	68
10. Psikofarmakoak	70
11. Joera osasun sisteman	70
11.1. Emakumeen mendetasun egoera	72
11.2. Psikofarmakoen hautematea	72
12. Bibliografia	74

Ikastaro honen bidez, drogen kontsumoa aztertzeko eta horri buruzko gogoeta egiteko zenbait gako eman nahi ditugu, genero ikuspegitik.

Ikastaro honetan zenbait gai aztertuko ditugu, eta espero dugu, kontsumoan, emakume eta gizonen artean dauden desberdintasunak eta desberdintasun horien arrazoiak ulertzeko balio izatea. Halaber, esku hartzeko neurri egokiak zein diren adierazten saiatuko gara, alderdi horiek kontuan hartuta.

1. GENERO IKUSPEGIA

1.1. «GENEROAREN» DEFINIZIOA

Gaia azaltzen hasi aurretik, garrantzitsua da generoari buruz hitz egiten dugunean zeri buruz ari garen argitzea.

Generoaren kontzeptua «gizonek eta emakumeek gizarte egituren zuten lekua ezaugarri biologikoen ondorioz hartzen zuten nonahiko teoria determinista biologikoei aurre egiteko» sortu zen (Maquieira 2001: 159). Kontzeptu hau emakumearen eta gizonaren ikuskeraren naturalizazioa zalantzan jartzeko sortu zen. «Emakumea ez da berez emakume jaiotzen, egiten da».

Gizon eta emakumeen artean ustez dauden desberdintasunek gizarte antolaketarekin lotura dutela dioen ideia oso erroturik dago mendebaldeko pentsamoldean. Ideia hori, emakumeak mendeko lekuan dauden gizarte ordena sortzen ari da. Horregatik teoria feministak sexua eta generoa bereizten ditu. Sexua honela ulertzen dute: gorputzaren ezaugarri morfologikoak (genitalitatea, ugaltze aparatuen ezaugarri morfologikoak eta desberdintasun hormonal eta kromosomikoak barne hartuz). Generoa honela ulertzen dute: femeninoaren eta maskulinoaren egite kulturala, atzemandako ezaugarri biofisiologikoen eraikuntza kulturala.

Bereizketa horren helburua, alderdi bata eta bestea bereiztea izan zen, emakumeek eta gizonek gizartean duten lekua gizarte eta kultura antolaketaren arabera dela egiaztatzeko, eta ez ustez dauden desberdintasun biologikoen arabera. Orduan generoaren eraikuntza testuinguru sozial, kultural eta historikoan ulertzen lan egin dute, gizarte zientzien lanik garrantzitsuenetako bat baita (ibid.: 161).

Genero kategoria erabiltzeak, sexu desberdintasunen interpretazio, sinbolizazioa eta antolaketa modu ugari onartzea ekarri zuen, gizarte harremanen ondorioz. Horrez gain, funts femeninoa edo maskulinoa zegoela kritikatu zuten (ibid.: 160).

«Generotzat» bi gauza ulertu behar dira: Antzemandako ezaugarri biofisiologikoen eraikuntza kulturala eta kategoria analitikoak.

Generoak arauak eta hierarkizazioa ekartzen ditu. Halaber, analisi kategoriak haren sorrera ulertzeko aukera ematen du, testuinguru sozial, kultural eta historiko jakin batzuen barruan. Hau da, generoa sistema bat moduan eta analisi kategoria bat moduan ulertu behar da.

Sexuari dagokionez, beti konstante unibertsala edo historiatik kanpoko errealitate naturala ez dela argitu behar dugu.

Gizon eta emakumeen portaera egokien sistema sexuaren ezaugarri fenotipikoak hautamen aurretik gertatzen da, eta genero eskaeretara egokitu behar du, Jose Antonio Nieto antropologoaren ustez:

«Sexua generoaren bidez ezartzen da, gizartean» (1998:26). Halaber, kulturaren izaera banatzen duen muga zehaztugabea agerian uzten du berriz, eta haren eraikuntza soziokulturala erakusten du, esanahi, arau erregulazio eta asmaketa teknologikoko sistema baten bidez. Carole Vancek adierazi duen moduan, «gorputza eta haren ekintzak gizarte jakin batean dauden esanahi kodeen arabera ulertzen dira» (1985:8).

1.2. GENERO IKUSPEGIA

Genero ikuspegia aztertzea oso erraza da, emakumeek eta gizonen baldintzatzaile desberdinei erantzuten dietelako eta, beraz, errealitatea ulertzeak batak zein besteak baldintzatzen dituzten alderdiak eta eragileak bereiz aztertzea ekartzen du.

Halaber, lan konplexua da, ez direlako baldintzatzaile desberdinak soilik; sexuen eta gizartearen artean egindako harremanaren berariazko konfigurazio baten ondorioa diren baldintzatzaileak baizik. Kontuan hartu behar dugu gizarte antolaketaren euskarri nagusietako bat genero sistema dela. Horregatik, harreman estua dago emakumeak eta gizonak baldintzatzen dituzten faktoreen artean; beraz, ezin dira bereiz hartu. Ez dugu ahaztu behar sistema bati buruz ari garela.

Genero sistemaren ezaugarri nagusia polaritatea da. Mekanismo indartsua da, maskulinoari edo femeninoari dagokienez, alderdi ugari antzemateko aukera ematen diguna; aurkaritzan oinarrituz beti. Horrela, emakumeek eta gizonen ez dituzte definizio desberdinak bakarrik; oro har, kontrakoak dira.

Maskulinitatea eta feminitatea termino konplexuak dira, eta zenbait ezaugarri termino baten barruan edo bestean biltzea dute helburu. Normalean, gizonen eta emakumeen esleitzen zaizkie hurrenez hurren, bereizita. Gizarte guztiek ez dute mota honetako erregistrorik, termino batoren eta bestearen artean harreman polarizatua hartzea eskatzen duelako horrek. Gizonak eta emakumeak ezaugarri polarizatuen eramailetzat hartzen dira. Kultura batean femeninoztat hartzen dena, bestean, maskulinoztat egiten da.

Baina kontuan hartu behar dugu gizarte antolaketak ez diola erantzuten sistema estatiko bati, eta etengabe gertatzen direla aldaketak. Horrela, emakumea eta gizona izatea zer den nola ulertzen dugun eta gizartean duten lekua nahiz sexuen arteko harremana ere aldatu egiten dira. Sistema honetan ez dira aldaketak edonola sartzen, eta sisteman bertan eztabaida eta doiketa handiak ekarri ohi ditu. Emakumeen kokapenari eta kontzeptualizazioari dagokienez, azken mendean gertatutako aldaketek zenbait doiketa eskatzen dituzte, eta horren ondorioak ezin ditugu oraindik balioztatatu, aurretik esan dugun moduan, sexuen eta haien kokapenaren arteko erlazioa gizarte antolaketaren funtsezko euskarrietako bat baita.

Aldaketa horiek gizartearen antolatze moduaren aurka egiten ari dira, emakumeen eta gizonen ikuspegi berezian oinarritzen baita, bakoitzari leku jakin eta kontrakoa ematen diena. Beraz, baten aurka egiten badugu, bestearen eta bata nahiz bestearen aurka ere egingo dugu. Emakumeek gizartean duten posizioan aldaketarik gertatuko balitz, egiturazkoa izango litzateke; hor-taz, gizonen posizioan ere eragina izango luke.

Emakumeak «femenino» esaten zaion horretatik ihes egiten saiatzen ari dira, baita horren definizio berria sortzen saiatu ere. Horren ondorioz, tradizioz, gizonenak izan diren esparruetan posizioak hartzen ari dira. Maskulinoa zer den eztabaidatzea eragiten ari da hori.

Horrek maskulinoaren eta femeninoaren definizioak eta haien arteko erlazioa egokitzea dakar. Egia esan definizio berri horiek sortzea ez da zailena, baizik eta genero sistemaren baitan dagoen polaritatearekin bukatzea. Horrela, polarizazio dinamika berari, eta ondorioz, hierarkizazioari,

erantzuten jarraitzen diren definizio berriak sortzen dira, eta sistemak egokitzeko dituen mugak agerian geratzen dira. Horren adibidea dugu kristalezko sabaia.

Drogazaletasunaren fenomenoaz aztertzean ezin ditugu alde batera utzi aipatu ditugun aldaketa horiek. Izan ere, argi agertzen dira emakumeen kontsumo jarreraren aldaketan. Jarrera horien bidez, emakumeak, eta horren ondorioz, gizonak, hartzeko eta definitzeko moduaren aurka egiten ari dira. Hor ikusten duguna da drogen kontsumoari dagokionez, gaur egun, maskulinitzat jotzen diren posizioetara aldatzen ari direla emakumeak, hein handi batean, behintzat.

Ikus ditzagun, hasteko, kontsumoari dagokionez emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunak.

2. KONTSUMO MAILAK

2.1. ALKOHOLAREN KASUA

Alkohola emakume eta gizonen artean kontsumoan dagoen desberdintasunaren adibide ona da, bestelako arazoien artean kontsumoa munduko herrialde desberdinetan hedatu delako eta gehien ikasitako drogetakoa izan delako. Horrez gain, nolabait estandarizatuta dauden neurketa parametroak ditu.


Emakumeen eta gizonen kontsumoari buruzko datuak egindako ia ikerketa guztietan errepikatzen dira. Hemen, erreferentzia moduan, «Alcohol, Gender and Drinking Problems, Perspective from Low and Middle Income Countries» lanaren lehen kapitulua hartu dugu (OMEk 2005ean egindako txostena¹), «Why Study Gender, Alcohol and Culture?» izenburua duena, hain zuzen.

Hau da ematen duen lehen iritzia: «emakumeen aldean, mundu osoan, gizonek alkohol gehiago edateko, kontsumitzeko eta horren ondorioz, arazo gehiago sortzeko aukera gehiago dituzte» (2005: 1). Testu honek ematen dizkigun bestelako datuak:

- «Abstinentzia askoz ere ohikoagoa da emakumeen artean gizonen artean baino» (ibid.: 3).
- «Eskualde guztietan gizonek emakumeek baino alkohol gehiago kontsumitzen dute, baina zenbait eskualdetan, aldeak ez dira besteetan bezain nabariak» (ibid.: 3).
- «Gizonek emakumeek halako bi aukera gehiago dituzte mozkor larriko gertakariak izateko» (ibid.: 4)
- «Gizonek emakumeek halako bi aukera gehiago dituzte alkohol hartze larri kronikoko gertakariak izateko» (ibid.: 5).
- «Alkohol intoxikazioa askoz ere gehiagotan errepikatzen da gizonen artean emakumeen artean baino» (ibid.: 5).

1. Wilsnack, Richard W., Wilsnack, Sharon C. & Obot, Isidore S. (2005) "Why study gender, alcohol and culture?", Obot, Isidore S. & Room, Robin World Health Organization, Alcohol, Gender and Drinking Problems, Perspective from Low and Middle Income Countries. WHO [3. or. 12-23]

- «Gizonek emakumeen aukera bikoitza baino gehiago dituzte alkoholaren erabilerarekin zerikusia duten arazoak izateko. Gizonek emakumeek baino askoz ere aukera gehiago dituzte diagnostika daitekeen alkohol gehiegi edatearen arazoa izateko» (ibid.: 5).
- «Gizonek emakumeek baino askoz ere aukera gehiago dituzte diagnostika daitekeen alkoholaren mendetasuna izateko» (ibid.: 5)
- «Argi dago alkoholarekin zerikusia duten heriotzak eta toxikazioak gertatzeko aukera gehiago dituztela gizonek emakumeek baino» (ibid.: 6) .
- «Kontsumo kaltegarri eta arriskutsuarekin lotutako osasun egoera asko ohikoagoak dira gizonen artean emakumeen artean baino» (ibid.: 6).




Generoari, alkoholari eta kulturari buruzko «Genacis proiektuaren» Nazioarteko Ikerketaren grafikoetan argi ikusten dira Espainiako emakumeen eta gizonen artean kontsumoan dauden desberdintasunak.

Ildo beretik doaz «Euskadi eta drogak 2006» txostenaren datuak. Grafiko hauetan, adin tarte eta kasu guztietan, gizonak alkohol kontsumitzaile nagusiak direla ikusten da. Emakume gehiago ikusten dira gehiegizko kontsumoaren eta asteburuko arriskuaren kasuetan (ia % 40). Halaber, deigarria da 65 urtetik gora alkohol kantitatea handitzen dela, baina txostenak argitu du hori gerta daitekeela emakume kopurua adin horrekin gizonen kopuruaren halako 1,4 delako (Euskadi eta drogak: 70).

GENACIS² txostenak argi uzten du emakumeek beti alkohol kantitate txikiagoa kontsumitzen dutela gizonek baino, eta aldi gutxiagotan. Horrez gain, jarrera zenbait eta muturrekoagoa izan (alkohol kantitate handia sarritan hartzea) gizonen eta emakumeen arteko aldea orduan eta handiagoa da. Grafiko honetan edari handien ehunekoa ikus daiteke, normalean edaten dutenak herrialde eta sexuen arabera bereizita (8,468 gramo alkohol baino gehiago hartzen duenari «edale handia» esango diogu):

2. "Gender, Culture and Alcohol Problems: A Multi-national Study" <http://www.genacis.org/>

Eguneroko edaleen artean, gehiegizko kontsumoa edo arriskukoa duen emakumeen ehunekoa, eta azken urtean hilean bitan baino gehiagotan mozkortu direnena (% bertikalak)




3. GRAFIKOA | Iturria: Euskadi eta drogak 2006

Fenomeno hori unibertsala bada ere, onartu behar dugu «genero desberdintasunak nabarmen aldatu direla zenbait gizartetan, aro historikotan eta edateko ereduetan, eta unibertsaltasuna eta genero desberdintasun horien aldakortasuna ezin izan dira ongi azaldu». (Wilsnack et al.: 1).

Eredu horien unibertsaltasunak alde biologikoak daudela pentsaraz dezake. Hala ere, egia esan, gizarteetan nahiz gizarte berean talde edo maila desberdinetan dauden aldeak direla eta, zaila da joera hori biologiari leporatzea. Izan ere, zenbait herrialdetan, alkohol kontsumoaren zenbait ezaugarri parekatzen dira sexuen artean. Wilsnack, Wilsnack eta Obot egileek jasotakoaren arabera, «genero desberdintasunak murriztu edo desagertu egin dira Europako zenbait herrialdetan (hala nola Irlandan, Norvegiar eta Erresuma Batuan), baia baita garatzeko bidean diren zenbaitetan ere (hala nola Nigerian eta Mexikon), noizean behingo alkohol hartze larriari dagokionez» (ibid.: 5).

Edale handien ehunekoa ohiko edaleenaren aldean, sexuaren arabera (18-34 adin-tartea)



4. GRAFIKOA | Iturria: GENACIS (Gender, Culture and Alcohol Problems)

Gizonak Emakumeak

Ohiko hipotesia da emakumeen kasuan alkohol kontsumoa handitzen dela gero eta emakume gehiago antzina gizonenak ziren lanak egiten hasi direlako. Horrela, maskulintzat jotzen ziren ohiturak hartzen hasi dira, derrigorrez hasi direlako lanean. Hala ere, hori ez da beti neurri berean eman. Gerta daiteke emakumeek zenbait kontsumo eredu hartzea, baina beste batzuk,

berriz, ez. Horrela, alkohol kontsumoa handitzea ezin zaio beti egotzi emakumeek autonomia handiagoa eta aukera gehiago izateari; behintzat, ez da arrazoi nahikoa izan emakumeek gizonen beste eta ondorio berdinekin edateko. (ibid.: 8). Zalantzarik gabe, kontuan hartu beharreko arrazoiak izan daitezke, hala ere, testuinguruan sartu eta alkoholaren eta generoaren inguruan dauden kultura ezagutzekin lotu behar dira.

Zenbait azalpen eman dira gizonen kontsumo handiagoari buruz, baina bat ere ez da eskusiboa izan eta aldi berean gerta daitezke. Alkohol kontsumoari dagokionez, sexuen arteko desberdintasuna azaltzeko nahikoa hedatuta dagoen hipotesi bat da alkohola gizentasuna adierazteko baliabidea dela, batez ere nahiz eta alkohol kantitate handia kontsumitu antza eraginik ez dutela izan erakusteko (ibid.: 8). Hori horrela, alkoholaren kontsumoa botere ezaugarriekin lotzen da (pairamena, iraupena); baita indarkeriarekin ere.

Emakumeen alkohol kontsumo txikiagoa azaltzeko, beste hipotesi bat dago: alkohola sexualki desinhibitzen duen substantzia bat denez, emakumeentzat negatiboa da, eta ez dute hainbeste edaten topaketa sexualak saihesteko eta beren sexualitatearen gaineko kontrola indartzeko. Horrek lotura handia ere badu emakume edalearen (eta, oro har, aurrerago azalduko dugun drogazalearen) inguruko estereotipo negatiboekin.

Gizonen arrisku jarduerak egiteko joera dutela da beste hipotesi bat, alkohol kontsumoa mota horretako jardueratzat hartzen badugu. Arrisku jarduerak eta jarrerak gizentasuna nabarmentzeko ere balio dute (ibid.): 9 (gai hau aurrerago azalduko dugu).

Laugarren hipotesi batek alkohol mailak emakume eta gizonen ardurekin lotzen ditu, bereziki etxekeekin (ibid.: 9). Batetik, gizonen gehiago edateko joera dute zenbait ardura hartzen ez dituztelako (bereziki etxekeak), edo zenbait betebeharrak, antza, ez dagokielako haiei. Bestalde, emakumeek gutxiago edaten dute ardura gehiago hartzen dituztelako beren gain; bestela, ezin izango lituzkeelako behar bezala egin, edo gizarteak emakumeen portaera gehiago kontrolatzen duelako. Zenbait kasutan, etxeke erantzukizun gehiegi eta ordaindutako lanak izateak, zenbait emakume gehiegi edatea eragin lezake.

Hipotesi horiek guztiek egoera desberdinei erantzun liezaiekete, eta konbinatuz ere balio lezakete. Argi dagoena da alkohol kontsumoa gizonen artean muturrekoagoa edo arazotsuagoa dela, eta gizonen eta emakumeen arteko aldeak handitzeko joera dutela balio handiagoa ematen zaionean:


- Gizonen nagusitasunari
- Gizonen berrespen sexualari
- Arriskuaren eta maskulinitatearen arteko erlazioari
- Eta erantzukizunak ez izateari (etxekeari edo familiakoari dagokienez) (ibid.: 10)

Hala ere, gizonen alkohol kontsumo handiagoari buruzko hipotesi asko badago ere, oraindik emakumeek zergatik edaten duten azaltzeko arrazoiak aurkitzeke daude.

2.2. BESTE SUBSTANTZIA BATZUK


Mota guztietako substantzien kontsumoaren panoramika aldatzen ari den arren, emakumeen posizioari dagokionez gure gizarteetan aldaketak gertatu direlako eta substantzia berriak eta kontsumitzeko modu berriak sartu dituztelako, gehiegizko kontsumoarekin arazoak dituztenek gizonak izaten jarraitzen dute. Horrela, alkohol kontsumoaren baitan agertzen diren zenbait alderdi beste substantzia batzuetan ere agertzen dira.

Eguneroko erretzaileen prebalentzia t(%), generoaren eta adinaren arabera aldi berean (P<0,005)




5. GRAFIKOA | Iturria: «Genacis proiektua», nazioarteko Ikerlana

Kalamu kontsumoaren prebalentzia azken 12 hilabeteetan (%), generoaren eta adinaren arabera aldi berean (P<0,005)



6. GRAFIKOA | Iturria: «Genacis proiektua», nazioarteko Ikerlana

Legez kanpoko drogen kontsumoen prebalentzia, kalamuarena salbu, generoaren eta adinaren arabera (%)



7. GRAFIKOA | Iturria: «Genacis proiektua», nazioarteko Ikerlana

Hemen bi txostenen datuak jaso ditugu («Genacis proiektuaren» Nazioarteko Ikerketa eta Euskadi eta Drogak 2006). Lehenengoa Valentziako Erkidegoan, Kantabrian eta Galizian jasotako datuetan oinarritzen da, eta, bigarrena, 2006an Euskadin jasotakoetan. Ziur asko, antzeko datuak aurkituko ditugu beste testuinguru askotan.

Grafiko hauetan tabakoaren (4. grafikoa) eta kanabisaren (5. grafikoa) kontsumoak ikus ditzakegu. Gazteen artean tabako kontsumo handiagoa antzematen bada ere, batez bestekoa askoz ere handiagoa da gizonen kasuan (% 48,4 %31,8aren aldean).

Kanabisaren kontsumoaren kasuan, gizonen batez besteko kontsumoa emakumeenaren bikoitza da. (% 11,2, % 6,0aren aldean). Legez kontrako beste substantzia mota

batzuen erabilerrari dagokionez (kanabisa izan ezik), azterketa honetan datu mota bera ematen da berriz, hau da, gizonen artean kontsumoaren batez bestekoa % 4,4koa da; emakumeena, berriz, % 1,0koa.


Halaber, estasiaren kontsumitzaileen polikontsumoari dagokionez, aldeak ere ikusten ditugu nahasten diren substantzia motari dagokionez. Estasia kontsumitu duten gizonen normalean LSD, kokaina eta anfetaminak hautsetan edo speeda ere hartu dute aurretik. Emakumeen artean, berriz, ez da hori gertatzen. Polikontsumoaz ari garela, emakumeek tabako edo lasaigarri gehiago hartzen dituzte gizonen baino (Romo 2001).

Hiru edo substantzia gehiagoren polikontsumitzaileen profila, generoaren eta adinaren arabera (%) Polikontsumoaren prebalentzia orokorra 3 edo gehiago 3.2 substantzia:

GIZONAK 5.1 - EMAKUMEAK 1.4

1 TAULA | Iturria: «Genacis proiektuaren» Nazioarteko Ikerketa

Noizean behingo, duela gutxiko eta egungo estasi-kontsumo maila (%)



8. GRAFIKOA | Iturria: Euskadi eta rogak 2006

Halaber, drogen kontsumo arazotsuari dagokionez, gizonek emakumeek halako lau kasu gehiago dituzte (Euskadi eta drogak: 261), beraz, % 72,4 dagokie gizonari eta % 27,6 emakumei.

Emakumeek legezko drogak, psikofarmakoak edo txosten honetan adierazten den moduan, efektu lasaigarria edo enpatikoa duten substantziak, hala nola estasia (ikus 7. grafikoa) nahiago dituzte. Bestalde, indarkeriazko jarrerekin zerikusia duten substantziak hartzen dituztenak, gehienbat, gizonak dira.

Euskadin, beste herrialde askotan bezala³, emakumeek gizonek baino psikofarmako gehiago hartzen dituzte, medikuak aginduta edo ez. Euskadi eta drogak 2006 txostenaren arabera, «emakume kontsumitzaileen proportzioak gizonena ia bikoizten du»; horren ondorioz, hemen ematen den kontsumo ratioa (2:1) beste ikerketa batzuetan (Euskadi eta drogak 2006: 207) egindakoren antzekoa da. Taula honetan, medikuaren errezeta duten psikofarmakoen kontsumo maila ikus daiteke, sexuen arabera.

PSIKOFARMAKOEN KONTSUMOA MEDIKU-ERREZETAREKIN, GENEROAREN ARABERA	Gizonak	Emakumeak	GUZTIRA
LASAIGARRIAK			
Noizbait	11,1	22,1	16,6
Azken urtean	8,2	14,6	11,4
SOMNIFEROAK			
Noizbait	7,4	14,0	10,7
Azken urtean	5,7	10,7	8,2
ANTIDEPRESIBOAK			
Noizbait	5,7	12,0	8,9
Azken urtean	4,4	7,6	6,0
BESTE PSIKOFARMAKO BATZUK			
Noizbait	14,7	30,0	22,4
Azken urtean	10,8	20,7	15,8

2. TAULA | Iturria: Euskadi eta Drogak (2006)

Laburbilduz, emakumeek bi kasutan bakarrik gainditzen dituztela gizonak kontsumoan: tabakoa emakume gazteetan eta psikofarmakoetan. Horrez gain, estasi kontsumoa, zenbait kasutan, gizonenaren antzekoa dela adieraz daiteke.

3. BESTELAKO DATUAK

Egoki deritzogu emakumeek eta gizonak zenbait testuingurutan dituzten portaera desberdinen deskribapen kualitatiboa egiteari. «Aisialdiko drogak eta genero ikuspegia»⁴ azterketan, aisialdiko testuinguruetan emakumeen kontsumoa definitzen duten zenbait ezaugarri jasotzen dira modu sintetikoan, eta guztiz bat dator beste iturri askotan deskribatutakoarekin. Aipatutako txostenean emakumearen kontsumoa bakarrik aipatzen badute ere, erraza da maskulinoa nola definitzen duten ondorioztatzea; emakumeen kontrakoa jarri besterik ez da egin behar, femeni- noa deskribatzeko maskulinoa hartzen dutelako oinarritzat. Erraz ondorioztatu arren, ezinbesteko- koa deritzogu haiek adierazteari, oro har, ez direlako aipatzen.

EMAKUMEAK	GIZONAK
<p>-Hartzen dituzten dosiak txikiagoak dira. -Irteera eta kontsumoen maiztasuna txikiagoa da. -Nahaste gutxiago egiten dituzte. -Ibilbide laburragoak egiten dituzte: -Lehenago nekatzen dira. -Gizarteak gehiago babesten ditu neskek mutilak baino oraindik. -Ez dira gustura sentitzen, batzuetan, dibertitzeko lekuetan eta lehenago joaten dira. -Gurasoek alabak semeak baino gehiago kontrolatzen dituzte. -Portaeretan eta egoeretan agresibitatea saihesten dute. -Neskek arrisku handiagoa antzematen dute substantzien kontsumoan. -Zuhurragoak dira. -Ernaiagoak dira eta dibertsioaren antolaketa gehiago zaintzen dute. Izan ere, askotan, kontsumituko duten dosia erositako joaten dira festara, ustekabeko egoerak saihesteko. -Legezko droga gehiago hartzen dituzte legez kontrakoak baino, beraz, zenbait egoera arazotsu saihesten dituzte. -Zenbait kontsumoren (hala nola bizigarriak), gatazkaren eta egoera gatazkatsuren ondorioetatik ihes egiten dute. -Neskek ez dira alaituta egoteaz harro agertzen.</p> <p>Rekalde, Ángel (2005)</p>	<p>-Hartzen dituzten dosiak handiagoak dira. -Irteera eta kontsumoen maiztasuna handiagoa da. -Nahaste gehiago egiten dituzte. -Ibilbide luzeagoak egiten dituzte: -Beranduago nekatzen dira. -Gizarteak gutxiago babesten ditu mutilak neskek baino oraindik. -Gustura sentitzen dira dibertitzeko lekuetan eta berandago joaten dira. -Gurasoek semeak alabak baino gutxiago kontrolatzen dituzte. -Portaeretan eta egoeretan ez dute agresibitatea saihesten. -Neskek arrisku txikiagoa antzematen dute substantzien kontsumoan. -Ez dira hain zuhurak. -Ez dira hain ernaiak eta dibertsioaren antolaketa ez dute hainbeste zaintzen. Festara joaten dira zenbat eta zer kontsumituko duten aurreikusi gabe. -Legez kontrako droga gehiago hartzen dituzte legezkoak baino, beraz, zenbait egoera arazotsutan nahastu daitezke. -Zenbait kontsumoren (hala nola bizigarriak), gatazkaren eta egoera gatazkatsuren ondorioetatik ez dute ihes egiten edo haiek erakartzen dituzte. -Mutilak alai-</p>

Ezaugarri horiek taula batean laburtu ditugu, eta gizonen kasuan baliokidea dena adierazi dugu.

Deskribapen hau bat dator beste batzuekin, eta ulertzen dugu ongi laburtzen duela aurre egingo diogun egoera. Gure ustez, alderdi deskribatzaile horiek nahikorik biltzen dituzten datuak eta bibliografia badaude; hortaz, egokiagotzat jotzen dugu kontzeptualagoak diren alderdiak aztertzea, eta horiek azalduko ditugu jarraian.

3.1. GENERO IKUSPEGIA DROGA-MENDEKOTASUNARI BURUZKO IKERKETETAN

Gaur egun, genero ikuspegitik aztertzen ari diren arlo askotan egoera berezi batekin topo egiten dugu, genero azterketen bilakaerarekin zerikusia duena. Emakumeak azterketa guztietan sistematikoki ikusezin egiten zituzten egoeratik, emakumeei buruzko azterketei esker, argitara eman diren eta egoera, faktoreak (sozialak, etnikoak, kulturalak eta historikoak) eta alderdiak ezagutzeko aukera eman digun beste egoera batera pasa gara. Alderdi horiei esker, emakumeek, hainbat fenomenori buruz gindako azalpenei eta deskribapenei ez dietela erantzuten ulertu dugu.

Azalpen horiek, aztertutako banakoak gizonak ziren hipotesi inplizituan oinarritu dira, edo hobeto esanda, banako «neutroak» gizonak zirela, eta emakumeak «besteak» zirela. Izan ere, azterketa askotan, emakumeei buruzko atal bereizi bat dago, haien zehazpenei buruz aritzeko. Hortaz, ondorioztatu dugu pertsonen sexuari buruz ezer esaten ez denean gizonari buruz ari direla.

Horri «androzentrismo» esan zaio eta haren emaitzek Lévi-Straussen testu txiki honen antzeko itxurak hartu dituzte:

«Herri osoa hurrengo egunean joan zen, hogeita hamar piraguatan, emakumeekin eta haurrekin bakarrik utzita abandonatuta zeuden etxeetan».

Emakumei buruzko azterketak gabezia hori konponduz joan dira (eta gaur egun jarraitzen dute), eta horri esker, gaur egun, uler dezakezu kasu guztietan gizartea gizonari eta emakumez osatuta dagoela, eta biek, fenomeno desberdinak azaldu nahi baditugu, aztertzea eskatzen duten baldintzatzaile desberdinei erantzuten dietela.

Baina banakoak gizonen berezko ezaugarriari erantzuten diela onartzeak, ondorio negatiboa izan du gizonen errealitatearen ezagutzari dagokionez. Onarpen horrek, gainera, gizonen bere sexuarenak diren zenbait baldintzatzaile ere dituztela kontuan ez hartzea eramanen gaitu, hau da, banakoak barru ez direla. Hori kontuan ez hartzeak, gizonen izatearen dela onartzeaz gain, haren estatusa natural bihurtzen du, normalizatua.

Laurogeiko hamarkadatik, generoari buruzko azterketen bilakaeraren ondorioz, gizona izatearen «berezitasun» hori hain zuzen ikertzen duen ikerketa lehen bat garatzen hasi dira, emakumeekin egin zuten moduan. Zalantzarik gabe, planteamendu hori ideia honen ondorio da: generoa sistema bat da, eta haren barruan, emakumeek eta gizonenak baten barruan betetzen duten lekua eta haien artean ezartzen den harremana definitzen dira.

Horregatik, hemen, generoari buruz eta emakumei buruz hitz egiten dugu...eta baita gizonari buruz ere, alderatzeaz gain, errealitate sozial, kultural edo historikoaren deskribapenak alde eta kontrakotasun horiek kontuan hartzean bakarrik lortzen duelako zentzu osoa.

Droga-mendekotasunen azterketari dagokionez, fenomenoak ildo honi ere jarraitu diola ikusi dugu. Azterketak, planteamenduak, esku-hartzeak eta bestelakoak, prebentzioa bideratutako kontsumitzaileak, pazienteak edo pertsonak, gizonetzko baten berezko zenbait ezaugarriei erantzuten ziela onartuta egin dira; hala ere, ezaugarri horiek ez dira emakumezkoen ezaugarriekin bat etortzen, ez eta haien antzekoak izan ere. Horregatik, esparru honetan emakumeekin zer gertatzen den aztertzen jarraitu behar dugu. Izan ere, gaur egun, droga-mendekotasunak emakumeengan duen eraginari buruzko bibliografia bat dugu; hala ere, oraindik asko dago egiteko. Baina batez ere, gizona izateak fenomeno berean zer eragina duen, haren sexuak zenbait balio eta ereduak duen lotura, gizarte jakin batean dituen portaerak eta estatusa aztertzeari dagokionez, lan handia dago egiteko.

Droga-mendekotasunari buruzko ikerketen kasuan, baldintzatzaile berezi bat kontuan hartu behar dugu, kontsumo «azarotsuari» batez ere erantzuteko ugaritu zirelako, eta baldintzatzaile hori gizonena da berez, emakumeena baino gehiago. Kasu nabaria da heroinarena, gizonengan emakumeengan baino eragin askoz ere handiagoa izan zuelako (Espainian, 4 gizoneko emakume 1). Zalantzarik gabe, droga-mendekotasunak emakumeen aldean gizon gehiagorengan eragina izatea arrazoia ona da ulertzeko gizonak horregatik izan direla arreta gunea, baina horrek ez du justifikatzen gizon izaera hain zuzen kontuan hartu ez izana.

Baina kopuru kontua izateaz gain, beste maila batzuetan ere eragina du: Gizonen kontsumitzeko moduak eta ondorioak arazotsuagoak dira, indarkeriazko jarrerekin, legez kontrako jarduerekin eta hilkortasun mailarekin (% 20koa da bakarrik European emakumeen kasuan, gizonen % 80koaren aldean⁵) zerikusi handiagoa dutelako. Emakumeenak, berriz, ez dira nabarmentzen, jarraian aztertuko ditugun zenbait arrazoiengatik. Horrekin ez dugu ez justifikatu ez esan nahi Petra Paula Merino, aip. auk.gizonezkoen droga-mendekotasunaren fenomenoak emakumeena baino arreta handiagoa eskatzen duela; emakumeenaren aldean hartutako protagonismo handi hori azaldu baino ez dugu egin nahi (ohiko androzentrismoaz gain).

Gizon kopurua askoz ere handiagoa da, esaterako (alkoholismo edo bestelako mendekotasunen) arreta zentroetan. Horren eraginez, haien beharretara hobeto egokituta daude eta emakumeen kasuak kasu berezi eta ezohikotzat hartzen dituzte; zerbitzuak ez daude haientzat egokituta. Horrela, «zenbait emakume baztertuta ere sentitu dira, heltzen ziren espazio terapeutikoa gizonentzat diseinatuta zegoelako» (Zamora et al 2005: 83)⁶. Emakumeak, beraz, bigarren maila batean geratu dira, eta azterketak, tratamenduak, prebentzio planak eta bestelakoak haiei ez zegoen profil bati erantzunez egin dira, gizonen errealitatera egokituta zeuden azterketa ereduak aplikatuta. «Orain arte, gizonetzko drogazale kopurua emakumeena ia boskoizten duenez, haien egoera laguntza esparruan prekariora izan da, osatzen zituzten tresnak gizonetzkoen ñabardurak zituztelako funtzionalki. Ez da, esan duten moduan, gizonetzkoentzako tresnak direla, baizik eta gizonetzko askoz ere gehiago daudenez, berez, eta batez ere plano horizontaletan (erabiltzaileen arteko erlazioa), haiek ezartzen duten estiloaren mende daudela» (Zamora et al.:84).

Zenbait alderdi kontuan hartu behar dira emakumeei emandako laguntzan, haien mendetasunen arrazoiak eta baldintzak desberdinak izan daitezkeelako gizonen aldean. Halaber, tresna terapeutikoek eraginkortasun mota desberdinak izan ditzakete Esaterako, Blanco, Sirvent eta Palacios (aip. lana) egileen arabera, «mendeko gizona sozializatuago dago, edozein dela duen droga-mendekotasuna. Emakume drogazalea, berriz, bakartiagoa da, eta kontsumoak hein handi batean pribatuak eta eramanezinak dira oro har (gizonengan ere gero eta gehiagotan ematen ari dira egoera horiek). Azken finean, emakume drogazaleak bakardade handiagoa jasaten du» (ibid.: 85). Halaber, «emakumeek tratu txarrak, zapalduak eta sexu abusuak izateko aukera gehiago dituzte. Bortxaketa ez da salbuespenezko gertaera, ezta gutxiago ere, batez ere legezko kontrako drogen mendekoak diren emakumeengan» (ibid.: 85). Horrez gain, emakume alkoho-

5. Petra Paula Merino, aip. auk. .

likoak gizonak baino maiztasun handiagoarekin eskatzen badu tratamendua, bazterreko mende-ko emakumearen kasuan kontrakoa gertatzen da». (ibid.: 83). Halaber, kontuan hartu behar da emakumeen kontsumo ohitura berrien artean ez daudela ezaugarri horiek, bereziki aisialdiko drogetan, taldean kontsumitzeaz gain, normalizatutzat jotzen dituzten, hots, marjinalak ez diren, inguruetan ere hartzen dituztelako.

Baina bitxia ere bada, objektiboki, gizonen buruzko datuak nabariak badira ere, azkenean alde batera uztea; esaterako, droga-mendekotasunak eragin askoz ere handiagoa izatea gizonengan emakumeengan baino, kopuruari dagokionez eta kualitatiboki. Horren arrazoa da, hain zuzen, normaltzat hartu ditugula gizonen artean zenbait portaera eredu: gehiago edaten dute, agresiboagoak dira, ausartagoak eta abar; horrela, ez dugu ezta pentsatzen ere horiek eztabaidatzea, beren portaera haien sexuarekin bat datozeela onartuz begiratzen diegulako datu horiei. Hala, emakumeen ezaugarriak direnean, sexu batekin identifikatzen diren ezaugarrien deskribapena maizago aurkitzen dugu, hala ere, askotan, gizonen deskribapenen kontrakoak dira. Eta askoz ere gutxiagotan aurkituko ditugu, honen modukoa diren planteamenduak: «drogen kontsumoak gizonen bereziki eragiten dien fenomeno da» edo «gizonak arrisku taldea dira», eta, horren ondorioz, zergatik den horrela aztertu beharko dugu. Ikusiko dugu adierazpen hauek modu zeharkakoagoan egiten direla batzuetan, baina oso gutxitan abiapuntu moduan. Gauza bera gertatzen da ezbehar kopuruarekin eta indarkeriarekin. Emakumeen kasuan, hala ere, sistematikoki saiaten dira ulertzen emakumea izateak zergatik baldintzatzen dituen haren jarduerak eta ekintzak.

Horren harira, adierazi behar da berez maskulinoak diren portaerak zalantzan ez jartzearen edo ez eztabaidatzearen arrazoa dela dagoeneko normaltzat hartzen direla. Bestalde, ez gaitu harritzen ere gizon gehiagok parte hartzea delituzko ekintzetan, zehurtziagabeetan, arriskutsuetan, indarkeriazkoetan eta bestelakoetan, emakumeek baino, eta zalantzan jartzea ere ez dugu pentsatzen. Hori horrela, gizonen ikusezintasun falta dutela ere ikusten dugu, hala ere, ez da emakumeen berdina.

Baina emakumeen portaera «desbideratuek», haiengan espero denari erantzuten ez diotenean, handitzen direla ere ikusi dugu. Zenbait substantzien kontsumoaren handitzea (hala nola alkohola eta tabakoa) emakumeen artean kezkarria bada ere, egia da gizonen kontsumoak handiagoa (eta arazotsuagoa, hein batean) izaten jarraitzen duela, hala ere badirudi horrek ez du alarrik piztu, emakumeengan gertatu den kontsumoaren igoerak bezala. Horrekin ez dugu esan nahi emakumeen handitze hori ez dela kontuan hartu beharrik; kasu batean nahiz bestean pizten duen kezka maila alderatu baino ez dugu egin. Izan ere, «emakumea eta drogak» atalen barruan ikerketa askotan agertzen den zehazpena, haren baliokidea den «gizona eta drogak» atalak izan lezakeen garrantzia esplizituki baztertzeko modua baino ez da.

Era berean, kezkarriagotzat jotzen dugu emakumeen kontsumoa gizonena baino: familia bat kezkatuago egongo da bere alabaren kontsumoarengatik semearen kontsumoarengatik baino. Horrek, zalantzarik gabe, emakumeengan eta gizonengan ditugun aurreikuspenei erantzuten die: drogak hartzen dituen emakumea (alkohola edo legez kontrako beste edozein substantzia direla) ez dugu drogak hartzen dituen gizon bat bezala ikusten. Gizonengan espero den eta hein handi batean onartzen den zerbait da, haren sexuari dagozkion portaerak direla onartzen dugulako. Emakumeengan rolaren desbiderapentzat hartzen du.

4. TESTUINGURU SOZIOKUTURALA

Drogei eta alkoholari dagokienez, kontsumoak kultura, garai eta gizarte testuinguru guztietan ez duela ez esanahi ezta eragin bera ere frogatu dute ekarpen etnografikoek, oso bestelakoak baitira. Alde hori sexuetan ere nabaritzen da: Gizonen eta emakumeen erantzuna desberdina da, baina batez ere, kontsumoak sexu batean nahiz bestean duen esanahia eta garrantzi sinbolikoa oso bestelakoa da.

Ikuspegi hori funtsezkoa da, beharrezkoa dirudielako zenbait ideia desegitea (herri kulturaren oso erroturik daudenak, baina baita profesionalagoak diren beste inguru batzuetan ere), esaterako alkoholak bereziki eta drogek nola eragiten dioten giza portaerari, bereziki gizonen portaerari, haien eraginpean aritzen direnek erantzukizunak galtzeko aukera ematen dutelako, indar arraro batek hartuta egongo balira bezala.

«Mozkorrak “kulturalatik” edo kultura arauetatik askatzen gaituela dioen ideia guztiona da (eta horri esker, bikotearen tratu txarretarako eta emakumeen hilketetarako aitzakia bihurtu da: Bennett and Cook 1990:242). Alkoholak, berez, ez du mugatzen kontsumitzen duen pertsonaren portaera, hala ere. Mozkor egotea modu desberdinean definituko dute zenbait kulturetan. Mozkorren esanahia aldatzen da, eta alkoholak eragiten dituen portaera gai kulturala da, odol zirkulazioan sartzen den etanolak dituen ondorio saihestezinen edo naturalen kontua baino. (...) Mozkor portaera ikasitako portaera da» (McDonald 1994: 13-14).

Ez dugu ezeztatzen droga hauek giza gorputzean eragiten duten ezaugarri kimikorik dituztenik; esperientzia moldatzen eta horri zentzua ematen dion testuinguru soziokultural batean gertatzen den ideia defendatu baino ez dugu egiten. Substantzia, kontsumoa eta kontsumitzen duen pertsona modu desberdinean ulertu eta biziko dira, gauden testuinguru soziokulturalaren arabera.

«Gizon batek kopa bat altxatzen duenean, alde aurretik ez dago zehaztuta harentzat zer duen kopak, zenbat edan dezakeen eta zein baldintzatan edan behar duen; kopan dagoen edukiak animatu edo logaletuko duen, eragina edo agresibitatea eragingo dien, lasaitasuna edo plazera eragingo dien ere zehaztuko du. Definizio kultural hauek eta beste asko batzuk edariarekin lotzen dira, ezpainak ukitu edo haietara heldu aurretik» (Mandelbaum 1965, McDonald 1994k aipatua).

Horrela gizonen indarkeriazko portaera ez da orokortu daitekeen alkoholaren eragina, zenbait gizonengan alkoholak ez duelako eragin hori; kontrakoa ere izan daiteke. Alde horiek kultura desberdinetan argi ematen dira. Esaterako, Hegoaldeko Europan, iparraldean gertatzen denaren kontra, gizonak elkarrekin edaten dute, haien artean arazorik gertatu gabe, batez ere indarkeriazkoak. Kanabis kontsumoa, mendebaldean lasaitasunezko jarrerekin edo «bakea eta maitasuna» balioekin (nolabait esateko) lotzen dute; beste leku batzuetan (Hego Amerikako gizon taldeen artean) gizotasunarekin lotzen dute, bertsio gogorrean, eta lan fisikoaren eguneroko lanekin (Partridge 1977, McDonald 17k aipatua).

Substantzia bat zer den eta zer ondorio dituen ulertzeko, ezinbestekoa da testuinguru askoz ere zabalagoa hartzea eta eragin psikobiologikoak baino gehiago adieraztea. Esaterako, droga askorekin lotutako portaerak zerikusia du, hein handi batean, bazterreko giroekin legez kanpo duen erlazioarekin:

«Desbiderapen, suntsitze, matxinada eta aurka egiteko modu desberdinak, askotan, haren legez kontraktasunaren arabera dira, eta egoera horietan, substantziekin lotutako portaera ezin da orokortu» (McDonald 1994: 16).

Substantzia jakin bat kontsumitzea droga abusutzat har daiteke gizarte batean, baina guztiz desberdina den konnotazio kulturala ere izan dezake beste batean, eta user-friendly edo kultura kontrola jasotzea, arazo sozial eta morala bihurtzea saihesteko. Horrela, ikuspegi antropologiko

batetik, «drogen arazoa» berriz definitu beharko litzateke, haiek kontsumitzen diren testuinguruetan aldaketak izaten dituzten bakoitzean. Drogak legeztatzea, esaterako, beste eragile bat izango litzateke, baina berak bakarrik ezin izango litzuke arazoak ebatzi; baizik eta substantzien eta haien eraginaren esanahi berriak eta errealitate berriak sortzera behartuko gintuzke..

Esan dezakegu gauza bera gertatzen dela emakumeek eta gizonek kontsumitzen dutenean. Batzuentzat eta besteentzat aurreikuspenak desberdinak dira, ez bakarrik eraginari dagokionez; kontsumitzeak berak duen esanahiari dagokionez ere. Eraginari dagokionez, pertsonaren sexuaren arabera aldatzen da: Hori argi ikusten da, esaterako, zenbait substantzia kontsumitzea eragin dezakeen agresibitate mailan.

Esanahiari dagokionez, emakumeentzat zenbait droga kontsumitzea, emakumeak izateagatik haiengan espero denaren desbiderapentzat hartzen dute. Gizonen kasuan, haien sexuaren berrezko jardueratzat hartzen da, eta kontsumitzen ez duen gizon baten gizentasuna zalantzan jar daiteke. Horregatik, batzuegan eta besteengana, estigma oso bestelakoa da. Horrela, sexuen definizioen izaera diadikoari buruz aurretik esandakoa kontuan hartuz, zenbait drogen kontsumoaren kasuan, emakumeek beren feminitatea hondatuko dutela ikusten dugu; gizonek, berriz, beren maskulinitatearen balioa handitzen dute.

Testuinguru soziokulturalak kontsumoa edo substantziak nola ulertzen ditugun mugatzeaz gain, pertsonak ere mugatzen ditu, nagusiki, haien sexuaren arabera. Emakumeek gizonek baino gutxiago kontsumitzeak zerikusi handia du sexuen definizio jakin batekin, lehenengo kasuan, kontsumo horretatik bereizten dituen, eta bigarrenarenean, harekin lotzen dituen. Lotze / banatze hori posible da genero sistemak, hain zuzen, batzuei eta besteei dagokiena definitu eta mugatzen duelako, eta polaritateak sortuz joaten dira. Halaber, hori posible da substantziak maskulino edo femenino moduan definitzen direlako; batzuk emakumei eta beste batzuk gizonei dagozkie. Ezaugarri batzuk femeninoarekin lotzen ditugula, eta beste batzuk maskulinoarekin.

Ezaugarrien araberako lotze hori ez da mugatzen substantziaren eraginera nahitaez, baizik eta beste faktore batzuetara ere, hala nola zer testuingurutan kontsumitzen den, legezko edo legez kontrako droga bat den, zertarako kontsumitzen den eta abar. Oso argigarria da heroinak egindako bidea, esaterako, emakumeen droga izatetik, nagusiki gizonena izatera pasatu delako. AEBn, esaterako, 1914ko Harrison Act-e ondoren, drogak legezkotasunik ezarekin lotzen hasi zirenean eta osasun publikorako eraso moduan hartzen hasi zirenean, zifrak guztiz aldatu ziren. Aurretik, 2 emakume drogazale zegoen gizon drogazale bakoitzeko, eta legez kanpo utzita, zifrak aldatu egin ziren: 5 gizon emakume bakoitzeko. Drogak arrisku eta kriminalitate ezaugarriak izaten hasten direnean zailagoa dirudi emakumeak erabiltzen nahastea, eta errazagoa gizonek kontsumitzea. Drogak kontrolatzeko politiken 150 urteko historiak erakusten gaituen moduan, droga-mendekotasuna gaixotasun edo ahultasun pertsonaleko arazotzat hartzen zuten, eta esparru pribatuan kontsumitzen ziren. Emakumeak ziren kontsumitzaileak handienak, droga-mendekotasunak eraginda. Drogen erabilera, abusua eta trafikoa izaera kriminala izaten, arriskuarekin lotzen eta esparru pribatutik publikora (etxetik kaleetara) pasatzen hasi zirenean, drogek ezaugarri maskulinoak hartu zituzten. Horrela, emakumeek beren jarreraren ahultasunarengatik edo joera gaixotiarengatik kontsumitzen zutelara uste zen, eta gizon kontsumitzaileen kasuan ez dugu mota horretako interpretaziorik aurkitzen⁷.

Kasu honetan ikusten dugun moduan, testuinguru aldaketak, substantzia bat, heroina, emakumezkoen drogatzat hartzetik, gizonezko droga hartzera pasatu zen. Horrekin azpimarratu nahi dugu zenbait egoerek eragiten dutela substantzia bat «femenino» edo «maskulinoz» hartzea, eta testuinguruan aldaketak sartzen direnean alda daitekeela iritzi hori.

Droga bat «maskulinoztat» edo «femeninoztat» hartzeak hau ekartzen du:

- emakumeen eta gizonen kontsumitzeko joera definituko duela
- emakume batek maskulinoarekin lotutako substantzia bat kontsumitzen duenean, haren portaera desbideratutzat hartuko dela, eta alderantziz.

5. EMAKUMEEN KONTSUMOAK, GIZONEN TESTUINGURUAK

Datuei begiratuta, generoa faktore erabakigarria da drogen kontsumoan. Ez da kasualitatea emakumeak esparru «maskulinoetan» sartzen hasi direnean emakumeen artean kontsumoa handitzea. Horregatik, interesatzen zaigu jakitea zergatik gizonak kontsumitzen duten edota zergatik gehiago eta osasunerako arrisku handiagoak hartzen kontsumitzen duten. Horrela, emakumeek, gizonen esparruetan sartzean kontsumoa zergatik handitzen duten ulertu ahal izango dugu. Emakume eta gizonen artean kontsumo eredu desberdinak eta gertatu diren aldaketak ulertzeko, zenbait alderdi kontuan hartu behar ditugu.

Emakumeak, duela gutxi, leku edo esparru femeninoztat hartu izan direnetatik irteten hasiak dira. Emakume eta gizonen berdintasuna lortzeko lehiak emakumeak esparru publikora guztiz sartzearekin lotuta daude, adierazpen desberdinetan, alegia, lan merkatura, esparru akademikora, enpresetara, finantza arlora, politikara, kirol esparrura eta bestelakoetara, hots, ospea, erabakia eta boterea duten esparruetara. Sartzen ari diren beste espazio hauek ez dira izan kasualitatez edo nahi gabe maskulinoak; guztiz maskulinoak izan dira. Horregatik, zailtasun handiak dituzte guztiz sartzeko.

Zailtasun handi hori ulertzeko, gizona izatea zer den eta haien arteko harremanak eta leku maskulinoak definitzen dituzten ezaugarriak ulertu behar ditugu.

Puntu honetara helduta, egokitzen jotzen dugu maskulinitatearen ezaugarriak eta genero nortasuna oro har gehiago sakontzea. Hartarako bi esparru teorikoz baliatu gara: maskulinitateen azterketak eta generoa performance moduan hartuta, jarraian oso labur azalduko duguna

5.1. MASKULINITATEEN AZTERKETAK

Laurogeiko hamarkadatik eta Men's Studies izenarekin, maskulinitatera mugatutako azterketa esparru bat garatu dute. Gizonak aztertzeko interesa corpus teoriko handi bat garatu eta emakumeen azterketari buruzko datu enpirikoak bildu ondoren sortu zen. Gizonei buruzko azterketak emakumeei arreta berezia jarri zitzaizen aldi honen ondoren hasi ziren. Aldi horretan, datu bilketa handia egin zen emakumeen inguruan (antropologian, historian, soziologian eta abar). Horrez gain, corpus teoriko garrantzitsua ere bildu zuten, oinarritzat hartu dutena maskulinitateei buruzko azterketetarako.

Premisa nagusietako bat da ez dagoela gizonen eredu bakar bat, baizik eta asko. Horrela, maskulinitateei buruz hitz egin behar dugu, eta ez maskulinitateaz, gizonen genero-nortasunari eta hura eraikitzeke prozesuei ari garenean.

Maskulinitateen azterketek ekarpen zehatzak egin dituzte, batez ere gizarte desberdinen azterketa enpirikoaren bidez, gizonen definizioaren inguruan dagoen kultura aldakortasun handia jasoz eta maskulinitatearen ustezko definizio unibertsala zalantzan jarriz. Aldakortasun hori, gizarte bakoitzaren barrura heldu da; horrela, gizarte beraren barruan gizona zer den definitzeko modu desberdinak

daude, zenbait eragileren arabera, hala nola klase soziala, sexu orientazioa, adina, lanbidea eta abar. Horregatik azpimarratzen da “maskulinitateei” buruz hitz egin behar dela, pluralean. Gizon eredu desberdinak badaude ere, maskulinitatearen eredu hegemonikoa esan zaiona ere badago, gizon eredu zabalagoa erakusten duena, gehiengoak erabilitakoa eta gizarteak zabalago onartutakoa. Gainerako maskulinitateak definitzeko hau erabiltzen dute, ezaugarrien zati bat onartzeko edo erronka egiteko. Eredu nagusia da eta hori da hemen aztertuko duguna.

6. GENEROA ETA PERFORMATIBITATEA

Bigarren esparru teorikoa “Queer azterketak” esan zaiona da, generoa jarduera performatibo moduan hartzen duena. «Generoaren performatibitatea» Judith Butler filosofo feministak erabilitako terminoa da, eta genero nortasuna behin eta berriz errepikatzen diren ekintzen eragintzat hartzen dute. Hau da, pertsona batek genero femenino edo maskulinoko nortasun bati atxikitzen zaiola berresteko, sortzeko, berregiteko eta frogatzeko (bere buruari eta gainerakoei), horrela frogatzen duten hainbat ekintza egiten ditu. Ekintzei buruz ari garenean, espektro bat biltzen duten alderdi ugari buruz ari gara: nola janzten garen, gure gorputz hizkuntza, egiten ditugun jarduera motak, nola egiten ditugun, aukeratzen dugun lanbidea, nola egiten dugun eta abar. Horregatik, harritzen gaitu emakume batek maskulinitatez jotzen diren ekintzak egitea, eta alderantziz (Butler 2001).

Hori horrela da adierazi gabeko adostasun bati esker emakumeak eta gizonak nolakoak diren eta zer portaera duten inguruan. Adostasun horretan sozializatzen gara eta eztabaidatu gabe bereganatzen dute, esleipen horiei erronka handia egiten zaien kasuetan izan ezik.

Gizonok eta emakumeok ezin dugu erakutsi genero nortasun bati atxikita gaudela, maskulinoa edo femeninoa izan, eta ezin dugu etengabe egin. Gorputza agertoki nagusietako bat da horretarako, kulturalki eraikitako sexu diferentzia lehen diferentzia biologiko batean oinarritzen delako, zenbait baliabide artifizialen bidez (hau da, biologikoak ez direnak) handitu eta adosten direnak.

Jarraian, maskulinitatearekin eta generoaren izaera performatiboarekin zerikusia duten bi azterketa esparru hauek ekartzen dizkiguten berariazko alderdietako batzuk azalduko ditugu.

6.1. MASKULINITATEAREN DEFINIZIO NEGATIBOA

Maskulinoaren eta femeninoaren definizioek bata bestea behar du. Hala ere, maskulinoaren definizioan negatiboari lehentasuna ematen zaio positiboaren gainean, hau da, gizon bat gizon moduan definitzen du, femeninoarekin lotzen duten zenbait ezaugarri EZ izateagatik, hau da, zenbait ezaugarri femenino dituzten emakume edo gizonekin lotutakoak, hala nola haurrak edo homosexualak. Horrek ekartzen du gizonek etengabe erakutsi behar izatea ez direnak, gizonak diren ala ez argi uzteko. Izan ere, nortasun maskulinoaren eraikuntzari buruzko ikerketa gehien arabera, gizonek publikoki eta beraien buruari, duten maskulinitatea erakutsi behar diote. Hori horrela, interesgarria da gizonen emakumeek baino inimizio erritu gehiago jasaten dituztelako. Erritu horien bidez, zein unetan bihurtzen diren gizon adierazten da, eta gizonen taldera sartzen dira, esparru femeninoetatik zuzenean bereiziz (batez ere haurtzaroarekikoak eten). Erritu hauen helburua, hain zuzen, arrasto femenino guztiak kentzea da.

6.2. BOTEREA ETA MENDERATZEA

Maskulinitateei buruzko azterketetan adostasun handia dagoen beste ideia nagusietako bat da

botereak edo menderatzeak funtsezko papera dutela nortasun maskulinoaren eraikuntzan eta mantentzean. Horregatik, antza gizonak gozaten duten botere hori zalantzan jartzen bada, haren nortasun maskulinoa ere zalantzan jarriko da, eta alderantziz: haren nortasun maskulinoa zalantzan jartzen bada, haren boterea ere zalantzan jarriko da. Kaufman (1994:145) zorrotza da horrekin eta hau dio: “ (...) gizona izatea boterea izatearen baliokidea da”. Horrek ez du esan nahi gizon guztiek boterea dutenik edo pribilegiozko egoerarik dutenik, baizik eta atxiki diren eredu boterea duen gizon bati dagokiola.

Horrela, Conway-Longek hau dio: «maskulinitatea, berez, menderatzearen performance bihurtzen da» (1994:71). Hau da, maskulinitatea «egiten da», feminitatea bezala, baina haren kasuan, menderatzearen kutsua duen guztia: hizkuntza jakin bat, itxura, gorputzaren mugimendua, zenbait keinu eta jarduera, zenbait lanbide eta abar. (OPACIDAD DIANNE TOOR. dragking)

7. FROGATZEAK, GOGORTZEA ETA ONARTZEA

Eredu hau onartzeak gizonak izaki oso ahul bihurtzen ditu barregarri geratzearekiko, haien beldur nagusia beraien ahultasunak jakitea baita, hau da, boterearengatik, indarrarengatik, kontrolatzeko gaitasunarengatik, gogortasunarengatik, ausardiarengatik, nagusitasunarengatik nabarmentzen den gizon ereduarekin dituen adostasunik ezak. Zalantzarik gabe, oso guxti edo bat ere ez dator guztiz abenturetako heroi baten berezko ereduarekin; hala ere, asko saiatzen dira eta mota guztietako probak egiten dituzte beraien gizontasuna erakusteko eta lortzeko, baita haien osasuna eta bizitza arriskuan jarrita ere.

Frogapen edo lorpen hauek erritualizatuta daude nolabait, kulturen eta testuinguruen arabera, baina, oro har, arrisku, indar, nagusitasun, trebetasun, kontrol egoeren aurrean beldurrik ez agertzearekin oso lotuta daude. «Gogortzeko» errituak ere badira, eta funtsean, mota guztietako erresistentziak garatzea da helburua, bereziki minaren, sufrimenduaren eta beldurraren aurrean, horrek, gizontzat hartzeko aukera ematen diotelako.

Hemen, gainerako gizonen, lekuko nagusien eta besteen gizontasunaren berresleen paperak parte hartzen du. Hain zuzen, frogapen hauek, gainerako gizonentzat dira bereziki, azken hitza dutelako gizontzat hartzen direnak taldean jarraitzeko edo ez. Kimmelek dioen moduan (1994), gizonak behar dutena hainen kideen onarpena da.

Maskulinitatea, gainera, iraungitze data nahiko azkarra den bereganatzea da, femenoarekin edo haurrena denarekin lot daitekeen edozein ekintzak edo keinuk berriz hastea ekarriko baluke. Egonkortasunik ezak etengabe eraikitzea, berreraikitzea eta etengabeko menderatze irudiaren bidez mantentzea eskatzen du.

7.1. INDARKERIA

«Indarkeria askotan gizontasunaren erakusgarri nabariena da» dio Kimmelek (1994: 132). Weizer-Langek (2000), bestalde, hau dio: hezkuntza mimetismoz bereganatzen bada, gizonen kasuan indarkeriazko mimetismoa da, nork bere buruari egindakoa (iraunkortasun eta autokontrol proben bidez) eta beranduago besteen kontra. (TERRORISMO DE PANDILLA, MARQUES)

Baina indarkeriak badu beste ezaugarri garrantzitsu bat, gizontasunaren frogapenean zuen paper garrantzitsua izatea ekartzen duena: baliabide erabilgarria da. Hain zuzen boterea eta kontrola erakusteko modu asko dago, indarkeriaz gain, eta beste baliabide horiek hartarako erabiltzen dira, hala nola, posizio ekonomikoa, lanbide karrera, zenbait jarduera garatuz hartutako estatus soziala, sexu bizi bizia, beste maila batera, mota bateko autoa izatea eta abar. Baina baliabide horiek guztiak ez dituzte eskuragarri gizon guztiek, eta bereziki gazte askok. Horrela, beti geratzen zaie indarkeria, adierazpen askotan, nork bere buruari zein besteei egindakoa (SAREko ADIBIDEAK 2007).

7.2. ARRISKUA

Emakumeen eta gizonen gorputza hartzeko modua lehen aipatu dugun polaritateaz ari da ora-indik. Hortaz, kontrako ideien bidez definitzen dira. Laburbilduz esan dezakegu definitzen dituen polaritatea zauritu ezina / zaurgarria da; gizonen gorputza lehenengoarekin lotzen da, eta emakumeena, bigarrenarekin.

Gizonen gorputzak zaurgarria ez den eredu bati erantzun behar dio, hau da, indarra, iraunkorra, potentzia eta kontrola ezaugarritzat dituena. Femeninoa, berriz, ahula eta zaurgarria da, eta zaintzea eta arreta ematea eskatzen du. Ikuskera honen ondorioz, gizonen hilkortasuna eta istripu kopurua handitzen da, ezin dituztelako landu beren osasunaren kontrako jarrerak, hala nola arrisku jarduerak, osasuna zaintzearen zabartasuna, osasungarriak ez diren ohituak bereganatzea eta abar, bere gorputza zaurgarria dela uste dutenengan ohikoak direnak. Emakumeek, hala ere, eta gorputz zaurgarria duen ideari erantzunez, ohitura osasungarri gehiago garatzen dituzte. Horrela, arriskuak saihesten dituzte edo kontsulta medikoetara gehiagotan joaten dira. Horri dagokionez, osasuna beste agertoki bat dela esan dezakegu, eta atxikipena genero nortasun bat edo bestearen nortasun moduan hartzen da (Courtenay 2000).

Arriskuaren kontzeptuak paper garrantzitsua du hemen, baliabiderik egokienetakoa baita gizontzat hartzea nahi duenak izan behar dituen zenbait ezaugarri frogatzeko. Arriskua onartzea gizonengan lantzen den jarrera da, adin goiztiarrenetik eta bere sozializazioaren funtsezko zatia da. Emakumeen kasuan, sustatzen dena guztiz kontrakoa da, etengabe zaindu behar duten gorputz zaurgarri batean bizi diren ideiarekin bat datorrena. Horregatik gizonen inplikazioa handiagoa da arrisku jarduera mota orotan.

7.3. KONTSUMOA GIZONEN JARDUERA MODUAN

Zertan laguntzen gaitu honek guztiak emakumeen eta gizonen droga kontsumoa ulertzen?

Lehendabizi kontuan hartu behar dugu drogen kontsumoa, gure gizartean eta gaur egun, nagusiki gizonena den jarduera dela. Hori berresteko datuetara mugatuko naiz (psikofarmakoak izan ezik, aurrerago aztertuko ditugunak). Horren arrazoia da kontsumoak mundu maskulinora eramaten gaituen zenbait eragile dituela.

Drogak kontsumitzea, arrazoi askorengatik arriskutzat har dezakegun jarduera da. Adin goiztiarrez kontsumitzea erronka handia da gurasoen aginterako, haurtzaroarekin apurtzeko modua, gorputzarentzako proba bat. Beranduago erresistentzia modua ere izan daiteke, kontrolatzeko gaitasuna adieraztea, behin-behinean arriskutsuak izan daitezkeen substantziak probatzera auzartzea, osasuna ez zaiela kezkatzen frogatzea, gorputzaren sendotasuna eta zauritu ezintasuna frogatzea, delituzko edo indarkeriazko girotan sartzea, trafikatzan duen jendearekin harremanetan jartzea ekartzen duena, behin-behinean jende horiekin egotea.

Zalantzarik gabe, drogek jarduteko aukera ugari ematen dituzte, gazte baten gizentasuna erakusteko, ausardia frogatzeko, egoera arriskutsuetan duen beldur falta erakusteko, gorputzaren paimenean duen konfiantza, osasunarekin batere kezkarik ez agertzeko.

Drogen kontsumoa interpretatzeko modu hori, kontsumo testuinguruekin hertsiki lotuta dago, eta ez hainbeste substantziarekin, berez. Dagoeneko ikusi dugu substantzia bera, heroina, feminotzat hartzetik (eta gehienbat emakumeek erabiltzetik) maskulintzat hartzera pasatu dela (eta gehienbat gizonek erabilitakoa), testuinguru aldaketarengatik. Drogen kontsumoa ez balitz izango inguru egokia gazteentzat haien gizentasuna erakusteko, ziur asko, drogen kontsumoa orekatuago egongo litzateke emakume eta gizonen artean. Izan ere, frogatuta dago drogek ezaguri horiek ez dituztenean, emakume gehiagok kontsumitzen dituztela gizonek baino. Horren adibidea dugu psikofarmakoena.

Emakumeen kasuan guztiz kontrakoa esan genezake. Oro har, gehiago kezkatzen dira beraien gorputzarekin eta osasunarekin, zalantzarik gabe, sozializazioaren ondorioz, gorputzak ahul dituztela konbentzitzen dituelako. Kontsumitzen dutenean, muturreko jarrerak eta osasunerako arriskutsuak diren jarrerak agertu ohi dituzte, estatistikek eta azterketa kualitatiboek ongi erakusten duten moduan. Emakumeek gizonen jarrerak hartzen dituztenean espazioak hartzeko, arrisku jarrerak hartzen hasten dira.

Kasu argigarria dugu aisialdiaren eta dibertsioaren esparruetan gertatutako bilakaera. Hor, aldaketak gazteen aisialdi kulturalan gertatu ziren eta horren ondorioz emakumeak sartu ziren. Datu horiek aurrerago azalduko ditugu.

8. EMAKUMEZKO KONTSUMITZAILEAK AISIALDIKO TESTUINGURUETAN

Emakumeen artean sortzen ari diren kontsumo eredu berriak emakumeak gizartean duen lekuak izandako aldaketen eta kontsumo eredu berrien bidez azal daitezke. Emakumeak pixkanaka gizonentzat bakarrik ziren espazio eta jardueretan sartuz joan dira, eta horrek ez du aldaketa nabarmenik ekarri espazio eta jarduera horiek hartzeko moduan. Beraz, emakumeak espazio eta balioetara egokituz joan dira; betiere gizonezkoen ereduak aintzat hartuz. Edatea, zenbait substantzia kontsumitzea eta portaera jakin bat izatea, emakumeei zenbait posizio izateko balio zaizkien eta balio izan zaizkien jarduerak dira. Horrela, ezaugarritara moldatu dira sartu aurretik, hau da, gizonezkoen ereduari jarraituz. Hala ere, emakume izaten jarraitzen dute, eta haien ekintzen esanahiak mediatizaturik jarraitzen du, hain zuzen horregatik. Horren harira, zenbait alderdi kontuan hartu behar ditugu:

- Emakumeak estigmatizatuago daude portaera horiengatik, emakumearen eredutik desbideratzen direlako, eta horrek haien feminitatean eragina izan du beti (gogoratu behar dugu edaten duen emakume bat bere feminitatea hondatzen ari dela).

- Halaber, espazio horietan sartzeak eta portaera horiek hartzeak, balio erantsia ematen diete, maskulinoak izateagatik soilik, eta horrela baloratu eta ikusten ditu gizarteak. Gaur egungo sozializazioak espazio horiek hartzera eta ahalik eta hobekien egiteko estrategiak bilatzera bultzatzen dituzte, eta haietako bat, kontsumitzea izan daiteke, gizonezko kideak bezalako portaera izatea (EUROPAKO IPARRALDEKO HERRIALDEAK).

· Emakumeak egoera paradoxikoan daude, eta gizonena egin behar dute baina haien feminitatea gordez (horregatik ikusten dugu gazte askok edan edo zenbait substantzia kontsumitzen dituztela gizonzkoen esparruan sartzeko, hala ere, gertaera horrek berak haien feminitatea honda dezake, eta gizonen nahiz emakumeen artean errezeloak eragin ditzake; esaterako harreman egonkor bat izateko kontsumitzen ez duten gazteekin egon nahi izatea, edo kontsumitzen duten emakumeak estigmatizatuz).

· Emakumeak gizonen edozein esparrutan sartzeko zatiketa bat edo espezializazio bat eskatzen du. Horrela, lehen maskulinitate hartzen ziren alderdiak azpibanatu eta errazen feminizatu daitezkeenetan espezializatzen dira. Horrela, drogen kontsumoan, emakumeek ez dituzte gizonen moduan kontsumitzen, izan ere, hasiera batean berariaz femeninoak direnak hartzen ditu (zenbait substantzia, zenbait kontsumo testuinguru, zenbait kopuru, jarrera desberdinak, eta abar), edo maskulinoak hartzen ditu femeninoetatik bereizteko.

Emakumeek gehiago kontsumitzen dutela eredu maskulinoak hartzen ari direlako, interpretazio arriskutsuak izan ditzake. Hain zuzen, emakumeen posizioan eta estatusen gertatzen diren aldaketan aurrean eragin negatiboak adierazteko modua izan daiteke, antzinako balioetara itzultzea eskatuz, emakumeak mota honetako bizioetan erortzetik babesten zituztelako. Horrela, agian galdetu beharko litzateke zergatik kezka desberdina den gizonen eta emakumeen artean. Antzinako balioak positiboak badira emakumeentzat, "biziotik" babesten dituztelako, gizonen balio berriak aurkitu beharko dituzte, aurrekoek bultzatzen dituztelako. Hala ere, kontuz ibili behar garen argudio manikeoa da.

Premisa horiek onartzen baditugu, galdetu beharko dugu zergatik emakumeek portaera maskulinoak behar dituzten esparru publikoan sartzeko. Baina batez ere, lehendabizi, zergatik gizonen mota horretako portaerak hartu dituzten galdetu behar dugu. Hori, maskulinitatea eta gizona izatea definitzen duenaren bidez azal liteke.

Drogatutako emakumea:

Alkohola edo beste mota bateko drogak hartzen dituen emakumea, aurretik adierazi dugunez, roletik desbiderapena duen pertsonatzat hartzen dute, eta horren ondorioz estigmatizatuago dago. Pertsona promiskuotzat errazago hartzen dute, lorpen sexualetako «harrapakin erraza»; hortaz, sexu abusuak edo tratu txarrak izateko aukera gehiago ditu⁸.

Edaten duen edo drogak hartzen dituen emakumea erraz identifikatuta dago «urritasun morala» duen pertsona moduan; hortaz, abusuak edo tratu txarrak jasaten dituenean, erasoaren larritasuna txikiagotzen duten balorazioak egiteko joera dago. Emakumeak berak har lezake jasandako abusuaren ardura, emakumearena ez den egoera batean zegoelako, beraz, abusuak berak eragin duen arrisku jarrieraren ondorioz hartuko da (Altell eta Plaza 2005).

Gizonei gertatutakoaren aurrean erantzukizuna kentzeko modua da, justifikazioa aurkitzen dutelako, edo gutxienez, aringarria, abusu ekintzak baloratzeko orduan.

Bitxia bada ere, gizonekin kontrako egoeran aurkitzen gara. Horrela, bere mozko egoerak ekintzak justifika ditzake, erantzukizuna hartutako azken substantziari leporatuta, eta ez bere portarari berari (ibid.).

8. Sobre la relación entre violencia de género y uso de drogas en mujeres, ikusi Llopis et al. 2005.

Halaber, ez dugu ahaztu behar, aisialdi testuinguruek giroaren maskulinizazio handia dutela, eta emakumeak gutxiengo kuantitatibo eta kualitatiboa diren espazioan daudela, jabekuntza galduz eta zaurgarriago egiten.

Aisialdi giroetan, gainera, sexu presio nabaria dago emakumeenganako, eta emakumeek berek negatibotzat jotzen dute hori. Izan ere, giro horretan emakume gutxiago egotearen arrazoietakoa bat da hori (Rekalde 2005).

9. KONTSUMOA AISIALDIKO TESTUINGURUETAN

Baina aldaketak ez dira gertatu emakumeek gizartean duten posizioan bakarrik eta giro maskulinoetan sartzeagatik; baizik eta kontsumo eta aisialdiko giroetan ere sartu direlako. Kontsumitzeko modu berriak zabalduz joan dira, askotan, aurrekoetatik moduetan eta helburuetan desberdintzen diren dibertitzeko eta sozializatzeko modu berriekin.

Aldaketarik garrantzitsuena gauetan gertatu da. Gaur egungo egoera, jai eta dibertsio giroei dagokienez, bilakaera baten emaitza da, eta Romoren arabera, "tekno" edo "rave" kulturarekin hasi da; oso lotuta dago estasiaren kontsumoarekin⁹. Kultura honen hastapenak Ingalaterran daude, "Acid House" esan zitzaion mugimenduan, 1987. urtean, eta laurogeiko hamarkadaren amaieran garatzen da. (Romo 2004).

Kultura honek aisialdi eredu berriak sartu zituen gazteen zenbait sektoretan, "festa" edo "rave-en" bidez (espazio handietan egindako topaketa jendetsuak, batzuetan aire zabalean eta egunean zehar jarraitzen dutenak; 24 ordu baino gehiago iraun dezakete). Hasiera batean, festa hauek mota guztietako pertsonak biltzeko gaitasuna zuten, agresiboak ez zirelako eta desberdintasunen aurrean oso tolerantzia zelako. Horrela, gizarte maila, estilo, sexu orientazio eta sexu desberdinetako gazteek leku pribilegiatua zuten hori.

Testuinguru honetan, gero eta emakume gehiago daudela ikusten dugu. Romoren arabera, «gazteen mugimendu berria zabaltzen hasten denetik, emakumeak badirudi eskubide osoko parte-hartzaileak dira, eta gazteen beste aisialdi testuinguru batzuetan izan ez zuten askatasun handiagoak dituztela». «Haietan parte hartzen duten emakumeentzat, ustekabean askatzen dituen» espazioa da. (...) Une horietan jarrera berriengatik nabarmentzen dira, emakumeen ohiko roletatik urrun, eta gizonezkoetatik hurbilago, bestelako gazte eszenetako parte-hartzaileak baino" (Romo 2004). Aldaketa horren isla, drogen erabilerrari buruzko inkestetan oreka handiagoa antzematen hasi zen gizonen eta emakumeen artean. Emakumeen kopurua eta kalitatea hain handia denez, zenbait egilek, gazte mugimendu honen sorrerarekin aldaketak sartu zirela adierazi zuten, boterea sexuen artean banatzeko moduan (Henderson 1999, Romok aipatutakoa 204).

Izan ere, giro horietan drogak kontsumitzen dituen emakume mota ez dator bat antzinako emakume drogazalearen estereotipoarekin, heroinaren kontsumoarekin lotura handiagoa zuelako. Romoren arabera, hezkuntza maila altuko emakumeak dira, askotan unibertsitate mailakoak, prostituzioarekin edo delituzko bestelako giroekin zerikusirik ez dutenak; ia ez dute arazorik justziarekin. Kontsumoak aisialdiaren giroan egiten dira, eta nahiko normalizatu-

⁹. Atal honetan deskribatutakoa Nuria Romoren artikuluaen laburpena da gehienbat (2004).

ta dauden eta marjinalak ez diren giroetan. Oro har, ezkongabeak eta seme-alabarik gabeko emakumeak dira. «Substantzia psikoaktiboen erabilerak, hala nola sintesi drogena, beste ikerketa batzuetan adierazitako emakume heroinazaleengan gertatzen dena baino integratuago jarraitzen du sozialki» (Romo 2001: 42).

Une jakin batean, aldaketa handia antzeman dugu gazteen aisialdian, gero aisialdi modu zabalagoak izango direnaren joera ezartzen duena, eta lehen aldiz, emakumeak mendeko tokia hartzen ari diren testuinguruan dauden.

Zerk erakarri zuen emakumeak agertoki horretara, lehendabizi? Zalantzarik gabe festa horietan zegoen indarkeria eskasa, segurtasun sentrazioa ematen zielako; sexu jazarpen sentrazio txikiagoa, hasieran behintzat, festan horiek ez zeudelako hain bideratuta sexu harremanak izateko; azkenik, dantzatzeko drogen «ospe ona», kontsumoa eta haien eragina kontrolatu ahal zutela uste zutelako. (Romo 2004:114).

Mota honetako aisialdia gizonen eta emakumeen arteko harreman eredu berriak sartzeko aukera ona zen. Hala ere, zabaltzean, emakumeak sartzearekin zerikusia zuten faktoreak desagertu ziren, eta «haiekin, gizonekin berdintasun handiagoa lortzeko ilusioa» (ibid.). Romok bi etapa bereizten ditu: lehenengoa, 1987. eta 1992. urteen artekoa, eta bigarrena, 1992. urtetik aurrera. Lehen etapan, «indarkeria oso txikia izan zen eta emakumeak “festetan” ez ziren sexualki jazarrita sentitzen. Bigarren etapan, 1992. urtetik aurrerakoan, genero harremanak rol tradizionalak itzuli ziren, eta emakumeek lehen urtetan gizonen aldetik sentitzen zuten errespetua jasotzeko utzi zioten. Gizonen mendetasun harremanen gainean eraikitako nortasun femeninoa indartsuago egin zen eta nortasun paraleloak sortzeko ahaleginei nagusitu zitzaizkien, gazte kulturaren parte hartzearekin lortutakoa bezalakoan».

Baina kultura honen masifikazioarekin zenbait aldaketa nabarmen agertu ziren, mugimendu horren modua bakarrik partekatzen duten beste sektore batzuk agertzen hasi zirelako. Mugimendu horretan, «festak» edo «raveak» ziren nagusi, baina ez zuen onartzen bereizgarritzat zuen ideologia. Aldaketak garrantzitsuak izan ziren: ez zen musika mota edo estiloa bakarrik aldatu, indarkeria erabiltzen zuten taldeak ere bertaratzen hasi ziren; dantzatzeko drogak arrunt bihurtzearen ondorioz, droga banatzeko zirkuitu berri eta gatazkatsuagoetan sartu ziren; testuinguru sexualagoa bihurtu zen eta gizonen indarkeria handitu zen. Horrela, emakumeak hain eroso sentitzeko utzi zioten; gauza bera gertatzen zen homosexualekin eta lesbianeekin, haiek egotearen kontra zeudelako; antolatzaileek ere segurtasun guardiak kontratatu zituzten kontrolari eusteko. Hau da, mugimendu hori bultzatu zuen izaera desagertu zen, eta harekin, eszena hori emakumeentzat leku erakargarri egiten zuten faktoreak ere bai.

Mugimendu horren legatua gaur egungo aisialdiko gaueko eszena da, kanpoko ezaugarriak gorde dituen, hala nola festen iraupena (24 ordukoak izan daitezke) eta sintesi drogen erabilera hedatzea, baina mugimendua sortu zuten eta emakumeentzat hain agresiboa eta gatazkatsua, hain matxista ez zen izaera eman zioten zenbait alderdi ideologiko baztertu ditu.

Emakumeak gutxiengo egoera daude berriz, ez bakarrik kopuruari dagokionez; eszena horretan izan dezaketen protagonismoari dagokionez ere bai. Gizonak posizio garrantzitsuenetan daude gaur egun: segurtasuna kontrolatzen dute, indarkeriazko liskarretan nagusi dira, DJak dira (testuinguru horietan ospe eta eragin handiko pertsona), antolatzaileak, sintesi drogen merkaturak kontrolatzen dute eta abar. Emakumeek eragin edo botere eskasa dute testuinguru honetan, eta zail dute iritzia ematea, estiloa edo portaera ereduak ezartzea.

Romok bere artikuluan hau ondorioztatu zuen: «pribatuarekin, pasibo eta mendeko moduan feminitatearekin lotutako ohiko rola bateraezinak dirudite zenbait aisialdi espaziotan eta arrisku jarreretan parte hartzearekin» (Romo 2004:116). Hemen berriro gauditu ezina diru-

dien mugaren topo egiten dugu. Zenbait aldaketa bereganatuta (emakume gehiago egotea eta kontsumoan parte hartzea), dena bere bidera itzuli da, eta dibisio eta polaritate berak ezarri dira berriz, baina aldatuta.

Horrekin guztiarekin esan nahi dugu dibertitzeko moduetan aldaketa garrantzitsuak sartu badira ere, aldaketa horiek ez dutela lortu izaera maskulinoa nabarmen txikiagotzea zenbait toki eta girotan, legez kontrako drogen kontsumoarekin eta berandu joaten direnekin (diskotekak, after-hours, rave-ak eta abar) zerikusia dutenetan bereziki..

10. PSIKOFARMAKOAK¹⁰

Psikofarmakoak emakumeen kontsumoaren adibide interesgarria dira, emakumeek gizonek baino neurri askoz ere handiagoan kontsumitzen dituzten substantziak direlako. Psikofarmakoak, emakumeen kontsumoak gizonena gainditzen duen substantzia bakarra dira. Romok egindako ikerketaren datuen arabera, somniferoak edo lasaigarriak kontsumitzen dituztenen % 75 emakumeak dira eta Espainiako emakumeen % 70ek mota horretako sendagaiak hartu dituzte inoiz. Depresioaren kontrako pertsona kontsumitzaile baten profila 50 urte inguru emakumea da, etxekoandrea, bikotearekin bizi dena, lehen mailako ikasketak eta maila sozioekonomiko baxua dituen. (Soler Vila M. et al, 1998: 440-3).

«Informe Salud y Género. Los años centrales de la vida»¹¹ txostenean analisi zabal eta sakona ikus dezakegu, emakume helduek psikofarmako gehiago kontsumitzearen arrazoiak azaltzen dituen.

Txosten horrek jasotzen duenaren arabera, «sendagaiak kontsumitzen dituzten emakumeen ehuneko 45 eta 64 urteen artean da, eta nabarmen handiagoa da etxekoandreen artean, genero eredu tradizionalari atxikiago daudelako» (aip. lana: 65).

Txosten honen bi arrazoi aipatzen ditu funtsean: 1) genero joera osasun sisteman, eta 2) emakumeen mendeko egoera gizartean.


11. JOERA OSASUN SISTEMAN

«Genero tradizionalako estereotipoak, ahulagoa, pasiboagoa, mendekoagoa den eta zehaztu gabeko zenbait patologia dituen emakumearen irudi bat sortzearekin lotutakoak, errepikatzen dira eta aurretiko eredu hori da osasun profesionalen artean igortzen dena (Velasco, Ruiz eta Alvarez Darded, 2006d). Horrela, emakumeek adierazitako zehaztu gabeko egoeren aurrean (patologia argirik ez dagoenetan), medikuek psikofarmakoak agintzen dituzte (Burín, 1991; Romo Avilés, 2004, 2006). Bestela esanda, zehaztu gabeko ondoeza sortzen duten funtsezko baldintzekin ze-

10. Ikusi Gil García et al (2005).


11. Emakumearen Osasunaren Behatokia. Osasun eta Kontsumo Ministerioaren Kalitate Agentziaren Zuzendaritza Orokorra: «Informe Salud y Género. Los años centrales de la vida». 2006. <http://www.correofarmaceutico.com/documentos/250208informeSaludGenero2006.pdf>

Botika-kontsumoa adinaren eta generoaren arabera



17. IRUDIA | Iturria: Osasunari buruzko Espainiako Inkesta, 2003. Osasun eta Kontsumo Ministerioa. ■ Gizonak ■ Emakumeak

Azken hamabostaldiko botika-kontsumoaren ehunekoen banaketa lan egoeraren eta adinaren arabera, emakume ezkonduen edo bikotearekin bizi direnen kasuan.



18. IRUDIA | Iturria: Artazcoz 2005

■ Emakume langilea ■ Etxekoandrea

rikusia duten egoerak, antsietate moduan diagnostikatzen dira, eta gainerako ohiko buru nahasteen diagnostikoak, tratamendu psikofarmakologikoa esleitzen zaiena, emakumeei gizonei baino psikofarmako gehiago agintzen zaizkie (Márquez et al., 2004). Mabel Burinek (1991) «errezetatutako lasaitasuna» esan ziona da. Orduan, emakumeen ondoeza buru nahasmentzat hartzen zuen eta psikofarmakoekin sendatzen saiatzen ziren. Azken hamarkadan, errezetatutako lasaitasunak aurrera jarraitu du, erritmo irmo eta konstantean, eta oraindik ez dute frogatu emakumeek beren gorputzetan izate baldintzen desberdintasun generikoak somatizatzen ari direnik –lan gehiegi, estresa, antsietatea eta abar– (Pérez Blasco eta Serra Desfilis, 1997; Burín 1991; Rodríguez, 1990; Velasco, 2006b eta 2006c).» (ibid.: 67).

«Psikofarmakoekin zerikusia duen medikalizazioaren kasuan, OMEk ohartarazi du psikofarmakoak erabiltzea arriskutsua dela gizarte arazoak arintzeko (OME 2005), eta argi ikusten da

generoak ondoezaren hautemateak eta konpontzeko jarrerak baldintzatzen dituela. Eta maila horretan da osasun sistemak ondoezari arreta emateko ereduak sustatu beharko lituzkeena, ikuspegi biopsikosoziala batekin (Velasco, 2006b eta 2006c), lotutako genero baldintzatzaileak aldatzeko. Medikalizazioa mugatzea eta sintomak eragiten dituen eta psikofarmakoak kontsumitzea ekartzen dituen ondoezerako beste irtenbide batzuk aurkitzea proposatu beharko litzateke». (Ibid.: 67)

11.1. EMAKUMEEN MENDE TASUN EGOERA¹²

«Gizonen artean, esleitutako rolak ia ez dira aldatu denboran, eta emakumea lan merkatuan sartu arren, etxeko lan berak egin behar izaten ditu. Hortaz, lanaldi bikoitzei edo hirukoitzei egin behar izaten die aurre. **Berrogeita bost eta hirurogeita bost urte arteko ia emakume guztiek sei ordu ematen dituzte egunero etxea zaintzearekin zerikusia duten jardueretan**, baina gaur egungo emakumeen % 71k bakarrik egiten ditu, eta gehienez, 2 ordu eta erdi ematen dituzte».

«Bestalde, emakume guztien % 40 lan merkatura sartu da eta horrez gain, **zaintzaileen % 84 emakumeak dira**. Haien batez besteko adina 52,9 urtekoa da. Etxekoandreak, mendeko pertsonen zaintzaileen eta ordaindutako langilearen rol horiek gehiegizko zereginak ekartzen dituzte emakumeentzat, eta ondorio kaltegarriak dituzte haien osasunean».

«**Baldintzatzaile sozioekonomikoak pertsonen osasunean nabarmen eragiten duten beste faktore batzuk dira** Erostea ahalmena, ikasketa maila eta onarpen soziolaborala gero eta txikiagoak izan, osasunaren pertzepzioa are okerragoa da. Baldintzatzaile horiek generoaren arabera banatuta daude:

- Emakumeek batez beste gizoneko baino % 17,3 gutxiago kobratzen dute,
- 50 eta 64 urte arteko emakumeen % 67,3 etxekoandreak dira
- Eta 45 eta 65 urte artekoen % 74,2k oinarrizko batxilergoaren baliokidea den edo hortik beherako hezkuntza maila dute.

«Gehiegizko lanak eta aisialdi faltak, errepikakorrak diren lanak eta gizarte onarpen eskasa dutenak, mendetasun ekonomikoko egoerekin batera, **emakumeen osasuna okerragotzen joaten dira, batez ere, klase sozial baxuenekoena eta etxean bakarrik lan egin dutenena**. Pertsona talde horrek du gaixotzeko aukerarik handiena».

11.2. PSIKOFARMAKOEN HAUTEMATEA

Psikofarmakoek kontsumoa aztertzea interesgarria da beste testuinguru batzuetan, hala nola aisialdiko edo legezko kontrako drogen testuinguruetan, aurkitzen dugunaren guztiz kontrakoa den kontsumoari erantzuten diolako. Ez da kasuala psikofarmakoek kontsumoaren ezaugarriak gainerakoek aldean guztiz kontrakoak izatea, eta hain zuzen, emakumeek gehienbat kontsumitzea.

Droga hauek ez dute legezko eta legez kontrako beste droga batzuek dituzten konnotazioak; hortaz, emakumeen portaerari eta erduei erantzuten diete, ezaugarri «maskulinorik» ez dutelako. Sexuatua dagoena ez da droga kontsumitzea berez, baizik eta substantzia bakoitzak dituen esanahien unibertsoa.

12. Osasun eta Kontsumo Ministerioaren web orriko Txostenaren laburpenaren zatiak.
<http://www.msc.es/gabinetePrensa/notaPrensa/desarrolloNotaPrensa.jsp?id=1147>

Emakumeek psikofarmako ugari kontsumitzaileak, lehendabizi, emakumeak gizonak baino gehiago drogatzerara hel daitezkeela adierazten digu, baina substantzia bakoitzak duen esanahiaren, zein testuingurutan kontsumitzen den eta erosten den, hartzen duen estigmaren, kontsumoaren helburuaren eta substantzia erosteko aukeraren arabera dela.

Substantziak testuinguru publikoetan edo maskulinoetan kontsumitzen badira, ezaugarri maskulinoekin zerikusia badute, erostea legez kontrakoa bada, feminitatea hondatzen badu, kontsumitzailea estigmatizatzen badu edo eraginak jarrera normalizatzeko ez badira, kontsumitzeko joera txikiagoa agertuko dute emakumeek.

Ildo horretan, psikofarmakoek emakumeak babesten dituzte beren burua drogazale moduan ez ikusteaz, beste droga askok dituzten ezaugarri arbuigarri asko ez dituztelako. Etxean, bakarrik, kontsumitzen diren drogak izatea, mendekotasuna ezkututzen laguntzen du, bai beren buruei bai besteei.

Psikofarmakoak eta gizon gehiagok hartzen dituzten drogak alderatzen baditugu, kontrako ezaugarri erantzuteaz gain, lehenengoak emakumeek zailtasunik gabe bereganatzen dituzte. Taula honetan, kontsumitzaileak emakumeak direnean esanahia desberdintzen duten zenbait alderdi jasotzen ditugu:

PSIKOFARMAKOAK	BESTE DROGA BATZUK
<p>-Legezko edo agindutako drogak dira, beraz, kontsumoa sistema medikoak bermatzen du moralki. -Kontsumoa ez da erronka inolako arau edo agintarirako. -Osasun mentalarekin lotzen dira, norbera zaintzearekin, beraz. -Etxean kontsumitzen dira. -Rola modu normalizatuan egiteko aukera ematen dute. -Ez dute loturarik delituzko giroekin. -Kontsumitzea ez da arriskutsua (ez osasunerako ez legezko arloei dagokienez), profesionalak agintzen dutela eta legezkoa delako. -Ohikeriaren berezko denboran eta eguneroko zereginetan zehar kontsumitzen da.</p> <p>Rekalde, Ángel (2005)</p>	<p>-Kontsumitzeak zigor morala ekartzen du, dagokion sexutik desbideratutako portaeratzat hartzen delako. -Kontsumoa erronka da araurako. -Osasunerako kaltegarriak dira, eta norbera zaintzeko jarrera faltarekin lotzen dira. -Etxetik kanpo kontsumitzen da, leku publikoetan. -Ez dute uzten rola normaltasunez egitea. -Delituzko giroekin lot daitezke. -Kontsumitzea arriskutsua da (osasunerako eta legezko arloei dagokienez), agindutako kontsumoa ez delako, eta batzuetan, legez kontrako substantziak direlako edo indarkeriazko eta delituzko giroko jarrerekin lotzen direlako. -Ohikeriaren denboratik kanpo kontsumitzen dira (eguneroko zereginen time out bat dira). -Taldean eta publikoaren aurrean kontsumitzen da, beraz, iritzi moralak izan ditzake.</p>

BIBLIOGRAFIA

- Altell, G. eta Plaza, M. (2005). «Abuso del alcohol y violencia doméstica desde una perspectiva de género», Salud u drogas, 5. lib., 2. zk., 2005eko abendua. On line eskura daiteke: <http://inid.umh.es/?mod=revista&ct=numeros2.asp>
- Brod and Kaufman (arg.) (1994), Theorizing masculinities, Thousand Oaks: Sage.
- Butler, J. (2001). El género en disputa. El feminismo y la subversión de la identidad, Mexiko: Paidós.
- Conway-Long, D. (1994). "Ethnographies and Masculinities", Brod and Kaufman (arg.), Theorizing masculinities, Thousand Oaks: Sage, 61-81. or.
- Courtenay, W. (2000). «Constructions of masculinity and their influence on men's well-being: a theory of gender and health», Social Science & Medicine 50 (2000) 1385-1401. On line eskura daiteke: www.elsevier.com/locate/socscimed
- Gil García, E. et al (2005). «Género y psicofármacos: la opinión de los prescriptores a través de una investigación cualitativa», Aten Primaria, 2005, 35(8): 402-7.
- Henderson, S. (1999). Drugs and culture: the question of gender. Drugs: cultures, controls & everyday life, London: Sage.
- Kaufman, M. (1994). «Men, Feminism, and Men's Contradictory Experiences of Power», en Brod and Kaufman (arg.), Theorizing masculinities, Thousand Oaks: Sage, 142-164. or.
- Kimmel, M. S. (1994) «Masculinity as Homophobia: Fear, Shame, and Silence in the Construction of Gender Identity», Brod and Kaufman (arg.), Theorizing masculinities, Thousand Oaks: Sage, 119. or. 141.
- Llopis et al. (2005). «Uso de drogas y violencia de género en mujeres adictas en Europa. Claves para us comprensión e intervención», Salud y Drogas, 5. lib., 2. zk., 2005eko abendua. On line eskura daiteke: <http://inid.umh.es/?mod=revista&ct=numeros2.asp>
- López Loizaga, M. eta Mendizábal, G. (2005). Guía para la creación de una comunicación en igualdad, CEDEMI.
- McDonald, M. (arg.) (1994). Gender, Drink and Drugs. Cross-cultural perspectives on Women, Oxford: Berg Publishers.
- ----- (1994). «Introduction. A Social-Anthropologicla View of Gender, Culture and Drugs», McDonald, M. (arg.). Gender, Drink and Drugs. Cross-cultural perspectives on Women, Oxford: Berg Publishers.
- Merino, P.P. (2000). Mujeres toxicodependientes en la Unión Europea, Emakumeen mendekotasunari buruzko I. Sinposio Nazionaleko txostena, Instituto Spiral Fundazioa, 2000. urteko urriaren 6 eta 7ko jardunaldiak, Madril.
- Parnanen, K. (1991). Alcohol in Human Violence, New York: The Guilford Press.
- Rekalde, A. (2005). «Drogas de ocio y perspectiva de género». Txostenak, 16.

- Romo, N. (2001). Mujeres y drogas de síntesis. Género y riesgo en la cultura del baile, Donostia: Gakoa.
- -----(2004). «Tecno y baile. mitos y realidades de las diferencias de género», Estudios de Juventud, 64/04. zk.: 11-116.
- Sánchez Pardo, L. et al (2004). Estudio Internacional Sobre Género, Alcohol y Cultura «Proyecto Genacis», Toxikomanien Espainiako Sozietatea. On line eskura daiteke: <http://www.genacis.org>
- SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa. Euskadi y drogas 2006, Eusko Jaurlaritzza, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila, Droga-mendekotasunen Euskal Behatokia. On line eskura daiteke: http://www.gizaetxe.ejgv.euskadi.net/r402177/es/contenidos/informacion/publicaciones_ovd_eusk_adi_drog/es_9060/adjuntos/euskadiydrogas_2006.pdf
- Soler Vila, M. et al. (1998). «Factores de riesgo asociados al consumo de antidepresivos», Aten Primaria, 1998, 22.
- Welzer-Lang, D. (2000). Nouvelles approches des hommes et du masculin, Tolosa: Press Universitaires du Mirail.
- Young, M. (1994). «The Police, Gender and the Culture of Drug Use and Adicciton», McDonald, M. (1994). Gender, Drink and Drugs. Cross-cultural perspectives on Women, Oxford: Berg Publishers.



Eusko Jaureritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

GIZONAK EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN

José Ángel Lozoya Gómez
2009

AURKIBIDEA

1. Sarrera	78
2. Emakumeen aurkako indarkeria	80
3. Indarkeria bikote gazteengan	82
4. Etorkinak	83
5. Emakumeen aurkako indarkeria motak	83
6. Nolako jarrera duten gizonen aurkako indarkeriaz	85
7. Lazo zuriaren kanpaina	87
8. Gizonen konpromisoa, emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako borrokan	87
9. Emakumeen aurkako indarkeriarekin amaitzeko pausoak	89
9.1. «Tratu txarrak eragiten dituztenak» deslegitimatuz	89
9.2. Berdintasunari lagundu	90
9.3. Eredu maskulino tradizionala eraitsi	91
9.4. Gizonen berdintasunaren aldeko eragile bihurtzen lagundu	92
9.5. Hezkuntzan berdintasuna bultzatu, bai eduki aldetik, baita praktika aldetik ere	93
9.6. Gazteek berdintasunerako eragile posible moduan tratatzea merezi dute	95
9.7. Biktimen babesean lanean ari diren kolektibo maskulinizatuekin lan egin	96
10. Zer egin dezakegu gizonen aurkako indarkeriarekin amaitzeko	96

1. SARRERA

Gizonok, arreta handia izan behar dugu emakumeen aurkako indarkeria aztertzerako orduan; izan ere, ikerketan sakondu ahala, epidemia baten pareko arazo unibertsala dela ikusiko baitugu. Kultur erro sakonak dituen arazoa da eta zaila da gaiari buruz hitz egitea gure burua hausnarketa autokritikoa egitera bultzatu gabe. Bikotekideek edo bikotekide ohiek gaizki tratatu edo hildako emakume kopurua hain da altua, ezen geure buruari galdetu behar baitiugu hezkuntza maskulinoaren zein alderdik eragin duen emaitza hori. Hori aztertuta, alor horiekiko bakoitzaren edo taldeen ardura maila nolakoa den pentsatu behar genuke, eta amaitzeko, horiek desagerrarazteko zer egin dezakegun. Bikotekideak salatzen dituzten emakume kopuruak gora egin eta hildakoen kopuruak behera egiten ez duen bitartean, harrigarria da hainbeste gizonok pentsatzea haiek inor jipoitzen ez dutela eta eraso matxistak haien arazo ez direla. Gainera, balizko erasotzaileei ideia horiek burutik kentzen lan egiteko eta denbora horri eskaintzeko izaten duten alferkeria ez da ulertzen erraza.

Indarkeria matxista gehiagora joan ohi da, eta adeitasun faltatik errespetu faltara joan ohi da; hurrengo pausoa, berriz, indarkeria psikologikoa, fisikoa edo sexuala izaten da. Baina badakigu ez dela ezinbesteko prozesua, gizon gehienek beren bizitza osoan emakumerik jipoitu edo bortxatu ez dutela ikusi baitugu: gaizki tratatzea ala ez bakoitzaren aukera izaten da; indarkeria erabiltzea ala ez erabiltzea. Horregatik, egindako ekintzen erantzule da gizona, bere indarkeriaren erantzule, eta hori saihestearen erantzule ere.

Sektore askotako gizon asko saiatzen dira emakumeen askatasuna eta dirua kontrolatzen edo haien izen ona zalantzan jartzen, beldurtzen, sexualki behartzen, iraintzen edo emakumeak gutxiesten. Gainera, bikotean bizi diren gizon guztiek emakumeek baino denbora libre gehiago izaten dute emakumeek egiten baitituzte banaketa orekatuan gizonok egin beharko lituzketen etxeko lanak ere.

Hala ere, emakumearen aurkako indarkeriaren aurkako borrokak, arrakastak lortzen jarraitzen du, pixkanaka-pixkanaka bada ere; Salaketa kopurua igo da. Horrek ez du adierazten indarkeria gehiago dagoenik, indarkeriarekiko sentsibilitatea handiagoa dela baizik. Tratu txarrak jasotzen dituztenek gero eta gutxiago eta denbora laburragoz jasaten dituzte tratu txarrak, jaso ohi duten babesaren erantzule da –oraindik egiteko asko badago ere–, erasotzaileek legearen aldetik eduki ohi zuten zigorgabetasuna txikitu da eta erasotzaileak, egunez egun, gero eta gizarte babes txikiagoa du.

Hala ere, emakumeen aurkako erasoak asko dira oraindik, eta egunerokoan sexuen berdintasunerantz goazela ikustea ez da erraza, lasaitasunez ikustea ez behintzat. Tratu txarrak jasotzen dituztenek drama pertsonal zehatzak izaten dituzte eta haien beharrei azkar erantzun behar izaten zaie –erasotu kopurua murriztu behar dugu–, eta horrek indarkeria matxista bermatzen duten ezberdintasunen inguruan lan egitea zaildu dezake. Matxismoa eta haren ondorioak belau-naldiz belaualdi zabaltzen dira hezkuntzaren eta gazteei emandako mezuaren ondorio: gizonok emakumeak babestu behar ditugu eta haiekin ditugun harremanetan guk hartu behar dugu aurrea. Emakumeek ere jasotzen dituzte mezu horiek eta, gure ideien osagarri, gure erabakien zain izaten dira eta guk eskainitako babesaren onartzen dute.

Emaitza, espero duguna denean, «mendekotasunagatiko babesaren» ematen da, milurteetan zehar sexuen arteko ezberdintasuna justifikatzeko erabili den eredu; baina guk badakigu eredu horri ez diogula zehatz-mehatz zertan jarraitu, eta hala erakutsi du feminismoak eta berdintasunaren aldeko gizonen mugimendu sortuberriak. Mendebaldean gertatzen da hori batez ere, berdintasuna gero eta gertuago dagoen tokian.

Guztiok hezi gaituzte gizarte matxista batean, eta ziurrenik, denok izan ditugu inoiz emakumeen aurkako mikro-indarkeria moduak, nahita edo uste txarrez egin ez baditugu ere; hori dela eta,

arretarekin jokatu behar dugu beti, gure seme-alabek mikro-indarkeria egoera berak errepika ez ditzaten eta berdintasunean oinarritutako hezkuntza berma dezagun haientzat.

Belaunaldi berriak iritsi ahala indarkeria matxista ez dela desagertu ikustea da agian tristeena; hau da, sexuaren araberako diskriminazioaren aurka dagoen herrialde demokratiko batean jaiotzea eta indarkeria matxista errefusatzea ez da nahikoa maite genuela esan genion eta harekin bizitzeko solidaritate ituna sinatu bide dugun emakumeari eskua altxa diezaiokegulako ustearekin amaitzeko.

Dirudenez, emakumeek eta gizonek ahalegin handiagoa egin behar dugu tradizio horrekin amaitzeko; Berdintasuna desiratu eta sexismorik gabeko gizartean bizitzeko indarrak biltzea beharrezkoa da, horrela sexuen arteko ezberdintasun legalak, errealak eta sinbolikoak gaindituko ditugu. Hori guztia egingo dugu, oinarrian dauden eredu maskulinoa eta eredu femeninoa desagertzeko beldurrik gabe.

Gizartearen diskurtso nagusia berdintasuna aldarrikatzen duen hori da eta gizon gehienek berdintasunaren alde daudela diote, baina espero genezakeena baino eginahal txikiagoa egiten dute hori horrela izan dadin. Oraindik ere asko falta da gizonek emakumeek haien izenean hartzen duten karga bere gain har dezaten. Gainera, gizonek oraindik zalantzak dituzte emakumeek beren bizitzak kudeatzeko duten gaitasunaren inguruan, eta une bakoitzean egoki deritzoten babes judiziala bera ere erabakitzen dute.

Indarrak biltzeko konfiantza ezinbestekoa da, baina konfiantza ez da zerutik erortzen; sentimendu horretara iristeko bidea egitea beharrezkoa izaten da, eta bertara gerturatzeko, bakoitzak bere ardurak bere gain hartu behar ditu, hau da, gizonok etxeko lanetan inplikazio handiagoa eduki behar dugu eta berdintasunik ez dagoenetan, berdintasunaren alde egiteko, diskriminazio positiboa babestu behar dugu.

Askotan errepikatu izan dugu gizonen ardura dela emakumeen aurkako indarkeriak irautea eta askotan, gizon gehienek ez diotela inori tratu txarrik ematen ahaztu dugu. Agian, haiengana beste modu batera gerturatzeko izango litzateke onena, aliatu moduan hain zuzen ere. Horrela, haien itxurazko neutraltasuna dela eta erasotzaileek izaten duten konplizitate sentsazio hori desagerarazten lagunduko lukete; Herritarrek, oro har, genero arazoekiko ezagutza handitu behar dute: emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako borrokan gizon gehienek parte hartu beharko lukete, erasotzaileak baztertzeak salaketa, kontrol eta zigorra erraztuko luke; gainera, biktimen babes neurriak eta independentzia ekonomikoa garatzen diren heinean, haien bizitzak berregiteko beharrezko autonomia ere berreskuratzen dute.

Gizonek borrokan parte hartzea ez da gizarte alarma pizten duen indarkeria biktimekiko solidaritate ekintza hutsa, emakumeekiko indarkeria mota guztien aurka lanean hastea lortu behar da, ardura zuzena eta pertsonala duten horiek aurretik jarrita, noski. Edo gauza bera dena: matxismoarekin eta haren adierazpenekin amaitzeko beharra sentitu behar dute, sexuen arteko berdintasunaren alde egin behar dute eta hori gauzatu ahal izateko, etxean eta kalean beharrezko diren ardurak bereganatzeko prest egon behar dute.

Baina komeni da gauza bat azpimarratzea: hain ohituta gaude gizonek aldaketaren aurrean duten erresistentzia, oraindik bete beharreko ibilbidea eta eguneroko lanei ihes egiteko duten joera amorragarria aztertzea, non zaila baita aldatu direla ikustea –onartzea are zailagoa da. Espero zitekeena baino txikiagoa da berdintasunaren aurkako jarrera; haien babesa eman diete –grina berezirik gabe– emakume mugimenduak gidatzen duen eta aldaketari laguntzen dioten lege aurrerapausoei. Emakumeen aurkako indarkeriaren konplize ez izateko urte asko daramatzate lanean eta badira berdintasunaren aldeko gizon taldeak osatu nahi dituztenak ere, emakume mugimenduekin bildu eta sexu berdintasuna bilatzeko. Gehienak ez dira beren aitak bezain matxistak; egunetik egunera gero eta argiago ikusten dute berdintasunaren aurkako argumenturik ez dela. Hori dela eta, ezkutetzea ezin da justifikatu, lanean hasi behar dute eta etxean mantala

jantzi. Gizonek badakite etxean lan gehiago egin behar dutela, ardurak haien gain hartu behar dituztela eta jendaurrean gero eta modu aktiboagoan hartu behar dituztela konpromisoak.

Hala eta guztiz ere, egia biribila da errazagoa zaigula oro har emakumeekin solidario izatea, gure bikotekidearekin baino. Errazagoa zaigu indarkeria salatzea, horretan inplikatzeko baino; erraza besteek egindako indarkeria argia gaitzestea, gehienok egin ohi dugun maila baxua-gokoari buruz hitz egitea baino.

2. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Emakumeen aurkako indarkeria ez da ohikoa ez den delitua. Gure herrialdetik irten gabe, milaka emakumek tratatu txarrak jasotzen dituzte eta mehatxuak jasotzen jarraitzen dute salatzerantz ausartu gabe. Gainera, Genero Indarkeriaren aurkako lege Orokorrak prozesatu eta kondenatu gehiegi ditu.

Legearen arabera, hau da «genero indarkeriaren» definizioa: epe jakin batean harreman afektiboa izan duten edo oraindik ere daukaten bikote batean, gizonak emakumearekiko erabiltzen duen indarkeria. Gizonek, jaso duten heziketa dela eta, indarkeria erabiltzea zilegi –legeak zigorra ezarri diezaiekeela jakin arren– dela uste dute. Horrela, emakumeak, haiek nahi duten moduan portatuko dira, edo haiek portatzea nahi duten moduan. Psikologia maila ezberdinak erabiltzen dituzten gizonak (aginduak, oihuak, irainak, mehatxuak) edo indarkeria fisikoa eta sexuala erabiltzen dituztenak, baina helburu bakarrarekin beti: emakumea heztea edo birbideratzea. Biktimen hilketa emakumeak menderatzean izandako porrot moduan bizi dute gizon horiek. Emakumeak bizi osoan menderatzen jarraitzea nahiagoko lukete ziurrenik, baina hiltzeko erabakia hartzen dute, indarkeriak indarkeria, emakumeak haien askatasuna lortzeko prest daudela ikusten dutenean. Hori dela eta, heriotzen % 80 baino gehiago, emakumeak hasitako banaketa prozesua abiatua dagoenean gertatzen da.

Salaketaren ondorioz, normalean ez da tratatu txar gehiago izaten. Salaketa aurkezten denean ohikoa da indarkeria gutxitzea, indarkeria bera zigorgabetasunean oinarritzen baita. Gizartean horren berri izaten dutenean eta gizon horiek zalantzan jartzen dituztela konturatzen direnean, erasotzaileek gehiago kontrolatzen dute beren burua. Banaketak indarkeria handiagoa eragin dezake, emakumeak haren kontrolatik ihes egin nahi duela ulertzen baitu. Erasotzaileek beren biktimak kontrolatuta dituztela ikusten badute, lasai egoten dira, baina banaketaren unean beren burua kontrolatzeak zentzua galtzen du.

Tratatu txarra, eraso sadiko, errepikatu eta denboran luzatzen dena biktimak ihes egin ezin dutenean gertatzen da, familiako intimitatean gehienetan. Pertsonen arteko harremanen eremu ezkutukoena etxea izaten da, eta orain gutxira arte, gizarreak ez dituzte ezkontideen tratatu txarrak gaitzetsi, egoera oso gatazkatsua zenean salbu.

Familia beti eremu pribatua izan denez eta betiere emakumea gizonen (eta umeen) mendeko izendatzen zituen oinarri kultural eta juridiko ugarik babestuta egon denez, familiak emakumea senarraren edo bikotekidearen mende egotea babestu du beti.

Mendekotasun ekonomikoa, emozionala, emakumeek (eta adingabeen) gizonen aldean duten indar faltak eta gizona familiako buru kontsideratu izanak gizonari sinetsarazi dio zilegi dela haien

bizitzekin eta gorputzekin nahi bezala jolastea. Hori horrela izanik, gure eraso fisikoen edo psikologikoen egilea maite dugun norbait izateko aukera gehiago ditugu pertsonok, aukera gehiago ditugu erasotzailea gure familiakoa bertakoa izateko.

Horrelako egoeretan, biktimengan izandako benetako ondorioak ikustean izaten den oztopo nagusietako bat honakoa da: jendeari –eta profesionalei (osasun arlokoak, poliziak, lege alorrekoak eta abar)– horrelako gurutzea jasan izana ulertzea zail egiten zaie. Bikotekidearekiko mende-kotasuna eta obediencia ulertzeko zailtasuna eraso etengabeen emaitza izan daiteke. Hori dela eta, askotan pentsatu izan da badirela horrelako harremanak bilatzera bultzatzen duten faktore pertsonalak. Logika horren ondorioek biktimarekiko konfiantza eza eta erasotzailearekiko nola-baiteko errugabetzea edo barkamena (konplizitatea) eragiten dituzte.

Erasotzaileak gizarteko kodeak barneratu dituzten gizonak dira. Eguneroko bizitza ziprizontzen duten mezuak jasotzen dituzte belaunaldiz belaunaldi eta ustezko nagusitasun maskulinoari erantzuten diote. Diskurtsoetatik harago dauden kodeak dira; alegia, etxean, eskolan, telebistan, zinean, literaturan, folklorea, lan antolaketan, botere banaketan... jasotzen direnak. Berdintasun eza adierazten duten hamaika egoerak –hietetako batzuk hain arinak, non ia inor ohartu gabe gertatzen baitira, eta beste batzuk hain basatiak non ez-egiazko baitirudite– argi adierazten dute gizonak eta emakumeek hierarkian toki ezberdina dutela, nahiz eta eguneroko bizitzan elkarren osagarri diren paperak izan. Benetakoak diren beste errealitate hauek gogoratzea ere komeni da: gizonak botere bide gehienak kontrolatzen dituzte, eta egunez zein gauzez mugitzen dira kaletik, emakumeek erasoak jasateko duten arriskua baino askoz txikiagoa baitute gizonak. Munduko lehentasunak, oraindik ere, gizonen interesen eta beharren arabera antolatzen dira eta pertsona idealaren eredua, ahultzen ari bada ere, gizona dugu oraindik.

Gero eta pauso handiagoz berdintasunerantz bagoaz ere, errealitatea ez da aldatu, eta mutilen eta nesken etorkizunari buruzko transmisioak, gero eta gutxiago azpimarratzen du gizonen nagusitasuna. Edozein modutara ere, ezberdintasunak desagerrarazteko daramagun bidea –gizarte itxaropenak, umeengandik espero dugu– luzea da oso, erritmo gorabeheratsua duena eta atzerapausoak izan ditzakeena. Laburtze aldera, ahal den gizon eta emakume gehienek benetako konpromisoa behar duela esan dezakegu.

Euskadiko datuek –hiru emakume hil zituzten haien bikotekideek 2008an eta eguneko hamaika salaketa jarri zituzten tratu txarreatatik, nahiz eta kanpaina, ekimen eta prebentzio arreta tresnak martxan jarri– argi adierazten dute adi jarraitu behar dugula eta arazoari eskaintzen diogun arreta handitu behar dugula. Gauza jakina da oraindik ere gutxiengoa direla salaketa jartzen dituztenak eta, portzentajeak gora egiten jarraitzen badu ere, biktima gehienek urteak eramaten dituzte tratu txarrak jasotzen. Tratu txar horiek, gainera, seme-alabei eragiten diete maiz. Salaketarik ez izateak ez luke eragin behar polizia eta lege agintarietara esku hartzea tratu txarrak egon badaudela badakite. Biktimek ere, haien eskubideak eta bitartekoak baliatzeko aukera izan beharko lukete salaketarik ez badago ere.

Laguntza ez eskatzeko dauden arrazoen artean honakoak nabarmendu genitzake: informazio falta, babesaren eraginkortasunarekiko konfiantza falta, erasotzaileari dioten beldurra, independentzia ekonomiko eza eta bikotekidea aldatuko den esperantza. Ulertzen zailena kentzen den salaketa kopuruari dagokiona da –ehuneko hamaika iaz Euskadin. Arrazoia, biktimaren damua edo erasotzailearen mehatxuak direla uste izaten dugu, baina komenigarria izango litzateke instituzioek biktimak espero adina laguntza ez emateak zenbaterainoko eragina izaten duen kasu bakoitzean, nahiz eta instituzioek, gero eta tresna eta bitarteko gehiago dituzten.

3. INDARKERIA BIKOTE GAZTEENGAN

Bikote gazteengan ematen den indarkeriak erakusten duen moduan, akatsa da belaunaldi al-daketarekin pentsamoldea ere aldatuko dela sinistea; denbora alderdi erlatiboa da historiako urte asko eta asko dituen arazoarentzat eta heredatutako jarrera horiek alde batera uzteko al-daketa sakonagoa behar da. Izan ere, eztabidaezina da emakumeen aurkako erasoak 20 eta 45 urte artean ohikoagoak direla esatea, eta oso kezagarria da unibertsitate ikasketak dituzten emakume erailen portzentajea eta tratu txarrak eragiten dituzten gizon unibertsitarioena ere.

Internet aroan hezi diren gazteak dira eta sare sozialetako parte dira. Sare sozial horiek, gainera, baloreak igorri ohi dituzte, pertsonen artean zein genero artean indarkeria errazten duten baloreak; Hala ere, gehienek ez dituzte emakumeen aurkako jarrera erasotzaileak. Helburua da horrelako ereduak bultzatzen dituzten harremanak saihestea.

Gazteek berdintasuna erdietsia dagoela uste izaten dute, mutil eta neska artean ez baitute ezberdintasun egoera aipagarrikerik bizi izan. Berdinak dira legearen aurrean eta eskubide berak dituzte; hori dela eta, harremanetan tradiziozko rolak hartzeak duen arriskua atzematea zail egiten zaie. Mutilak, haien gurasoek zuten baina berdintasun ideia sendoagoarekin hezi dira, baina neska erakarri nahi dutenean ohikoa da haien artasuna nabarmentzea. Gizon askoren ustez, neskek berdintasunaren aldekoak lagun izateko nahi dituzte baina harremanetarako, eredu tradizionalagoa jarraitzen dutenak nahiago dituzte: guapoak, gizonak, inizatiba hartzen dutenak eta pixka bat alprojak direnak.

Bi sexuen arteko berdintasunarekin kontsekuente izango bagara, izatea itxura ematea baino garrantzitsuagoa dela onartu behar dugu, direnagatik gustuko izatea lortzen ez badute, gustukoak ez dira haiek izango, mantentzea ezinezko izango zaien irudia baizik; harreman eta gatazkak ere izaten direla onartu behar dute, eta gatazka horiek modu baketsuan konpondu behar dira. Gizonen gehiagotasun eta emakumeen gutxiagotasun mezuak gaitzetsi behar dira, eta berdinek matxismoaren aurrean izaten duten neutraltasuna alde batera utzi behar dugu.

Milaka egoeratan jelskortasuna eta kontrol grina maitasun aitortza moduan ikusten da, onartu egiten da eta askatasunari mugak jartzen zaizkio; bizitza komunean antolatzeke garaian aurrekari eze-gokia da hori, ezberdintasunean oinarritutako harremanen oinarrituko baita eta gehiagotasun eta gutxiagotasun pertzepzioak garatuko baitira. Arazoa areagotzen duten itxaropenak ere izaten dituzte neska mutil askok: seme-alabak edukitzean emakumearen tokia etxean da umeak zaintzen, gizar-tean beste paper batzuk betetzeari uko egin behar diote edo bestela, une hori atzeratu behar dute.

Gazte asko zirikatzen gerturatzen dira neskengana, bikotekideei haien irizpideak ezartzen saiatzen dira harremanaren konpromisoa indartzeko edo maite dituzten aitzakian emakumeak kontrolatzen dituzte (arrazoi horrekin kontrola zilegi bilakatu besterik ez dute bilatzen). Bikotekidearen gaineko kontrola norberaren segurtasun ezaren adierazle izaten da eta neskarekiko konfiantza ezaren erakusgarri izaten da. Ziur egon ezean, edo neskarengan konfiantzarik izan ezean, neskarekin hitz egitea eta gertatzen dena azaltzea da egokiena, eta neskaren erantzunak uste txar horien berri ematen badu edo gezurtatu arren sentimendua desagertzen ez bada, onena harremana etetea da. Ziurtasun ez hori bikotearen kontrolaren bidez konpontzen saiatzeak ziurtasun ezak areagotzen ditu, eta itotze sentsazioa eragiten du neskarengan. Hori horrela izanik, neskak kontrolatzailearekiko dituen maitasun sentimenduak eraisten joaten dira eta galdutako askatasunaren bila ihes egiten du. Horrexegatik da hain garrantzitsua sentimendu, jarrera eta itxaropen horiek indartzeko tresnak lantzea. Konturatu behar dute norberaren askatasunaren konfiantzatik eta errespetutik baino ezin dela pribatua eta publikoa berdintasunean partekatu, ez eta harremana edo bizi proiektua partekatu ere.

Gazteen portzentaje handia joaten da eskolara eta etorkizun hurbilean eragin handiena izango duen sektorea horixe izango denez, tarteko ikasketek eta unibertsitateek bikote gazteen indarkeria gutxitzen saiatzeko toki pribilegiatua dira, horrela lortuko baita argumentuak zurrizko erabiltzen diren arrazoiak gutxitzea.

4. ETORKINAK

Etorquina lehenbailehen arreta behar duen sektorea da. Atzerriko jatorria duten herritarren artean biktima kopurua hazten doa, espainiarren artean, pixkanaka-pixkanaka beherantz egiten duen bitartean. 2008an Espainiako biztanleen % 11,4 atzerritarra zen, hildakoen artean, berriz, % 43,5 ziren eta hiltzaileen % 37,7. Datu horiek biztanle atzerritarren artean salaketa kopuruak gora egitearen arrazoa ulertzeko giltza ematen digute. Atzerritarren artean, azkarrago egin du gora salaketa portzentajeak espainiarren artean baino. Kartzelaratuakoen artean, askoz gehiago dira indarkeria matxistagatik preso dagoen atzerritarren portzentajea bertan bizi diren atzerritar kopurua baino .

Datuak aztertzen baditugu, atzerritarrek estatistiketan gehiegizko ordezkaritza dutela ikusiko dugu. Tratu txarrak 20 eta 45 urte artean gehiago gertatzen dira, hiltzaile asko espainiarrak izan baziren ere, inmigrante izaerak ahulago egiten ditu. Emakumeen aurkako indarkeria berdintasun ezaren ondorio da, hori dela eta, zaurkortasun baldintzak handitzen badira, indarkeriarako arriskua ere handituko da. Egoera horiek emakume inmigrante askorengan dute eragina eta, zalantzarik gabe, espainiarrek zergatik jipoitzen edo hiltzen dituzten jakiten laguntzen du.

Hizkuntza arazoak dituzten inmigranteek, indarkeriatik irteteko arazo gehiago dituzte. Gainera, dokumenturik ez dutenek kanporatuko dituzten beldur izaten dira eta baliabiderik ez badute, erraza izaten da prostituzio sare batean amaitzea. Urruntze agindua badago edo epai irmoa badute, lan baimenik izan gabe egoitza baimena lor dezakete, baina erasotzailearengandik ihes egin ahal izateko autonomia ekonomikoa behar dutenez, asko gizonengana itzultzen dira beste biderik topatzen ez dutelako: ez laguntzarik (espainiarrentzat bakarrik dira horiek), ez eta lan baimenik ere.

Inmigrazioa gizarteratzeko plan sinesgarria behar du egoerak, herritarren sektore honi arreta eskainiko diona, irain sintomak alde batera utziko dituen eta emakume inmigranteen aurkako indarkeriaren kontra sentsibilizazio eta prebentzio programak izango dituen. Azken batean, emakume espainiarrek jasotzen duten babes bera ziurtatzea behar dute, bizitzeko baimena izan ala ez.

5. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MOTAK

Indarkeria matxistak prozesu jakina izan ohi du: menderatze portaera eta ohiturekin hasten da, bai eta bikote harremaneko eguneroko indarkeriarekin; konturatu gabe ematen diren portaerak edo nahigabe egindakoak izaten dira askotan. Gainera, gehienetan ezinezkoa izaten da atzematea, pilaketa kontua baita; gizonak eta emakumeak harremanean duten banaketa bidegabea indartu ohi dute. Bertan, indarkeria psikologikoa, indarkeria fisikoa, tratu txarrak, sexu indarkeria edo hilketa gerta daitezke. Eguneroko bizimoduaren adibide batzuk —Luis Boninok **mikromatxismo izena jarri zien**— honakoak dira: Bikotekideak etxeko lan guztiak bere gain hartzen dituelako denbora libreza izan (ez litzateke horrela izango banaketa orekatua balitz).

Etxeko lanen eta haurren zainketaren balio ekonomikoa ez onartu. Gure arrazoiak ematen ditugulako gurea gailentzeko eskubidea dugula pentsatu. Sentimenduak adierazteko zailtasuna arrazoitzat erabiltzea hitz egitea, azalpenak ematea eta konpromisoak hartzea saihesteko; Hainbat etxeko lanen banaketa onartu baina erosi behar denaren edo hozkailutik atera behar denaren jarraipenik ez egin, eta abar.

Indarkeria psikologikoa edo emozionala publikoki ala pribatuan egindako deskalifikazioen bidez atzematen daiteke, bai eta ondoko arrazoiengatik ere: askatasunari mugak jartzea, dirua erabiltzeko gai ez dela leporatzea (berak irabazitakoa barne), lagunekin eta senitartekoekin harremanak mugatzea bakarrik utzi eta babesik gabe gelditzeko, eta abar.

Indarkeria fisikoa eta tratu txar etengabea da agian argiena eta ikusten errazena. Ondoko ezau-garriak izaten ditu: menderatzea, biktimaren kontrola, bultzada zein jipoi artekoak, nahi ez den praktika sexualetan aritzeko beharra edo hilketa. Ohikoa da kolpeek arrastoak uztea, nahiz eta erasotzaileak gehien ikusten diren gunetan kolpeak ez ematen saiatzen diren.

Sexu indarkeria tratu txarren bertsio sexuala da, eta emakume orok bizipen horiei dien beldur-rrak talde autonomia galtzea eragiten du. Presio, mehatxu edo indar bidez egiten dituzte, bote-reenen berdintasunik eza agerian utzita. Biktimari gorputzeko min fisiko eta psikologiko handia eragiten diote, nahi gabeko haurdunaldi, GIB_HIES, beste STG (sexu bidezko gaixotasun) edo he-riotza arriskuarekin batera. Sexu indarkeria mailak bereizten dira eta jazarpenari (nahi ez diren sexu aurreratzeak, lan prekarioa duten emakumeen aurka ematen dira batez ere), sexu eraso-oi (sarketarik ez duten guztiak), adingabeen eraso sexu-oi (sarketarekin edo ez), bortxaketei (ba-ginako, ipurdiko edo ahoko sarketa) eta abarrei buruz hitz egiten da.

Erasotzaileak gizon normalak izaten dira –emaztea, neskalaguna edo lagunak dituzte– eta eze-zagunak zein ezagunak izan daitezke (senarrak, aitak...). Suntsitzailea izango da, baina hori beste gauza batzuen arabera izango da: nolako eraso den, erasotzailea nor den, denboran zenbat luzatzen den, mehatxuak nolakoak diren, edo biktimak babes bila jotzen duenean lagun-ek ematen dioten erantzuna. Delitu mota honek proportzio falta handia du benetako maiztasunaren eta salaketa kopuruaren artean. Askotan biktimaren arduraren edo adostasunaren («gizonak zirikatzen dituzte», «barru-barruan hala nahi dute»...) inguruko susmoak izaten dira, eta batzuetan, gainera, emakumeak errudun sentitzen dira.

Erasotzailea ezezaguna edo ez oso ezaguna denean errazagoa da salatzea, biktimak sinistua eta babestua izateko erraztasun handiagoa baitauka –prostituzioan lan egiten ez badu–, herri handietan ere errazagoa da salatzea, anonimotasuna zaintzea errazagoa baita. Egoera horietan asko espero izaten da ingurukoengandik, instituzioengandik eta justiziarengandik, eta larriak dira eman daitezkeen arriskuak eta ondorioak, baldin eta gizarte erantzun egokirik ez bada. Bortxaketa ekintza ezaguna bada ere, gutxitan pentsatzen du emakume batek bera biktima izan daitekeela.

Adingabeei eginiko sexu erasoak gizon ezagun baten eskutik datoz gehienetan; familiakoa izaten da maiz, gainera. Horrelako bizipenak bizi izan dituzten herritarren portzentajea hain da altua, ezen gertaerak berak hemen ez dugun tartea merezi baitu. Hala ere, argi dago tradizionalki irakatsi diguten mezu bat hankaz gora uzten duela: ez zaitetz ezezagun-ekin fida; eta, ondorioz, babesik gabe egoten dira ezagunen aurrean. Horregatik, indarrez emandako «musu bat bera ere» ez dutela onartu behar eta gustatu ez zaien edozein gauza fida diren senide kontatu behar diotela irakatsi behar zaie, sinetsiko dietelako ziurtasunez egiteko gainera..

6. NOLAKO JARRERA DUTEN GIZONEK EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAZ

Ana Orantes 60 urteko granadako emakumearen heriotzak, 1997ko abenduaren 17an gizon ohiak gasolinarekin busti eta kiskali zuen, gizonak urteetan eman zizkion tratu txarrak telebista saio batean kontatzeagatik, mugarria izan zen iritzi publikoaren sentsibilitateari dagokionez, eta indarkeria matxista gaitzestea eragin zuen. Bere hilketak dela eta, 1998ko urtarrilean Sevillako gizon talde batek, «gizonek emakumeen aurka baliatzen duten indarkeriaren aurkako gizonak» izeneko taldeak, manifestu publikoa atera zuen lehen aldiz. Taldekideek, haien aldeko gizonen sinadurak bildu zituzten eta lazo zuria zabaldu zuten, bake irudi moduan, hainbat gizon kanadarrek bultzatutako ekimenari jarraitzen ziotela jakin gabe.

Erabaki hori zela eta, gizon askok emakumeen aurkako indarkeria gaitzesten zutela argi ikusi zen lehenengo aldiz, eta erasotzaileei laguntzeko konplize papera betetzeari uko egiten ziotela. Koartada atzean uztea erabaki zuten, historian zehar izandako pribilegioak mantentzeko erasotzen zutela zioen koartada. Ekimenak emakumeen aurka gizonek zuten batasun publikoa hautsi zuen; Gizonen lehenengo banaketa ikur argia izan zen herritarren aurrean, gizonen kolektiboaren garapena bideratu nahi duten adiskidetu ezinezko bi zatitan: emakumeen gainean dituzten abantailak kosta ala kosta mantendu nahi dituztenak eta, feminismoarekin batera, sexuen arteko berdintasun eza errotik atera nahi dutenak. Bi taldeek kontrako jarrerak dituzte berdintasunerako bidean aurrera egitea proposatzen den gai guztietan: Etxeko gaietan gizonen inplikazioa handitzea, aukera berdintasunak oztopatzen dituzten kristalezko mugak hausteko diskriminazio positiboa baliatzea, emakumeei haien sexualitatea eta ugaltzeko gaitasuna kontrolatzeko eskubidea onartzea, eta abar.

Ezberdintasunak herritarrei zabaltzen joaten dira, eta horren laguntzarekin, egunez egun, gero eta zailagoa da sexuen arteko berdintasunaren aurka adierazpen publikoak egingo duenik topatzea. Kontrakoez ere gaur egun defendatzen duten eredia da aurka egiteko arrazoiak ematen dituztenean; hala nola abortuaren aurka, indarkeriaren aurkako lege orokorraren aurka eta horrelakoen aurka aritzen direnean.

Sevillan emakumeen aurkako indarkeriaren kontra idatzitako manifestua askoz gehiago izan zen, astakeria baten aurka ahotsa altxatu nahi izan eta manifestaldi espontaneo antolatu zuten gizon talde baten ekintza baino: demokraziaren hasieratik feminisмотik hurbil zeuden gizon taldeetatik abiatzen ari zen aldaketaren emaitza izan zen. Estatuko gune ezberdinetatik (Valentzia, Bilbo, Madril,artzelona...) hamarkada luzea zeramaten hainbat gizon eta gizon taldek eredu maskulino tradizionalak zalantzan jartzen eta sexuen berdintasun ezaren aurka zeudela argi eta garbi adierazten. Horrekin batera, Ana Orantesen hilketak sortu zuen sumindura elkarbanatu zuten. Harrezkero milaka gizonek erasotzaileei zilegitasuna kentzeko egin dituzten oihuetako bat besterik ez zen izan, haiengandik espero zena ez egiteaz gain, gizonen kolektiboko gehienak lotsarazten baitzituzten.

Ahots horiek beste toki batzuetan altxatu ziren ordurako, Kanadan esaterako. Harrezkero, mundu osoan zehar gero eta maizago entzuten dira horrelakoak hainbat herrialdetan. Ahots horiek argi eta ozen zioten emakumeen aurkako indarkeriak ez duela zuzeneko harremanik maskulinitatearekin, jatorria hezkuntzan badu ere. Guztiok hezi gaituzte matxismoan baina gutxi batzuek baino ez dituzte emazteak jipoitzen; ondorioz, arrazoiak eman arren ez dago zuribiderik eta erasotzaileak dira arduradun bakarrak, bai biktimen aurrean, bai justiziaren aurrean.

Esker on ugari jaso ditu borroka honek; azkena Nazio Batuen Erakundeko idazkariak egin zuen martxoaren 8ko adierazpen instituzionalean, Emakumearen nazioarteko egunean bertan. Hala esan zuen bere hitzaldian: «Gizonak ere gero eta maizago egiten dituzte adierazpenak gizarteko

orban horren aurka. Mundu mailako adibideen artean bi kanpaina nabarmendu ditzakegu: Lazo Zuria eta V-Men, V-day kanpainari gizonak emandako erantzuna. Komunitateetan zehar antolatutako tailerretan, gainera, beste gizonak erakusten diete benetako gizonak ez dituztela emakumeak jipoitzen eta beste bide batzuk badirela.»

Gizonak emakumeen aurka baliatzen duten indarkeriaren aurka gauden gizonak eragina eta ikusgarritasuna irabazten ari gara, antolaketan aurrerapausoak ematen ari gara eta matxismoaren aurkako borroka guneetan gero eta parte-hartze handiagoa daukagu, sexuen arteko berdintasuna erdiesteko helburua lortze bidean betiere. Emakumeen aurkako indarkeria gaitzestea da gizonen (berdintasunaren aldeko gizonak, feministen aldekoak, patriarkalismoaren aurkakoak, berdintasun ezaren aurkakoak ...) mugimenduan, batasuna ematen duen nazioarteko helburu nagusia, horixe baita generoek berdintasun eza ez dutela erakusten duen adibiderik gordina. Gizonen batasun gogoaren inguruan dagoen arieterik gogorrena da praktiken inguruan edo ezberdintasunak mantendu eta emakumeen mendekotasuna ontzat hartzen dituztenak. Ahots gutxitu baina esanguratsua lortu dugu, ahotsak hazten jarraitzen du gainera eta gizonen kolektiboan ematen ari den balio aldaketari aurpegia jartzen ari zaio.

Hala ere, ahots horrek oraindik ere ez du lortu bikotekidea erasotzen duen gizonak ez egotea, ez eta emakumeen askatasuna bermatzea. Arreta mantendu behar dute eta haren hiltzaile izan daitekeen pertsonarekin maitemintzeko akatsik egin ez. Gutxiengoa badira ere, oraindik ere asko dira matxista amorratuak eta zaila da emakumei inoiz tratu txarrik eman ez dienengandik bereiztea. Haien jarrerak susmoa kolektibora zabaltzea eragiten du, «gizon guztiek tratu txarrak eragin ditzaketelako» esaldiari sinesgarritasuna emanez. Iritzi horrek historian eta kulturatan zehar jasotako herentziaren ondorio da eta munduan bizi dugun egoera adierazten du: hiru emakumeetatik bat behintzat inoiz kolpatu dute, sexua praktikatzera edo beste gehiegikeria mota bat izatera behartu dute.

Hori dela eta, Josep-Vicent Marqués-ek esaten zuen moduan, europar gehienak «gizon sentikorrak eta matxista berreskuragarriak» izan arren, erratzeko beldurrik gabe, emakumeen aurkako indarkeria herrialde guztietan eta gizarte maila guztietan izaten dela esan dezakegu; batere irudizkoa ez den drama da eta erlatibizatze edozein saiakerak irauten lagundu besterik ez du egiten; askatasunari buruz hitz egitea zailtzen duen drama da, emakumeak, herritarren erdiak, beste erdien mehatxuak sentitzen baititu.

Gizonak, gure herrialdean behintzat, berdintasunaren aldeko adierazpenak egiten dituzte; hala ere, berdintasun ezak salatzeari gure denbora eskaintzen diogunoi anibalentziaz begiratzen digute. Ohikoa da emakumeen gustuko izan nahi dugun «tipo jator» moduan ikustea denean arrazoia ematen diegulako ustearekin, baina ez omen gara gainerako gizonekin solidario, ez baikara haien nagikeriaren konplize. Gizonen alde txarra eta emakumeen alde ona besterik ikusten ez dugun tipoak gara eta ez omen dugu onartu nahi «emakumeak ere ez direla santuak».

Berdintasunaren aldeko gizonak ere baditugu kontraesan pertsonalak eta kolektiboak, benetan amaierarik ez duen diskurtsoa dugu eta emakumeen mugimenduek ez digute konfiantzarekin begiratzen oraindik ere, gizonak izaki ez baikaituzte haien elkarkidetzat, errehabilitazioan ari diren drogazale antzekoak gara eta edozein unetan berriro ere jausi gaitzke. Jakin ez dakigun arren, sexismoaren bertsio berria izan gaitzke gu, sexuen arteko berdintasun eza betikotzeko diskurtsoa berritzen saiatzen ari garen gizonak. Zakur berak, lepoko ezberdinekin. Gizon horien helburua berdintasun ezaren aurkako hitzaldi autonomoa osatzea da, eta berdintasunaren aldeko borrokan, lidergoa bilatzen dugu emakumeen aldean.

Konfiantza falta hori urteek aurrera egin ahala desagertuz doala dirudi, ibilbide pertsonalak, feminismoaren aldarrikapenekiko solidaritateak, lantzen ditugun diskurtsoak edo bultzatutako ekintzek aldaketarekiko dugun konpromisoa babesten baitute, nahiz eta emakume igualitario askok gezurretako txanpontzat gauzkatzen. Mesfidantza ere urtuz doa, gero eta gizon gehiagok etxe-

tik laguntzen diotelako aldaketari, haien gizarte parte-hartze tokietatik eta politika ekintzetatik, gainerako gizonen aldaketarako aitzindari bihurtuz; Sektore zabalek emakumeen mugimenduek ikustea egokia da, berdintasunaren aldeko gizon talde antolatuek inplikazioaren beharra eta garrantzia nabarmendu behar dute. Elkartasunaren arriskua bere gain hartzea beharrezkoa da indarkeria matxistarekin amaitzeko eta haiek gabe, etorkizuna eraikitzea ez da posible izango.

Gero eta txikiagoa den bakardadea da boterea bidegabeki zuten taldearen batasuna zalantzan jarri zuten horiek ordaindu behar izan duten prezioa. Jaiotzetik, sexuagatik edo hezkuntzagatik talde batekoak gara eta noraezean gabiltzanean, taldeak galduta ez gaudela jakinarazten digu, nahi duguna badakigula esaten digu, ez gaudela erotuta: mundu solidarioagoa, askeagoa, anitzagoa eta berdintasunezkoa nahi dugu. Zentzuzko zailtasunak dira zalantzarik gabe, baina berdintasunaren aldeko gizonak, gainerakoek izan behar ez duten koherentzia eta konstantzia behar ditugu leku publiko eta pribatuetan.

7. LAZO ZURIAREN KANPAINA

1989ko abenduan hamalau nerabe hil zituzten Kanadan gizonentzako zen karrera batean ikasten aritzeagatik: hiltzailea Montrealgo Eskola Politeknikoan sartu zen, eta gizonak eta emakumeak bereizi zituen, azken hauei «feministak!» oihukatzen zien bitartean. Emakume guztiak tirokatu eta gero bere buruaz beste egin zuen. Egun hura gogoratzeko, Kanadan abenduaren seian egiten dute emakumearen aurkako indarkeriaren kontrako eguna.

1991n gizon kanadarrek osatutako talde batek Lazo zuriaren kanpaina abiatu zuen. Lazo zuria janzen dute haien bi konpromisoak islatzeko, emakumeen aurkako indarkeria ekintzarik egingo ez dutela batetik, eta indarkeria matxistaren aurrean isilik geratuko ez direla bestetik. Kanpaina beste herrialde askotara hedatu da, eta horrela sortu da beste gizonetik eta hurrekiko gizonen indarkeriaren aurkako borroka helburu duten adin guztietako gizonen sarea.

Horrelako gehiago ez gertatzeko lan egiteak edo beste gizon batzuk lanerako biltzeak isiltasunarekin amaitzea eskatzen zuen. Gizonei haien ahotsa entzun zedin eskatu behar zitzairen, salaketak jartzerara eta gainerakoak emakumeekiko duten jarrera aztertzerara anima zitzairen. Argi izan behar zuten emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean isilik geratzen diren gizonak arazoaren parte direla.

Gizonek jarrera matxistak aldatzeko duten ardura kolektiboa gogorarazten digute. Jarrerak aldatu behar dira, bai eta gizonei indarkeria ekintzak egitea barkatzen dieten legeak eta instituzioak ere. Belau-naldi berriei indarkeria onargarririk ez dagoela azaltzea ardura da, baina gizon izateko emakumeak, umeak edo beste gizon batzuk kontrolatzea edo menderatzea beharrezkoa ez dela jakin behar dute.

8. GIZONEN KONPROMISOA, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURKAKO BORROKAN

Beti izan da emakumeen aurkako indarkeria; garai guztietan legeak emakumeen aurka egin dira eta zenbaitetan legeek erasotzaileak zigortu badituzte ere, egoera ez-ohikoa dela azaldu digute,

ez sakonagoa den arazoaren adierazpen modura. Horrela, kasu berezi moduan ulertu genituen eta emakumeen mendekotasunak hortxe jarraitu zuen.

Horregatik da hain garrantzitsua gizonok aurpegia emanez gaitzestea, erasotzaileak deslegitimatzeko baldintza onetan gaude, gizonak izateak eta emakumeen aurkako indarkeria baliatzeak zerikusirik ez dutela adierazi behar dugu, matxismorik ez balego, ez bailitzateke ez genero ezberdintasunik, ez zapaldurik, ez eta mendekorik ere.

Gizonek emakumeak ez erasotzeko eta hala egiten dutenak salatzen hartutako konpromisoa ez da nahikoa, garrantzitsua bada ere. Arazoak kulturaren, hezkuntzaren, subjektibitatearen eta eguneroko bizitzan dituzten sustraiak; genero indarkeriaren haziak errotik ateratzeko ahalegin jakin eta etengabea beharrezkoa da. Fenomenoaren adierazpen mingarriaren arbuia arrazional eta arrazoizkoa baino sakonagoa izango den aldaketa pertsonal eta kolektiboa sustatzen duen ahalegina; horiek baitira hedabideen atentzioa ekartzen dutenak. Emakumeekin, gainerako gizonekin eta eguneroko bizimoduarekin ditugun harreman guztiak aldatzen dituen aldaketa; aldaketak pertsonen lehentasunak aldatzea eskatzen du, etxeari eskaintzen diogun denbora handitu beharko dugu eta lan ordainuari eta gizarte harremanei, berriz, orduak kendu beharko dizkiogu.

Emakumeen aurkako indarkeriak alderdi askotan –harremana izan arren– eskatzen dituzten aldaketak eta modu zehatzean baina guztiei batera kasu egiteko uztartzen ikasi behar dugu, horretarako bizitza zentzudun eta lasaiari bizkarra eman gabe; helburua hori da, keinu handirik gabe, egunez egun, berdintasunerantz gerturatzea. Berdintasun ezaren eta emakumeek eta beste hainbat kolektibok –gutxiengo sexuek, esaterako– egunerokoan jasan behar izaten dituzten indarkeria txikien aurrean jarrera kritikoa izan behar dugu, bai eta oharkabean pasatzen diren portaera sexistak ere. Tradizioz maskulinitateari lotutako mezu asko betetzei utziko bagenio beharrezko ez ditugun sufrimendu asko ere aurreztuko genituzke.

Emakumeen aurkako indarkeriaren aurka lan egiteak ez du heroi portaerarik eskatzen, Daniel Oliverren eta Jesus Neiraren portaeren kasuetan bezala, haien eredugarriak izan baziren ere. Bizitzan eta harremanetan berdintasunezko izana eta egotea nahikoa da adierazpen horiek eta jarrera matxistek min egiten digutela erakusteko, berdintasunezko tratua alde ez daudenak deserioso egoteko gure aurrean, egiten edo esaten dutena zaindu dezaten. Emaitza hori lortzeko diskurtsoa ikasi eta errepikatzea ez da nahikoa; derrigorrezkoa da esaten denaren eta egiten denaren artean koherentzia azaltzea, gure burua kritikatzeko gai izatea eta gure bikotekideengan uzten ditugun etxeko lanak gure gain hartzea eta beste alorretan harremanak izaten ditugun emakumeekiko berdintasunezko tratua izatea.

Askok diote berdintasunerako oztopo handiena etxean gizonen duten inplikazio txikia dela. Horrek lanean hasi behar dugula diosku, mantala jarri behar dugu eta solidaritatez partekatu behar ditugula bizitza, lana eta boterea. Horrelako inplikazioak emakumeak lan merkatuan sartzea erraztu, haien lan promozioa handitu, lege laboralek uztartekarako legeak egokitu, mendekotasuna duten pertsonak zaintzea bermatuko luketen gizarte zerbitzuak garatuko lituzke (haurtzaindegi publikoak, eguneko zentroak,...) eta eskolak belaunaldi berriei berdintasunezko ereduak ematea erraztuko luke.

Emakumeek egin izan dituzten lanak baina guri dagozkigunak gure gain hartzean, lan merkatua eta gizarte ongizatea antolatzen beharrezko aldaketak egiteko beharra partekatuko dugu, horrela, familia eta lan bizitzak uztartuko ditugu, saiakeran hil gabe. Emakume mugimenduen aldarrikapenen larritasuna gure gain hartuko dugu eta, poz handiz, herritarren ongizaterako izango diren hobekuntzei erantzuten saiatuko gara. Ez dugu uste sexu batekoa ala besteko izateak bazterketarik eragin behar duenik Estatuaren aurrean, ez zerbitzu ez laguntza kontuetan.

9. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREKIN AMAITZEKO PAUSOAK

Emakumeen aurkako indarkeriarekin amaitzeko arazoaren sorreran, garapenean, prebentzioan edo trataeran eragina duten alderdi guztietan eragin behar da lehenbailehen. Ondokoak dira agian argienak eta arreta berezia behar dutenak: erasotzaileak baztertu, zilegitasuna kendu, jarraitu eta errehabilitatzen saiatu. Hori guztia, noski, sexuen berdintasunaren aldeko neurriak hartzen diren bitartean egingo dugu, eredu maskulino tradizionala eraitsi bitartean.

Indarkeriaren gaitzespenean maltratatzaileak eta etxe zein sexu alorrean emakumeak baliatzea normaltzat jotzen duten guztiak sartzten dira; hainbat egoeratan emakumeak erasotzea ulertzen duten guztiak; Horrelako gertakariak ez hotzik ez eta berorik ere eragiten ez diela sentitzen dutenak eta aurka egiteko haien eragina erabiltzen ez dutenak, nahi ez arren, emakumeen aurkako indarkeriaren konplize bihurtzen baitira guztiak.

Asko daude, oraindik ere, gizon izatea emakume izatea baino garrantzitsuagoa dela uste dutenak, iritzi lausoa badute ere: bikotekideak, eztabaidatu dezaketela onartu behar dute, baina, hala ere, azkenean gizonen iritzia nagusituko da; gizonak etxetik kanpo lan egin behar dutela eta emakumeek etxeko lanak egin eta haurrak zaindu behar dituztela uste dute gizon horiek, etxeko ekonomiari soldata eman arren; gainera, gizonak tarteka etxeko lanetan laguntzen badute, maitasun eta solidaritate ekintza izaki, emakumeek saritu eta eskertu behar dutela uste dute. Baliteke gizon horiek haien bikotekideak inoiz jipoitu ez izana, baina haien gauzak egiteko –partida bat ikusi edo interes berezirik eragiten ez dien bilera batera joan– astia izatea lortzen dute. Gizon horiek haserretzen direnean baino ez dituzte haien sentimenduak azaltzen, buruaskiak direla erakusten saiatzen dira baina defentsiban egoten dira ia beti eta gainerakoen beharrei begira jartzea zail egiten zaie. Autodidaktak direla diote harrotasunez eta horrela hazten dira, edo gizonak halakoxeak direlako. Ez dute atzean dagoena ikusten: gizonen hezkuntza matxista eta zaharkituaren ondorio dira, errespetuaren eta lankidetzaren balioa ezagutzen ez duen hezkuntzaren ondorio. Hezkuntza hori berrikustea beharrezkoa da, bikotekideen aurka maila txikiko indarkeria baitu eta gehiagora egin baitezake. Gizon izateak, besterik gabe, ez du eskubide berezirik ematen.

Gizon horiek emakumeen aurkako indarkeriarekin amaitu behar dela benetan uste badute, matxismoarekin hautsi behar dute. Aldatzeko borondatea eta genero indarkerien aurkako konpromisoa hasiera egokia izan daiteke inguruan gertatzen direnekin adi egoteko eta harreman pertsonaletan emakumeekiko izaten diren indarkeria txiki horiek saihesten saiatzeko. Primerakoa izango litzateke gizon askok konpromiso serio hori hartzea eta horren aurka, beste bidegabeke-ria askoren borrokan bezala, tinko jardutea.

9.1. «TRATU TXARRAK ERAGITEN DITUZTENAK» DESLEGITIMATU

Badakigu tratu txarrak ematen dituztenek tratu txarrak emateari utzi eta aldatzeko modua dutela, indarkeria ez delako izaera maskulinoak derrigorrezko duen zerbait. Arazoa dutela konturatu eta laguntza eskatzen dutenek lortzeko aukera handiak dituzte.

Tratu txarren eragileak maskulinitate estereotipatuan sinisten duten gizonak izaten dira, hau da, gizonen nagusitasunean eta emakumeen gutxiagotasunean sinisten dute. Gizon horiek ez dute buruko gaitz berezirik, gizon izateagatik etxean botere handiagoa dutela uste dute eta botere horri eusteko eskubidea dutela uste dutenez, beharrezko deritzoten indar fisikoa erabiltzen dute. Haientzat erabili eta kontrolatu behar duten norbait edo «zerbait» da emakumea.

Kontrol horren atal modura jeloskortasuna, bikotekidea gizartetik baztertzea eta mendeko egoeran izatea agertzen dira.

Sexuak eta haien funtzioak osagarriak direla uste duten etxeetan, hau da, gizona agintea eta dirua denean, eta emakumea berriz ongizate emozionala eta etxeko antolaketa, botere ezberdintasun handia egoten da, mendetasunezko babesa ezberdintasunaren bitartez azaltzen baita autonomia ekonomikoan, askatasun subjektibo eta errealean, eta bakoitzak bikotekideari eska diezaiokeela uste duen horretan. Gizonak emakumearen babesa bilatzen du bere proiektuak gauzatzeko eta emakumeak gizonaren bidez garatu nahi izaten du. Uste erratua izaten da hori, norbaitek desioak eta beharrak aseko dizkiela uste baitute. Itxaropen horiek gehiegizko mendekotasuna sortzen dute eta bikotekidearengandik espero ez den edozein erantzun jasotzeak gatazka eragiten du, ziurtasun eza handia bizi izaten baita.

Gizona eredu maskulino tradizionalarekin zenbat eta gehiago bat etorri, orduan eta errazagoa izango da bere gizontasuna zalantzan ikustea eta emakumeari, etxean nork agintzen duen erakusteko aukerak bilatzea. Emakumeen aurkako indarkerian ez dago aitzakiarik, nahiz eta batzuetan zaila izan burua bere tokian duen inork entzuten diren gauzak egin dezakeenik; zailtasun honek azalpenak bilatzera eraman gaitzake, eta, hala nahi ez badugu ere, erasotzailearen ardura murrizten saiatzen gara gizarte, lege edo alderdi pertsonalean.

Haien jarrerak aitzakiarik ez duela azaltzeko adibide argia dago: antzeko egoeretan egon arren, gizon gehienak ez dira erasotzeko, tratu txarrak emateko edo bikotekidea hiltzeko gai, eta beste batzuei burutik pasa ere ez zaie egiten, edo inoiz ez litzateke pentsamenduetatik ekintzetara pasako. Horregatik esaten dugu erotasuna, alkohola eta drogak, haurtzaro gogorra edo emakumeen jarrera eta jasotako hezkuntza matxista ez duela kontrola galtzea azaltzen, gizonak hala azaldu nahi izaten badute ere. «Kontrol galtze» horrek jipoia noiz, nola –zauririk ez uzteko– eta non eman erabakitzen uzten die eta, kontrola galtzetik urruti, biktimgan kontrol handiagoa izateko aukera ematen die.

9.2. BERDINTASUNARI LAGUNDU

Berdintasunak ondokoak ditu lagun: legeak, emakumeak lan munduan eta bizitza publikoan goi mailako parte-hartzea lortzen laguntzen duten zerbitzuak eta laguntzak. Horiekin herrialdearen lehiakortasuna eta produktibitatea handitzen dira, tradizio handiagoko beste herrialde batzuek erakusten duten moduan. Horiei erreparatuta, haien gauza onak kopiatzeko moduan izango gara, bai eta akatsak saihesteko ere. Gutxiagotasunak nabariak dira, aurrerapausoak aurrerapauso, gure antzeko indarkeria maila baitute. Zaila da hori azaltzea baina teoriko batzuek diotenez, herrialde horietan zailtasunak dituzte sentimenduak adierazteko, eta horrek presio handia jartzen die gizonari, eta, irteera balbularik izan ezean, lehertu daitezke.

Azalpena askoz ere korapilotsuagoa izango da ziurrenik, baina ez dirudi arriskutsua emakumeek boterean aurrera egitea eta berdinen arteko ongizate gizartea lortzeko eginahal jarraitua eta jakina egin behar dela onartzea, horrela desagertuko baita gizonen gehiagotasun sentimendua, hau da, genero indarkeria eragiten duen hori. Hori dela eta, eskura ditugun estrategia guztiak garatu behar ditugu misoginiari eta gizontasunaren goraipamenari amaiera emateko. Aldi berean, pertsonen eta sexuen baliokidetasuna bultzatu behar dugu, bai eta bakoitzaren askatasunen eta giza eskubideen defentsa ere; emakumeak gure parekotzat hartzen ohitu behar dugu, haien bizitzak gidatzeko gai baitira. Erabakiak hartzeko orduan, beharrezko laguntza emateko eskaini behar dugu gure burua, erabakiak hartzeko duten autonomian eragin gabe.

Gerta daiteke haien erabakiekin ados ez egotea; erratzeko eskubide guztia dute emakumeek, eta guk ezin dizkiegu gure irtenbideak inposatu, haientzat onenak liratekeela uste izan arren. Bat ez bagatoz, ez dugu zertan aldarrikapenekin bat egin, baina ez dira etengabeen babesaren behar duten pertsonak eta ez ditugu hala tratatu behar.

Erronka ez da gizonen berdintasunaren alde daudela, helburua, gizonen banaketa orekatua onartu eta dagozkien lanak egitea da. Horrela, emakumeek nahi dutena egiteko astia izango dute. Horretarako harreman sozialei eta ordaindutako lanari ordu gutxiago eman eta etxeak eta familiak behar dituzten orduak haiei eskaini beharko dizkiegu.

9.3. EREDU MASKULINO TRADIZIONALA ERAITSI

Emakumeek aldaketa beharra azalduz duten ekinaren ondorioz –lortzeko egiten duten presio etengabearekin batera eta gizonen sektore gutxitu baino gero eta handiagoa den babesarekin–, erresistentzia, ihesa eta alferkeria alde batera utzita, eskubide, aukera eta ardura berdintasunerantz egin beharreko pausoak emateko beharrak ikustea lortu du. Onartze horrek aldaketarako mailakako egokitzapena izaten du, faktore askoren arabera gizarte egokitzapena eta egokitzapen pertsonala. Mailakako izateak aldaketa berdintasunik gabe eta saltoka ematea eragiten du. Berdintasunik gabea dela diogu, familiako bakoitzak ezberdin ikusten duelako familia, kultura, lan eta abarren pisuaren testuingurua; eta saltokakoa dela diogunean, honakoa esan nahi dugu: aurrerapausoak eta atzerapausoak eman ditzake, gizarte gertaeren eta gertaera pertsonalen arabera pausoak.

Zentzuzkoa dirudi gizonen ematen diren aldaketekiko duten aurretiko jarrerak laguntzea, emakumeengan eta gizonengan –matxista izateak duen prezioa– matxismoak dituen ondorioak ikusgarri egitea eta berdintasunak dituen onurak zabaltzea –gizonen onurak barne. Horiek guztiek aldaketaren alde egiteko arrazoi zerrenda luzatuko dutela pentsatu behar dugu.

Merezi du berdintasuna era baikorrean defendatzea, emakumeek eta beste kolektibo batzuk bizi duten berdintasun ezarekin amaitu nahi duen aldarrikapen demokratikoa baita. Aldi berean, gizonen taldeari onurak ematen dizkio, familiako ekonomia ziurtatzeko ardura tradizional hori ere banatzen baita, bai eta bikotekidearen, familiaren eta herrialdearen defentsa fisikoa, erabakiak hartzea, eta abar. Arazoa zein den adierazi behar zaie. Arazoa ez dira gizonak, arazoa sexismoa da; Patriarkatua esaten diogun gizarte antolaketa zail honetan gizonen leku pribilegiatua badute ere, askatasun, osasun, bizi aukera, errepresio emozional eta horrelakoen faltan prezio altua ordaindu behar izaten dute. Horrek eragiten du emakumeekin bidegabe izatea eta haientzat erabat atsegin ez izatea.

Gauzak aldatzea posible eta dirudien baino errazago dela esan behar diegu, eta gizonen laguntza, arazo baino, ezinbestekoa dela konponbidea aurkitzeko, hau da, tratatu txarren egileak izan daitezkeen pertsonak baino, lanean ari diren berdintasunaren aldeko eragileak izan daitezkeela.

Zehatzago begiratuko diegu adin guztietako eta talde sozial guztietako gizonen antzematen dituzten aldaketei: azokan erosketak egiten dituztelako beren buruak «boltsa agente»tzat dituzten erretiratuak, orain gutxi ohikoak ziren esamolde matxistak saihesten dituzten helduak, seme-alabak zaindu zituzten eta zaintza partekatua eskatzen duten aita banatuak, haien gurasoengandik arreta txikiagoa jaso arren aita lanak egiten dituzten aita, eta abar.

Gizon gehienek ikusten dute zer galdu gehiago dutela zer irabazi baino eta hor izaten da zailtasun handiena, galerak berehalakoak baitira eta onurak, izatekotan, epe ertain edo luzean izango direla aurreikusten baitute. Zentzuzkoa da gauzak horrela ikustea gizonen egindako ibilbidea

emakumeek egindakoa baino askoz laburragoa baita, bidea egiteko larritasun pertsonala eztabaidagarriagoa da eta bide amaierako onurak, berriz, askoz ere zalantzarriagoak.

Hala ere, berdintasunak iragartzen dituen onuren artean hainbat nabarmendu ditzakegu: bizi itxaropenak handitzea, familiaren ekonomia partekatzea, seme-alaben heziketarekin gozatzea, bikote-kidearekin eta gainerako emakumeekin harreman solidarioagoak izatea, sexualitate askeagoa eta berdintasunezkoa gozatzea, gainerako gizonekin hainbesteko lehiakortasunik ez izatea, eta abar.

9.4. GIZONEI BERDINTASUNAREN ALDEKO ERAGILE BIHURTZEN LAGUNDU

Berdintasunaren alde egiten duten gizonak bitarteko bakarrari –familia, lana edo gizartekoa– egiten diote erreferentzia eta borroka bikoitza izaten dute askotan arerio: haien erresistentziaren aurka eta haren garapenagatik bera zentsuratzen duten ingurukoek aurka. Bitarteko etsai hori dela eta, bada beste zailtasun bat: identifikatzeko gertuko eredu ezagun eta prestigiotsuak falta dira, haien aitzindari izateko eta helburua lortzeko lanean jarraitzeko.

Gauzak dezente aldatu dira azken urteetan, gero eta gehiago dira negar egiten duten gizon famatuak eta haurtzaindegietako, azoketako edo pediateraren kontsultetako ateetan topatzen ditugun gizonak. Baina horrelako jarrerak ez dira gehiengoarenak. Hala ere, herriaren tamainaren eta auzoaren maila sozialaren artean ezberdintasunak daude eta ikusle gehien dituzten saioetan ere ez dira ohikoak, ez eta zineman edo eskoletako testu liburuetan ere.

Jarrera horien berri ematea komeni da, dagoeneko gizonengan ematen ari diren aldaketak baitira eta haien egunerokoari eta aitatasunari eragiten baitie: etxeko lanetan inplikatzeko hasi dira, emozioak eta sentimenduak azaltzen hasi dira eta berdintasun gobernuak naturaltasunez osatzen hasi dira, Euskadin, Andaluzia eta Espainian, esaterako. Hainbat ekimen bultzatu behar dira: gizonen aldaketak islatuko dituzten argazkilaritza txapelketak, gizonak berdintasunera nola egokitzen diren ikusteko irrati edo telebista eztabaidak, emakumeenak direla esaten den lanpostuetan ari diren gizonak aurkitu dituzten zailtasunei buruzkoak, hala nola haur hezkuntzako, lehen hezkuntzako edo heziketa bereziko irakasleak, emakumeen ile-apaintzaile heterosexualak...

Maskulinitatea gatazkarik gabe bizitzeko ematen ari den eboluzioak, bokazio aniztasuna bultzatzen laguntzen du, bai eta bizitza askeagoaren eredu bihurtuko diren ereduak ere. Horiek eredu tradizionala zalantzan jartzen dute eta generoak desagertzeko lan egiten dute. Euskadin berdintasunaren alde dauden gizonak ikusgarri egiten lagundu behar dugu, aitatasun baimena hartzen dutenak edo etxeko lanetan aritzen direnak. Haien proposamenak eta eguneroko bizitzari aurre egiteko modua –berdintasunerako konpromisoa oinarri– ikusiko da horrela. Adibide horiek erantzukidetasuna posible dela erakusten dute, haien sinismenei era baketsuan egin diezaiekete aurre askotan munduaren kontra ari badira ere, indarkeria zilegi jotzen duten diskurtsoen, mekanismoen eta sistemen aurka.

Gizonek, emakume mugimenduek proposatutako eskubide, aukera eta ardura berdintasuna aldarrikatzea zein garrantzitsua zen ulertzea zen zailtasun nagusia, baina berdintasuna gai nagusi denetik, politikariek gero eta maizago, politikoki zuzenak diren arrazoiekin egiten diete aurre bere zalantzei. Berdintasuna lortua dagoela uste duten gizonak dira. Haien ustez, emakumeen berdintasun ezaren arrazoia gizonen bizkar onurak jasotzeko erabiltzen dute; asko dira berdintasunean sinistu izan dutenak azken urteetako lege aldaketek haien boterea zalantzan jarri duten arte. Maiz eman den sentsazioa izan da hori banaketa eta dibortzio prozesuetan.

Diskriminazio positiboaren aurka dauden gizonak dira, hori gizonen kalterako eta emakumeen mesederako izaten dela uste dute. Hori dela eta, genero indarkeriaren aurkako lege orokorraren zein

emakumeek galdetu gabe abortatzeko duten eskubidearen aurka daude. Berdintasunaren alde daudela diote baina boterea izaten jarraitu nahi dute, eta aldaketak haien pribilegioentzat mehatxua izan daitezke. Gizon horiek, hornitzaile ziren bitartean etxean lagundu izan dute baina orain damu dira, banaketaren ostean, seme-alabak eta ama etxean geratu baitira.

Matxismo tradizionala baino egungoagoa da jarrera hori baina gauza bera dute oinarrian. Atzean uzten ditu zuria eta beltza diskurtsoak eta gris anitzean eztabaidatzera behartzen gaitu. Egungo eztabaidek garai bateko laburtze eta orokortasunetatik ihes egin behar dute, egungo errealitatera egokitzea eskatzen baitute. Hala eta guztiz ere, denbora errearen banaketak eta ardura ekonomikoak eta etxeko ardurak adierazle fidagarriagoa (kotoiaren frogak) izaten dira, harremanaren berdintasunari buruzko eta banantze kasuetan aurreikusteko moduko gatazkak baino.

Matxismoa salatzean zailtasun berak topatzen ditugu emakumeen aurkako indarkeriaren bozgorria; erasotzaileek ez dute haren indarkeria goraiatzeko, gaur egun ez da jipoi gomendatzen etxean nor agintzen duen irakasteko. Haien portaera sekretua da eta hala gorde behar dute, bikote harremanaren intimitatean. Muturreko indarkeriak justifikazio berriak bilatu behar ditu, askotan harremanak izaten dute banaketa prozesuetan gizonak jasotzen duten tratu berdintasunik gabe eta diskriminatzaileekin, pentsioak ordaindu eta seme-alaben zaintza partekatua lortzen ez dutenetan batez ere.

Zaintza partekatuaren inguruko eztabaidan aita lanak egin ez zituzten eta haurren heziketaren parte izan ez ziren gizon gutxi izaten dira, hala ere, deigarria da, bestalde, banaketa edozein modutara saihestu nahi duten tratu txarren eragile portzentaje altua. Gris kolore zabalak zehaztasunak egitera behartzen gaitu, genero indarkeriaren aurkako gizarte sentsibilizazioa hazten ari da, eta horrela, erasotzaileak kontrola lortzeko, mantentzeko eta jokatzeko duen gunea gutxitzen du. Sentsibilitate horrek helburu demokratikoa dela erakusteko beharra aprobetxatzea balia du eskatzen du.

Horregatik da hain garrantzitsua legeek sexuen arteko lan eta soldata diskriminazioa ez bermatzea, lan bizitza eta familia bizitza uztartzeko aukera eman behar du eta amatasun eta aitatasun baimen berezituak onartu behar ditu.

Genero indarkeriari amaiera emateko aldaketa bultzatzea beharrezkoa da eta horretara bideratzen diren baliabideek ez dute emakumeak babesteko baliabideak izan behar, horiek ere errespetatu behar baitira. Indarkeria jasaten duten emakumeen egoeraren larritasuna zalantzan jarri gabe hartu beharreko neurriak dira, emakumeak arretarik gabe ez geratzea da helburua, emakume baten ere, baliabide falta dela eta, ez diezaiola askatasuna berreskuratzeari atea itxi, eta anima dadila salatzea, aholkularitza eskatu eta salaketaren atzean dagoen gutzia jakin ostean.

9.5. HEZKUNTZAN BERDINTASUNA BULTZATU, BAI EDUKI ALDETIK, BAITA PRAKTIKA ALDETIK ERE

Familian lehen gizarteratzea eta gizarteratzerik garrantzitsuena ematen den ideiarekin ados bagoaude, ez dago zalantzarik gurasoen rola oso garrantzitsua dela, elkarrekin bizi diren bikote heterosexualean artean behintzat, aitarengandik jasoko baitute seme-alabek gizonaren ereduak: gizon bat zer den, emakumeekiko harremanak nolakoak diren eta bikoteko gatazka nola konpontzen dituen, sentimenduak nola adierazten dituen, etxean zein lan dituen, heziketan betetzen duen lana, familia ekonomikoki mantentzeko nolako ardura duen...

Berdintasunean oinarritutako aitatasunaren alde egiten dutenek sentimendu zein zainketa aldeetik eta etxeko lan batzuen kargu egiten direnek zaila da bikotekideari edo seme-alabei tratu txarrak ematea, inork ez baitio tratu txarrik ematen maitasunez zaintzen duenari. Aitatasun ardu-

ratsuak eta etxeko inplikazioak gatazka txiki gehiago eragin ditzake, partekatzen dena nola egin eztabaidatzen da, baina desadostasunak txikiak izaten dira guztien ongizatea baitute helburu.

Familia bakoitzak bertan dauden adin txikikoak hezten ditu. Aitek eta amek balore jabekuntzan oinarritzko eragina dute haien seme-alabengan, baina eskolak belaunaldi osoa hezten du eta irakasle bakoitzak, lehen hezkuntzan batez ere, bere ikasleen ingurua ezagutzen duenez, lagun talde osoarengana iristeko aukera izan dezake. Hori dela eta, berak emandako heziketa, arautua izan ala ez, onartzen zaion baino garrantzi handiagokoa da.

la ez dago irakasle gizonik haur hezkuntzan eta oso gutxi dira lehen hezkuntzan ari direnak; hori dela eta, ohikoa da ikasleak bigarren hezkuntzara iritsi eta maisurik eduki ez izana. Egoera horrek lehen hezkuntzako irakasleei balio berezia eransten die ikasleek haien gurasoekin alderatzen baitituzte. Hori dela eta, garrantzi handikoa da irakasleek berdintasunean oinarritutako hezkuntza ematea, genero pribilegio eta paternalismorik gabe. Neurri horretako lana errazagoa izango litzateke irakasle guztien genero prestakuntza ziurtatuko balitz, irakasle ikasketetako ikasgeletatik pedagogia ikasgeletara, eta lehen hezkuntzako gaia izango balitz Lehen Hezkuntzako Zentroek bultzatzen dituzten etengabeko prestakuntzako kurtsoetan.

Berdintasunean hezteak berdintasuna eskatzen du, eta horrek berdintasunean oinarritutako ordezkari izatea eskatuko luke hezkuntzan, hau da, sexu bat % 60etik gora ez egotea eta bestea % 40etik ez jaitea. Hezkuntzako estamentu guztietara zabaldu beharko litzateke neurria, bai haur eta lehen hezkuntzakoei bai unibertsitateko katedradunei eta zuzentzeko diskriminazio positiboa baliatu beharko genuke hemen ere.

Nolabaiteko batasuna dago hezkuntza berdintasunean aurrerapausoak eman, sexuen berdintasuna lortu eta emakumeen aurkako indarkeria apaltzeko tresna gakoa dela esatean, baina, hala ere, jasotako mezuak aukeratzeko eta barneratzeko modu ezberdina dugu guztiok eta, azken batean, norbera da bere ekintzen arduradun bakarra. Hala ere, bat etortze horrekin ere gogoratu behar dugu, eskola, aldaketarako motore baino, inguruan duen gizartearen isla dela. Hezkuntzan ari diren eragile guztien artean –emakumeen aurkako diskriminazio mezu zaharrak ematen ari dira– eragin handiena dutenak zeintzuk diren aztertu beharko genuke: familia, komunikabideak, ikasketak eta hizkuntza bera.

Komeni da orain Afrikako esaera zahar batek dioena gogoratzea: «ume bat hezteko, tribu osoa behar izaten da». Berdintasunean hezteak instituzio guztien laguntza behar du, gizarteratzean lagunduko duten profesionalak eta pertsonak, horrela desegingo baititugu, zati zati, emakumeek eta gizonen egin behar dutenaren ideiak. Horrela balore unibertsalak bultzatuko ditugu, sexu bereizketarik gabeak, bakoitzaren askatasunean oinarrituak, aniztasunari errespetua diotenak, sexuen berdintasunean eta giza eskubideetan sinisten dutenak.

Seme-alaben bizitzan aitak, amak baino gutxiago agertzen direla gogoratu behar dugu. Amek izaten dute hezkuntzaren kontrola eta haiek izaten dute haien nahitasunen, lagunaren edo ikasketen berri. Horren adibide argia da honakoa: amen ikasketa mailak haurren eskola arrakastarekin harreman zuzena du eta aiten ikasketa mailak, berriz, ez du zerikusirik izaten.

Hala ere, maskulinoak eta femeninoak gizon eta emakumeekin harreman gero eta txikiagoa duen gizartean, gizonen etxeko lanak ohore galera moduan ikusten dituzte. Emakumeek haien aldetik, ikasketen arrakasta eta lan munduratzeko berdintasun itxaropen egarria asetzeko bitarteko moduan ikusten dute, eta bitartean, eskolak, benetako berdintasuna zer den irakatsi behar du. Hezkuntza horrek, emakumeen berdintasun ezari buruz hitz egitean, heziketak neskatoengan zein mutikoengan dituen ondorio kaltegarriak azaldu behar ditu, haien hezkuntzako matxismoaren erantzule egin beharrean.

Badira zenbait kontu eskolak aztertu beharrekoak: txikitatik ume mutilak gutxiago kontrolatzea (lagunak, etxerako lanak, ordutegiak...), irakasleekin ere gutxiago hitz egitea mutilei buruz, eskolara mutilak bakarrik joaten lehenago hastea, musuak eta besarkadak ere lehenago kentzea, gutxiago kexatzea mutiko batek joz gero eta ez beste neska batek... Gurasoek eta eskolak umeen ardura handiagoa izan beharko lukete umeak arriskuan daudenean –haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan– eta ez larritu umeak arriskua direnean, bigarren hezkuntzatik aurrera batez ere. Gogor plantak egiten aritu behar ez direla erakutsi behar diete eta laguntza eskatzen irakatsi behar diete, laguntza eskaintzeko prest daudela azalduz.

Gizarte ospea duten berdintasun eredu maskulinoak ez izateak eragin handiagoa du haurrengan, eta berdintasun planak nesken aldeko mezu paternalistak ez izatea lortu behar dugu ikasgeletan, maskulinitatea susmagarri bilakatzen baitu: mutilak ustezko matxistak eta neskak benetako edo ustezko biktimak. Helduen matxismoa ez aurpegiratzen saiatu behar gara, eta ez diegu azaldu behar aldaketa onurarik gabekoa dela. Ez dugu pentsatu behar eskola porrota mutilen kontua denik, eta ez diegu eskaini behar enpatia, zuhurtasuna edo pertsonen eta gauzen zaintza bezalako eredu maskulino alternatiborik.

9.6. GAZTEEK BERDINTASUNERAKO ERAGILE POSIBLE MODUAN TRATATZEA MEREZI DUTE

Neskekin dituzten harremanetan kritikoak izatea, jarrera eta portaera matxistak saihestea, ikusten dituztenak zentsuratzea, lagunei arriskuen berri ematea eta harreman arriskutsuak dituzten neskak babestea komeni da, betiere harremana etetera edo salatzerantz animatuz.

Arrisku nagusietako bat jeloskortasunarena da: maitasun frogatzat hartzen dute haien bikotekidearekiko ziurtasun falta adierazten dutenean. Gauzak horrela, jeloskortasunaren izenean nesken lagunengan eragina izan dezake mutilak eta norekin egon behar ez duen eta nor saihestu behar duen esatera hel daiteke. Nola jantzi behar duen esatera ere hel daiteke, nola jantzi behar duen, zein arropa jantzi dezakeen eta zein ez, bereziki erakargarri jantzi den ala ez. Sake-lako deiak eta mezuak kontrola ditzake. Uneoro non egon den, norekin gelditu den eta norekin egon den jakin nahi izatera. Hain izan daiteke handia kontrola, non baztertzen eta mendekotasun egoeran mantentzen saiatzeko muturrera hel baitaiteke. Bere ikuspuntuak nagusitzeko eta bere kontrola baieztatzeko erasotzera hel daiteke.

Mutilak bere bikotekidea defendatzeko beharra duela sentitzen duenean –neskak laguntzarik eskatu ez badio ere– beste mutil bat neska limurtzera gerturatu delako, portaera horrek eragin ditzakeen ondorioen inguruan hausnartzera bultzatu behar dugu mutila, neskari egokien deritzon moduan jokatzeko askatasuna ukatzen baitio. Ukatze horrek arazoa sor dezake –liskarra akaso– eta parte-hartu ez balu saihestu egingo lukete. Mutilak, gainera, babesa emanda –edo inposatuta, egitean hartzen duen arriskuarekin– jantzi behar duena edo norekin harreman du behar den esateko eskubidea bereganatu duela uste du.

Sentimendu eta portaera ez dagozkien rola hartzera bultzatzen ditu gazte asko, eta horrela, sufritzeaz gain, arrisku pertsonal handiak bere gain hartzen dituzte. Bikotearen gaitasun autonomoan konfiantza eza eragiten du –nahi dutelako daude harekin– eta ezin dute bizitza nahi bezala kudeatu. Neska mutilak nahi duen moduan portatzea nahi du gizonak, eta nesken askatasuna mugatzen saiatzen dira, nabarmen eta zuritu ezinezko eran. Benetan maite badu nahi duen moduan utzi behar dio bizitzen, nahiz eta ez beti izan gizonari gehien gustatzen zaiona; Uneren batean bere erabakiak gustuko ez baditu arrazoizkoa da jakinaraztea –behartzeko helbururik gabe– neskak haren iritzia jakin dezan. Neskak aldatzea erabakitzen ez badu, onena harremana uztea da, maite izan arren, etorkizunari begira planak antolatzeko bikotekide ego-kia ez delako.

9.7. BIKTIMEN BABESEAN LANEAN ARI DIREN KOLEKTIBO MASKULINIZATUEKIN LAN EGIN

Polizia izaten da erasoen ondoren parte-hartzen lehenak, eta horrek haien sentsibilitatea, presakuntza, espezializazioa, profesionaltasuna eta genero indarkeriaren gaian duten ezagutza proban jartzen du. Biktimari eskaintzen dioten arretaren arabera, erasotzaileari emandako tratua- ren arabera, probak jasotzeko edo atestatuan idatzitakoaren arabera salaketak aurrera egingo du ala ez eta hala egin behar dutenek justizia egingo dute ala ez. Salaketa oso garrantzitsua da emakumearen hitzik gabe delitua aztertzen jarraitu eta kondena ezartzeko aukera badago ere. Hala ere, zailagoa da frogak aurkitzea eta komeni da poliziaren edo lekukoaren informazioaz gain, lesio partea edo forentsearen txostena edukitzea. Mehatxatutako emakumeen segurtasuna ziur- tatzeko polizia ere erabakigarria da, babes edo urruntze neurriak tartean daudenean batez ere. Beldurgarria da hildako emakume horietako batzuek neurri horiek dituztela jakitea.

Aipatu berri dugun espezializazioa ere oso garrantzitsua da epaileen, fiskalen, abokatuen, osa- sun langileen –tratu txarrak prebenitu eta ikusten ikasi behar dute– edo genero indarkeriarekin harremana duten langileen kasuan. Formakuntza horrek, ezagutza teorikoez gain, analisia eta sinismenen hausnarketa ere eskatzen du, horrela entzuten ikasiko baitugu eta babes harrema- nak ezartzeko gai izango baikara, beharrezko ziren ebaluazio irizpideak aldatuz.

Emakumeen aurkako indarkeriak ezaugarri bereziak ditu eta horiek ezagutu behar dira kudeatu ahal izateko. Ukapena, barkamena eta atzera-egiteak ohikoak dira adituen belarrietan, biktimaren eta erasotzailearen arteko emozio edo beste natur-eremu bateko mendekotasunaren parte dira.

10. ZER EGIN DEZAKEGU GIZONEK EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERiarekin AMAITZEKO

Indarkeria matxista emakumeek pairatzen duten gizonen arazoa dela sinisten badugu, erraza izango da, arazoaren parte garen aldetik, konponbidearen parte izan behar dugula adostea; gu aldatzen ez bagara, ezinezkoa izango da.

Matxista iruditu nahi ez izatea, eredu maskulino tradizional zaharkituarekiko halako kontzientzia bat adierazten duen egokitze estrategia da; berdintasunezko azaldu nahi izatearekin lotua dago, eta aldaketa pertsonala egiteko eginahalaren erresistentzia ere adierazten du. Munstroa ezkutatzen duen kasuetan izan ezik, berdintasunaren alde egiten dutenen artean ohikoa den portaera dela esan dezakegu. Azkarrago ulertzen dugu egin behar dugun hori eta gehiago kostatzen zaigu egitea bera, eta teoriaren eta praktikaren artean dagoen aldea publikoki onartzeak lotsa ematen digu.

Emakumeen aurkako indarkeriari amaiera emateko emakumeei entzun behar diegu gure ardura pertsonala zein mailatakoa den jakin ahal izateko, horrela jakingo dugu zerk bultzatzen duen emakumeak erabiltzera eta zertan bereizten diren harreman berdinagoak dituzten gizonak. In- darkeriak muturreko adierazpenetatik haratago begiratzea da helburua, etxea, lanean, eskolan edo kalean modu leunagoak identifikatzen ikasiko baitugu horrela. Hasteko, hizkuntza ez sexista erabiltzea eta txiste matxistak saihestuko ditugu eta aldi berean, gehiegikeria portaerak erre- pikatzen dituzten portaerak aztertuko ditugu, aldatzen saiatzeko betiere.

Emakumeak gainerakoak bezala tratatzen ohitu behar dugu, hau da, haien bizitzak kudea dit- zaketen pertsonak bezala. Horretarako, ez ditugu haien erabakiak oztopatu behar eta haien

aldarrikapenekin solidarioak izan behar dugu.

Emakumeekin banaketa orekatua egiteak eragiten duen karga onartu behar dugu. Horretarako harreman sozialei eta ordaindutako lanari ordu gutxiago eskaini beharko dizkiegu, eta etxeak eta familiak behar dituzten orduak haiei eskaini beharko dizkiegu.

Gu geu gara adibiderik egokienak seme-alabek ikus dezaten nolakoak diren gizonak bikote harremanetan.

Hala eskatzen duten tratu txarren eragileentzako errehabilitazio terapiak bultzatu behar ditugu, delitugile izateagatik prozesatuta egon ala ez. Hala ere, horrek ez luke, inondik inora, kartzelan eman beharreko denboran onurarik eragin behar; edo adikzioen errehabilitazio programetan indarkeria guztien arreta berezia eskaini, emakumei egiten zaiena bereziki landu arren.

Komunikabideei arreta etengabea eta ezagutza kritikoa eskatu, tratu txarrak ez daitezen denboran luzatu.

Gure portaeretan heziketa maskulinoak izan duen eraginari buruz hausnartzeko beste gizon batzuekin elkartu. Aldatzeko ditugun moduak eta etxean, lantokian, eskolan, elkarteetan, sindikatuan, alderdian eta abarretan egin dezakeguna pentsatu, guztiok egin behar baitugu lan emakumeen aurkako indarkeria desagertzeko eta berdintasunezko gizartea lortzeko.



Eusko Jaurjaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

GIZONAK KOMUNIKABIDEETAN

Lucía Martínez Odriozola
2009

AURKIBIDEA

1. Komunikabideetara gerturatzea	100
2. Genero ikupegia	101
3. Interferentziak	104
4. Alderanzketaren legea	105
5. Gizonek eta emakumeek ez dute berdin hitz egiten	106
6. Estereotipoak	107
7. Sexismoari buruz	109
8. Indarkeria matxistaren trataera	111
9. Generoaren autoebaluazioa	111
10. Ikuspuntu exberdinen proposamenak	112
11. Azken proposamenak	115
12. Bibliografia	116

1. KOMUNIKABIDEETARA GERTURATZEA

Orain dela gutxi arte, gizonak zeuden komunikabide guztietan. XX. mendearen erdialdean, emakumeak egunkarietako erredaktore lanak egiten hasi ziren. Irratian eta telebistan emakumeen presentzia pixka bat handiagoa izaten zen ziren garai hartan, ezinbesteko baitzituzten komunikabideak emakumeen ahotsak eta aurpegiak. Oraindik ere, ohikoa da albistegietako aurkezle bat emakume izatea eta bestea gizona.

Mende amaierarako emakumeek komunikabideak bereganatuak zituzten. Hau da, emakume profesionalak argi ikusi zuten ongi egin zezaketen lana zela eta lanean hastea erabaki zuten. Gaur egungo kazetaritza fakultateei erreparatzen badiegu, joera hori etorkizunean indartzen joango dela pentsa dezakegu. Hala ere, zuzendaritza organoetan emakumeek duten presentzia ez da inondik ere erredakzioetan dutenaren parekoa. Kazetaritzan, beste lanbide askotan bezala, emakumeak zailtasunak ditu aginte postuetara heltzeko.

Arrazoiak bilatzen hasi nahi badugu, «kristalezko-muga» aipa dezakegu:

«Emakumeen lan ibilbidearen goialde ikusezinagatik deitzen zaio horrela. Badago goiko aldean muga ikusezin bat, emakumeoi, askotan, aurrera egitea oztopatzen diguna. Legerik, gizarte gailurik edo kodigo argirik ez izateak ikusiezina izatera ematen dio. Hala ere, ikusezintasuna zaila da ikusten, ikusiezina egiten dituen ezaugarri horiek ez baitira argiak»¹.

Ibilbide luzeko ikerlaria eta genero politiketako hezitzailea den Pilar López Díezen iritziz:

«Ingeleseko 'the glass ceiling' hitzak beharrezkoak dira misteriotsua, iluna, sekretua, aurkлезina izendatzeko, baina horren emaitza oso da neurgarria, izendagarria, ikusgarria eta erreala: erakundeetako hierarkia gailurretan ez dago emakumerik»².

Alderdi horri eustea interesgarria izango litzateke³, baina hori ez da ikastaro honen helburua. Edozein modutan ere, hausnarketarako gai modura bi sexuen ardura partekatua gaia utziko dut, hau da, emakumeak ere badauka arduraren zati alikuota ez duelako boterearen piramide horretan gora egin. Akaso, goranahi gehiago du emakumeak familia bizitzan lan arloan baino.

Erredakzioetan egoteak aukera eman die emakumeei kazetaritza ekoizpenean parte hartzeko, bai eta erabakietan parte hartzeko ere, bai gaiak aukeratzeko garaian bai eta gaien ikuspuntua bideratzean ere. Hala ere, horrek ez du aldaketa handiegirik eragin, ez prozeduretan, ez eta moduetan. Hori dela eta, estereotipoak izugarri ohikoak dira oraindik ere. Komunikabideetako erabaki-hartze prozesua nolakoa den ezagutzen ez duten taldeek uste dutenaren kontra, kazetariak ez dira egunero biltzen azpajokoan aritzeko eta ikusteko nola aurkez ditzaketen gauzak beren hedabidean eta beren informazioetan errealitateak ahalik eta itxurarik okerrera izan dezan eta ahalik eta kaltegarriena izan dadin kolektibo baterako.

Oso bestelakoa da egoera: erredakzioak huts egiten duten pertsonaz osatua dago. Bai, akatsak egin ohi dituzte, baina asmatu ere egiten dute. Inongo taldek ez du kazetaritza lana aztertuko kazetariak berek baino sakonago, kazetariak beren denbora eta indar gehiena horretara bideratzen baitute: ikus-entzuleei zer informazio eman eta nola. Horrek ez du esan nahi hutsik egingo ez

1. Mabel Burín http://www.stecyl.es/Mujer/el_techo_de_cristal.htm orrialdean

2. Definizioa Pilarrena dela jartzeko arrazoia fedea izan da, Google-en, jabetza ezberdinarekin hiru bider topatu dugu. <http://www.google.es/search?q=%22lo+enigm%C3%A1tico%2C+lo+cr%C3%ADptico%22&ie=utf-8&oe=utf-8&aq=t&rls=org.mozilla:es-ES:official&client=firefox-a>

3. HERVÁS MORENO, Macu. El techo de cristal. Huesca: Aragoiko Gobernua, 2006.

duitenik, eta ez diote horri ukorik egiten. Baina akatsak ez dira aurrez erabakitakoak. Ezta nahita egindakoak ere. Erredakzioan presio handiarekin lan egin behar izaten da, baina hori ez da trakeskerietan aritzeko aitzakia. Erredakzioetan hausnarketa indartu behar da irudimena bultzatzen den moduan. Horretarako, onena ideia berriak edo proposamenak dituzten guztiei entzutea da, bai eta kritika edo autokritika egiteko gai direnei ere.

Eta gaitasun edo erraztasun horiek –sormena eta kritika– kazetarien artean badaude, baina gainerako lanbideetan egon daitezkeen moduan egoten dira haien artean ere. Hala ere, kazetariak derrigorrezko du erabiliko dituen erremintak beti prest izatea eta horretarako, irakurketa eta azken joeren berri izateaz gain, gizarte prismatiko eta kromatikoaren alde anitzek osatzen duten sorta ikusten utziko dion sentsibilitatea garatu behar du. Begirada beti puntuan izan behar du. Eta hori, gaitasuna bada ere, ikasi egiten da.

Baina badago eragozpen bat. Macu Hervás Morenoren arabera (2006, 207. orrialdea): «Komunikabideetako zuzendariak gizonak dira eta haiek erabakitzen dute zein informazio argitaratu edo emitituko den. Emakume gehienek ez dakite arazo hori egon badagoenik [Kristalezkok muga]».

Askok uste dute komunikabideetako zuzendariak argitaratu aurretik albiste, elkarrizketa, errepor-taje, artikulua edo iragarki guztiak irakurtzen dituztela; are gehiago, irakurtzeaz gainera, zuzendu eta gidatu egiten dituzte. Hori dela eta, albiste batzuk ez zabaltzearen erruduna nonahiko zuzendari ahalguztiduna da, berak zentsuratu baititu albiste horiek. David Randallek oroitarazi gaituen moduan, egunkariak milaka, tira, milioika hitz argitaratzen dituzte. Ezinezkoa da guztiak irakurtzea, nahiz eta egunero argitaratutako guztiaren azken erantzulea zuzendaria izan (iragarkiak barne).

Komunikabideetako erredakzioak gizon eta emakume taldeek osatzen dituzte eta erabakiak era kolegiatuan hartzen dira. Honakoa da prozesua: gaiak proposatu, dokumentatu, informazioa bil-du, idatzi, argazkiak aukeratu, toki eta data zehatza eman, editatu eta zabaldu. Aipatu berri dugun prozesu harretan lagun askok hartzen dute parte, lan bakoitzeko batek baino gehiagok askotan. Entitate jakin bateko egunkari batek, ehun orri inguru dituen egunkari batek, edizio bakarrean 150 albiste garrantzitsu izan ditzake, eta horietatik gutxi izan ohi dira laburrak. Eta ez da pentsaezina zuzendariak behin albistea argitaratuta dagoela izatea albistearen berri. Argi dago albiste batzuetako zehaztasunik txikiak ere ezagutuko dituela, baina eduki gehienak berri ere ez du izango. Erredakzioan bere konfiantza osoa duten langileak daude eta haiek erabakiak hartzeko eskumena dute: tarteko koadroak. Hervasek zuzendariei, gizon izateagatik, egozten zien oztopoa askoz ere lehenago gertatzen da. Ideia eta proposamen asko hortxe gelditzen dira, oztopo batean. Tarteko koadroen erabakia dela eta hondoa jotzen dute, eta tarteko horietan gehiengoa ez badira ere, emakumezko erredaktoreak ere izaten dira.

Komunikabideen edukiak ez dira emakumezko langileen arabekoak, ikuspuntuaren arabekoak baizik. Guri dagokigunez, genero ikuspuntua esango diogu horri.

2. GENERO IKUSPEGIA

Argi dago gizonen eta emakuneen artean aldeak daudela, alde horiek oso txikiak badira ere. Baina ez dago gizona eta emakumea baino gauza antzekoagorik, igualak baitira askotan. Edozein modutan ere, batez ere ugalketagatik eta biologiagatik dagoen ezberdintasun sexualaren ondorioz, gizartean ezberdintasuna sortu da. Bertan, gizonen eta emakumeen identitateak ezberdinak dira.

Baina errepara diezaigun Juana Gallegok dioenari (2007, 14-15 orrialdeak):

«Genero kontzeptuak sexu banaketaren gizarte dimentsioari egiten dio erreferentzia. Pertsonak sexu jakinarekin jaiotzen gara, biologiak ematen digun sexuarekin. Salbuespenak salbuespen, bizitza osoan zehar izango dugu sexu hori. Gertaera biologiko honek ez luke inolako garrantzirik izango gizarteak sexu bateko ala besteko izateari hainbesteko garrantzia eman ez balio. Baina jaiotzetik bertatik, ezberdintasun hori ezaugarri nagusienetako bat izan da –ez bakarria, beste batzuk ere izan baitira: arraza, adina, jatorria, hizkuntza, maila ekonomikoa, eta abar–, horiek guztiek pertsonak sailkatzeko balio izan dute eta horren arabera, maila bat ala bestea, posizio bat ala bestea ala errespetu maila bat ala bestea jaso izan da. [...] Horrela bada, gizartea ezberdintasun horiek ematen duten hierarkiaren arabera egituratu izan da: gizona nagusitu da emearen aurrean (sic), heldua haurraren gainean, aberatsa txiroaren aurrean... [...] Banaketa honek gizaki guztien gan dauka eragina, gizarte osoari eragiten dio eta ezaugarri guztiak zeharkatzen ditu».

Autoreak berak pixka bat aurrerago dioenez, komunikabide bateko zuzendari batek baieztatzen zuen generoa erredakzioko atean utzi behar zela, esetokian, alde batera utzi genezakeen zerbait balitz bezala. Iritzi horren aldeko direnek bere buruari galdetu beharko liokete ea haiek gizonak direla ahaztea posible ote duten, nahiz eta ez duten jakingo arrazoi horrek berak hainbat gizarte muga leporatzea eragin dien.

Erredakzioak ez dira kutsu zehatzik gabeko guneak, nahiz eta gaur egun lege lehorra izan eta erretzea debekatu: Gune horietara bakoitzak bere motxila darama eta bertan daramatza bere zaletasunak, ideia, dotrinak, sentsibilitateak, segurtasunak, ahuldadeak eta ohitura txarrak; bere gorrotoak, filiak, erlijioak eta mitoak.

Generoari nahita uko egiten zaionean, hain zabal, sakon eta unibertsala den kontzeptuak kategoria gramatikal izaera hartzen duenean, sexuak eta generoak harremanik ez dutenean, munduari begiratzeko modua zalantzan jartzen ez denean, momentu horretan, estereotipo nagusiek mediatikoki neurtuko dute begirada ziurrenik, bai gizonena bai emakumeena ere, bai begiratzen dioten taldeena ere. Beste modu batera, honakoa esan genezake: begirada estereotipoz betea dago, edo erabat arrunta izango da, besterik gabe.

Komunikabideetako langileek era guztietako galderak egin behar dizkiote beren buruari, sormenez betetako galderak gainera. Zalantza ziurtasuna baino sortzaileagoa da, bai eta atsekabea norberaren atsegina baino askoz aktiboagoa eta mobilizagarriagoa ere. Karl Marxek esaten zuen «zergatik» galdera oso iraultzailea zela. Erantzuna jaso nahi izaten denean da batez ere iraultzailea. Edo are gehiago, erantzunak.

Begirada ezberdin hori ezin da emakumeen berezitasuna besterik ez izan. Gizarte bidezkoagoa eta berdintasuna ziurtatzen duena lortzeko beharrezko diren aldaketak bertan bizi garen guztion ardura da. Lan hori emakumeari emateak hauxe esan nahi du: gizartea eraikitzeke dagokigun zati alikuotan parte hartzeari uko egitea. Garena garena ere.

Ez da harrizkoa hainbat kazetarik haien usteak alde batera uztea eta isil-isil jardutea lanean, haien proposamen eta ikuspegi oinarriak azaldu gabe. Hori horrela izatearen arrazoia argia da, askotan jaso dituzte nagusien erantzun desegokiak edo erantzun gutxiesgarriak; erantzun horiek honela labur genitzake: «Badator emakumea bere feminismo eta genero kontuekin».

Beste jarrera bat ere askotan ematen da, eta emakume erredaktoreak halako arrazoiak ematen dituzte: «Ni, ezer baino lehen, profesionala naiz» edo «Nik inoiz ez dut nire burua alboratua sentitu, inoiz ez naute emakume izateagatik gutxietsi». Lidia Falcónek 2006ko urrian Bartzelonan eman zuen hitzaldi batean, Genero ikuspegia duten emakumeen Espainiako Sarearen hitzaldi batean, iritzi hori duten emakume guztiek gainerakoek jazotako bazterketa bera jazo izan dutela oihukatu zuen ia. Ezberdintasun bakarria dago: «lerrokatuta daude!».

Lehenengo pausoa, herritar guztiek oraindik ere eman ez dutena, ondokoan oinarritzen da: feminismoa ez ukatu eta ez ezezkotu. Tarteka, pinpilinpauxa batek hegotei eragiten die toki batean eta ideia bat zabalduz hasten da: feminismoa eta matxismoa antonimoak dira. Zuhurtasun eta tentu guztiarekin, neurriak hartu eta zehaztu beharra daukat. Horretarako, DRAEko definizioetara joko dut⁴. Eta akademiako kideak ez dira, hain zuzen ere, muturreko feminismoa adierazten duten zalantza pertsonak.

feminismoa.

(Latinetik femīna, emakumea, emea, eta -ismo).

1. m. Emakumearen aldeko gizarte doktrina, lehen gizonentzat ziren gaitasun eta eskubideak aitortzen baitizkio emakumeari.
2. m. Emakumeentzat zein gizonentzat eskubide berak aldarrikatzen dituen mugimendua.

matxismoa.

1. m. Gizonek emakumeekiko duten nagusitasun jarrera.

Aitzakiak gaindituta, ikuspuntua aztertzeari ekin diezaiokegu, eta komunikabideetan nagusi dena ez da genero ikuspuntua neutroa. Komunikabideetan, gizonen ikuspuntua da nagusi, hau da, ikuspuntu sexista.

Unea baliatuko dut eta horrela, geroko kapitulurako lana aurreratuko dugu:

sexismoa.

1. m. Bizitzaren edozein alderditan sexuari arreta gailena eman.
2. m. Sexu bateko pertsonak diskriminatu beste sexua baino gutxiago dela uste dutelako.

Genero ikuspuntua ikuspuntu kritikoa da, ezberdina. Genero ikuspuntua doktrina berriak kontuan hartuta estereotipoak ikusi, zalantzan jarri eta alderantzizkatzeko edo lehengoratzeko gai da. Begiradak gizon eta emakumeen estatusa zalantzan jartzen ez duenean edo arketipoak eta estereotipoak aztertzen ez dituenean, ziurrenik sexismoak sorrarazitako eta berdintasunik ez duten ikuspegiak agertzen dira.

Ikuspuntua, beraz, ez da begiratzen duenaren arabera, haren formazio eta kritikarako gaitasunaren arabera baizik. Juana Gallegoren arabera (2007, 19. orrialdea) hedabideetako hitzaldiak idazten dituztenek bi ideia izaten dituzte buruan: gu (ideiarekin identifikatzen den pertsona taldea) eta «haiek» (emakumeak). Mekanismo horrek, gainera, beste aldaera batzuetarako ere balio duela azpimarratzen du: arraza, etnia, gizarte egoera, herrialdea eta abar. Hori ere genero ikuspegia da... Gallegok gizonen ikuspegia esaten dio horri. Nik ez dut onartu nahi hori gizonetzkoa denik. Genero ikuspuntua adjetibo bidez izendatu behar denik ez dut uste, izena izan behar duela uste dut. Ez da borondatea bezalakoa, zerbait izango bada adjektiboa ondoan behar baitu. Gizonezkoen genero ikuspegia badagoela onartzen badugu, emakumeena ere badela ari gara onartzen. Genero ikuspegiaren oinarrian berdintasun irizpiderik ez dagoelakoan gaudela uste dut, eta, ondorioz, hori aldatzeko lan egin behar dugu. Eta ideia horretan sakona eta luzea den ideia sexualak ez dauka inolako eraginik.

4. <http://www.rae.es/rae.html>

3. INTERFERENTZIAK

Sexuaren kontua hain da garrantzitsua, non hitz pila sortu baititugu –mota guztietakoak, gainera– bi sexuetakoa bateko izate hutsaren beldurrak, fobiak, gorrotoak eta ezinikusiak aipatzeko.

Interferentziak ondorengoak dira: misantropia, misoginia, ginefobia, androfobia, apandria, misandria, homofobia, androzentrismoa eta, zalantzarik gabe, sexismoa. Horietako asko, gertakari psikologiko edo soziokultural baino patologiak dira gehiago.

Hizkuntzaren akademiako kideek Espainiako Errege Akademiaren hiztegian (DRAE) idatzitako definizioak aztertuko ditugu jarraian. Fernando Lázaro Carreterrek esan zuen moduan, ia kode morala da hori. Feminismo hitzaren definizioan aditzondoetan daude duda-mudak: Emakumearen aldeko gizarte doktrina, lehen gizonentzako ziren gaitasun eta eskubideak ematen dituen gizarte doktrina.⁵ Hala ere, 1917an, hitza gure hiztegietan sartu zenean, akademiako kideek ondokoa idatzi zuten: «Emakumeei ezkutuko gaitasun eta eskubideak ematen dizkien gizarte doktrina, **orain artean**² gizonezkoenak ziren gaitasun eta eskubideak». Bide batez, argitu dezagun, «feminismo» hitzaren ondoko hitza ez zela «feminista», «femoral» baizik. Gaur egun, «feminismo» eta «femoral» hitzen artean ondokoak irakur ditzakegu: «feminista», «feminización» eta «feminoide».

«Orain arte» hitza azpimarratu dut, garai hura 1917 eta 1989 artean luzatu zelako akademiako kideen artean, eta edizioan «lehen» hitza erabili zutelako.

Ibilbideari ekingo diogu: Zerrendako lehenengoak, misantropiak, guztiongan du eragina, hau da, gizakiekin harremana izateari dio gorroto eta ez du sexurik bereizten. Hala ere, badira gorroto bereziak ere. Has gaitezen emakumeenekin⁷:

misoginia.

(Grekeratik μισογυνία).

1. f. Emakumeekiko ikusiezina edo gorrotoa.

RAEren arabera, gizon misoginoa ala emakume misoginoa izan daiteke pertsona. Hala ere, «María Moliner» hiztegiaren arabera, gizonezkoak baino ez dira misoginoak.

ginefobia.

(Grekeratik γυνή, emakumea, eta fobia).

1. f. Aversión obsesiva hacia las mujeres.

Y las de ellos:

androfobia.

(Grekeratik ἀνήρ, άνδρός, gizon, gizaseme, eta fobia).

1. f. Gizonekiko ikusiezina obsesiboa

5. Azpimarratutakoa nirea da

6. Nirea hori ere

7. DRAEren arabera

Psikiatriak «apandria»ri buruz hitz egiten du, medikuntzako hitz moduan aipatzen du, eta sexu maskulinoarekiko gorroto moduan azaltzen du. Disziplina berak jasotzen du «misandria» hitza, gizonekiko gorrotoa. Aipatu hitzetako bat bera ere ez dago DRAEn jasoa.

Homofobiak izaera beretsua du, eta bere jatorri greziarrari begiratuta, fobia adiera dauka berdin-berdin. Hala ere, ingelesetik hartua sartu zen gaztelerara. Esanahi hauxe du: «Pertsona homosexualetikiko ikusiezin obsesiboa». Hitz nahiko berria da DRAEn, 2001ekoa da eta.

Guztiek ikusmenarekin dute harremana eta ez dira antzematen errazak, are gutxiago kazetaritza bezalako lan batean, hizkuntza baita lanerako tresna. Ziurrenik, zabalduena eta diagnosi okerrera duena androzentrismoa da. Honela definitzen dute Akademiakoek: «Mundua eta gizarte harremanak ikusteko modua, ikuspuntu maskulinoa oinarri hartuta beti ere. Baina, mendizaleek esaten duten moduan, gauzak gaizki doazenean, beti okertu daitezke: sexismoa falta da.

4. ALDERANZKETAREN LEGEA

«Sexismo» hitza⁸ 1985ean sartu zen DRAEn, neurri askorekin. Hainbestekoak izan dira neurriak, ezen kortxetea baitu aurretik –zalantza adierazteko erabiltzen du zeinua tipografiko hori DRAEk– eta eskuko hiztegian baino ez dute gehitu. Honakoa da definizioa: «Sexu batekoek beste sexuarekin dituzten harremanetan erabilitako diskriminaziozko jarrera. Apl. [Aplikatua] emakumeek batez ere, gizonen aldetik jasotzen duten tratuari buruz aritzen direnean». Argitaraldi horretan eta hurrengoan definizio bera dago, 1989koa. Hurrengoa, 1992koa, ohiko hiztegian sartu zuten eta adiera berria eman zioten –bizitzaren edozein alorrean sexuari arreta nagusia eskaintzea. Guri dagokiguna bigarren adiera da, eta hala dio «Sexu bateko pertsonak baztertzea beste sexua baino gutxiago dela uste delako». Baina hori 1992tik bakarrik. Oraingoa hogeita bigarren argitaraldia da, 2001ekoa. Harrigarria da, oro har, adierak akademiak berak zehaztutako arauari jarraitzen baitio: “Lehenengo, bestelako markarik ez duten adierak agertzen dira. Horien artean, ohiko erabilera duten adierak lehenengo ematen dira eta atzerago uzten dira tarteka erabili ohi direnak»⁹. Nork erabiltzen du hitza lehen adiera horretan?

Errealitate sexistak, jarrera sexistak eta hizkuntzaren erabilera sexistak bereiz ditzakegu. Lehenengoa, errealitatearena, erraz topatuko dugu edozein enpresako administrazio kontseiluan: % 3 baino ez dira emakumezkoak. Jarrera, ondorengoa bezalako definizioetan: «Huérfano, na (Umezurtza). Adinez txikiko pertsonari dagokio: Pertsona horren aita eta ama edo bietako bat hil da, **aita batez ere**»¹⁰. Hainbat gizartetan eta garai batean larriagoa izan zitekeen aitaren galera agian, baina ama hiltzen denean pertsona hori berdin-berdin izango da umezurtza.

Hizkuntzaren erabilera sexistari dagokionez, Álvaro García Meseguerrek (1994, 24. orrialdea) honakoa dio:

«Ondokoetan erori ohi gara sexismo linguistikoa: hizlariak eta ez beste inork, hitz egitean, sexu arrazoiengatik diskriminazioa azaleratzen duen hitzak erabiltzen dituenean –sexismo lexikoa– edo esaldiak eraikitzen dituenean –sexismo sintaktikoa–”.

8. Hizkuntza espainiarraren altxor lexikografiko berria sarean ere irakur daiteke: <http://buscon.rae.es/ntlle/SrvltGUILoginNtllle>

9. DRAE. Hiztegiaren erabilera oharretako 5.3.2 atala. 2001eko edizioa.

10. DRAE. Beltzez idatzitako tipografia nik jarri dut.

Ondorioz, gerta daiteke egoera sexista bat era sexistan kontatzea, egoera ez sexista era ez sexistan kontatzea edo egoera sexista era ez sexistan kontatzea. Helburua berdintasuna lortu eta hori interferentziarik gabe kontatzea da, ez dezagun ahaztu.

Lehenagoko lan batean, Lenguaje y discriminación sexual, García Meseguerrek «alderantzizkako erregela» erabiltzea proposatu zuen. Sexismora eramaten badugu, esaldian daudenen sexua aldatzearekin nahikoa izango da. Erregela erabilia emaitza zalantzazkoa bada, esaldi originala ere zalantzazkoa izango da.

García Meseguerrek jarritako adibidea erabiliko dut¹¹: «Zaletu asko zeuden eta baita emakume asko ere». Galdetzekoa da emakumeak zergatik ez ote dauden zaletu horien artean. Aplikatu diezaiogun legea: «Zaletu asko zeuden eta baita gizaseme asko ere». Argia da esaldiak kirrinka egiten duela eta gizonak ez luketela inondik inora onartuko.

Erregela diskriminaziozko jarrerak atzemateko tresna erabilgarria da: androzentrismoa, esate baterako, baina baita etnozentrismoa, arrazakeria, homofobia, eta abar.

Eta honek guztiak hausnarketa bat plazaratzeko aukera emango dit. Ez da politikoki desagokoa, hainbat alorretan behintzat, gizonak lelo eta trakets balira bezala tratatzea. Gizonak bi gauza batera egiteko gaitasunik ez duten ideia oso zabaldua dago. Txantxak egin ohi dira kontu horrekin, gainera. Are gehiago, gizon batzuek esan ere esaten dute. Hori estereotipo sexista bat da... gizonen aurkako estereotipoa. Ez da komeni hori esatea ez eta horrekin arinki jokatzeko ere.

5. GIZONEK ETA EMAKUMEEK EZ DUTE BERDIN HITZ EGITEN

2007an, «Science» aldizkariak Arizonako Unibertsitateak zazpi urtean zehar, 400 ikaslerekin egindako ikerketaren emaitzak argitaratu zituen: 16.000 hitz erabili ohi ditugu egunean batez beste eta sexuen arteko aldeak ikusiezunak dira ia-ia. Hala ere, urtebete lehenago, Louann Brieszindinek «El cerebro femenino» liburuan baieztatu zuen emakumeek 20.000 hitz erabiltzen dituztela eta gizonak, berriz, 7.000. Eztabaida piztu zen eta datuak kendu egin zituen. Ondorioak, ordea, ez zituen kendu: emakumeen hitzak emozionalak eta afektiboak dira, gizonenak, nagusitasunaz eta ekintzaz betetakoak.

Pilar García Moutonek, Zientzia Ikerketetako Goi Zentrokoak, 2005eko uztailan Bilbon emandako hitzaldian¹², emakumeak elkarrizketetan parte gehiago hartzen dutela esan zuen, baietz egiten dutela eta arreta handiagoa erakusten dutela. Gizonak, bere aldetik, parte-hartze luzeagoak izaten dituzte, galdetu ez arren hitz egiten dute eta hizlariei hitza eteten diote. Kontu garrantzitsuak dira horiek irratietako eta telebistetako eztabaidak gidatzen dituztenentzat. Jakin ere badakigu, eztabaida horietan emakumeei gizonen baino maizago eteten dietela, eta emakumeek haien txandari itxaron ohi diotela hitz egiteko. Gainera, moderatzaileek gizonen eman ohi diete hitza gehiagotan.

Beste bi egilek, Victoria Sau eta María Jayme (2004, 301. or) ideia bera errepikatzen dute: «Emakumeek emakumeak eteten dituzten maiztasun berarekin eteten dituzte gizonen gizo-

11. 1994, 24 eta 25 or.

12. Nik zuzendutako ikastaro batean, «La lengua en los medios». (Komunikabideek darabilten hizkuntza)

nak; baina gizonak maizago eteten diete hizketaldia emakumeei emakumeek gizoni baino, nabarmen gainera.

Pilar García Moutonek (2003, 31. or) horrela idatzi zuen: «Elkarrizketa hitz truke bat da, eta barnean biltzen ditu hizlarien boterea eta solidaritatea bezalako alderdi garrantzitsuak. Botere handiena duena, edo hala duela uste duena edo hitza izateko eskubide handiagoa duela uste duena gehiegi erabiltzera ere iritsi daiteke. Arrasto hauek guztiak oso erabilgarriak izan daitezke informazioak bildu nahi direnean.

Telebista saioetan, kazetariak oinezkoei galderak egitera joaten denean eta gizon-emakume bikotea topatzen duenean, ohikoa izaten da gizonak erantzutea eta emakumeak buruarekin baiezkoa egitea. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Elvira Altés irakasleak, Espainiako Kazetarien V. bilkuran, ondokoa nabarmendu zuen, oso ohikoa izaten den kontua:¹³: informazioak ematean, biek hitz egiten dutenean, gizonak alderdi teknikoari buruz hitz egiten du eta emakumeak, ordea, sentimendu kontuak aipatzen ditu. Egin daitekeen proposamena honakoa izan daiteke: kazetariak emakumeari alderdi teknikoari buruz galdetzea eta gizonari zer sentitu zuen galdetzea, adibidez.

6. ESTEREOTIPOAK

Lortutako aurrerakuntzak handiak izan badira ere, emakumeen eta gizonen berdintasuna ez dugu oraindik lortu, eta alde hori nabariagoa da gizoni dagokien berdintasun alorretan.

Emakumeak tradizioz bete izan duen eremua pribatuari dagokio, familiar, etxeari, estimuei, sentimenduei, espresioari. Orain dela gutxira arte gizona ez zuen inork prestatu emakumeari gizartean sartzen laguntzeko. Gizonen alorra publikoari zegokiona zen, eta uko egiten zion pribatuari gainera.

XXI. mendearen hasieran egoera oso ezberdina da. Berdintasunerako pauso guztiak eman gabe daude, baina poza senti dezakegu ia eskubide berdinak izatea lortu dugulako. Legeek emakumeak eta gizonak berdindu dituzte, nahiz eta oraindik ere ez daukagun nahikoa bitarteko berdintasun hori ziurtatzeko. Gainera, inoiz ezin izan gara gaur bezain baikor izan, inoiz ez garelako hain gertu egon.

Mugimendu feministak emakumeek gizonetzkoen eskubide berak lortzeko helburuarekin sortu ziren. Ikusiko zuten batek, guztiek ala inork ez zituen eskubide horiek erabiliko. Denborak aurrera egin ahala, eta gizartea gero eta bidezkoagoa eta berdina izanik, emakumeek eskatutako eskubideak lortzea guztientzat mesedegarri zela ikusi zen, sexua zena zela ere. Amatasun baja, esate baterako, emakumeek borrokatu eta lortutako eskubidea, baina gaur egun gizonak ere gozatu dezakete. Lanpostuetako haurtzaindegiak emakumeak lan mundura sartzearen ondorio dira. Emakumeak sartzearekin batera, lan mundua gizatiarrago bihurtu da.

XX. mendean zehar emakumeak beste muga batzuk lortu nahi zituela eta lor zitzakeela erakutsi da: goi mailako atleta izatea, herrialde bat gobernatzea, sendagai bat sortzea, film bat zuzentzea, Everestera igotzea. Hainbat gizonak, espezieko elementurik garatuenean ziurrenik, berdintasunaren aldeko lan handia egin izan dute. Emakumeei lan munduan sartzeko trabarik ez jartzeaz gain, berdintasunaren aldeko lanean gogotsu ari dira. Horiei, Miguel Lorentek (2009, 72. or) gizon berri

13. Lugon, 2007ko maiatzaren 3tik 6ra.

berriak deitu izan die, «haien posizio zurrun eta urrunekoak alde batera utzi dituzte eta etxera gerturatu dira, bertatik, garai berrietara egokitutako janzkera berriarekin ateratzeko. Hala ere, inoiz ez diote utzi azken hitza erabiltzeko aukera baliatzeari eta, oraindik ere, haien irizpideak inposa ditzaketela uste dute, maila goragoko on moduan, posizio altuagoan baitaude».

Baina azter ditzagun estereotipoak, Robyn Quinen arabera, Australiako Edits Cowan Unibertsitateko Komunikabide irakaslea. Estereotipoek konplexutasuna sinplifikatu eta errealitatea kategorizatu eta indartzen dute. Horietako batzuk hain dira ohikoak, ezen oso zaila baitzaigu haiek identifikatzea ere. Beti egiten diote taldeari erreferentzia «Gizon guztiak igualak dira/Emakume ilehori guztiak leloak dira» eta taldea deskribatzen dute. Laguntzaz, gainera, talde batzuen interesak babesteko balio izaten dute, boterearen borrokan ari diren taldeei aplikatzen baitzaizkie. Eraginkorrakoak dira haien inguruan adostasuna eraikitzen delako –mutikoen ez dute negarrik egiten/ neskatoak pinpirinak dira–, antzezpen onargarriak dira zentzu horretan, errealitatera gerturatzen baitira.

Estereotipoek mugatu egiten gaituzte, eta, batzutan, min egiten digute, geure burua islatuta ikusten ez dugunean batez ere: Balore zehatz batzuk esleituta dituen talde batekoa da baina ez dago horiekin ados, edo kontrakoa pentsatzen du.

«Boterea duen taldeak estereotipoak jartzeko gaitasuna izaten du eta botererik ez duena izaten da, gehienetan, estereotipo horiek jasotzen dituen. Gehienetan, gainera, ezkorrak izan ohi dira estereotipo horiek. [...] Boterea bidegabeki duenak azpiko taldeak menpean eduki behar izaten ditu», 2005ean RTVEk argitaratutako hainbat egileren lan batean jasotzen den moduan¹⁴ (24. orrialdea).

Gizon taldea homogenea ez dela ondoriozta dezakegu eta daudenak, aurreko aipuak dioen moduan, «Boterea bidegabeki duenak azpiko taldeak menpean eduki behar izaten ditu».

Ikertzaileek eta instituzioek berehala desagerrarazi beharko luketen kontu deigarri bat ere badago: genero ikerketek oso argi eta kritika handiarekin bereizten dituzte nesken estereotipoak; hala ere, maskulinoekiko nolabaiteko utzikeria erakutsi dute.

Saia gaitzen hurbiltzen: Emakumea etxeko giroan aurkezten dugu, lan giroan gizona; emakumea giro pribatuetan, gizona publikoetan; gizona independentea da, emakumea mendekoa; gizona protagonista, emakumea laguntzaile; gizona profesionala da, emakumea ezjakina... Emakumeak uko egiten dio: Besteek lortutako arrakastak norberarenak bezala bizitzeari, psikologian, albokoen arrakasta esaten zaio. Harreman afektiboaren ondorio izaten da eta batzuetan uko egite argia eskatzen du: senarraren edo seme-alaben arrakasta, esate baterako.

Emakumea, lan munduan sartu eta bere anbizioak azaltzeagatik, ez da maskulinizatu, topikoak bestela badio ere. Emakume izan eta banketxe bat zuzendu daiteke. Era berean, gizonak ez dio gizon izateari utziko eta ez du bere gizontasuna galduko, gurasoak edo seme-alabak zaintzen baditu.

Nire ustez, objektiboa zabaldu behar dugu, plano zabala aukeratu behar dugu gizartearen kolore anitzak erakutsi ditzan. Aztertzeko modukoa da gizonen indar fisiko handiagoa ote duten, haurdunaldia emakumeen kontua bakarrik ote den, gizonen teknologia, zientzia eta teknika kontuetarako abilagoak ote diren; zergatik bizi diren emakumeak luzeago; mutikoen zintzotasuna eta neskatoen lehiakortasuna benetakoa ote den; ama senik ba ote den eta ez aita senik; gizonen sentimenduak azaltzeko zailtasunak ote dituzten; emakumeek intuizio handiagoa duten eta gizonen afasia ote duten.

14. Honetan: Hainbat egile. Infancia, televisión y género. Guía para la elaboración de contenidos no sexistas en programas infantiles de televisión. Madrid: Irrati eta Telebistako Institutu Ofiziala, 2005..

Berdintasuna lortuta, ezberdintasunak argiago ikusiko ditugula sinistu nahi dugu, baldin eta, gizon eta emakumeak fisikoki ezberdin izateak ezberdintasunak eragiten baditu.

Komunikabideek haien akatsetatik ikasi behar dute eta emakumeen berdintasuna publiko egiteak luze jo badu, azkar erantzun behar diote horri eta gizon berriak erakutsi behar dituzte, gizonak pribatuaren mundura sartzearen alde onak erakutsiz. Horretara iritsi diren gizonak, emakumeok betidanik dakigun zerbait ikasiko dute: zoriontasunaren esentzia maite dugunon artean dago eta bertan topatuko dugu.

7. SEXISMOARI BURUZ

Emakume eta gizonetikiko tratua inguruan dauden asimetriak ez dira komunikabideen kontua, ahozkoari dagozkio, hizkuntzaren erabilerari.

«Hizkuntza ezin da dekretu bidez aldatu emakumea gizona baino errespetu gutxiagorekin tratatzen duelako, baina gizartearen aldaketa baikorra babesteko aukera dugu. Eta hori lortzen badugu, hizkuntza, betiko moduan, atzetik joango da eta gaur egun haserretzeko moduko diren erabilera horiek zahar gelditzen joango dira. Horrela bada, hiztegieta tokia aldatu beharko dugu eta atzera gelditzen joango dira, forma zaharren sailean», aurrerantzen du Pilar García Moutonek (2003, 195. or).

Zalantza handia dago hizkuntzarekin egin daitekeenaren eta egin ezin denaren artean. Badirudi hainbat pertsonak edozein burutapen onartzeko bezain malgua dela uste dutela, beste batzuk aldaketarik onartzen ez duen lurralde zurruna dela uste badute ere –zentzu hertsian.

Hausnarketa hau hainbat erreakzioen ondorioa da: hizkuntzaren feminizazioaren inguruko zentzuzko proposamenak, baina baita proposamen ganoragabeak ere. Lehendabiziko kasuan, beren burua izendatzeko, gaztelaniaz, «concejala», «fiscalia» eta «jueza» bezalako terminoak –Akademikak femeninorako onartuak guztiak– erabiltzen dituzten profesionalak ari naiz, eta bigarrenetan «marida» eta «jóvena» bezalako terminorik ez dagoelako kexatu eta sortu nahi dituen Andaluziako emakumeen erakunde bati buruz.

Emakumea lan munduan sartzean, lehen gizona bete ohi zituzten lanpostuetan ari diren emakumeak mendean hartzeko zalantza handiak izan dira. Kasu horretan, hitz bete bati buruz hitz egiten dugu. Baina gauza bera gertatzen da gizona emakumeena izan ohi diren lanpostuetan hasten denean: «azafata», «matrona», «modista», edota «enfermera». Emakumea iristen denean, ondokoa ere gertatzen da: izenak adjektibo bihurtzen dituzte: «secretaria académica/secretario académico», esate baterako.

Emakumeen eta gizonen trataeraren inguruan beste asimetria bat ere aipatu ohi da: bikoak edo pareak. Gehiegizkoa litzateke guztiak hemen biltzea, baina hementxe dituzue adibide batzuk:

Hombre público / mujer pública
Fulano / fulana
Zorro / zorra

Batzuetan, gaizki eraikitzen dira:

Varón / hembra
Marido / mujer
Joven (epiceno) / chica

Izenaren erabilerarekin disimetriak izaten dira askotan. Ohikoa da emakumeei izenez deitzea eta gizonei deitzeko, berriz, abizena erabiltzea. Emakumeak aipatzeko hipokoristikoak ere erabiltzen dira, eta nahiko ohikoa da, gaztelaniaz, emakumeen izenaren aurretik artikulua zehaztugabea erabiltzea. Ohiko erabilera da hori Espainiako ekialdean, baina erregistro moduan erabat desagokoa da komunikabideetan erabiltzeko.

Gizonen kasua oso bestelakoa da. Artikulua erabiltzen da, hipokoristikoa xnorberak sortua batzuetan, gainerax edo on edo jaun trataera iraintzeko.

«Gizon» hitza «gizaki» adierarekin erabiltzea oso desagokoa da, emakumeok ez baikara talde horretako parte sentitzen.

Orokorra dena izendatzeko maskulinoa erabiltzeak arazo asko sortzen ditu, hizlari askorentzat, maskulinoa erabiltzen denez, gizonak baino ez baitira kontuan hartzen. Kazetaritza testuak zehatzak izan behar dute, bai datuei, bai kontaketai, bai erabilitako hitzei, bai sintaxiari dagokionez. Testu bakar bat modu batera baino gehiagora uler badaiteke, egongo da ziur irakurketa okerra egingo duenik.

Egile asko oso gustura egoten badira ere, maskulino orokorrak ulertze arazoak sortzen ditu maiz. Oraindik ere ez dakigu arazo hori nola konpondu eta hainbat taldek hautatu dituzten bideak, ez dira kazetaritzarako baliagarri: hitzak errepikatuz generoa bikoiztu -vascos y vascas-, marra erabili xalumnos/asx eta a bildua bokalaren ordean erabilia. Erabilgarriak ez direla esan dugu testua asko betetzen dutelako eta idazten duenaren helburua, irakurleak azken lerroa ere irakurtzea izaten du helburu.

Ikasteko gogoak duenak, 60ko hamarkadatik argitaratutako eskuliburu eta gida askotan gomendioak aurkitzeko aukera izango du. Ikus ditzagun proposamen horietako batzuk:

- Benetako generikoak. Taldeari erreferentzia egiten dioten hizak egoki aukeratu behar dira, beti gizonezkoen dagokiena erabili behar izan gabe. Ondoko hitzak horrelakoak dira: población, ciudadanía, infancia, alumnado, funcionariado, profesorado, eta abar.

La propuesta pretende mejorar la situación de los pensionistas/La propuesta pretende mejorar las pensiones.

-Izen abstraktuak erabiltzea. Abogacía, judicatura, jefatura, dirección...

El director será un hombre del mundo de la cultura / La dirección recaerá en una personalidad del mundo de la cultura.
Los aficionados vieron interrumpida la partida / La afición vio cómo se interrumpía la partida

- Aditzen forma pertsonalak eta izenordainak erabiltzea.

Los que viajan en patera... / Quienes viajan en patera...
Los canadienses creen haber dado con... / En Canadá creen haber dado con...
Si el hombre no es capaz de sentir / Si no se es capaz de sentir...

- Beharrezko ez diren gizon erreferentziak alde batera utzi.

Nosotros pactaremos con otros organismos / Pactaremos con otros organismos
Para agilizar los trámites, el contribuyente deberá llamar al Ayuntamiento / Para agilizar los trámites, se deberá llamar al Ayuntamiento

Algunos manuales hacen propuestas más extensas, e incluso radicales, pero los profesionales de los medios suelen ser personas pragmáticas y suelen tener como primer objetivo informar.

8. INDARKERIA MATXISTAREN TRATAERA

Duen garrantzia dela eta, komunikabideek genero indarkeria tratatzeko moduari kapitulu bat eskainiko diogu. Gomendioak:

- Sentsazionalismoa eta arinkeria saihestu
- Deskribapen xehegiak eta irudi latzak saihestu
- Biktimen eta senitartekoek informaziorik ez emateko duten eskubidea errespetatu
- Komunikabideen betebeharra da biktimen bizitza babestea eta haien edo haien etxearen datuak saihestea. Salaketa arrisku handieneko unea da
- Erasotzaileak identifikatu behar dira eta gizarte bazterketari lagundu
- Zergati-ondorio harremana saihestu behar da, bai eta honek gizarte taldeekin duen harremana ere
- Ez da gertakari moduan landu behar eta albistea jarraipenari bidea eman behar zaio
- Hirugarrenen lekukotza –bizilagunak– informazioa ematen duenean da baliagarri. Egokiagoa da adituengana jotzea
- Eztabaidei dagokionez, ez dira gonbidatu behar kontrako erabaki garbirik ez dutenak
- Atxiloketaren edo sententziaren berri eman behar da titularretan hala gertatzen denean

9. GENEROAREN AUTOEBALUAZIOA

Isabel Menéndezek galdetegia proposatzen die genero ikuspuntua findu nahi duten kazetariei. Galdera bakoitzak hiru erantzun posible ditu: 'Bai', 'Ez' eta 'neurri batean bakarrik'. Galdetegia ondokoa da, eta hitzez hitz emango dut:

Informazioa prestatzea

- 1.- Informazioa sexuaren arabera sailkatuta duzu.
- 2.- Albistegiak eragiten dien eta albisteko protagonista diren gizon eta emakumeen behar zehatzak kontuan hartu dituzu.
- 3.- Albistearen gertakariaren oinarrian gizon eta emakumeen presentzia orekatua dago (botere banaketa, antzezpena, eta abar.).
- 4.- Zure informazioan gizon eta emakumeen onura edo kalte zehatzak jasoko dituzu.
- 5.- Albistean emakumeentzat bereziki bereziak diren gertakariak daude¹ eta kontuan hartu dituzu.
- 6.- Informazioa osatzean, estereotipo sexistarik ez ugaltzeko hausnarketa egin duzu.
- 7.- Genero adituek emandako informazioa bilatu duzu zure informazioa zabaltzeak izan dezakeen eraginaren inguruko alderdiren bat ezagutzeko.

¹⁵. Sin ánimo de enmendarle la plana, en cada ocasión en que dice solamente mujer, podemos incluir también a los hombres, siempre que se haga con perspectiva de género.

Informazioaren idazketa

- 1.-Idazketa osoan zehar emakumeen eta gizonen parte-hartzea jasotzen ari zara.
- 2.-Testua idaztean hizkuntza ez sexista erabiltzen duzu.
- 3.-Informazio iturriak orekatuta daude generoari dagokionez.
- 4.-Informazioaren edukiarekin lotuta dauden genero azalpenak eta argumentuak gehitu dituzu.
- 5.-Tresna espezializatuak erabiltzen ari zara (datu berezituak, hizkuntza ez sexista, generoarekin sentsibilizazioa duen dokumentazioa, eta abar.).
- 6.-Ezagutzen ez dituzun edo argumenturik ez duzun alderdietan genero arazoa duzunean informazioa eskatu diezu emakumeei, emakume taldeei edo adituei.
- 7.-Emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak bereizten ari zara idazten ari zaren informazioan.

Ebaluazioa

- 1.- Ezberdinen eragina kontuan hartu duzu informazioa osatzeko erabili duzun albistearen edukiaren generoaren arabera.
- 2.- Biltzen duzun gertakariak emakume eta gizonengan izango duen eraginaren onurak eta kalteak ezagutzen dituzu
- 3.- Bi sexuak (protagonismoa, iturriak, galdekatutako ahotsak, eta abar) orekatuta agertzen diren informazioa osatu duzu.
- 4.- Zure informaziotik genero estereotipoak kendu dituzu.

10. IKUSPUNTU EZBERDINEN PROPOSAMENAK¹⁶

-Emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasun handiak azaltzen dituzten estatistikei arreta berezia, sexuen arabera bereizten baititu.

-Zientziaren, teknikaren eta ikerkuntzaren alorrean, berdintasunerako aldaketa nabarmenak adieraziko dituen alderdietan lanean ari diren ikertzaileak ezagutu.

-Gizonak ordezkari txikiarekin ari diren lanpostuak edo alorrak zeintzuk diren ikusi, gune berriak irabazi izanaren isla baita hori. Gizonak irakaskuntzan, medikuntzan, zuzenbidean... bere lan eremua murriztua ikusi du, baina beste alor batzuetan ere irabazi du: hala nola, matrono, enfermero, cuidador de ancianos, canguro...

-Onartzen ez zaizkion lanak ikusarazi. Boluntariotzari arreta eman. Hartzaileei eta egileei.

-Lanean sexu bereizketaren ezberdintasunak antzeman.

-Etxean lan egiten duten gizonak: etxeko gizonak, aitasun baimenak

-Aita: haurrak bakarrik adoptatzen dituzten gizonak...

-Guraso bakarreko familiak dituzten gizonak.

¹⁶. La idea de este apartado se la debo a una conversación con Pilar López Díaz a la salida de una reunión en Madrid. Con todo su entusiasmo arrebatador, me entregó un volumen de 'La violencia contra las mujeres...', lo abrió por la página 42 y me mostró las propuestas de contenidos informativos.

- Seme-alaben zaintza eskatzen duten gizonak.
- Emakumeen eta gizonen lanaren artean dagoen interdependentzia eta elkarrekikotasuna azaldu
- Aita, seme-alaben zaintzaile bakar moduan duten epaiak.
- Arraren, gizon adoretuaren kontzeptua hilgarria izan daiteke. Gizonen beste pertsonalitate batzuk ere maskulinoak dira eta zoriontasunerako bidean eraginkorragoak izan daitezke. Arrakasta handiagoak eskain ditzake, gainera.
- Nola irudikatzen da gizona fikzio lanetan: telebistako saioak, zinema, literatura, publizitatea... Zein beste eredu hartu eta errepika ditzakegu.
- Testuliburuetan, nola: nola irudikatzen da gizona hezkuntza ereduetan, edo eskoletako curriculum-etan, zein hizkuntza erabiltzen da, gizonari dagokionez nola lantzen da generoa,
- Gizona eta haren bizitza pribatua adiskidetzeari.
- Anorexia gizonen artean. Beste hainbat gaitz, bigorexia esaterako...
- Gizonak berdinak ote dira gizarte guztietan? Badago beste kulturetan emakume eta gizonen ezaugarrien artean alderantzizkatzerik? Nola egiten dute lan beste etnia batzuetan?
- Lehen hezkuntzan zein joko bultzatzen dira, zein kirol egiten dira...
- Zientziako edo akademiako zein gizon ari dira orain arte emakumeek landu ohi zituzten kontzeptuen alde egiten?
- Lehen emakumeenak bakarrik ziren gaietan gizonak landutako erronkak bildu.
- Sexualitatearen trataera, genero ikuspuntuarekin hori ere.
- Gizona ere dotorea da, besteen gustuko izan nahi du, bere itxura zaintzen du, kosmetikoak erabiltzen ditu, eta ez da metrosexuala horregatik.
- Eguneroko elkarrizketei lider horiek etxean eta familian nola moldatzen diren erakusteko moduko galderak gehitu. Zeharkakotasuna generoan.
- Emozioak, sentimenduak eta gizonak pribatuaren alorrean dituzten gaitasunak azpimarratuko dituzten galdetegiak prestatu.
- Aitatasun baimenak beste herrialde batzuetan.
- Adiskidetzeari beste herrialde batzuetan.
- Kristalezko mugak ote dituzte gizonak ere hainbat alderditan?
- Zein onura dituzte gizonak enpresa, politika, administrazio... erakundeek funtzionatzeko moduan aldaketak dituztenean?
- Lanean eraginik ote du gizona izatea haurrak zaintzeari emango zaiona? Lankide ala langile hobeak dira lan horiek egiten dituztelako?

- Emakumeena izan ohi ziren ardura lanetan gizonak ere sartu dira: Gizarte ongizatea, berdintasuna, genero indarkeria, gizarte laguntza...
- Genero estereotipoak hausten dituzten gizonak.
- Gizon zaintzaileen argazkiak, hunkitzen diren diren, seme-alabei jaten ematen dieten, umeekin paseatzen diren, zaharrekin paseatzen diren, ospitalean besteak zaintzen ari diren, etxeko lanak egiten ari diren... gizonen argazkiak
- Sexu eta genero artean bereiztearen jatorria...
- Gizona gutxi ordezkatua dago hainbat ikasketa edo alorretan: gizarte laguntzan, dantzan, balletan...
- Gizonen lanak eta emakumeen lanak?
- Emakume eta gizonen ezaugarri ezberdinak ote dituzte?
- Emakumeen onurarako egoten diren baimenak zailtzen dituzten enpresak, erakundeak ala organismoak arretaz zaindu.
- Familia zaintzeko ordukako lana izatea erabaki duten gizonak.
- Ze gizon portzentajea dago dependentzia legearen estatistiketan.
- Lan bizi eta bizitza pribatuaren inguruko adiskidetzeari buruzko estatistikak.
- Alboko enpresak atseginez hartzen dituzten gizonak, emakume garrantzitsuen ezkonlagunak.
- Berdintasunaren alde lan egiten duten gizon taldeen arreta nagusia.
- Dibortzioa edo banaketa eta gero seme-alaben zaintzaren inguruko kasuen justizia.
- Zer esaten diote gizonen zoriotsu izatea? Eta emakumeek?¹⁷
- Emakume eta gizonentzat interes bereziko den narrazio eta saiakera kritika.
- Indarkeria maskulinoa, baita gizonen aurka ere.
- Esamoldeetan, txisteetan, komikietan, bideo-jokoetan eta abestiak bezalako beste sozializazio bideetan femeninoak eta maskulinoak duen isla.
- Fikzio gidoiak sortzea.
- Maskulinitatearen eraikuntza. Maskulinitatea eta sexualitatea. Maskulinitatea eta indarkeria eta genero indarkeria. Gorputza. Sexu identitatea.
- Zer ezkututzen da guraso alienazioko sindromearen atzean?


17. Hau eta ondorengo proposamenak López Díazen lanean bilduta daude.

11. AZKEN PROPOSAMENAK

- Etengabe adi egon, berdintasunerako errespetu jarrerarekin
- Informazio iturriak bereizi.
- Informazio edukiak etengabe birplanteatu, errealitatea desitxuratu ez dezaten.
- Ikuspuntu, ikuspegi, gai trataera, gai aukeraketa... berriak proposatu.
- Topikoak saihestu, iturriak urratzea saihestu. Oro har, emakumeei egozten zaizkien lanak, etxe-ko lanak adibidez, gizonak kontatzen dituzten bultzatu.
- Genero galderak informazio guztietara zabaldu. Horrelako kontuak ez dira bakarrik generoarekin harremana duten albisteetan landu behar.
- Diskriminazio tratuak saihestu behar dira, ondokoetan batez ere: argazkiak, edukiak, ikuspegiak eta tratuak.
- Hizkuntza eta esaten duguna mimo handiz zaindu. Datuetan eta azaltzeko moduan zehatza izaten saiatu.
- Gizona gutxi ordezkatuta dagoen alor horiek erakutsi: pribatuaren eta familiaren alorra.

12. BIBLIOGRAFIA

- Bergara, Ander; Riviere, Josetxu eta Bacete, Ritxar. Los hombres la igualdad y las nuevas masculinidades/Gizonak, berdintasuna eta maskulinitate berriak. Gasteiz: Emakunde, 2008.
- Brizendine, Louann. El cerebro femenino. Madril: RBA, 2007.
- Careaga, Pilar. El libro del buen hablar. Una apuesta por un lenguaje no sexista. Madril: Fundación mujeres, 2002.
- Gallego Ayala, Juana. «De reinas a ciudadanas (o la imposibilidad de dejar colgado el género en la puerta de la redacción)». Género y Comunicación aldizkarian, 9. zenbakia: Buenas prácticas periodísticas desde la perspectiva de género. Madril: Ameco, 2007.
- García Mouton, Pilar. Así hablan las mujeres. Madril: La esfera de los libros, 2003.
- García Meseguer, Álvaro. ¿Es sexista la lengua española? Una investigación sobre el género gramatical. Bartzelona: Paidós, 1994.
- Lenguaje y discriminación sexual. Bartzelona: Montesinos, 1988.
- Hervás Moreno, Macu. El techo de cristal. Huesca: Aragoiko Gobernua. 2006
- Jayme, María y Sau, Victoria. Psicología diferencial del sexo y el género. Bartzelona: Icaria, 2004.
- López Díez, Pilar. La violencia contra las mujeres desde la perspectiva de género en el programa «Tolerancia cero» de Radio 5. Madril: Instituto Oficial de Radio y Televisión, 2007.
- Menéndez Menéndez, María Isabel. «Claves prácticas para elaborar información desde la perspectiva de género. Aportaciones desde el mainstreaming» Género y comunicación aldizkarian. Salamanca: Fundamentos, 2007.
- Moliner, María. Diccionario de uso del español. Madril: Gredos, 1983.
- Randall, David: El periodista universal. Madril: Siglo XXI, 1999.
- Real Academia Española. Banco de datos (CORDE) [sarean] Corpus diacrónico del español. <http://www.rae.es>
- Banco de datos (CREA) [sarean] Corpus de referencia del español actual. <http://www.rae.es>
- Diccionario de la lengua española 22. edizioa. <http://www.rae.es/rae.html>
- El Nuevo Tesoro Lexicográfico de la Lengua Española <http://buscon.rae.es/ntlle/SrvltGUILoginNtlle>
- HAINBAT EGILE. Infancia, televisión y género. Guía para la elaboración de contenidos no sexistas en programas infantiles de televisión. Madril: Instituto Oficial de Radio y Televisión, 2005.



EMAKUNDE
EMAKUNDEAREN ELISKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

KRIMINALITATEA PREBENITZEA ETA GIZON IDENTITATEAK ERAIKITZEA

Iniciativa Social Fundazioa
2009

AURKIBIDEA

1. Sarrera	119
2. Sexu eta genero kategoriak	119
3. Generoa, boterea eta indarkeria	121
4. Aldaketa sozialak eta generoak eraikitzea	122
5. Genero rolak ikastea	123
6. Homofobia kulturala eta maskulinitasuna eraikitzea	124
7. Kriminalitatea eta generoa	125
8. Prebenitu al daiteke gizonezkoen indarkeria?	129

1. SARRERA

Indarkeriaren eta genero eraikuntzaren artean dagoen erlazioaz hausnartzen hasteko, hona hemen hainbat herrialdeko erakundek ematen duten kriminalitate-estatistiken datuak: munduan gertatzen diren indarkeriazko krimenen % 90 gizonezkoek egiten dituzte. Datu hotz hori interpretatzeko hiru ardatz kontzeptual hauek hartu behar dira kontuan, gutxienez:

1. Gizonezkoek sortutako indarkeriaren naturalizazio prozesua legezko bidetzat hartzea pertsonen arteko liskarrak konpontzeko
2. Gizon identitatea eraikitzeke prozesua gure kulturaren
3. Genero harremanetan boterea eraikitzeke prozesua

Kriminalitatea genero ikuspuntutik aztertzeak errealitatearen datuak beste era batera irakurtzea eskatzen du, generoka ezberdindutako sozializazio mekanismoak estatistikek ematen dituzten zifrak ulertzeko aldagai garrantzitsuenetakoak direla ohar gaitzen.

Estatistika horien arabera, gizonezkoena da egintza kriminalak egiteko arrisku handiena duen taldea, bai eta mota horietako egintzen biktimak izateko ere (genero indarkeriaren kasuan izan ezik. Horretan emakumezkoak dira, emakume izate hutsagatik, biktimak).

Delitu-egintzen ondoriozko biktima eta hiltzaile gehienak gizonezkoak dira, eta hori, gizon kulturaren eta maskulinitasunaren erruz gertatzen da. Kultura maskulinoaren arabera, gizona borrokatzera derrigortuta dago. Kultura femeninoa, ordea, delitua eta arriskua saihestera zuzenduta dago. Bien arteko alde handi horrek bide ematen du gizonezkoek arriskuarengandik ihes egin beharra uler ez dezaten, eta ondorioz, hamabost urteko mutiko batek, heldugabea oraindik ere, delitua bere maskulinitasuna erakusteko bidea dela pentsa dezake.

Horrek guztiak beharrezkoa egiten du, batetik, gizonezkoen sozializazio prozesuan kriminalitatearen arazoarekin zuzenean lotzen diren osagaiak aztertzea, eta, bestetik, prebenitzera bideratutako proposamenak egitea.

Maskulinitasuna eraikitzea arriskutsua da gure kulturaren gizonezkoen osasun eta segurtasunerako eta, gainera, emakumezkoen eta gizonezkoen segurtasuna eta osasuna arriskuan jartzen duen botere-desorekaren oinarriak finkatzen dituelako.

2. SEXU ETA GENERO KATEGORIAK

Kriminalitatearen eta gizonezkoen artean dagoen erlazioaren ezaugarri nagusiak aztertzeari ekin baino lehen, sexuaren eta generoaren arteko aldea zehaztea komeni da, batez ere kontuan izanda askotan sinonimotzat hartzen direla.

Sexua diogunean gizonezkoak eta emakumezkoak -giza espezieko ar eta emea- ezberdintzen dituzten ezaugarri fisiko eta biologikoez ari gara; **generoa**, ordea, gizarte batean sexueta bakoitzari egozten zaion jarrera egokiaren definizio kulturala da.

Generoaren kategoriak barne hartzen ditu, beste batzuen artean, ondorengo dimentsio hauek:

- Sexu ezberdintasunean oinarrituta dago.
- Bipolarra da; bi sexu daudenez, bi genero daude: femeninoa eta maskulinoa.
- Soziala da: gizonezkoa edo emakumezkoa izatea ez da gertaera naturala.
- Kulturala da: gizon edo emakume definizioa aldatu egiten da kultura betetik bestera.
- Historikoa da; historian zehar gizarteek eta kulturek gizon eta emakume definizio bereziak eraiki dituzte (jarrerak, eginbeharrak, onartzen diren eta ez diren pentsamenduak).
- Kategoria ezegonkorra da, ikasitako genero arauak berrinterpretatzen, berrantolatzen eta errepikatzen baititugu aldiro. Emakume eta gizon identitatea aldatu egiten da uneoro, gizarte bakoitzaren prozesu sozial, politiko, kultural eta ekonomiko zehatzen ondorioz.
- Erlazio-kategoria honetan femininotasunak maskulinotasunarekin zer nolako harremana era dezakeen ageri da, ez bakarrik gizon eta emakume biren arteko buruz buruko harremanetan, gizarte eta erakunde mailako harreman guztietan baizik, tartean, familia, eliza eta estatua.
- Kategoria politikoa da, gizon eta emakumeentzako ekitate erlazioak eta aukera berdintasuna lortzeko balio baitu.

Genero kontzeptuaren definizio tekniko bat aipatzearen, honako hau ekarriko dugu gogora: «Gizarte egiturak dira, hain zuzen, sexu bakoitzeko kideei modu dikotomikoan egotzi zaizkien norberari buruzko kontzeptuak, ezaugarri psikologikoak eta familia, lanbide edo politikako rolak barne hartzen dituztenak»¹.

Generoa, gizarte-klasea eta arraza bezalaxe, praktika soziala egituratzeko modu bat da. Kategoria soziologiko eta historikoa denez, edozein giza prozesu aztertzean kontuan hartzen ez bada, barneratuta ditugun alderdiek ez digute berehalakoan ikusten utziko hainbat gai eta ez gara horietaz jabetuko. Horrexegatik, ez ditugu indarkeria eta kriminalitatea ulertuko baldin eta ez baditugu kontuan hartzen tartean dauden pertsonen generoa eta horiei eragiten dieten inguru-neetako gizarte-arauek gizonezkoen gizon eta emakumezkoen emakume izateagatik agindu eta debekatzen dizkieten sentimendu eta zereginak.

Generoaren kategoriak tentuz aztertu beharreko oinarritzko bi elementu ditu. Bata, derrigorrezko izaera: genero ereduak zenbat eta estereotipatuagoak izan, orduan eta aukera gutxiago dute pertsonak estereotipotik urruntzen diren alderdiak garatzeko. Eta bestea, generoaren arabera gizarte-sailkapenak genero bakoitzari buruzko iritzi eta balorazio berezia dakar. Hala, maskulinotasunari egozten zaizkion ezaugarriek femininotasunari egozten zaizkionek baino balorazio positiboagoa dute gizartean. Balorazio hobea dute halaber gizonezkoek egiten dituzten lanek eta haiek mugitzen diren eremuek. Oro har, gizonezkoen rola emakumezkoena baino garrantzitsuagoa denaren ustea dagoela esan daiteke. Horrek ondorio asko ditu; modu ezberdinean baloratzeak hierarkia eta botere ezberdintasunak dakartza.

Hortaz, generoa, definitu eta aztertu dugun moduan, garapen psikologikorako muga ez ezik, genero indarkeriaren eta, oro har, kriminalitatearen gisako arazo sozialen sorburu ere bada. Ezarritako ordenari bere horretan eusteko behar sozialak indarkeria kontrol neurri gisa erabiltzea ahalbidetzen du; halaxe jokatzen du «pribilegiozko» maskulinotasunak emakumezkoekin, nahiz eta ezin dituen beti mendean hartu, nahiz eta uneko boteretsuentzako zein egungo gizon identitatearentzako arrisku ere izan daitezkeen.

1. Del Valle eta Sanzen definizioa *Violencia doméstica: su impacto en la salud física y mental de las mujeres* izeneko liburuan jasotzen da (VILLAVICENCIO CARRILLO, PATRICIA eta SEBASTIÁN HERRANZ, Julia. Madril, Lan eta Gizarte Gaien ministerioa. Emakumearen Institutua, 1999, 65. orrialdea).

Esan bezala, kulturak eta gizarteak maskulinitasunaren eta feminitasunaren ikuskera egituratzen duten mekanismoak ezartzen dituzte eta ereduak kulturak gizonen eta emakumeen jarreraren eragiten du. Bada, gaude generoaren sozializazio prozesuan haurrak bere generoari gizarteak egotzi dizkion jarrera egokiak ez ezik, derrigorrezko hierarkizazio baldintzak ere ikasten dituela. Hala, identitatea eratzeko -giza ongizateak ezinbestekoa du-, generoetako bat aukeratu beharra dago, eta aldaketa soziokulturalek eta teknologikoen genero bakoitzari egotzitako jarraera egokien inguruko ikusmolde berriak ekarriko balituzte ere, generoen arteko egiturazko desoreka aldatzen ez bada, aurrerantzean ere zaila izango dute emakumezkoek mundu publikora sartzea eta gizonezkoekin partekatzea; eta gizonezkoentzat are zailagoa izango da gutxietsitako etxeko zereginetan parte hartzea eta esan zitzaiena baino femenoagoak direla ikustea.

Orain arte esandakoaren arabera, errealitatearen definizioa generoan datza, hori baita kultura, gizarte eta subjektibotasuna eratzen dituen elementua. Hortaz, kasu guztietan hartu behar da kontuan, bereziki, kriminalitateaz jardutean. Eta «pertsonak» bereizi gabe kontuan hartu ordez, gizakiak gizonezko edo emakumezko gisa eratzen gaituzten espezifikotasunak kontuan hartzeko -posible denean- konpromiso intelektual eta praktikoa hartzera bultzatzen gaitu.

3. GENEROA, BOTEREA ETA INDARKERIA

Lehen aipatu dugu generoaren dimentsioetako bat bere izaera kulturala dela. Hori da, hain zuzen, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko konparazioak egitean sortzen den eztabaida-gaietako bat.

Gizon eta emakume ezaugarriak kulturaren bidez arau bihurtzen diren modua azaltzeko, ezauzgarri horietako batzuk aztertzea komeni da. Kasu honetan, gure kulturaren eta beste hainbatetan nagusi den sexu joeraren, alegia, heterosexualitatearen determinatzaile-analisia egingo dugu.

Sexua, heterosexualitatea eta generoa, pentsamolde arruntaren arabera, elkar lotutako elementuak dira: naturaren legeak zehazten du sexua, heterosexualitatea sexu joera eta jokabide normalaren paradigmaz jotzen da eta genero ezaugarriak (bi baino ezin dira izan, sexueta oinarritzen baitira) naturalak direla uste da, alegia, biologiararen ondorio.

Hipotesi horren aurrean, C. A. Tripp-ek dio pertsona gehienak heterosexualak izatearen arrazoiak familia-bizitza mantentzea eta ugaltzea eta, ondorioz, espeziearen jarraipena bermatzera bideratutako giza eta erlijio usadioak direla.

Kulturaren eraginak, kontrolen eta hainbat estimuluren bidez, jokabide, ohitura, sinesmen eta balio nagusiek indarrean irautea dakar, eta **natural** estatusa ematea, **inposaketa** baino ez bada ere. Esaterako, kultura guztietan ematen da sexu arrazoiengatik bazterketa; gizarteek, errealitatean, heterosexualak ez diren jokabideetarako tarterik ez dute uzten; zenbait jokabidek eta gorputz-atalek sexuarekin duten lotura azpimarratzen da eta beste batzuek dutena ukatu.

Dena dela, biologiak berak baino gehiago ezberdintzen du sexuen artean gizarteak. Gizon eta emakumeen arteko bereizketa hori gizarte egituretan arrazionalizatu egin da (esaterako, lan banaketaren bitartez), eta botere ezberdintasunean oinarritzen diren sexu arteko harremanak sortu dira, batik-bat, emakumezkoen kalterako. Beste harreman osagarri mota batzuek eratzeko, gizarte gehienetako arau nagusiak baztertuko lituzkeen berdintasun maila behar da.

Puntu honetan lot ditzakegu genero eta botere desberdintasunak eta indarkeriaren erabilera; izan ere, ezarritako kultura mekanismoek naturalizatu egiten dituzte gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak eta gizonezkoaren nagusitasunean oinarritutako tentsio heterosexuala. Baldintza horietan, indarkeriaren erabilera distantzia mantentzeko estrategiatzat har daiteke.

Estatus ezberdintasunak emakumezkoen gutxiagotasunari edo emakumearen arrisku eta ahultasunei egozten zaizkie eta gizarte gehienek gizonezkoen egokitze maila oso altua espero dute. Hala, ohiko gizontasuna kolokan badago, emakumeak tentuz kontrolatu beharreko arrisku bihurtzen dira.

4. ALDAKETA SOZIALAK ETA GENEROAK ERAIKITZEA

Generoaren dimentsioen artean bere izaera soziala eta historikoa aipatzen genituen arestian. Dimentsio horiek eta generoaren rolen ikaskuntza lotzeak, sexu-subjektibotasuna eratzeko eragin historiko eta sozialen inguruan gogoeta egin beharra dakar. Hain zuzen, familia eta eskola dira eragin sozialaren norabidea zehazten duten egiturak.

Iraganari erreparatuz gero, argi dago gizon eta emakume identitateak aldatu egin direla historian zehar. Familiari dagokionez, emakumearen rola familia egituraren beharren arabera izan dira, eta familia egitura hori, aldi berean, egoera sozialaren mendekoa. Aldaketa horiekin batera genero-ezaugarri subjektiboak ere, hau da, gizon edo emakumeek beren burua gizon edo emakumetzat hartzeko arrazoiak aldatu egiten dira.

Zenbait ikerketek azaltzen dutenez, historiako bi unetan, alegia, erdi aroan eta industria iraultzan -bi une guztiz ezberdinak- familia eredu berriek aldaketak eragin zituzten genero roletan; ekoizpen unitate izatetik harremanetarako gune eta gune pertsonal izatera igaro zen familia. Hasiera batean, familia zen bizitza-unitatea, eta ez gizabanakoa. Gizon eta emakumeek espazio eta jarduerak partekatzen zituzten, gizonezkoek boterea izatea eta emakumeen gaintetik egotea zegokien; emakumeek, berriz, mende egotea, haien erantzun eratuak dikotomiaren alde ilunetan sailkatzeko mehatxupean (birjina-prostituta; santua-sorgina).

Industria iraultza iristearekin batera, ekoizpen beharrek gizarte sistema osoa berregituratu zuten, eta, jakina, familia ere bai, harremanetarako gune bihurtuta. Genero rola guztiz ezberdinak eta ekintza eremuak eta jarduerak bereizi egin ziren; gizonezkoak kanpoko mundura, mundu publikora, soldatapeko lan mundura (rol produktiboa) bideratu ziren; emakumezkoak, berriz, familiaren esfera pribatu, pertsonal eta intimoak inposatzen dituen beharrez arduratzen ziren, eta beren rola ugalketa zen. Bi funtzio mota horietatik hain jarduera ezberdinak eratortzen direnez, kasu bakoitzeko beharrezko gaitasunak ere oso ezberdinak dira; horrela hasi ziren gizartean nagusitzen gizon edo emakume izateko zenbait modu: lehenengoentzako autonomia eta lehiakortasuna, eta bigarrenengoentzako emozioekin eta besteak zaintzarekin zerikusia zuena, hiru rol beteta: ama, emazte eta etxeandrea.

Egiturazko aldaketa horiek gizarte-ideal mota berriak eraiki zituzten. Hala, ama izaera, emakumeen subjektibotasunaren parte dena, subjektu egiten dituen bihurtuko da. Gizonezkoen subjektibotasuna, aldiz, lan egin beharrak eratzen du.

Baina ez dugu pentsatu behar roletan eta genero subjektibotasunean emandako aldaketa horiek berez sortu direnik gizarte-aldaketei bat-batean erantzuteko. Aitzitik, erakunde laguntzarekin osatzen dira. Erakunde horien artean daude hezkuntza erakundeak, genero ezberdintasunak

eratzera eta mantentzera zuzendutako sistemak ezartzen dituztenak -batzuetan berariaz eta beste batzuetan ezkutuan-, ezarritako hierarkia eta botereari eusteko eta zilegitasuna emateko. Horrela, esaterako, berdintasunean hezte², alegia, hezkuntzatik «berdintasuna» sustatzea gizarte osoak gizon eta emakumeentzako aukera-desberdintasuna praktikatzeko duenean, emakumezkoak boteretik aldentzea ekartzen du. Horixe lortzen dute, noski, rol tradizionalak inposatzen dituzten hezkuntza sistemek.

Arestian azaldutakoaren arabera, gizarte aldaketan bidez, aldaketa horiek gizon eta emakume identitateak eraldatzen dituzten heinean, hierarkiaren nozioa indartu egiten da eta uneko botere-suek (erlijio, ekonomia eta politika arlokoek) edukiz hornitzen dute eta izaera naturala ematen diote, berdintasun ezean oinarritutako ordena eta egiturak legezko bihurtuz. Era berean, generoen izaera naturala eztabaidatzeak statu quo kolokan jartzea ere badakar. Horrela, ondoriozta liteke genero indarkeria genero maskulinoak emakumeak menderatu eta ezarritako ordena sozialari eusteko darabilen gizarte praktika dela.

5. GENERO ROLAK IKASTEA

Genero ezberdintasunen osagaiak ikusi ondoren, genero-ereduak nork bere egitean gertatzen diren prozesu psikologikoei helduko diegu puntu honetan.

Oinarritzko premisaren arabera, giza jokabidea batez ere ikusitakoaren ondorioz sortutako ereduak eraikita ikasten da. Hau da, gainerakoak behatuz osatzen ditugu jokabide arauak, eta kodetutako informazio hori etorkizuneko jardun-gida bihurtzen da. Askotan ereduak ez dira agerikoak, sinboloak dira edota hitz eta irudi bidez deskribatu daitezkeen jokabideak. Kasu horietan, behatzen duenak bere gertuko ingurua gainditzen duten balio, jarrera eta pentsamolde eta jokabide ereduak ikas ditzake.

Genero rolaren garapenari dagokionez, teoriarik, eredu anitzak eraikitzea da generoa sozializatzeko prozesuen oinarritzko mekanismoa. Haurrak beren genero identitate zentzua garatzen hasten dira jaiotzen direnetik, dagozkien gizarte ohitura sistemek darabilten sexua/generoa tipifikazioa eredu hartuta. Ikaskuntza prozesu horren zati handi bat gurasoekin edo estereotipoen araberako jostailuekin jolasean ari direnean jasotako eraginak zehazten du. Beste zati bat haien parekoen eraginagatik osatzen da, genero bakoitzarentzat egokiak diren jarrerak saritu eta zigortu egiten baitituzte. Azken zatia helduen interesen eta helburu profesionalen eraginez zehazten da. Kontuan izan behar da guraso gehienek beren kulturako genero-rolak onartu, irakatsi eta birmoldatu egiten dituztela eta kultura arauak gizonezkoentzako aukera profesional gehiago sustatzeko lagungarri direla.

Eredua osatzerakoan parte hartzen duten prozesuak kontuan izanik, teoriak bereizi egiten ditu genero jokabide tipikoak eskuratzea eta horiek berez gauzatzea. Bi sexu eredutan oinarritutako ikaskuntza izan arren, zigor sozialen bidez generoari dagokion bezala jokatu beharra arautzen da. Zigorrak negatiboagoak dira gizonezkoentzat, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko estatus eta botere ezberdintasunak direla eta. Haurrak jokabide arauak bereganatzen hasten direnean ingurunearen eskakizunen eta ikusitako jokaera ereduaren arabera, genero jokabide tipikoaren zati handi bat barne irizpideek eta norberaren jokabidearen autoebaluazioak arautuko dute. Horrela, beren generoaren berezko jokabideak gauzatzen dituzte -beren buruekin harro sentitzen dira horregatik- eta beren irizpideen aurka daudenak arbuia egiten dituzte.

2. Gauza bera esan daiteke, besteak beste, justiziaz, lanaz, osasunaz eta abarrez.

Dagokion generoa modelatzeak ezagutza gaitasunak baliatzea eskatzen du, besteak beste, gizon-
nezkoak eta emakumezkoak talde desberdinetan sailkatzea, eredu talde batekin edo beste ba-
tekin antzekotasunak dituztela aitortzea eta jokaera gidatzeko erabili behar diren talde-jokabide
ereduak zeintzuk diren gogoratzea. Pertsona bat gizon edo emakume gisa sailkatzen denean,
bere genero ikuspegiak zehazten duenaren antzera garatzen du gaitasun oro. Gizarte erreali-
tateek etengabe eragiten dute gizon eta emakumeen gizarte jokabideetan, eta horiek dira, hain
zuzen, genero-ezaugarriak taxutuko dituztenak.

Esan liteke genero rola modelatzea dimentsio anitzeko jokabide arauak gidatzen duten prozesu
oso konplexua dela. Prozesua berbera den arren, hain estereotipatuak ez dauden edukiek hau-
rren helburu eta aukerak handitu eta estereotipo gutxiagoko jokaerak sortzen dituzte. Horiek
ingurunean eragina dute, baita nork bere buruari buruz duen irudian ere.

Azpimarratu beharra dugu ereduak islatzen dutela gizarte batean zeri esaten zaion «normala»
eta naturaltzat hartzen dena. Mendebaldeko gizarteetan, generoari dagokionez, (jokabide-arau
egokiez gain) gizonak eta emakumeak oso ezberdinak direla ikasten da.

6. HOMOFOBIA KULTURALA ETA MASKULINOTASUNA ERAIKITZEA

Hainbat azterlanek nabarmendu dutenez, gizon identitatea eraikitzeke prozesu psikologikoa,
funtsean, «femeninotasunetik aldendu» behar horretan oinarrituta dago. Mesede egiten dio horri
gure gizarteak egituratzen duten faktoretako batek, alegia, homofobiak. Horren adierazle da aitek
itxura edo joera homosexualeko semeak edukitzeari dioten beldurra.

«Gizon identitate tradizionala aldi berean gertatzen diren bi prozesu psikologiko osagarri-
tan oinarrituta eraikitzen da. Kanpo niaren hipergarapena (egitea, lortzea, jardutea) eta emozioen
esferaren errepresioa dira bi prozesu horiek. Bi prozesu horien orekari eutsi ahal izateko, gizo-
nezkoak autokontrola izan behar du beti min, tristura, gozamen, beldur eta maitasun sentimen-
duak kanporatzea neurtzeko».

Hortaz, ezinbestekoa da homofobia kulturalari buruz sakon hausnar egitea uler ditzagun zeintzuk
diren genero indarkeriaren oinarri soziokulturalak eta nola islatzen diren hurkoekin harreman-
tan jartzean gizon-
ezkoek duten jarrera eta jokabideetan, kriminal gisa tipifikatutako jokabideak
eragin baititzakete.

Borrillok dioen bezala: «Sexu bereko gizabanakoak desiratzen dituztenekiko edo horiekin sexu
harremanak dituztenekiko etsaitasun orokor, psikologiko eta sozial gisa defini daiteke homof-
bia. Homofobiak, sexismoak har ditzakeen aurpegietako batek, arbuia egiten ditu egokitu zaien
sexu biologikoaren araberrako rolaekin konformatzen ez diren guztiak. Sexualitate modu bat
(heteroa) bestearen (homoaren) kaltetan lehenesten duen ideologia da homofobia, sexualitateak
hierarkizatu eta sailkapen horren araberrako erabaki politikoak hartzen dituenak».

Judu-kristautasun kulturak babestuta eta teoria pseudozientifikoetan oinarrituta, genero zein
sexualitate paradigma nagusia jarraitzen ez dutenak baztertu eta estigmatizatzen ikasi behar du
albait lehen gizon-
ezkoak, kultura heterozentrista eta misoginoaren kide izango bada.

Homofobia gizarte harremanak eraikitzeke oinarri bihurtzen duen prozesu psikologikoa haurtzaroan hasten da, hain zuzen, jokabide maskulinoari dagokion estereotipotik aldentzeak inguruko artean eragiten duen aztoramendua haurrak nabaritzen duenean. Inguruko jarreraren eta bigarren mailako inguruetan ikusitakoaren bidez jakin ohi du haurrak baztertua edo zigortua ez izateko gauzarik garrantzitsuenetako bat bi inguru horien genero ikuspegietara moldatzea dela. Kultura agindu horiek erakundeek (hezkuntza, erlijio, aisia arlokoek) transmititzen eta indartzen dituzte eta iruditeria kolektiboan boterea adierazten duten erakundeek legezkotu egiten dituzte. «Ez izan maritxua» edo «neskatoa dirudizu» bezalako mezuen bidez zakartasuna eta emoziorik ez azaleratzea oinarri dituen gizentasuna egituratzen dute eta hierarkia misoginoak eratzen dituzte.

«Maskulinitasunean autoformatzeko» prozesuek bizitzan zehar jarraitzen dute, gizonek gainerrakoen begiradapean etengabeko azterketa bat gainditu beharko balute bezala. Indarkeriaz jardutean beren gizentasuna zalantzan ez jartzea bermatzen dute. Gizonezko nerabeek nozitzen dute batez ere begirada zentzatsaile horren tortura. Hala, homofobia kulturalaren ahotsak isilarazteko modurik eraginkorrena oldartzea dela ikasten dute (beste era batera esanda, indarkeriaz jardutea «benetako» gizonak direla erakusteko bidea da).

Gizonezkoen indarkeriaren sorreran, beraz, homofobian oinarritutako gizarte presioak duen eragina arretaz aztertu behar da. Baina baita kultura patriarkaleko maskulinitasun tradizionalaren beste edozein adierazpen ulertzeko ere. Esaterako, gizon heterosexualen populazioari buruzko azterlan psikiatrikoek agerian utzi dute homofobia eta gizonezkoen artean harreman hurbilak izateko ezintasuna erlazionatuta daudela.

Gure kulturaren, maskulinitasuna eraikitzea arrisku-faktore bat da, ez bakarrik gizonezkoen osasun eta segurtasunerako, baita emakumezkoen eta gizonezkoen segurtasuna kolokan jartzen duen botere-desoreka dakarrelako ere. Kontuan hartzen badugu maskulinitasuna eraikitzea eta ideologia homofobia lotuta daudela, bistakoa da genero arteko ekitatea sustatzera, gizonezkoen indarkeria prebenitzera eta maskulinitasun forma berriak eraikitzea bideratutako prebentzio proposamenek ezin dutela alde batera utzi sinesmen sistema homofobikoa -kultura patriarkalaren egituratzaile nagusia- aldatzeko helburua.

7. KRIMINALITATEA ETA GENEROA

Bizi dugun gizartearen isla da kriminalitatea. Gure gizarte patriarkalean, ezin dira aztertu gabe utzi genero aldagaiak (zehaztu dugun bezala) eta gizon identitatea eratzeke moduak, kriminologiaren oinarritzko galderei erantzun ahal izateke funtsezkoak baitira. Lehenik eta behin, teoria esentzialista zaharren gaineko begirada kritikoa eratu beharra dago, (Lombrosoz gerortik) jokabide kriminala gizonezkoen edo emakumezkoen alderdi naturalak omen direnekin lotzeari ekin baitiote. Hala, gizonak berez direla oldarkorrek diote, eta emakumeak, aldiz, pasiboak. Era berean, gizonezkoak espazio publikoetan emakumezkoak baino gehiago daudenez delituak egiteko bulkada errazago etor dakiekeela dioten uste psikosozialei erreparatu behar zaie, baita soziobiologoei ere, jokabide kriminala arrazoi genetikoaren ondorio dela frogatzen saiatzen ari baitira. Arazoa faktore «naturaletara» mugatu nahi dutenek, honako baieztapen harrigarri hauek egi dituzte:

«**Biokimika** ikerketei dagokienez, honako hauek aipa ditzakegu: Hipergluzemia delituaren sorburu gisa. Hipergluzemiak suminkortasuna eragiten du, suminkortasunak oldarkortasuna,


eta horrek delituak egiteko bide ematen du. Hipergluzemia pankreak lan gehiegi egiten duenean gertatzen da; odoleko azukre maila igo eta suminkortasuna agertzen da».

Ikus daitekeen bezala, jokabide kriminalaren arrazoiak faktore «naturaletara» mugatzeko saiakerak ez dute azkenik.


Genero ikuspegia aintzat hartuz gero, ez ditugu arrazoi «naturalei» buruzko galderak egiten. Aitzitik, gizon subjektibotasuna eraiki den modua eta prozesu horrek munduko kriminalitate estatistikek azaltzen dutenarekin zer lotura duen jakin nahi dugu. Patriarkatuak ezaugarri zurrun eta aldaezinen bidez zehaztu du gizon rola, gure kulturen ikusi izan den bezalaxe: ahalguztiduna, zakarra, hotza, sentimenduak ezkututzen dituena, liderra, segurua, hutsik egiten ez duena, menderatzailea, autoritarioa, gainetik dagoena, oldarkorra, adoretua, handinahia, naturaltasuna falta duena, sendoa, langilea, aktiboa, zuhurra, konkistatzailea, hornitzailea, maskulinoa, gudarria, patriarkala, sexu bildumagilea. Adjektibo horiek maskulinitasunaren zenbait betebeharren ondorio dira eta, lehen aipatu bezala, bizitzan zehar ikasten dira. Baina, horrek ez du esan nahi gizon guztiak, gizon izate hutsagatik, kriminal bihurtuko direnik. Kriminalitatearen eta genero maskulinoaren sozializazioaren artean dagoen erlazioaz galdetzen diogu geure buruari, baina ez dugu adiera bakarreko eta ñabardurarik gabeko kausa-erlaziorik zehaztu nahi.

Horretarako, genero osagaia bistaritzen duten kriminalitate-estatistikak egitea da lehenengo urratsa. Augusto Cotto El Salvadorko Polizia Nazional Zibilaren Idazkari Nagusi eta «¿La criminalidad es masculina?» liburuaren egileak dienez beharrezkoa da «segurtasun publikoaz arduratzen diren instantziak eta ikertzaileak ohar daitezen bi sexuen sozializazioak gizarte modernoko delitugintzari zein neurritan eragiten dion».


Hainbat herrialdeko estatistikak kontsultatu ditugu, eta bildutako datuen batez bestekoa atera ondoren, jarraian agertzen diren taulak egin ditugu. Taulek helburu didaktikoa dute, eta geroxeago aztertuko ditugu:



1. taula: Sexuaren araberako biktima kopurua, delitu motaren arabera



2. taula: Giza hilketa/feminizidioaren eta lesio larrien biktimak



3. taula: Giza hilketa/feminizidioengatik eta lesio larriengatik inputatutakoak

1. taulan ageri denez, sexu-indarkeriarekin lotutako delituetakoak salbu, gizonezkoak izan ohi dira giza hilketen eta lesioen biktimak. Azkeneko kategorian horiek sexuen arabera antolatzen ditugunean (2. eta 3. taulak) delitu horien % 94 gizonezkoek eginak direla ageri da. Aurreko tauletan gizonen presentzia handia da, eta, hori aztertzeko, lan honen hasieran garatu ditugun elementu kontzeptualak hartu behar ditugu kontuan. Izan ere, errealitatea deskribatzea ez da nahikoa, azaltzen saiatu behar gara.

Gizonezkoen indarkeria, lehen aipatu dugun bezala, gizon identitate tradizionalaren eraikuntza prozesuan sustraituta dago. Litekeena da indarkeriaz jokatzeko duen gizonak haurtzaroan ikasi izana gatazkak modu horretan konpontzen. Ingurunearen eskakizunak jasan ezin dituztenean, eskakizunen sorburua alaitzen deuseztatu beharra dauka. Ikasi duenez, indarkeria da tentsioa arintzeko modurik azkar eta eraginkorrena. Gizon identitate tradizionala aldi bereko bi prozesu psikologi osagarritan oinarrituta eraikitzen da. Kanpo niaren hipergarapena (egitea, lortzea, jardutea) eta emozioen esferaren errepresioa dira bi prozesu horiek. Bi prozesu horien orekari eutsi ahal izateko, gizonezkoak min, tristura, gozamen, beldur eta maitasun sentimenduak azaleratzea neurtzeko autokontrola izan behar du beti, gizon identitatea izan nahi badu. Gizon oldarkorrek ez dituzte emozioak adierazten, autoestima baxua eta sentimenduak ahoz adierazteko gaitasun txikia du, ez du bere burua ezagutu nahi eta erantzukizuna edo errua ez ditu aitortu nahi izaten.

Indarkeria erabiltzeko joera duen gizonak errealitatea zurrin eta egituratuta ikusten du. Bere ideiak itxiak dira, berrikusteko aukera erreala gutxiago. Gainerako pertsonak «probokazioan» ari zaizkiola iruditzen zaio: pertsona horien jarreraren xehetasun txiki bakoitza behatzeko leiar handitzaile moduko bat du. Aldiz, bere burua, sentipenak eta sentimenduak behatzea ezin zailagoa egiten zaio, eta, beraz, beldurra eta amorrua nahasi egiten ditu, segurtasun eza eta hira bezala. Bere jarreraren ondorioak txikiagotu egiten ditu eta hori «eragiten» duten estimuluen pertzepzioa handitu egiten zaio. Gizartean onartuta dauden emozioak adierazteko eta deskargatzeko bideak ez dituzte, horiek hira eta etsakeria bihurtzen zaizkio. Bere buruaren aurka egiten du hala (zenbait sintoma fisiologiko eta psikologiko ditu), baina baita gainerako gizon eta emakumeen aurka ere. Gizonezkoen indarkeriaren hiru helburu horiei egiten die erreferentzia Michael Kaufmanek gizonezkoen indarkeriaren hirutasuna kontzeptua nabarmentzen duenean. Egile horrek lehen mailako harremanen analisisan oinarritutako azalpena ematen du. Hala dio:

«Genero identitatea eskuratzeko oinarriaren bigarren faktorea aita-irudiei atxikimendu handia izatea da. Lehenengo urteetan, ondorengoetan bezalaxe, era inkontzientean nor bere

egiten ditu maite dituenen itxurazko ezaugarriak (edo horien kontra egiten du) eta nortasuna eraikitzeke baliatzen ditu. Barneratze prozesu hori zenbait gizarte ingurunetan ematen den hautaketa-prozesua da. **Gertueneko ingurunea familia da. Familia klase-kokapenerako eragile sendoa eta genero desberdintasuna sortzeko eta transmititzeko mekanismo eraginkorra da.** Familiak gizarte osoaren genero hierarkia-sistema islatzen, erreproduzitzen eta birsortzen du. Gurasoekiko sentimenduek eta boterearen auziak berehala hartzen dute esanahi soziala. Mutiko bat indargabe sentitu daiteke, baina etorkizun oparoa du zain, heldua izango denean pribilegioak eta boterea izango baititu. **Identifikazioa handia bada, alegia, nortasuna batez ere aitaren irudira eraiki badu, edota gizonezkoen irudira behintzat, senti dezakeen indar eta segurtasun gabe-tasuna arindu egiten dira.** Gizontasunaren eta maskulinitasunaren artean tentsio handia dago, maskulinitasunak behar, sentimendu eta giza-adierazpen modu ugari zapaltzea eskatzen baitu. Gizontasunaren eta maskulinitasunaren arteko ezberdintasunaz maila intelektualean kontziente garen arren, **ideal maskulinoa hain finkatua dugu, non zaila egiten baita izan nahi genukeena eta benetan garena bereiztea».**

Bestalde, helduen boterearen gehiegikeriaren biktima izan diren seme-alabek zaurgarritasun eta ezintasun sentimenduak pilatzen dituzte, gerora, helduaroan izan ditzaketen harremanetan ager daitezkeenak. Gizonezkoen genero rola sozializatzeko, ordea, ezintasuna eta zaurgarritasuna onartu ezin diren sentimendu eta jokabideak direla irakasten die gizonezkoek. Ondorioz, botereak asko kezkatu ohi ditu, ez dira emakumez fio eta intimitateak asko larritzen ditu. Hortaz, kontrol maskulinoa galtzeko arriskuan daudela edo intimitate gehiegi azaldu dutela sentitzean, neurritz kanpo asaldatu eta kezkatuko dira.

Kultura agindu horiek erakundeek (hezkuntza, erlijio, aisia arlokoek) transmititzen eta indartzen dituzte eta iruditeria kolektiboan boterea adierazten duten erakundeek legezkatu egiten dituzte. «Maskulinitasunean autoformatzeko» prozesuek bizitzan zehar jarraitzen dute, gizonek gainera-rakoen begiradapean etengabeko azterketa bat gaintitu beharko balute bezala. Indarkeria ba-laitzean beren gizontasuna zalantzan ez jartzea bermatzen dute. Gizonezko nerabeek nozitzen dute batez ere begirada zentzatzaila horren tortura. Hala, homofobia kulturalaren ahotsak isi-larazteko modurik eraginkorrena oldartzea dela ikasten dute. Gizonezko nerabeek, oldartzean, batik bat, boterea eta gizontasuna azaldu nahi dute.

Gizon identitate tradizionala eraikitzeke prozesuan jarrera kriminalei lotzen zaizkien bi faktore daude: **beren zaurgarritasuna ukatzea eta enpatia gaitasuna bereganatzeko defizita.**

· Kultura patriarkalaren arabera, gizonezkoak dira «indartsuenak» baita «hotzenak eta arrazionalenak» ere. Horrek esan nahi du haurrek txiki-txikitatik ikasten dutela arriskuen au-rrean beldurrik ez agertzen. Filmetako heroiek arrisku guztiei egiten diete aurre beldurrik azaldu gabe, eta irabazleak oztopo guztiak gaintitzen dituztenak dira, horretarako indarke-ria modu asko erabili behar badute. Filmetako heroien antzera jokatzeko, gizonezkoek **beren zaurgarritasuna ukatu** egin behar dute. Horrek azaltzen du bide-istripuen estatistiketan gizo-nezkoak nagusi izatea. Ez dute arriskua antzematen edo arindu egiten dute, beren bizitza arris-kuan jartzeko adina. Zigor penala duten jokabideak gauzatzean, mekanismoa errepikatu egiten da: zigorrik jaso gabe boterea gehiegikeriaz erabiltzea ohituta dauden gizonek, beren zaurga-rritasuna ukatzeko, honako ñabardura darabilte: delitu bat edo bestea egiten badute ez zaie ezer gertatuko (jakin badakiten arren delitu hori zigor kodeetan jasota dagoela). Gizonezkoen ahalguztidun sentipena nagusitzen da, ekintzen ondorioak ezagutzea baino sentipen indart-suagoa delako. Mekanismo hori ez dute soilik delitu egintzak gauzatzen dituztenek erabiltzen, askotan, beste aldean daudenek ere baliatzen baitituzte, alegia, legea betearazteko betebeh-rra duten polizia gizonek. Polizia gizonek ere bere egiten dute egintza kriminal bat zapuzteko pistola eskuan duela agertzen den heroia- ren irudia, eta askotan ez dute aski neurtzen haiek eta beren lankideek duten arriskua, hain zuzen ere, zaurgarritasuna ukatzeko mekanismo hain maskulino hori dela eta.

· Aintzat hartu beharreko beste faktorea enpatia gaitasuna bereganatzeko defizita da, kultura patriarkalean horixe baita gizona gizon egiten duena. Enpatia, hain zuzen, hurkoaren tokian jartzeko, hitz egin aurretik entzuteko, hurkoen sentimenduak hautemateko eta norberaren jokabideak besteengan duen eragina jakiteko ahalmena dela esaten da. Pertsonen arteko harremanak berdintasunean eta ezberdintasunen errespetuan arautzeko oinarritzeko ahalmena da. Ahalmen hori nola eskuratzen den aztertzean, garapenaren hastapenetara jo beharra dugu, alegia, haurrak beste pertsona batzuk existitzen direla jakiten hasten diren aldiari erreparatu behar diogu. Garai horretan ematen da generoan oinarritutako erabateko zatiketa. Neskek zaintzarekin eta sentimenduekin zerikusia duten jardueretara bultzatzen dituzte eta mutilak, ordea, ekintzara, lehiara eta emaitzak bilatzera. Izan ere, neskei panpinak edo izaki bizidunak irudikatzen dituzten beste jostailu batzuk (esaterako, pelutxeak) ematen dizkietenean, izaki bizidun horien sentimenduak era sinbolikoan ulertzeko jolasari ekiten diote. Neskek esan ohi dituzte «nire panpina gose da, jaten emango diot», «nire pelutxea aspertuta dago, paseatzera aterako dut» eta horrelakoak. Jolas horiek hurkoaren larruan jartzeko, emozioak eta beharrak hautemateko eta horiei erantzuteko ahalmena garatzen dute. Horrexegatik bereganatzen dute neskek hain goiz **enpatia gaitasuna**, hain zuzen ere, gero, bizitzan zehar sendoagotuko dutena. Aldiz, mutilei baloiak edo jostailu mekanikoak (besteak beste, autoak, hegazkinak eta trenak) ematen dizkietenean, mugitzeko eta ingurune espazialean trebetasunez moldatzeko gaitasunak gara ditzatela lortu nahi da. Ez baloiek, ez autoek, ez eta «maskulino» deitu izan diren beste jostailu batzuek ere ez dute emozioak lantzea eskatzen, ez baitute emoziorik. Horrek esan nahi du izatez humanoa (ez maskulinoa ez femeninoa) den gaitasunaren, alegia, enpatia gaitasunaren defizitarekin hezten direla gizonezkoak. Analfabetismo emozional horretan datza indarkeriazko jokabide askoren oinarria, alegia, hurkoengan duten eragina ez hautemate horretan. Jakina, sadismo kasuak salbu (estatistikoki ez dira adierazgarriak), gizonezkoen krudelkeria-egintza gehienak besteen mina ulertzeko ezintasunaren eta sozializazio tradizionalak eragin dien enpatia garatzeko defizitaren bidez azal daitezke.

8. PREBENITU AL DAITEKE GIZONEZKOEN INDARKERIA?

Indarkeria murrizteko esku-hartzeei buruzko politiken inguruko hainbat ikuspegi:

a. **Lehen mailako prebentzioa** biztanleek duten arazo baten intzidentzia tasa murrizteko ahalegina da. Aldez aurretik antzemandako arazoa eragiten duten arrazoien aurka jotzen da, beti ere, arazoa gertatu aurretik. Helburua da arazoa sortzeko aukerak murriztea. Ahaleginak, beraz, bi arlotan egiten dira: arrisku-ingurua aldatzen eta pertsonak arazoari aurre egiteko duen trebetasuna indartzen.

b. **Bigarren mailako prebentzioa** arazo baten prebalentzia tasa (hain zuzen ere, dagoen kasu kopurua) murrizteko ahalegina da. Arazoa lehenbailehen identifikatzera eta esku-hartze azkar eta eraginkorrera bideratzen dira indarrak

c. **Hirugarren mailako prebentzioa** arazo baten eraginak edo aztarnak murrizteko eta berrerritzeak edo errebidibak saihesteko egiten da. Arazoa izan dutenentzat errehabilitazio eta errekuperazio programak eskaintzera bideratzen dira ahaleginak.

Kriminalitatearen arazoari dagokionez, nazioarteko hainbat erakundek herritarren-segurtasun kontzeptuan oinarritutako proposamenak egin dituzte. Baina, horiek guztiek baztertu egiten dute genero aldagaia herritarren segurtasuna kaltetu dezaketen jokabideak eragiteko arrisku faktorea denik. Ikus dezagun, esaterako, hurrengo taula. Taula honetan indarkeria murrizteko gomendatzen diren politikak laburbiltzen ditu Garapenerako Banku Interamerikarrak:

2. taula: Indarkeria murrizteko esku-hartzeei buruzko politiken inguruko hainbat ikuspegi

Ikuspegia	Helburua	Indarkeria mota	Aztertutako kausa mailak	Esku hartze politikak edo planak	Mugapenak
Justizia penala	Indarkeria gaitzestea eta kontrolatzea atxiloteta, kondena eta zigor larrien kopurua handituta	Ekonomikoa	Norbanakoa Erakundeak	Sistema judizial, penal eta poliziala eta horiekin zerikusia duten erakundeak goitik behera sendotzea	Zati batean baino ezin zaio aplikatu indarkeria politikoari nahiz sozialari. Legea betetzean datza horren arrakasta
Osasun publikoa	Indarkeria prebenitzea, norberaren arrisku-faktoreak murriztuta	Ekonomikoa Soziala	Norbanakoa Pertsonen artekoa	Goitik beherako monitorizazioa; arrisku-faktoreak identifikatzea; esku-hartze arrakastatsua antzeratzea	Norbanakoengan indarra jartzea; sarritan goitik behera inposatzen da; monitorizazio-datuen kalitateak eragin handia du; adierazleak mugatuak dira
Gatazka eraldatzea	Gatazka indarkeria gabe konpontzea, alegia, etsaitutako aldean negoziazioaren bidez	Politikoa Soziala	Pertsonen artekoa Erakundeak Egiturazkoa	Eragile sozialen arteko negoziazioa bultzatzea gatazka ahultzeko, sarri, hirugarrenen laguntzaz. Goitik beherakoa edo behetik gorakoa	Epe luzerako eragina du; zailena aldeak prozesuari ekiteko eta bitartekaritza onartzeko ados jartzea da
Giza eskubideak	Giza eskubideekin zerikusia duten legeak aplikatzea, eta Estatuaren eta bestelako eragile sozialen gehiegikerien dokumentazioa	Politikoa Soziala	Norbanakoa Egiturazkoa	Legearen aplikazio goitik beherakoa, herritarren parte hartzeak eta GKEen lanak bultzatutako behetik gorako sistemak indartuta	Anarkia, ustelkeria eta zigorgabetasun ingurune batean aplikatzeko zaila den esparru lege-gilea; gehiegikerien dokumentazioa lortzea sarritan arriskutsua da
Kapital soziala	Kapital soziala metatzea gizarte erakunde formal nahiz informalen (familia, elkarteak eta botere judiziala) indarkeria murriztu dadin	Politikoa Ekonomikoa Soziala	Pertsonen artekoa Erakundekoa Egiturazkoa	Indarkeriaren ebaluazio parte hartzaile goitik beherakoa; erakundeen lankidetzaz aurre egiteko; komunitateak parte hartzea indarkeria murriztera bideratutako neurrietan	Gainerako ikuspegia baino gutxiago landu da; adierazle gutxiago ditu esparru honek

Ikus daitekeen bezala, ikuspegietako batek ere ez ditu aintzat hartzen ez genero aldagaia ez aztertu ditugun estatistikak, hain zuzen ere, gizartearen kontrako jokabideak garatzeko arriskua duen populazioa, alegia, gizonezkoen populazioa argi eta garbi identifikatzen dituztenak.

Hortaz, ikuspuntu hori prebentzio ekintzek bere egin dezatela nahi badugu, prebentzio maila guztiek barne hartu beharko lituzkete gizonezkoen zuzendutako programa espezifikokoak. Maskulinitasun forma berriak sustatzea litzateke epe luzeagorako helburua. Maskulinitasun forma berri horiek emakumei eman izan zaizkien trebetasun eta gaitasunak (esaterako, enpatia gaitasuna, zaintza gaitasuna, emozioak adierazteko gaitasuna eta genero arteko berdintasunezko harremanak garatzea) modu aktiboan barne hartu beharko lituzkete.

Lehen mailako prebentzioaren ikuspuntutik, gizonen belaunaldi berriei zuzendutako **indarkeria ezarako heziketa** aipa genezake. Kontuan izanik genero aldagaia faktore garrantzitsua dela indarkeriaren eta kriminalitatearen arazoan, sexista ez den heziketa eredu bat diseinatzea funtsezkoa litzakete.

Generoari dagozkion estereotipo kulturalak malgutzea ahalbidetuko luke eta, aldi berean, pertsonen arteko liskarrak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak ikastea sartuko luke heziketa formalaren curriculumean. Gainera, enpatia gaitasuna garatzea sustatuko lieke gizonei, eta, horretarako, lankidetzeta, zaintza eta erantzunkidetasun jarrerak garatzea bultzatuko luke.

Gizonezkoen zehazki zuzendutako prebentzio estrategien adierazle da gizon identitatearen eraikuntza prozesuaren eta ideologia homofoboaren artean dagoen lotura estua. Bistakoa da genero arteko ekitatea sustatzera, gizonezkoen indarkeria prebenitzera eta maskulinitasun forma berriak eraikitzen bideratutako prebentzio proposamenek ezin dutela alde batera utzi sinesmen sistema homofobikoa -kultura patriarkalaren egituratzaile nagusia- aldatzeko helburua.

Behin generoarekin lotutako arrisku faktoreak ingurunetan zein norbanakoengan indarkeriaren eta kriminalitatearen arazoak aztertuta zehaztu ondoren, **bigarren mailako prebentzioak** gizonezkoen zuzendutako esku-hartze estrategiak egiten ditu eta horiekin arazoa goiz identifikatzeko baliabideak eta gizarte babes eraginkor eta irisgarria lortuko ditu. Maskulinitasunaren estereotipo tradizionalak gizonei sortzen dizkien desabantailen kontzientziatzeko programak garatzea ekarriko luke horrek.

Baliabide profesionalak eta komunitateko eragileak (hezitzaileak, osasuneko profesionalak, erlijio-pertsonak, poliziak eta agente judizialak) berriz moldatu eta trebatu beharko liriateke arazoa behar den bezala uler dezaten eta genero aldagaia aintzat hartzen duten erantzunak presta dituzten. Gizonezkoen indarkeriari buruz etengabe trebatzeak komunitateko erakundeei (eskolei, ospitaleei, elizari, poliziari, aisialdi erakundeei eta abarrei) arazoa hasierako fasetan detektatzea erraztu egingo die. Garrantzitsua da azpimarratzea lan honi oztopoak jartzen zaizkiola. Oztopo horiek ezer aldatu nahi ez duten sektore profesionalak eta erakundeek jartzen dituzte, eta berrikuntzak ezartzea galarazi.

Azkenik, arazoaren ondorioak murrizteko eta ondorioak errepikatzea saihesteko **hirugarren mailako prebentzioak** ari garenean, osatze eta errehabilitazio programak aipa ditzakegu. Salaketak dituztenentzako edo kartzelan daudenentzako estrategien kasuan, gai honetan esperientzia duten ia herrialde guztietan osasun sistematik kanpoko programa independenteak baliatu ohi dira. Programa horiek sistema judizialarekin koordinatuak egon behar dira baldin eta arrakasta izango badute. Orain arte, horietako gehienek ez dute barne hartzen genero ikuspegia. Hortaz, indarkeriazko egintzei mesede egiten dieten maskulinitasun tradizionalaren ezaugarriak sakonki berrikusteko programak kanpoan gelditzen dira. Egintza kriminalak egin dituzten gizonak sendatzeko programaren oinarrian egon behar luke liskarrak indarkeria gabe konpontzeko ikaskuntza prozesuak, baina baita gizon identitatea osatu den modua eta horren ondorio diren arriskuak erabat deseraikitzeak ere.

Historikoki, «indarkeriarako heziketa» ezaugarritu du gizarte patriarkalaren araberako maskulinitasun estereotipoa eraikitzeak. Hortaz, gizon belaunaldi berrien heziketan egin beharreko aldaketa sakonei buruzko hausnarketa irekita uzteak interes sozial handia izan dezake, **indarkeria ezaren kultura** sustatu eta gizartearen kriminalitate maila murrizteko.



Eusko Jaureritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

GENERO-IKUSPEGIA GARAPENERAKO LANKIDETZA-PROZESUETAN ARI DIREN GIZONEKIN

Mikel Otxotorena Fernández
2009

AURKIBIDEA

1. Sarrera	135
2. Testuingurua	135
3. Maskulinitate hegemonikoa gizakiaren garapen iraunkorraren mugatzaile moduan	139
4. Zergatik lan egin gizonekin ere garapen prozesuetan	141
5. Nola egin lan gizonekin garapen prozesuetan	143
6. Ondorioak	145
7. Bibliografia	148

1. SARRERA

Gizonduz programak prestakuntzaren eta sentsibilizazioaren barruan emango duen proposamen teoriko honen bidez, gizonak garapenerako lankidetzaren prozesuetan genero-ikuspegi batekin kontuan hartzeko beharrari buruz argudiatuko dugu. Kontuan hartu behar dugu Gizonduz gizonen kontzientziak, partaidetza eta inplikazioa sustatzea helburu duen programa dela, emakume eta gizonen artean berdintasuna lortzea xede duena, hain justu. Horixe izango da, horrenbestez, proposamen honen ardatz nagusia.

Ziur gaude gizonak aktiboki hartu behar dutela parte gure gizartearen edozer arlotan berdintasuna lortzeko bada, bai herrialde aberatsetan, bai behartsuetan. Berdintasuna lortzeko, emakumeek eta gizonak aktiboki parte hartu ez ezik, erantzukizunak ere hartu behar dituzte. Genero-ikuspegitik gizonekin lan egin behar zela proposatu genuen, baina ez garapenerako lankidetzaren esparruan bakarrik; gure gizarteetako eremu guztietan ere bai.

Hartarako, ezinbestekoa izango da nondik abiatzen garen, non gauden eta geroari begira zer egin nahi dugun jakitea. Geroago garatuko ditugun zenbat alderdi testuinguruan jartzea garrantzitsua da proposamen teoriko hau hobeto ulertzeko eta kokatzeko.

Espero dugu proposamen honi esker, gizonak ulertuko dutela garapenerako lankidetzaren esparruan berdintasunarekin zerikusia duten gaietan parte hartzea garrantzitsua dela. Izan ere, beste mundu bat posible dela uste dugu.

2. TESTUINGURUA

Gaur egun, genero hitza emakumeekin lotzen dugu oraindik ere, gizonak batik bat. Ondoren izan dezakeen hitza alde batera utzita (genero berdintasuna, genero indarkeria, genero ikuspegia, genero ekitatea...), termino hori automatikoki emakumeari lotzen zaio, femeninoari. Lotura horrek, noski, ondorio positiboak zein negatiboak ditu. Positiboa da hainbat alderdi kontuan hartzen dituelako, duela hamarkada gutxi arte kontuan hartzen ez zirenak baina, feministen eta gaian adituak direnen mugimenduari esker, gaur egun mahai gainean daudenak. Esaterako, sozietate sexistetan eta hegemoniko patriarkaletan dauden aldeak; emakumeek izaten dituzte ondorio okerrenak, emakume izate hutsagatik. Eta alde negatiboak ere baditu. Esaterako, batasun zuzen horren ondorioz, berdintasuna emakumeen ardura bakarrik dela ematen duelako; gizonak aktore soil gisa ikusten dira, emakumeen egoeraren eragile moduan. Ezer gutxi egin daiteke gizonetzkoekin, ikuspegi horren arabera, emakume eta gizonen artean berdintasuna lortzeko. Eta, zerbait egitekotan, sexismoak eragiten dituen ondorioei aurre egiteko neurriak hartzea da aintzat hartzen den aukera bakarra.

Lotura zuzen hori, esan bezala, berdintasunarekin zerikusia duen edozer arlotan egiten da; lanean, hezkuntzan, politikan, kulturen, gizartearen... Eta, nola ez, garapenerako lankidetzaren ez da batasun oker eta faltsu horretatik kanpo geratzen.

Teorian behintzat, tokian tokiko, estatuko eta nazioarteko erakundeak hasi dira kokatzen berdintasunezko gizarte eredu demokratikoago baterantz egindako aldaketaren subjektu aktibo gisa. Eredu horretan, emakumeek eta gizonak eskubide eta betebeharrak izango dituzte eta aukera-berdin-

tasunak emaitza-berdintasuna ekarriko du. Esaterako, El Cairon, 1994. urtean egindako Biztanle eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentzian zehaztu zuten gizonak eta beren erantzukizunak kontuan daudela hartu beharra «sexu- eta ugalketa-osasunari, genero garapenari eta ekiteari buruzko politketan, bai eta seme-alaben hazkuntzari eta etxeko lanei buruzkoetan ere».

Halaber, Beijingen, 1995. urtean egindako Emakumei buruzko IV. Mundu Konferentzian, «gizonak emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzeko diren ekintza guztietan erabat parte hartzera» behartu zituzten.

Bestalde, Emakumeek Aurrera egiteko Nazio Batuen Dibisioaren aditu bileran (Brasilia, 2003), gizonak eta hurrek sexuen berdintasuna lortzeko izan duten rolari buruz gogoeta egin eta eztabaidatu zuten gobernu artean. Hala, 2004. urtean, Nazio Batuetako Emakumearen Egoera Juridikoaren eta Sozialaren Batzordeak New Yorken egindako saioen 48. aldian, nazioartean hitzartutako gai horri buruzko ondorioak atera zituzten.

Nabarmendu zuten gizonak eta hurrek jarrerak alda ditzaketela harremanetan, baliabideak lortzean eta emakumeen eta gizonen artean berdintasuna sustatzeko funtsezkoak diren erabakiak hartzean. Gainera, Batzordeak Gobernuari honako neurri hauek hartzeko eskatu zien, besteak beste:

- Eskolentzako, gazte- eta kirol-erakundeentzako eta hurrekin zein gazteekin lan egiten duten bestelako taldeentzako programak sortzea eta aplikatzea, sexuen arteko berdintasunaren esparruan jarrera positiboak sustatzeko.

- Gurasoentzako, tutorentzako eta bestelako zaintzaileentzako hezkuntza-programak egitea, gizonak hurrek sexuen arteko berdintasunera bideratuta hezteko duten gaitasuna handitzeko bitartekoei eta moduei buruzko informazioa emateko.

- Gizonak parte hartzera adoretzea, beste pertsonak (adinekoak, minusbaliatuak eta gaixoak barne, eta, bereziki, hurrek eta beren kargura dauden senideak) zaintzeari eta haiei laguntza emateari dagokionez.

- Gizonak eta mutikoak indarkeria-mota guztiak prebenitzeko eta ezabatzeko parte-hartze aktiboa izan dezaten adoretzea, bereziki sexu-indarkeriaren esparruari dagokionez (sexu-esploziorako salerosketa barne), eta salerosketa hori jasaten duten emakumeen eta neskatuen demanda ezabatzera bideratutako neurriak gogoan hartzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planak zenbait jarduera ere gomendatzen ditu, berdintasuna bultzatzen duten gizonen lan-taldeak sustatzeko. Horrez gain, gizonentzat berariaz diren jarduerak ere eskatzen ditu, koerantzukizunarekin eta emakumeen aurkako indarkeriarekin zerikusia dutenak hain zuzen (ikusitako Zerbitzu Orokorrak eta Gizarteratzea sailak). Lan-ildo horretan, 2007. urtean, Lehendakariak eta Emakundeak GIZONDUZ¹ ekimena aurkeztu zuten, sarreran aipatu dugun moduan, gizonen kontzientzia, partaidetza eta inplikazioa sustatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan sexuen berdintasuna lortzera bideratuta.

Jarrai genezake aipatzen gizonekin egindako lana beharrezkotzat jotzen duten eta ekintzak proposatu, ekimenak iradoki eta bestelakoak egiten dituzten tokiko, Estatuko eta nazioarteko erakundeak. Baina, nola hasten da lanean garapenerako lankidetzan genero-desberdintasunekin zerikusia duten gaiekin?

Gure asmoa ez da genero-ikuspegiarekin zerikusia duten gaiak garapen proiektu eta prozesuetan nola sartzan diren, hau da, haietan sartzeko estrategiak sakon azaltzea. Argitu behar dugu genero-ikuspegia terminoa 90eko hamarkadan erabiltzen hasi zela, batez ere herrialde behartsuetako nahiz aberatsetako emakume-taldeek egindako lanari, ikerketei eta azterketei esker. Hala ere, termino hori aurretik ere erabili eta aldarrikatu zuten, batez ere feministek.

Baina ezinbestekotzat jotzen dugu, gainera eta gehiegi sakondu gabe bada ere, garapenerako lankidetzak egindako zenbait politika aipatzea. Garaian-garaian garapena eta zer politika erabili era batera edo bestera ulertu zituzten. Hala eta guztiz ere, lehendabiziko estrategia haiek moldatu eta egokitu dituzte ukitu berriekin garai berriagoetan ere. Estrategia horiei begiratzen badiegu, ulertuko dugu zergatik uztartzen diren generoa eta genero-ikuspegia emakumeekin lantzea. Ohartuko gara, halaber, gaur egun ere egoerak berdin jarraitzen duela.

Hasiera batean, Nazio Batuek Garapenaren lehen hamarkada (1961-1979) esan zioten horretan, garapenerako eragileek ez zuten ikusten generoarekin lotutako gaiak emakumeek eta gizonen bizi zuten egoera desberdinarekin zerikusia zutenik. Garapena biztanleen artean oro har bereizkeriarik egin gabe bultzatuz, batzuegan nahiz besteengan ondorioak izango zituela uste zuten. Emakumeak, gizonen lortuko zituzten hobekuntzen hartzaile soil moduan hartzen zituzten. Baina oker zeuden, emakumeen egoera ez zelako hobetu. Gizonen eta emakumeen arteko botere desberdintasunak gizartearen garapenarekin zerikusirik ez zutelako uste zuten.

Gero, nagusitu zen estrategia edo politika berriari ongizatearen ikuspegia esan zioten. Horren arabera, ama edo jagole moduan zuten rolaengatik, hau da, ugaltzeko rolaengatik, nabarmentzen ziren emakumeak. Gizonak, berriz, ekoizle moduan hartzen zituzten. Garai hartan, gainera, garapenerako laguntzak bi helburu hauekin eman ziren: batetik, hazkunde ekonomikoa izateko (gizonei bideratuta); bestetik, guztiz asistentzialista zen emakumeentzako laguntza hori, ahultasun egoeran zeudelako, familiak zaintzea haien esku uzten zelako, industrializazioak bultzatutako garapena ematea itxaroten zuten bitartean. Garapena hazkunde ekonomikoa zela uste zuten, baina okerreko bidetik zihoazela konturatu ziren, ez baitzen halako garapenik gertatu. Hala, ongizatearen ikuspegi horrek laguntza horien mendetasun handia sortu zuen, batez ere emakumeentzat. Eta, aurrekoan bezala, emakume eta gizonen arteko botere-desberdintasunik ez zen inon agertu.

Ongizatearen ikuspegiari esker, emakumeek garapen egokia lortu beharrean, kontrakoa lortu zutelako ikusi zuten. Oro har, emakumeen egoerak okerrera egin zuen. Orduan hasi ziren pentsatzen emakumeek garapen ekonomikoan subjektu ekoizle moduan hartu behar zutelako parte; merkatura sartu behar zirela. Azpigarapenari egotzi zioten emakumeen pobreziaaren errua, genero-mendetasunari egotzi beharrean. Arazoa konpontzen saiatzeko, emakumearen ugaltzeko rola mugatu ziren. Halaxe sortu zen, hain zuzen, Emakumea garapenean (MED) izeneko estrategia. Hirurogeita hamarrek hamarkadan geunden.

Garai hartan, zenbait ikuspegi erabiltzen hasi ziren MED strategiaren barruan. Esaterako, pobreziaaren kontrako ikuspegia, emakume behartsuen produktibitatea sustatzeko asmoa duena. Haren ekoizteko rola onartzen du, eta diru-sarrerak lortzearekin zerikusia duten genero beharrak asetzea du helburu, ekoizpen-prozesu² txikiak abian jarritz.

Laurogeiko hamarkadan indartsu sartu zen beste ikuspegi bat Eraginkortasun ikuspegia da, garapenerako lankidetzaren esparruan. Garai hartan, 70eko hamarkadaren erdialdean, sekulako krisi ekonomikoa bizi izan zen mundu osoan, batez ere Latinoamerikan eta Afrikan. Horrez gain, kanpo-zorra zama handia zen herrialde askotarako. Produktibitatea eta eraginkortasuna hartu zituzten helburu gisa lankidetzaren programa gehienek, horiek bakarrik. Horregatik, biztanleen erdia, hau da, emakumeak, ezin ziren alde batera utzi. Emakumeak hartzaile moduan hartzetik ekoizpenaren partaide moduan hartzera pasatu ziren. Hala ere, emakume eta gizonen arteko botere-desberdintasunak ez zituzten kontuan hartu. Hortaz, batzuen eta besteen beharrak jaso

gabe geratu ziren. Emakumeen behar praktikoak asetzen saiatu ziren, baina emakume-ikuspegitik beti; etxekoandre, ama, langile komunitario moduan... Emakumeen ikuspegi horren ondorio negatiboetako bat, eskulan merke bihurtu zirela izan zen. Horrez gain, zaintzaile eta ugaltzailearen rola garatzen jarraitu zuten, ordainsaririk gabe, eta haien lan-zama bikoiztu egin zen. Hori guztia egokitzapen estruktural garrantzitsuak egin ziren aldian gertatu zen, Munduko Bankuak edota Nazioarteko Diru Funtsak bultzatuta, besteak beste.

Kronologikoki aurrera eginez, 90eko hamarkadan sartuko gara. Herrialde behartsu nahiz aberatsetako talde feminista, aditu eta garapenarekin zerikusia duten erakundeetan lan egiten zuten emakume askoren lanari esker, ikuspegi berria proposatzen hasi ziren. Horren arabera, orain arte kontuan hartu ez ziren emakume eta gizonen arteko botere-desberdintasunak eta emakumeen behar estregikoak kontuan hartzen hasi ziren, behar praktikoak ahaztu gabe. Garapeneko genero-ikuspegiari (GED) buruz ari gara.

Ikuspegi horrek aldaketa nabarmena ekarri zuen, emakume eta gizonen arteko berdintasuna giza eskubidetzat hartzen zuelako. Ekitatea, boterea eta baliabideak lortzea eta haiek kontrolatzea giza garapen iraunkorretik ezin zirela bereizi uste zuten. Hala, ordura arte aztertu gabeko gaiak hasi ziren aztertzen, hala nola: emakumeen egoera gizonen duten posizioarekin, nortasunen paperarekin, sozialki eraikitako rolaekin eta bestelakoekin lotuta dagoela. Hortaz, ikuspegi horrek, ñabarduna analitikoak izateaz gain politikoa ere bazuen. Ikuspegi horren atzetik, garapena ulertzeko beste modu bat zegoen, ordura arte bilatzen ari zenaren ordezkia, eta demokrazian, berdintasunean, ekitatean, justizian eta bestelakoetan oinarritzen zena.

Ikuspegi horren bidez, zenbait termino hasi ziren erabiltzen lankidetzan, hala nola generoa (nahiz eta aurretik ere erabiliz, batez ere feministek) edo jabekuntza, pertsonen beren gaitasunak, konfiantza, ikuspegia eta talde sozial moduan duten protagonismoa indartzen dituzten prozesua, bizi dituzten egoeretan aldaketa positiboak bultzatzeko³. Edozer talde ahuletarako balio badu ere, emakumeekin lotu da batez ere, eta hala jarraitzen du.

Berdintasuna lortzeko emakumeetara bakarrik bideratutako estrategiek (eta ez gizonetara) emaitza ugari lortu dituzte, positiboak. Baina, horren ondorioz, berdintasunarekin zerikusia duten gaiak zuzenean emakumeekin bakarrik lotzen ditugu, eta horixe da alde negatiboetako bat. GED estrategian ere, azaldu dugun moduan, errealitatea aztertzeko beste modu bat ipintzen da mahai gainean; botere eta genero desberdintasunen artean dagoen harremana azaltzen du, baina esfortzu gehienak emakumeekin bakarrik lan egiteko izan dira.

Eta horrekin ez dugu esaten lan hori egin behar ez denik, hau da, emakumeekin lan egin behar ez denik, edo emakumeekin lan egiteko erabiltzen diren baliabideak, esfortzuak eta bestelakoak txikiagotu behar direnik. Guztiz kontrakoa. Genero-desberdintasunak sortzen dituen ondorioak arintzeko eta prebenitzeko emakumeekin egindako lan, funts eta esfortzu guztiak ongi etorriko dira. Horrez gain, funtsak, esfortzuak eta politikak handitu behar dira norabide horretan. Honen bidez proposatzen dugu gizonekin genero-ikuspegiaren inguruan lan egitea berdintasunaren alde lan egitea ere badela. Gizonen berdintasunerako lanean aktiboki parte hartzea beharrezkoa dela, biztanleen erdiak konpromiso hori hartzen ez duten bitartean, bidearen erdia bakarrik eginda baitugu.

Ez da gizonen eta emakumeen «espazioa», funtsak, baliabideak eta bestelakoak lortzeko borrokan aritzeko planteamendua, noizean behin entzuten den moduan. Gizonen berdintasuna lortzeko lan egiteak ekar dezakeen errezeloa ulertzeko modukoa da; izan ere, emakumeek eta gizonen espazioak partekatuta dituzten gehienetan sistema patriarkal, hegemoniko, sexista eta tradizionalak bultzatzen dituen botere harremanen arauak jarraitu baitzaie. Eta, horren guztiaren ondorioz, emakumeek jasan dituzte eta jasango dituzte genero-desberdintasunen ondorio larrienak.

3. MASKULINITATE HEGEMONIKOA GIZA GARAPEN IRAUNKORRAREN MUGATZAILE MODUAN

Lehenik eta behin, gustatuko litzaiguke argitzea giza garapen iraunkorrari buruz hitz egiten dugunean, ez garela nazioarteko garapenak parte hartzen duen eremu geografikoez bakarrik ari. Planeta osoari eta gizarte orori buruz ari gara; garapen hori lortuko badugu, norabide horretan lan egin behar baitugu, hemen nahiz kanpoan, herrialde behartsuetan nahiz aberatsetan. Gauza bera gertatzen da generoari buruz ari garenean, askotan emakumeekin bakarrik lotzen delako. Giza garapen iraunkorrari buruz ari garenean, gure gizarteetan ildo horretan lan egiteko beharrari buruz ari gara.

Giza garapen iraunkorra zer den definitzen hasiko gara.

Garapena, ekitate soziala duen hazkunde ekonomikoaren bidez ulertzen dugu, eta ekoizpen-metodoak eta kontsumo ereduak aldatuz.

Gizakia diogu giza bizitza berez baloratzen duelako, eta, horren ondorioz, pertsona, gizonak eta emakumeak garapenaren funtsezko subjektutzat ditu. Garapen horrek, pertsonak, banaka edo taldeka, giza gaitasun osoa lortzeko bidea eman behar du, bizitzaren arlo guztietan: sozio-ekonomikoan, kulturean eta politikoan, behar guztiak asetzeko edo haien kontra borrokatzeko, haietan, komunitateetan eta herrialdeetan aldaketak lortzeko.

Iraunkortzat hartzen dugu orainaren beharrak asetzen dituen garapena, etorkizuneko belaunaldiak beren beharrak asetzeko izan dezaketen gaitasunari kalterik egin gabe (Ingurumen eta Garapeneko Munduko Batzordea, 1987).

Kontzeptu hori PNUDen lanaren oinarritzko elementutzat hartu zuten 1994. urtean. PNUDen arabera, ez du ekartzen edo iradokitzen baldintzatzaileak; garapenerako lankidetzaren ikuspegi indartua ekartzen du, herrialde aberats eta behartsu guztietan aplikatu daitezkeen helburu orokorra da.

Kontzeptua Nazio Batuen Gutunean dago jasota, eta Nazio Batuen babesari esker lortutako nazioarteko akordio ugari indartu zen. Barne hartzen ditu 1992ko Lurraren Goi Bileran eta Kairon Biztanleei eta Garapenari buruz egindako Konferentzian (1994) hartutako akordioak.

Kontzeptu horrek, pertsona bere aldaketan subjektu moduan hartzen du, eta horrek garapenaren izaera hegemonikoa eta haren aurreko ereduak kritikatzeko aukera ekartzen du. Horrez gain, haren aurka ere egiten du. **(González Arencibia, M. 2006)⁴**.

Horren ondorioz, gaiaren iruzkin partzial batek adierazten du 90eko hamarkadan giza garapen iraunkorrari buruz zegoen pentsamoldea denboran eta espazioan egon diren arazoei aurre egiteko esfortzuen laburpen teorikoa baino ez dela izan. Halaber, «giza garapen iraunkorra» kalifikatzailea naturan gainditu dela erakusten du.

Definizio zabal horretatik abiatuz, Giza Garapen Iraunkor hori lortzeko eragozpenetako bat sexismoak sortutako desberdintasuna da, baita haren adierazle nagusia ere: maskulinitate hegemonikoa. Ez da lortuko garapen hori sozietate bakarrean ere, sexismoak gure edozein gizartean erroturik jarraitzen duen bitartean.

4. González Arencibia, M.: (2006) Una gráfica de la Teoría del Desarrollo. Del crecimiento al desarrollo humano sostenible, Edizio elektronikoa. Testu osoa www.eumed.net/libros/2006a/mga-des helbidean.

Maskulinitate hegemoniko patriarkalak emakumeak zein gizonak mugatzen ditu. Batzuegan eta besteengan duen eragina ezin da alderatu, baina errealitate hori ez dugu baztertu behar. Maskulinitate hegemonikoa badago, mendeko maskulinitateek ere egon beharko dute. Mendeko maskulinitate horiek, izenak ongi adierazten duen moduan, maskulinitate hegemonikoaren zamaren azpian daude.

Maskulinitate hegemonikoak eskubide eta erantzukizun osoko subjektu moduan mugatzen gaitu gizonok, munduko edozer tokitan. Gizon guztiok mundu osoan dugun zerbaite da. Eskubideei buruz ari garenean, ez ditugu pribilegioekin nahastu behar. Eskubideak pertsona guztiok ditugu, pertsonak izateagatik soilik, emakumea edo gizona garen kontuan hartu gabe. Pribilegioak, aldiz, desberdintasunean daude oinarrituta; emakumeek ez duten zenbait pribilegio (askotan hala ez badira ere) botere-desberdintasun horren ondorioz etortzen zaizkigu gizonei.

Pribilegio horietako batzuen kasuan, gizonek egunero-egunero erakutsi behar izaten dute gizontasuna, bizitza osoan. Etengabe justifikatu behar dute, jaiotzen direnetik hil arte, gizon bati gertatu ahal zaion gauzarik okerrenea gizontzat ez hartzea baita. Gizontasuna gizonek bizitza osoan egin beharreko hiru ezeztapenetan oinarritzen da: emakume ez izatea, haur ez izatea, homosexual ez izatea. Ez da gauza bera gertatzen emakumeekin. Emakumeek ez dute emakumetasuna egunero justifikatu edo frogatu behar. Ez den zerbaiten itxura egin eta defendatu behar hori, opresio oso zorrotza da. Horrez gain, kontuan hartu behar dira norberari pertsona moduan ekartzen dizkion mugak eta emakumeengan dituen eraginak ere.

Emakume eta gizonen artean desberdintasuna dagoen bitartean, desberdintasuna sorrarazten duen opresioa dagoen bitartean, argi dago ezin izango dugula lortu gizarte bidezkoa, ekitatiboa, berdintasunezkoa eta demokratikoa. Hortaz, zaila egingo zaigu giza garapen iraunkorra lortzea.

Gure bizitzetan agintzen duen sistema kapital neoliberal eta sistema sexista, hegemonikoa, tradizionala eta patriarkala elkarrekin lotuta daude. Ia perfektua den tandem osatzen dute. Bi sistema hauek, giza garapen iraunkorrari trabak ipintzen dizkiote, desberdintasunak baituzte oinarri (ekonomikoak, botereari lotutakok, generoaren ingurukoak...). Kapitalismoaren gai asko sexismoarekin lotuta daude. Etengabe atzeraelikatzen dira, batak bestea behar du. Ez ditugu sakonduko kapitalismo neoliberalak giza garapen iraunkorrean dituen eraginak, ia horretara bakarrik mugatu beharko ginatekeelako. Gainera, lan asko dago horri buruz. Gai horretan adituak diren pertsonak egindako lanak. Baina kontuan hartu behar dugu, bestela azalduko ditugun gai asko ez ditugu ulertuko.

Maskulinitate hegemonikoak zuzentzen gaitu; gizonok nolakoak izan behar dugun esaten digu, zer jarrera izan behar dugun, nola pentsatu behar dugu, baloratu, amets egin... «Behar bezalako» gizonak izateko jarraibideak ematen dizkigu, gizarte bakoitzak izan ditzakeen ezaugarriekin, baina nukleo gogorrari, egiturazkoari dagokionez, sozietate guztietan bera da. Modu sotilean egiten du, baina. Itxuraz hertsidurarik gabe, gizona (eta emakumea) izateko modua natural eginez. Desberdintasunak natural bihurtzea, harreman desberdin horiek inoiz ez direla aldatuko sinestarazteko modurik onenetako bat da. Esaterako, gizonak jaiotzez emakumeak baino basatiagoak garela pentsatzen badugu, ez dago aldatzeko aukerarik, gai biologikoa delako; beraz, ez dago gure esku aldatzea. Sozializazioaren bidez ikasitako gaia dela pentsatzen badugu, berriz, (hau da, emakumeak baino basatiagoak izaten irakatsi egiten digutela), alda daitekeela esaten ari gara. Basati izaten irakasten diguten moduan, basati ez izaten ere irakats diezagukete. Hau da, egiten den guztia desegin ere egin daiteke.

Ibilbide orri horretatik kanpo ateratzen bazara, maskulinitate hegemonikoa bera arduratuko da sarera itzul zaitez, tresna hertsatzaileen bidez. Matxismoa, homofobia, arrazismoa, klasisismoa eta tankera horretako tresnak eredu hegemoniko patriarkalak erabiltzen ditu, bere tokia defendatzeko. Eta ez du zalantzarik izango tresna horien bidez indarkeria erabiltzeko, betiketzen jarraitu ahal izateko.

Maskulinitate hegemonikoaren eredua bultzatzen duen sistema sexista hori ez da bateragarria giza garapen iraunkorrak bultzatu nahi dituen balioekin: ekitatea, partaidetza, justizia, berdintasuna, demokrazia, errespetua eta abar.

Sistema sexista emakumez eta gizonen baliatzen da betikotzeko. Gizonok ez gara berez sexistak, hegemonikoak, patriarkalak... Zapaltzaileak izan gaituzten zapaltzen gaituzte (X. Odriozola, 2008), emakumeak zapalduak izan daitezten zapaltzen dituzten moduan. Horren ondorioz, Maria Jesús Izquierdok⁵ azaldu duen moduan (2008), «sistema zapaltzaile batek kalteak ere eragiten dizkio zapaltzen duenari... Interes gutxi du errudunak bilatzeak eta interes erlatiboa du sexismoaren arrazoiak aztertzeak, gure bizitzekin, arlo pertsonalean nahiz politikoan, dugun erantzukizuna modurik onean gauzatzeko ez bada». Hortaz, gizonak «desegin» gaitzkeela itxaron behar dugu, ikasitakoa desikasi dezakegula. Eta emakumeekin giza garapen iraunkorrak sustatzen dituen balioei lehentasuna ematen dieten sozietateak sortzearen itxaropenetik abiatu behar dugu.

Alde horretatik egin behar da lan gizonekin ere garapenerako lankidetzan. Errudun ikusi gabe, baizik eta sistema sexista baten emaitza moduan (honek ez du esan nahi gure erantzukizunari uko egin behar diogunik). Hortxe dago koska; izan ere, non ipintzen garen kontuan izanik, hasierara edota bidearen erdialdera joango gara; alegia, sexismoaren ondorioetatik, arazo estruktural bati buruz ari garela kontuan hartu gabe.

Datu estatistikoaren bidez berretsenez orrialde hauetan defendatzen duguna, munduko bazter guztietan, behartsuetan zein aberatsetan. Baina proposamen honetan lekua mugatuta dugunez eta datu horiek guztiak nazioarteko edo nazioko erakundearen bidez aurki ditzakegunez, ez ditugu azalduko. Esate baterako: sexu- eta ugalkortasun-osasuna, aitatasuna, homofobia, genero-indarkeria, lana sexuaren arabera banatzea, laneko istripuak, hilketei buruzko datuak, gerrak, buru-hilketak, presondegiatako datuak... Horiek guztiek argi erakusten dute maskulinitate hegemonikoaren eredua gu geu zapaltzen gaituela, emakumeak zapaltzen irakatsiz nolabait. Eta datu horiek munduko beste leku batzuetara zabal daitezke, maskulinitate hegemonikoaren nukleo gogorra bazter guztietan antzekoa dela azalerratu, bizi garen eremu geografikoa alde batera utzita.

Maskulinitate hegemonikoaren eredua giza garapen iraunkorrarekin bateraezina, mugatzailea eta kontraesankorra dela jakinda, garapenerako lankidetzaren prozesuetan hasi behar dugu eragiten, betiere genero-ikuspegia kontuan hartuta (gizonak ikuspegi horretan barne hartuta).

4. ZERGATIK EGIN BEHAR DUGU GIZONEKIN ERE LAN GARAPEN PROZESUETAN?

Zergatik egin behar dugu lan berdintasunaren arloan gizonekin ere? Beharrezkoa delako eta justizia egiteko.

Historikoki, maskulinoa munduaren erdigunea izan da. Gizonok jabetzarako, politikarako edota kulturarako eskubidea izan dugu, munduaren eta pertsonen gaineko boterea, nahiz eta botere horrek batzuetan bestelako eraginak izan dituen. Horregatik guztiagatik justiziaz hitz egin behar dugu. Besteentzako justiziaz, baina baita guretzako justiziaz ere.

5. M.J. Izquierdo (2008) Nazioarteko Sare Kongresua 2007: «Maskulinitatea eta eguneroko bizitza». Gasteiz: Emakunde.

Atal honetan garrantzitsua da giza garapen iraunkorraren alde lan egiteaz aritzean, prozesuez ere hitz egitea, proiektuez baliatzen baitira lan-tresna moduan. Aldaketak estrukturalak nahi ditugu lan egiten dugun edozer jarduera-esparrutan. Hortaz, aldaketa bultzatzen duten prozesuei buruz ere egin behar dugu hitz, genero ikuspegitik garapenerako lankidetzaz-prozesuak modu transbertsalean aurrera eramateaz hitz egiten dugunean.

Modu transbertsalean diogu, bai baitakigu emakume eta gizonen behar praktiko eta estrategikoei lankidetzaren edozer jarduera-esparrutan egon behar dutela: osasuna, eragin politikoa, elikadura burujabetza, produkzio-prozesuak, premia, hezkuntza... Hau da, sexu bakoitzaren berriazko premiak hartuko dira kontuan.

Oinarrizko argudioa zera da, berdintasuna lortzeko egin beharreko bidea egitea ezinezkoa izango dela gizonen parte hartzen ez badute. Jouni Varankak 2007an Donostian egindako Nazioarteko Sare Kongresuan (Maskulinitatea eta eguneroko bizitza) egin zuen txostenaren izenburuak dioen bezala, «berdintasunak gizonak behar ditu, gizonen genero-berdintasuna behar duten moduan». Horrez gain, gizonen aktiboki hartu behar dute parte, eta pentsamolde kritikoa izan behar dute emakumeak eta gizonak zapaltzen dituen maskulinitate hegemonikoko ereduak bultzatzen duen sistema sexistaren aurrean.

Helburu nagusia sexismoa errotik kentzea da, berdintasunezko gizarteak, bidezkoak eta demokratikoak lortzeko. Hartarako, gizon-emakumeen esfortzuak, esperientziak, lana eta ilusioa batu behar ditugu.

Emakumeek lan handia egin dute dagoeneko feministei, emakume talde eta elkarteei, akademikoei eta bestelakoei esker lankidetzaren munduan. Testuinguruaren atalean ikusi dugun moduan, modu eta ikuspegi asko erabili dira emakumeek garapen-prozesuetan dituzten oinarrizko beharrak eta behar estrategikoak lantzeko. Estrategia eta ikuspegi horietako askotan, emakumeen beharren kontrako bideari jarraitu zaiola hartu behar da kontuan. Halaber, aipatu dugun moduan, berdintasuna eta generoa emakumeekin bakarrik lotu direla esan behar da; oker, noski. Hala ere, aurrerapen handiak egin dira emakumeekin eta emakumeentzat. Eta askotan horiek eragin positiboa izan dute gizonengan.

Hala ere, genero-transbertsalitateaz, genero-ikuspegiak, hitz egiten badugu, ez gara geratu behar emakumeekin zerikusia duen zatiarekin bakarrik. Generoa harremani buruzko terminoa da; beraz, hortik abiatu behar dugu.

Honekin guztiarekin ez dugu esan nahi emakumeentzat bakarrik diren prozesuak egon behar ez dutenik, emakumeen eta gizonen behar estrategikoak eta oinarrizkoak ez baitira berdinak. Gure ustez, gizonentzako berriazko prozesuek ere egon behar dute, haien beharren arabera. Bestalde, gizonentzako zein emakumeentzako prozesuak egin behar dira, bi sexuen artean aurrera egin ahal izateko. Garapenerako edozer prozesu edo lankidetzazko proiektu (genero ikuspegia txertatuta duena), emakumei edo gizonen zuzendutako egon daiteke, edota biei batera. Esaterako, biztanle jakin batzuen maskulinitate hegemonikoaren erolak desagiteko gizonen zuzendutako lankidetzazko proiektu bat, genero-proiektua ere bada. Era berean, Nikaraguako emakumezko nekazarientzako jabetza proiektua ere bada. Emakumeen beharrei buruz hitz egiten dugunean, ez dugu emakumeengan bakarrik pentsatu behar, gizonen ere lotura dutelako. Eta alderantziz, gizonen arazoei buruz hitz egiten badugu, ez dugu gizonentzako bakarrik mugatu behar.

Bestalde, kontuz ibili behar da, haietako batzuk genero-proiektuetzat hartzen baditugu, esaterako nekazaritza eta abeltzaintzako proiektu batek genero-ikuspegiarik ez duela kontuan hartu behar emango baitu. Eta ez da hala; gauza bat da proiektuaren ardatz nagusia generoa izatea, eta beste bat proiektu edo lankidetzazko prozesu orok, edozein dela, genero-ikuspegia kontuan hartu behar duela.

5. NOLA EGIN LAN GIZONEKIN GARAPEN PROZESUETAN?

Erantzuten erraza ez den galderatxoa dugu hau. Emakumeekin genero-ikuspegia erabiliz modu transbertsalean lan egitea dela ulertzen badugu, eskema bera erabili besterik ez dugu egingo, baina biztanleak aldatuta. Hau da, gizonentzat bideratutako lanean genero-ikuspegia modu transbertsalean erabiltzea.

Itxuraz erraza dirudiena, nahiko konplexua da. Konplexua arrazoi askorengatik, eta haietako batzuk aipatuko ditugu. Hasteko eta behin, kontu konplexua da; izan ere, gure bizitzaren arlo guztietan, edo-zer gizartetan eta nonahi eragiten digun gaian esku hartzen saiatu behar dugu. Askotan, garapenerako lankidetzaren esparruan kanpoaldeari begira lantzen dira gaiak, gu gauden gizartean dagoeneko landuta izango bagenitu bezala. Eta ez hori bakarrik, landu behar dela jakin arren, ez dugu egiten.

Eta hori oso garrantzitsua da. Zenbait egoerari aurre egiteko efektuak eta moduak eskura ditugun baliabideen arabera aldatuko badira ere (baliabide ekonomikoak, pertsonalak...), ezin ditugu horiek landu gure kontrakoekin lan egiten dugun eremuetan, gure elkarte edo sozietateetan arazo bera badugu. Esaterako, ez da koherentea sexismoaren eraginei buruzko nazioarteko lankidetzaren proiektu batean lan egitea erakunde batean, eta emakumeen jabekuntza eta gizonen desegitea landuz erakunde hori indartzen saiatzea, baldin eta gure elkarte eta erakundeetan sexuagatiko desberdintasun-egoerak baditugu eta arazo horiek konpontzeko lanik eta bitartekorik egiten ez bada.

Garrantzitsua da genero ikuspegiarekin lan egitean gure lanetik kanpo eta etxean bertan ditugun zailtasunak detektatzea. Ildo horretan, azkenaldian zenbait esperientzia egiten hasi dira, erakunde nahiz elkarte mailan. Aukerak agertzen ari dira eta ildo berean gizonekin ere lan egiten hasteko tresnak aurkeztu dituzte.

Esperientzia berrienetako bat dugu Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Zuzendaritzaren 2008ko azaroaren 25eko 197/2008 Dekretua (2008ko abenduaren 9ko EHAA), genero berdintasunaren aldeko aldaketa prozesuak sustatzeko lankidetzaren erakundeei emandako laguntzak arautzen dituenak. Dekretu horren arabera, hauxe da genero ikuspegia txertatzea: «Emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan aintzat hartzea, eta politika eta jarduera guztietan, maila guztietan eta haien plangintza, egikaritze eta ebaluazio fase guztietan, desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburu eta ekintza zehatzak gauzatzea». Euskal Autonomia Erkidegoko emakume eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeak planteatutakoari jarraiki, gizonak ere agertzen dira emakumeen ondoan politika eta ekintzen xede moduan.

Paragrafo berean, aipatutakoaren zertxobait aurretik, lan hori emakumeekin bakarrik agian oker lotzera eraman gaitzakeen esaldi bat agertzen da. «Genero mainstreamingak ikuspegi politikoa da, eta haren helburua da emakumeak garapenaren korrante nagusian txertatzea.» Esaldi horretatik ondorioztatzen da gizonak garapenaren korrante nagusian daudela txertatuta. Eta hori egia da, baina gizonak txertatuta al daude garapen-korrante nagusi horretan genero-ikuspegi batekin? Hau da, kontuan hartu al dira sistematikoki gizonen egoera, baldintzak, asmoak eta beharrak, desberdintasunak kentzeko diren berariazko jardueren bidez eta politika eta ekintza guztietan berdintasuna sustatuz, maila guztietan edo plangintza, gauzatze eta ebaluazio fase guztietan? Gure ustez, ez.

Badirudi gizonak garapen-prozesuetan murgilduta daudela, eta emakumeengan duten eraginarekin arabera eztabaidatzen dela bakarrik haien kokapena. Horren ondorioz pentsa genezake garrantzitsuena emakumeak hor egotea dela, betiko arau sexistekin, hegemonikoekin eta patriarkalekin egonda ere. Emakumeentzat ez duguna nahi gizonentzat ere ezin dugu nahi izan. Berdintasunean, justizian, ekitatean eta demokrazian oinarritutako giza garapen iraunkorra nahi

dugu. Hortaz, gizonen garapenean duten parte-hartzea, giza garapen iraunkorarekin bat datozen balioen arabera pentsatuta egoteko egin behar dugu lan.

Horixe da garapen prozesuetan gizonekin batera lan egiteko beharra ikusteko garaian agertu ohi den arazo handienetako bat. Hala ere, mota horretako dekretuak aurrerapen handiak dira; sortu ziren garaian emakumeak garapen prozesuetan (MED, GED...) txertatzeko ikuspegiak edo estrategiak izan ziren bezalaxe. Egiten diren lanen bidez eta metatzen den esperientziari esker, gero eta hurbilago gaude berdintasunetik.

Duela gutxi Euskadiko Euskadiko GKEEn koordinatzaileak prozesu bat bultzatu berri du, euskal lankidetzatik oso hurbil. Esperientzia hori gizonak genero ikuspegia kontuan hartuta garapen-prozesuetan txertatzeko tresna garrantzitsua bihurtu beharko litzateke. Prozesuak «Genero ikuspegia euskal GKEEtan txertatzeko prozesua»⁶ du izena. Lehen aipatutako dekretuak koordinakunde horretatik erreferentzia asko hartu ditu.

Duela gutxira arte, genero-ikuspegia lankidetzan txertatzeari buruz hitz egiten zenean, GKEEn kanpo proiektioa kontuan hartuta egiten zen ahalegin hori; hau da, nazioarteko lankidetzaproiektuei, programei, sentsibilizazio proiektuei eta garapenerako hezkuntzari dagokienez. Edonola ere, ez zen kontuan hartzen gai honekin modu koherentean jarduteko elkarrekin bertan ere egin behar zela lan.

Koordinakundeko genero lantaldeari eta talde horren inguruko pertsonei esker, elkarrekin bertan ere egin behar zela lan hasi ziren konturatzen; guztia ere genero ikuspegia garapenerako lankidetzan ari den erakundeen lan esparru guztietan txertatzeko. Eta hala ipini zuten abian prozesu pilotu hau, hamar erakunderen partaidetzarekin.

Prozesu hau proposamen tekniko honetako gaiekin uztartze aldera, alderdirik berritzaileena zera da, parte hartzen duen erakunde bakoitzak lau ardatzetan egindako autodiagnostikoaren bidez genero-ikuspegia txertatzeko garaian sortzen diren aurkakotasunak, eragozpenak, zailtasunak eta bestelakoak ikusi ahal izango dituela. Hauexek dira lau ardatzok:

- Erakundeetako politikak. Autodefinizioa, antolaketa kudeatzeko ereduak, aliantzak eta hitzarmenak, finantzazioa, estatutuak, txostenak eta tankera horretako gaiak lantzen dira.
- Egitura. Besteak beste, GKEE beraren antolaketa, giza baliabideak, eginkizunen banaketa, presakuntza, erabakiak hartzeko modua eta bestelakoak lantzen dira.
- Erakundearen kultura: hizkuntza, egitura sakona, errituak, gatazkak nola konpondu...
- Produktuak: proiektuekin zerikusia duena, ikuspegi desberdinen bidez (MED, GED...) proiektuen kokapena aztertzea.

Koordinakundeko hamar erakunde egindako autodiagnostiko honek garrantzi berezia du, batetik, genero harremanak erakundearen barruan nola dauden ikusteko, eta, bestetik, kanpora begira egiten direnetan kontuan hartzen den ala ez ikusteko. Emakumeak erakundearen barruan nola dauden edo genero-ikuspegia kanpora begira (proiektuetan) nola txertatzen dugun ikusteko bakarrik ez; gizonetako erlazionatzeko, antolatze, gatazkak ebazteko eta abarretarako moduetan dituzten aurkakotasunen edota ahalmenen aurrean nola jarduten dugun ikusteko ere bai.

Azken finean, mota honetako tresnei esker, bizi dugun egoeraren erradiografia oso garbia lor dezakegu. Bide batez, ezinbestekoa da erradiografia hori, lanean jarraituko badugu. Gure egoeraz ez bagara jabetzen, ekintza gutxi egin ahal izango ditugu benetako aldaketa lortzeko.

Prozesuan, agian, gizonekin ere lan egin beharraren erreferentzia zuzenago baten falta sumatuko dugu. Baina ez dago zalantzarik, gizonak GKEEtan genero-ikuspegia txertatzeko duten inplikazioarekin edo inplikazio ezarekin lotura zuzena duten gaiak ipintzen ditu mahai gainean. Horrenbestez, pista asko ematen dizkigu gizonezkoekin ere genero ikuspegia aintzat hartuta nola lan egin definitzeko garaian. Berrikuntza gisa, erakunde barruko funtzionamenduari lotutako alderdiak dira, batez ere. Alderdi horiek landu ezean, nekez islatuko da genero-ikuspegia kanpra begira egiten diren ekintzetan.

Mota honetako autodiagnostikoei esker azaleratzen diren gai askok zerikusi zuzena dute bakoitzak eguneroko bizitzan dituen rolekin, balioekin, jarrerekin eta bestelakoekin. Azken finean, familia giroan, lagun artean, bikote harremanetan eta abarretan ditugun jarrera berberak izango ditugu lantokian ere. Hortaz, egiten den aldaketa orok gure bizitzaren gainerako alderdi guztietan eragiten du. Ezinezkoa da gizon edo emakume batek bere sinesmenak, balioak edota jarre-
rak lanean ez islatzea edo sartzea. Geure izatea bizitzaren edozer alderditan islatzen dugu, eta gai hori ez dugu askotan kontuan hartzen. Gure bizitzetan arlo geldoetan mugituko bagina bezala jarduten dugu. Gure bizitza pertsonalak eta lan bizitzak harremanik izango ez balute bezala. Horrexegatik da pertsonala politiko, genero-gaiei dagokienez.

Hala, lerro hauetan planteatuta bezala, erakunde barruko zein kanpora begirako alderdietan lan egitea aplikatzeko moduko eta aplikatu beharreko gaia da; nonahi, edozer erakundetan, edozer kontraalderditan, edozer lankidetzaren proiektu edo programatan, herrialde behartsuetan zein aberatsetan.

Aurretik azaldu dugun moduan, lankidetzaren alorrean genero-berdintasuna lortzeko ekintza gehienak nagusiki emakumeei bideratuta egon dira. Hala eta guztiz ere, badira erakunde ofizialek (tokian-tokian edota nazioartean), gizarte erakundeek, akademikoek eta bestelakoek gizonezkoekin bultzatutako proiektuak ere, baina, aurrekoekin alderatuta, oso gutxi. Ehunekoa oso txikia izanagatik ere, pixkanaka bide horri heltzen ari garela adierazten du, emakumeak eta gizonak barne hartzen dituen genero-ikuspegiarekin lan egiteko bideari, alegia.

Hurbiltasun pertsonala kontuan hartuta eta beste eremu geografikoetan ezagutza zabalagorik ez dudanez, Latinoamerikan egiten diren lanen eta esperientzien inguruko datu zehatzagoak ditut. Edonola ere, horrek ez du esan nahi munduko beste kontinenteetan, hala nola Asian edo Afrikan, ildo horretako lanik egiten ez denik.

Latinoamerikan hainbat erakunde ditugu; hala nola, Papai (Brasil), Instituto Promundo (Brasil), Hombres contra la violencia (Nikaragua), Instituto WEM (Costa Rica), Coriac (Mexiko), Ceaspa (Panamq), ACDI (Honduras), Cantera (Nikaragua), Puntos de Encuentro (Nikaragua), FLACSO (Txile)... Guztiek ere zuzenean gizonezkoekin egiten dute lan, esku hartzen, materialak sortzen eta maskulinitatei buruzko teoriak irakasten....

6. ONDORIOAK

Proposamen honen bidez, garapen-prozesuetan gizonekin ere lan egin beharra dagoela ohartarazi dugu. Maskulinitate hegemoniko tradizional eta patriarkala apurtu beharra dagoela, alegia.

Gizonezkoen mugimendu antisexistarik ez da egon finkatuta, emakumezko feministek izan duten moduan (nahiz eta emakumeek ere mugimendu finkaturik ez zuten hasiera batean). Erreferentzia gabezia horrek genero berdintasuna lortzea eragotzi du. Edonola ere, pixkanaka-pixkanaka ari gara gainditzen, azken bi hamarkadetan herrialde behartsu nahiz aberatsetan sortzen ari diren esperientzia praktiko eta teoriko desberdinei esker.

Jakin badakigu garapen prozesuetan gizonezkoekin egin beharreko lanak lerro gehiagorako ere ematen duela. Edonola ere, amaitzeko, proposamenean agertu diren hainbat ideia laburbilduko ditugu. Nazioarteko Sare Kongresuan 2007an «Maskulinitatea eta eguneroko bizitza» hitzaldiarekin parte hartu zuen Jouni Varankari dagokionez, genero-berdintasunerako politiketan aplikatzen zituen zenbait gai nabarmendu nahi genituzke; izan ere, politika, proiektu eta garapenerako lankidetzaren programetarako bezain baliagarriak eta beharrezkoak dira, eta geuk ere xede horretarako moldatzen baititugu.

Hasiera-hasieratik baieztatu dugu gizonen ekintzak eta jarrerak erabakigarriak direla emakumeen egoera hobetzeko. Hau da, gizonen jarrera eta ekintza horiek aldatzen ez badira berdintasunerako irizpideak txertatuta, berdintasuna lortzeko bidearen erdia baino ez dugu egingo. Gizonen laguntzak eta konpromisoak genero-berdintasunerako lana indartzen dute. Erresistentzia aktiboak eta pasiboak, berriz, berdintasunaren alde egindako lana eragotzi besterik ez du egiten. Hartarako, lankidetzarako genero transbertsalitateak gizonezkoen artean handiagoa ematea eskatzen du (berritoki diogu, ez kanpo ekintzei begira bakarrik, baita erakundeen antolaketa eta kultura mailan ere). Hau da, gizonezkoen arazoei eta egoerei artean handiagoa ipintzea garapenerako lankidetzaren politiketan.

Ikusarazi behar dugu gizonak ere bagarela sexismoak sortu dituen bidegabekeriak konpontzeko osagai. Eta konponbide horretan, generoa txertatzeko ikuspegiak zeresan garrantzitsua du, sexismoaren eragina gizonengan ere antzeman baitaiteke. Asmoa ez da gizonak biktima bihurtzea, inola ere. Aurretik esan dugunez, konturatu behar dugu gizonok gaudela egoera pribilegiatuan, botere-desberdintasunari eta horrek dakartzan ondorioei dagokienez. Kontua ez da batzea edo kentzea, hau da, gizonen sexismoaren ondorio negatiboak nabarmentzen baditugu, emakumeen ondorioei garrantzia kentzea.

Hartarako, garrantzitsua da arlo horretako profesionalek ikertzea, sakontzea, bere garaian emakumeek egin zuten moduan. Halaxe bakarrik lortuko da eztabaida populistetan edota biologizistetan ez erortzeko; gaur egun, emakume eta gizonen arteko desberdintasunei buruz hitz egiten denean, nagusi baitira halakoak.

Horri lotuta, garrantzitsua da eztabaida faltsuetan ez erortzea, erreferentzia moduan azken urteetan sortu diren dokumentu, arau edo ondorio ofizialak hartzea, gizonekin egindako lana nola eta zergatik hartu behar den kontuan azaltzen baitute. Dokumentu horien artean, Nazio Batuen nazioarteko akordioak, Europar Batasunekoak edo estatuko eta autonomietako dokumentuak aipa ditzakegu. Dokumentuok proposamen honetan aipatuz joan gara.

Arlo guztietan egin behar dugu lan gizonekin, eta espezifiko batzuetan bakarrik (hala nola, emakumeen kontrako indarkeria kontuetan). Generoari buruzko gaiak ez dute elkarren artean loturarik ez duten gaiak izan behar, ez dira gai independenteak eta geldoak balira bezala jorratu behar. Horregatik da garrantzitsua genero ikuspegia gizonekin zerikusia duten gaietan txertatzea. Hartarako, gizonekin genero-berdintasunaren alde egingo den lanean sexuen arteko egoera orokorra kontuan hartu beharko da; bai kanpora begira lankidetzaren, sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntza-proiektuen bidez, bai barne antolamenduari begira (erakundeen kultura, egitura, politikak...).

Eta berriz ere errepikatu behar dugu asmoa ez dela garapen-prozesuetan gizonekin egindako lanari lehentasuna ematea. Abiapuntu moduan, lehentasuna ematen jarraitu behar zaio emakumeen jabetzari eta haien egoera hobetzeari, eta ez gizonen lehentasunari. Ez gara ari emakumeen egoerari balioa kentzeari buruz. Gure proposamenean bestelako aukeraren aldeko argudioak eman ditugu. Hau da, emakumeak daudela egoera ahulenean. Gizonezkoekin egin beharreko jardunaren

inguruan nolabaiteko oreka topatu beharra dago. Era berean, emakumeekin zerikusia duten gaien artean ere lehentasunak daude ezarri beharra, bai baitakigu genero-desberdintasunarekin lotutako arazo guztiak ez ditugula landu eta berehala konponduko. Genero-ikuspegia benetan txertatzen badugu, gizonezkoak ardatz hartzeak ez du esan nahi gizonen arazoetara bakarrik mugatuko garenik. Era berean, emakumeak ardatz hartzeak ere ez du esan nahi emakumeen arazoetara bakarrik mugatuko garenik. Berririo gogoratu behar dugu genero terminoa erlazio-terminoa dela.

Ekintzen artean lehentasunak ezartzean, ekintza horietarako bitartekoak definitzeaz ere ari gara. Baina ez baliabide ekonomikoez bakarrik (nahiz eta oso garrantzitsuak eta beharrezkoak diren), baita giza baliabideez ere.

Gai askorekin has daitezke lantzen genero kontuak, garapen prozesuetan eta gure erakundeetan gizonekin lan eginez. Besteak beste, emakumeen aurkako gizonen indarkeria, partaidetza, lana eta familia-bizitza uztartzea (zainketak...), osasuna eta hezkuntza gaiak.

Gizonek genero-ikuspegiarekin parte hartu behar dute garapen-prozesuetan. Justizia kontua da; ez emakumeenganako bakarrik, baita gizonenganako ere. Berdintasuna ez da onuragarria emakumeentzat bakarrik; gizonentzat eta gizartearentzat oro har ere bai. Gainera, ez dugu ahaztu behar giza garapen iraunkorra lortzeko, traba egiten duela gizon-emakumeen arteko desberdintasunak. PNUDeK 2006. urtean egindako txosten baten arabera, arabiar herrialdeetako emakumeen egoera da garapena gehien zailtzen duen eragileetako bat. Berdintasunezko gizarteak, gizarte demokratikoak eta bidezkoak lortzeko lan egiten badugu, gizonekin zein emakumeekin hartu behar dugu parte, modu aktiboan, arautzen gaituen sisteman masa kritikoa sortuta; berdina da gizarte hori Euskal Herrikoa, Limakoa, Ciudad Juarezkoa, Maputokoa, Manilakoa edo Stockholmekoa den. Izan ere, alderdi estrukturalari dagokionez, herritar guztioi arazo berberak eragiten digute.

Asko egin da aurrera, genero ikuspegia garapen prozesuetan txertatu beharrari buruzko sentibilizaziotik hasita. Generoak, genero ikuspegiak, transbertsalitateak eta tankerako beste hainbat kontzeptuk zer esan nahi duten ezagutarazteko ahalegin handia egin da. Gaur egun ez da eztabaidatzen genero kontuak lankidetzara erakundeen agendetan egon behar dutela, berdina da gobernuak diren edota sozialak diren, genero auziak kontuan hartzen dituzte.

Praktikan lan handia dago egiteko. Nazioarteko lankidetzara proiektu askotan MED ikuspegia erabiltzen jarraitzen dute, ikuspegi horrek dituen murrizketekin. Eta GED ikuspegia duten proiektuetan, berriz, apenas egiten den gizonezkoekin lanik. Eta ez hori bakarrik. Askotan, alferrikakotzat hartzen da gizonezkoekin GED ikuspegia lantzea.

Paula Cirujanok azaldu duen moduan, genero-ikuspegia garapen prozesuetan txertatzeak, gaur egun, erronka izaten jarraitzen du («Nazioarteko lankidetzara genero-berdintasunerako bideratzea», Pueblos, 30. zk. 2008ko otsaila, lankidetzari buruzko berezia). Onartutako arrazoibidea egon bada, baina eragozpen asko daude erronka izateari utzi eta errealitate bihurtzeko. Tresna egokirik ez da erabiltzen gaur egun generoak lankidetzara jardueretan duen eragina neurtzeko eta kudeatzeko. Horrez gain, proposamenean aipatu ditugun aldaketak ere ez dira gertatzen ari garapen-prozesuetan ari diren GKEEn eta erakundeen politiketan, egituretan eta kulturatan. Itxura guztien arabera, bide horri ari gara heltzen poliki-poliki, baina, esan dugun moduan, oraindik ere erronka da.


Gizon Sareak⁷ 2007. urtean egindako jardueraren batean goiburua moduan erabili zuen esaldi batekin bukatu nahi genuke:

«Emakumeak eta gizonak elkarrekin posible da. Mujeres y hombres juntas es posible».

7. Gizon Sareak, 2007ko Emakumeen Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunean, azaroaren 25 inguruan, egindako kanpainaren barruan erabilitako goiburua: www.gizonsarea.org

7. BIBLIOGRAFIA

- www.berdingune.euskadi.net
- Perez de Armiño, K (2000) "Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo" , Bilbao: Icaria y Hegoa
- Perez de Armiño, K (2000) "Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo" , Bilbao: Icaria y Hegoa
- González Arencibia, M.: (2006) Una gráfica de la Teoría del Desarrollo. Del crecimiento al desarrollo humano sostenible, Edición electrónica. Texto completo en www.eumed.net/libros/2006a/mga-des/
- M.J. Izquierdo (2008) Congreso Internacional Sare 2007: "masculinidad y vida cotidiana". Vitoria-Gasteiz : Emakunde.
- Dokumentu hori Euskadiko GGKEen Koordinadoraren webgunean dago.
- Lelo hori Gizon Sareak erabili zuen 2007an, azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunean. www.gizonsarea.org



Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

OSASUNA ETA MASKULINITATEA

Imanol Apalategui Milicua
2009

AURKIBIDEA

1. Sarrera	151
2. «Osasun» hitzaren definizioaz hitz bi	151
3. «Gaixotasun» hitzaren definizioaz hitz bi	152
4. «Arreta» hitzaren definizioaz hitz bi	152
5. Osasunari buruzko hurbilketa antropologikoa	153
6. «Genero» kontzeptuaz hitz bi	155
7. Maskulinitatea nola eraikitzen den	156
8. Generoaren aldetik dauzkagun ezberdintasunak	160
9. Osasunaren aldetik dauzkagun ezberdintasunak	160
9.1. Gizonezkoen osasuna	162
9.2. Genero ezberdintasunak eaeko herritarren osasunean	162
9.3. Gizonek emakumeen aurka erabiltzen duten indarkeria	165
9.4. Osasun alorreko profesionalak eta genero indarkeria	166
10. Proposamenak	168
11. Bibliografia	169

1. SARRERA

Argi dago osasuna, gaixotasuna eta zaintza **ezberdin** bizi dituztela gizonek eta emakumeek. Batetik, bien arteko ezberdintasun biologikoak direla-eta (genetikoak, herentziaz jasotakoak eta fisiologikoak), eta, bestetik, desoreka dagoelako, gizarteak eta kulturak sexu bien inguruan sortu duten ikuspegi hierarkizatuaren ondorioz.

Azterketari ekin aurretik, eskerrak eman nahiko nizkioke mugimendu feministari, berdintasunaren alde egin duen lanarengatik. Aztertu beharreko kategoria berri bat jarri du agerian: **generoa**, alegia. Gizonoi, gainera, baliagarria zaigu zergatik hiltzen eta gaixotzen garen jakiteko.

Genero ikuspuntuak azpimarratzen duenez, ezin dira orokortu emakumeen –edo gizonen– hainbat ezaugarri; beraz, ez genituzke ikusezin bihurtu beharko egon badauden desberdintasunak, besteak beste, gizarteko maila, hezkuntza maila, bizilekua, etnia edo sexu joera direla medio.

Osasunaren eta generoaren arteko lotura aztertzeke, osasuna, gaixotasuna eta arreta guretzat zer diren ikusi beharko dugu lehenik eta behin. Horretarako, geure egingo ditugu eredu nagusi tradizionalari buruzko diskurtso eta kritika antropologikoa. Eta, eredu horretan oinarrituta, osasun fisikoa, psikologikoa eta soziala behar bezala garatzeko zein zailtasun dauden ikusiko dugu. Berdintasun ezaren prozesua ulertzeke (hala gizon eta emakumeen artekoa, nola gizonen artekoa), generoaren eraikuntza kulturala eta maskulinitatea aztertuko ditugu.

Era berean, gizonen eta emakumeen arteko hilkortasun eta erikortasun ezberdintasunak ikusiko ditugu. Ezberdintasun horiek maskulinitateari egozten zaizkion balio eta jarrerekin loturarik ba ote duten ikertu beharko dugu.

Hainbat daturi erreparatuz gero, ondoriozta liteke gizonen ohiturak eta osasunerako arriskutsuak diren jokabideen aurrean hartzen duten jarrera gizarteak agindutako gizon rola bete beharrendaren mende daudela.

2. «OSASUN» HITZAREN DEFINIZIOAZ HITZ BI

Osasunaren definizioari dagokionez, ezin dago definizio unibertsalik; ez, behintzat, era objektiboan azaltzen duenik, azken batean bizipen subjektiboa delako. Edonola ere, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) honela definitu zuen 1948an: «Erabateko ongizate fisiko, psikiko eta soziala, ez bakarrik afekzio edo gaixotasun eza». Beste definizio batzuk ere topatu ditugu; Espainiako Errege Akademiarena adibidez: «Izaki organikoak bere funtzio guztiak normaltasun osoz burutzen dituen egoera» edo «Organismoak duen uneko egoera fisikoa».

Estatistiken ikuspegitik ere defini daiteke osasuna: normaltasuna bizi konstante batzuen arabera zehaztuta dago (gluzemia, tentsio arteriala eta beste). Hala, datuak balio tarte jakin batzuen barruan egonez gero, osasuntsu gaudenaren adierazle dira.

Baina badira bestelako definizioak ere. Esaterako, Hernán San Martínek (1982) La crisis mundial de la salud liburuan dioenez, osasuna eta gaixotasuna aldagai ekologikoaren bi muturrak dira, gure organismoak inguruneko baldintzetara fisikoki, mentalki eta sozialki egokitzean arrakasta izan duen edo po-

rrot egin duen azaleratzen baitute. Osasuna, beraz, gizabanakoaren barne eta kanpo faktoreen arteko oreka organikoa da; alegia, gizabanakoaren bizi baldintzak eta genetika barne hartzen dituen egoera.

Definizio bakar bat ez egotean, osasuna interpretatzeko eta testuingurua osatzeko orduan, ikuspegi arras desberdinak baliatzen dira. Osasunari buruzko iritzi desberdin asko dagoen arren, OMEren arabera, «osasuna oinarrizko giza eskubidetzat hartuta, Ottawako Gutunak osasunak behar dituen hainbat aurrebaldintza zehazten ditu; besteak beste, bakea, baliabide ekonomiko eta elikagai egokiak, etxebizitza, ekosistema egonkorra eta baliabideen erabilera iraunkorra. Aurrebaldintza horiek onartzeak agerian uzten ditu baldintza sozial eta ekonomikoen, ingurune fisikoaren eta norberaren bizimoduaren eta osasunaren artean dauden loturak» (OME, 1986).

3. «GAIXOTASUN» HITZAREN DEFINIZIOAZ HITZ BI

Hainbat autorek horrela definitu dute gaixotasuna: «Pertsonaren erabateko ongizate fisiko, mental nahiz soziala murrizten zein galarazten duen alterazio funtzional organikoa».

Gaixotasun kontzeptua aldatu egin da Historian zehar. Historiaurrean, ikuspegi magikoa gailentzen zen eta deabruzko jatorria egozten zitzaizkien gaitzei. Geroago, Antzinaroan, kutsu erlijiosoa hartu zuen ikuspegiak, eta gaixotasuna bekatuen ondorio zenaren ustea zabaldu zen. Azkenik, ikuspegi zientifiko-organizista etorri zen, baina psikologia eta medikuntza soziala medikuntzan txertatu direnez, gaixotasuna faktore askotako kontzeptua da (Piedrola, 1983).

Osasuna zein gaixotasuna alderdi askoren mende daude: emozioek, aurrekariak, sinesmenak, hezkuntzak eta estatusak eragiten diete.

Bereizi egin behar ditugu gaixotasuna eta oinazea. Azken hori, pertsonak gaixoaldia bizitzeko duen modua da; alegia, bere gaixotasunari edo harreman sareari buruz dituen aurreiritzien eta harreman sareak berak esandakoen arabera dena. Horiei gaixotasunaren etiologiari buruzko ezagutza eta beste aldagai gehiago erantsi behar zaizkie, denak ere oinazea esperientzia pertsonal bihurtzen dutenak.

Herrialde baten garapen mailak baldintzatu egiten du bertako biztanleak gaixotzeko modua. Herrialde pobretuetako biztanleak batez ere arrazoi exogenoen (kanpokoen) erruz gaixotzen eta hiltzen dira nagusiki jaki eta ur gabeziak eragindako infekzio zein eskasien ondorio diren eritasunak hartuta. Herrialde aberastuetan, aldiz, gaixotasunak bizimoldearen arabera dira gehienbat, eta arrazoi endogenoek (norberaren esku daudenek) eragiten dituzte. Hala, gizarte aberatsetako hiru hilkortasun arrazoi nagusiak buruko ezbeharrak, bihotzeko lesioak eta minbizia dira.

4. «ARRETA» HITZAREN DEFINIZIOAZ HITZ BI

Lehen arreta maila –askotan ez dago beste mailarik– norberaren oinarrizko harreman sarearen bidez lortzen da. Zenbait egileren arabera, gaixotasunaren zaintzan emandako denboraren % 12 baino ez da osasun zerbitzuen ardurapekoa; alegia, gaixotasun prozesu gehienak senitartean zaintzen dira –arre-

ta behar duten pertsonen % 66k familiakoen zaintza besterik ez du jasotzen-. Arazoa arreta maila horretan konpontzen ez denean jo ohi da laguntza espezializatu bila (medikua, txamana, petrikiloa...).

Arreta sistema publikoa zein pribatua aztertzeke hausnartu beharrekoak alde batera utzita, eta herritarren osasun eskubidea Estatuak bermatu behar duen edo ekimen pribatuaren esku utzi behar den eztabaidatu gabe, biomedikuntzaren jardunaren alderdi zalantzarriena azpimarratu nahi dugu; hau da, bizitzaren **medikalizazioa**.

Osasunak utzi egin dio bitarteko izateari eta helburu bihurtu da, kontsumitzeko produktu. Hala, bere merkatua sortu du, eskaria-eskaintzaren araberrako medikalizazioa ahalbidetzeko baldintzak bezala. Ondorioz, emakumeen eta gizonen jokabidea baldintzatzeko estrategiak ezartzen dituzte, mendekotasunak eta eskariak gora egin dezaten.

Farmazia industriak medikalizazioa areagotzeko egin duen lana **Jörg Blechek** (2005) ikertu zuen. Bost esku-hartze mota bereizi zituen:

- Bizitzako berezko prozesu asko arazo mediko gisa aurkeztea.
- Arriskuak gaixotasun gisa aurkeztea.
- Arazo pertsonalak eta sozialak arazo mediko gisa aurkeztea.
- Ezohiko sintoma bakanak hedapen izugarriko izurrite gisa aurkeztea.
- Sintoma arinak gaixotasun larriagoen aurrekari gisa aurkeztea.

Irudi normal eta eredugarriak eratu ohi dira, gizabanakoen jarrera eta jokabidean eragiten dutenak. Irudi ideal horien adibide asko eman ditzakegu; gorputza gurtzea, gaztetasuna idealizatzea edota amatasuna, kasu. Medikuntzak irudi perfektu horren bilaketan nahitaez parte hartu behar duenaren iritzia zabaltzen duten bitartean, denetarik jartzen dute salgai: dietak, kirurgia plastikoa, menopausiarako pilulak, jaioko den haurraren argazki bilduma osatzeko ekografiak, etab.

Medikalizazioaren eraginak ezagutzeko, pertsoneri nola erasaten dien iker dezakegu. Batez ere emakumeengan duen eragina aztertu da, baina gizonari buruzko ondorioak ere atera ditzakegu.

Medikalizazioak horrela eragiten du emakumeengan (Maribel Blázquez Rodríguez, 2006):

- Bizitzako gertakari naturaletan esku hartzen du (hilekoan, haurdunaldian, erditzean eta menopausian). Neurtu egiten dira, eta patologiak bailiran ikertu.
- Mendekotasun egoeran jartzen du emakumea, eta zaintza medikoaz ardura dadila eskatzen (berezko ezaugarri hori gizarte agindu bihurtzen da).
- Emakumeen arazoei «aurre egiteko» legitimatuta daude teknologia eta medikuntza tratamenduak.
- Latrogenia sortzen da sendabideak behar bezala ez erabiltzeagatik, erabiltzen ez jakiteagatik edota gehiegi erabiltzeagatik, eta ondorio kaltegarriak sortzen zaizkie emakumeei.
- Alderdi negatibotik ikusten da emakumeen osasuna.
- Gaizki erabiltzen dira osasun zerbitzuak.

5. OSASUNARI BURUZKO HURBILKETA ANTROPOLOGIKOA

Medikuntza tradizional nagusia (biomedikuntza) definitzen hasi aurretik, Arthur Kleinman-ek indarrean jarritako eredu esplikatzailea azalduko dugu: «Gizabanakoek eta taldeek gaixoaldiari

buruz dituzten ideien multzoa da, etiologia, sintomatologia, patofisiologia, bilakaera eta tratamendua aintzat hartzen dituen» (A. Martínez Hernáez, 1992). Definizio horren arabera, eredu esplikatzaile gisa hartu behar dugu biomedikuntza, aztertu beharrekoa; hain zuzen, Mishlerrek egin zuen bezala (A. Martínez Hernáez, 1996), biomedikuntzaren «zientifikotasuna» oinarritzen duten uste kultural eta ideologikoak ikertu baitzituen. Egileak honakoak aipatzen ditu:

- Gaixotasuna okerreko jardun biologiko gisa definitzea.
- Gaixotasunek etiologia bakarra (zergati bakarra) dutela dioen doktrina.
- Gaixotasunak unibertsalak direla uste izatea.
- Biomedikuntzaren teoria eta praktika neutralak direla uste izatea.

Ezaugarri horiei beste egile batzuek aipatutakoak gehi diezazkiekegu, lagungarriak izango baitzaizkigu generoaren eta osasunaren arteko lotura ezartzeko:

- Gogoa/gorputza dikotomia.
- Giza kontzientziaren biologiarren autonomia.
- Atomismo anatomikoa.
- Berezko aldagaiak eta sozialak desberdintzea.
- Biologizismoa.
- Mekanizismoa.
- Merkantilismoa.
- Asozialtasuna.
- Ahistorikotasuna.
- Eraginkortasun pragmatikoa, eta abar.

Nekez iker liteke osasuna gaixotasunetik bereizita. Gaixotasuna, gainera, arretarekin lotuta dago. Eduardo Menéndezek azaltzen duen moduan, osasuna eraginkortasunez aztertzeko gai izan gaitzen, prozesu bat dela ulertu behar dugu. Osasuna, gaixotasuna eta arreta barne hartzen dituen prozesua: «Gaixotzea, hiltzea, gaixoa zaintzea eta heriotza bera prozesu gisa hartu behar ditugu. Ez dira lanbide eta erakunde espezifiko eta espezializatuen arabera bakarrik definitzen; horrez gain, ekintza sozialak dira, eta horien arabera jarduten dute gizataldeek ekintzak, teknikak eta ideologiak sortzeko. Horietako batzuk bakarrik egituratzen dira lanbide gisa» (Eduardo L. Menéndez, 1996). Biomedikuntzaren oinarrian, osasunaren ikuspegi erabat biologizista dago. Era inplizitu eta ez-kontzientean, euskarria ematen die kasuan kasuko egitura kultural, ideologiko eta ekonomiko-politikoaren ondoriozko hainbat aldagairi (Menéndez eta Singer), eta medikuaren eta pazientearen arteko harremanean era sinbolikoan eragiten du (Ángel Martínez, 1996):

1. Ideologia hegemonikoaren arabera jardutea: Profesionalaren jarduna kultura nagusiaren babesean egindako esku-hartzea da, gainerako bide terapeutikoak baztertzen dituen.

Osasun zerbitzuetako langileek genero ideologiak dauzkate eta horien arabera da haien jarduna.

2. Neutraltasun zientifikoaren doktrina: Objektibotasunean oinarritutako neutraltasun doktrinan datza ikuspuntu organizista. Profesionalak pazientearen azalpenak bere egiten ditu, eta pazientearen errealitatea neutraltasun zientifikoz aztertua da.

3. Harreman terapeutiko hierarkikoa: Profesionalen eta pazienteen arteko harremana asimetrikoa da, eta sortzen den elkarreraginak ezaugarri hauek ditu:

- Dimentsio analitiko bakarra du, gaixotasunari ikuspuntu organizistatik erreparatzen diolako.
- Norabide bakarreko komunikazioa da, bien arteko jarduna izan beharrean, profesionalari ematen diolako nagusitasuna.

- Lerro terapeutiko bakarra du, esku hartzeak eraginkortasun biologikoari bakarrik ematen diolako garrantzia.

4. Etiketatzea (labeling) eta estigmatizazioa: Askotan, gizartean nagusi diren balioen arabera artatzen dituzte osasun zerbitzuetako langileek pazienteak (GIBduna, droga kontsumitzailea, gaixo psikikoa, elikadura arazoak dituena, eta beste).

Nabarmendu beharra dago biomedikuntzak porrot egin duela droga-mendetasuna, nerbio anorexia edota genero indarkeria arazoei aurre egitean: «Biomedikuntzan oinarritutako osasun sistemak oso ahaltsuak dira hainbat infekziori aurre egiteko –hori argi geratu da XX. mendean–, baina ez dute emaitza positiborik lortu bizimoduarekin zerikusia duten osasun arazoak konpontzeko orduan» (O. Romání, 2002).

6. «GENERO» KONTZEPTUAZ HITZ BI

70eko hamarkadaren azken urteetatik aurrera, feminista anglosaxoiarrek sexuari egozten zitzaizkion berdintasun ezak sakonago aztertzeari ekin zioten, haien ustez ez zirelako faktore biologikoen ondorio. Haien iritziz, «sexu hitzak barne hartu beharko lituzke ugaltzeko gaitasunarekin zerikusia duten emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasun fisiko, anatomiko eta fisiologikoak; aldiz, genero hitzak beste mota bateko abstrakzio maila lekarke, gizon eta emakumeen ideia, adierazpen eta jardunek agerian uzten duten espazio eta funtzio sozialen hierarkizazio eta botere banaketarekin zerikusia duena, hain zuzen» (M.L. Esteban, 2006). Generoak, beraz, gizon edo emakume jaiotzearen araberrako egituratze sozial, historiko eta kulturalari egiten dio erreferentzia. Hortaz, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunei, sexu ezberdintasunak alde batera utzita, genero desberdintasuna esaten zaie.

Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen jatorria sexu bakoitzari egotzitako ezauzgarri hierarkizatueta dago. Horren araberrakoak dira estereotipo femeninoa eta maskulinoa. Hala, **femeninotasunari** egozten zaizkio espazio pribatua, mendekotasuna, esanekotasuna, ahultasuna, iritzi eskastasuna, intuizioa, konformismoa, pasibotasun sexuala eta gozotasuna. **Maskulinotasunari**, aldiz, espazio publikoa, burujabetza, nagusitasuna, arrazionaltasuna, indarra, oldarkortasuna, inteligentzia, anbizioa, kemen sexual menderaezina, hitza eta ahotsa. Osasun arloko profesionalak ere sinesmen horiek dituzte, eta sexismoa eta androzentrismoa islatzen dituzte euren lanean. Maskulinotasuna gizatasunarekin lotzen dute, eta gainerako gizataldeetan aplikatu beharreko eredu gisa baliatzen (C. Ruiz-Jarabo Quemada eta P. Blanco Prieto, 2004).

Benno de Keijzer-ek dioenez (Benno de Keijzer, 2003), definizio guztien araberr, generoa sexu biologikoari buruz gizarte batek egiten duen interpretazioan oinarritutako egitura soziokulturala da. Hiru elementuk osatzen dute:

- identitate aukera eta egituratze subjektiboak;
- emakumeen eta gizonen arteko botere harremanak;
- bien arteko aldeak edo asimetriak.

Generoa horrela zehaztuta, maskulinotasuna eta femeninotasuna ez ditu biologiak erabat zehazten, bereizteko prozesu kultural bidegabek baizik. Horiek zehazten dute zer «dagokien» gizonei eta zer

«tokatu» zaien emakumeei. Gizon gehientzat biologiaren mendeko kontua bada ere, sehaskatik hilobira eta senitartetik ekonomia edo politika publikoetara doan prozesua da generoa.

Generoa emakumeen egoera ulertzeko eta salatzekeo tresna gisa sortu bazen ere, ikuspuntuaren ahalmen esplikatzailea kontuan hartuta, batez ere XX. mendearen azken urteetatik aurrera baliatzen da gizonen egoera azaltzeko.

7. MASKULINITATEA NOLA ERAIKITZEN DEN

Maskulinitateak hainbat ezaugarri maskulino nabarmentzen ditu, kulturen honela islatzen direnak: gizona gizon egiten duena ugaltze ahalmena da, edo ar dominatzailea izatea. Kultura batean gizonekin lotzen diren jokabide eta ezaugarriei egiten die erreferentzia. Definizioa eta ugaltze sistemaren arabera sexu ikuspegia bereiztea komeni da, maskulinitateak ezaugarri kulturalak eta biologikoak uztartzen dituelako.

Janet Saltzman Chafetz-ek (1974)¹ zazpi maskulinitate eremu zehaztu zituen kultura orokorraren barruan:

1. **Fisikoa:** Maskulinoa, gihartsua, kementsua eta ausarta da. Itxurak edo zahartzeak ez diote kezkarik eragiten.
2. **Funtzionala:** Bera arduratzen da familia elikatzekeo lan egiteaz.
3. **Sexuala:** Sexualki aktiboa da, eskarmentuduna. Ona da ezkongabea izatea.
4. **Emozionala:** Ez du emoziorik adierazten; estoikoa da eta ez du negarrik egiten.
5. **Intelektuala:** Logikoa, intelektuala, praktikoa, arrazionala eta objektiboa da.
6. **Interpertsonala:** Liderra da, dominatzailea, diziplinatua, burujabea, askea eta indibidualista da.
7. **Beste ezaugarri pertsonal batzuk:** Arrakasta lortzera bideratuta dago, handinahia da, orra, ha rroa, berekoia, balio moralak ditu, fidagarria da, segurua, lehiakorra, inhibitua eta abenturazalea.

Maskulinitateari egozten zaizkion balioez edo ezaugarriez gain, maskulinitatea harremanen ikuspuntutik ere garatu behar dugu, Daniel Cazés-ek bezala². Genero zapalkuntzan gizonek betetzen duten papera eratu eta islatzen duten ideien zerrenda da honakoa:

- Gizonak eta emakumeak ezberdinak dira funtsean; gizona emakumearen gainetik dago, eta «benetako gizona», era berean, maskulinitasun nagusiak agindutako betebeharreri muzin egiten dien edozein gizonen gainetik.

- Femeninotzat jotzen den edozein jarduera, jarrera edo jokabidea duen gizonak bere burua hondatzen du.

- Gizonek ezin dute femininotzat jotzen den sentikortasunik nahiz zaurgarritasunik sentitu, ezta adierazi ere.

1. Informazioa: www.wikipedia.org/wiki/Masculinidad (2009ko apirilaren 23an berrikusia)

2. El feminismo y los hombres. Daniel Cazés. Hemen kontsulta daiteke: <http://www.edualter.org/material/masculinitat/feminismo.htm> (Berrikuspen data: 2009ko apirilaren 23a)

- Besteak menderatzeko gaitasuna eta nahia, eta edozein lehian garaile suertatu nahi izatea: horra gizon guztien nortasunaren funtsezko eta nahitaezko ezaugarri bi.

- Ezaugarri maskulino gorenetakoa bat irmotasuna da.

- Gizonaren zeregin nagusia familiaren euskarria izatea da. Gizonezkoen pribilegio eskusiboa da hori.

- Gizonen konpainia emakumeena baino hobea da, sexu harremanetarako izan ezik.

- Aipatu berri duguna emakumeengana gerturatzeko bide bakarra da gizonentzat, eta bosterea zein plazera eskuratzeko aukera ematen dute.

- «Benetako gizonak» sexualitatearen bidez adierazten dute emakumeak baino gehiago direla eta haien gainetik daudela. Aldi berean, gainerako gizonekin lehiatzeko funtsezko baliabidea da.

- Muturreko egoeretan, gizonak beste gizonak hil behar dituzte. Hortaz, beharrezkoa denean ez egitea erabakitzen duenak, koldarkeria eta gizontasun gabezia ageriratzen ditu.

Ikusmolde horiek daude matxismoaren eta misoginiaren oinarrian. Era berean, gizakia genero subjektu gisa (emakume ala gizon) egituratzen dela dioten oinarritzko erro tradizional sakonak islatzen dituzte, ustez ukaezin direnak:

- Maskulinitasuna da ardatz nagusi, giza paradigma bakarra delako: gauza ororen neurri dira gizonak.

- Gizonak buruzagi izan behar du. Gizarte harremanen ordenak horixe ahalbidetu behar du, era batera edo bestera.

- Gizonei dagozkie eta besterenezinak dira protagonismo sozial eta historikoa, antolakuntza eta agintea, adimena, botere publikoa, botere poliziala, militarren indarkeria, legeztatze ahalmena, pentsaera, hezkuntza eta moralak arautzea, sormena eta menperatzea, gainontzekoak gidatzea, norbere nahiz edonoren bizitzari buruzko erabakimena, erakundeak sortu eta kudeatzea, medikuntza, jainkoekiko harremana, eta idealak zein proiektuak definitzea. Hitz batean, bizitza publikoa, garrantzia duena, gorena dena, entzutea duena.

Bestalde, Connell-ek (1995) maskulinitate hegemonikoaren kontzeptua erabili zuen, kultura nagusiari buruz jarduteko. Horrek ez du esan nahi menpeko maskulinitate gehiago sortuko ez denik.

Mundu osoko gizonak orain dela gutxi hasi dira maila akademikoan eta gizarte erakundeetan gizon identitatearen inguruan hausnartzen. Hala, gizonentzat zein emakumeentzat kaltegarriak izan diren eredu maskulinoak berreraikitzeari ekin diote. Feminismoaren aldeko gizonak buruz ari gara. Joera hori Euskadin ez dago beste toki batzuetan bezain errotuta. Espainian, Nikaraguan edota Mexikon, adibidez, ekimen berri ereduak asko dago.

Gizonen portaera zerk eragiten duen jakiteko, maskulinitatearen eta genero indarkeriaren arteko lotura aztertu izan da.

Indarkeriaren monopolioa gizonen esku dago batez ere. Michael Kaufman-ek (Michael Kaufman, 1999) dioenez, indarkeriaren arrazoiak behar bezala ikertzeko, gizonak izan behar dute aztergaia. Horrela, gizonen indarkeria ekintzak «gizonen indarkeriaren hirukoan» daude oinarrituta:

- **Norberaren aurkako indarkeria**, honako hauen bidez: suizidioa, alkoholismoa eta beste adikzio batzuk, baina baita gaixotasun psikosomatikoak ere. Gorputza ez zaintzeko joera ere hemen sar dezakegu.

Espainiako Estatistika Erakundearen datuek³ garbi uzten dute gizonen hilkortasun tasa handiagoa dela; bai kanpo arrazoiengatik, bai arrisku handiagoko jokabideengatik. Horixe adierazten dute zirrosiak eragindako hildakoen kopuruak, alkoholaren kontsumoa islatzen duenak, eta estupezak hartzeagatik hildakoen kopuruak.

Suizidioak sexuaren arabera, 2006an

	Gizona	Emakumea
Euskadi	76	17

Zirrosiagatik edo gibeledako beste gaixotasun kronikoengatik hildakoak sexuaren arabera 2007an

071	
Gizonak	4.086
Emakumeak	1.608

Drogak hartzeak eragindako buruko gaitzen ondorioz (droga-mendetasuna, toxikomania) hildakoak 2007an

048	
Gizonak	40
Emakumeak	5

- **Emakumeen aurkako indarkeria** (haurren aurkakoa ere bai), indarkeria eta gehiegikeria mota guztien bidez, ugalkortasun inposatua, ez dagoen aitatasuna.

Genero indarkeriari buruz aurrerago hitz egingo badugu ere, honakoa azpimarra dezakegu: «Emakumeen aurkako indarkeria herrialde, gizarte maila eta eremu guztietan ematen da» (P. Blanco, C. Ruiz-Jarabo, L. García de Vinuesa, M. Martín-García [2004] eta M.L. Lasheras Lozano; M. Pires Alcalde [2003]).

Indarkeria noiz erabiltzen den aztertzean, ikusiko dugu emakumeen bizitzako ziklo guztietan dagoela presente (OME/OPS, 1998):

- Jaio aurreko aldiak: umekiaren sexuaren arabera, abortuak egiten dira.
- Haurtzaroan: hil egiten dira neskek, edota gehiegikeria fisiko, sexual eta psikologikoa pairatzen dituzte.

3. Informazio gehiagorako, ikus: www.ine.es/jaxi/tabla.do (Berrikuspen data: 2009ko apirilaren 30a).

- Umezaroan: nesken genitalen mutilazioa, haurren ezkontza, gehiegikeria fisiko, sexual eta psikologikoa, intzestua, prostituzioa eta pornografia
- Nerabezaroan eta helduaroan: diru premiagatik sexu harremanak izatera behartzen dituzte, indarkeria jasaten dute ezkongaitan, emakumeen trafikoa, senarraren indarkeria, haurdun gelditu beharra, eta abar.
- Zahartzaroan: alargunen «suizidio» behartua edo hilketa; gehiegikeria fisiko, sexual eta psikologikoa.

- **Beste gizonen aurkako indarkeria**, ondokoen bitartez: istripuak, hilketak, lesioak...

Sexu delituen ondorioz kartzelatutakoak 2007an

	Gizonak	Emakumeak
Pertsonen aurka Espainian	398	11

Giza hilketagatik eta sexuagatik izandako heriotzak 2007an

099 Erasoak (Giza hilketak)	
Gizonak	227
Emakumeak	121

Gizonen aurkako indarkeria **homofobia** kasuetan ikus dezakegu. Gogoan izan duela urte gutxi ezabatu zutela homosexualitatea Ameriketako Estatu Batuetako osasun mentalaren sailkapenetik. Ordura arte, gaixotasuntzat jotzen zuten. Eta jakin badakit psikiatriako profesionalen artean oraindik ere badirela gaixotasuna dela pentsatzen dutenak.

Zer esan genezake orientazio sexual hori duten pertsonen osasun egoeraz? Askeak al dira? Zer esan genezake gizarteak herritar horiei egiten dien presioari buruz? Isiltasuna, haien orientazioa ez aitortzea, haien orientazioari jaramon egin nahi ez izatea...

Homofobiak periferian bizitzera behartzen ditu herritar horiek. Eta, askotan, euren sexualitatea onartu ostean, zirkulu itxietara joan ohi dira bizitzera, horietan jazarpenik, tratu txarrik eta bazterkeriarik jasango ez dutela dakitelako.

Kaufmanek zazpi P-en bitartez garatu du bere teoria:

- Lehenengo P-a: **Botere patriarkala**. Giza taldeek gizartea eta ideologia antolatzeko modu betierekotuak osatzen dituzte, eta horien bidez azaltzen, justifikatzen eta elikatzen dituzte sortutako errealitateak.

- Bigarren P-a: **Pribilegioak izateko eskubideak hautematea**. Indarkeria eragiten duena ez da boterearen arloko ezberdintasuna bakarrik; pribilegioak izateko eskubidearen usteak ere badu horretan zerikusirik, nahita batzuetan eta nahi gabe askotan.

- Hirugarren P-a: **Baimena**. Indarkeriak ez luke iraungo baldin eta gizarte ohituretan, legedian, araudia aplikatzean eta zenbait erlijio irakasteen indarkeria erabiltzeko baimenik emango ez baltz (esanbidez edo isilbidez).

- Laugarren P-a: **Gizonen boterearen paradoxa**. Boterearen eta pribilegioen munduak haurren heziketatik eta emozioen oinarritik urruntzen bagaitu, orduan arazo desgaitzailez betetako bote-

rea duten gizonak ari gara sortzen. Ezin lortuzkoak dira maskulinitatearen itzaropenak.

- Bosgarren P-a: **Maskulinitatearen armadura psikikoa**. Maskulinitatea amari eta feminitateari uko egitean oinarritzen da; hau da, zainketa eta oinarri emozionala duten ezaugarriak baztertzean.

- Seigarren P-a: **Maskulinitatea, presio eltze psikologiko**. Maskulinitatean, emozioak barneratu eta haserre bihurtzearen ondorio dira jarrera menderatzailea ugari. Mutua da gizonen emozio hizkuntza, eta okertuta daude haien antena emozionalak eta enpatiarako gaitasuna. Maskulinitatea botere eta kontrol kontua bada, boteretsua ez izateak gizon ez izatea esan nahi du. Horregatik, euren buruari eta gainerakoei kontrakoa adierazteko erabiltzen dute indarkeria.

- Zazpigarren P-a: **Aurreko bizipenak**. Bizipen pertsonalek zalantza eta frustrazio eredu sakonak irakasten dizkigute batzuetan. Horrelakoekin, maitatuei min egin diezaiekegula ikasten dute umeei, eta haserrealdiek bakarrik ezaba ditzaketela barne min sakonak.

8. GENEROAREN ALDETIK DAUZKAGUN EZBERDINTASUNAK

Genero ezberdintasunen ondorioz, ez dira betetzen OMEk osasun ona izateko ezinbestekotzat jotzen dituen aurrealdintzak. Aberastasuna ez da inolako berdintasunez banatzen, neskak eta emakumeak planetako aberastasunen % 1 baino gutxiagoren jabe dira... Hala garapen bidean dauden herrialdeetan nola herrialde aberatsetan, txirotasunak emakumei eta umeei eragiten die batez ere. Haien izaten dira desnutrizioaren eta gerren lehenengo biktimak. Eta errefuxiatuen esparruetan gehiengoa.

Aurrerapausoak eman dira Kairoko eta Beijingeko ekintza programetan zehaztutakoa lortzeko; hots, herritarrekin, emakumeekin eta garapenarekin lotutako politikak ikuspegi integralera bideratzeko. Baina emakumeek osasunerako eskubideaz gozatzeko duten eragozpen nagusietako bat genero ezberdintasuna da, horrek bigarren mailan kokatzen dituelako gizartean eta asko mugatzen duelako euren bizitzari buruz erabakiak hartzeko duten eskubidea. Berdintasun ezaren aurkako borroka ez da Estatu politika. Oraindik ez da politikaren eta gizartearen agendan sartu, eta urte ugari igaroko dira berdintasun legeek benetako eraginkortasuna izan arte.

Sexuen arteko ezberdintasunari dagokionez, gizarteratze prozesua eta lanaren sexuen araberako banaketa koherenteak dira ia gizarte guztietan. Gizonezkoek arlo publikora eta ordaindutako enplegura jotzen duten bitartean, emakumeak ongizatea zaintzeaz arduratzen dira batez ere; hau da, zeregin ugaltzaileaz (funtsean, etxeko lanez, senideak informalki zaintzeaz eta sare sozialak mantentzeaz).

9. EZBERDINTASUNAK OSASUN ARLOAN

Gizonen eta emakumeen osasunean dauden ezberdintasunak zehazteko orduan, bi eredu mota ditugu azalpenak emateko:

- **Eredu biologiko-genetikoak:** eredu horietan, biologiarekin eta herentzia genetikoarekin lotzen dira pertsonen eta gorputzaren jokabideak, eta azken horien mende egoten dira gaixotzeko arriskuak.

- **Eredu sozio-kulturalak:** eredu horietan, generoan oinarritzen dira emakumeen eta gizonen osasunaren artean dauden ezberdintasunak azaltzeko. Eredu horien arabera, bi sexuen arteko berdintasun ezak gizartean du jatorria. Alegia, gizarteak, ekonomiak, politikak eta balioek sexu bakoitzari esleitutako arauak baldintzatzen dituzte pertsonen bizipenak. Eta, ondorioz, osasuna bera.

Emakumeen eta gizonen osasuna ez da berdina, eta faktore biologikoek eragin zuzena dute horretan (faktore genetikoek, herentziaz jasotakoek eta fisiologikoek). Horregatik, hala osasuna nola gaixotzeko arriskuak ezberdinak dira batzuen eta besteen kasuan. Ikuspuntu epidemiologikotik begiratzen badiogu, emakumeek bizi itxaropen luzeagoa dutela esan genezake, baina bizi kalitate okerragoa. Izan ere, ezberdintasunak baitaude gaitasun ekonomikoan, heziketa jasotzean, denbora antolatzean, elikagaiak eskuratzean... Emakumeen eta gizonen osasunaren arteko ezberdintasun horiek ez dute faktore biologikoekin zerikusirik, kulturarekin eta gizartearekin baizik.

Ikuspuntu politikotik begiratzen badiogu, zera esan dezakegu emakumeen osasunari dagokionez: «Orain dela urte gutxira arte, haurren osasuna ziurtatzeko bitartekoa zen, edo ugalkortasuna murrizteko eta biztanleen hazkundera kontrolatzeko ezinbesteko baldintza» (L. Antolín, 1997). Denborarekin, baina, emakumeen osasunak garrantzia hartu zuen, ekoizpen ekonomikoarekin lotu zelako. Gaur egun, onartuta dago garrantzitsua dela emakumeen osasuna bera; hots, emakumeek osasun beharrak dituztela, ama, ugaltzaile eta langile izatetik harago.

Herrialde txirotuetan, bigarren mailako pertsonak dira emakumeak: ez daukate autonomiarik, ez eta erabakiak hartzeko eskumenik ere, gutxietsi egiten da haiek egindako lana eta gizonen mendean bizi dira. Horrek genero ezberdintasunak eragiten ditu osasunaren arloan: pobrezia, osasun zerbitzuetara jotzeko zailtasunak, elikaduran diskriminazioa, haurdunaldi goiztiarrak, indarkeria, lan karga handiegia... Horiek guztiak dira emakumeen heriotzaren eta erikortasunaren arrazoi nagusiak (erditzearekin lotutako heriotzak eta gaixotasunak, anemia, malnutrizioa, genitalen mutilazioa, sexu erasoak, indarkeriak eragindako heriotzak, eta abar).

Gizartean nagusi den balio sistema dela-eta, bien arteko aldeak desberdintasun bilakatzen dira. Erakundeek sortu dituzte balio horiek (Estatuak, elizak, enpresak, familiak...), euren interesak asetzeko. Osasun sistemak eta osasunaren arloko profesionalek ere balio horiek berak helarazten dizkigute euren lanaren bidez. Argia da oso haien neutraltasun eza.

Herrialde txirotuetakoa amen hilkortasun tasa, haurdunaldia ekiditeko bitartekoak eskuratzeke ezintasuna, osasun zerbitzuetara jotzeko oztopoak, emakumeen aurkako indarkeria... Horrelako egoeren aurrean, hainbat galdera egiten dizkiote osasunaren arloko langileek euren buruari, zientzia biomedikuek erantzun ezin dituztenak. Munduko pertsona gehienek bizi duten pobrezia-aren eta fundamentalismo erlijiosoaren ondorioz, gizon eta emakume askok ez daukate ernalkuntza kontrolatzeko metodo eraginkor eta seguruak lortzeko modurik.

Arthur Kleinmanek azaltzen duen moduan (A. Kleinman, L. Eisenberg eta B. Good), derrigorrezkoa da egungo arazoak aztertzeke beste bide batzuk bilatzea: «Osasun laguntzaren arloan dauden arazo nagusiak (pazienteak gustura ez egotea, osasun laguntza jasotzeko orduan ekitate eza, kostuak...) ez daude biomedikuntza tradizionalak eskaintzen dituen konponbideak onartzeko prest. Antropologiatik eta kulturen arteko ikerketatik eratorritako kontzeptuak lagungarriak izan daitezke konponbidea behar duten arazoak identifikatzeko esparru alternati-boa zehazteari begira»..

9.1. GIZONEZKOEN OSASUNA

Mundu osoko ia gizatalde guztietan, emakumeek gizonak baino bizi itxaropen luzeagoa dute, baina gizonak gaixotasun gutxiago izaten dituzte bizitzan zehar.

Gizonezkoen hilkortasuna emakumeena baino handiagoa izaten da adin guztietan, baita haurdunaldian eta garai perinatalean ere; horregatik, neurri batean faktore genetikoei lotzen zaie egoera hori.

Helduen artean, gizonen gehiegizko hilkortasuna kulturak gizonari esleitutako portaera arriskutsuen ondorio izan liteke, hein batean: alkohola eta tabakoa kontsumitzea, zirkulazio, lan edo kirol istripuak, etab.

Beti esan izan da emakumeak denbora luzeagoan bizi direla, baina erikortasun handiagoa dutela. Ostera, eztabaidak sortu dira baieztapen horren inguruan; izan ere, dirudienek ez dago homogeneousunik emakumeen artean, ohitura ezberdinak dituztelako hainbat aldagai aintzat hartuz gero (egoera zibila, laborala, soziala, ekonomikoa...). Badira bizi kalitate okerragoa duten emakumeak.

Orain arte egindako azterlanak harremanezkoak izan dira; hau da, emakumeen osasunarekin alderatuta aztertu dute gizonen osasuna.

Pertsonen bizitzan, bi rol dira nagusi: rol emankorrak (okupazionala) eta rol ugalkorrak (familia-rrak). Horregatik, bi faktore horiek osasunean zer-nolako eragina duten aztertu da.

9.2. GENERO EZBERDINTASUNAK EAEko HERRITARREN OSASUNEAN

(A. Bacigalupe de la Hera eta U. Martín Roncero, 2006)

Garatutako gainerako herrialdeetan bezala, gizonak emakumeak baino denbora gutxiago bizi dira. 1. taulan ikus dezakegun bezala, hilkortasun tasa nola jaiotzean hala gerora da handiagoa gizonen kasuan. Bizi itxaropenaren batez bestekoaren arabera, gizonak emakumeak baino 7,1 urte gutxiago bizi dira.

Bizi-itxaropena adinaren eta generoaren arabera. EAE, 2002-2004

Adina	Gizonak			Emakumeak			Emakume eta gizonen arteko aldea	
	Bizi-itxaropena	% 95eko konfiantza-tartea		Bizi-itxaropena	% 95eko konfiantza-tartea		Guztira	%
0	77,0	76,9	77,1	84,1	84,0	84,2	7,1	9,2
40	38,4	38,3	38,6	45,0	44,9	45,1	6,7	17,3
65	17,1	17,1	17,2	21,9	21,8	21,9	4,7	27,4
80	7,6	7,5	7,7	9,8	9,7	9,8	2,2	28,5

1. TAULA | Iturria: Norberak egina Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren 2002tik 2004rako hilkortasunari buruzko txostenetako datuak eta Espainiako Estadistika Institutuaren biztanleria-datuak erabilita.

Gizonek hiltzeko arrisku handiagoa dute adin guztietan, eta hain zuzen ere horregatik dago halako alde emakumeen eta gizonen bizi itxaropenean. Hiltzeko mehatxu hori ohitura osasungaitzen eta arriskutsuen ondorio da gizonen kasuan.

Gizonek emakumeek baino gehiago erretzen dugu, eta alkohol gehiago edaten.

Osasunarekin zerikusia duten bizi-ohitura zenbaiten prebalentzia, generoaren arabera. Adinaren arabera estandarizaturiko %. EAE, 2002.


EV	Gizonak	Emakumeak	esng*	esng**
Ohiko erretzailea	30,7	21,8	< 0,001	< 0,001
Ohiko edalea	59,7	31,1	< 0,001	< 0,001

2. TAULA | Iturria: Norberak egina 2002ko EAEko Osasun-inkestaren datuak erabilia.

* Erregresio logistikorako ereduaren bidez adinaren arabera doitutako esangura-maila⁴²

** Erregresio logistikorako ereduaren bidez adinaren eta maila sozialaren arabera doitutako esangura-maila

Kanpo faktoreek (zirkulazio istripuek eta giza hilketek, batez ere) eragindako heriotzak ere maizago ematen dira gizonen artean; gazteen artean, gainera, heriotzaren arrazoi nagusia da hori. 2004an izandako heriotzen artean, kanpo arrazoiek eragindakoak % 70 izan ziren 15 eta 29 urte arteko gizonen kasuan. Emakumeen kasuan, berriz, % 45.



Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren (DGT) txosten eta datuak begiratu gero, horrelakoak topatuko ditugu: (Trafikoko Zuzendaritza Nagusia, 2005)

«Zirkulazio datuek erakusten digutenaren arabera, 2005ean 3.652 pertsona hil ziren errepidean (% 79 gizonezkoak ziren), eta haietatik 2.357 gidariak ziren (hildako gidarien % 91 gizonezkoak ziren).

2005ean, emakumezko 186 gidari hil ziren; gizonezkoen kasuan, 1.284 (zazpi aldiz gehiago). Ziklomotorrei dagokienez, ibilgailu horiek gidatzen zituzten 10 emakume hil ziren, eta 142 gizon (hamalau aldiz gehiago). Ibilgailu profesionalen gidarien kasuan (anbulantziak, kamioiak, furgon-

netak eta autobusak), 9 izan ziren emakumezkoak eta 202 gizonetzkoak (hogeita bi aldiz gehiago gizonen kasuan). Motozikleten kasuan, 4 emakume hil ziren, eta 326 gizon (81 aldiz gehiago)».

Nola azaldu ezberdintasun horiek? Hona hemen hainbat erantzun:

- a) Oro har, gizoni esleitzen zaie gidatzeko funtzioa (etxeetan eta enpresetan).
- b) Gizoni ibilgailu arriskutsuak gustatzen zaizkie (motozikletak).
- c) Lan merkatua generoaren arabera bereizita dago (gidari izatea gizonetzkoen lana da).
- d) Arriskua, abiadura eta gizarte arauak ez errespetatzea maskulinitasunaren irudi dira oraindik ere.
- e) Beste ideiarik bai?

Esanguratsua da, halaber, batez ere gizonetzkoek egiten dutela beren buruaz beste eta haiek egiten dituztela erailketa gehien.

Amaia Bacigalupek eta Unai Martínek dioten moduan, hilkortasunaren arloan dauden aldeak gizarteak gizoni eta emakumeei esleitutako zereginen ondorio dira neurri handi batean. Gizontasunarekin lotzen dira, besteak beste, tabakoa zein alkohola kontsumitzea eta modu arriskutsuan gidatzea. Gizarteak gizon izatearekin uztartzen ditu horiek bezalako ohitura arriskutsuak.

Herrialde garatuetan, emakumeen rol sozialak aldatzen ari dira azken urteotan eta, ondorioz, haien ohi-turak ere bai. Horregatik, pixkanaka berdintzen ari dira gizonen eta emakumeen hilkortasun patroiak.

Zenbait hilkortasun-adierazleen bilakaera, generoaren arabera. 1991en aldean, % zenbat aldatu den 2003an. EAE

	Gizonak	Emakumeak
Heriotza	+8,4	+23,4
Hilkortasun-tasa estandarizaturia	-21,7	-5,2
Haurren hilkortasun-tasa	-56,9	-44,5
Bizi-itxaropena jaiotzean	+5,5	+2,3
Bizi-itxaropena 40 urterekin	+6,4	+4,2
Bizi-itxaropena 65 urterekin	+12,0	+8,2
Bizi-itxaropena 80 urterekin	+7,4	+7,7

3. TAULA | Iturria: Arregi eta kolaboratzaileak, 2006

Rolak homogeneousatzeko prozesu horrek eta gizon eta emakumeen arteko heriotza tasetan duen eraginak hainbat hipotesi sortu ditu:

- Konbergentziaren hipotesia edo emakumearen emantzipazioaren hipotesia eta babesaren murriztearen hipotesia: hipotesi horien esanetan, emakumeak lan merkatuan sartu ahala eta euren rola gizonen rolen antz handiagoa hartu ahala emakumeek arrisku portaera handiagoak dituzte eta horrenbestez bi sexuen arteko heriotza tasen arteko desberdintasuna txikiagoa da.

- Doikuntza instituzionalaren hipotesia: emakumeek gero eta gehiago parte hartzen dute gizonenak izan ohi diren jardueretan, eta horren ondorioz arrisku portaera gehiago izaten dute eta euren heriotza tasa igo egiten da.

- Genero rolen modernizazioari buruzko hipotesia: emakumeen rola aldatu egin dira, baina emakumeek soilik rol femeninoaren erantzukizun tradizionalekin bateragarriak diren portaerak hartu dituzte.

9.3. GIZONEK EMAKUMEEN AURKA ERABILTZEN DUTEN INDARKERIA

«Emakumeen aurkako indarkeria da, ziurrenik, giza eskubideen urraketa guztien artean lotsagarriena. Ez dauka muga geografikorik, ez kulturalik, ez ekonomikorik. Jarraitzen duen bitartean, ezingo dugu esan berdintasunaren, garapenaren eta bakearen bidean benetan aurrera egin dugula.»

Kofi Annan, Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusi ohia

Boninok zera adierazi du hainbat artikulutan (L. Bonino Méndez, 2000): «Indarkeria ez da "emakumeen" arazoa, "emakumeentzako" arazoa baizik. Berez, gainera, gizonen kultura maskulino/patriarkalaren arazoa da».

Genero indarkeria giza eskubideen aurkako eraso da. Eraso mota guztien artean zabalduena dagoena, agian. Herrialde, kultura eta erlijio bakoitzean aurpegi ezberdinak izan ditzakeen arren, arazo unibertsala da. Eta estatistikek erakusten digutenaren arabera, giza eskubideen zapalketa horiek oso zabaldua daude eta sarritan gertatzen dira. Estatistikak alde batera utzita, sekulako sufrimendua eragiten die hala emakumeei nola haurrei.

Genero indarkeriak heriotza eta desgaitasun asko eragiten ditu 15 eta 44 urte bitarteko emakumeen artean; minbiziak, malariak, lan istripuek eta gerrek baino gehiago (Panos, 1998).

Osasunaren Erakunde Paramerikarraren arabera:

- Datu fidagarriak eskaintzen dituzten herrialdeetako emakumeen % 10-50ek gehiegikeria fisikoa jasan dute bikotearen aldetik.
- 16 eta 49 urte bitarteko emakumeen % 33k sexu jazarpena jasan dute.
- Ekonomia garatuetan, ugaltzeko adinean dauden emakumeen artean, bizi osasuntsuko bost eguneko bat galtzearen erantzule da genero indarkeria.

AVISA parametroa beste patologia edo egoera batzuekin lotzen badugu, ondoko proportzioak emango dizkigu egoera bakoitzeko:

- Diabetesa: % 8,1
- Erditzean izandako arazoak: % 7,9
- Emakumeen aurkako erasoak: % 6,6
- Kardiopatia iskemikoak: % 5,5

Osasun zerbitzuetan ere baditu ondorioak indarkeriak, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeak beste emakumeak baino maizago joaten baitira osasun zerbitzuetara. Tratu txarrak jasaten dituztenen kasuan, jasaten ez dituztenen kasuan baino gehiago izaten dira ebakuntza kirurgikoak, mediku bisitak, ospitale-ratzeak, farmaziara eginiko bisitak eta buru osasuneko kontsultak (E. Drug eta beste batzuk, 2003).

Genero indarkeriak beste modu batzuetan ere eragiten du gizartean. Hala, esaterako, kostuak eragiten ditu osasun laguntzaren arloan (OME/OPS, 1998). Ameriketako Estatu Batuetan egindako ikerketa batek erakutsitakoaren arabera, sexu erasoen edo eraso fisikoen biktima izandako emakumeek anbulatorioan jasotako laguntzak gainerako emakumeen kasukoak baino kostu handiagoa izan zuen (bi eta erdi gehiago, batez beste). Horri beste zenbait esku-hartzeren gastuak erantsi beharko genizkioke; poliziala, judiziala edo gizarte zerbitzuen kostua, kasu.

OMEren azterlanarekin jarraituz, ekoizpenean eta enpleguan dituen eraginak ere aipatu beharko genituzke. Kanadan emakumeen aurkako indarkeriari buruz egindako inkesta baten arabera, emazteak

erasotzeagatik salatutako gertakarien % 30ek murriztu egin zuten ohiko jardueretara eskaintzeko denbora, eta lesioak izandako emakumeen % 50ek gaixotasun baimenak hartu zituzten lantokian.

9.4. OSASUN ALORREKO PROFESIONALAK ETA GENERO INDARKERIA

Aztertutako egile eta erakunde guztiek garrantzi handia ematen diote osasunaren arloko profesionalak indarkeria prebenitzeko, antzemateko eta tratatzeko orduan duten egitekoari. Kontua da ia biktima guztiak euren ohiko sendagilearengana joan zirela eraso jasan eta ondorengo urtean, eta ohi baino maizago gainera (M.P. Koss, P.G. Koss, W.J. Woodruff, 1991).

Espainiako Familiako eta Komunitateko Medikuntza Sozietateak egindako ikerketaren arabera (SEMFYC, 2003), familia medikuek haien kontsultara joandako emakumeen % 10 eta 40 artean antzematen dituzte abusu kasuak. Málagako Costa del Sol ospitalean egindako beste ikerketa batean esaten denez (R. Siendones Castillo, E. Perea-Milla López, J.L. Arjona Huertas, C. Agüera Urbano, A. Rubio Gallo, M. Molina Molina, 2002), etxeko indarkeria kasuen % 70 baino gehiago ikusezinak dira oraindik ere osasunaren arloko langileentzat. Profesionalen % 66k gainera, ez dute indarkeria diagnostiko diferentzial gisa hartzen euren eguneroko lanean.

Hainbat ikerketak diote herrialde gehienetan medikuek eta erizainek ia inoiz ez dietela emakumeei tratatu txarrak jasotzen ote dituzten galdetzen, eta ez dutela indarkeria arrastorik baduten begiratu ere egiten.

British Medical Journal aldizkarian 2002an argitaratutako lanaren arabera, etxeko indarkeria jasaten zutela zioten emakumeen % 17 baino ez zituzten hala izendatu osasun arloko profesionalak (J. Plazaola-Castaño, I. Ruiz Pérez).

Osasunaren arloko profesionalekin egindako azterlanek ondoko egoerak azaltzen dituzte orokorrean (M. Pablo Méndez-Hernández eta beste, 2003):

- Osasunaren arloko langileek ezer gutxi dakite emakumeen aurkako indarkeria identifikatzeko, arreta emateko eta mekanismoak martxan jartzeko prozesuez. Indarkeria bikoteak eginikoa bada batez ere.

- Batzuetan, osasunaren arloko langileek pazienteari nolabait laguntzeko edo nonbaitera bideratzeko nahia izan arren, osasun sistemaren mugetan harrapatuta gelditu daiteke (arau falta, sendagileek parte hartzeko zilegitasun sozial eskasa, genero indarkeria identifikatzeko eta horren aurrean ekiteko protokolo falta...).

- Osasunaren arloko langileentzat arazoa da indarkeria kasuak erregistratzea, horri lotuta dagoen erantzukizun legala dela-eta. Horregatik, kasu batzuk erregistratu gabe gelditzen dira.+

- Medikugintzaren ezaugarriek mugatu egiten dute emakumeen aurkako indarkeria kasuetako parte-hartzea.

- Pertsonari lotutako muga batzuk ere badira, osasunaren arloko langileen lana mugatzen dutenak. Horien artean, ondokoak dira aipagarrienak: pazienteek indarkeriari buruz hitz egitean sentitzen duten deserosotasuna, indarkeria jasaten duten emakumeek beren burua erruduntzat jotzeko duten joera, sendagileek galderak egitean pazienteak mintzeko duten beldurra...

Esanguratsua da sendagileei indarkeriarekin lotutako bizipen pertsonalen inguruan galdegin zitzaienean, % 21ek erantzun zutela motaren bateko edo besteko indarkeria jasan zutela biko-

tearen eskutik. Emakumeen aurkako indarkeria kasuak ziren gehienak. Bestalde, % 16,5ek bikotearen aurka indarkeria erabili izana onartu zuten. Sexuen artean ezberdintasunik ez ze-
goen alde horretatik.

Espainiako Gobernuaren Osasun eta Kontsumo Ministerioaren webgunean Seattleko Unibertsitatean egindako azterlan bat topatu dut (N.K. Sugg, T. Inui, 1992). Azterlan horretan, familia medikuak elkarrizketatu zituzten, etxeko indarkeriari buruz galderak egiteko orduan zergatik beldurtzen ziren jakiteko. Arrazoi nagusien artean, ondokoak aipatzen ditu:

- % 20 zer gertatuko beldur dira, bai eta etxeko indarkeriari buruz galdetzean kontrola galtzeko beldur ere.
- % 50ek mugatuta ikusten dute denbora, gaia ondo prestatu gabe, pazientea mintzeko beldurra, gaia ondo ez bideratzeko beldurra, eta ez dakite galderak nola egin.
- % 42k frustrazioa sentitzen dute, biktimaren portaera ezin kontrolatu izatearen ondorioz.
- % 39 pazienteekin identifikatzen dira.
- Profesional batzuei ez zaizkie sinesgarriak iruditzen emakumeen azalpenak.
- Emakumeek, batzuetan, ez dute komunikatu nahi izaten, ez direlako osasun zerbitzuekin fidatzen.

Beste egile batzuek bestelako arrazoi batzuk aipatzen dituzte etxeko indarkeriari buruzko galderak ez egitearen zergatian sakontzean (C. García-Moreno, 2000):

1. Haien pazienteen kasuan etxeko indarkeriarik ez dagoela uste dute.
2. Pazienteak negartu dago eta ez du laguntzen. Mozkortuta edota beste droga batzuekin intoxikatua dago gainera, eta horrek zaildu egiten du anamnesia egitea.
3. Emakumeak eragin zuela uste dute, edo merezi zuela.
4. Etxe barruan gertatzen dena, indarkeria barne, kontu pribatua dela uste dute.
5. Emakumeak, nahi izanez gero, joateko aukera duela uste dute.
6. Erasotzailea ezagutzen dute eta ezinezkoa iruditzen zaie hark abusuak egitea.
7. Ez lukete jakingo zer egin abusua egon dela egiaztatuz gero, edota hori beste profesio-
nal batzuen egitekoa dela uste dute (gizarte laguntzaileena, esaterako).
8. Badakite zer egin, baina ez dute uste lagunduko dutenik.

Zabalduta dago, bestalde, honako uste hau: osasun zerbitzuek ez diotela genero indarkeriaren arazoari aurre modu egokian egiten. Hala, Mc Cauley-k 1998an tratatu txarrak jasotako emakumei buruz egindako azterlanaren arabera, emakumeen % 86 ohiko medikuarenean izan ziren aurreko urtean, baina hirutik bat bakarrik mintzatu zen tratatu txarrei buruz. Bradley-k 2002an ondorioztatu zuen tratatu txarrak jasotako emakumeen bostenak baino gutxiagok hitz egin zuela gaiari buruz bere medikuarekin, eta Richardson-ek antzeko kopurua zehaztu zuen 2002an (% 17) (P. Blanco Prieto, L. Mendi Zuazo, 2003).

10. PROPOSAMENAK

Txosten honetan osasunari, gaixotasunei eta arreta prozesuari buruz esandakoak adierazten duen moduan, esku-hartze estrategiak osasun zerbitzuetatik kanpo eman behar dira maiz. Lehenengo eta behin, hezkuntzaren ildoak landu beharko litzateke, oinarritzko hezkuntzan bertan hasita saihestu dadin hezkuntza sexista.

Horrez gain, osasun arloko ikasketetako ikasketa planak egokitu beharko lirateke. Medikuntza antropologia ez ezik, indarkeriaren prebentzioa eta biktimen arreta bezalako ikasgaiak gehitu beharko lirateke. Honezkero eginda behar luke horrek, Etxeko Indarkeriaren Aurkako Lege Orokorrean xedatutakoari erreparatzen badiogu.

Ezinbestekoa da, bestalde, Osasun Plana aldatzea. Batetik, legediak hala agintzen duelako (Etxeko Indarkeriaren Aurkako Lege Organikoak) eta, bestetik, datu epidemiologikoek hala aholkatzen dutelako. Edonola ere, Osasun Plana aldatu aurretik, genero indarkeria osasun inkestetan sartu beharko litzateke, indarkeria mota horrek gure inguruan dituen ezaugarriak ezagutzeko eta zehazteko.

Osasunaren arloko langileei ere eman beharko litzaieke genero indarkeria prebenitzeko eta biktimak artatzeko trebakuntza. Lehen mailako arretako, larrialdietako, ginekologiako eta obstetriziako, traumatologiako eta osasun mentaleko langileei batez ere.

Osasun, gaixotasun edo arreta prozesuan nagusi den eredu hegemoniko tradizionala edo biomedikuntza modu orokorragoan aztertu beharko litzateke. Alde batetik, profesionalen maila fisikoa, psikikoa eta soziala artikulatu ditzaten, gaur egun gizarte zerbitzuen eta osasun zerbitzuen artean dagoen banaketa zalantzan jarri. Beste alde batetik, osasuna sustatzeko neurriak hartu beharko lirateke, Ottawako Gutunak kontzeptu horri ematen dion adiera aintzat hartuta. Horrela, mendekotasunari arreta eskaintzea eta familia zein lana uztartzea bezalako alderdiak jorratu ahal izango lirateke.

11. BIBLIOGRAFIA

- Antolín. Luisa 1997. Cooperación en salud con perspectiva de género. Departamento de Salud Internacional. Escuela Nacional de Sanidad. Ed. FPFE.
- Bacigalupe de la Hera A. y Martín Roncero U. 2006. Desigualdades de la población de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Colección Derechos Humanos "Juan San Martín". ARARTEKO.
- Benno de Keijzer. 2003. El género y el proceso- salud – enfermedad – atención. Género y salud en cifras. Vol.1 nº3 Méjico.
- Blanco P., Ruiz –Jarabo C., Garcia de Vinuesa L., Martin – Garcia M 2004. La violencia de pareja y la salud de las mujeres. Gaceta Sanitaria; 18 (Supl1); 182 – 8.
- Blech J. 2005. Los inventores de enfermedades. Ed.: Destino.
- Bonino Méndez L. 2000. Actuaciones sociopolíticas preventivas de la violencia de género. UNAF. Madrid.
- Cazés D..El Feminismo y los hombres. Se puede consultar en: www.edualter.org/material/masculinidad/feminismo.htm. (Fecha de revisión: 23 de abril 2009).
- Dirección General de Tráfico (2005). Accidentes de Circulación con Víctimas. Anuario de 2005. Madrid: DGT. Disponible en línea (consultado 14 de septiembre de 2007): <http://www.dgt.es/estadisticas/estadisticas03.htm>.
- Drug E, Dahlberg L, Mercy J, Zwi A, Lozano R, editores. 2003. Informe Mundial sobre la violencia y la salud. Organización Mundial de la Salud. Washington: Organización Panamericana de la salud. Oficina Sanitaria Panamericana, Oficina Regional de la Organización Mundial de la Salud. Informe técnico nº 588. Disponible en: <http://www.redfeminista.org/sub/oms.asp> (fecha consulta: 3/V/2007).
- Esteban M. L. 2006. El estudio de la salud y el género: las ventajas de un enfoque antropológico y feminista. Revista Salud Colectiva de la Universidad Nacional de Lanús.
- Hernán San Martín. La crisis mundial de la salud: problemas actuales de epidemiología social. Madrid. Ed. Karpos, 1982.
- Kleinman A., Eisenberg L y Good B 1978. Cultura, enfermedad y atención. Lecciones clínicas para la investigación antropológica e intercultural. Arthur Kleinman, Leon Eisenberg y Byron Good. Annals of Internal Medicine.
- Koss MP, Koss PG, Woodruff W J. Deleterious effects of criminal victimization of women ´s health and utilization. Arch Intern Med 1991;151:342-347. Referenciado en Violencia Doméstica. Mª del Carmen Alonso.
- Lasheras Lozano Mª Luisa, Pires Alcalde Marisa. Coordinadoras. 2003. La violencia contra las mujeres considerada como problema de salud pública. Documento Técnico de Salud Pública nº 86. Instituto Salud Pública. Comunidad Autónoma de Madrid.
- Maribel Blázquez – Rodríguez 2006. La incorporación de género en la atención sanitaria: Pro-

puesta de una metodología de sensibilización de género. Escuela Nacional de Sanidad. Presentado en el Coloquio Antropología, género y salud (V Coloquio de la red latina de antropología de la medicina).

· Martínez Hernaez A.1992. Eficacia simbólica, eficacia biológica, hacia un nuevo modelo analítico y terapéutico de la asistencia sanitaria". Revista ROL de enfermería nº172 Pág. 61-67

· Martínez Hernaez A 1996. En Antropología de la salud. Una aproximación genealógica.. Eds.. Ensayos de antropología cultural. Ed. Ariel

· Michael Kaufman, 1999. Las siete P's de la violencia de los hombres. Fundación mujeres. Disponible en: <http://libertadeslaicas.org.mx/paginas/infoEspecial/aspsocec/10020105.pdf> (fecha consulta: 23/IV/2007).

· OMS 1986. Carta de Ottawa para la Promoción de la salud, OMS, Ginebra, 1986.

· OMS / OPS 1998. Violencia contra la mujer. Un tema de salud prioritario.

· Panos 1998. Recogido por Iliana Artiles de León. Salud y Violencia de Género. Disponible en: http://guiagenero.mzc.org.es/GuiaGeneroCache/Pagina_Educacion_000386.htm (fecha consulta: 3/V/2007).

· Piedrola 1983. Medicina Preventiva y Social. Higiene y Sanidad Ambiental. Capítulo II. Ed. Amaro Ediciones Publicaciones. Madrid.

· Plazaola – Castaño J. Ruiz Pérez I. Violencia contra la mujer en la pareja y consecuencias en la salud física y psíquica. Medicina Clínica 2004; 122 (12): 461-7.

· Romaní O. (2002). La salud de los inmigrantes y la de la sociedad. Una visión desde la antropología. FMC 9 (7) 498-504.

· Ruiz –Jarabo Quemada C. y Blanco Prieto P. 2004. La violencia contra las mujeres. prevención y detección. Como promover desde los servicios sanitarios relaciones autónomas, solidarias y gozosas. Editorial Díaz de Santos.

· Semfyc. 2003 Violencia Doméstica. Pág. 18. Ed. Ministerio de Sanidad y Consumo.

· Siondones Castillo R., Perea – Milla López E., Arjona Huertas J. L., Agüera Urbano C., Rubio Gallo A., Molina Molina M. 2002. Violencia doméstica y profesionales sanitarios: conocimientos, opiniones y barreras para la infradetección. Emergencias; 14: 224- 232.



Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

BIDEKO EZBEHAR TASA ETA GENEROA

AURKIBIDEA

Sarrera	173
1. Estatistika azterketa	175
1.1. Demografia ezaugarriak	177
1.1.1 Géneroa	177
1.1.2 Adina	178
1.2. Teknologia aparatuak, alkohola eta abiadura	184
1.3. Profil sozio-demografikoa	185
1.4. Ezbeharren zifrak	186
2. Fenomenoak duen erantzun soziala	187
2.1. Autoaren lobbya	188
2.2. Arriskuak	189
3. Arriskua, osasuna eta maskulinitateak	191
3.1. Nortasun maskulinoa eraikitzea	191
3.2. Maskulinitateak, osasuna eta arriskua	193
3.3. Autoak, motorrak eta gizonak	196
3.4. Arriskuaren alderdi batzuk	197
4. Azterketa etnografikoa	198
4.1. Abiadura	198
4.2. Abiadura eta ezbeharrak	198
4.3. Abiadura eta arriskuak	200
4.4. Abiadurari buruzko ikuspegia	201
4.5. Placera	203
4.6. Prestigioa	205
4.7. Gizon azkarrak	206
4.8. Arriskua sexuen arabera	206
4.9. Rabilera eta mugikortasuna	212
4.10. Beste erabilera batzuk	213
4.11. Prestakuntza eta hezkuntza	215
4.12. Lagun desegokiak	217
5. Bibliografia	219

SARRERA

Prestakuntza honen helburua gizon batzuek ausartegi gidatzeko duten joeraren benetako arrazoiak azaltzea da, batez ere gizonezko gazteen kasuan; izan ere, segmentu horretan atzeman da joera hori modu nabarmenenean¹. Horri esker herritarrak sentibilizatzen lagundu nahi dugu, bereziki gure inguruko gizonak; horretarako, gizon gazteen artean bideko ezbehar tasa altuaren fenomeno triste horretan sakonduko dugu.

Bidean gizonezkoek eta emakumezkoek dituzten desberdintasunei buruzko prestakuntza den aldetik, txosten honek azaltzen duenaren balizko «gain-interpretazioaz» ohartarazi nahi dugu. Gai honetan aditu den Robert Connellek ohartarazten digun bezala, «oro har generoari buruzko ikerketetan, eta bereziki maskulinitateei buruzkoetan, gain-interpretatzeko nolabaiteko arriskua dago. [...] Jende guztiak (sexuen arteko) desberdintasun puntualak bilatzen ditu, antzekotasun ohikoenak bilatu ordeaz». Connellek modu egokian iradokitzen digunez, gizonezko guztiek gizon oldarkorraren eredu horri erantzungo baliote, modu ausartegian gidatuko balute, arriskuaren bila ibili eta beren bizitzaz gain besteena ere arriskuan jarriko balute, dagoeneko guztiak errepi-deetan hilda egongo lirateke.

Gizonezko gazte guztiek ez dute modu ausartegian gidatzen: ausartegi gidatzen duten gizonezkoen taldea gutxiengoa da populazio osoan, eta gizonezko gazteen artean bereziki, nahiz eta horrek ez dion larritasunik kentzen. Bereziki azpimarratu nahi dugu lan honetan gizonezko batzuekin identifikatzen den joera aztertuko dugula, ez gizonezko guztiena. Hala ere, identifikazio horrek eredu menderatzailean du oinarria, oro har onartzen dena eta asimilatzen dena, errepidean horrelako arrisku jarrerak sortzea baimentzen duena eta larritasun horren neurritzko erantzuna eragiten ez duena. Hemen eredu hori aztertuko dugu, ez besterik.

Bideko ezbehar tasaren gaia zuzentasunez eta seriotasunez jorratzeko, ikusi dugu beharrezkoa dela begiraterakoan izan ohi ditugun zenbait estalki kentzea. Estalki horiek lodiagoak izan ohi dira bideko ezbeharren kopurua eta maskulinitatearen arteko harremanari erreparatzen diogunean.

Gaia arrazionaltasunez lantzea oztopatzen diguten zenbait elementuri buruz ari gara, fenomeno honen neurria eta horren arrazoiak, ondorioak eta konponbideak ulertzea galarazten diguten elementuak, alegia. Beste modu batean, ulertezina da datuak aztertu ondoren –gaian sakontzea beharrezkoa izan gabe–, gizarteak eta Administrazioak lehenago eta modu askoz sendagoan eta beligerantean erantzun ez izana; horrenbeste heriotza, pertsona eta familia mailako horrenbeste ezbehar eta diru gastu eragingo lukeen fenomeno beste edozein izan balitz, erantzun egingo liokete.

Gidatzeko ohitura, autoen artean mugitzeko ohitura, gure eguneroko paisaia osatzea, gure eguneroko bizimoduan izatea, bizimodua antolatzean duen lekua, egunero errepideko istripuei buruzko albisteak entzutea, oporretako zifrak, irteera operazioetakoak eta itzultzekoak. . . guztiek sentibilitatea galtzera eramán gaituzte, eta horretan segitzen dugu gaur egun ere.

Harritzeko gaitasuna ia osorik galdu dugu, baina, batez ere, horrenbeste bizitza desagerrarazten dituen fenomeno baten aurrean erantzuteko gaitasuna galdu dugu. Lozorroa luzatzen duten hainbat arrazoi daude: etengabeko jarioa da, ez da bat-bateko ezbeharra, eta biktimak anoni-moak eta sakabanatuak dira, «niri ez zait gertatuko» pentsatzen jarraitzea posiblea da. Zirku-

1. Hemen aipatuko ditugun datu guztiak hiru txosten hauetatik jaso ditugu: 1-Farapi (2005) Maskulinitateei eta bideko ezbehar tasari buruzko ikerketa dokumentala. 2-Farapi (2005) Maskulinitateari eta bideko ezbehar tasari buruzko ikerketa etnografikoa. Biak Gipuzkoako Foru Aldundiko Lur eta Garraio Zuzendaritzarako 3-Farapi- Cibersomosaguas taldea (Madrileko Complutense Unibertsitatea) (2009) Gazteen artean bideko ezbeharren prebenitzeko kanpaina interaktiboa_ Unespa Saria. 2 argitalpen ere aintzat hartu ditugu: 1-Farapi (2007): Bideko ezbehar tasa, abiadura eta maskulinitatea. Maskulinitatearen eragina gidatzeko modu ausartegian. Gipuzkoako Foru Aldundia. 2-Farapi (2007) Zirkulazio arazoak, ikuspegi antropologikoa. Faktore pertsonalak ibilgailu pribatuaren erabileran eta gehiegizko erabileran. Gipuzkoako Foru Aldundia.

lazioa inguratzen duen guztian tolerantzia eta etsipen maila oso altua garatu dugu. Ondorioak «normalizatu» ditugu, ohiko bihurtu dira, eta ia jabetu gabe ohitu egin gara, onartu egiten ditugu hondamendi natural bat balitz bezala, ekiditeko zerbait egitea posible izango ez balitz bezala.

Egia da, ordea, aurrez aurre dugunak kausa oso zehatzak dituela, eta ezin dugula justifikatu soilik «mugikortasunari ordaindu beharreko odolezko zerga» gisa. Kausak, askotan, gizakiek eragiten dituzte, eta azpiegiturei eta politikei buruz erabakitzea dagokien gizonezko zein emakumezko gidariei eragindakoak dira. Batzuek azkarregi joatea erabaki ohi dute, besteek ez diote lehentasuna ematen behar duenari, eta beste batzuek ibilgailu azkarregiak egiten dituzte. Giza faktore horiei buruz ari gara.

Zirkulazio istripuen atzean erantzunkizuna egon ohi da askotan –kasu guztietan ez esateagatik–, eta horregatik, kaltetutako askok bideko ezbeharrak «bideko delinkuentzia» dela diote. «Istripua» izenak berak ere, hain zuzen ere, erantzukizun hori ezkututzen du, erabaki batzuk kontzienteki hartu izanaren esangura alde batera uzten baitu. Europako Batzordearen Garraioaren Liburu Zuriak (Europar Erkidego Kontseilua 2001) hau dio: «gainerako pertsonak arriskuak jartzen dituen gidatzeko modua kriminalitatearen pareko gaitza da».

Prestakuntza honetan gidarien erantzukizunean oinarritzen den giza faktoreetako bati buruz mintzatuko gara: modu ausartegian gidatzea, eta zehatzago esateko, gehiegizko abiadura. Gai honetan gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desberdintasunak aztertuko ditugu, eta aintzat hartuko dugu arriskuak gizonezkoak gehiago erakartzen dituela dioen hipotesia, gaur egun nagusi den maskulinitate eredu dela medio, eta horren ondorioz errepidean ezbehar gehiago izan ohi direla. Horrez gain, Administrazioak eta auto ekoizleek abiaduraren aurrean duten jarrerari ere erreparatuko diogu, gidarien jarrera gehiago aztertuko badugu ere.

Esan dugun moduan, bideko ezbeharrek ez dute lotura bera emakumezkoekin eta gizonezkoekin, eta eragina ere desberdina da; zoritxarrez, gizonezkoek protagonismo handiagoa izan ohi dute, eta gure ustez, konponbide zehatzak bilatzeko beharrezkoa da gai horri heltzea. Zehatzago esateko, maskulinitatearen eta jarrera ausartegien arteko lotura interesatzen zaigu (batez ere abiadurari dagokionez). Gai honi heltzeko orduan, konturatu gara gizonezkoek bideko ezbeharrekin duten lotura tragikoak nolabaiteko ikusezintasuna pairatzen duela, eta normalizatu dugunez, ia ikusezina bihurtu dena ikusteko beharrezkoa dugu ahalegin gehigarria egitea. Zirkulazioak makina bat bizitza lapurtzera ohitu gara, batez ere gizonezkoena, eta hain dugu errotuta fenomeno hori, non ez baitu gure arreta piztu ere egiten.

Horren haritik, fenomeno argi ikustea galarazten diguten kapa bikoitzeko estalkiekin borrokatu behar dugu: zirkulazioaren ondorioak asimilatu eta normalizatzeaz gain, gizonezkoen jarrerak arriskuarekiko duen natura gehitu behar zaio, eta zehatzago esateko, errepideko arriskuari dagokiona. Kontsultatu dugun dokumentazio guztian nekez egiten da gizonezkoen eta emaku-

Biktimen eboluzioa, Espainiako bideko ezbeharrak. (DGT, 2008a)

	2003	2004	2005	2006	2007	2007-2006	2007-2003
Istripuetako biktimak	99.987	94.009	91.187	99.797	100.508	1%	1%
Hilak	5.399	4.741	4.442	4.104	3.823	- 7%	-29%
Larri zaurituak	26.305	21.805	21.859	21.382	19.295	-10%	-27%
Arin zaurituak	124.330	116.578	110.950	122.068	123.226	1%	-1%
Istripuetan hilen ehunekoa	5,4	5,0	4,9	4,1	3,8		

mezkoen arteko desberdintasun hori. Askotan desberdintasuna adierazten duten zifrak aipatzen dira, baina oso gutxitan jorratzen, azaltzen edo aztertzen da gutxieneko seriotasunarekin. Pres-takuntza honetan gure asmoa, hain zuzen ere, desberdintasun horretara hurbiltzea da, eta horri esker, gure errealitatea aldatzen eta hobetzen laguntzea.

1. ESTADISTIKA AZTERKETA

DGTk egin zuen ² «**Hildako gutxiago oraindik asko dira**» publizitate kanpainak azken urteetan bideko ezbeharretan heriotza tasak behera egin duela erakusten du, eta aldi berean, beherakada horrek arazoa bukatu dela esan nahi ez duela ohartarazten du. 2003tik 2007ra hildakoen kopuruak behera egin du 5. 399tik 3. 823ra, hau da, % 29 gutxitu da kopurua. Beste alde batetik, biktimak izan zituzten istripuen kopuruak (hildako pertsonak, larri zauritutakak eta arin zauritu-takoak) gorakada arina izan du, nahiz eta beti egon den 100. 000 pertsona/urtekoaren inguruan.

Aurreko taulan azaldutako lau urteko tartekak beherakada nabarmena islatzen du heriotzen eta larri zauritutakoen kopuruan, eta arin zauritutakoen eta istripuen kopuruek ez dute aldaketarik izan. Datu horietatik lor dezakegun ondorioa argia da: ezbeharrek ez dute behera egin. Larritasun gutxiagoko istripuen agertokira iritsi gara, dela pertsona gutxiago daudelako istripu bakoitzean, dela istripuak arinagoak izan direlako, adibidez, biktimak istripua jasotzeko hobeto prestatua zeudelako, segurtasun uhala jarrita zeramatelako.

Argumentu horiek azaldutako datuek berresten dituzte. Nahiz eta ondorioak ateratzeko azaleko datuak izan, erakundeek optimismoa gutxitzeko nahikoa dira, horietaz baliatzen baita arazoaren benetako neurria ezkutatzeko. Urtero biktimak eragiten dituzten ehun mila istripuetan jarrera aldaketarik izan zen ba ote dakigu? Pertsonen ia heren bat heriotzatik salbatzeko modukorik?


Gaur egun, autoek Espainiako ibilgailu guztien hiru laurden hartzen dute, guztira 28 milioi ibilgailu dira, eta horietatik 21 milioi autoak dira. Autoek istripuetan duten parte-hartzea oraindik nabarmena da, % 80 ingurukoa. Hau da, urtero Espainian biktimak dituzten 100. 000 istriputik, 80. 000 inguru autoek eragindakoak dira, aintzat hartu gabe zenbait istriputan auto bat baino gehiago egoten dela. Horrek esan nahi du urtero 80. 000 autok biktimak eragiten dituztela, istripuen ondorioz.

Bideko ezbeharretan hildakoen erdiak autoetan zihoazen. Jarraian ikusiko dugun moduan, autoa zuzenean heriotzekin lotuta dago, eta baita harrapatzeen kopuru altuarekin ere, eta horietako askok heriotza eragiten dute.

Biktimak eragiten dituzten autoen istripuen erdietan (zaurituak eta/edo hildakoak) hiriguneetan gertatu ziren, eta beste erdia errepideetan. Autoetan zihoazen hildakoetatik, % 93 errepidean zeuden, eta soilik % 7 hiriguneetan. Zauritutako pertsonen dagokienez, bi herenak errepidean zeuden, eta heren bat hirian.

Errepidean gertatzen dira heriotzen % 81, eta gehienak autoetako gidariak edo gidarien albokoak izan ohi dira. Errepidean azkarrago gidatu daitekeenez, istripuak larriak izan ohi dira, eta autoetan doazen pertsonak hiltzeak horri erantzuten dio. Ordainetan, hiriguneetan 2007ko heriotza biktimen % 19 hil zen (oinezkoak eta bidaiariak barne).

Istripuen eta heriotzen banaketa guneen arabera Espainian, 2007. (DGT, 2008a)



Hala ere, bidetako ezbeharren ezaugarriek ez dira soilik errepidean azkarrago gida daitekeelako azaltzen. Aitzitik, biktimak eragiten dituzten istripuak nahiko desberdinak direla ikusi ohi da, baita biktimak ere.

2007an errepideetan 3.082 pertsona hil ziren. Gehienak, zehazki 1.063, errepidetik atera zirelako hil ziren. Istripu larrienak aurrez aurre eta alboz jotzen direnak dira, baita aurretik eta albotik jotakoak eta albotik bakarrik jotakoak, bi aldeetan jotzen dutenak ere, eta guztira 1.079 hildako eragin dituzte (3. taula).

Errepidean gertatutako eta heriotzak eragindako auto istripuen ezaugarriak, Espainia. (DGT, 2008a)

Errepidean hilak	2003	2004	2005	2006	2007	Banaketa % 2007	2007 2006	2007 2003
Bidetik irtetean	1.707	1.466	1.386	1.191	1.063	34%	-11%	-38%
Talka autoaren aurrealdean	843	693	688	618	501	16%	-19%	-41%
Talka alboan eta aurre-alboan	907	826	745	560	578	19%	3%	-36%
Talka atzealdean eta alde askotan	364	303	284	332	259	8%	-22%	-29%
Oinezkoa aurrean eramatea	407	319	334	284	262	9%	-8%	-36%
Iraultzea	71	70	46	57	64	2%	12%	-10%
Beste mota bateko istripua	181	164	169	325	355	12%	9%	96%
GUZTIRA	4.480	3.841	3.652	3.652	3.082	100%	-8%	-31%

Errepideetako ezbeharretan autoan doazen pertsonak izan ohi dira biktima nagusiak, dela auto bakarreko istripuetan, dela beste auto batekin aurrez aurre edo alboz jotzen denean; hiriguneetako errepideetako ezbeharrek, ordea, beste itxura bat dute. Hirigunea toki mistoa da, oinezkoentzat eta autoentzat diseinatutako espazioa da, eta horrenbestez, zirkulatzeko bi modu horiek etengabe gurutzatzen dira, eta distantzia laburren mugitzeko askotariko moduak izaten dira. Autoa, testuinguru horretan, objektu potentzialki arriskutsua da inguruan dituen pertsonentzat. Horrez gain, autoen abiadura murrizteko araua ere badago, alegia, makinaren potentzia probatzeko aukerarik ez dago, eta horren ondorioz, abiadura motela autoaren estalkiarekin babestuta ez dauden pertsonentzat da arriskutsua batez ere. Hortaz, horrek azaltzen du hirigu-

neetako errepideetako ezbeharretan hildako pertsonen % 40 oinezkoak izatea: 2007. urtean 286 oinezko zeuden 741 heriotzen artean. Beste mota batzuetako istripuak ere aintzat hartzen badiugu, esaterako txirrindulariak eta motoziklistak «harrapatzea», hirigunean auto barruan hildako pertsonen kopuruak behera jotzen du berriz ere.

Hirigunean gertatutako eta heriotzak eragindako auto istripuen ezaugarriak, Espainia. (DGT, 2008a)

Hilak hirigunean	2003	2004	2005	2006	2007	Banaketa % 2007	2007 2006	2007 2003
Bidetik irteteen	146	158	123	108	87	16%	-19%	-40%
Talka aurrealdean	52	51	45	40	29	4%	-28%	-44%
Talka alboan eta aurre-alboan	225	228	183	163	149	20%	-9%	-34%
Talka atzealdean eta alde askotan	40	37	42	38	63	8%	66%	58%
Oinezkoa aurrean eramatea	360	333	326	281	286	39%	2%	-21%
Iraultzea	11	20	20	19	22	3%	16%	100%
Beste mota bateko istripua	85	73	51	88	105	14%	19%	24%
GUZTIRA	919	900	790	737	741	100%	1%	-19%

Orotara, jarrera arriskutsuak presente daude errepideetan eta baita hiriguneetan ere, eta heriotza eragin dezaketen istripuak sortzen dituzte. Errepidea da autoentzat toki seguruena, soilik horientzat eraikitako espazioa den aldetik, baina bertan gertatzen dira heriotzen % 80. Hiriak, aldiz, autoentzat diseinatuta daudela ukatu ezin daitekeen arren, mugitzeko modu asko hartzeko espazio gisa pentsatu dira, eta, hortaz, oinezkoen heriotza gehien hartzen dituen tokia da³.

1.1. EZAUGARRI DEMOGRAFIKOAK


1.1.2. Generoa

Bideko ezbehar tasa aztertzerakoan generoa adierazle nagusienetako bat izan ohi da. Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datu berrien arabera, nahiz eta autoa eta zirkulazioa eskema matxista eta patriarkaletatik abiatu, belaunaldi berrietan emakumezkoek kopuru aldetik gizonezkoen parte-hartze berdina lortu dute gidari guztiei dagokienez. Aseguru etxean aburuz, oraindik ere, emakumezko gidariak arrisku gutxiagokoak dira.

Emakumezkoak, bideko segurtasunari dagokionez, kontu handiagoz gidatu ohi du eta arriskua gizonezkoak baino neurri txikiagoan barneratu ohi du. Gidabaimenen % 41 emakumezkoenak badira ere, kalkulatu da emakumezkoak errepideetan heriotzak eragiten dituzten istripuetatik soilik % 10etan daudela. 2004erako, esaterako, kopuru errealean arabera, istripu horietan, guztira, 4. 916 gidari inplikatu ziren. Horietatik 523 baino ez ziren emakumezkoak.

Istripuen ustezko gidari errudunetatik, soilik % 10 dira emakumezkoak. Gutxi gorabehera, errepideetan heriotza eragin zuten istripuetako errudunetatik soilik 250 inguru izan ziren emaku-

3. 2007ko datuen arabera, balore gordinetan errepideetan (287) eta hiriguneetan (304) hildako oinezkoen kopurua nahiko parekoa da. Izan ere, errepideetako zenbait gune ez dira hirigunetzat hartzen, baina pertsonak egon ohi dira bertan. Hortaz, bere espazioan dabilela, gizakia arrotz bihurtzen da.




mezkoak; erruduntzat jotako gizonetzkoak, aldiz, 2. 200 baino gehiago izan ziren. Hamar gizonetzotik emakumezko bakarra dago heriotza eragin duten istripuetan inplikaturik edo ustezko erruduna dela. Hala ere, sexuen arteko hildako kopurua erkatuz gero, proportzionaltasuna emakume bakar bakoitzeko hiru gizonetzkoena da.

Diskurtso menderatzaileak matxismoari egin dio mesede, eta mugitzeko autonomiari dagokionez toki baztertuan utzi du emakumezkoa. Zirkulazioan jokabide maskulinoaren ereduak ezarri da, oro har, eta horrek emakumezkoek kaltetu die eta kaltetzen jarraitzen du. Genero arazoa da, aldaera latzenez genero indarkeriazko harremanetan gauzatzen dena; kasu honetan, bideko ezbeharretan, oso modu berezitan islatzen da.

1.1.2. Adina

Kultura herrikoia iritzi ugari nahasten ditu, eta guztiek bideko ezbeharren erruak egozteko norabide desberdin eta kontrajarrietara jotzen dute. Generoari dagokionez ere antzeko egoera bizi dugu, iritzi menderatzaileak esaten baitu emakumeak ez dakiela gidatzen; horrez gain, halere, esan ohi da benetako arrisku faktorea gizonetzkoen konfiantza dela. Adinaren faktorearekin gauza bera gertatzen da: jarrera menderatzaileak ezarri gabe, makina bat desadostasun eragiten ditu.



Gazteei bideko ezbeharretan erruduntasun handia egotzi ohi zaie, axolagabekeriz gidatzen omen dutelako. Nerabeek, ostera, gidari kontserbatzaileei eta zaharrenei leporatzen diete azkarrago gidatzeko ezintasuna eta erreflexu falta. Artikulu eta txosten gehienek islatutako datuek argi azaltzen dute heriotza eragiten duten istripuek batez ere 20 urte bukaeretatik hasi eta 30 urtera arteko eragiten diela batez ere.

Errepideko ezbeharretan arrisku gehien duten adin tarteak modu zehatzagoan definitzeko adin tarte bakoitzeko hildakoen kopuruaren eta gidabaimena duten herritar guztien arteko aldea jaso dugu; horrela, agertoki errealeko gertaera jakin bat definitzen ez duten zenbaki absolutuetan oinarritutako ondorio okerrak lortzea saihesten dugu.

18-20, 21-24, 25-34, 35-44, 45-54, 55-64 eta → 65 urteko adin tarteetako heriotzen eta gidarien arteko proportzionaltasuna aztertuz gero, argi ikusten da 18-24 urte arteko tarteak dela heriotza gehien jasotzen dituen. 18 eta 24 urte arteko gazte horiek gidarien % 8 dira, eta soilik hildakoen % 15 (indizea = 1,87). Arriskua are nabarmenagoa da soilik 18 eta 20 urteko gazteak aintzat hartuz gero. Gidarien % 3 dira, baina bideko ezbeharretan hildakoen % 6 dira Adin tartearen sekuentzian proportzioak behera egiten du, eta 45 urtetik aurrera hildakoen adin proportzioa gidarien proportzioa baino txikiagoa da.


Goiko taulatik abiatuz eta matematikoki justifikatuta, arrisku gehien duten adin tarteak modu honetan ordenatu behar dira: ×18-20 urte: indizea = 2,00 ×21-24 urte: indizea = 1,80 ×25-34 urte: indizea = 1,43 ×15-17 urte: indizea = 1,33 ×35-44 urte: indizea = 1,06 ← 65urte: indizea = 0,94 -55-64 urte: indizea = 0,91 ×45-54 urte: indizea = 0,85 Indize horiek bideko ezbeharretan guztira islatzen dituzte, oinezkoak eta bizikletetako, autoetako eta ziklomotoreetako gidariak kontuan hartuta. Automugikortasunaren esparru orokor honetan, 18 urteko gazte batek hiltzeko duen arriskua 50 urteko nagusi batek duena baino halako hiru da.

Adin tarte bakoitzak, halaber, ezaugarri desberdinak ditu: 60 urtetik gorako pertsonak, oro har, harrapaketa istripuetako biktima izaten dira. Hau da, oinezkoak dira, eta ez gidari. 18 urtetik beherako tartean, lege eragozpenak direla medio, antzeko egoera bizi dute: hildakoak ez dira autoetako gidariak izaten, baizik eta oinezkoak eta ziklomotoretako gidariak.

8. taulari erreparatuz gero, bideko ezbeharretako heriotzen gaineko ondorio garrantzitsuak lor ditzakegu adin tarteen eta ibilgailu motaren arabera (autoak, motorra, bizikleta eta oinezkoak). Autoetako heriotza 18 urteko tartetik aurrera nabarmentzen da, eta oinezkoen heriotza tasarekin parekatzen da soilik 64 urtetik gorako tartera iritsitakoan. Horrez gain, autoek harrapatu ohi dituzte oinezkoak, oro har. Hain zuzen ere, nabarmendu nahi duguna zera da: autoen hondamendi potentzial handiena gazteenen eskuetan dagoela. 18 eta 64 urte arteko adinak balioetsiz, heriotza gehienak 10 urte tartean izaten da, 18-20 eta 21-24 tarte laburretan izan ezik. Horregatik, irudikapen grafikoan autoetako gidarien tarte horietako estatistika arinaren ponderazioa aurkeztu dugu, beste adin tarteen gainetik duten garrantzia islatzeko, eta deklamazio «estatistiko» okerretik aldentzeko; izan ere, 30 urte inguruko jendea jo ohi du talde arriskutsuentzat gaur egun.

Zirkulazio istripuan hildakoak 2007 urtean. Errepidean + Hirigunean. Banaketa, adinaren arabera.

Iturria: Espainiako Estadística Institutua



Adinaren faktorea zailtzen duen beste konparazio bat jaso dugu 9. eta 10. taulatan; horietan ikus daiteke adineko gidarien errolda eta adin tarte bakoitzak heriotza eragin duen istripuetan izan duen parte-hartzea. Lehenago ere esan dugu gazte izateak automugikortasunaren esparruan hiltzeko arrisku hirukoitza eragiten zuela; arriskua are nabarmenagoa da arriskua «gidarien» kategoriarara murriztuz gero.


18 urtetik beherako gazteek⁴ ziklomotoretako gidabaimenak lortu ohi dituzte, gutxieneko adina duten % 50ek jarraian lortu ohi du autoa gidatzeko baimena, eta ondoren, 30 urteko tartera joan behar dugu herritar guztien % 83k gidabaimena izan dezan.

Erroldak gidarien profil orokor nahiko zabala marraztu du, 21 urtetik hasi eta 60-65 urtera artekoa. Hala ere, biktimak dituzten istripuetan inplikaturako gidariak gidarien erroldarekin lotzeko orduan adinak duen rol negatiboa agerian geratzen da. Gidaria zenbat eta gazteago, orduan eta inplikazio handiagoa (7. taula).

Biktimak eragiten dituzten istripuetan gutxien inplikaturako adin tarteak (→66) 18-20 adin tartearekin alderatuz gero, ondorioztatuko dugu gazteek arrisku boskoitza dutela.

Orain arte, adina eta generoa uztartuz, biktimak eragingo dituen istripuen sortzaile gisa gazte gizonezkoen profila azaldu da. Alonsoren aburuz (2004), zenbait testuinguru eta jarrera fakto-

reren emaitza da; jarrera faktoretzat hartzen ditu gaitasun fisikoak modu egokian izatea, eta gazteak izaten dituzten eboluzio eta heltze ezaugarriak. Egoera fisiko onean daudenez, gazteek muturretara ahal bezainbeste gerturatzeko duten gaitasuna handietsi ohi dute. Modu argiagoan esanda, gazteak muturrak apurtu nahi ditu, bereak eta besteenak, nortasun propioa, fidagarria eta besteen beharrik ez duena aurkitzeko. Gazteen gorputzaren ezaugarri positiboek gain, erabat garatu ez diren zenbait puntu ere badira, besteak beste arreta maila, lan asko aldi berean egiteko gaitasuna, ikuspegi periferikoaren zehaztasuna, erabakitzeko gaitasunak, askotariko edukiak, horrelako jakintza eskatzen duten egoeretan loturak finkatzen laguntzen dutenak, etab.



Istripuetan hildako gidariak adinaren eta ibilgailuaren arabera, Espainia 2007 (DGT, 2008b).



Gorputzaren potentzial ezezagunaren ganean gazteak duen pertzepzioa, zein heltzeko puntua (biologikoa, fisiologikoa eta psikologikoa), guztiak eragiten du gazteak arrisku egoerak gutxiestea, eta horren ondorioz, gutxiespen horrekin bat datozen erantzunak ematea, egoera horiei aurre egiteko edo erantzuteko.

Abiadura mugak gainditu, alkohola edan ondoren gidatu edo segurtasun uhala ez lotzeaz gain, abiadura-oharkabetasuna binomioa nabarmentzen da, eta oharkabetasuna, askotan, teknologia aparatuak erabiltzearekin lotzen da, oso ohikoa baita gazteen artean. Gidariak ibilgailuaren kontrola galtzen duen ohiko istripuetan gertatzen da hori, errepidetik atera edo irrist egiten duenean. Zirkulazio istripu bat edo batzuk izan dituzten gazteen artean, oharkabetasunak hartzen du izandako istripuaren kausa nagusiaren tokia, horren errudun izan zein ez, bakarrik gidatu zein ez. (Alonso et al, 2004). Adina aintzat hartu gabe, oharkabetasuna da errepideetako istripuen % 43ren erantzulea, eta hiriguneetako istripuen % 43rena. Baina gazteen artean are nabarmenagoa

4. Ziklomotoreak gidatzeko baimena duten 18 urtetik beherako gazteak gutxi dira, baina proportzioan arrisku gehiago dute. Kasu horretan, autoetako ezbeharretara mugatzen gara, horregatik ez dugu landuko ziklomotoreetan istripuak izan dituzten 17 urtetik beherakoen kasu berezi hori

da. Gidatzerakoan gailuak erabiltzeko hartzen den denbora tarteak, oharkabetasunak (esaterako telefonoa, irratia edo GPSa), hirigunean gidatzen pasatutako denbora osoaren % 40 hartzen du.


Gazteen istripuen testuinguruari dagokionez, adin guztietako bideko ezbeharretan oso presente dauden bi unerekin lotzen da. Alde batetik, istripuak lanegunetan izan ohi dira, egunean zehar, eta ezaugarritzat izan ohi dute lanerako mugitu behar izatea; beste aldetik, asteburuetan izan ohi dira, gauez, eta ezaugarritzat izan ohi dute aisialdirako mugitzea, eta hori izan ohi da gazteen inplikazio ohikoena.



Gaur egungo kulturen bada indarrean dagoen arau balioetsi bat, eguneroko publizitatean helarazten dena, «izan gazte, izan burujabe» bezalako zerbait. Gazte betiko izatearen apologia da, hogeitun urteetan bueltan gelditu izatearena; horri esker, gizakiak soilik bere onarpenera behar du edozein motatako jarrera onesteko, baina aldi berean, inguruan dituen pertsonen arreta piztu nahi du. Gazteen jokabide eredu hori gidalerro maskulinoek arautzen dute, lehiakortasunak, indarrak, askatasunak. Ikuspuntu horretatik, mundua ez da inoiz hain matxista izan, diskurtso femeninoak gutxitan egiten baitio ihes kategorio maskulinoari. Autoa da horietako bat, eta horren isla da emakumezko gazte bat elkarrizketatu genuenean, hark, Porsche markako autoen miresle izanik, autoan sartzerakoan gizonetzko bat bezala sentitzen zela esan izana.

Prekarietatearen, ametsen eta heldugabetasunaren ondorioz ideia horrek gazteak kaltetzen ditu gehien, eta horren bitartez bizitzaz gozatu nahi dute, nortasuna bilatu eta taldean bereiztea nahi dute. Gidatzerakoan duten esperientzia ezak ez du trebetasuna edo arreta patriarkala deitzen, baizik eta norbera gailentzea bilatzen du. Belaunaldi berria den aldetik errebelatu egin behar dira, hobeto egin behar dute.

Hildakoak gazteak eta gainerako adinetakoak, asteko eguneko eta epeka. (DGT, 2008b)



Gazteen artean ikusten den gainditzeko edo besterik gabe ondo pasatzeko espiritu horretaz gain gurasoak dira trafikoko jarrera eta portaera eredu nagusiak. Hain zuzen ere, gurasoek egindako arau-hausteak errepikatzen dituztela seme-alabek ikusi da (Alonso et al, 2004).

Eboluzio biologiko, psikologiko eta kognitiboari buruzko kontuez gain, gazteen inguru sozialek gidatzerakoan hartzen duten arrisku portaera bultzatzen dute. Publizitatearen kulturen murgilduta egon ohi dira, kotxean kontsumoko eta identitateko produktu zentrala ikusten dute, eta prekariotasunez, ziurgabetasunez eta lehiakortasunez jositako bizitza plana dute. Arriskua nahita bilatzea, beraz, egoera ambiguoan agertzen da. Alde batetik, ikuskizun sozial eta teknokratikoak dena ziurtatuta egotearen ilusioa sortzen du. Beste alde batetik, norberaren interes gutxiko bizitzak daude, gaur egungo perspektibak ez baititu kontuan hartzen iragana eta geroa eta orainaldi intentso, huts eta arduragabe oinarritzen baita.

Hobetzeko izpiritu horrez gain, edo soilik gazteek ondo pasatzeko duten izpirituaz gain, gurasoak dira oraindik ere zirkulazioko jarrera eta jokabide eredu nagusiak eta gurasoen eta seme-alaben arau-hauste beretsuak ikusi dira (Alonso et al, 2004).

Arlo biologikoa, psikologikoa eta kognitiboa garatzeaz gain, gazteen inguru sozialak ere zirkulazioan izan ohi duten jokabide arriskutsua bultzatzen du. Publizitatearen kultura barneratuta egoten dira, autoa kontsumoaren eta nortasunaren produktu nagusi gisa ikusten dute, prekarietatez, ezjakintasunez eta lehiakortasunez betetako berebaitako plan batean bizi dira. Arriskua nahitaez bilatzekoa, hortaz, agertoki anbiguoan sortzen da: alde batetik, ikuskizun soziala eta teknokratikoa da, eta guztia aseguratuta dagoenaren ilusioa sortzen du. Beste aldetik, batere interesgarriak ez diren norbanako bizitzak daude, iragana eta etorkizuna alde batera uzten dituen perspektiba duena, eta orainaldia, hutsa eta axolagabea, bizitzean oinarritzen dena.

Gazteen eta helduen arteko konparazio eta ondorio puntu batzuk, INTRASeko gutxi gorabeherako datuetatik abiatuz (2005).

GAZTEAK	HELDUAK
<ul style="list-style-type: none"> · Urtero 60.000 gaztek trafiko-istripua dute. · Trafiko-istripuen biktimen % 42 gazteak dira. · Gazteen % 68 auto barruan hiltzen da: % 43 gidari doazela, % 25 bidaiariak dira. · Istripua eragiten duten arau urratze nagusienak aurreratzeak eta kontranoranzko erreian sartzea dira. · Helduak halako bi dira abiadura-mugak gainditzen dituzten gazteak, eta 65 urte baino gehiago dituztenak halako lau. · Gazteen istripugarritasuna batez ere jokabide arriskugarrien ondorio da. 	<ul style="list-style-type: none"> · Urtero 57.000 helduk trafiko-istripua dute. · Helduen % 63 auto-gidaria da, eta 10etik 3k laneko joan-etorrietan ditu istripuak. · Astegunetan izaten dituzte istripuak, egun argitan eta beste ibilgailu batek kolpatuta. · Denbora gehiago ematen dute gidatzen, eskarmentu handiagoa dute eta, oro har, arauak betetzen dituzte. Helduen istripugarritasuna, ziur aski, luzaroago arriskuan egotearen ondorio da.

1.2. TEKNOLOGIA APARATUAK, ALKOHOLA ETA ABIADURA

Telefonotik hitz egitea, SMS bat idaztea, GPSa erabiltzea, film bat ikustea, ogitarteko bat jatea edo zerbait edatea. Jende askok horrelako ohiturak ditu gidatzen ari denean. Gazteek, bereziki, aparatu digitalen mendekotasun izugarria dute, eta naturaltasunez eta egunero erabili ohi dituzte. Telefono mugikorra da gaur egun gidarien oharkabeen eragile nagusia. Gidatzen ari diren bitartean erabili ohi dituzte, eta horrek istripu arriskua laukoizten du soilik hitz egiten ari direnean. SMSak idaztean, istripuak eragiteko arriskua halako zortzi da. Arrisku indize hauek alkoholak gidariengan duen eraginarekin pareka daitezke (Strayer et al. 2006)⁵.

5. New York Times egunkariak 2009/07/19an argitaratu zuen erreportaje batek Strayer et al-ek egindako ikerketa bati buruzko bideoa nabarmentzen zuen.



Arretarik jarri gabe eta azkar gidatzea konbinazio arriskutsuena da, gidatzean arretarik ez jartzeko iturria edozein izanik. Espainian gizonezkoek denbora gehiago eman ohi duten gidatzen, urtero 6. 000 kilometro gehiago egin ohi dituzte. Emakumezkoek, oro har, ez dute marka hori gainditzen, eta gainera, motelago gidatu ohi dute. Sartre3ko Espainiako atalean 18 eta 24 urte arteko emakumezkoen % 29k baietz erantzun zuten. «Azkar gidatzea gustatzen zaizu?» galderari, eta adin bereko gizonezkoen kasuen % 56k baietz erantzun zuen.

Abiadura gizonezkoek gehiago gustatzeaz gain, alkohola ere bada generoaren beste marka bat. Adin tarte guztietako populazioa aintzat hartuta, emakumezkoek balio gehiago ematen diote alkoholak istripuen kausa gisa duen eragin negatiboari, eta alkohola edan ondoren gidatzen dutenetik hiru laurdenak gizonezkoak dira (Sánchez-Martín, 2005).

1.3. PROFIL SOZIO-DEMOGRAFIKOA

2004. urtean Europako SARTRE3 partzuergoak European driver and road risks azterketa bukatu zuen. Orain arte, hori dugu EBeko gidari arriskutsuen profilei buruzko lan osatuena. Jarraian lan horren zenbait ondorio jaso ditugu:

18 eta 24 urte arteko gazteek, eta oro har, gizonezkoek, bideko ezbeharretan talde arriskutsuentzat dute haien burua. Horrela pentsatzen duten pertsonen profila hau da: ikaslea, ezkongabea, bigarren hezkuntza bukatua eta 1. 300 cc eta 2. 000 cc arteko autoa gidatzen du. Emakumezkoek esperientzia gutxiago izan ohi dute 5. 000 km/urte baino gutxiago gidatu ohi dutelako, eta gizonezkoek urtero 30. 000 km-ra arte gidatzen dutela esan ohi dute.

Beren burua arriskutsuentzat hartzen duten gazteen artean ere generoaren araberako beste desberdintasun batzuk agertzen dira. Gizonezkoen etxebizitza, oro har hirietan eta hiriguneetan izaten dira, eta emakumezkoena, aldiz, nekazaritza inguruetan edo herrietan egon ohi da. Gizonezkoen artean jasotako familia mailako sarrera handiagoaren isla ere bada, emakumezkoekin alderatuz.

Ondoko estekan dago:

http://www.nytimes.com/2009/07/19/technology/19distracted.html?_r=2&sq=car%20distraction&st=cse&adxnnl=1&scp=3&adxnnlx=1248634800-H45+zsbwAcQXb32lhJ8v7g

Emakumezko eta gizonezko horiek beste gidariak baino arriskutsuagoak direla pentsatzea eragiten duten arrazoiak askotarikoak izan daitezke. Esperientziaren eta arriskuaren jarreraren arabera azal daitezke arrazoi horiek, gutxienez partzialki. Emakumezkoak, ziur asko, arrisku egoeran egon daitezkeenaren kontzienteago dira, ez dutelako esperientzia handirik eta dituzten gaitasunak gutxiesten dituztelako; gizonezkoek, aitzitik, dituzten gaitasunak handiesten dituzte, eta hortaz, gidatzerakoan joera arriskutsuak izan ohi dituzte.

1.4. EZBEHARREN ZIFRAK

Liburu Zuria. Europako garraio-politika 2010i begira liburuak hauxe dio: guztietatik, «garraio bide guztietatik, errepide bidezkoa da arriskutsuena eta heriotza gehien eragiten dituen». 2000. urtean ia 40. 000 heriotza eta 1. 700. 000 zauritu eragin zituen Europar Batasunean, eta 14 eta 25 urte bitarteko artean lehen heriotza kausa da (Europar Komunitateen Batzordea, Liburu Zuria 2001). Zoritxarrez datu horrek ez dio kaltetutako pertsonen sexuari erreferentziarik egiten.

OMEren arabera, zirkulazio istripuak munduko hamargarren heriotza kausa dira, eta giza bizitzarentzat bederatzigarren mehatxua (hemen aipatua: Estevan 2002, World Disaster Report, 1998). Horrez gain, 20 urte baino gutxiagoko tartean kausa horren eragindako heriotzak bikoiztu egingo direla ere esaten du (gutxienez 1,2 milioi urteko) eta arreta medikua behar duen munduko hirugarren kausa izatera pasatuko dela. Kontuan hartu behar dugu heriotzen % 90 herrialde txirotan gertatzen direla, nahiz eta herrialde aberatsek ibilgailu kopuru altuagoa izan.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailburuordetzak eman dizkigun datuen arabera, EAeko heriotza tasari buruzkoak, ez daukagu gai honekin lasaitzeko motiborik, ezta gutxiagorik ere. Hortaz, 2000. eta 2001. urteko txostenek hau diote: «gizonezkoen bizitzan urte potentzial gehien galtzea eragin duten kausa zehatzak motor bidezko ibilgailuen zirkulazio istripuak izan dira» (Erregistro eta Osasun Informazio Zerbitzua, Osasun Saila 2000 eta 2001). Emakumezkoek dagokienez, bularretako tumore txarra izan zen «bizi urte potentzial gehien galarazi zituen kausa», eta horren atzetik datoz motor bidezko ibilgailuen zirkulazio istripuak, 2000. urtean zein 2001ean (ibid.); Gipuzkoan, zirkulazio istripuak izan ziren lehen kausa 2000. urtean. Gizonezkoen heriotza goiztiarren kausei dagokienez, batez ere zirkulazio istripuei dagokie, eta ondoren trakea, bronkio eta biriketako tumore gaiztoa.

Datuak ez dira hor bukatzen. Txosten beraren arabera, 35 urtetik beherako gazteen artean, 2000. urtean (225 pertsona) eta 2001. urtean (198) hildakoen % 50 kanpo faktoreen ondoriozkoak izan

Hondamendiaren dimentsioak ez dira soilik heriotzen kopuruari erreparatuz atzematen; horrez gain, bideetako ezbeharrek istripuan inplikaturako pertsonengan zein horien senideengan dituzten ondorioak ere aintzat hartu behar dira. Miguel Ángel Carrasco Toledoko Paraplegikoen Ospitale Nazionalako zuzendaria da, eta Autocea aldizkarian egin zioten elkarrizketa batean azaldu zuen ospitalera jotzen duten eta muin lesioa duten pertsonetatik gutxi gorabehera erdiak errepide istripu baten ondorioz pairatzen duela eritasun hori (izan ere, autoan espezializatutako aldizkari batek elkarrizketa egin izanak horri erantzuten dio). Aintzat hartu behar dugu, halaber, egindako adierazpenen arabera ospitale horretara Espainian gertatzen diren gaixo berrien gutxi gorabehera % 35 joaten dela. Carrascok gaineratu du «zirkulazio istripuetan zauritutako pertsona guztien azken datuen arabera, % 80 15 eta 25 urte artekoek dagokiela. Eta gero eta gazteagoak dira, eta lesioak gero eta larriagoak. Gure ospitaleko datuak dira horiek, baina mundu mailan uste dut zifrak eta estatistikak parekoak direla.» Zoritxarrez, ez zigun zauritutako pertsonen sexuari buruzko daturik eman. Ekonomia alderdiari dagokionez, interesgarria iruditzen zaigu zenbait datuen berri ematea:

- Mundu mailako bide ezbeharren kostua 500. 000 milioi dolar ingurukoa da (hauek esanda: Estevan, Murray eta López, 1998).

- Hori gutxi iruditzen bazaigu, «etorkizuneko azterketek diotenez, 2020. urtean zirkulazio istripuetako biktimak artatzea munduko osasun baliabideen % 25 hartzera irits daiteke» (hemen esanda: Estevan, Murray eta López, 1998).

- OMEk argi dio zirkulazio istripuetako zaurituak artatzeak herrialde txiroetako NPGaren % 1 eta herrialde aberatsetakoen % 2 hartzen dutela.

- Liburu Zuriak dio «zirkulazio istripuen zuzeneko kostu neurgarria urtero 45. 000 milioi eurora iristen dela. Zeharkako kostuak (biktimen eta ahaideen kalte fisikoak eta moralak barne) hiru eta lau arteko alde handiagoak izan ziren. Horrek esan nahi du urtero 160. 000 miloi euroko zenbatekoa behar zela, Europar Batasuneko NPGaren % 2» (Europako Komisioen Batzordea, 74).

Espainiar estatuan, REAC erakundeak 2003an Espainiako garraioaren segurtasunari buruzko txostena plazaratu zuen, eta bertan zirkulazio istripuen kostuak kalkulatu zituzten. Txosten hori 2001. urteko datuetan oinarritzen da, eta horietatik zenbait ekarri nahi izan ditugu:

- Kalte materialen kostuak: 5. 870. 000. 000 €
- Administrazio mailako kostuak: 1. 190. 000. 000 €
- Biktima bakoitzeko kostua:
 - Heriotza biktima bakoitzeko kostua 308. 060 eta 724. 740 € artean
 - Hil ez ziren biktima bakoitzeko kostua: 6. 990 eta 13. 750 € artean
- Espainian 2001eko bideko ezbeharren kostuak guztira: - 10. 478. 000. 000 eta 14. 186. 000. 000 € artean

2. FENOMENOAK DUEN ERANTZUN SOZIALA

Fenomeno honen garrantzia ebaluatzeko eragiten duen erantzunaz baliatu beharko bagenu (Administrazioarena, auto ekoizleena, herritarrena), zaila izango litzateke duen larritasunaren berri izatea. Erantzun hori beste fenomeno batzuek eragiten dutenarekin alderatuz gero, esaterako HIESak, edo janariaren kalitateak edo tabakoa kontsumitzeak sortzen dituen osasun arriskuak, edo hegazti gripear diogun beldurrak, argi ikusiko dugu errepideetako eguneroko dramak ez duela merezi duen erantzuna eragiten. (Gogora dezagun EAEko gizonezkoen heriotza tasaren % 45 kanpo kausek eragin zutela 2001ean, eta % 15ean HIESAK).

Administrazioaren jarrera kritikatu dezakegu, baina egia da herritarren artean jarrera hori are etsiagoa dela; esan dezakegu, gainera, oso maila onarekin onesten dela pertsona batzuek «odolezko zerga» gisa kalifikatu dutena, aurrerapenaren trukean gizarteak ordaindu behar duena (batez ere mugikortasunari). Are gehiago, pertsona askok mugikortasunari dagokionez duten jarduerak, nahiak eta desioek egoera larriagoa egiten dute (esaterako, ibilgailu pribatua erabiltzeko mugei uko egitea, edo abiadura). Interesgarria izango litzateke tabako kontsumoaren gaineko murrizketek eragingo litzaketen erantzunak mugikortasunekoekin erkatzea. Horrez gain, interesgarria izango litzateke, halaber, tabakoaren kontsumoak eta zirkulazioak eragiten dituzten erantzunak konparatzea, Administrazioan zein herritarren artean, tabakoa kontsumitzeak eragiten dituen ondorioak zirkulazioak sortzen duen kutsadurarekin konpara daitezke, azken horiek askoz larriagoak izan arren.

Modu berean, European harrigarria iruditzen zaigu (logikoa denez) AEBn armak erabiltzea legezkoa izatea, eta gure ustea urteko biktima kopuruarekin indartzen dugu. Horrek ez digu laguntzen gure errepideetako drama onartzen; izan ere, Estatu Batuetan armekin duten erabilera bera baimentzen dugu gurean ibilgailuekin.

Ez dago zalantzarik: gai honetan ez dago presiorik, eta hortaz, horrek ez du Administrazioa neurri eraginkorragoak hartzera laguntzen edo bultzatzen.

2.1. AUTOAREN LOBBYA

Argi dagoenez, gizarteak fenomeno hori modu horretan toleratzeko azalpen bat egon behar da. «Bidaiaztea ez da inoiz hain arriskutsua izan, baina hain zuzen ere, garraioaren negozioak inoiz ez zuen antzeko dimentsiorik lortu», dio Antonio Estevanek (2002), garraio gaietan aditu den ingurumen aholkulariak. Aintzat hartzen badugu negozio honek dituen onurak, gure buruari galdera hau egin behar diogu: zein da auto ekoizleek bideko segurtasunean duten rola?

Gai hori gure elkarrizketan maiz agertu da, askotan zeharka, abiadurari mugak jartzeak (120 km/h) eta geroz eta azkarrago doazen autoak ekoizteak (240 km/h baino gehiago) duen logika zalantzan jartzen denean.

Ez dago zalantzarik, ekoizleak ekoizten dituzten autoetan segurtasun sistemak garatu eta ezartzeaz kezkatu dira. Baina gehiegizko abiadurarekin gidatzea istripuen kausa nagusietako bat bada, zilegizkoa da galdera hau egitea: zein filosofia, edo zein eredu jarraitu dute segurtasun sistemak diseinatzeko, orain arte ez badute auto motelagoak ekoizteari buruz pentsatu? Argi dago, abiadura interesatzen zaie eta argi dago, baita ere, segurtasunaren, bizitzaren eta pertsonaren osasunaren gaineko interes erreala zalantzan jartzea zilegizkoa dela, heriotza eta ezbehar ugariren kausa ez baita modu zuzenean lantzen.

Estevanek AEBko adibide interesgarria ekarri digu abiadura mugatzeari dagokionez:

«1973an, petrolioaren krisialdi bete-betean, 55 milia orduko abiadura muga finkatu zen (89 km/h). Autoen ondoriozko heriotza tasa, urteko 26 hildako baino gehiago 100. 000 biztanleko 1973an, 18ra arte jaitsi zen 80ko hamarkadaren erdian. Hala ere, autoen lobbyak abiadura mugak igotzeko kanpainari eutsi zion, eta 1987an lortu zuen» (Estevan 2002, 25. or.).

Ondorioak berehala nabarmendu ziren:

«1993an, abiadura muga 65m/h-ra (105 km/h) igo zuten 40 estatuetan heriotza tasak % 23 egin zuen gora, abiadura muga igo baino lehenago erregistratutakoen aurrean. Hala ere, autoen lobbyak kanpainak bikoiztu zituen abiadura mugak oraindik gehiago igotzeko, eta 1995ean errepideen lege federal berria onetsi zuten; horren bitartez, estatu bakoitzak nahi zuen askatasunarekin finka zezakeen gehienezko abiadura muga. Harrezkeroztik, berrogei estatu inguruk abiadura mugak igo dituzte 70 m/h (113 km/h) edo 75 m/h (121 km/h) abiaduretara arte. 90eko hamarkadan, AEB izan da autoen ondoriozko heriotza tasak jaitea lortu ez duen herrialde garatuetan bakanetako bat, eta urtero 40. 000 eta 42. 000 izan ohi dira» (Estevan, 2002, 25. or; ikusi baita ere Finch, Kompfner, Lockwood eta Maycock, 1994).

Estevanen proposamenari jarraiki, ibilgailu azkarregien arriskua aintzat hartuko bagenu, eta ez balego «publizitate edo korporazio esku-hartzerik» ez litzateke arraroa izango pentsatzea ibilgailuaren zenbait erabilera debekatzea, armekin, tabakoarekin edo giza bizitzarentzat arriskutsua izan daitekeen beste edozein elementurekin gertatzen den bezala. (Estevan, 2002, 21. or.).

Horregatik guztiagatik, nahiko arrazoizkoa dirudi osasuna eta giza bizitza zaintzea ekoizleen interes nagusia ez dela (ez eta Administrazioarena, filosofia hori eteteko ez baitu ezer egiten). Arrazoiren bat dela medio, auto azkarrek gehiago saltzen dute, eta horregatik, ekoizleek erabaki dute bideko ingeniariak garatzea ibilgailuaren abiadurari eragin gabe. Horrez gain, badirudi onartzen dutela «gizakiek auto gehiago izan nahi dituztela, erosoagoak, azkarragoak, eta horiekin ahal bezainbeste lekutara joan nahi dutela, ahal bezain azkar» (ibid.).

Badirudi ekoizleek, Administrazioak eta herritarrek mugikortasunaren aldeko erabakia hartu dutela, bizitzaren aldekoaren ordez. Ekoizleek, abiaduraren alde daudelako; Administrazioak, ez saihesteagatik; eta herritarrak, ezaugarri horiek dituzten motor bidezko ibilgailuek ematen duten mugikortasunaren trukean arrisku maila oso altua modu onean onartu dutelako. Hori bat dator, neurri handi batean, elkarrizketetan jaso dugun ideiekin, gutxienez elkarrizketatu berri ditugun jarraera interpretatzen badugu.

Baina, lehenago ere esan dugun bezala, ekoizleek ez diote segurtasunaren alde lan egiteari utzi, eta, are gehiago, gaur egun segurtasun gailu gehiago dituzten autoak ekoi

2.2. ARRISKUAK, AUSAZKOAK ETA KONTZIENTEAK

Estevanen arabera, «autoaren segurtasuna bideko segurtasun bihurtzeko, autoen lobbyaren oinarri teknikoak arriskuaren kontzeptua izugarri manipulatu dute, ondoren bideko segurtasunaren eraikin tekniko eta arau-emaile guztiari eusteko» (ibid.). Hain zuzen ere, arriskua bi eratarik definitu dezakegu, alde batetik «pertsona edo gauza bat kaltetu dezakeen egoera» bezala definitzen da; baina horrez gain, «kalte, hondamendi edo ezbehar bat gertatzeko aukera edo kontingentzia gisa ere definitu dezakegu»⁶.

Gaur egungo autoak arriskutsuak dira, giza gorputza ez baitago prestatua abiadura batetik gorako kolpeak jasotzeko. Abiadurak gora eginez gero, ibilgailu gehiago egonez gero, masa handiago izanez gero, arriskuak ere gora egingo du, baina automobilgintzaren industria menderatzen duten faktoreak ere badira (ibid. , 22).

Arriskua kalkulatzeko istripu kopurua eta herritarrak lotzen dira, eta horregatik, zifrak ez dira itxaropentsuak arriskua irizpide gisa hartuz kalkulatzetik lortzen diren zifrekin alderatzen baditugu. Arriskuaren ikuspuntutik, perspektiba oso desberdina da; izan ere, mugikortasun mota honen eragina beste modu batera kalkulatu da, ratioak dira eta ez zifra absolutuak: istripu kopurua egindako distantzia unitate bakoitzeko (istripu kopurua km bakoitzeko); horri esker, gaur egun ditugun ezbehar tasak justifikatu daitezke soilik esanez lehen baino istripu gehiago daudela errepidean auto gehiago daudelako. Argumentu horrekin hobekuntzak goraiatu daitezke, km bakoitzeko gertatu diren istripu kopuruak behera egin duelako.

Bideko segurtasunaren ingeniariak, hortaz, «istripu arriskua gutxitzean» zentratzen da, baina etorkizuneko oparotasuna baldintzatzen duten faktoreetan amore eman gabe (abiadura, kopurua, masa). Helburua, hortaz, egindako kilometro bakoitzeko istripu gutxiago egotea da, hau da, geroz eta ibilgailu gehiago dituen agertokian ez da istripuen kopuru absolutuan murrizketa esanguratsurik egongo.

6. Nueva Enciclopedia Larousse. Ed. Bartzelona, Planeta, 1981.

Egia da bideko ingeniartzaren emaitzak ez dutela balio izan, orain arte, istripuak per capita murrizteko: egindako kilometro bakoitzeko istripu bat izateko aukera gutxiago ditugu orain, baina zirkulazioak eta abiadurak gora egin dute eta horrek orekatu, eta are gehiago, baliogabetu egin du murrizketa hori.

Ibilgailuen ekoizleek bultzatutako bideko segurtasunaren ingeniartzaren eraginkortasunerako oztopo handi bat kontzeptu gako bat erabiltzeari uko egitea da: arriskua orekatzea. Hemen:

Estevanen hitzetan, arriskua orekatzea honetan oinarritzen da:

«Inguru arriskutsu batean kokatutako gizaki guztiek haien jarrera egokitzen dute, arriskuei erantzutearen eta erantzuteak dakartzan arriskuen arteko lotura hobetzeko. Jasotzen duen arrisku maila aldatuz gero, jarrera ere aldatuko du, eta berriz jarrera egokia lortuko du» (ibid. , 23. or).

«Horren ondorioz, zirkulazioari aplikatutako arriskua orekatzeko teoriak ezartzen du batez beste gidariak jarrera arriskutsuagoak izango dituztela babes tekniko gehiago duen inguruan daudela antzematen dutenean, dela haien ibilgailuan dela errepidea hartzen duen azpiegituran. Hori dela eta, zirkulazioko inguru teknikoan jasotako hobekuntzak neutralizatu daitezke, osorik edo partzialki, arriskua orekatzeko mekanismo psikologikoen ondorioz, edo gehiegi ere neutralizatu daitezke, orekatzeko mekanismoen oinarria interpretatiboa eta subjektiboa da erabat. Teoria hori bat dator, oro har, ohar praktikoekin⁷» (ibid. , 23. or.).

Gure ibilgailuetan eta errepideetan segurtasun sentazioa areagotzen badugu, gure gidariak are arrisku gehiago hartuko dituzte. Segurtasun «sentazioa» eragiten duten autoak ekoiztea, hortaz, kasu honetan, kaltegarria da, batez ere aintzat hartzen badugu publizitatearen bitartez zauritu ezineko sentazioa ere helarazi nahi dela.

Horrenbestez, Estevanek dio beharrezkoa dela gidariak antzemandako arriskua aintzat hartzea, «ingeniariei balorazioek kalkulaturako arrisku teknikoak» baino, gidariaren pertzepzioak eta arriskuarekiko duen loturak finkatuko baitu gidatzeko estiloa. Hortaz, beharrezkoa da «gidariaren arriskuen pertzepzioa areagotzeko neurriak aplikatzea. Horrela, autoa gutxiago erabiltzen hasiko dira, eta modu ez hain arriskutsuan gidatuko dute» (ibid.).

Arriskua orekatzeko kontzeptua irizpidetzat hartzen badugu benetako bideko segurtasuna garatzeko, biak ala biak hartu beharko ditugu aintzat, hau da, arriskuaren pertzepzioa zein kolektiboek horrekiko duten lotura. Horregatik, eta aurreko txostenean esan dugun bezala, gizonezkoek arriskuarekin duten loturak (batez ere gazteek) arreta berezia merezi du, kolektibo horretako ezbehar tasa altuaren kausetako bat delako.

Beste alde batetik, gizonezkoek, batez ere gazteek, haien gaitasunak eta trebetasunak modu neurrigabearen baloratzeko joera badute, ez gara laguntzen ariko sentazio horiek areagotzen dituzten autoetan sartzen baditugu, eta modu zuzenean jarrera arriskutsuak hartzera animatzen baditugu.

7. Estevanek Munichen egindako ikerketa baten adibidea ekarri digu: «Hiru urtez bi taxi talde berdinen istripu kopurua aztertu zen, eta berdinerdinak ziren, salbuespen bakarrarekin: talde bateko taxiek ABS balaztak zituzten eta besteek ez. Emaitzen arabera, ABS balaztak zituzten ibilgailuek ezbehar gehiago izan zituzte» (2002, 9. oharra, 25. or.).

3. ARRISKUA, OSASUNA ETA MASKULINITATEAK

3.1. NORTASUN MASKULINOA ERATZEA

Gure lanaren oinarritzat soziobiologia bezalako diziplina baten printzipioak hartuko bagenitu, maskulinitatea eta bideko ezbeharren arteko loturari buruzko galdera erantzun eboluzionista batekin konponduko genuke (hau da, eboluzioaren teorian oinarritutakoa, biologikoki gorputzak ingurura egokitzen direla esaten duena), eta mota horretako erantzunak gai dira eraketa sozial konplexuek ere biologiaren bitartez azaltzeko⁸. Gizonezko gazteen artean bideko ezbehar gehiago izatearen arrazoia gizonezko gazteek dituzten bideko ezbehar tasa testosteronari egotziko genioke, hori baita askotan indarkeriarekin lotzen den hormona. Gauzak horrela, izango genukeen aukera bakarra izango litzateke gure gazteek errepidean bizia galtzen jarraitzearen etsipena.

Mota horretako argumentuak oso errotuta daude bai hedabideetan baita gure gizartean ere, eta horren ondorioz, gure ikuspuntua, erabat desberdina dena, justifikatzera behartuta gaude. Abiapuntutzat hartzen dugun ideia hau da: lotura dago gizonezkoa eta emakumezkoa izateko moduen artean (gorputzak, nortasunak, jarrerak eta sexualitatea) eta guztia erabakitzen duen biologiaren ideiatik urrun dagoen kulturaren artean. Testosterona altu izateagatik edo beste edozein biologia ezaugarriengatik gizonezkoek istripu gehiago izatearen ideia baztertu egiten dugu. Aitzitik, errepidean jarrera oldarkorragoa eta ausartegia izatea gizonezkoa izatea modu jakin batean definitzen duten zenbait balio kulturalekin gehiago lotzen dela uste dugu.

Robert Connellek eman zigun elkarrizketan argi hitz egin zuen gai honi buruz: haren aburuz, jarrera soziala azaltzeko baldintza biologikoak aipatzeak ez da argumentu zientifiko seriotan oinarritzen; are gehiago, horiek «zientzia txarra» edo, «kazetaritza txarra» direla dio. Eta hau ere gaineratu zuen: «Gizonezkoek biologikoki oldarkorragoak badira, zergatik ez dira gidari gehienak errepidean hiltzen? Zirkulazio istripuak izateko programa biologikoa baldin badago guztiak hilda egongo lirateke! Ez du zentzurik! Nola bizirauten dute?».

Hori esanda eta gai horri buruzko bibliografia aztertu ondoren, garrantzitsua iruditu zaigu gure lanak dituen oinarriaren ideiak aipatzea, eta gaur egungo genero eta teoria feministako azterketetatik eratorri ditugunak. Ikuspuntu honen arabera:

Biologiak ez du aukerarik ematen orokortasunak ondorioztatzeko, sexu bereko pertsona barietate zabala dagoelako.

– Sexuaren araberako desberdintasunak, maila intelektualean, izaeran, gaitasunetan, trebetasunetan, edo beste ezaugarri batzuetan, ez dira garrantzitsuak sexu bereko pertsonen arteko desberdintasunekin alderatzen baditugu. Edozein kasutan, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko desberdintasunak ez dira nahikoa garrantzitsuak gizarte aldeak justifikatzeko, ez eta sexuen desberdintasunei buruz ditugun usteak ere (esaterako, gidatzeko gaitasuna). Paradoxikoki, beti bilatzen ditugu sexuen arteko desberdintasunak, baita azpimarratu ere, berdinak diren gauzak nabarmendu gabe.

– Mendebaldeko ezagutza zientifikoa sexu desberdintasunen inguruko sineskerak baldintzatzen dute –aldeaz aurretik gai bati buruz pentsatzen dena frogatu nahi izaten da. Hau da, sexuen arteko desberdintasunen gaineko kultura sineskerak bilaketa zientifikoa baldintzatzen dituzte, eta desberdintasun hori berresten duen guztia azpimarratzen dute⁹. Gizonezkoa izatea azaltzen duten definizioen barietateak argi uzten digu nola biologiak baldintzatu egiten dituen, baina ez ditu zehazten.

⁸ Argumentu hori lanean erabili ditugun zenbait iturritan ikusiko dugu, esaterako Oxfordeko Social Issues Research Centerek 2004an argitaratutako lanean.

– Mundu zabaleko kulturek eskaintzen dizkiguten erakunde sozialen barrietateak erakusten digu biologiak baldintzatu dezakeela, baina ez duela zehazten.

– Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desberdintasun biologikoak hain muturrekoak izatea benetan zalantzan jarri dute desberdintasun horiek erlatibizatzen duten azterketek (ezaugarri genitaltetatik hasi eta burmuinera arte, baita hormonak eta glandulak ere). Are gehiago, gaur egun existitzen diren zenbait ideiak (ikus Grosz, 1994; eta Fausto-Sterling, 2000) baztertu egiten dute errotik desberdinak diren bi nortasun (gizonezkoa eta emakumezkoa) existitzea, eta gorputz bakoitzean zientziak femeninoa edo maskulinoa izateko definitutako ezaugarriak nahasten direla defendatzen dute; Horren ondorioz, ezin dugu onartu kultura aldetik maskulinoa/femeninoa aurkaritza oso garrantzitsua izan zela.

– Azkenik, azpimarratu nahi dugu zenbait jarrera oldarkor azaltzeko –esaterako ausartegi gidatzea– testosteronaren teoria erabiliko bagenu, emango lukeela pertsonengan ondorio oso desberdinak izango lituzkeela, eta agresibitatea ez litzateke kasu guztietan areagotuko (buru kontzentrazio maila altua izan dezake, edo lasaitasuna, edo erne egotea¹⁰). Beste alde batetik, lehenago ere esan dugun bezala, sexu bakoitzaren barruan dagoen barrietateak ez du orokortasunik egiteko paradarik ematen.

Garrantzitsua iruditzen zaigu puntu horiek argitzea, gizonezkoen jarrera oldarkorraren ideia bultzatzea (kasu honetan errepidean) soilik biologia zorigaitza delako, eta hori pairatu besterik ezin dugulako egin; ez du konponbideak bilatzen laguntzen, ez eta hemen hizpide dugun fenomeno benetan ulertzen laguntzen. Are gehiago, horrako hori gizonezkoen ezaugarri «naturala» izatea ez badugu zalantzan jartzen, jokabide hori zilegizkotzat jo eta indartu egingo dugu.

Hortaz, giza jokabidea ezin dela soilik kultura aldetik azaldu ulertzen dugu, eta gorputzak (biologikoa) rol adierazgarria jokatzen du horretan. Ildo beretik, gorputz biologikoa eta kulturaren arteko loturaren ideia bultzatzen duten gaur egungo joerekin bat egiten dugu, hori iruditzen baitzaigu ideia interesgarriena eta hedatuena une honetan gorputzaren gainean egindako ikerketen alorrean. Burua/gorputza dualitatea gainditzean datza, edo natura/kultura, gure pentsamenduan oso errotuta daudenak.¹¹ Hain dago errotuta dualitate hori, non alde batera uzteko pentsatzeko beharrezkoa izaten jarraitzen baitu.

Horren adibide argia osatzen dute gizaki basatiek: hau da, zenbait arrazoi direla medio, sozializatorik gabe, egoera basatian biziraun duten haurrak, neskatoak zein mutikoak (Le Breton, 1998). Pertsona horiek ez dute sozializatutako gizaki guztiek ditugun zenbait ezaugarri garatzen, esaterako gorputz postura, mintzamena, hotzaren sentsibilitatea, ikusmena, entzumena, eta baita zenbait hezurren forma ere.

Biologia eta kulturaren arteko loturak aldakortasun tarte zabala ematen digu, gizonezkoa izateak esan nahi duenaren izaera aldakorrean argi geratzen dena, edo gizonezkoen funtsezko ezaugarriak zein diren esatea, nola jokatzen duten (edo nola egin beharko luketen), kultura bakoitzak ematen diguna, une historiko bakoitzak, baita klase sozial bakoitzak ere. Maskulinitatearen definizio transzendentea eta zalantzan jarri ezin dena bilatzea, esentzia naturalean errotutakoa, biologikoa edo transzendentea, une historiko bateko fenomeno sozial gisa hartu behar da.

9. Gaur egun emakumezkoen eta gizonezkoen arteko desberdintasunak azaltzeko erabiltzen diren argumentuak aspaldiko arrazoi arrazistekin parekatu daitezke, eta horrek XIX. mendeko Filosofia Naturalistan ditu oinarriak. Argumentu arrazistak ez bezala, gaur egun oraindik gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desberdintasun horiek babesten dutenak ezeztatzeko beharrezko sentitzen dugu, batez ere gaitasunei dagokienez (oso argi ikusten da emakumeak gidatzeko ezintasunari buruzko gizarte sineskeren kasuan).

10. Bordo, 1999. Testosteronaren ondorioei buruzko erlatibizazio hori interesgarria da, askotan oldarkortasunarekin modu argian lotzen baita.

11. Pentsatzeko modu hori erronka bat da gizarte zientziarentzat zein biologiarentzat.

Laburbilduz: gure ikuspuntutik, gizonezkoen gorputzeko ezaugarri biologikoetan oinarritutako maskulinitatearen ideia baztertzeko, eta azterketa soziokulturalaren aldeko apustua egin nahi dugu.

Errepidean gizonezkoek duten jokabide oldarkorra nortasun maskulinoari buruzko balio sozialen eta sineskeren bitartez azal daitekeela uste dugu; hain zuzen, gizon bat izatea zer den definitzeko moduaren bitartez.

3.2. ARRISKUA, OSASUNA ETA MASKULINITATEAK

Arriskuak oso rol garrantzitsua du nortasun maskulinoa eratzean eta erakustean. Mota desberdinetako arriskueta jartzea gizon askok gizontasuna erakutsi eta berresteko erabiltzen duten modua da. Eta horietako bat ausartegi gidatzea da.

Maskulinitatea kaltegarria izan daiteke osasunarentzat. Gai honek Osasunaren Mundu Erakundea ere kezkatu du. Erakunde horren arabera, nahi gabe egindako lesioekin lotutako heriotza tasa beti da altuagoa gizonezkoen kasuan emakumezkoen kasuan baino eta zirkulazio istripuen kasuan, gizonezkoek tasak ia hirukoiztu egiten du emakumezkoen tasa. Halaber, zirkulazio istripuetan inplikaturako gizonezkoak eta mutikoak (gidariak edo zuhurtziarik gabeko oinezko gisa) beti emakumezkoak eta neskatok baino gehiago dira. Zifra horiek direla medio, ez da zentzugabea OMEak ateratako «maskulinitatea kaltegarria izan daiteke osasunarentzat» ondorioarekin bat egitea.


Gizonezkoak istripu gehiagotan izaten dira, eta horrek zerikusituzena du jarrera ausartegiarekin, arriskua onartzearekin eta mina eta lesioarekiko axolagabetasunarekin. Osasun arriskuak eragiten dituzten jarreraren artean alkohola eta drogak gehiegikeriz kontsumitzea ere aipa dezakegu, baita jarrera oldarkorra (borrokak) eta ausartegi gidatzea ere.

Errepideetako ezbeharrak osasuna kaltetzen duten ohitura eta jarrera horien ondorio gisa uler dezakegu. Gizonezko askok osasuna kaltetzen duten ohiturak izaten dituzte (eta hemen jorratzen ari garen gai honetan, baita besteen osasunerako ere: gizonezko gazte gehiago hiltzen dira errepidean, emakumezko gazteak baino gehiago, baina proportzio handiagoan hiltzen dute; Connell: 1995), mota guztietako arriskuak onartzen dituzte, baita ausartegi gidatzea ere.

Ildo beretik, oso interesgarria iruditu zaigu Courtenayen lana, gizonezkoen osasunaren gaia lantzen baitu generoaren ikuspuntutik¹², eta gizonezkoak gutxiago bizitzeari azalpen soziokulturala proposatzen dio, zalantzan jarriz orain arte gailendu diren azalpenak, oinarri biologikoak dituztenak. Gizonezkoak gutxiago bizitzeko azalpen «naturala» saihestezina da, eta hortaz, ezin da zalantzan jarri (Courtenay, 2000: 1. 387); aldiz, ikuspuntu soziokulturalak aukera ematen du gai honen gainean eztabaidatzeko eta esku-hartzeari ate bat irekitzeko.

Generoa eratzeko eta berreraikitzeke zenbait jarduera baliabidetzat erabiltzen dira, esaterako lengoia, lana, kirola, krimena eta sexua. Jarrera horiek egiteko emakumezkoek eta gizonezkoek duten moduak pertsona definitzen laguntzen du genero bati edo besteari atxikita izanaren arabera. Eta generoarekin batera, dagozkien konbentzio sozialak ere onartzen dituzte. Osasunarekin lotutako jarrerak, hortaz, emakumezkoek eta gizonezkoek desberdintasun bat eraikitzeke jarduera bat osatzen dute. Hortaz, Courtenayk diozku «osasunarekin lotutako ekintza generoa eratzeko modu bat da»¹³(Courtenay, 2000: 1. 388).

12. Emakumeen kasuan, aspaldi hasi zen hau egiteko joera.



Geroz eta proba gehiago ditugu gizonetzkoen eta emakumezkoen artean desberdintasun handiak daudela esateko. Osasunarekin lotutako jarrerari dagokienez: gizonetzkoen jokabideetan haien bizitza arriskuan jartzen dute emakumezkoek baino askoz neurri handiagoan (Courtenay, 2000: 1. 836). Jokabide horietatik osasunarekin lotutako ereduak eta sineskerak sortzen dira eta horiek gizonetzkoen jokabidean presio handia egin ohi dute (emakumezkoena baino handiagoa, Courtenayren arabera). Sineskera eta eredu horiek eragiten dute gizonetzkoak burujabe, sendoak, indartsuak eta mardul gisa pentsatzea (Courtenay, 2000: 1. 387).

«Gizon izatearekin» lotutako osasun arriskuak boterea eta agintea izatearekin lotuta daude. Botere zantzu horiek bilatzea da, hain zuzen ere, gizon asko arriskatzera bultzatzen duena. Boterearekin lotzeko eskakizunetako bat beharrianak ezabatu eta mina ukatzea da. Maskulinitate hegemonikoa erakusteko erabil daitezkeen osasunarekin lotutako beste sineskera eta jokabide batzuk ¹⁴ ahultasuna eta zaurkortasuna ukatzea ere biltzen dituzte, baita beste hauek ere: kontrol emozionala eta fisikoa, indartsua eta gogorra izatearen itxura, laguntza behar izatea ukatzea, beti sexuan interesatuta egotea eta jarrera oldarkorak eta nagusitasun fisikoa erakustea (Courtenay, 2000: 1. 389).

Osasunarekin lotutako jarrera horiekin gizonetzkoak boteretsuagoak izatearen ideia indartzen da, baita emakumezkoak zaurkorragoak izatea ere; gizonetzkoak eraginkorragoak direla eta hortaz, emakumezkoen gaitetik daudela, laguntza eskatzea eta osasuna zaintzea jokabide femeninoak direla eta gizon sendoen artean sendoenentzat osasuna eta segurtasuna ez dira garrantzitsuak (Courtenay, 2000: 1. 389). Modu horretan gizonetzkoak «sexu indartsuaren» posizioa indartzen dute emakumezkoek ordezkatzeko duten «sexu ahularen» gaitetik.

Batere osasuntsuak ez diren jarrera hauetan arrisku egoerak onartu edo bilatzen dituztenak azpimarratu behar ditugu. Izan ere, gizon batek bere maskulinitate maila defini dezake modu arriskutsuan gidatuz, edo kirol arriskutsuak praktikatuz, edo horrelako jokabideak jendaurrean izanez, baita horren ondorioak (zauriak, ondorioak) urrezko dominak bezala erakutsiz ere. Ildo be-

13. «The doing of health is a form of doing gender» jatorriz (itzulpena gurea da).

14. Maskulinitate hegemonikoak maskulinitate eredugarriak dira, oro har horrela onartutakoak, eta horretara iristen ez dena gutxietsi egiten da, ez da burujabea edo gutxiago da. Maskulinitate guztiak neurtzeko erreferentzia irudikatzen dute. Hortaz, gizonetzkoak izatea indartsua izatearekin identifikatzen da, arrakasta izatearekin, fidagarria, gai eta kontrolpean izatearekin. Maskulinitate hegemonikoaren ereduak ez da finkoa, baina kulturaren eta une historikoaren arabera aldatzen da. Informazio gehiago 1. eranskinean.

retik, maskulinitatea, askotan osasungarritzat jo daitekeen jarrera eta sineskera guztiek aurkako gisa definitzen da (Courtenay, 2000: 1. 389).

Horrez gain, gogoratu behar dugu askotan arrisku jokabide horiek sozialki zigortu egiten direla. Horren haritik, Javier Rocak argi dio «errepideko ezbeharren arazo handietako bat, hain zuzen ere, hori da, jarrera ez seguru askok, atzetik, gizartearen babes izaten duela. Gidari askok gidatzerakoan egindako ustezko «heroi balentria» horiek kontatzerakoan onarpena eta horrela jarraitzeko pizgarria lortu ohi dute. Gizartearen babes hori faktore erabakigarria da jarrera arriskutsuei eusteko».

Ohitura eta jarrera osasuntsuak feminitate moduarekin eraikita eta horri lotuta izatea da beste arazo bat, osasun zerbitzuak erabiltzea bezala. Horregatik, osasunaren mesedegarri diren jarrera horiek, gizonetzko askoren iritziz, eragin feminizatzaileak dira, eta ikusi dugun moduan, kontra egin behar zaie.

Hemen interesatzen zaigunari dagokionez, zuhurtziazko jarreratzat har daiteke¹⁵ femeninoarekin lotuta izateagatik gizonetzkoek saihesten duten jarrera horietako bat. Rocaren iritziz, «gizonetzkoen gidatzeko moduak, nolabait deitzearren, gehiago jotzen du lehiakortasunera, oldarkortasunera eta indibidualismora. Jarrera femeninoagoa izango duen gidatzeko modua zuhurragoa izan daiteke, ez hain lehiakorra, ez hain oldarkorra, kooperatiboagoa eta ulerkorragoa bide publikoetako beste erabiltzaileekin». Alde batera utzita ohar horrek errealitatea islatzen duen edo ez, egia da zuhurtziaz gidatzeko ideia gidatzeko modu femeninoa dela eta gizonetzko askoren artean ez dela onartzen. Izan ere, zuhurtzia, askotan, «gehiegizko»tzat jotzen da, eta zuhurtzia gehiegikeria hori emakumezkoak txarto gidatzearen arrazoi zela esan ohi da (zuhurtzia, askotan, beldurrarekin identifikatzen da). Elkarrizketan Connellek dio gazteek femenino ez bezala eratzeari aginduari erantzuten diotela «eta horretarako duten kultura beldurretako bat errepideetako jarrera da».

Gizonetzko ugari zuhurtziaz gidatzea alor femeninoarekin lotuta egotea gaitzesten dute.

Laburbilduz, jokabide osasungarriak dituzten gizonetzkoak (jokabide femeninotzat jotzen direnak) eta jokabide arriskutsuak izateko gai ez direnak (jokabide maskulinotzat hartutakoak) beste gizonetzko batzuen aurrean mendekotzat senti daitezke, eta haien gizontasuna zalantzan jartzen ari dela senti dezakete (Courtenay, 2000: 1. 390).

Gizon bakoitzak bere gizontasuna modu desberdinean sortu eta erakusten du, eta faktore ugari- ren mende dago hori, esaterako klase soziala, orientazio sexuala, etnia, edo egoera fisikoa. Gizon bakoitzak bere indarra eta sendotasuna erakusteko duen modua faktore horien mende dago, eta hortaz, horretarako zenbait baliabide erabiliko ditu (pistola bat, ukabilak, sexualitatea, lan fisikoa, auto bat, edo karrera profesionala) (Courtenay, 2000: 1. 390). Gorputza bera askotan erabiltzen duen baliabidea izango da. Autoa, motorra, eskura duten beste baliabide batzuk dira, askotan gorputzaren luzapen gisa ere identifikatzen direnak. Hortaz, Rocak gure susmoa indartzen du eta hau berresten du: «baliteke rol maskulino hain markatu hori barneratu duten gizonetzkoek ibilgailua "instrumentalizatzea", hau da, haien bizitzeko modua kanporatzeko erabiltzea».

Botere sozialera, onarpen sozialera edo baliabide ekonomikoetara iristea mugatuta duten gizonetzkoek edo gazteek beste bide batzuk bilatzen dituzte maskulinitatea baliozkotzeko. Indarkeria eta menderakuntza fisikoa oso baliabide erabilgarriak dira, baita jarrera osasuntsuei uko egitea ere –ustez feminizagarriak dira eta hortaz, aurka egin behar zaie–, baita beharrezkoak ez diren arriskuan jartzea eta ausardia erakustea ere. Horregatik, arriskua ez da saihesten, hain zuzen ere arriskuan jartzeko izaerak bihurtzen ditu zenbait jarrera hain erakargarri gizonetzko batzuentzat; esate baterako, ausartegi gidatzea.

15. Interesgarria izango litzateke ikertzea «ondo gidatzeak» gizonetzkoentzat zer esan nahi duen eta segurtasunarekin eta arrisku egoeretako kontrolarekin duen harremana aztertzea. Etnografiari buruzko atalean ikusiko dugu hori.

Argi dago maskulinitate guztiek ez dituztela jarrera horiek izaten. Courtenayk dioen bezala, maskulinitate ez hain osasuntsuak eredu menderatzaileei jarraitzen die, eta beste gizonezko batzuek haien maskulinitatea modu ez hain tradizionalan definitzen dute (Courtenay, 2000: 1. 392). Puntu honetan Rocarekin bat dator, eta horren aburuz «pertsonak pentsatzen eta bizi duten moduan gidatzen dute. Horren ondorioz, rol maskulino hain markatu hori barneratu duten gizonek gidatzerakoan ere azalaraziko dute, baita erosi duten ibilgailuaren arabera ere. Aitzitik, rol maskulinoa ez hain tradizionala duten gizonezkoen kasuan, gidatzerakoan beste jarrera bat izango dute, oso desberdina».

3.3. AUTOAK, MOTORRAK ETA GIZONEZKOAK

Autoek eta motorrek bat-etortze puntu garrantzitsua osatzen dute, gizontasuna definitzeko bi alderdi uztartzen baitituzte: oldarkortasuna eta teknologia. Teknologia eta generoaren arteko loturari dagokionez, Wajcmanek oso ekarpen interesgarriak egin ditu. Autore horren iritziz, teknologia ez dugu zerbait neutroa bezala hartu behar, baizik eta kultura produktu bat bezala, eta jakintza mota bati, gizarte jarduera batzuei eta balore jakin batzuei lotutakoa.

Teknologia maskulinitateari oso lotuta egon da eta egoten jarraitzen du, eta horren ondorioz, feminitatearen aurkako gisa ageri da. Gizonezkoa arrazionaltasunarekin eta indarrarekin lotutako ideiarekin bat dator (batzuetan beharrezkoa da zenbait teknologia erabiltzeko), eta erraz atzean daiteke merkatuari erreparatuz, gizonezkoak jotzen baititu ez soilik indartsuentzat, baita eskuz trebeen eta teknikoki gaituentzat ere, emakumeen gaitetik, fisikoki eta teknikoki ezgai gisa hartzen baititu.

Teknologia eta generoaren arteko lotura hori, gizonezkoentzat lotura positiboa eta emakumezkoentzat negatiboa dena, hain dago errotuta, genero nortasunaren eraketa elementua baita. Wajcmanen hitzetan, gaitasun teknikorik ez izatea feminitatearen ezaugarri bihurtu da, trebezia teknikoa maskulinitatearena bihurtu den bezala. Trebetasun teknikoa eta mekanikoa askotan maskulinitatea neurtzeko modu bat ere izaten da.

Gizonezkoen eta makinen arteko lotura hori, halaber, Espainiako estatuko gazteen kontsumo aukeretan ere islatzen da. Félix Ortégaren arabera (1993), 1990eko hamarkadaren erdian Espainiako gizonezko gazteek kontsumitzen zuten objektu lehenetsiak autoak, motorrak eta abiadurarekin lotutakoak ziren (% 90ean, eta nesken kasuan, aldiz, %, 10). Kontsumitzen diren beste objektu batzuk, hala nola alkohola, lehen gizonezkoen ezaugarri izaten zena, gaur egun ez daude hain berezita, emakumeek ere kontsumitzen dutelako.

José María Espadak egindako ikerketa batean (daturik gabe), motorzaleen munduan exhibizionismoa indar elementu gisa ikusia da. Autore honen iritziz, «motorzaleen exhibizionismoa eta gidatzean duten ausardiak motorrak sinbolo bihurtzen dituzte, ibilgailu baino gehiago. Motorrek independentzia irudikatzen dute, arriskua eta ausardia, estatusa eta boterea. Esfera sinboliko hori indibidualismoarekin lotuta dago, heroitasunarekin eta oldarkortasunarekin» (Espada, daturik gabe: 9). Gure ustez, horrelako ezaugarri asko autoen eta motorrek gidariei aplikatu ahal zaizkie: independentziaren, estatusaren eta boterearen balioak autoen publizitatean errepikatzen dira etengabe.

Besteak aitortzea –batez ere beste gizonezko batzuk– funtsezkoa da gizontasuna baliozkotzeko, eta horrek exhibizionismo dosi ederra inplikatzeko du, orain aipatu dugun bezala. Horretarako, askotan beharrezkoa da gizontasuna berrestea jendaurrean agerraraziz, botere posiziorik ez duten gizonezko kasuetan bereziki, esaterako gazteen kasuan. Ez zaigu exhibizionismo horren probarik onartzea beharrezkoa iruditzen, guztiok izan ohi gara adierazpen publiko horren lekuko errepideetan eta gure hirietako kaleetan.

Ildo beretik, beste berdintsu batzuekin gidatzen denean –beste gizonezko gazte batzuekin– gidatzeko modua ere aintzat hartu behar dugu. Rocaren iritziz, «lagun taldearekin gidatzea oharkabetasun gehiagorekin eta ausartegi gidatzearekin lotzen da –esaterako, abiadura handiagoarekin–», eta «lagun taldeak eragin negatiboa izan dezake errepideko segurtasunean, batez ere aisialdi arrazoiak direla medio gidatzen ari badira». Gizonezko baten gizontasuna berresteko, oso garrantzitsua da beste gizon batzuen onarpena. Berdinen taldeak protagonismoa izaten duen testuinguru horiek azterketa zehatza merezi dute.

Autoek eta motorrek bat-etortze puntu erabakigarria osatzen dute gizontasuna osatu eta erakusteari dagokionez. Autoen eta motorren munduan maskulinitatea baliozkotzeko alderdi oso garrantzitsuak daude, esaterako:

- Makinekin eta teknologiarekin duten lotura.
- Arriskuarekin duten lotura.
- Oldarkortasuna, indarra eta potentzia bezalako baloreekin duten lotura, baita independentziarekin, estatusarekin eta boterearekin dutena ere.

Autoen eta motorren publizitateak bat-egite horretan oinarritutako mitologia oso boteretsua sortu eta elikatzen du. Connellek behin eta berriz dio autoen publizitateak arreta berezia merezi duela, baita beste hauek ere: maskulinitatearekin lotutako kontzeptuen erabilera gaiztoak eta errepidean jarrera arriskutsuak sustatzen dituen gidatzeko moduek. Horrez gain, publizitateak ematen duen irudia, gazteena orokorrean eta gizonezko gazteena zehazki, oso kezagarria da.

3.4. ARRISKUAREN ALDERDI BATZUK

Mota bateko arriskua zorizkoa eta kanpo arrazoiak eragindakoa da, baina bada beste arrisku mota bat, kontzienteki hartutako erabakiek eragiten dutena, eta «erabaki edo jarrera baten arrakasta aukerak azaltzen dituen ziurgabetasun neurri» gisa uler daiteke (Sánchez Martín, 2003: 256). Hau da, norbere burua probatzearekin lotuta dago, eta emaitza iragartzen du. Giddens-en iritziz, arriskua «emaitzak bermatzeko modu bat da, etorkizuna kolonizatze modu bat» (Giddens, 1995: 171). Arriskuak kontzienteki bilatze hori norberaren gaitasunetan duen konfiantza probatzeko modu bat da, eta horrek inplikazio nabarmenak ditu nortasun bat osatu edo horri eustean, bereziki nortasun maskulinoan. Hortaz, errepidean, Rocaren iritziz, «ausartegi gidatzea emozio biziak bilatzearekin lotu ohi da. Gidari horietako askok, modu horretan, arriskuarekin eta debekatuta dagoenarekin lotutako sentsazioak esperimendatzen saiatzen dira. Hori egia da, gutxienez, erabat kontzienteki egiten den gidatzeko modu ausartegiaren kasuan, eta horren helburu plazera sentitzea denean».

Arrisku kirolekin gertatzen den bezala, ausartegi gidatzea muturreko egoeretan jartzearekin lotzen dugu, eta Sánchez Martínek kirol horiei buruz dioen bezala, «egoera horri aurre egiteko, gure gaitasun guztiak probatzen dituzten arrisku eta gertakizun horiei aurre eta kontrol emozional zorrotza izatea beharrezkoa den kasuetan» (Sánchez Martín, 2003: 267).

Ildo beretik, Sánchez Martínen proposamena jasoz, arriskuak norberaren aurka egitea eragiten du, etengabe gainditu beharreko oztopoekin, pertsonaren barruan dauden oztopoak, kanpoan baino, indarrarekin, kontrolarekin, erresistentziarekin, zailtasunei aurre egiteko gaitasunarekin lotuta daudenak. Horri guztiari esker, arriskua erakargarria da gizonezko askorentzat, horri aurre egiteko plazera «erronka batean irabaztean lortzen dena delako» (Sánchez Martín, 2003: 269). Arriskuak bakoitzak bere gaitasunengan duen konfiantza probatzeko balio du. Gizonezko gazte askorentzat, arriskua nola antzematen duten ez da garrantzitsua, eta hori baino garrantzitsuagoa da erakargarritasun horrek haiengan duen eragina.

Arriskuari dagokionez, aintzat hartu beharreko beste elementu bat jabetzeko modu desberdina da. Ezbeharrei buruzko azterketetan hori da interes gehien pizten duen gaietako bat. Gure ikerketa lerroak beste norabide batzuetarantz doaz, kasu horretan uste baitugu arriskua atzematea desberdina dela frogatu baino lehen ere, ulertzen dugulako gazte askorentzat arriskua nola atzeman ez dela garrantzitsua, arriskua haientzat duen erakargarritasuna baizik. Gure ustez, gazteei dituzten arriskuen berri emanez ez dugu arazoa konponduko, haientzat arriskua bera erakargarria delako.

Edozein modutan, arriskuak badu alderdi bat gure arreta merezi duena: arriskua gutxiestea norberaren gorputza erasoezina dela pentsatzea delako, edo edozein kasutan, benetan dena baino nahiko sendoago eta boteretsuagotzat jotzen delako. Rocak dio «jarrera ausartegi ugariaren atzean segurua eta arriskutsuari buruzko sinesmen faltsuak egon daitezke, edo arriskuaren pertzepzio gaizki bategatik, besteak beste», eta guk, horrez gain, aipatuko dugu jarrera ausartegiaren atzean norbere gaitasunak modu okerrean atzematea egon daitekeela, hau da, benetan dena baino gehiago direla pentsatzea.

4. AZTERKETA ETNOGRAFIKO¹⁶

4.1. ABIADURA

Abiaduraren gaiari mugatzea erabaki dugu zenbait arrazoi direla medio. Lehenengoa eta garrantzitsuena: ezbeharretan rol erabakigarria duelako. Bigarrena: arrisku jokabideekin oso lotuta dagoelako, eta horregatik da hain erakargarria gizonezko gazteentzat. Hirugarrena eta azkena: gure gizartean gorantz doazen zenbait balioekin lotuta daudela modu jakin batean, balio maskulinoekin.

Azter ditzagun alderdi hauek xehetasunez.

4.2. ABIADURA ETA EZBEHARRAK

Abiadurak istripu asko eragiteaz gain, istripu horien larritasun maila ere zehazten du. Ikus ditzagun ondorioei eta ezbeharrei buruzko datu batzuk:

- Abiadura desegokia edo gehiegizkoa heriotza eragiten duten istripuen % 23n agertzen da (DGTaren datuak, «Errepidea ez da zirkuito bat. Moteldu abiadura» kanpainakoa).

- Abiadurari buruzko azterketen arabera, abiadura % 10 gutxituz gero, heriotza eragiten duten istripu kopurua % 40 murriztuko litzateke (Anderson and Nilsson, 1997).

- 3 Abiadura gutxitzen duen km/h bakoitzeko istripuak izateko aukera ere % 3 murrizten da (Taylor et al. , 2000).

- Abiadura 5 km/h gutxituz gero, urtero 11. 000 bizitza salbatuko lirateke (DGT, «Errepidea ez da zirkuito bat. Moteldu abiadura» kanpainakoa).

¹⁶. Hemen jaso ditugun datuak 2005ean Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako departamentuak egindako etnografia azterketa batetik lortu ditugu. Ikusi dokumentu honetako lehen oin oharra.

- Baimendutako abiadura mugaren gainetik abiadura 5 km/h areagotuz gero istripuak izateko arriskua bikoiztu egiten da (Kloeden et al. , 1997).

- Oinezkoen kasuan, inpaktuaren abiaduraren eta larritasunaren artean lotura estua dago. Hortaz, 50 km/h-ko abiaduran oinezko batek heriotza eragingo lioketen zauriak izateko arriskua 10 aldiz handiagoa da, istripua 30 km/h-ko abiaduran egin izanez gero baino (McLean et al. , 1994).

- Horrez gain, eta ingurumen faktoreak aintzat hartuta, 120 km/h-ko abiaduran gidatuko bagenu 100 km/h-ra joan beharrean, erregaiaren kontsumoa ere % 44 areagotuko genuke.

Laburbilduz, eta Haworth eta Symmonsek dioten bezala, «errepidearen diseinuak baimentzen duena baino azkarrago gidatzen duten gidarien sistema gainditzeko tresna boteretsuena seguru asko abiadura moteltzea da, eta aldi berean nolabaiteko segurtasuna bermatzen da. Abiadura pixka bat moteltzearekin ere, zaurietan eragin nabarmena du, eta are garrantzitsuagoa, heriotza eragitean. Hortaz, abiadura moteltzea istripuak gertatzea eta horien larritasuna murrizteko neurri eraginkorra da» (1999).

Stop Accidentes¹⁷ web guneak abiadurak dituen ondorioei buruzko informazioa ematen digu gidatzea. Abiadurak gora egiten duen heinean:

- Ikuspen pertzepzioa murrizten da (tunel efektua)
- Burmuinak gero eta irudi gehiago jasotzen ditu eta ez da gai guztiak erregistratzeko
- Ibilgailua kontrolatzeko zailtasun gehiago
- Akatsak egiteko arrisku handiagoa
- Pneumatikoak ez dira errepidera ondo eransten
- Edozein talka askoz larriagoa da
- Nekeak eta balaztatzeko erreakzio tartek handiagoak dira

Berriz esan nahi dugu, abiadura moteltzea bideko ezbeharrak murrizteko bermea izango litzateke. Hortaz, Zero Ikuspegitik¹⁸ proposatzen da abiadura mugak gorputzak talkak egoera desberdinetan toleratzeko duen gaitasunetara egokitzea. Adibidez, oinezkoentzat eta autoentzat egina dagoen errepide batean abiadura muga ez litzateke 30 km/h-koa baino gehiagokoa izan behar; edo 50 km/h, bidegurutzeetan alboz jotzeko arriskua dagoenean; muga 70 km/h izango litzateke aurrez aurre jotzeko arriskua dagoenean, eta 100 baino gehiagokoa jotzeko arriskurik ez dagoenean (solik azpiegitura elementuekin). Zero Ikuspegitik ikuspuntuak azpimarratzen du abiadura muga horiek handiagotzeko modu bakarra bide egitura eta abiadura areagotze hori onartuko luketen autoak izatea izango litzatekeela, joz gero giza gorputzean izango lituzketen ondorioak areagotu gabe.

Lehenago ere esan dugun bezala, ikuspuntu objektibo batetik, ulertezina dirudi horren gainean muturreko erabakiak hartu ez izana, aintzat hartzen badugu gehiegizko abiadurak nolako ondorioak dituen, abiadura hori Zero Ikuspegiak definituta (kontuan hartuta giza gorputzaren tolerantzia).

17. STOP ACCIDENTES zirkulazio istripuetan kaltetutakoak laguntzeko eta orientatzeko elkarte bat da, zirkulazio istripuetako biktimen senideek eta lagunek sortutakoa Honako helburu hauek dituzte: ·Zirkulazio istripuak murrizteko prebentzio lana egitea. Errepideetako delinkuentziaren aurka borrokatzea baliabide legal guztiak erabiliz. Aldarrikatzea:

- Legea aplikatzea
- Hezkuntza eta informazioa.
- Biktimen eta senideen eskubideak.

Biktimak eta familiak laguntzeko lana egiten dute, lege eta administrazio erreformak bultzatzen dituzte, irregulartasunak salatzen dituzte, errepideko kontzientzia sustatzen eta hedatzen dute, eta erakunde eskudunekin kolaboratzen dute. Stop Istripuak ez du «bideko ezbeharrei» buruz hitz egiten, baizik eta «bideko delinkuentziari» buruz. Izen horrek istripuak eragiten dituzten pertsonen erantzukizunari erreferentzia egin nahi dio, eta inplikaturako guztien erantzukizuna azpimarratzen du. Kexa nagusia, hain zuzen ere, dramaren neurriaren ulertezintasuna da, gizarteak paso egitea. «Bideko indarkeriari» buruz hitz egiten du, «sarraskia», «epidemia» edo «mundu mailako hondamendi isilari» buruz (Nazioarteko Gurutze Gorriaren definizioari berriz helduz). Hala ere, haren ustetan drama hori saihets daiteke giza jarrerak aldatzea lortuz gero; logikoa da, izan ere, web gune berean diotenaren arabera, zirkulazio istripuen % 90 giza akatsek eragindakoa dira (alkohola, gehiegizko abiadura, seinaleei kasurik ez egitea, distantzia desegokiak, drogak kontsumitzea, sendagaiak, nekea, arreta galtzea, etab.)

Zirkulazio gaietan esku hartzen duten agente guztiak aintzat hartzen baditugu, ulertezina iruditzen zaigu gehiegizko abiaduraren gaia hautu pertsonal bezala horrenbestetan jorratu izana (bereziki kanpainetan); horren ondorioz, gidarien kontzientziaren mende geratzen dira gehiegizko abiadura «hautatzeak» eragin ditzakeen ondorioak. Gure asmoa ez da gidarien erantzukizuna ukatzea, baina garrantzitsua iruditzen zaigu, halaber, Administrazioak, eta batez ere ekoizleek ere, horren ardura izatea. Gidarien borondate ona eskatzeak ez du ezertarako balio legeak finkatzen dituen abiadura mugak bikoizten duten autoak ekoizten jarraitzen (Stop Accidentes web guneak dioen moduan). Suedian motoretan abiadura mugatzaileak jartzeko auto ekoizleak presionatzen dituzte, eta horrez gain, publizitate mezuak ere neurri batean kontrolatu egiten dituzte.

Halaber, Administrazioa gogorragoa eta eraginkorragoa izan beharko litzateke abiadura kontrolatzeari dagokionez. Radarrak instalatzea eraginkorra dela frogatuta dago, eta horregatik, gomendagarria da radarrak jartzea ezarritako abiadura mugak gainditu ohi diren errepide tarteetan. Horrez gain, komenigarria litzateke abiadura mugatzeko beste mekanismo batzuk ere probatzea (ibilgailauk ekoiztean, errepideetan polizia gehiago jarritz, autobideetako tiketen bidez). Argi dago abiadura mugak gainditu ohi dituzten pertsonen profila identifikatzea ere oso komenigarria izango litzatekeela.

Halaber, Administrazioa gogorragoa eta eraginkorragoa izan beharko litzateke abiadura kontrolatzeari dagokionez. Radarrak instalatzea eraginkorra dela frogatuta dago, eta horregatik, gomendagarria da radarrak jartzea ezarritako abiadura mugak gainditu ohi diren errepide tarteetan. Horrez gain, komenigarria litzateke abiadura mugatzeko beste mekanismo batzuk ere probatzea (ibilgailauk ekoiztean, errepideetan polizia gehiago jarritz, autobideetako tiketen bidez). Argi dago abiadura mugak gainditu ohi dituzten pertsonen profila identifikatzea ere oso komenigarria izango litzatekeela.

4.3. ABIADURA ETA ARRISKUA

Abiada mugatzeko arazo handienetakoa da gizartean onarpen zabala duela abiadak. Hain zuzen ere, sarritan ondo gidatzearekin eta gidari trebea izatearekin lotzen da. Elkarrizketetan harridura geratu ginen, izan ere, errepideko portaera arriskutsuei buruz galdetean, sarriago eta espontaneoki aipatzen ziren zuhurregiztat jotzen ziren portaerak. Askotan, berriz, gehiegizko abiadaren eraginari buruz berariaz galdetu behar izan genuen horri buruzko iritzia eman zezaten.

SARTRE inkestak¹⁹ gidariek abiaduraren gainean duten iritzia bildu du. Estatu espainiarrari dagokionez, emaitzek argi erakusten dute abiaduraren gaineko jarrerak kezagarria dela (DGTK bildutako datuak «Errepidea ez da zirkuitu bat» ekimenean):

- Gidarien erdiek diote batez bestekoa bezain azkar ibiltzen direla errepideetan. Lautik batek dio batez bestekoa baino pixka bat motelago ibiltzen dela, eta % 16k bestek baino azkarrago gidatzen duela aitortu du.

18. ZERO IKUSPEGIA. Bide segurtasuneko filosofia hau Suedian sortu zen 1997an, bertako agintek errepideetako ezbehar onartezintzat jotzenari erantzuteko. Filosofia hori arautzen duten printzipio nagusiak hauek dira:

Mugikortasuna segurtasunetik eratorri behar da, ezin da segurtasunaren kontura lortu (Tingvall and Haworth, 1999). «Bizitza eta osasuna inoiz ezin dira gizartearen beste onura batzuegatik trukatu» (Ministry of Transport and Communications, 1997). «Norbaite larri zauritu edo hiltzen den bakoitzean, neurriak hartu behar dira antzeko gertaerak saihesteko» (ibid., 1997). Suediako gobernuaren helburu utopikoa hau da: **Suediako errepideetan ez da inolako hil edo larri zauritu behar.**

Utopikoa izanik ere, eraginkorra da. Suedian aplikatzen hasi zirenetik, istripu kopuruak nabarmen egin du behera: lehen 100.000 biztanleko 13,4 hildako izaten zen tasa; orain, aldiz, 5,5. Zero Ikuspegiaren oinarriko ideia zera da, bide segurtasunaren erantzukizuna sistema diseinatu dutenena eta bideko erabiltzaileena dela. Ez dago zalantzarik, Zero Ikuspegiak jarraitu beharreko eredu sortu du, gutxienez bideko segurtasunarekin benetako konpromisoa existitzen ez den kasuetan, eta osasunaren eta errepideetako ezbeharren inguruko kezka erreala.

- Hala ere, % 73k uste dute gainerako gidariak abiadura mugak sarri gainditzen dituztela, oso sarri edo beti. Horrek esan nahi du aitortzen ez duten arren haiek ere muga gainditzen dutela.

- % 17k aitortzen dute batez bestekoa baino bizkorrago edo askoz bizkorrago ibiltzen direla errepideetan. % 5ek haien burua gainerakoak baino arriskutsuagotzat jotzen dute, eta % 12ren ustez, bizkor gidatzea ez da arriskutsua.

- Norberaren abiaduraren eta arrisku pertsonalaren pertzepzioen artean alde handia dago: handiagoa da batez bestekoa baino arinago gidatzea onartzen duten gidarien taldea, arriskutsuagotzat jotzen dutenen taldea baino.

- % 45ek uste du abiadura muga autobideetan eta autobietan altuagoa izan beharko litzatekeela; uste hori errepide horietan finkatutako mugak gutxiago errespetatzearekin lot daiteke. Gehiengoak (% 78) uste du hiriguneetan egokiak direla. Errepide nazionaletan eta bigarren mailako errepideetan soilik % 26k eta % 15ek uste dute, hurrenez hurren, gaur egungo abiadura mugak baxuak direla.

- Istripu eragile gisa abiadurari erantzukizun gehien emakumezko zaharrenek eta gazteenek leporatzen diote. DGTaren kanpaina honetan abiadurarekin lotutako arrisku handiko edo oso handiko gidarien bi profil identifikatu dira:

ARRISKU HANDIKO TALDEA:

- 40 eta 45 urte arteko gizonezkoak, eta neurri txikiagoan, 25 urteko emakumezkoak.
- 2.000 cc-ko ibilgailuak.
- Autobideetan, errepide nazionaletan eta bigarren mailako errepideetan abiadura muga altuagoak nahi dituzte.
- Ez daude kamera automatikoen bidezko zainketarekin konforme.

ARRISKU OSO HANDIKO TALDEA:

- 25-39 urteko gizonezkoak.
- Ikasketarik edo erdi mailako ikasketarik ez dute.
- Lanean gidatu behar dute.
- Hiri txikietan bizi dira.
- Autobideetan ez dute abiadura mugarik nahi eta bigarren mailako errepideetan ere muga altuagoa izatea nahi dute.

4.4. ABIADURARI BURUZKO IKUSPUNTUAK

Elkarrizketatutako pertsona ia guztiak abiadurari dagokionez jarrera bitxia izan zuten: guztiek onartzen zuten abiadura elementu arriskutsua dela, baina askori kostatzen zitzaien baieztapen hori egitea. Esaterako, gaizki gidatzea zer zen galdetu genienean, bat-bateko erantzun ohikoenak ez ziren izan abiadurarekin lotura duten jarrerari buruzkoak; aitzitik, aurkakoa gertatu zen. Gehiago kritikatu zituzten motelegi gidatzen zuten pertsonak azkarregi gidatzen zutenak baino, eta halaber, gehiago kritikatu zuten gehiegizko zuhurtziaz gidatzea zuhurtziaz gabe gidatzea baino (gogoratu

19. Testuaren laukia: SARTRE (Social Attitudes to Road Traffic Risk in Europe / (Errepideetako Arriskuaren aurrean Gizartearen Jarrerak European) gidarien planteamenduak eta jarrerak ikertzen dituen azterketa da SARTRE, zirkulazioan inplikaturako zenbait faktoreekin lotuta, baita urtez urte duen eboluzioa eta segurtasun maila hobetzeko zenbait herrialdetan egindako ekintzen eragina ere. Ikerketa 1991n abiatu zen eta 15 herrialdek hartu zuten parte; harrezkerotik, bi aldiz aplikatu da berriz ere. 3. SARTRE ikerketan 23 herrialdek hartu dute parte, eta horietako bakoitzean 1.000 gidari baino gehiagori egin zaie galdeketa; guztira 24.372 pertsona aztertu dira. Bildutako informazioak aukera ematen du zirkulazioaren arriskuen pertzepzioak, jarrerak eta gidatzean izandako esperientziak balioztatzeke herrialdeen arabera, eta ezagutza eta jarrerak hobetzeko beharrezko neurriak identifikatzeko; hortaz, horri esker, segurtasun maila ere altuagoa izango da.

dezagun, bide batez, zuhurtzia ezaugarri femeninotzat jotzen dela]. Kasu askotan, abiadura faktore arriskutsua dela gogorarazi behar izan genuen, eta horren ondoren arriskutsua zela onartu zuten. Hala ere, kasu gehienetan baieztapen horri zenbait ñabardura gehitu behar izan zizkioten, eta zenbaitek nabarmendu zuen abiadura, berez, ez dela arriskutsua edo ez dagoela gaizki gidatzeari lotuta; hain justu ere, iritzi hori dute zuhurtzia gehiegiz edo motelegi gidatzearen gainean.

- 40ra ere ez duzu joan behar: 70 km/orduko abiaduran joan zaitezke eta berdin, ondo, lasai-lasai. 70 km/orduko abiaduran zerbait gertatzen bada, gelditu egiten zara. Kontua ez da 40ra joatea, batek baino gehiagok egiten duen bezala. Azkenean izugarritzko ilara egiten duzu. Edozein gauza nahikoa da baten batek arreta galdu dezan, beste batek autoa gelditu eta zartada handia har dezake (Oñati).

- Gidatzea arriskutsua da, badakigu arriskutsua dela, baina gidatzeko moduak eta moduak daude. Ni 200 km/orduko abiaduran joan naiteke eta seguru joan (. . .), baina esaterako 100 km/ordu.

Cristinak ere, zuhurra izatearen itxura ematen duen gidariak, errazago identifikatzen du gaizki gidatzea moteltasunarekin, abiadura gehiegikerirekin baino:

- Eta zer da, ba, gaizki gidatzea?

- Ba ez begiratzea. Adibidez, zu zure munduan zoaz, nahi duzunean erreiz aldatzen duzu, ez dituzu besteak aintzat hartzen. . . Gaizki gidatzea da, horrez gain, agian motelegi joatea, esaterako biribilgune batera iritsi eta. . . gelditzea.

- (. . .)

- Eta beste aldea, zuhurtziagabetasun gehiegi izatearen kasuan, nola ikusten duzu?

- (. . .) Zuhurtziagabetasun

Oro har, motelegi joanagatik besteei oztopo egiten dieten ibilgailuak gogor kritikatzeko dira. Kasu honetan, modu horretan gidatzeari egindako kritika egokitzat joko genuke –ez, nahitaez, kasu guztietan– besteei oztopo edo traba egiteari zuzendutakoa, eta ez horrenbeste eragiten duten arriskuari buruzkoa. Azkar doan ibilgailu batek egiten duen traba txikiagoa da ezbeharririk ez badago, baina, aldiz, eragiten duen arriskua handiagoa da. Horri dagokionez, interesgarria iruditu zaigu Stop Accidentes elkarteko Jeanne Picardek dioena:

- Ezbeharrak gidatzeko estilo bati zor zaizkiela uste duzu? Erantzuna baiezkoa bada, nola definituko zenuke estilo hori?

- Gidatzeko modu OLDARKORRA ETA HARROA. Bi estiloak existitzen dira: -«kontrolatzen duena», bere ustez, auto gorri edo horia duen gaztea, zirkuitu batean dagoela uste duena. Horrek ez du uste arriskua existitzen denik.

- Gidari harroa, indar handiko autoarekin autobidea menderatzen duena, Audiarekin edo BMWarekin. . . Abiadura muga ez omen dago pertsona horrentzat egina. Bi pertsona mota horien iritziak, besteak ez dakite gidatzen, auto zaharrak dituzte, eta, azken finean, traba egiten diegu.

Ibilgailu bat oso azkar gidatzeak eta ezbeharririk ez gertatzeak, hain zuzen ere, kontrol sententzia eragin behar du, eta horren ondorioz, berezko gaitasunak gain baloratzera garamatza. Jeanne Picardek eman digun profila, «haien ustez besteak ez dakigu gidatzen» dioenean, bat dator, neurri desberdinean, elkarrizketatu ditugun pertsona askoren jarrerarekin (batez ere gizonezkoak). «Nik kontrolatzen dut» sententzia faltsu hori, 18 urteko mutilei erreferentzia eginez elkarrizketatutako batek zihoen bezala, beste adin tarte batzuetan ere oso hedatua dago.

Oro har, esan dezakegu elkarrizketatutako pertsona askoren jarrerak nolabaiteko bihozberatasuna islatzen zutela gehiegizko abiadurari dagokionez –bihurrikeriren bat izango balitz bezala–, edo, are gehiago, abiadura modu argian babesten zuten.

- Ea, adibidez, zuk 120ko abiaduran joateko aukera baduzu, demagun, autobideetan. 120ko abiaduran ezinezkoa da; demagun 160ra, eta hori baino azkarrago doanari isuna jarriko zaio, abiadura

hori nahikoa delako. Baina kontua da guk orain dela 50 urteko abiadura muga dugula, hemen 600, 127, 850 eta horrelako autoak zeuden garaikoa. eta segurtasun baliabideak absurdoak ziren (Andrés).

- Nire autoa 180 km-ko abiaduran ondo joateko pentsatuta badago, zergatik da hori hemen ausartegia, zergatik da bideko segurtasunaren aurkakoa, eta aldiz Alemanian erabat legezkoa da? Zein da desberdintasuna? Hau da, hemen Alemanian baino hiru aldiz motelago bagoaz, zergatik hemengo hildako kopurua da Alemaniakoaren hirukoitza? (Andrés)

Iruditzen zaigu horrelako argumentuek arrisku handia ezkututzen dutela. Elkarrizketatu honen iritziz, azpiegituren hutsunea da neurri handi batean erruduna; zuzen dabil kasuen zati handi batean, baina horrek ez du esan nahi gidariak erantzukizunik ez dutenik. Horrez gain, informazioa ere zuhurtziaz hartu behar da, eta ez dugu aintzat hartu behar soilik Alemanian abiadura mugarik ez izatea –ez da erabateko egia– eta errepideetan hildako gutxiago izatea. Beharrezkoa izango da horren kausak ulertzea eta ezbehar gutxiago izatean zenbait faktorek duten rolaren berri (tartean azpiegitura hobek izatea, bide hezkuntza edo hiritartasun hobea, osasun laguntza hobea, araudia, etab.). Informazio ona izatea funtsezkoa da, batez ere gidatzea bezalako kasuan; izan ere, gidatzearen mundura hurbiltzeko eta horri buruz ikasten den zati handi bat modu informalean egiten da, eta horri norbanakoaren interes edo nahiri zor zaio interes komunari beharrez, eta informazio okerra izatea.

Kasu honetako beste arazo bat zera da: azkar gidatzean trebetasuna erakusten duena gidari ontzat jotzen da, autoa egoera zailetan kontrolatzen dakiena eta ez, ordea, egoera zailak saihesten dituen gidaria edo zuhurtziaz gidatzen duen gidaria. «Gidari on» horien jarrerek gidatzearen gaian ikasteko ezer ez izatea erakutsi dezakete, eta informazio mota bati dagokionez iragazgaitzak dira; jarrera mugatuko dieten zenbait neurriekin ere nolabaiteko erresistentzia izan dezakete.

Aurrerapen teknikoetan erakutsi duten konfiantzak ere arriskua sor dezake: autoak azkarrago mugi daitezke orain, eta segurtasunak ere gora egin du, baina horrek ez du esan nahi abiadura jakin batean gidatzeak arrisku gutxiago duenik orain. Horri dagokionez, zenbait «aurrerapen» teknologiko kritikatu zituzten elkarrizketatutako pertsona batzuek. Esaterako, elkarrizketatutakoen artean esperientzia gehien zuen pertsonak, eta autoetaz maiteminduta dagoenak, uste du gaur egun gidatzea arriskutsuagoa dela, edozein autok abiadura handia har dezakeelako eta potentzia handiko autoak dira.

Pertsona beraren aburuz, gaur egungo autoak aspaldikoak baino errazago gidatu ahal izateak ere eragina du, gaur egungo ibilgailuek direkzio lagundua eta gidatzea errazten duen teknologia dutelako. Gehiegi errazten ote duen ezin dugu galdetu. Beste pertsona batek hau esan zigun:

- Gaur egun auto txiki batek abiadura handia hartzen du. Saxo batek 160 km/orduko abiadura ere har dezake; kamioi bat aurreratzeko nahikoa. Baina Saxo horrek 160 km/orduko abiaduran duen egonkortasuna nahiko kaskarra da, baita segurtasuna ere. . . abiadura horretan auto horrekin istripu bat izanez gero. . . hobe horrelakorik ez izatea. (Dani)

Esandako guztia aintzat hartuta, geure buruari galdetu behar diogu zer duen abiadurak horrelako erreakzioak sortzeko, gidariak horrenbesteko erresistentzia izateko abiadura mugatzeaz hitz egiten denean? Gure ustez arrazoi gehiago ere badira, baina arreta berezia eman diegu bi hauei: plazera eta prestigioa.

4.5. PLAZERA

Elkarrizketatu ditugun guztietatik, azkar gidatzearen plazerari buruz argien Fernandok hitz egin zuen, esperientzia gehien duenak. Autoek miresten dutela aitortzen du Fernandok, eta horregatik, hain zuzen ere, bilduma osatzen ari da. Abiadura maite duela onartzen du, eta plazera bera dela medio Benidormera arte joan daiteke 5 orduetan (batzuetan 240 km/orduko abiaduran). Besteek egindako adierazpenetatik ere uler dezakegu azkar gidatzea plazera iruditzen zaiela, baina ez zuten hain argi esan.

- ...azkar joatzeko aukera izanez gero, ondo, baina lehenengo eta behin segurtasuna dago. (Dani)
- Ez daukazu 40 km/orduko abiadura joan beharrik, 70era ere joan zaitezke berdin-berdin. (Oñati)

Edo, esaterako, autobideetan abiadura muga 120 izan beharrean 160 izatea eskatzen duenak. Zergatik? Soilik bere autoa abiadura horretarako joan «daitekeelako» arazorik gabe, edo iristeko presa duelako? Abiadura, egia da, erakargarria da, eta horrek lotura zuzena du sentsazio fisikoarekin. Horrela ez balitz, elkarrizketatu ditugun batzuek egin diguten galderaren aurkakoa egin dezakegu guk, hots, zergatik joan behar dugu 160ra, 120ra joateko aukera badugu?

Lehenago iritsi nahi izatea erantzunez gero, Stop Accidentes elkarteak abiadura ikasleekin lantzeko web gunean emandako fitxa batean eskaini digun informazioa interesgarria izango zaigu. Fitxa horren arabera, azkar joatearen ustezko abantailak ez dira horren positiboak, eta gainera, aurrezten den denbora tartearen gain balioesteko ohitura dugu. Fitxa horren arabera:

- Autobideetan 100 kilometroz 130 km/orduko abiadura joan beharrean 150 km/orduko abiadura joanez gero, 6 minutu aurrezten dira. Gauza bera gertatzen da errepideetan, 100 kilometroko tartean 100 km/ordura joanez gero 90 km/orduko abiadura joan beharrean.

- Gure ibilbideen % 5 da 100 kilometro baino gehiagokoa. Azkarrago mugitzeko aukera dugunetik (70 urte baino ez) distantziak handiagoak dira. Hala ere, arrazoia ez da halabeharrez lehenago iristea izan behar, beste faktore batzuk ere eragina baitute, eta horien artean azkar gidatzeak eragiten duen plazera nabarmendu nahi dugu. Abiadurak eskaintzen dituen ustezko plazeraren kausa batzuen gainean fitxa horrek ematen duen informazioa biltzea interesgarria iruditu zaigu:

- Neurofisiologikoki erabat aktibatzea bilatzea. Gidari batek abiadura gehiago hartzen duenean gidatzeko ohituraren monotoniatik ihes egin nahi du. Plazer fisikoa eta sentsoriala da batez ere, eta eszitazioarekin lotuta dago.

- Lan zailak menderatzea. Ibilgailu bat menderatzeak ongizate handiagoak eragiten ditu ibilgailua menderatzen zaila bada. Abiaduraz gidatzea hautatzea zailtasun maila hautatzea ere bada. Plazer psikologikoa da: zure irudiak balio handiagoa izango du eta lehiatzeak pozten zaitu; alegia, beste batzuk baino azkarragoak izatea.

- Arriskuarekin eta heriotzarekin jolastea. Abiaduraren oinarritzko erakargarritasunetako bat da, baita ilunetako bat ere. Plazer anbigua da.

Zer diote guk elkarrizketatutakoek horri buruz? Fitxa didaktika horrek aipatzen dituen alderdie-tako bat lan zailak menderatzea da, eta hortaz, abiadura plazer bihurtzen da. Ideia hori Oñatin elkarrizketatu genuen pertsona batek azaldu zuen, baina ez da abiadurari buruz ari, baizik eta gidatzeari buruz, orokorrean:

- Gidatzeak zer du, plazer izateko?

- Zuri ematen ari zaizun plazera da. Mugitzen ari zarenaz gozatzen duzu. Autoen lasterke-ta bat balitz bezala, zu hor zoaz. . . eramaten ari zarena kontrolatzen ari zara, uste dut hori dela garrantzitsuena. (. . .) Norberaren harrotasuna da, ezta?

- (. . .)

- Eramaten ari zarena ondo eramaten ari zarela, eta iritsi beharreko lekura iristea eta esatea «ostia, primeran!» Niretzat hori garrantzitsua da.

Elkarrizketatu genuen beste pertsona batek ez du zalantzarik (abiadura babesten zuen): norbait-ek azkar dabilen autoa erosten badu, azkar ibiltzea gustatzen zaiolako erosi du.

- Abiadura plazer motaren bati lotuta dago?

- Ea, zergatik jendeak edaten du garagardo bat eta ez tekila bat? Garagardo edatea gus-tatzen zaielako, eta ez zaielako tekila edatea gustatzen, eta edateaz ari gara, bada, gauza bera da. Esaterako, zuri zergatik gustatzen zaizu gehiago patata tortilla bat jatera esertzea McDonald'seko hanburgesa bat jatea baino? Eta janaria da, gauza bera da. . . Baina ez da gauza bera. Zergatik BMWren iragarkian esaten dute «gidatzearen plazera», (. . .) eta hor doa tipo hori 50 km/orduko

abiaduran eta eskua kanpoan duela? hau gozamina! hori lasaitasuna duena. . . BMW hori ez doa 50eko abiaduran! Ez horixe! (Andrés)

Dirudienez, pertsona horrek argi du azkar joan daitekeen autoa erosten duenak abiadura gus-tatzen zaiolako erosten duela, eta azkar gidatuko du horretaz gozatzeko. Nola egin diezaiokegu uko «tentazio» horri? Badirudi hori esaten digula elkarrizketatu dugunak. Hau da, nola egin die-zaiokegu uko plazer bati, nahiz eta potentzialki kaltegarria dela jakin?

Abiadurak eragiten duen plazera, azalpena alde batera utzita, aintzat hartu beharreko faktore bat da gidatzerakoan ditugun jarrerak ulertu nahi baditugu. Ez zaigu komeni ordezkatzeko duen erakargarritasuna alde batera uztea.

4.6. PRESTIGIOA

Stop Accidentes elkarteak eman digun fitxa didaktika honek, halaber, hau azaltzen du: «mugarik gabeko abiaduraren aldekoak gutxi dira, baina diskurtsoari eusten diote lorpenekin zuzenean lotutako dinamismoaren irudi gazte eta distiratsuarekin. Horientzat, abiadura mugatzea boterea mugatzea da, eta justifikatzeko zenbait argumentu erabiltzen dituzte». Alegia, abiadura presti-giozko balioekin lotzen da, dinamismoarekin, gazte izatearekin eta arrakastarekin.

Abiadurari mugak jartzearen aurrean duten erresistentzia modu horretan azaltzen da, alegia, prestigiozko zenbait adierazlerentzat oztopo delako. Horren haritik, ez da kasualitate hutsa auto garestienak azkarrenak izatea, edo auto merkeak abiadura motelagoak izatea. Argi dago abiadu-ra plus gehiagarri bat dela, eta erakargarria dela; eta horren ondorioz, ordaindu egin behar da.

Abiadura eta horrekin lotutako guztia gure gizartean hazten ari diren balioak dira, eta horregatik dira erakargarriak. Luis Boninok modu honetan interpretatzen du berehalakotasuna balioesten duen gizartean abiadurak duen erakargarritasuna:

– Abiadura eta berehalakotasuna zinez gurtzen dira, eta horren ondorioz, argi dagoenez, pentsatzen jartzea, hausnartzen, denbora ematea, gaizki ikusita dago kultura aldetik, eta ez soilik gizonezkoetan.

Prestigio adierazle gisa duen izaera da Boninoren iritziz auto azkarregiak ekoizten jarraitzeko arrazoietakoa bat:

– ...ezin bada 120 km/h baino azkarrago joan, zergatik egon behar du 200 km/h-ko abiaduran doan auto bat? Ez da logikoa. (. . .) Egia esan, hori zergatik existitzen den azaldu beharko genuke. Argi dago, ez dugu ikusi behar nola mugatzen duten, baizik eta abiadura handiko autoak zergatik existitzen diren azalduko duen zein ikerketa egin behar den zehaztu behar da. Eta berriz gizarte ereduera itzuliko gara, argi dagoenez abiadura prestigio adierazle bat delako eta hortaz 300 km/orduko abiadura hartzen duen auto bat behar duzu, eta prestigio gehien duena, Panda bat izatea baino prestigio gehiago duena. Gizarte balioespenean abiadurak duen garrantziaz ere hitz egin zuten. Batek lotura oso argia ikusten ez bazuen ere, besteak ez zuten garrantzi horri buruzko zalantzarik:

- Gai horretan, niri abiadurarekin adarra jo didate.
- Motel doanari adarra jotzen diote motel doalako.
- Azkar doanari ere berdin jotzen zaio adarra.
- Horregatik, batzuetan presionatuta sentitzen zara, berdin du nola jokatzeko duzun.

Baina normalean gehiago izaten da motel gidatzen duenarekin, azkar gidatzen duenarekin baino.

- Imajina dezakezu neska edo mutila den?
- Ez, baina gehienetan mutila izaten da. (Ekaitz)

Gure elkarrizketa guztietan, modu sistematikoan eskatu dugu emakumezkoak eta gizonezkoak bereiztea. Kasu guztietan bereizketa hori elkarrizketatuen gogoan ez gordetzen saiatu gara, hausnarketak alde aurretik ez baldintzatzeko. Gure estrategia orokorrean hitz egiten uztea izan da, esperientziei buruz, inpresioak, balioespenak, etab. , eta ondoren, esandakoaren gainean gizonezkoen eta emakumezkoen arteko bereizketaz hausnartzeko eskatu diegu.

Modu esplizituan galdetu dugu, halaber, gizonezkoen eta emakumezkoen gidatzeko estiloen desberdintasunei buruz duten iritziaz. Erantzunak oso antzekoak izan dira kasu guztietan.

Interesgarria da ikustea elkarrizketatu ditugun gizonezko ia guztiek emakumezkoen gidatzeko modua kritikatzan bazuten ere, deskribatzen zituzten egoera edo jarrera arriskutsuetako protagonistak beti gizonezkoak zirela. Jarraian azalduko dugun lehen adibide honen aurretik elkarrizketatutak emakumeak kritikatu zituen zuhurtzia gehiegi izateagatik eta hortaz, istripuak eragiteagatik:

- Tolosaldean badira kuadrilla batzuk horretan aritzen direnak, liskarrak eragiten (. . .) Gero, gidatzen dutenean jendea molestatzeaz gain errepidetik gidatzen dute, eta ez dute ezertarako lotsarik.
- Eta talde horretan zer dira mutilak bakarrik edo neskak ere badaude?
- Mutilak. Mutilak. Bai, neskaren bat ere badago, baina batez ere mutilak ibiltzen dira. (Andoni)

Beste adibide bat,

- Herrietako zirkulazioan, arazo handiena motorrak dira, haien kasa ibiltzen direlako. Nik uste dut Donostian ere berdina gertatzen dela.
- (. . .)
- Mutil gazteak dira?
- Oso gazteak. Oraindik ez dute gidabaimena lortzeko adinik.
- Mutilak edo neskak?
- Ez, mutilak, baina beti neskekin doaz. Mutilek gidatze

Arrisku jarrerak identifikatu eta ondoren protagonisten sexua zehazteko ariketa sistematikoki egin genuen, eta kasu guztietatik batean ere ez zen deskribatutakoaren aurkakoa gertatu, zuhurtzia gehiegizko edo motel gidatzearen kasuetan izan ezik. Are gehiago, kasuetako batean, autoetan ez bezala, motorren kasuan emakumezkoen eta gizonezkoen istripuen kopurua parekoa zergatik den galdetu genuenean, zuhurtzia gehiegikeria izan zen justifikazioa, baina motorren ezbeharren kausak, oro har, ibilgailu oso zaurkorra izatearekin lotuta daude, eta ez soilik gidatzeko estiloarekin.

Hortaz, une honetan galdera honetara iritsi behar dugu: Elkarrizketatutako pertsonen nola antzematen eta definitzen dute emakumeen gidatzeko estiloa? Azter ditzagun jasotako erantzunak. Taula honekin ez dugu azterketa sakon bat egin nahi, baina horren gainean hausnartzeko aukera ematen digu. Arreta deitu dugun lehen gauza zera da, gizonezkoen gidatzeko estiloan atributu pasitiborik ez egotea, baina hala ere, elkarrizketatu dugunetako gizon batek bere gidatzeko estiloari buruz –emakumezkoen gidatzeko estiloarekin alderatuz– esan diguna atal honetan ere jaso dezakegu: bere buruari buruz dio errepidean «biziagoa» dela. Hala ere, gizonezkoen gidatzeko moduaren deskribapen pasitiborik ez dagoela esanguratsua bada ere, horrek ez du esan nahi horren gaineko iritzia nahitaez negatiboa denik. Konparazio ariketa bat denez, pentsa daiteke gizonezkoen gidatzeko estiloaren alderdi pasitiboak emakumezkoen alderdi negatiboetatik ondorioztatu daitekeela. Ariketa hori eginez gero, ondorioztatu dezakegu gizonezkoen gidatzeko estiloaren alderdi pasitiboen haritik, gizonezkoak horrelakoak dira:

- ez dute zuhurtzia gehiegirik,
- arrreta gutxiago, beldur gutxiago
- trebeagoak
- oldarkorrangoak
- aurreikusten errazak
- oso seguruak
- zuhurtziagabeak
- ez arriskutsuak
- zuhurtziagabeak
- erraztasunez gidatu behar dute
- ez zaie kostatzen
- gaia menderatzen dute
- konfiantza dute
- egoerak menderatzen dituzte abiadura jakin batean.

Emakumezkoen gidatzeko estiloari erreparatuz, aldiz, eta gizonezkoen atributu beltzak aldatzearen ariketarekin jarraituz, emakumezkoak horrelakoak direla ondorizotatu genuke:

- zentzudunak
- abiadura ez zaie horrenbeste gustatzen
- umilak
- apalak
- ez hain ausartak
- ez oldarkorrek
- hobeto moldatzen dira norbaitek zerbaite irakasten dienean
- abiadurarekin trebeagoak dira
- arriskua ez zaie gustatzen
- arriskua ez zaie gustatzen, ez ausazkoa ez kontzientea
- ez dago indarkeriarik
- ez dute harrotasunik
- behatzaileagoak
- abiadura ez zaie gustatzen
- ez dute oso azkar gidatzen
- kontu handiagoz gidatzen dute
- gauza guztiei gehiago erreparatzen diete
- ez dira haserretzen
- ez dute edaten eta ondoren gidatu
- ez dira leku guztietara autoz joaten
- gehiago pentsatzen dute

Ez dugu nahi ariketa txiki hau gaizki interpretatzea. Gure asmoa ez da estilo bat babestea eta bestea kritikatzeko, baizik eta gidatzeko bi estiloen hautematea aztertzea. Gidari arriskutsuen profilak aintzat hartzen baditugu, ezbeharren kausen gaineko datuak (eta horien artean abiadura nabarmendu behar da) argiago ikusten da ezaugarri positiboak zein negatiboak aintzat hartuta, kasu guztietan gizonezkoen profila dela gidari arriskutsuaren profila (zuhurtziaz gabea, azkar gidatzea gustatzen zaio, ibilgailua gehiegi erabiltzen du. . .).

Konparazio horretatik zein ondorio lor ditzakegu? Oro har, bi dira: Lehena hau da Luis Boninoren hitzekin esanda:

- Gizonezkoen iritziaren arabera, emakumeak txarragoak dira gauza guztietan.

Bigarrena da gizonezkoen iritziz ongi gidatzeak ez duela arriskuak gutxitzea kontuan hartzen. Gizonezkoen iritziz emakumezkoak beti gauza guztietan txarragoak izateari dagokionez, bitxia da ikustea nola emakumezkoen gidatzeko estiloa kritikatzan duten emakumezkoen jarrera askoz seguruagoa delako gizonezkoen aldean, edo, edozein kasutan, ezingo lituzkete istripu oso larriak eragin, arau-haustea ez baitaude gehiegizko abiadurarekin lotuta (zenbat eta abiadura gehiago orduan eta istripu larriagoak izatearen ideari jarraiki)²⁰. Esan daiteke gizonezkoen iritziz emakumezkoak «oztopo» egiten dutela. Interesgarria da ikustea nola bi aldiz pertsona nagusien gidatzeko estiloarekin edo hasiberriekin konparatzen zaien, gizonezkoen eta emakumezkoen gidatzeko desberdintasunari buruz galdetzean.

- Ba ez dakit, baina nik antzematen dut: hori neska da. Edo agian gidabaimena lortu berri duen mutil bat tokatzen zaizu eta dio «ostia, oso gaizki doa». (Oñati)

- Bueno, nik uste emakumea, kasu horretan. . . esan ohi da zuhurtzia gehiagorekin gidatzen duela, askoz hobeto gidatzen duela, istripu gutxiago dituela. . . Baina nik uste ehuneko altu batek, bueno, ez dut esan nahi istripu gehiago eragiten dutenik horregatik baina. . . ez dakit nola esan, zuhurtzia hori, arriskutsuagoak dira. Gizonezkoak ere badira, ehuneko altu bat, eta pertsona nagusietan ikusten da hori. Pertsona nagusiak arriskutsuak dira eta esaten dute «ez, ez, ni motel noa eta ez dut istripurik izango», baina kontua ez da motel joatea. . . (Andoni)

Eta oztopo egiten duenak dagokion lekuan ez egoteagatik egiten du traba, besteek jardura modu normalean garatu ahal duten eta horrela egin behar den zerbaitetan parte hartzeko beharrezko baldintzak ez baititu betetzen. Hortaz, Boninok horrela azaldu digu:

- Gizonezkoen iritziaren arabera, emakumeak txarragoak dira gauza guztietan. Eta gainera, nolabait esateagatik, gidatzen duten emakumezkoak dagokien rolean arau-hauslea da, bere rola etxean egotea baita. Horrenbestez, publikoa ez den guztia, berez, arau-haustea da. Eta gainera gidatu egiten dute, eta gidatzea gizonezkoen ereduari oso lotuta dago. Gizonezkoak gidatu behar du, ez soilik autoan, erabakietan ere, arlo guztietan. Horregatik, argi dagoenez, emakumeak, gidatzen duenean, toki arau-hausle batean dago.

Elkarrizketatu ditugun zenbait pertsonen hausnarketa interesgarria egin dute, alegia, gizonezkoak gidatu ohi duela, berarekin doan emakumezkoak gidatzen jakin arren. Fenomeno bitxi bat da eta ondorio berdineran eramaten gaitu: gidariaren eserlekua ez da toki aproposa emakume batentzat. Mari Luzek dio emakumezkoak kontu handiagoa izan ohi dutela autoa hartzen dutenean ikasteko, baina horren gainean berak aurkitu duen azalpena hau da²¹:

- Neska beti doa gidariaren ondoko gisa. Mutil lagunak ez dizulako autoa hartzen uzten, aitik ez dizu autoa hartzen uzten, nebak ere ez. Hortaz, noiz hartzen duzu autoa? Lanera zeuk bakarrik joan behar duzunean, bananduta zaudenean, edo ez duzunean beste aukerarik. Familia bat igandetan paseatzera doanean galdetu ere ez da egiten. Nork gidatzen du? Gizonezkoak. Eta horren alboan eserita beldur gehiago izan ohi da, edo atzean. Gero seme-alabak datozelako, eta postua kentzen dizute. Uste dut neurri handi batean horregatik gero gidatzen hasten direnean eta ikusten dutenean autoak ez duela hiltzen, zuk menderatzen duzula makina, esaten dute «ui! askoz ere errazagoa da!». Argi dago, ez du zailtasunik: zuk esaten diozunean balaztatuko du, zuk agintzen diozunean joango da azkarrago, baina albokoak ez du hori ikusten. Eta orokorrean gizonezkoak apur bat zakarragoak dira. Hara, aurreratzea ere! Beldurra pasatzen dute, nik uste beldurragatik dela.

20. Makroinkestaren arabera «. . . Gipuzkoan inoiz istripurik izan ez duen emakumezkoen ehunekoak gizonezkoenaren gainetik dago». (2005, 16 or.). Horrez gain, «inoiz isunik jaso ez duen emakumeen ehunekoak % 92ra arte igon da, eta gizonezkoena aldiz % 75 da. » (2005, 17. or.)

21. Makroinkestaren arabera zuzen dabilta, Gipuzkoan «(istripuetan) inplikaturakoetatik gidariaren % 76 gizonezkoak ziren eta % 24 emakumezkoak; hortaz, joerak beti gidariaren ondokoari eragiten dio, eta kasu horretan

Elkarrizketan, beste une batean, Mari Luzek ohar hau egin zuen:

- Neskek eta mutilek berdin erabiltzen al dute?
- (. . .)
- Nik uste gauza bera dela. Bikotea sortzerakoan gertatzen da desberdintasuna. Nik uste dut hortik datorrela. Estatus kontua denez, mutilak hartzen du.

Santiagok fenomeno bera aipatu du azaltzen duenean bidaia luzea denean, bere emazteari gidatzen utzi beharrean presioa sentitzen duela aitortu digu. Cristinak ere gauza bera dio:

- Gidatzetik zer gehiago gustatzen zaie (mutilei)?
- Ez dakit. Nik uste ez dutela horrenbesteko zuhurtziarik. Batez ere abiadura. Oso azkar ibiltzen dira. Neskekin alderatuz, askoz gehiago. Eta bai, gidatzea gustatzen zaie. Uste dut gidatzea askoz gehiago gustatzen zaiela. Esaterako, gidariaren alboan joan nahi badute, beti nahiago izaten dute gidatzea. Badirudi seguruago sentitzen direla, badirudi neska batez ez direla fidatzen.

Ildo beretik, elkarrizketatu gazteenak (17 urte) –eta ez zuen emakumezkoen gidatzeko estiloa kritikatzeko, justu kontrakoa– hausnarketa interesgarria egin zuen amen eta aiten jarrereri buruz.

- Zure iritziz, motorra dutenen artean, neska eta mutila kopuru berdintsua izaten al da?
- Ez. Seguru ezetz. Mutil gehiago.
- Zergatik iruditzen zaizu hori horrela dela?
- Gurasoak. Segurtasunagatik: «Aiene, nire neskatoa! Ez hartu motorra», «Nola hartuko du ba nire neskatoak motorra?» Aita eta alabaren artean. . . (Ekaitz)

Gauza bera dio Mari Luzek:

- Autora igotzerakoan aitak semea gehiago animatuko du: «goazen, igo autora». Eredu horiek asko aldatu dira. Tristea da.

Argi dago emakumezkoen gidatzeko estiloaren kalifikazio negatiboa modu estuan lotuta dagoela errepidean oztopo egitearen ideiarekin. Aurreko txostenean esan genuen bezala, motorraren, errepidearen mundua, tradizioz, oso maskulinoa da. Abiadurarekin, teknologiarekin eta arriskuarekin duen lotura horrek izaera maskulinoa indartzen du, eta horren ondorioz, emakumeen presentziak izaera horri kalte egiten dio, gizonezko askori mundu horren parte izateak ematen dieten prestigio edo estatusa deslegitimatzen du. Gogoratu dezagun arlo baten izaera maskulino horrek, hain zuzen ere, ematen duela prestigioa, eta hortaz, feminizazioa beti arriskutsua da. Emakumezkoak arlo horretatik aldentuta mantentzeko modu eraginkor bat, hain zuzen ere, gidatzeko estiloa desegokitzen jotzea da. Posible da horrela kalifikatzea arlo maskulino batean egokitzen jotzen dena balio «maskulinoekin» definitzen baita. Errepidean zuhurtziaz jokatzeko egokitzen joko bagenu, gizonezkoen eta emakumezkoen gidatzeko estiloen hautematean arabera, gizonezkoek egingo luketela traba, eta ez emakumezkoek²².

Baina estatusarekin zuzenean lotuta ez dagoen beste alderdi bat ere badago. Emakumezkoak, Ekaitzek dion bezala, gehiago babesten dira. Gidatzetik aldentzen saiatzen gara, kasu onenetan arriskutik baztertzen, prestigio eta estatus iturritik urruntzeko. Horrek beste ondorio batera garamatza, eta gure ikuspuntuaren arabera, nahiko kezagarria da: emakumeak errepideetako arriskuetatik aldentzea, emakumezkoak modu horretan babesteak esan nahi du gizonezkoak guxtiago babesten direla, edo, are gehiago, jarrera arriskutsuak izatera bultzatzen direla.

21. Makroinkestaren arabera zuzen dabilta, Gipuzkoan «(listripuetan) inplikaturakoetatik gidarien % 76 gizonezkoak ziren eta % 24 emakumezkoak; hortaz, joerak beti gidariaren ondokoari eragiten dio, eta kasu horretan

Gidatzeko estiloen hautemateak aztertzetik lor dezakegun bigarren ondorioa da gizonzkoek ondo gidatzeari buruz duten ideia segurtasunaren aurkakoa eta arriskua bultzatzeko dela. Luis Bonino horrela azaltzen du:

– Baina emakumezkoek kontu handiagoz gidatzen dute, kontuz eta motel gidatzea ez dago ondo ikusita hain justu gizonzkoen ikuspuntutik. Helmugara iristea eta azkar iristea balioesten da. Hortaz, hori arriskutsua izan daitekeela alde batera utzita (emakumezkoek motelago gidatzea edo alboetara begiratzea, beste zerbaitekin arreta galtzea. . .), hori, gizonzkoen ikuspuntutik antibalore bat da.

Gizonzkoen eta emakumezkoen gidatzearen hautematearen balioespenaren arabera ongi edo gaizki gidatzearen gainean zer ulertzen den ondorioztatzen badugu, argi dago gizonzkoen «ongi gidatzea» emakumezkoena baino nahiko arriskutsuagoa dela. Ondorioztatu daiteke, halaber, gizonzkoen «gaizki gidatzea» traba eta oztopoarekin lotuago dagoela eragiten duten arriskuarekin baino (horiek baitira emakumezkoen gidatze estiloa definitzeko ezaugarriak eta gidari motel eta traketsena). Emakumezkoek, aldiz, «ondo gidatzea» gehiago lotzen dute zuhurtasunarekin eta behatzearekin, eta «gaizki gidatzea» gehiegizko abiadurarekin, zuhurtziaz ez izatearekin eta, oro har, jarrera oldarkorrekin.

– Ni batzuetan urduri jartzen naiz gidatzen doan mutil batekin noanean; nik ez diot zu gaizki zoazenik, zu zure erraitik zoaz, oso ondo. Baina, ez al duzu ikusten hori irten egingo dela, eta ez duela begiratu? Orduan, berdin-berdin irtengo da. Eta gero esan dezakezu «bere errua zen», baina zer egin dezakezu gero, istripua izan eta gero? (Cristina)

Elkarrizketatu ditugun pertsonen gizonzkoen eta emakumezkoen gidatzeko desberdintasunei buruz galdetu diegunean aurkitu ditugun erantzunetako batzuk hauek dira: Baina ongi eta gaizki gidatzeari buruz galdetu dugunean jaso ditugun erantzunak aztertuz gero, emakumezkoek eta gizonzkoek esan digutenaren artean desberdintasun handirik ez dagoela ikusi dugu, batez ere gehiegizko abiadurari buruzko galderetan. Makroinkestak eman dizkigun datuei erreparatuz gero, badirudi kezka handiagoa dagoela abiaduraren kasuan, emakumezko gehiagok jotzen baitute istripuen kausatzat: emakumezkoen % 50ek uste du abiadura istripuen kausa ohikoena dela, eta gizonzkoen kasuan, ostera, datu hori % 39,3koa da.

Desberdintasun nabarmen bakarra zera da, gizonzko batzuek argi eta garbi esaten dutela egoera batzuetan arau edo seinale batzuk ez jarraitzearen aldekoak direla.

Esan behar da gehiegizko abiadura gaizki gidatzearen ezaugarri gisa bat-batean aipatu zuen bakarra gizonzkoa izan zela (motorra gidatzen duen 17 urteko gaztea). Ez da harritzekoa ohar hori motor gidari batek egitea (gainera ematen du nahiko zuhurra dela, elkarrizketatik ondorioztatu daitekeen bezala), ibilgailu oso zaurkorra delako eta ez duelako inolako babesik ematen balizko istripu batean. Hau da, arriskua autoen kasuan baino gertuago ikusteko aukera ematen du. Cristinak ere zenbait ohar egin zituen motor batean gidatzerakoan abiaduraren arriskuaren gainean, (motor eta auto gidaria da Cristina), baina autoen kasuan gai horri buruz galdetu behar izan genuen. Gainerako kasuetan, adierazpenak egin zituzten soilik gaiari buruz galdetu genuen eta modu negatiboan egin zuten, nahiz eta kasu askotan «baina» asko aipatu zituzten. Gaizki gidatzea motelegi gidatzearekin identifikatzeaz gain, ongi gidatzea oso azkar gidatzerakoan egoera menderatzearekin lotzen da.

– Agian emakumezkoek arau-hauste txikiagoak egingo dituzte, eta gizonzkoek istripu larri gehiago izaten dituzte.

22. Makroinkestaren arabera, Gipuzkoan trafiko istripu batean gidari gisa gizonen %89,6 izan zen tartean eta emakumeen %52,3. Gainera, emakumeak %44,7 izan ziren istripuetan ibilgailuko bidaide gisa eta gizonak, berriz, %6,3 (2005, 55. orrialdea)

- Ea, nik ulertzen dut istripu larriak abiadura kontuengatik gertatzea. Orduan, emakumea sentitzen da. . . . kontua da niri ez zaidala gustatzen. . . . egoerak orokortzeari buruz hitz egitea, ezta? Baina demagun emakumezkoen talde handi batek ez duela egoera menderatzen, edo ez duela nahikoa konfiantza bere buruarengan abiadura handiko egoerak menderatzeko. (Andoni)

Horrela da, azkar gidatu ahal izatea eta autoa menderatzea ongi gidatzearekin lotuta dago nahiko modu orokorrean, edo gutxienez, gehiegizko abiadura ez da bat-batean gaizki gidatzearekin lotzen. Emakumezkoek ez zuten modu esplizituan azaldu gaizki gidatzea azkarregi joatea denik, ez gutxienez elkarrizketatutako gizonetzkoek baino gehiago. Baina hori ez da harritzekoa. Aintzat hartu behar dugu emakumezkoak gizonetzkoen arloan «txertatzen direla», balio «maskulinoek» arautzen dutela hori, besteak beste abiadura modu positiboan balioestea. Gainera, Luis Boninok azaldu digun bezala, balio maskulinoak gizartearen hierarkian oso ondo kokatuta daude, eta hortaz, askoz errazagoa da horiekin bat egitea:

- (. . .) maskulinitatea ez da soilik gizonetzkoek egiten dutena, baizik eta gizartean hierarkian dauden balioak, gizonetzkoek egiten dutena, hori ere bada maskulinitatea. Mundu publikora ateratzen diren emakumeentzat, askorentzat, mundu publikoan integratzeko modu bakarra gauzak gizonen moduan egitea da.

Errepidea «maskulinoa» den bitartean, arriskuari eta abiadurari aurre egiten dieten balio berriak txertatzean erresistentzia handiak aurkituko ditugu –batez ere gizonetzkoen aldetik–, gutxienez gizonetzkoak maskulinitateari hain estu lotuta jarraitzen duten bitartean.

4.9. ERABILERA ETA MUGIKORTASUNA

Aurrez aurre aurkituko dugun arazoetako bat ibilgailuaren erabilera neurritz kanpo normalizatzea da. Herritar nagusi askorentzat ibilgailua erabiltzea eguneroko bizimoduko parte da. Izan ere, eskaintzen duen mugikortasuna funtsezko elementua da eguneroko bizitzaren antolakuntzan. Horren ondorioetako bat arinkeriaz gidatzea da, baita ibilgailua neurritz kanpo erabiltzea eta mugikortasun beharrianak handitzea ere. Eguneroko erabiltzen dugun zerbaitean arretari eta zuhurtziari eustea zaila da. Beti arriskutsuagoa irudituko zaigu ohikotzat ez dugun hori. Hortaz, elkarrizketatu dugunetako batek hau dio autoa erabiltzeari buruz:

- Ohituratu egiten gara eta gero zure parte da (Asteasu)

Landa eremuetako edo neurri ertaineko herrietako gazteek ibilgailua lehenago integratzen dute haien eguneroko bizitzan, eta hiri guneetan baino «grina» gehiagorekin. Mugitzeko beharriana handiagoa da, udalerrietan zerbitzu jakin batzuk ez daudelako eta aisialdia inguruko herrietan edo hiriburuan bilatu behar dutelako. Ibilgailurik ez izatea benetan bakartuta egoteko mehatxua da.

Getarian elkarrizketatu genuen beste pertsona bat kexatu egin zen autoa horrenbeste aldiz erabili behar izaten zuelako. Landa eremu askotan gertatzen da hori. Gainera, beharrianaz gain, gidabaimena lortzera bultzatzen dituen beste arrazoi bat ibilgailuak ematen dien askatasuna da: Donostian bizi diren pertsonak eman zizkiguten arrazoiek lotura handiagoa zuten erosotasunarekin mugitzeko beharrianarekin baino; hala ere, neska batek azaldu zigun motorra segurtasunagatik erabiltzen zuena, eremu urrun batean bizi zelako eta motorra atari parean aparkatu zezakeelako. Donostiako beste elkarrizketatu batek esan zigun auto propioa izateko beharrianik ez zuela, baina nahiago zuela izatea, askatasun gehiago ematen ziolako.

- Autoa erosi duzu behar duzulako?

- Erosi dut. . . autorik ez dut behar, baina beti izan dut nire autoa izateko gogoia, beti nire

aitaren autoarekin ibili naizelako, edo neskalagunarenarekin, edo amarenarekin. Eta ez nuen galdetzen ibili nahi: autoa libre dago?’ eta orain askatasun gehiago daukat, lagunak ditut Bartzelonan eta Madrilan, eta autoa hartu, hara joan, surf egiten dut eta autoz noa, eta inguruetatik mugitzen naiz. Ez dut benetan behar, baina oso ondo datorkit. (Dani)

Gainera, lotuta dago plazerarekin, Danik zioen bezala («erosoa noa norbaitekin, edo bakarrik, musika entzuten. . .») eta askatasunarekin. Ibilgailu bat beharrezkoa ez denean ere, ez dio aukera goxoa izateari uzten. Zergatik egingo diogu uko horri erabiltzeari, abantailak baino ez baditu ematen? Zalantzarik gabe erosotasuna justifikazio sendoa da, eta asmo oneko borondate asko baino boteretsuagoa.

4.10. BESTE ERABILERA BATZUK

Autoek beste erabilera batzuk ere badituzte, argi dago, modu horretan «neurri txikiagoan» baliatzen badira ere; mugitzeko beharrianarekin lotura gutxi dute, eta beste batzuekin lotura handiagoa izaten dute. Elkarrizketatu dugun pertsonetako batek horren gaineko adibide bat eman digu:

– Bada bat egunero hemendik pasatzen dena, Polo bat du, zaharra, eta ez dakit zenbat gauza jarri dizkion (...), eguzkitako betaurrekoekin joaten da, handi-handiak, erdi botata, eta ez dakit zenbat aldiz gorantz eta beherantz pasatzen da, musika oso altu duela. (Andoni)

Deskribapen horren arabera, nahiko argi dago gizon horrek ez duela autoa mugikortasun arrazoiengatik erabiltzen, baizik eta botere gutxiago duten beste arrazoi batzuegatik. Irudi jakin bat ematea, txundituta uztea, elkarrizketatu genuen pertsona baten arabera autoa erabiltzeko modu batzuekin lotura zuzena dute. Elkarrizketatu genituen ia pertsona guztiek bat datoz puntu honetan. Esaterako, Cristinak esan zigun zenbaitek autoa dutela soilik harrokeriaz ibiltzeko. Autoa «harrokeriaz ibiltzeko» erabiltzeak, elkarrizketatu horrek esan zigun moduan, ibilgailuaren erabilera bera baldintzatzen du, Cristinak desberdintasuna ikusten du autoa erabiltzeko maiztasunaz eta erabileraz neska eta mutil lagunaren artean²³. Mutilek gehiago erabiltzen dutela uste du, eta neskak, aldiz, nahiago dute oinez ibiltzea edo bizikletaz, batez ere hiriguneetan.

Autoeskolako gure irakaslearen iritziz ere, mutilek garrantzi gehiago ematen diete zein autotan doazen jakiteari. Hala ere, bere ustez «neskari berdin zaio erdi puskatuta dagoen furgoneta batean joatea». Santiagorentzat, lanbidez psikologoa, autoa erabiltzea gizonezkoen ezaugarria da:

– Gizonezkoentzat botere ikur gisa esanahi handiagoa du, emakumezkoentzat baino(...) Autoa handiagoa bada, zakila ere bai, botere handiagoa, zalantzarik gabe.

Nahiz eta Santiagok autoa modu desberdinean erabiltzearen kotzientzia izan dezakeen, ez da gizarte arautik aldentzen:

– Nire emazteak du autoa une honetan, eta lanera joateko erabiltzen du, baina ez du bidaia luzerik egiten. Nik ez dut horretarako baimenik, oso arraroa izango litzateke. Oraindik ere gizonezkoek egiten dituzte bidaia luzeak. Torremolinosera joanez gero, gizonezkoak gidatzen du. Agian emakumeak eguneroko beharrianetarako erabiltzen du autoa, lan gaietara mugatzen da, etab.

Oñatin elkarrizketatu genituenak horrela erantzun zuten pertsona batzuek autoa boterea erakusteko erabiltzen ote duten galdetu genienean:

- Agian ligatzeko (barreak).
- Bat baino gehiago izango da. Eta asteburuetan distiratsu jarriko du...

Exhibizionismo jarrera bat da, eta horren isla nagusia tuninga da, hori esan zigun behintzat gai honetan aditua denak. Tuninga, halaber, ibilgailu bat muturrera arte pertsonalizatzea da (estetika mailan), eta aditu horren arabera, izaera propioa eta berezitua plazaratzearekin oso lotuta dago. Ibilgailu bat ahal bezainbeste pertsonalizatzea, beste guztietatik bereizi ahal izatea, gizonezko gazte askorentzat oso garrantzitsua da horretan gastatzen dugun dirua kalkulatu gero, hori bihurtzen baita gazte horien diru gastu nagusia. Bestalde, gastu hori ezin da inbertsio gisa hartu, hain pertsonalizatu bihurtzen da autoa, non inork ez baitu nahiko auto hori erosi, haien auto propioa pertsonalizatzea nahiago dutelako; horrez gain, tuneatutako auto batean egindako inbertsioa pixkanaka egin ohi da, eta hortaz erosle batek ezingo luke zenbateko osoa ordaindu. Ekonomia arrazoiak eta tuneatutako autoak aseguratzen zailtasunak alde batera utzita, tuninga fenomeno paradigmaticoa da, gizonezko askok ibilgailuekin duten harreman zabalduaren eredu bat, gehienak muga horretara iristen ez badira ere. Autoa tuneatzen duenaren profila hau da:

– Tuneatzaile klasikoa 24 urte baino gutxiagoko gaztea da, gurasoekin bizi da, eta ez du hipotekaren zamarik, ez krediturik, eta ez du lanik egiten. (...) Gehienek afari batean gasta dezakete diru hori, gutxi gorabehera ondo dagoen leku batean... Tuneatzaileek autoan gastatzen dute, hori da desberdintasuna. (Andrés)

Eta diru kopuru oso handiak erabil ditzake horretan, baina pixkanaka egiten du, kredituen bitartez. Tuneatzaile ez direnek ere badirudi autoan beharrezkoa baino diru gehiago gastatzeko prest daudela, edo behar ez duten auto bat erosten (Dani bezala). Hortaz, hemen ere emakumezkoen eta gizonezkoen artean desberdintasuna dago: Makroinkestaren arabera, auto bat erosterakoan segurtasuna da gehien balioesten dena, nahiz eta emakumeen eta gizonezkoen artean desberdintasuna egon –emakumezkoek ia 10 puntu gehiago ematen dizkiote– (2005, 18. or.).

Emakume asko kexatu egiten dira, lanean diru gehiago gastatzea eskatzen baitzaie. Arropan gizonezkoek baino diru gehiago gastatzea, emakumezkoek irudi jakin bat eman behar dutelako. Hortaz, gastu gehigarri hori gizonezkoek, hain justu, helburu berdinarekin ibilgailuetan gastatzen dutenaren parekoa dela esan dezakegu: maskulinitatearen eta feminitatearen idealen eredu egokitzen den irudia ematea. Ibilgailua da gizonezko batentzat «osagarri» garrantzitsuena, potentzia, kontrola, individualismoa, independentzia, askatasuna eta beste zenbait ideiak lotuta dagoelako. Arropa, oster, aztertuko ditugun beste balio batzuei dagokio, baina kasu batzuetan aipatutako ideien aurkakoekin bat datozenekin lotzen dena, esaterako takoi altuak (mugitu ezinarekin lotuago, ez baitira oso erosoak).

Zalantzarik gabe, autoa botere ikur bat izan da, gaur egun da eta izango da. Baina, egia da, ez du botere bera irudikatzen gizonezko batentzat eta emakumezko batentzat. Argi dago gizonezkoek ilusio eta diru gehiago inbertitzen dutela autoan. Horrek ez du nahitaz autoa desberdin erabiltzea eragiten, erabilera maiztasunean zein gidatzeko estiloan edo helburuan. Gizonezko askorentzat, ibilgailuaren garrantzia Oñatin elkarrizketatu genuen lagun baten erantzunean islatzen da; autoa kenduz gero zer kentzen dioten galdetu genion, eta hau izan zen haren erantzuna:

– Zer kentzen didaten? Bihotz erdia kenduko zidaten, bai horixe!

Beste batek, Ekaitzek, gazteagoa eta motor gidariak, hau esan zigun:

– Motorra kentzen badidate. . . ordenagailua bezala, kendu egin baitidate... nire bizia (kenduko zidaten). (...) Motorra kentzen badidate, hondatu egingo naute.

Edozein kasutan, ez dirudi emakumezkoen horrenbesteko prestigio edo estatusa ematen dienik, ez gutxienez gizonezkoen neurri berean. Oso zaila izango litzateke, oso gutxitan partekatzen bai-

23. Makroinkestaren arabera, Gipuzkoan emakumezkoen % 39,9k ibilgailu motaren bat gidatu ohi dute, eta gizonezkoen kopurua % 76,8koa da (2005, 29. or.).

tira emakumezkoen eta gizonezkoen botere ikurrak; izan ere, aurreko txostenean esan genuen bezala, emakumezkoak gizonezkoen alorretan izanez gero, zuzenean eta automatikoki, emakumezkoen prestigioak behera egiten du. Ildo beretik, esanguratsuak dira errepideko segurtasunaren gaineko Makroinkestaren datuak Gipuzkoan gidatu ohi den autoaren jabetzari buruz (2005, 33. or.). Horrez gain, gizonezko batentzat duen balio handiagoa islatzen du Makroinkestako datuei erreparatuz gero, hain zuzen ere, Gipuzkoako lizentzia kopuruen atalean. (2005, 27. or.)

Edozein kasutan, ibilgailuak gizarte estatusarekin duen loturari esker uler dezakegu gizonezkoek ibilgailuekin duten lotura eta muga jartzeari dioten erresistentzia –abiadura zein erabilera–, kontua ez baita autoa «izatea» bakarrik, baita horren erabilera jakin bat egitea ere. Boninoren ustez:

– Gorputza garraiatzea ahalbidetzen duen edozein tresna, eredu maskulinoaren barruan, prestigioa, arrakasta, arrakasta lortzeko moduak, gerra egitea areagotzeko protesi bihurtzen da. Gizonezkoen gorputza tresna gisa hartzen denez, «zerbaitetarako tresna» bezala, ez da barrurantz sentitzen den gorputz bizia, baizik eta zerbait egiteko aukera ematen duen gorputza, lorpenak eskuratzea, mundu honetan norbait izateko. Gorputzari lotzen zaion edozein protesi funtzio horrekin erabiltzen da. Zutitzen ez zaizunean zakil protesi bat jartzetik, hanken artean motor edo auto bat jartzeraino.

4.11. HEZIKETA ETA HEZKUNTZA

Neskak eta mutilak erkatzen baditugu, gidatzearekin duten lotura desberdina da, eta gure elkarriketarako batean jaso dugunez, hezkuntzaren hasiera-hasieratik ikus daiteke hori. Erakusten uzteko erresistentzia oso lotuta dago gazte maskulinitatearen ahalguztiduntasun sentsazioarekin, Boninok gogorarazi digun bezala. Baina horrez gain, eta bereziki emakumezkoa sartu den gizonezkoen esparrua denez (Mari Luz) gaitasunak zein ezagutza neurritz kanpo balioestea ere ohikoa da.

Lotura hori mutil gazte asko gidatzen oso gaztetatik hasteari ere zor zaio, askotan aitaren eskutik hasten dira –ez amak, oro har– edo beste kide batzuegatik, eta hortaz autoeskolara hasi baino lehen «hasiak» sentitzera eramaten ditu. Gidatzearekin dugun lotura, estiloa, askotan hezkuntza araututik at gertatzen da, oso modu berezian gizonezkoen kasuan, mundu honetara oso gazterik iristen baitira (askotan) beste modu batzuen bitartez (lagunak, familia, etab.).

– Nire aitak autoa utzi zidan 14 urte nituenean, ez hirian, betiko aparkalekuan, eta txikitik erakusten zidan (Dani)

Modu berdinean deskribatu du gure tuning adituak gazteak «arte» honetan hasten diren modua:

- Nola sartzan zarete Tuningaren munduan?
- Zenbat urte ditu mutiko horrek? (Tuning aldizkarian agertzen den mutikoari erreferentzia eginez)
- Ba, hamar edo, ezta?
- Ba dagoeneko hasi da. Hau da, 18 edo 20 urteko mutiko tipikoa da, hirugarren edo lauugarren eskuko autoa duenak, mila, bi edo hiru mila kostatu zaiona, eta tuning baxuan hasi dena (...), Eta gero, gainera, anaia gaztea ikusten du eta bere anaiak hori ikusi dutenez, ba hasten doa. (...) Eta argi dago, orain mutikoek tuningean pentsatzen dute, orduan, gidabaimena lortu bezain azkar, tuneatu egingo dute. (Andrés).

Ikaspen «ez formal» hori mutikoen artean arriskutsua izan daiteke, gero zibarena egiten ikasten dute, edo haien artean «sekretoak» partekatzen dituzte, elkarrizketatu genituen batzuek aditzera eman zigutenez. Gidatzeko ohiturei buruz xehetasun gehiago lortzea ezinezkoa izan zen, eta hortaz, ondorioztatu dezakegu ez direla aitortzeko moduko sekretoak. Horrez gain, eta familia ba-

rruan ikusi dugu nola emandako gomendio batzuek istripua izateko arriskua areago dezaketela, elkarrizketatu genuen gizon honek egin zuen moduan, eta bere bost urteko ilobak ondo gidatzean nahi duela esaten badu ere, motor txikia gidatzen duenean «pixka bat zapaltzeko» eskatzen dio; mutikoak ez dio kasurik egiten eta lasai joatea nahiago duela azaltzen du. Gizon horrek semeari auto zahar bat eman zion zibarena egin zezan.

Autoak eta motorrak «prestatzea» (kasu honetan gazteenen artean) motorraren munduan sartzeko beste modu bat da. Donostiko udaltzain batek esan zigun moduan, motor asko trukaturik daude, batzuetan motorra osorik aldatzen diote, eta hortaz zilindrada gutxiagoko itxura izaten dute, eta 49 cc-ko gidabaimenekin gidatzen dituzte. Kasu askotan mutikoek aldatzen dituzte, beti motorrari potentzia handiagoa edo itxura erakargarriagoa emateko asmoz; hortik ondorioztatu dezakegu kasu horietan irudiak nolako garrantzia duen.

Giro honen barruan, bereziki maskulinoa dena, adinak baldintzatzen du mutikoen arteko harremana, eta hasien eta kadeteen arteko harremana bezala uler daiteke. Goierri Konpeti dokumentalean –Iñaki Garmendiarena, Goierriko rally eta autoak prestatzeari buruzkoa–, lehiaketan eta autoak prestatzean hasiak diren mutiko zaharrenak gazteagoekin duten harremana argi ikusten da, ia-ia aita eta semearen parekoa da; gazteenak adiskidetasunez tratatzen dituzte eta «kumeak» izenez deitzen dituzte. Haiei buruz esaten dute, ia-ia maitasunez, «batzuek dagoeneko hartu dituzte ostia batzuk». Ez litzateke oso arraroa izango, kasu batzuetan, hasiera errituei buruz hitz egitea, alegia, gazteak indartzeko errituak, Gizon bihurtzeko.

Berdinen arteko harreman honek eta giro horretan helarazten diren ereduaren eraginaren indarrak azaltzen dute gizonezko gazte askok prestakuntza tartean zein ondoren errepidean izan ohi dituzten hainbat jarrera. Autoeskoletako irakasleek ere gogor kritikatu dute «formazio informal» hori aintzat hartu behar da, batez ere formazio arautuak duen rol «ahula» kontuan hartuz gero. Elkarrizketatu ditugun pertsona guztiak, salbuespenik gabe, autoeskoletan ematen den formazioa kritikatu zuten. Iritzirik horiek elkarrizketatu ditugun autoeskoletako irakasleen erantzunekin laburbildu ditzakegu:

- Autoeskoletan ematen den prestakuntza egokia iruditzen al zaizu?

- Ez. Nik azterketa bat gainditzeko erakusten dieldalako, eta horrek amorrazioa ematen dit. (...) Baina gure irakaskuntza, nahigabe, azterketa batean oinarritzen da neurri handi batean.

Hala ere, errua ez da soilik autoeskolena; Andonik esan digun bezala, ekonomia arrazoiak ere badira. Gutxieneko inbertsioarekin gaintitu nahi da azterketa. Luis Boninoren iritziz, autoeskoletan zenbait gaitasun irakasten dira, baina ez da horiek bezain garrantzitsuak diren beste batzuei buruz hitz egiten:

- Irakasteari dagokionez, prestakuntza mota bakarra gaitasun mekanikoena da, eta hori, nire ustez, ondo dago. Baina arriskua hautemateari dagokionez, bakoitzak ahal duenaren neurrian autoebaluatzearen entrenatzean, horretaz ezer ere ez.

Laburbilduz, esan dezakegu aurrez aurre dugun «mundu» honetan, motorraren munduan, alegia, gazte asko oso modu naturalean eta konfiantzaz hasten direla. Mundu horretan mugitzen diren ezagutza eta estiloak autoeskoletan irakasten denak bezainbeste edo gehiago eragiten dute. Hezkuntza informal horretan zehar, segurtasunak duten rolari buruzko zalantza bat dugu, logikoa denez; kontrako gertatzen dela pentsa dezakegu, eta prebentzio neurriak diseinatzerakoan beharrezkoa da aintzat hartzea, berdinen taldeen artean dagoen eragina oso bortitza eta balio gabetzen oso zaila baita. Giro horretan helarazten den jarrera oldarkorra orekatu ahal izateko modua bilatu behar da.

Irakaskuntza informala garrantzia, gizonezkoen kasuan, bideko segurtasunari buruzko 2003ko Makroinkestaren emaitzetan islatu zen. Azterketa horren arabera, «emakumezkoak denbora gehiago

pasatzen dute gidabaimena edo gidatzeko lizentzia prestatzen eta kalitateari garrantzi gehiago ematen diete autoeskola hautatzeko orduan. Bestalde, gidabaimena lortzeko autoeskolara joan ez diren gizonen kopurua nabarmen altuagoa da emakumezkoena baino» (2005, 13. or.). Hau da, gizonen kopurua ez zuten autoeskolara jo gidatzen ikasteko; autoeskolatik kanpo ikasi zuten eta modu informalean.

Autoeskoletan irakasten den prestakuntzaren kalitateak ere kezkatzen gaitu. Elkarrizketatu ditugun pertsona ugari irakasten den prestakuntzaz kezu agertu dira, eta azpimarratu dute garrantzitsua iruditzen zaiela gazteak bideko hezkuntzan lehenago hasi behar direla, baita autoeskolan hasi baino lehen ere. Egia da konforme ez egotea eta protesta bideko hezkuntza hobetzeko nahi gisa baino, gehiago ulertzen dela herritarrek herritartasunean sortzeko nahi gisa, besteak ere aintzat hartzeko.

4.12. LAGUN DESEGOKIAK

Berdinen arteko harreman honetan, lehiaketek ere (formalak zein informalak) rol erabakigarria izan ohi dute. Rally, autocross zein semaforoan «haserretzea» izan, lehiatzea mundu honetan berdinen artean harremanetan jartzeko modu bat da, eta zoritxarrez, ez da soilik errepide edo hirietatik kanpo gertatzen. Gainerako gizonen kopurua baino gehiago (edo gutxienez, pareko) izatea erakustearen garrantzia gidatzea baldintzatzen duen beste elementu bat da. Horren haritik, bakarrik edo norbaitekin gidatzea –auto batean norbait joatea zein bi edo auto gehiago elkarrekin gidatzea izan– gidatzeko estiloa baldintzatu dezakeen faktore bat da, eta hortaz, arrisku mailan ere eragina izango du. Boninoren iritziz, mutil gazteak etengabe gizon direla erakusteko beharri zana dute. Bonino nerabeei buruz ari bada ere, gure ustez gizon gazte guztiei zabaldu beharreko ezaugarria da, nerabezaroan nabarmenagoa bada ere:

- Eta hori da nerabezaroan gizon dela berretsi behar duen gaztearen profila, gizonen kopurua nerabezaroko gaia hori baita, trebatu eta norberari eta lagun talderen aurrean erakustea dagoen gizonaren moduan jokatzeko duela.

- Finkatutako balioekin bat etorriz.

- Eta horren haritik, nik uste dut mutiko askok ausartegi gidatzeko estilo hori jokatzeko dutela, gizarte primitiboetan egiten zenaren antzeko zerbait, hasierako erritua. Errepideetan aurkitzen ditugun gauza horietako asko, mutikoak kontrako erreian sartzea, elkarrekin lehiatzen direnean, lehiatzearekin lotuta daude, baina benetan jokoan dagoena balioespena da.

Elkarrizketatu ditugunei beste pertsona batzuetaz inguratuta egoteak gidatzean duen eraginez galdetu diegu, eta inguruko balizko pertsona horiek emakumezkoak edo gizonen kopurua diren zehazteko eskatu diegu. Elkarrizketatu genituenek, oro har, desberdintasunak onartu zituzte, eta lagunak eta senideen edo emakumezkoen artean bereiziz, batez ere neska laguna, horiekin arreta handiagoz gidatzen baitute. Luis Boninoren ustez ere badira desberdintasunak:

- Gizonen kopurua, bikotekidearekin edo lagunekin, edo familiarekin gidatzen dutenean, desberdin gidatzen dute bakarrik gidatzen dutenarekin alderatuz?

- (...) argi dagoena zera da, mutil gazteek, gidatzen dutenean, batek baino gehiagok zuzentzeaz arduratzen direla, besteak beste erakusten ari baitaie gidatzen zein trebea den.

AEBn gazteen arteko istripuen artean lagunak eraginari buruzko artikulua interesgarria aurkitu dugu, eta emaitzak oso adierazgarriak iruditu zaizkigu txosten honekin lotzeko (Williams, 2001). Artikulu horretan gidarien heriotza tasaren ehunekoetan oinarritutako ikerketa bat aipatzen da; ondorioen artean zehazten du gizonen kopurua bat bidaiarien artean izanez gero 1.000 istripu bakoitzeko heriotzen ehunekoak ia bikoiztu egiten zuela, gidaria emakumea zein gizonen kopurua izan. Bidaiarietatik bi edo gehiago gizonen kopurua baziren, ehunekoak bikoiztu baino gehiago zen. Arrisku gutxien gizonen kopurua...

nezkoak gidatu eta bidaiari bakarria emakumezkoa zenean izan zela ondorioztatu zuten. Emakumezkoak gidari edo bidaiari izan antzeman zituzten desberdintasunak ez ziren oso adierazgarriak -istripu arriskuak gora egin zuen neurri txikian- (Chen et al. , 2000). Ingalaterran izandako beste azterketa baten emaitzak ere jaso zituen, eta horretan, gizonezko bidaiariekin gidatzen duten gazte gidariek (gizonezkoek eta emakumezkoek, ustez) bakarrik joango balira baino modu arriskutsuagoan gidatzen dutela azaltzen zen, hau da, azkarrago gidatzen dute eta denbora gutxiago itxaroten dute bidegurutzeetan (McKenna et al. , 1998). Williamsen arabera gazteen artean bidaiari kopurua mugatzeak heriotza gehiago prebenituko lituzke gaez gidatzea mugatzea baino, batez ere bi muga horiek uztartzen badira. Muga hori indarrean dago, besteak beste, Zeelanda Berrian.

5. BIBLIOGRAFIA

- Andersson, G. and Nilsson, G (1997) Speed management in Sweden. Lonkoping: Swedish National Road and Transport Institute VTI.
- AUTOCEA (2005) «Miguel Ángel Carrasco Béjar, Toledoko Paraplegikoen Ospital Nazionaleko zuzendari gerentea» AUTOCEA, 2005eko urtarrila, 336. zenbakia (10-13)
- Badinter, E. (1993). XY La identidad masculina, Madril, Alianza.
- Bordo, S. (1999). The Male Body. A new look at men in public and in private, Nueva York, Farrar, Strons and Giroux.
- Brannon, R. ; eta David, D. S. (1976). The Forty-Nine percent Majority: The Male Sex Role, Reading (Mass.), Addeson-Wesley.
- Breines, I. ; Connell, R. ; eta Eide, I. (2000). Male roles, masculinity and violence. A culture of peace perspective, Paris, UNESCO.
- Connell, R. (1995). Masculinities, Berkeley, University of California Press.
- Conway-Long, D. (1994). «Ethnographies and Masculinities», hemen: Brod and Kaufman (eds.), Theorizing masculinities, Thousand Oaks, Sage, 61-81 or.
- Courtenay, W. H. (2000). «Constructions of masculinity and their influence on men's well-being: a theory of gender and health», Social Science & Medicine 50 (2000), 1. 385-1. 401 or. [baliabi-deak: <http://www.elsevier.com/locate/socimed>]
- Chen, L. ; Braver, E. R. ; Baker, S. P. ; and Li, G. (2000) «Carrying passengers as a risk factor for crashes fatal to 16-and 17-years-old drivers». Journal of American Medical Association, 283:157882.
- Europar Erkidegoen Batzordea. (2001) Liburu Zuria. La política europea de transporte de cara al 2010: la hora de la verdad. COM (2001) 370 bukaera.
- Corral, A. (2005) Ideas que funcionan para reducir los accidentes. Suecia, ejemplo de Seguridad. <http://motor.terra.es/motor/articulo/html/mot26803.htm>
- Díez Mintegi, C. (2004). Deporte, cultura y sociedad. Perspectiva de género. Unibertsitateko Kirolari buruzko Biltzarreko Aktak. Euskalduna jauregia azaroaren 25 eta 26a: Bilbo. Trafikoko Zuzendaritza Nagusia (DGT) 2005 «La carretera no es un circuito. Controla tu velocidad» http://www.dgt.es/campana_circuito
- Espada Calpe, J. M. (daturik ez). Hombres, motos y riesgo: androcentrismo y sexismo en el mundo de las motos, [baliabideak: <http://www.telefonia.net/web2/sword>]
- Estevan, A (2002) «Una matanza calculada». El Ecologista, 33. alea, 2002ko azaroa (20-25). Farapi (2007a): Siniestralidad Vial, velocidad y masculinidad. Incidencia de la masculinidad en la conducción temeraria. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- (2007b) Zirkulazio arazoak, ikuspegi antropologikoa. Faktore pertsonalak ibilgailu pribatuaren erabileran eta gehiegizko erabileran. Gipuzkoako Foru Aldundia.

- Fausto-Sterling, A. (2000). Sexing the body. Gender Politics and the construction of sexuality, New York, Basic Books.
- Finch, D. J. ; Kompfner, P. ; Lockwood, C. R. ; eta Maycock, G. (1994) Speed, speed limits and accidents (TRL Project Report 58). Crowthorne: Transport Research Laboratory.
- Garmendia, Iñaki (2002) Goierri konpeti, Documentary Premiere/Front Line Compilation. D. A. E. Donostia.
- Giddens, A. (1995). Modernidad e identidad del yo. El yo en la sociedad en la época contemporánea, Península, Bartzelona.
- Eusko Jaurlaritza (2005) Bide Segurtasunari buruzko Makroinkesta, 2003: emaitza nagusiak. 1. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2005.
- Grosz, E. (1994). Volatile bodies: Towards a corporeal feminism, Bloomington (Indiana), University Press.
- Haworth, N. eta Symmons, L. (1999) «Safety and Environment in Vision Zero». Autralian Transport Research Forum Conference Proceeding, 2001 apirila, Launceston.
<http://www.monash.edu.au/muarc/projects/ITSERG/atrf.pdf>
- International Federation of Red Cross and Red Crescend (1998). World Disaster Report.
- Kaufman, M. (1994). «Men, Feminism, and Men's Contradictory Experiences of Power», en Brod and Kaufman (eds.), Theorizing masculinities, Thousand Oaks, Sage, 142-164 or.
- Kimmel, M. S. (1994) «Masculinity as Homophobia: Fear, Shame, and Silence in the Construction of Gender Identity», hemen: Brod eta Kaufman (arg.), Theorizing masculinities, Thousand Oaks, Sage, 119-141 or.
- Kloeden, C. N. ; McLean, A. J. ; Moore, V. M. eta Ponte, G. (1997) Travelling speed and the risk of crash involmente (CR172). Canberra: Federal Office of Road Safety.
- Le Breton, D. (1998). Les passions ordinaires. Anthropologie des émotions, Paris, Armand Collin.
- Marqués, J. P. (1997). «Nueva identidad masculina o el olvido de toda identidad», Archivos Hispanoamericanos de sexología, 2. alea, 143-154. or.
- McKenna, A. P. ; Waylen, A. E. ; eta Burkes, M. E. (1998) Male and female drivers: how different are they? Berkshire, United Kingdom: The University of Readingf Foundation for Road Safety Research.
- McLean, A. J. ; Anderson, R. W. G. ; Farmen, M. J. B. ; Lee, B. H. and Brooks, C. G. (1994). Vehicle travel speeds and the incidence of fatal pedestrian collision. Volume 1. (CR146). Canberra: Federal Office of Road Safety.
- Messner, M. A. (1992). Power at play. Sports and the Problem of Masculinity, Boston, Beacon Press.
- Monclús, J. (daturik ez) Desplazamientos urbanos: para moverse mejor.
<http://www.seguridadvial.com/HTML/informes/html>
- Ministry of Transport and Communications (1997) En route to a society with safe road traffic. Selected extract from Memarandum prepared by the Swedish Ministry of Transport and

Communications. Memorandum, DS 1997:13.

- Murray, C. eta López, A. (1998) The Global Burden of Disease. Harvard University, Boston, MA, AEB.
- Noble, V. (1992). «A helping hand from the guys», hemen: K. L. Hagan (ed.), Women respond to the men's movement: a feminist collection, San Francisco (California), Pandora.
- Nueva Enciclopedia Larousse. Ed. Planeta, Bartzelona, 1981. Real Automóvil Club de España (2003) La seguridad del transporte en España. RACE.
- Ortega, F. (1993). «Masculino y femenino en la identidad personal de la juventud española», hemen: Ortega, F. (konp.), La flotante identidad sexual: la construcción del género en la vida cotidiana de la juventud, Madrid, Instituto de Investigaciones Feministas (UCM), Dirección General de la Mujer, Madrileko Komunitate Autonomoa.
- Maiatzaren 30eko 772/1997 Errege Dekretua, Gidarien Araudi Orokorra onesten duena (1997/06/06ko BOE) [sarea eskuragarri, ondorengo aldaketekin:
<http://www.igsap.map.es/cia/dispo/11492.htm>
- Sánchez Martín, R. (2003). «Los usos sociales del riesgo: el deporte de aventura como configurador de una ética de la contingencia», hemen: Medina, X. ; eta Sánchez Martín, R. , Culturas en juego. Ensayos de antropología del deporte en España, Icaria, Bartzelona.
- SARTRE 3 Consortium (2004). European drivers and road risk. Part 2. Report on in-depth analyses, Arcueil (Francia) Institut National de Recherche sur les Transports et leur Sécurité (INRETS) [sarean eskuragarri: <http://sartre.inrets.fr>
- Osasun Erregistro eta Informazio Zerbitzuak, Osasun Saila (2000) Heriotza tasa Euskal Autonomia Erkidegoan. 2000
- Osasun Erregistro eta Informazio Zerbitzuak, Osasun Saila (2001). Heriotza tasa Euskal Autonomia Erkidegoan. 2001.
- Social Issues Research Center (2004). Sex differences in driving and insurance risk. An análisis of the social and psychological differences between men and women that are relevant to their driving behaviour, Oxford, Social Issues Research Center.
- Stop Accidentes www.stopaccidentes.org
- Taylor, M. ; Lyman, D. ; eta Baruya, A. (2000) The effects of drivers's speed on the frequency of road accidents (TRL Report 421). Crowthorne: Transport Research Laboratory.
- Tingvall, C. and Haworth, N. (1999). «Vision Zero. An ethical approach to safety and mobility». Paper presented to the 6th ITE International Conference Road Safety & Traffic Enforcement: Beyond 2000, Melbourne, 1999ko irailaren 6-7a.
- Thompson, Hunter (1985) Hell's Angels, New York, Ballantine Books, 116 eta 119. or.
- Traffic calming www.fhwa.dot.gov/environment/tcalm/index.htm
- Wajcman, J. (1991). Feminism confronts technology, Pennsylvania, Pennsylvania University Press.
- Welzer-Lang, D. (2000). Nouvelles approches des hommes et du masculin, Toulouse, Press Universitaires du Mirail.

- Williams, A. F. (2001) Teenage Passangers in Motor Vehicle Crashes: A summary of Current Research. Insurance Institute for Highway Safety. Arlington, Va. <http://www.highwaysafety.org>
MASKULINITATEARI BURUZKO ZENBAIT OINARRIZKO KONTZEPTU (Ezbeharrei buruzko Txostenaren dokumentuaren 1. Eranskina)
- MASKULINITATEAREN IRUDIEN ADIBIDE BATZUK AUTOEN ETA MOTORREN PUBLIZITATEA (Ezbeharrei buruzko Txostenaren dokumentuaren 2. Eranskina)



gizonduz



EMAKUNDE

EMAKUNDEAREN ELISKAL ERAKUNDEA

INSTITUCIÓN VASCA DE LA MUJER

Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

GIZONEN INDARKERIAK: INDARKERIAREN LEGITIMAZIOA, GIZONEN IDENTITATEAREN ERAIKUNTZAN

Xabier Odriozola Ezeiza
2009

AURKIBIDEA

Sarrera	226
1. Nondik gatoz gizonak?	226
1.1 Non bizi gara?	226
1.2. Rol sexista nagusiak. «Gizonezkoen» rolak	226
1.3. «Emakumezkoen» rolak	227
1.4. «Gizonezkoen» eta «emakumezkoen» rolen batura	228
1.5. Sexu bereizketa-banaketa. Gizonezkoen hegemonia	228
1.6. Genero bereizketa: gizonezkoen nagusitasuna	229
1.7. Diferentzia = desberdintasuna	229
1.8. Rol hauetatik kanpo pertsonak izateko ez dago nahikoa leku	230
1.9. Sexismoaren transmisioa belaunaldien artean: curriculum ezkutua	231
1.10. Zergatik dugu eskema hauetatik askatzeko beharra?	231
1.11. «Gizonezkoen baldintzapena»	232
1.12. Zapalketa ikusezin bilakatzeko arriskua	232
2. Sozializazio prozesu luzea gizonezkoen indarkeria prestatzeko Gizonezkoak baldintzatzeko gizatasuna kentzen duten mekanismoak	233
2.1. Gizatasuna kentzeko modu espezifikoak. Haztegiaren prestaketa	233
2.1.1. Tradizioz ez gaituzte gainerako pertsonak bezain gizatiartzat hartu	233
2.1.2. Izatez oldarkorrek eta bortitzak bagina bezala ikusten gaituzte	236
3. Gizonengandik espero ditugun eta gizonen izaera bortitzaren Idea indartzen duten rolak	236
3.1. Gizonak «gizonen moduan» jokatzera bultzatzen gaituzte	237
3.2. Gizonen ohiko rol nagusiak maskulinitasun tradizionaletik ikusita	237
3.2.1 Ezerk eragingo ez baligu bezala jokatu behar dugu: «Bihozgabeak + gogorak = helduak»	237
3.2.2 Guztiaren arduradun sentitzeko hezten gaituzte	238
3.2.3 Gizonak = sakrifikatu daitezke	238
3.3. Sexismoa eta indarkeria	239
3.3.1. Indarkeria ofizialerako prestakuntza	239
3.3.2. Gizonezkoen entrenamendu edo sozializazio sexista: Indarkeriarekin ohitu behar gara	239
4. Gizonezkoen indarkeriaren ondorioak gizonengan	241
4.1. Ohiko ondorioak gizonengan	241
4.1.1. Intsentsibilizazioa, oharkabetasuna eta transmisioa	241
4.1.2. Gizonezkoek indarkeria identifikatzeko duten zailtasuna: Maitasunaren kudeaketa	242

4.1.3. Ohiko ondorioak emakumeengan	243
5. Gizonezkotasunari buruzko ohiko erduekiko aukerak.	
Balizko abiapuntua: gizonezkook ez gara, berez, zapaltzaileak	244
5.1. Zenbait irtenbide begien bistan: ohiko maskulinitatearen suntsiketa	
Balizko beste maskulinitate batzuk	245
5.1.1. Eragindako kalteak sendatzeko ahalmena. Sentimenduen kudeaketa	246
5.1.2. Informazio zuzena eta hezkuntza egokia bermatzea	
Gizon taldeak eta heziketa	247
6. Ohiko maskulinitateetatik kanpo balizko zenbait jarrera: indarkeriatik ala maitasunetik?	
Gatazken konponbidea	251
7. Ez dugu behar adina azpimarratu gizonezkook	
Irabaziko genukeena:	253

SARRERA

Gizonezkoen indarkeriarako joeraren eta honen ugalketaren zergatiak ezingo ditugu erabat ulertu gure gizartearen ezaugarriak eta gizarte egiturek fenomeno mota batzuetarako nola prestatzen gaituzten aztertzen ez badugu. Beharbada, noizbait, gizon izateari, edo agian gizon izan beharrari, buruzko galderak egin dizkiozu zeure buruari edo zalantzak izan dituzu. Dena ez da kontatu diguten bezain erraza: «Gizonezkoak? denak berdinak!»; Zerbaitek egin gaitu garen bezalakoak...

1. NONDIK GATUZ GIZONAK?

NON BIZI GARA?

Gizarte sexistetan bizi gara. Zu eta ni iritsi baino lehen ere sexistak ziren. Balio sexistak erakundeetan eta gizarte egituretan errotuta zeuden, eta oraindik ere horrela jarraitzen dute, urte askotan zehar sendoki errotuta eta zurrunduta. Eta gizarte horietan, erakunde eta egituretan bizi izan ziren eta bizi diren pertsonen buruetan zeuden, eta hortxe jarraitzen dute.

Horrelako ingurune batean jaio ginen eta nora etorri ginen konturatzerako, bertan hazi ginen, hezi gintuzten eta garatu ginen. Ez da zurekin, nirekin edo inorekin zerikusirik duen ezer pertsonala. Gizarte horietan jaiotzeagatik soilik, sexismoaren biktima izan gara eta gara. Emakumea bazara, zuri modu zehatz batean eragin dizu eta niri, gizonezkoa naizenez, modu desberdinean. Ni –eta nire anaiak– emakumeak zapaltzeko hezi gintuzten; eta zu, neska jaio bazina, hori onartzeko eta obeditzeko prestatu zintuzten.

Hartu gintuen gizarte bakoitzak, gizonezkoentzat rol zehatz batzuk eta emakumezkoentzat beste rol desberdin batzuk gordetzen zituen –eta gaur egun ere, modu batera edo bestera, gordetzen jarraitzen ditu–, osaera genital fisikoa desberdina izateagatik bakar-bakarrik. Ez zegoen, hasieran, paper horiek banantzeko beste inongo arrazoirik. Ez genituen nahi –ez nik eta ez zuk– eta ez genituen behar, baina... «ezarri» egin zizkiguten. Orduetik, biok –zuk eta nik– sexismoaren «birusa» daramagu.

ROL SEXISTA NAGUSIAK. «GIZONEZKOEN» ROLAK

Guri, gizonezkooi, adjudikatu zaigun rol nagusia emakumeak zapaltzea izan da. Emakumeei egokitu zaizkien rolen artean nagusia, besteak beste, zapalketa hori onartzea eta barneratzea izan da. Eta zapalkuntza hori ondorengo belaunaldietara transmititzea batzuen eta besteen rol komuna da. Hau askotan konturatu gabe egiten dugun zerbait da, bai guk, mutilok, bai neskek. Sexu zapalkuntza horretaz kontziente izan arte ez gara gure jarrerak aldatzen hasten eta beste modu batera jarduten hasten, rol sexisten agindupetik kanpo, orduan hasten baikara lehengo jarrera hark dakartzan ezbeharrez benetan konturatzen.

Gizonezkoei adjudikatu zaizkigun gainerako rolen eginkizuna –zurruna izan beharra, serioa, kementsua, ausarta, mentala, bizkorra, gogorra, indartsua, minberakorra ez, sasijakintsua, autoritarioa,

eraginkorra, lehenengoa, hoberena, gogotsua, erabakigarria, zorrotza, independentea, beti prest, dotorea, limurtzailea, sexuan aktiboa, lehiakorra, publikoa, babeslea, hornitzailea, ekoizlea...– rol nagusiaren egiturari eustea da, emakumeak zapaltzeko rolari alegia. Emaizta begien bistakoa da, rol hauen baitan edo aldamenean ia ez dago pertsona bat osoki garatzeko lekurik, gizakion funtsarekin zerikusi askorik ez baitute; pertsonak hurkotasunerako, lankidetzarako, elkartasunerako eta zuzentasunerako joera dugu, hezi ginen gizarteko «keria» edo «ismo» horiek baldintzatu gintuzten arte: arrazakeria, sexismoa, klasismoa, «heterismoa», alderdikeria, erlijioakeria...

Rol hauek, ikusten duzun bezala, jarrera bat eta jokabide bat definitzen duzte. «Benetako» gizonak garela erakusteko jarrera hori hartu behar dugu. Horrexegatik gure gizontasuna kolokan dagoela sentitzeko eta pentsatzeko hezi gaituzte. Rol horiek betetzen baditugu benetako gizontzat hartuko gaituzte; bestela, gure buru gainean izango dugu susmoaren mamua.

Argi dago, jarrera horiek agintzen duten bezalakoa izateak gurekin harremanetan jartzen den pertsona orori kalte egingo diola. Emakumeentzat kaltegarriak dira, gizonetzko emakumeenganako portaera ankerra izatera bultzatu, animatu eta hezten gaituztelako. Fronte desberdinetatik bereziki irakasten digute hori dela emakumeak tratatzeko modua, nolabait ere beraiek gu horrelakoak izatea espero dutela (txikitatik horretarako entrenatzen dituzte) eta horrela beste mutil batzuen artean aukeratuko gaituztela beren maiteak gu izateko. Ez dirudi maitasuna ulertzeko modurik egokiena, jakina, baina nahaste-borraste honetan hazi eta hezi ginen.

Eta, aldi berean, geuri ere kalte egiten digu bizitza gogorregiak, bortitzegiak, zorrotzegiak eta estresatuegiak eramatera behartzen gaituelako –rol horiek bete nahi baditugu– eta benetan garen bezala jokatu beharrean, nahitaez, desberdin jokatzera behartzen gaitu. Gizakiak gara. Hau ez dugu ahaztu behar. Bai zu, bai ni gizakiak gara, nahiz eta urte askotan baldintzatu eta entrenatu gaituzten ondoren batzuetan ez dirudien hala. Eta gizakiak garenez, gure gizatasunari bere horretan eusteko gai izango bagina ez genuke inor minduko. Rol hauen arazoa gizatasun hori zuzenean hondatzen dutela da. Gizatasuna alde batera uztera behartzen gaituzte eta gizakien artean izan beharko genukeen jokaera eta harremanekin antza handirik ez duten jokaerak erabiliz funtzionatzera.

«EMAKUMEZKOEN» ROLAK

Gainerako rol sexistak emakumeei adjudikatu zaizkie. Ongi ezagutzen ditugu; gizartearen edo garaiaren arabera alda daitezke, baina oro har: otzanak izan beharra, aginterik ez erakustea, mendekoak izatea, erraz konformatzen direnak, bigarren mailako herritarrak, ahulak, beti atseginak, eskuzabalak, sentiberak, zaintzaileak, maitekorak, fisikoki eta emozionalki hauskorak, tolerantak, atseginak, eraman handikoak, etxezaleak eta esparru pribatuetakoak, samurrak, intuiziozkoak, sakrifikatuak, apalak, beti besteen beharrei erantzuteko prest behar horiek ase arte, txintik ere atera gabe eta gogo onez; gizonaren itzalean eta atzean egotea, amak eta amakoak izatea, ahal dela xarmagarriak eta sentsualak baina ezpainetan ezezko batekin, desiragarriak, beti gazte eta alai, etxeakoandreak eta fidelak...

Emakumeentzat kaltegarriak dira, nahi edo ez, etengabe jokabide jakin bat izatera behartzen dituelako, une horretan jokabide egokiena izan edo ez, egoera bakoitzean emakume bakoitzarentzat zer den egokiena erabaki eta aukeratzeko ia aukerarik utzi gabe. Rol hauek betez gero emakumeek jasoko luketen saria maitasuna, onarpena eta abar dira. Kortse estu, itxi eta txiki honek emakumeek pertsona bezala izan dezaketen ahalmena eragozten dute: jende askea, independentea, boteretsua, azkarra, ausarta, eta abar izatea, alegia.

Gizonezkooi ere kalte egiten digute, emakumeen rola direnez gure giza alderdi batzuk garatzea eragozten digutelako. Alderdi hauek emakumeen esku soilik geratzen dira eta horrek izugarritzko

lana eta ardura dakar beraientzat, aitortzen ez den lana, ez publikoki ez ofizialki. Hemen gizonak ez dugu esku hartzen eta, horrenbestez, ez ditugu alderdi horiek garatzen –hala nola gure inguruko pertsonenganako arreta, zainketa, maitasuna eta ardura–.

«GIZONEZKOEN» ETA «EMAKUMEZKOEN» ROLEN BATURA

Gure haurtzarotik –emakumeei nahiz guri– inposatu diguten rol multzo honen emaitzak ez digu berdinen arteko jokoan aritzen uzten, non lehen begiratuko errespetua, estimua eta maitasuna modu naturalean sor litezkeen, oraindik rol horiek gehiegi irakatsi ez zaizkien gaztetxoek artean gertatzen den bezala. Rol horien mende egonda, ezinezkoa zaigu bai gizonari bai emakumeei, ehuneko ehunean, benetan garen pertsonak izatea eta eragotzi egiten digute pertsona bezala zein osoak garen erakustea, ikustea, sentitzea, eta abar.

Beraz, emakumeentzat eta guretzat kaltegarriak dira, mugatu egiten gaituzte, larritu egiten gaituzte, pertsona izaten saiatzeko oso modu estuak eta zurrinak dira eta mingarriak gainera. Rol horietatik ezinezkoa da harreman justuak, zuzenak edo osasuntsuak garatzea. Egia esan, edonori galdera bera zenbait alditan errepikatuko bagenio, eta bere sakoneko zintzotasunez erantzun ahal izango baligu ez dugu uste inork sexista izan nahiko zuenik, nahiz eta batzuetan bestela izatea edo bizitzea ezin imajinatu dezaketen pertsonak aurkitzen ditugun, kortse hauetan guztiz «galkatuta» baitaude.

SEXU BEREIZKETA-BANAKETA. GIZONEZKOEN HEGEMONIA:

Modu sinplean laburtuz, duela denbora asko gizarteak eta, oro har, bere erakundeek honako ideia hau ezarri zuten: gizonak eta emakumeek sexu biologiko desberdina dugunez, sexu bakoitzak bere ezaugarri espezifikoak izan beharko lituzke eta sexu bakoitzari bere portaerak legozkioke, gizonen sexua eta haiei zegozkien ezaugarriak gorai patuz eta emakumeen sexua eta beren ezaugarriak gutxietsiz eta baztertuz. Horrela, gizonen sexua sexu «zuzena» eta eredu garria izango litzateke eta emakumeen sexuaren gaitetik egongo litzateke, azken hau menderatuz, sexu «okerra» kontsideratzen delako, sexu «ahula». Zientziak nahiz erlijioak garrantzi handia izan zuten bereizketa-banaketa hau bultzatzeko garaian.

Ezaugarri hauek ez dira, inola ere, sexu bakoitzari berez datzekionak, soziokulturalki eraiki eta garatu direnak baizik. Horrela, gizonok, gure sexuari egotzitako aipatutako ezaugarri horiek barneratu beharko genituzke eta emakumeek beste ezaugarri desberdin batzuk bereganatuko lituzkete, ustekabean aurkakoak edo/eta osagarriak.

Sexu bakoitzari egotzi zitzaizkion ezaugarri multzo hauek elkarren osagarri dira, hau da, gizonak ez genituzke emakumeei dagozkien ezaugarriak garatu behar (sentiberak, xarmagarriak, hurbilak, samurrak, tolerantak, bihozberak, atseginak, zaintzaileak, zalantzatiak, esparru pribatua maite dutenak, erakargarriak, pinpirinak...) eta emakumeek, aldiz, ez lituzkete gizonari egotzi dizkigutenak garatu behar (ausartak, indartsuak, gogorak, bihozgabeak, irmoak, boteretsuak, ausarkeriaz jokatzeko –edo itxuraz behintzat beldurrik ez erakusteko–, itxuraz seguruak, esparru publikoan langile nekaezinak, lehiakorak, oldarkorak, sexualki gogotsuak eta beti denerako prest...). «Arau» sozial hau urratu dutenek garesti ordaindu behar izan dute, hala nola: arbuio soziala, bazterketa, eraso pertsonalak eta kolektiboak, kritika suntsitzaileak, zigor fisikoak, psikikoak, sozialak, ekonomikoak, erlijiozkoak, eta abar. Eta ondorio zerrenda luze hori jasateko eta ondorio horiekin bizitzeko gai diren oso pertsona gutxi daude.

GENERO BEREIZKETA: GIZONEZKOEN NAGUSITASUNA

Sexuaren arabera banandu gaituzten bezala eta ofizialki nahiz zientifikoki zuzenak diren bi sexu besterik ez direla posible –gizona edo emakumea– aditzera eman diguten bezala (nahiz eta horren inguruan jada eztabaidak dauden: J.A. Nieto «Transexualidad, transgenerismo y cultura». Talara. Madril. 1998), generoarekin ere antzeko bideak hartu dira. Kultura askotan bi genero baino gehiago dauden arren (Nanada, 2000; Murray eta Roscoe, 2001; Aurelia Martín Casares: «Antropología del género: Culturas, mitos y estereotipos sexuales», 2006) gure gizarteetan, orain arte, bi genero bakarrik onartu dira –gizonezkoa eta emakumezkoa– eta hau zatiketarako eta norgehiagokarako aitzakia ezin hobe bat izan da, desberdintasunen naturalizazioarekin batera (Verena Stolcke, «Es el sexo para el género como la raza para la etnicidad?», Librería de mujeres. Zaragoza.)

Desberdintasunak naturalizatzea, pertsonen artean sortzen diren desberdintasunak –kultura desberdinetan bizitzeagatik– izugarriak, jatorrizkoak eta gaindiezinak direla sinestarazteko saiakera besterik ez da, gure rolek ezartzen dizkiguten desberdintasunekin gertatzen den bezala. Esanez bezala rol desberdinak ematen dizkigutela jaiotzen garen unetik jokabide desberdinak ditugulako eta, beraz, legozkigukeen rol desberdin horiek aipatutako jatorrizko jokabide horren ondorioak izango lirateke. Honek, gainera, pertsonen arteko desberdintasunak oso txikiak direla ikustea eragozten digu, milimetro gutxi batzuetakoak besterik ez. Gure kulturaren betaurrekoak eta haiek ezartzen dizkiguten baldintzak kenduko bagenitu, harritu egingo ginatke planetako edozein pertsonaren hurbiltasunaz, berez, oso antzekoak baikara.

Zoritxarrez, sexu biologikoaren desberdintasunak hartu ziren kontuan, gero beste maila handi batzuetan pertsonen arteko banantzearen gako bilakatuz. Nolabait, generoak jokabideen eta jarrerren zerrenda luze eta zehatz bat inposatu zuen, pertsona orok bete behar zuen zerrenda, genero batekoa eta kultura jakin batekoa zen neurrian. Zure sexuaren arabera, jarrera jakin batzuk hartzera eta beste batzuk errefusatzerantz bultzatzen zintuzten; gainera, sozialki nahiz kulturalki, alde aurretik zugandik zera espero zen, egokitu zitzaizun generoaren ezaugarriak onartzea, horietaz arduratzea, zeure egitea, bultzatzea eta defendatzea. Honek barnean hartzen ditu jokabideak, portaerak, jarre-
rak, ohiturak, iritziak, joerak, aurreiritziak, superstizioak, erritualak, estiloak, janzkerak, ibilerak, pentsaerak, erreakzioak... eta dagozkien etiketa guztiak. Eta «heziketa zuzenaren» izenean hori guztia zuk ondorengo belaunaldiari transmititzea ere espero zen. Hori guztia, nolabait eta maila desberdinetan, ia denok geureganatu, sinetsi eta bete dugu noiz edo noiz gure bizitzan.

DIFERENTZIA = DESBERDINTASUNA

Bi sexuen artean dagoen diferentzia oso txikia da bi sexuen ezaugarri komunekin alderatzen badugu. Azken hauek % 95-% 98ra irits daitezke (zentzumenak, adimena, giza gaitasunak, giza balioak...), diferentziak gehienez % 2-% 5ekoak diren bitartean (hain zuzen ere, biologiariko dagozkionak).

Bi gauzaren artean dagoen diferentzia elementu interesgarri, aberasgarri eta erakargarri izan daiteke, baita osagarria ere zenbait egoeratan. Gu bizi garen gizarte kapitalista hauetan, gartzetxoak garenetik, desberdinen edo ezezagunaren beldurrean eta bazterketan oinarritutako heziketaren bidez, diferentzia elementu arriskutsu gisa erakusten zaigu, bereizten gaituen elementua eta ez elkartzen gaituena, mesfidantza iturri bat, susmagarria eta baztertu beharreko zerbait da. Gizarteek eta belaunaldi desberdinek daramatzaten eta transmititzen dituzten beldur hauek oso zaharrak dira; antzina biziraupenerako baliagarriak izan ziren, baina gaur egun ez dute zentzurik, ezta funtziorik ere.

Gizarteak indar handia egiten du diferentzia horretan eta azpimarratu egiten du desberdintzen gaituena ikus dezagun eta gure arteko gauza komun guztiez konturatu ez gaitzen. Zenbat eta

gehiago zatitzen eta sailkatzen duen, sistema kapitalistarentzat hainbat eta errazagoa da taldeak elkarren aurka jartzea, elkar zapaltzera behartuz; ondorioz, irabaziak lortzea errazago egiten zaio: beste etxe, talde, herrialde edo kontinente horretakoek eraso ez zaitzaten, tramankulu hau erosiez, produktu babesle hau, alarma berri hau, hutsik egiten ez duen lapurren aurkako tresna hau, misilen aurkako beste tramankulu hauek... edo zeure indarra antola ezazu ikastaro edo defentsa teknika hauek hartuz, hau janez, edo beste hura erosituz.

ROL HAUETATIK KANPO PERTSONAK IZATEKO EZ DAGO NAHIKOA LEKU

Gizarte honetan jaio ginen eta gizarte honetara moldatu behar izan ginen, nahi edo ez; beraz, mundura iritsi bezain pronto rol horiek geureganatu genituen. Heziketa zorrotz baten bidez inposatu zizkiguten. Beste aukerarik ez zegoen. Edo zegokizun generora eta haren ezaugarri guztietara egokitu ezean seinalea jarriko zizuten, horrek dakartzan sufrimendu eta tratatu txar guztiekin, lehen gainetik aipatu dugun bezala. Beharbada gogoratuko dituzu gazteagoa zinenean zure inguruan entzun zenituen honako esaldi hauetako batzuk:

a) «Araua» betetzen ez zuena mutila bazen: A zer maritxu hori! Zu ez zara ez gizona eta ez ezer! Neskekin egon beharko zinateke! Alde hemendik ziztuan, oilo hori! Homosexual galanta! Soldadutzan gizon egingo zaituzte, emagizona! Ordura arte ez zaitetz gurekin etorri!

b) Betetzen ez zuena neska bazen: A zer mari-mutila! Zer baldarra eta zakarra! Ez duzu gurekin, neskekin, egoteko balio! Ez zara batere femeninoa! Zoaz mutilekin, hobe zaude astakilo horiekin! Bakean utz gaitzazu! Jokamoldeak ikasten dituzunean deitu!

Hala ere, beren rola onartu ez zituzten –eta onartzen ez dituzten– pertsona batzuk ikustea itxaropentsua da; pertsona hauek muga horien barruan estuki sartzea baino beren zintzotasunari eustea nahiago izan zuten, nahiz eta lehen aipatu ditugun «zigorrak» jasan. Elkarren aurkako eredu dual horretan ez sartzeko borroka egiten zuten. Eredu horrek inposatutako bi aukera besterik ez ditu ematen: «bi sexu, bi genero eta kito» («Third sex, third gender: beyond sexual dimorphism in culture and history»). Margaret Bullen. Gilbert Herat (ed) Zone Books, New York. 1996). Ez da erraza, batzuetan horrelako esaldiak entzun behar izaten baitzituzten gehien maitatutakoen ahoetatik, esaterako, gurasoak, adiskideak eta ikasketetako lagunak, senitartekoak. Beraz, erabaki zaila zen eta da; zapalketa onartzea zure hurbileko jendearen onarpena edo maitasuna jasotzearen truke, edo zintzo mantentzea eta, horregatik, bazterkeria jasatea. Jakina da pertsona bat nekez hazi daitekeela maitasunik gabe, beraz, askok zapalketa onartzea erabaki behar izan genuen. Dirudienek hobe izan zen genero zapalketa honen zamapean bizitzeko hautua egitea, maitasun, gertutasun eta onarpenik gabe haztea baino.

Gutako gehienontzat prestakuntza zorrotz, luze eta sistematikoa izan zen eta gaur egun zail egiten zaigu rol horiek geure pentsamenduetatik aldentzea eta ia konturatu gabe betetzen ditugu, abiarazten ditugu, betetzen ditugu eta ia egun osoan jarrita daramatzagu. Gainera, rol horiek irakatsi zizkiguten pertsonak ere (gurasoak, hurbileko senitartekoak –aitona-amonak, izebak edo osabak–, irakasleak, lagunartea, ikasketetako edo/eta laneko adiskideak,...) eta horretan parte hartu zuten erakundeek, bertan lan egiten zuten jendearekin batera (bere produktuekin, hala nola telebistako programa sexistak, jostailu sexistak: baloia, boxeorako eskularruak, pistolak, kirolerako arropak, heroien komikiak eta abar mutikoentzat eta panpinak, sukaldetxoak, ipuin erromantikoak, erizain janzkiak, printzesen komikiak eta antzekoak neskatoentzat; literatura sexista, marrazki bizidunak, filmak, iragarkiak...) lehenago heziketa sexista jaso zuten eta beren arbasoek ere berdin.

SEXISMOAREN TRANSMISIOA BELAUNALDIEN ARTEAN: CURRICULUM EZKUTUA

Gizartean oso errotuta dago, behin eta berriz transmititu digute eta gogotik biziara digute eta, hortaz, ez gara konturatzen guztiok sexismoa ongi ikasia dugula –batzuek besteek baino gehiago, baina salbuespen gutxi daude–; aspaldi gertatu zen arren oraindik ere berdin edo berdintsu gertatzen da.

Horrela, «curriculum» sexista hori transmititzen jarraitzen dugu belaunaldiz belaunaldi, ia oharkabean. Ez dugu nahi, ez gaude horrekin ados, ez zaigu gustatzen, ez dugu bidezkoa denik pentsatzen, baina, soilik, geure buruetan sartuta dago, hor inkubatu genuen eta hor jarraitzen du, modu abstraktuan dago eta ia ikusezina da, pertsona bakoitzean barneratua, ukitzen duen guztia zailtzen edo infektatzen.

Eta orain arte, rol hauetatik atera nahi izan duenarentzat ez da saririk egon, ezta esker onik ere, bazterketa, errepresioa eta zigorra besterik ez. Gogora ditzagun emakume feminista ausart batzuk, haiei esker pixkanaka arazo honetaz guztiaz jabetu gara, eta gogora dezagun nola ordaindu behar izan zuten, batzuen kasuan, biziarekin. Gainerako emakumeentzat ere ez zen erraza izan –eta ez da erraza–, eta gizonezkoentzat ere ez. Baina hor jarraitzen dugu, eta hori da garrantzitsuena, oraindik amore eman gabe, bizi garen gizarteetatik aldaketarako esperantzarik eza transmititzen badigute ere.

Zerk bultzatzen gaitu aurrera egitera? Kontzientzia argi batek: rol hauen menpean nekez izan daiteke norbait guztiz pertsona eta zoriontsu. Horietatik kanpo zapalkuntzaren jomuga bihurtzen gara eta hortxe dago gure lana: roletatik kanpo dagoen lurralde hori arnasa hartzeko leku bihurtzea, emakumeak eta gizonak elkarri begietara begiratzeko eta errespetatzeko gai izango garen lekua.

ZERGATIK DUGU ESKEMA HAUETATIK ASKATZEKO BEHARRA?

Rol sexista horiek, beste eredurik ezean, –edo eredu horiek ito egiten gaituztelako– gizonak geureganatu behar dugun maskulinitasun mota definitzen dute: maskulinitasun zapaltzailea, hegemonikoa, patriarkatuaren emaitza, bidegabea eta kaltegarria. Ez dugu horrela bizi nahi, eta ez dugu emakumeek horrela bizitzerik nahi, ez dute gure rolen emaitzak pairatzea merezi eta emakumeekin ditugun harreman zailak, tirabiratsuak eta kaltegarriak ez ditugu merezi, nahi gabe elkarri kalte egiten diogulako, gure artean zango trabak egiten ditugulako, elkar izutzen, gutxiesten, akusatzen, erasotzen garelako, eta azkenean elkarren arteko mesfidantza besterik ez delako lortzen.

Guk ere ez dugu rol hauek dakarkiguten prezio garestia merezi (rol guzti horiek bete beharko bagenitu horretan larrua utzi beharko genuke), ezta emakumeek bete behar dituzten rolen guran dituzten ondorioak ere. Horregatik, lehenbailehen zapaltzen gaituen sistema honetatik askatu behar dugula uste dugu, sistema horrek emakumeak zapaltzera bultzatzen baikaitu, gure gizatasuna erreprimitzearen kontura. Eta, noski, emakumeei lagundu behar diegu, haiek ere beren roletatik aska daitezen.

Horregatik, gizonezkoak taldetan antolatu gara, rol horiek identifikatzeko, aztertzeko, beren dimentsioa ebaluatzeko eta ezabatzeko. Betetzen ditugun bakoitzean geure burua mugatzen eta zapaltzen baitugu; hori egiten dugun bakoitzean nahitaezkoa baita geure gizatasunaren zati bat ukatzea, horrek ez duelako onartzen beste pertsona bat kaltetzea edo errespetu osoz ez tratatzea.

Sexu biologikoaren desberdintasunean oinarritzen den genero sistema honetatik askatzeko beharra dugu, zapalketa, injustizia, hierarkia eta indarkeria ugari sortzen duelako, eta sistema hone-

tan emakumeek gure jokabideen ondorio zuzenak pairatzen dituztelako: nagusitasuna, kontrola, indarkeria (generoen artekoa), eskubideen urraketa, injustizia sozialak, ekonomikoak, politikoak, harreman injustiziak, lan injustiziak. Emakumeak, batetik, gure rolen ituak dira eta, bestetik, rol hauek bete beharrak sortzen duen beldurrak eragiten duen egoera kaotikoaren ituak. Emakume askok bizia galtzen dute genero egitura sozial honengatik eta emakumeek nahiz gizonak jasaten dituzten galerak eta kostuak, giza kostuak nahiz kostu ekonomikoak, zenbatezinak dira.

Bestalde, genero sistema honek berak ere indarkeria eta hondamendi ugari eragiten du gizonengan, gizonen artean (genero barruan), gizonen eta gazteen artean (adulthooda) eta gizonak bere buruarekiko (auto-indarkeria). «Benetako gizonak» izatearen izenean tratatu txar eta bortizkeria gehiegi erabiltzera behartzen gaituzte.

«GIZONEZKOEN BALDINTZAPENA»

Guk, gizonezkook, rol horiek betetzeko, aurretik prestatu eta entrenatu behar izan gintuzten, prozesu psiko-sozial-kultural luze baten bidez, bereziki gure gizatasunarekin kontaktua gal genezan; orduan gainerako gizakien gizatasuna kontuan ez hartzeko prestatuta egongo ginateke eta, horrela, haiek kaltetzeko eta zapaltzeko prest. Gizatasuna kentzeko prozesua edo «gizonezkoen baldintzapena» lortzeko prozesua gure haurtzaroko parte gogor, luze, sistematikoa eta traumatikoa izan zen eta horrela izaten jarraitzen du gizarte honetan jaiotzen diren haur askorentzat, nahiz eta gauzak, pixkanaka, aldatzen ari diren. Aurrerago jardungo gara mugaketa horretaz, hor baitago gizonezkoen matxismoaren gakoa.

ZAPALKETA IKUSEZIN BILAKATZEKO ARRISKUA

Atal labur hau bukatzeko, ohar garrantzitsu bat: agerikoa da emakumeak «gizonezkoen» rol hauetara bultzatzeko joera, lehen gizonei bakarrik zuzenduta zeuden modu berri eta sotilak erabilia, sistema kapitalistak bere esplotazio ekonomikoarekin jarraitzeko eta irabazi iturri berriak bilatzeko adabaki eta trikimailu gehiago behar dituen neurrian. Gizonak, beren zapaltzaile rola ondorioz ustez lortzen dituzten pribilegio eta askatasun berak lortzeko saiakerari orain «askapen» deitzen diote.

Honek ez ditu gauzak errazten. Aitzitik, zapalkuntza zabaltzen denean, honako ideia hau transmititzen digute, gure gizarteetan globalizazio azkarrak sortzen dituen egoera sozial berrien baitan zorientsu, aske eta independente izateko eta arrakasta izateko modua boterearen «eredu berria» imitatzea dela, betiko gizonezkoen ereduak besterik ez dena, baina «makillatuta»; «neomatxismo» moduko zerbait edo rolen trukea litzateke. Gainera, aurreko hamarkadetako zenbait ohitura sexista galtzea ez da nahikoa –esaterako, eskoletan mutikoak eta neskatok bereiztea, genero bateko jarrerak eta balioak bi generoetan bateratzea, edo azaleko beste gauza batzuk aldatzea (arropa kolore jakin batzuk, arropa mota batzuk edo moda batzuk ezabatzea, edo bi sexuentzako arropa-etiketak jartzea), zenbait apaingarri hedatzea (belarritakoak, piercingak, eraztunak, tatuajeak, tangak, eta abar)–, edo aldizkari ofizialetan berdintasun legeak jasotzen direlako gure gizarte sexistetako pertsonetan barneratuta dauden kontzeptu sexistak desagertu direla pentsatzea ez da zuzena. Sexismoari dagokionez, kontzientziazio eta berreraikitze lan serio bat egiten ez badugu, bidean galdu gaitzake eta sexismoaren aurrean adi egoteko beharrari buruz herritarrak kontzientziazitzeko lana egin gabe gera daiteke, agian lehen bezain bizirik baitago, baina orain ñabardura, adierazpen eta seinale berriekin.

Genero harremanen esparruan gertatzen diren erreforma eta transformazioen aurrean adi egon beharko dugu..

2. SOZIALIZAZIO PROZESU LUZEA GIZONEZKOEN INDARKERIA PRESTATZEKO. GIZONEZKOAK BALDINTZATZEKO GIZATASUNA KENTZEN DUTEN MEKANISMOAK.

Gizarte hauetara iristen den gizonezko bakoitzak sozializazio prozesu luze bat jarraitu behar du, entrenatu eta prestatu egin behar da, etorkizunean «gizon» batentzat ustez «egokiak» diren jarrerak bereganatu, barneratu eta garatzeko. Horietako asko izaera, pentsaera eta jokaera gogorak dira, modu, jarrera eta sinesmen bortitzak, onartu behar dugun ustezko maskulinitasun tradizionalaren emaitza guztiak ere. Mutila zuzen haziko bada eta gizon tradizional hegemoniko eta patriarkala izango bada, gizonaren nortasunaren eraikuntzan funtsezkoa den elementu batean eragin behar da: bere gizatasunean. Hemen eragiten du, bereziki, maskulinitasun patriarkala ezartzeko ahaleginak. Esparru hau ukituko ez baligute, gizonok nekez onartuko genituzke eredu suntsitzaileak, arriskutsuak, bortitzak, lehiakorak, gogorak... Zoritxarrez, maskulinitasun hegemonikoaren ezarpena esparru honetan datza.

2.1. GIZATASUNA KENTZEKO MODU ESPEZIFIKOAK. HAZTEGIAREN PRESTAKETA

Mutilok jaso dugun heziketa eta neskek jaso dutena desberdinak izan dira, eta heziketa horrek itxaropen eta jarrera desberdinak eragin ditu. Bi «estiloek» genero bakoitzarentzat eremu askotan kutsu sexista berezia dakarte berekin. Horregatik, bi generoek problematika eta diagnostiko desberdinak garatzen dituzte. Gizonen kasuan, nagusiki bi modutan edo bi alorretan entrenatu eta kaltetu gaituzte:

1.1. Gure gizatasunari dagokiona: tradizioz ez gaituzte gainerako pertsonak bezain gizatiartzat hartu.

1.2. Gizonen indarkeriaren naturalizazioari dagokiona: heziketan indarkeriaren erabilera ia ohiko bihurtuta.

2.1.1. Tradizioz ez gaituzte gainerako pertsonak bezain gizatiartzat hartu

Askotan, gure izaera eta emakumeena desberdinak balira bezala tratatu gaituzte, emakumeak bezain gizatiarrak izango ez bagina bezala, gizakien oinarritzko ezaugarriren bat falta bagenu bezala. Eremu zabal batean, haurrentzako ipuinetatik hasi eta ideologia erradikaletaraino, pentsatzen da gure osagaiak desberdinak direla, lakarragoak edo zakarragoak benetako gizatasunarekin eta sentikortasunarekin alderatuta. Fenomeno hau lau eremutan agertzen da, maskulinitasun eta gizontasun hegemoniko patriarkala irakasteko gehien errepikatzen dizkiguten alderdi batzuekin bat datozenak:

A. GAINERAKO PERTSONEK ADINA SENTITZEKO AHALMEN EZ BAGENU BEZALA TRATATZEN GAITUZTE

«Gizonek ez dugu mina emakumeek bezala sentitzen».

Jende askok uste izan du gizonek gutxiago sentitzen dugula edozein min mota edo emakumeek modu desberdinean sentitzen dutela:

· «Biak jotzen baditugu, neskatoarentzat kaltegarriagoa eta iraingarriagoa da mutikoarentzat baino. Azken honi berehala pasako zaio, «gogoragoa» da eta «ez zaio axola»; gogorago jotzen baduzu, edo bi aldiz, beharbada kasu egingo dizu edo erreakzionatuko du.»

- «Inork ez du espero mutiko bat minduta, triste edo, are gutxiago, negarrez ikustea eta ez du inork hori ikusi nahi. Ez da pentsatzen emozio laguntza, maitasuna edo gertutasuna beharko duenik. Denek espero dute “umekeria” horiekin denbora gal ez dezan, burua altxa dezan eta laster susper dadin.»

- «Rol horien menpe dagoen mutiko batek ez dio lehentasunik ematen mina edo esfortzu fisikoa sentitzeari; min gutxiago nabaritzen duela dirudi, gehiago pairatzeko gai dela edo disimulatu egin behar duela, zauria ez da egiten ari zen jarduera gelditzeko adinakoa edo min egiten diola adierazteko adinakoa eta mutikoarengan eragina izateko adinakoa.»

Askotan entzuten dira antzeko ideiak –eta horrela agertzen dira film eta kirol jarduera askotan–, baina ez dute gure errealitatea zehatz-mehatz islatzen. Gure gorputzen nerbio sistema eta emakumeena berdinak dira, sentsibilitate bera dugu, min berak efektu bera eragiten digu. Hala ere, min berdinen aurrean erreakzionatzeko eta adierazteko orduan genero bakoitzak heziketa desberdina jaso du: mutilok disimulatzen ikasten dugu txikitatik. Mutilok nonbait mina dugula erakusten badugu ahulak garela pentsatuko dute besteek, neskekin alderatuko gaituzte, eta txikitatik ikasi dugu hori zein lotsagarria den.

Gai honetan, gudan eta gure sentitzeko ahalmenean presio handia dago. Adibideak leku guztietan aurkitzen ditugu, filmetan, heroi garaiezin ahozko istorio eta mitoetan, iragarkietan, marrazki bizidun zentzugabeek saltzen dizkiguten gizonetako hegemonikoen eruedetan (Popeye eta Brutus, Spiderman, Bruce Lee, manga... batzuk aipatzearen), edo kulturetan garatzen diren ohitura eta erritualetan. Mozketa fisiko kulturalak ditugu lekuko: adibidez, mutiko batek, bere gizentasuna frogatzeko, ezartzen zaizkien ebakuntza, mozketa eta/edo proba mingarri horietako bat gainditzea espero da, gizon izateko prestakuntza gisa; eta taldeko kide duina edo garrantzitsua izan nahi badu, trauma hau jasan beharko du.

Gaur egun, neurri batean, hori bera ikus dezakegu, baina beste era batera: futbolaria, txirrindularia, pilotaria edo boxeolaria lurrera erortzen direnean altxatzea espero dugu –«Ez da ezer izan eta!»–, eta bere zereginarekin aurrera jarraitzea. Emakumeek boxeatzeko ez da espero, hori «gizonen» kirola delako. Nola aurkezten digute gizonen arteko borroka bat? eskuarki, izugarriko kolpeak, armak eta hilketak. Eta, emakumeen arteko borroka bat? batzuetan barregarria izaten da: iletik tiraka, bultzaka, garrasika... Beraz, gai honi buruz eraikitako mundu sinboliko oso bat daukagu, gure buruen barnean txertatua, zeinek erakusten digun «benetako gizon bat» izateko modu zuzena, hain zuzen ere, minik eta beldurrik ez sentitzea dela, edo behintzat ez adieraztea; John Wayne, Humphrey Bogart, Sylvester Stallone, Swarzenager, James Bond edo horrelakoen antzera. Historia errepikatu egiten da.

Gure gizarteetan emozioen eta sentimenduen adierazpen hauen garrantzia oraindik ez da oso kontuan hartu, horien inguruan aurreiritzi sendoak daudelako. Negarrak, adibidez, indarberritze funtzio garrantzitsua betetzen du, gizon taldeetan egiaztatu den bezala. Ez da ahultasun seinalea, aitzitik, pertsonak bizitzen dituzten egoera zailetan eta traumatikoetan normalean jasaten dituzten frustrazioa eta etsialdia gainditzen laguntzen du.

Gure sentimenduei jaramon handirik ez egiteko hezi gaituzte, emakumeak ez bezala, ahultasun seinaleztat eta gizentasun faltaren seinaleztat jotzen direlako. «Emakumeek beren arrazoiak dituzte sentitzen dutena hain modu sakonean sentitzeko; horrelakoak dira; gu ez gara horrelakoak». Horrenbestez, gure zapalketaren parte kaltegarriena sortzen da: beti **gure sentimenduak ukatzen ikasi behar dugu, eta azaleratzen badira irentsi egin behar ditugu eta sentimendurik ez bagenu bezala jokatu**. Geure buruaren zapalketa honen ondorioz tratatu txarrak errotuko dira eta honek, ia konturatu gabe, emakumeak zapaltzea erraztuko digu. Sentitzeko gaitasunari utsiko bagenio beste pertsona bati min egiteari uko egingo genioke, gure sentimenduek eragotzi egingo ligukete, ez ligukete inori tratatu krudelik ematen utziko. Baina, zoritxarrez, neurri handi

batean, gizonen heziketa eta baldintzapena norabide horretan joan dira, eta sentimendurik gabe gure nortasuna eta gure balioak gauza materialen gainean eraikitzeko joera dugu.

B. BAKARRIK UZTEN GAITUZTE

Fisikoki ere bai, baina batez ere emozio laguntza behar dugunean uzten gaituzte bakarrik, etsita gaudenean, jota gaudenean... «benetako gizon» bat horrelako egoera batean egotea ez delako espero edo egoera horretatik bere kabuz atera behar duela pentsatzen delako, arazoa berak gainditu behar duelako. Horren ondorioetako bat maitasun adierazpenen kudeaketan aurki dezakegu: mutikoez neskatoek baino laztan gutxiago jasotzen dituzte eta laztanak, besarkadak, ahozko maitasunezko adierazpenak... neskatoen artean, neskatoentzat askoz ere ohikoagoak dira; mutikoentzat bestelako adierazpenak erabiltzen dira, ez zaizkie gertutasuna eta kontaktu fisikoa eskaintzen, autoestimua eta independentzia indartzeko hitzak baizik. Kontaktu fisikoak eta afektuak mutikoari ez diotela mesederik egingo uste da, aitzitik, kalte egin diezaioketela, «bigundu» egingo direlakoan, beren helburuetatik aldentzeko direlakoan, «maritxu» bat bihurtzeko.

Bestalde, maiz pentsatu izan da mutilek laster lortu behar dutela beren independentzia, neskek baino lehenago autonomoak izan daitezela onartzen da. Autonomo izatea ez da txarra; kasu honetan kaltegarria dena zera da, mutikoei sortzen zaizkien zailtasunak, zalantzak eta beldurrak partekatzeke ez zaiela aukerarik edo espaziorik eskaintzen. Dena bere kabuz konpondu behar dutela pentsatu izan da; honi, okerki, «autonomo» izatea deitzen diogu. Mutikoez ere gertutasuna, segurtasuna, babesa eta arreta behar dute eta hau askotan ez da aintzakotzat hartzen. Eta alde aurretiko «bakarrik uzte» horrekin mutil bati zail egiten zaio maitatua eta babestua sentitzea, berarentzat zaila da mundu honetan dagokion lekua aurkitzea, besteentzat duen garrantziaz jabetzea eta aintzat hartuko balute garatuko zukeen segurtasuna eta optimismoa sentitzea.

C. GURE KALTEEK EZ DIRUDITE GARRANTZITSUAK

Ondorioz, uste dugu benetan sentitzen duguna ez dela garrantzitsua, ezta mesedegarria ere, eta beste pertsonentzat ez dela gustukoa edo interesgarria izango, eta sentimenduak ez erakusten saiatuko gara. Aitzitik, egiten ari garen jardueran, jokoa edo zeregina eteterik ez da espero. Jokoa, lehiaketa, garaipena, podiuma, lana eta abar askotan gure sentimenduak baino garrantzitsua goak dira. Zoritxarrez, hau gure bizitzan gertatzen den gauza gehienetara hedatzen da, eta horrek sentitzeko eta sentikorrak izateko gaitasuna oztopatzen digu. Larriena zera da, azkenean hori gure emozio bizipenetan aplikatzen dugula.

D. GURE SENTIMENDUETAN EZ DA ARRETARIK JARTZEN

Askotan helduak gogaitu edo lotsatu egiten dira gizonen beren mina edo pena erakusteko negar egiten dutenean edo dardarka hasten direnean. Portaera hori gizonen batentzat «zuzena» ez denez, ez dute «eszenatxo» hau ikusi nahi. Edozer asmatzen da mutilak negar egiteari utzi diezaien: txikitik ahoan txupetea sartzen zaio, handixeagoa denean xantaia erabiltzen da (isiltzen ez bazara ez dugu telebistatik ikusiko, ez dizut jaramonik egingo, ez duzu postreirik hartuko,...) edo mehatxua (isiltzen ez bazara aitari esango diot eta orduan hark emango dizu negar egiteko benetako arrazoia...). Bestalde, nahiago izaten da negar egitera bere gelara joatea, hobeto hartzen da («pasatuko zaio estualdia, ergelkeria»...), jaramon egin beharrean eta bere emozio deskargak eta horien arrazoiak aintzat hartu beharrean. Pertsona gutxi dira azken hauek tonu adeitsu eta hurbilarekin onartzen dituztenak, deserosotasuna, errepresioa edo zigorra erabili ordez. Egia esan, haurrak ez du bakarrik geratu nahi bere arazoarekin, baina lotsarazi egin dute bere negararekin eta ez du inoren aurrean erakutsi nahi.

Mutiko batek bakarrik egon nahi duenean pertsona helduak ez dira gehiegi harritzen, portaera horrek heldutasuna erakusten duela iruditzen zaie, bere nortasun independentearen erakusle dela.

Nonbait mina dugunean jaramonik ez badigute egiten, gure mina ez dela benetako mina pentsatzeko joera izango dugu; hortaz, azkenean, gure jarrera sentitzen dugunarekiko mesfidantzan eta arbuioan oinarritu daiteke; horrenbestez, besteen sentimenduekin ere berdin jokatuko dugu, balio sentimentalen mundu zabal eta garrantzitsuarekin alegia.

2.1.2. Izatez oldarkorrak eta bortitzak bagina bezala ikusten gaituzte

Jarrera bortitza eta oldarkorra lehendik jaso dugun tratu txarraren isla da; jasotako tratu txar hark garamatza, hain zuzen ere, hura errepikatza. Gizonezkoei sentimenduak adierazteko bide gutxi uzten zaizkigu «gure gizentasun maila jaisten dela» sentitu gabe. Gure sentimendu-munduarentzat zabalik dauzkagun ate bakarretakoak amorrua eta haserrea dira. **Bitxia da sentitzeko eta amorrua eta haserrea adierazteko aukera honen eta sentimendu horiek adierazteak gure ustezko gizentasunarekiko sor ditzakeen zalantza kantitatearen arteko erlazio zuzenari erreparatzea.** Sentimendu hauek, alegia, sendotasunak, zakarkeriak eta gogortasunak, ez dute gure gizentasuna zalantzan jartzen.

Gure sakoneko emozioak adierazteko erabil dezakegun bide bakarra hau da. Batetik, positiboa da, gure barruan gertatzen denaren parte bat kanporatzeko aukera ematen digulako. Bestetik, negatiboa da, sentimendu gama guztia (pena, zirrara, beldurra, gupida, tristura...) amorru edo hira moduan bideratzera bultzatzen digulako. Gainera, amorru eta haserre honen adierazpenak ondorio negatiboak izan ohi ditu gure inguruko pertsona eta objektuentzat, ez baikaituzte hezi egokiro adierazteko, hau da, gure inguruko pertsonak edo objektuak kaltetu gabe.

Adierazpen mota hau gure izaeraren alderdi esanguratsutzat hartzen da, gizon izatearen berezko zerbait bezala, hain dira ohikoak haserre sentimendu hauen adierazpenak. Akats larria. Horrela, pertsona askoren buruan dabilen adjektibo moduko hitz hori gorpuzten da orduan: astakirten galantak dira!

Horri erantsi behar diogu kulturak pistolekin jolasten diren eta super-heroiak edo gerrak imitatzen dituzten haurrei buruz eskaintzen digun ikuspegia, horrela beren izaera azalduko balute bezala, aintzat hartu gabe hori asmakizun kulturala besterik ez dela, etorkizunerako prestakuntza bat, bereziki estatu inperialistei dagokien dinamika armamentistikoan oinarritzen den etorkizunerako. Aldez aurretik, bete behar ditugun rol bortitzak eskaintzen eta irakasten dizkigute eta rol horietan hezten eta ohitzen gaituzte, gure herrialdeak larrialdi beliko baterako gure laguntza beharko balu prestatuta egon gaitezen.

Gizonezkoen baldintzapen prozesu hori guztia ahaztu egin ohi da (curriculum ezkutua), eta gizonezkoen indarkeriaren naturalizazio honen azaleko efektua bakarrik ikusten dugu, jarrera bortitza guretzat berezkoa izango balitz bezala, eta hori da arriskutsuena.

3. GIZONENGANDIK ESPERO DITUGUN ETA GIZONEN IZAERA BORTITZAREN IDEIA INDARTZEN DUTEN ROLAK

Aurreiritzi, aurre-ikuskerak, idia faltsu eta sinesmen batzuen laburpena ikusiko dugu. Aurreiritzi horiek maskulinitasun tradizionalaren errotzea indartu eta bortitzak eta gogorrak ez diren beste maskulinitasun mota batzuetara aldatzea eragozten dute.

3.1. GIZONEK «GIZONEN MODUAN» JOKATZERA BULTZATZEN GAITUZTE

Gizontasuna beti jokoan dagoen zerbait da, etengabe frogatu behar den balio multzo bat; ez da egintzat jotzen. Balio multzo hori gure ekintzekin eta jarrerekin erakutsi eta frogatu behar dugu. Gizarteak, oro har, gizonetzko gizontasun hori islatzen duten aurrez erabakitako rol jakin batzuk betetzea espero du. Batzuetan gizonetzkoak gara guztiek rol horiek obeditzea espero dugunak; besteetan gizarteko beste sektore batzuk dira gauza bera espero dutenak: sexismoaren biktima diren emakumeak, zeinak hainbestearino onartu eta barneratu dituzten rol horiek guztiek bete ditzagun espero dutela; sexismoaren eraginpean bizi diren seme-alabak, beren gurasoak rol horietan bizitzen ikustera ohituta daudelako...

Gay zapalkuntzak zerikusi handia du gizonetzkoegi egiten zaizkien (gizonek beraiek egiten dituzten) presio mota horiekin guztiekin. Zapalkuntza mespretxatuz «gizon» izateko bete behar diren arau zorrotzei bizkar ematen badiegu, zenbait roli jaramonik egiten ez badiegu eta gure benetako izaerari eusten badiogu, beharbada «gay» izatea leporatuko digute, eta hori «gizon ez izatea» bezala ulertzen da. Bazterketa eta indarkeria erabiliz indarrean dagoen araudiaren aurrean amore eman dezagun saiaturako dira (duela bi hamarkada arte Estatu Batuetan homosexualak hil egiten zituzten eta bitartean Gobernuak ez ikusiarena egiten zuen). Aukera ez da batere erakargarria: «gizon» izatea eta gizartean leku bat izatea edo zapalketa krudel samarra pairatzea.

Gehienetan, norbait gay dela esateko eta hura iraindu eta gaizki tratatzeko arrazoi nagusia, funtsean, ez da haren aukera sexuala, baizik eta gizon estandar hegemonikoaren bizi-estiloari uko egitea. Airean dabilen lege ikusezin moduko bat da, eta ia gizarte guztietako gizonetzkoen psike kolektiboaren kode sinbolikoan dagoen lege bat. Bere hedapen eta gogortasun handiena estamentu militarretan eta kartzeletan aurkitzen da, non izugarri sakonki txertatuta dagoen. Hona hemen legeak esango lukeena: «Hemen denok gaude izorratuta rol hauekin eta zu ez zara desberdina izango».

Talde honi beste zailtasun bat gehitzen zaio, alegia, rolak ez onartzeko erabakiari irmoki euste-agatik pairatu duten zapalketa erantsia jasangaitza egiten zaiela gizon batzuei, eta sistema zorrotzaren aurrean amore ematen dutela; denborarekin, horietako batzuk eredu sexista-matxista zurrun horien defendatzaile bihurtzen dira eta etsi nahi ez dutenen aurka gogorrago jotzeko joera izan ohi dute, matxismo homofobikoaren transmititzaile gogotsu bihurtuz.

Baina gure gizarteetan pertsonak jasaten dugun zapalketaz ohartzeko garen neurrian, elkarri gero eta gutxiago eskatzen diogu rol horiek betetzea eta horietatik askatzeko gero eta lan gehiago egiten dugu, bai emakumeen alde bai gizonen alde. Eta zenbat eta hobeto ulertu nolakoa den talde bakoitzaren zapalketa, hainbat eta gutxiago zapaltzen da eta hobeto egiten da elkarrenganako askapen lana.

Zertxobait gehiago sakonduko dugu guk betetzea espero den betiko rol batzuetan. Gure maskulinitasunaren kutsu bortitza gehien moldatuko duten rolak dira.

3.2. GIZONEN OHIKO ROL NAGUSIAK MASKULINITASUN TRADIZIONALETIK IKUSITA

Ezerk eragingo ez baligu bezala jokatu behar dugu: «Bihozgabeak + gogorrak = helduak»

Eskuarki, gizon batentzat negatibotzat jotzen den ezer sentituko ez bagenu bezala jardun behar izaten dugu, hala nola, mina, beldurra, lotsa, zalantza, gupida, adorerik eza, euforia, sentikortasuna, emozioa eta abar.

Beste sentimendu eta jarrera batzuk erakutsi ditzakegu –sorgortasuna, gogortasuna, logika zurruna, betebeharrak egitea, gerrazale sutsua izatea...–, normalki ezkutatu behar ditugun sentimenduak estaltzeko erabiltzen direnak. Ezin dugu negarrik egin, ez dugu beldurrik erakutsi behar, ezin gara lur jota edo beldurtuta agertu, nahiz eta benetan gu horrela egon eta gure gizarteetan bizitzen ditugun egoerek askotan sentimendu horiek azaleratzea eskatzen duten; nahikoa da telebistako albistegi bat ikustea.

Aldi berean, ez genuke gertutasun edo samurtasun gehiegi erakutsi behar, gutxiago beste gizon batzuei, bestela gaizki ulertu dezakete eta: noiz izan zen bi gizon eskutik paseatzen, gerritik helduta edo bata bestearen bizkarrean negarrez ikusi zenituen azkeneko aldia? Eta oroitzen bazara, segundo pare bat har itzazu eta pentsa ezazu: zer izan zen bururatu zitzaizun lehenengo gauza?

Ez gara sentibera agertu behar, ezta gure gizatasunak horren behar handiena duen momentuetan ere: asko maite dugun pertsona bat hiltzen bada ere neurritz jokatzeko eta itxurak gordetzea espero da. Denok dakigu horrek zer esan nahi duen; negar egiteko baimena emakumeek, neskatok eta mutiko batzuek besterik ez dutela.

Edo egoera arriskutsuetan ez dugula oiloak edo koldarrak bagina bezala jokatu eta gure jendea defendatu eta babestuko dugula gure bizia arriskatuz, beharrezkoa bada «gu aurrean jarrita». Gaizki ikusita dago gure sentimenduak erakustea beste pertsonak berei eutsi ezin dieten egoeratan: «norbaitek burua hotz mantendu behar du»; ia beti hau gizonak egitea espero da..

Guztiaren arduradun sentitzeko hezten gaituzte

Gizonek diseinatutako sistema patriarkal honetan ardura handiena ia beti guri dagokigu; «merzitakoa izan dugu». Gainera, horrela ez denean, uste dugu zerbait gaizki dabilelako dela, ez sistemari, gudan baizik. Guztiaren erantzule sentitzen gara, baina erantzule bakarrak, ardura inori hartzen utzi gabe. Gure gurasoengandik jaso dugu eredu eta haiek beren gurasoengandik: bere familien eta negozioen buru izaten ikusi ditugu, laguntzarik eskatu gabe, egun osoz lanean, ardurak hartzeko eta arrakasta izateko dena bakarrik egitera derrigortuta bageunde bezala.

Dena kontrolpean eduki behar dugu, bestela «**beste norbaitek egingo du gure ordeaz**». Horregatik, batzuek atsedetik gabe lan egiten dugu, dena geure kabuz egin nahian, laguntza eskatzea gizon batek egin lezakeen okerrera izango balitz bezala edo horrek gure ahaleginari balioa eta kategoria kenduko balio bezala. Gutako beste batzuek, aspertuta, beste muturrerako joera dugu eta ez dugu ardurarik hartu nahi, modu zurrunean gainera, eta uste dugu gure erantzun anarkikoa edozein egoeratan «justuena eta egokiena» dela. Horrelako pertsona bati honako rol hau legokioke:

Gizonak = Sakrifikatu daitezke

Lehen esan dugun bezala, gizonek honako mezu hau jasotzen dute: sakrifikatzeko prest egon behar direla. Gerretara, gehienbat gizonezkoak joaten gara, hiltzera eta erailtzera, eta ondorioz neskatoak, mutikoak, emakumeak eta gizon asko hiltzen dira. Gizonak meategietan, industria nabeetan, sotoetan, plataforma edo makina arriskutsuetan eta arrisku handiko lekuetan pilotzen gara, non ekoizpena eta esplotazioa besterik ez den bilatzen, lan baldintza penagarrietan, eta muinean dagoen ideia honako hau da: gizon baten ohore handiena zerbaiten alde bizia ematea da. (Nire familiako medikua minbiziaren ondorioz hil zen, etengabe bere pediatria kontsultako X izpien eraginpean zegoelako eta heroitzat hartu zuten, ohore bat medikuen kausarentzat –horrela aipatu zen bere hiletan–, lan sistemaren injustizia larritzat hartu beharrean).

Norberaren bizia arriskatu behar den kasuetan edo besteei bizia kendu behar zaien kasuetan, batez ere gizonei deitzen digute. Horren aurrean emoziozko erreakziorik ez dugula izango pentsat-

zen da eta, horrenbestez, ez dugula «kontrola galduko». Batetik, hiltzeko prest egon behar dugu eta gure orde bestea bat jarri dezakete eta, bestetik, pentsatu ohi da beste batzuek erailteza edo gure lagunak hiltzen ikustea ez zaigula gehiegi axolako edo horrek ez digula eragingo. Uste da gerratik datozen soldaduek ez dutela ospea besterik behar, gehienez musika banda bat, ongietorri bat eta domina bat, hiltzen eta hildakoak ikusten urteak pasa eta gero horrek gudan ondorio-rik izango ez balu bezala edo horrekin guztiarekin bizitzeko gai izango bagina bezala, horrek gure izaeran, pentsaeran, jokaeran, eraginik izango ez balu bezala. Guztiz aurkakoa diote gerrako beteranoen desoreka psikologikoez eta suizidioez hitz egiten diguten datu ikaragarriek.

Honaino, gizonezkook mantendu ditugun rol nagusienetako batzuk aipatu ditugu, gaur egun ere, gehiago edo gutxiago, indarrean dirautenak, aldaerekin eta berezitasunekin lekuaren eta pertsonaren arabera.

Funtsean, gutako guztiengan ondorio berdintsuak izan ohi dituzte. Gauzak aldatzen diren neurrian zapalketa ere egokitu egiten da, birmoldatuz eta itxura eta eremu berriak hartuz: gero eta gehiago, sistema kapitalista honek emakumeak bilatzen ditu zapaltzeko eta esplotatzeko, gizonekin egin duen bezala, eta horrela irabazi handiagoak lortzeko.

Ikus ditzagun, jarraian, ondorio hauetako batzuk:

3.3. SEXISMOA ETA INDARKERIA

Aurrekoa gogoan badugu erraza izango da gizonezkoen eraikuntzaren hurrengo kate begia aztertzea. Nahiz eta kasu batzuetan posible izan den maskulinitasun eredu desberdinak –eta kasu gutxi batzuetan eredu egokiak– aurkitzea, gutako gehienok ondoko lerroetan azaltzen dena jasan behar izan dugu, betiere bakoitzaren aldaera eta ñabardurekin: tradiziozko maskulinitate patriarkala.

Batzuetan, laguntzarekin, konturatuko gara gure baldintzapenaren zati bat –esaterako perfektuak, zehatzak eta hoberenak izan beharra– eragozpena dela guk ere ondoren azalduko dugun zerbait gure barnean badugula aitortzeko. Beraz, umilki adi egon beharko gara, bereziki jarraian aurkeztuko dugun puntu delikatuetan. Animo! ez ezazu ahaztu helburua ez dela erruak bilatzea, konponbideak baizik.

Indarkeria ofizialerako prestakuntza

la gizarte osoan, gizonezkoak zapalketa katearen azken begia gara. Gauzak gaizki doazenean eta herritarrak haserre daudenean, ezarritako ordenaren aurka matxinatzeko edo ordena soziala errotik aldatzeko asmoarekin, egoera «bideratzeko» gizon armatuak bidali ohi dira. Gizon horiek entrenamendu eta baldintzapen bereziak behar dituzte armekin eta indarkeriarekin gizartea beldurtu behar dutenean beraiek gizartea baino gutxiago beldurtu daitezen, herritarrak «bide edo ordena zuzenera» itzultzera behartzeko gai izan daitezen indarkeriaren mehatxua eta/edo indarkeria bera erabiliz. Gogora dezagun nola, noiz eta non egiten den entrenamendu hau:

Gizonezkoen entrenamendu edo sozializazio sexista: Indarkeriarekin ohitu behar gara

Gizon asko giro zakar batean jaiotzen gara, «benetako gizonak» edo «gizon handiak» sortzeko aitzakiarekin –inoren laguntzarik behar ez duten pertsonak, pertsona askatzaileak, heroiak edo ausartak...– mota eta esanahi desberdinetako indarkeria kutsu handia duten giroetan. **Gizon be-**

zala jarraitzen dugun hazkuntza, eraikuntza eta programakuntza prozesuan erabiltzen ikasi behar ditugun hainbat indarkeria motaren lekuko eta ikastun gara eta hori gure kulturaren parte da. Eraikuntza prozesu horretan, lehenik gure gizontasuna eraikitzen da (batez ere sexu alorrean) eta gero, honen arabera, gure maskulinitasuna (genero alorra: jarrerak, pentsamenduak, balioak...). Indarkeriaren bidez gure lurraldea defendatzea, gure ondasunak (arrebak, neska-lagunak, amak, eta abar barne), gure ohorea, gure nortasuna, gure arrazoiak defendatzea eta abar gure heziketaren parte da eta gero gizarteko estamentu askotan aurkituko ditugun zenbait adierazle eta gizonezkoen erregistro sozialen parte izango da. Gure maskulinitasunaren zati hau indartzeko, erreferentzia horietara joko dugu, lehen aipatu dugun bezala (elkarte batzuk, kirol zentroak, tabernak, prostituzio etxeak, literatura mota batzuk, aldizkariak, programak...).

Gutako batzuek noizbait gure anaiekin eta gure lagun onenekin borroka egin behar izan dugu, besterik gabe «nahiko gizon» ginela frogatzeko eta maite ditugun mutil eta gizonezko helduen esker ona eta errespetua merezi izateko (lagunak, aita, entrenatzaileak, tutoreak...) eta emakumeen miresmena lortzeko, haiek arriskua edo indarkeriaren mehatxua sentitzen zutenean (amak edo arrebak: jo zaitzan esango diot nire anaiari! Seme, inork ez zaitzala jo, eta beharrezkoa bada... zuk emaiozu lehendabizi!).

Baina borroka horiek beste xede bat ere bazuten: lagun taldean, inguruko lagun artean eta arriskutsuak edo mehatxatzaileak iruditzen zitzaizkigun gainerako mutil edo gizonen aurrean estatus moduko bat edo onarpena lortzea edo, besterik gabe, norbaiten aurrean garrantzitsu sentitzea. Batzuetan, gure inguruan hain sarritan izaten ziren liskarretan nahasi gintuzten eta borroka egin behar izan genuen: gu edo gure lagunak astintzen gintuzten eta, zentzu askorik gabe, defendatu egin behar ginen, bestela bazterketa edo jipoiak jasateko arriskua zegoen, «bigunak» edo «gizon erdiak, erdi maritxuak» izateagatik.

Beste batzuetan, gure neska-laguna errespeturik gabe tratatu izan dugu gure gizontasunari buruzko susmoak uxatzeko, sexismoak dezente kaltetutako emakumeen arreta erakartzeko esperantzarekin, hauek gizon «indartsuak eta bere buruaz seguru daudenak» «miresten» baitituzte, emakumeak bere kabuz defendatu ordez gizon hauen babesa jasoko dutelakoan. Edo zure lagunekin borrokatzeari uko egiteagatik beste lagun batzuk bilatu beharrak dakarren tristura.

Honako datu hau bitxia da: azken bi urteetan nik zuzenean behatu dudanaren arabera, ziberkafeetan eta Internet zerbitzua duten aretoetan ordenagailuetako bideo joko belikoekin jolasean dabilzanen (indarkeriazko jokoak dira eta ez dira batera hezigarriak) % 99,99 mutilak dira. Nerabe horiek gehien erabiltzen dituzten hiru esamoldeak honako hauek dira: «putakumea», «marikoia», «txikituko zaitut».

Entrenamendu edo baldintzapen hori mutiko gehien bizitzan oso azkar hasten da eta sistematikoki tratatzen dira gogortasuna, sentimenduen isolamendua, ukapena eta errepresioa, sentimenduen adierazpenaren ukapena eta esterilizazioa, emozio mailan nahiz maila afektiboan, espresuki gizonezkoen generoari zuzenduta, nagusiki aitaren eskutik –beraiek ere horrela tratatu zituzten– eta batzuetan, ama batzuen laguntzarekin; azken hauek, bere aldetik, beren aiten, anaien, irakasleen, lagunak, senideen eta abarren sexismoaren biktima izan dira. Horrez gain, indarkeriaz kutsatutako eduki hezigarri, mezu eta propagandaren bidez pertsonen buruetan etengabe sartzen diren gainerako elementu soziokultural bortitzak daude: komunikabideak eta albiste belikoak, neurri handi batean indarkeriazko nazioarteko estilo politikoetatik datozen film eta literatura armamentistak, «gore» filmak, beldurrezkoak; DVDak eta ordenagailuko bideo jokoak, kirolak eta emanaldi kulturalak, marrazki bizidunak (manga, Simpson...) eta iragarkiak, opariak eta jokoak, guztiak bortizkeriaz beterikoak.

Honek guztiak ideia nahasteak sortzen ditu gizartean eta oinarrian dagoen ideia honako hau da: elkarrekin bizi garenean, nahitaez indarkeria maila minimo bat egongo da eta indarkeriarekiko

«tolerantzia» maila minimo bat –intsentsibilizazioa– behar dugu. Etengabe jasotzen ditugun nazioarteko gataska belikoen albisteak, handietsita eta testuingurutik kanpo, eta haien tratamendu propagandistikoa oroigarri eraginkorrek dira, ordena mantentzeko etengabe erabiltzen den indarkeriaren mehatxua gogorarazteko, baita gizartean funtzio hori nagusiki gizonaekoei dagokiela gogorarazteko ere.

Indarkeria jasatea eta erabiltzea ohitura bihurtzeko, gizarteko gizonaekoen multzoaren zati handi baten baldintzapena eta prestaketa hau sistematikoa, gogorra eta eraginkorra izan behar da. Dena lehenengo jostailu lehiakorrarekin eta/edo bortitzekin hasten da (oraindik ere hurrei heroi bortitz fantastikoen jantziak oparitzen zaizkie, haien armamentu eta guzti: kartutxo uhalak, pisto-lak, jotzeko eskularruak, indiarren arkuak eta geziak, suntsitzeko laser izpiak eta laser ezpatak; osagarri hilgarriak: tankeak, kanoiak, metraileta handiak; eduki bortitz-suntsitzaileak dituzten bideo-kontsolak, batere pedagogikoak ez direnak...). Gero mutilak indarkeriaren kupula ezagutzen du soldadutzarekin, herrialde batzuetan nahitaezkoa eta gainerakoetan borondatezkoa, edo polizia edo militar izateko gizartean iragartzen diren lan eskaintzen bidez, askok lan duin eta zintzo gisa ikusten dituztelarik.

Berriz ere ideia bat gogoraraziko dugu: kapitalismoak eta bere egitura indartsuek aurrera egiten duten neurrian eta «teknologia modernoagoak» erabiltzen dituzten neurrian, gu sozializatzeko eta baldintzatzeko modua aldatuz doa eta ñabardura berriak agertzen dira. Hala ere, beraien eragina eta emaitzak ildo beretik doaz eta gero eta emakume gehiago harrapatzen dituzte..

4. GIZONEZKOEN INDARKERIAREN ONDORIOAK GIZONENGAN

OHIKO ONDORIOAK GIZONENGAN

Intsentsibilizazioa, oharkabetasuna eta transmisioa

Gure burua zapaltzen dugu, beste gizon batzuk eta emakumeak ere zapaltzen ditugu eta askotan ez gara konturatu ere egiten. Ez dugu ikusten zenbateraino onartu ditugun gugana zuzendutako tratu txarrak eta, beraz, besteei ematen dizkiegun tratu txarrez ez gara ohartzen. Normalean ez ditugu pista asko izaten honek gure inguruko pertsonengan eragiten dituen ondorioak ezagutzeko, ezta geure bizitzan duen eragina ezagutzeko ere. Sexismoaren estrategiaren parte bat da, ez digu uzten kontzientzia sortzen eta garatzen.

Sexismoaren parte honen transmititzaile nagusienetako batzuk gutako batzuen aitak eta gure aiten aitak izan ziren. Gure etxe askotan, emakumeak sexismo mota honen biktima zuzenak izan ziren, gizonaekoei eragindako sexismoaren biktimak. Horrelako gertakari bat ikusten baduzu, irudia betiko geratuko zaizu gogoan; aurrerago, gutxien espero denean, azaldu daiteke. Batzuek beren etxeetako indarkeriaren «kulturizazio» honetatik ihes egitea lortu zuten, baina kalean giro horretan murgildu ziren gaitz hori transmititzen duten beste pertsona eta/edo entitate soziokulturalen eskutik: ikastetxeak, kirol klubak, lagun koadrila, beren etxean bestelako giroa zuten senideak, adiskideak, lantokiak eta indarkeria transmititzeko lehen aipatu ditugun gainerako mekanismoak. Modu desberdinean baina emaitza berdintsuekin.

Jarraian, maskulinitasun mota hauek gizonengan sortzen dituzten ondorioen artean ohikoenen zerrenda egin dugu. Ez dira guztiak gizon guztietan ematen baina hauetako asko gizon askotan antzematen dira:

Homofobia, isolamendua, etsipena, zurruntasuna, sorgortzea eta norberarekiko eta besteekiko pentsamendu argirik eza, beldurra lagun hurkoari eta gauza ezezagunei, handinahikeria eta handiustea, autoestimua puztua, lehiakortasuna, mesfidantza, oldarkortasuna, joera kritiko ez erakitzailea, arriskurako joera, norbere burua ez zaintzea, gaixotasun kardiobaskularrak izateko joera, bihozgabetasuna, enpatiarik eza, entzuteko gaitasunik eza, gorputzaren eta buruaren hondatze handia, buruaren eta hizkuntzaren inkongruentzia, alkoholemia tasa eta gerrazalekeria, zigor erakundeak, kartzelak, erakunde belikoak eta terroristak ia guztiz betetzea, liderrak eta pertsona nabariak, ahulak edo sentiberak erasotzeko joera, harrokeria, eskola porrota, harreman afektiboetan arretarik ez jartzea, itxaropen eta ilusio tasa baxuak, autoestimua eta apaltasunik eza, zakarkeria eta ezkortasun orokorrak, kontrolik eza, desilusioa, haserrea, atsekabea, bere baitan itxia eta bakartua, itxaropenik eza, saiaturaz gero suizidio segururako joera. Azken hori argituko dugu laburki:

Gizonezkoen suizidioetan, arrakasta ehunekoak % 70ekoa da; emakumeen kasuan, berriz, % 30ekoa. Desberdintasunaren arrazoia bakoitzak bere burua pertsona bezala ulertzeko duen moduan datza, eta horren ondorioz, gizonezkoek eta emakumezkoek beren burua suntsitzeko modu desberdinak erabiltzen dituzte. Horrela, gizonezko suizidek erabiltzen dituzten metodoak, kasu gehienetan, trebeak eta hilgarriak dira (arma zuriak eta su armak, jauziak etxebizitzetatik, zubi-tatik, trenetatik, amildegietatik, teilatuetatik...). Emakumezko suiziden ahaleginak, berriz, ez dira hain trebeak eta hain hilgarriak (pilulak, inhalazioak, kolpeak hil edo bizikoak ez diren parteen...), behar bada, larrialdi handiko egoera batean laguntza eta zainketa iritsiko den itxaropen tasa handiagoa dutelako

Gizonezkoek indarkeria identifikatzeko duten zailtasuna: maitasunaren kudeaketa

Ez da harritzekoa, horrelako giroetan jaiota, gizonezkoen indarkeria zer den identifikatzeko eta bereizteko eragozpenak izatea. Horrek zailtasunak eragiten ditu gero norberaren edo besteen indarkeria identifikatu, arbuia, salatu... ahal izateko. Gure taldeetatik igaro diren gizonei galdetuta, heren batek txar fisikoa jasan du etxean bere kidekoen aldetik. Txar emaeleak gurasoak izaten dira askotan, eta amak kasuen erdian baino gehiagotan.

Egoera horretan, gure seme-alabei arrisku garrantzitsu bat sortzen zaie maitasuna zer den eta indarkeria zer den argi eta zorrotz bereizi ahal izateko garaian, maitasun eta indarkeria mezuak aldi berean, elkarren parean edo tartekaturik jasotzen baitituzte askotan. Erraza da, beraz, ikuspegi lauso samarrak izatea maitasuna indarkeriatik edo maitasun gabeziatik bereizten duen muga zehazterako orduan. Zenbaitetan indarkeriazko keinuak maitasun-keinu modura, maitasunerako bide modura edo ukatutako maitasuna berreskuratzeko eredu modura azaldu izan zaizkie.

Horrelakoetan zail samarra izaten da mutilak indarkeria aztarnarik ez txertatzea bere adimean eratzten ari den maitasun-kontzeptuan. Horrek erraztu egingo du beste pertsona batekiko maitasunezko harremanetan jokabide desegokiak edo gogorak agertzea, horrelako jokabideak izatea «sasi-eskubide» moduko zerbait bailitzan; izan ere, horixe bizi izan baitzuen berak etxean maitasun modura, eta, askotan, honelakoak ere entzun behar izaten zituen: «Zure onerako da»; «Maitatzen zaitudalako izan da»; «Maite zaituenak, negar eragingo dizu»...

Indarkeria zuzenean jaso ez duten gizonen artean, gehienak indarkeria horren lekuko izan omen dira, era batera edo bestera, haurtzaroan eta gaztaroan: lagunen etxeetan, eskolan edo ikastetxean, auzoan, kalean, kiroleko aldageletan, kirolean bertan, tabernetan, iragarkietan, filmetan, liburuetan...

Horregatik oso garrantzitsua da arretaz begiratzea ea zer ulertzen dugun maitasuna eta nola helarazten dugun gure haurrak hezterakoan; izan ere, indarkeriatik, kanpoko mugetatik, mehatxu edo xantaietatik, baldintzetatik... guztiz banandurik heldu behar baitzaie, eta inolako desberdintasunik gabe neska ala mutila izan. Gure maitasuna agertzerakoan, era berean erakusten al diogu gure alabari edo gure semeari?

Oso onuragarria izango litzateke maitasuna inolako mugarik gabe eraiki eta adierazi ahal izatea eta, aldi berean, maitasunari eragozpenik eragingo ez dioten balioak eta jarrerak pixkanaka eta arreta handiz ezarri ahal izatea. Hots, interesgarria izango litzateke maitasuna generoa, maila, moda, estiloa, joerak, itxurak... bezalako fenomeno sozial eta kultural guztien gaintetik, edo gorputza, sexua... bezalako fenomeno pertsonalen gaintetik ziurtatuko bagenu; eta pertsona bat jaio izana aski izatea guk hura baldintzarik gabe maitatzeko.

Ohiko ondorioak emakumeengan

Oro har, eta xehetasun handietan sartu gabe, gizonezkoen ohiko rol bortitz eta hierarkikoak asimilatu eta betetzeak emakumeenganako zapalkuntza ekarri ohi du, zenbait motatako eraginak dituen zapalkuntza; besteak beste, eragin horien hiru alderdi eta arlo zabal nabarmen-tzen dira, oso estilo, ñabardura eta xehetasun desberdinetakoak, labur-labur honela sailka daitezkeenak:

1. MAILA INTELEKTUALEAN:

Batez ere, emakumeek behar adinako maila intelektuala edo guk daukaguna ez dutela pentsatzeko joera dago; zenbait alderditan gu baino gutxiago direla; emakumeak ez daudela gauza askori aurre egiteko prestatuta, gu gauden bezala edo guk egon beharko genukeen bezala; emakumeek ez omen dituzte behar diren gaitasun guztiak gizonezkook bizitza publikoko esparru askotan eguneroko aurkitu ohi ditugun arazoekin borrokatzeko, eta ez omen zaizkie interesgarriak ere iruditzen; arazo horietan esku hartzeko kezkarik edo jarrerarik ere ez omen dute erakusten, ez omen dute egiten jakingo, ez omen dute ulertuko zer-nolako arazoa den, zer esaten dugun edo zer dugun esku artean...; emakumeen gai «serioei» buruzko ikuspegia ez omen da behar adina «serioa» edo «zorrotza», ezta «zehatz, zientifiko edo zuzena» ere...; gauzak ikusteko «aldarte» emozional edo sentimental hori sartuko omen zaie eta arazotik urrundu egingo omen gaituzte...; ikuspegi hori etxeko gaietarako edo gai pertsonal edo pribatuetarako omen da, ez «egiazko» arazoetarako; eta abar.

2. MAILA FISIKOAN:

Oro har, emakumeak pertsonak baino gehiago gauzak direla dioten joera da, eskema mental horrek bere baitan dituen ondorio sakon guztiekin (konplimentuetatik hasi eta hilketara arte). Joera horren arabera uste ohi da emakumeak hemen, planeta honetan, halabeharrez jarritako pertsonak direla, guri bizitza errazagoa eta atseginagoa egiteko, gure premiei erantzun eta premia horiek beren zerbitzuekin betetzeko, guregatik den-dena utzi, gure bizitza eta helburuetara moldatu eta etengabe gure ondoan egoteko prest dauden pertsonak, guk bizitzako lan garrantzitsuetan dihardugun bitartean. Baldintzarik gabeko aliatu modura ikus ditzakegu, eta guri dagokigun guztia gustagarri izango zaiela, atsegingarri, erakargarri, liluragarri pentsatu... eta fisikoki hor guretzat egonez erakutsiko dutela. Jabetza modu hori gutxitan lotu ohi dugu emakumeak pertsona autonomoak, independenteak, askeak, ekintzaileak, automotibatuak eta osoak (gu gabe) direla pentsatzearekin.

3. MAILA MATERIALEAN:

Ez da zaila aurreko horren guztiaren ondorio modura gizonok emakumeen gaineko eskubideak, abantailak, baimenak edota askatasunak ditugula uste izatea. Gehiago eta hobeak garelako eta gauza garrantzitsuenak hobeto egiten ditugula eta emakumeek lagundu egin behar ditugula pentsatzeak, guri dagokigun guztian lan, gizarte, politika, kultura eta ekonomia arloetan balioetsi eta ordaintzen direnetan emakumeak baino gehiago merezi dugula pentsarazten digu. Horrek desoreka handia eragiten du harremanen alorrean; boterearen esparrua eta gizonezkoen nagusitasuna eroso dabilta eta emakumea urrundurik edukitzen da dagozkion eta sistematikoki gizonezkoentzat izaten diren ekonomia, politika, lan, gizarte... onuretatik.

Uste oker horiek guztiak hezkuntzaren bitartez heldu zaizkigu, mutil gehienok gizon «egiteko» prozesuan jasan behar izan dugun gizonezkoen sozializazioaren barruan. Barneratzen ditugun rol sexistek finko eusten diete ideia horiei geure buruan eta emakumea pertsona modura izan daitekeenaren ideia nahiko eskasa sorrarazten digute.

Baina emakumeekiko bizipen zapaltzaile horiez gain, gure maskulinitate bortitzak emaitza zuzenak ere baditu emakumeen bizietan, oso gertaera larriak eraginez. Hilketak izango litzateke gorenko maila, guk gizonezko izatea ulertzeko modu bereziaren ondorioz jasan behar izaten dituzten ekintza ankerren artean: tratatu txarrak, irainak, jipoiak, bortxaketak, umiliatzeak, zigorrak, bahiketak... Hori, besterik gabe, onartezina da. Horrek ezin dezake gehiago iraun. Aukerak behar ditugu gure gizentasuna ulertzeko modua aldatu ahal izateko.

5. GIZONEZKOTASUNARI BURUZKO OHIKO EREDUEKIKO AUKERAK. BALIZKO ABIAPUNTUA: GIZONEZKOOK EZ GARA, BEREZ, ZAPALTZAILEAK

Beste pertsona batzuk zapaltzea ez dago gure izaeraren barruan; aitzitik, lehenbizi gure «gizentasuna» eta gero gure «maskulinitatea» garatu, geureganatu, eraiki eta sozializatzeko prozesuaren barruan dago (R.W.Connell, 1997, Madril.) Horrek ez du, inola ere, gutxitzen edo murrizten gure ekintzekiko dugun erantzukizuna eta ez du eraginik ere erantzukizun horretan. Gure jokabideek gainerako pertsonengan eta ingurunean dituzten ondorioen erantzule zuzenak gara. Hori dela-eta, behar-beharrezkoa da aurrerago proposatuko dugun eran lan antolatu eta sistematikoa egitea, gure maskulinitate eta gizentasun suntsitzaileak deuseztatu, zapaltzeko dugun baldintzapena eta joera alde batera utzi eta berdintasunaren, errespetuaren eta justiziaren bide berrietan abiatu ahal izateko.

Oso baliagarria zaigu erantzukizuna eta erruduntasuna bereiztea. Errudunen bila ari bagara, ez diegu gizonei beren zapalkuntza desegiteko antolaketetan lagunduko, ez diegu arazoaren muinari aurre egingo, eta ez dugu arazoa bera ere konponbide eraginkor eta iraunkorretara bideratuko.

Gizonekin lan egiterakoan, badugu kontuan hartu beharreko ezberdintasun bat emakumeekiko. Emakumeak desberdintasuna eta tratatu txarra gauzatzeko baino gehiago beren gain hartzeko baldintzatzen eta trebatzen dituzte; gizonok, berriz, tratatu txarra ontzat hartzeko baino gehiago gauzatzeko hezten gaituzte, gure gizentasuna eraikitzeko zati garrantzitsu modura; baina horrek

berarekin dakar rol gogor horiek onartzea eta horien barruan nik neuk ez dut benetan zoriontsu den gizonik aurkitu.

Bestalde, gizontasun kontzeptuaren barruan dago jabetzaren gaitasuna, eskubidea eta betebeharrak, bai jabetza materialak izatekoa bai emakumearen beraren jabe izatekoa ere, auto-estimua-ren eta nortasunaren oinarritzko ardatz modura; eta jabetza hori besteen aurrean indarkeriaz defendatzea, zilegitzat, gizabidetsutzat, kementsutzat eta ohorezkotzat jo behar dela ulertzera bultzatu gaituzte.

Gure gizartea kutsatzen duen genero-indarkeria gehiena maskulinitatearen kontzeptu oker horretatik datorrela uste dugu. Ideologia zentzugabe hori apurtzea lortzen dugunean hasi ahal izaten dugu horrelako kalteak eragiteari uko egiten. Baina horretarako ezinbestekoa da gure zapalkuntzaren benetako jatorria argi eta garbi ulertzea eta **gizaki bakar batek ere ez lukeela beste gizakirik zapalduko aurretik zapalkuntzarik jasan ez badu** premisatik ez aldentzea.

Rolen bereizketa horrek ez du zerikusirik gizon edo emakume izatearekin, baizik eta sistema kapitalistak lortzen dituen onurekin pertsonen arteko bereizketa sexualaren bitartez eta banaketa horri esleitutako botere-harremanen eta erabakitze ahalmenearen banaketa interesatuaren bitartez, baita beste zapalkuntza batzuen bitartez ere, pribilegioak zuzenean gizonei esleituta.

Hasieran zaila izan daiteke hori erabat ulertzea, ez baita sexismoarena jasaten dugun kutsadura bakarra. Nahasketa ugari datorkigu beste zapalkuntza batzuen eskutik ere: klasismoa, arrazakeria, adultismoa... Beren eginkizuna betetzen dute horretan guztian eta lausotu edo korapilatu egiten dute sexu/genero bereizketaren ikuspegi orokorra, aldi bereko zapalkuntza-mordoiloa bilakatuz [Chafetz, 1988:5. «Weeks», 1998:46, Virginia Maquieia D´Ángelo-renean; «Género, diferencia y desigualdad». Feminismos: debates teóricos contemporáneos; 2001].

Hogei urteko mutil gazte batek, adibidez, berrogei urteko emakumea baino ahaltuagoa dela uste izan dezake, eta berrogei urteko gizonaren aurrean, berriz, mutil horrek berak kontrakoa pentsa dezake, adina dela-eta gazteriak jasaten duen zapalkuntzarengatik. Era berean, gizon beltz batek emakume zuria baino gutxiago dela pentsatuko du. Emakumea maila ertainekoa bada, al-diz, langile mailako mutil gazte hori (ezjakina, heldugabea,...) menderatzeko joera izan dezake... Kasu guztietan, bere burua besteena baino gehiago dela uste duen pertsona aurkitzen dugu; hor hasten da zapalkuntza gauzatzeko aukera. Gizartearen, mailaren, adinaren, erlijioaren, etniaren, status sozialaren... araberrako botere-banaketa gertatzen den bitartean, eta gure buruan pertsonaren bat beste pertsonaren bat baino gutxiago izatearen uste faltsu eta kaltegarria finkaturik dugun bitartean, zapalkuntzak iraun egingo du.

Kontua da zapalkuntzan oinarritutako gizarte horietan oso jende gutxi -ia inork ere ez-aukera dezakeela askatasunez. Gizonezkoek beren zapalkuntza onartzeari bete-betean uko egin eta berehala emakumeak zapaltzeari utz diezaioten eta gainerako bidegabekeriak ezaba ditzaten, gizartearen egituretan eragin behar da, zapalkuntza horiek sustraituak, instituzionalizatuak eta legitimatuak dituzten gizarteko egituretan, hain zuzen ere. Ikus dezagun zer egin daitekeen hasteko.

5.1. ZENBAIT IRTENBIDE BEGIEN BISTAN: OHIKO MASKULINITATEAREN SUNTSIKETA. BALIZKO BESTE MASKULINITATE BATZUK

Zorionez, zapalkuntzak eragindako kalteen ondorioek ez dute zertan betirako iraun; ez dute zertan ezinbestean guregan gelditu. Kalte horiek irtenbideak dituzte, eta irtenbideak dituzte, hala-

ber, horien bitartez barneratu dizkiguten aurreiritziek, jarrerak, joerek eta uste okerrek. Hori edozein gizakiarekin gerta daiteke; zapalkuntzak pertsona batengan ezarri eta utzi dituen az-tarnak barruan ongi josirik dauden arren eta batzuetan gaindiezinak iruditzen zaizkigun arren, badugu hori guztia hobetu eta aldatzen joateko modua ere, elkarri kaltea egiteko katea hautsi eta batak bestea eta ingurukoak zapaltzeari uzteko modua, alegia. Nola? Esan dezagun bi modu nagusi ezagutzen ditugula:

5.1.1. Buruan txertatu dizkiguten informazio eta hezkuntza okerrak, eta horiek eragindako jarre-rak eta ondorioak baliogabetzea. Sentimenduen kudeaketa.

5.1.2. Informazio eta hezkuntza egokiak, eta horretarako behar diren egiturak, bermatzea, eta berdintasunaren biderantz gidatuko gaituzten askapen-politikak diseinatzea.

5.1.1. Eragindako kalteak sendatzeko ahalmena. Sentimenduen kudeaketa

Oso garrantzitsua da ulertzea sentimenduen kudeaketa egokiak eta ez sentimenduen itotze hutsak alde handia egingo duela pertsonak eraikitzerakoangure kasuan egungo eta etorkizuneko gizonak. Lehiaketaren eta gogortasunaren gizarterako prestatzeko sentimenduak itotzeari buruz esan izan zaigun gehienaren ondorioz, gizon askok arazo ugari izan ditu, ez baitute jakin zer egin beren sentimenduekin eta heldu izateko modu egokia sentimendu horiek ez erakustea, haiei eustea eta ezabatzea dela ulertu dutelako. Horrek milaka bizitza eta harreman hondatu ditu.

Kaltea (fisikoa, ahozkoa, emozionala, psikologikoa...) egiten den unean, giza adimenak, kaltea ito beharrean guztiz bestelakoa behar izaten du: horretaz hitz egitea, norbaiti esatea, adieraztea. Gertatu dena esan ahal izatea, gertatutakoa kontuan hartu eta egokiak diren garrantzia eta lekua ematea, eta gertakari horietan guztietan bizi izandako sentimenduak adieraztea. Gizaki guztiek horixe egin behar lukete eta horixe egin nahiko lukete osasun mental eta fisiko egokia eduki ahal izateko. Gure sentimenduak itotzeak, berriz, gure gizatasuneko beste edozein alderdi bezain gu-rea den atala ukatu eta itotzea ekartzen du.

Norberari gertatutakoa kontatzea guztiz naturala da inor hori ez sentitzeko edo adierazteko bal-dintzatu baino lehen (horretan datza gizonekoen baldintzapena). Horrela izaten da emozioak eta sentimenduak ez adierazteko baldintzatu dituzten pertsonekin ere, baldin eta sentimenduen ku-deaketari buruzko hezkuntza egokia eskaintzen bazaie. Antza denez, horixe da gizakien berezko jokabidea kalte egiten digutenean: batak besteari jaramon egin eta emozio horiek, isilean gorde edo ito beharrean, era egokian adierazi ahal izatea.

Hala ere, presio izugarria jasan ohi dugu denok, gizon eta emakumeek, emozio horiek ez adierazte-ko, gizalege txarreko sintomatzat hartzen baita, baina gizonak gara baldintzapen gogor hori gehien jasaten dugunak. Guri, benetako «gizon» modura hezteko ahalegin horretan, lehendabizi ukatzen digutena sentitzeko ahalmena da. Horren ondorioz, a posteriori jasotzen ditugun kalte eta aurreiri-tzi guztiak gizonetzkoen baldintzapenaren bitartez ikasi, barneratu eta geureganatzen ditugu:

- ez negarrik egitea («ahul hutsa zara», «oiloa», «maritxu halakoa!»...);
- ez kexatzea («ez da ezer izan, altxa zaitetz, belaxka halakoa!»...);
- ez beldurrik izatea edo dardararik egitea («Porta zaitetz gizonak bezala! Ez zaitetz koldarra izan!»...), eta abar.

Emozio horiek kanporatu ahal izanez gero, gure arteko portaera erabat aldatzen da, eta gai gara ez bakarrik gu geu eta gainerakoak hobeto tratatzeko, baita geure buruaz eta gainerako pertsonen ondo pentsatzeko ere.

Gaizki ikusia dago gure emozioak eta sentimenduak adieraztea, «oinordetza kulturalaren» ondorioz debekatu edo gaitzetsi egin baita horrelakorik egitea. Horretarako arrazoi bakarra dago, aurreiritzi bat; alegia, halako adierazpenak egitea beti ekintza negatiboa, aldrebeskeria edo ohi-tura txarra dela eta ahulezia, gaizki hezitako pertsona edo pertsona manipulatzaileria izatearen erakusle dela dioen aurreiritzia, hain zuzen. Neskatoak eta, batez ere, mutikoak barregarri uzten dituzte konponbide horretaz baliatzen ahalegintzen diren bakoitzean eta era askotara berriro egiteko gogoia ere kentzen diete:

- irainaren bitartez («Begira! Berriro ere negarrez! Ez al dizu lotsarik ematen?»);
- xantaiaren bitartez («Negar egiten baduzu, postrerik, jostailurik, telebistarik... gabe geldituko zara; ez dizut hitz egingo; zigortu egingo zaitut edo nire maitasunik gabe utziko zaitut... ez haserarrarazi aita, okerrago izango da eta... Esan egingo diot...»);
- indarkeriaren bitartez (belarrondokoak joz... «Orain izango duzu, bai, negar egiteko arrazoi... tori! ea behingoz isiltzen zaren...!»), eta abar.

Gure kastrazio sentimentalaren adibide txiki bat jartzearen, esan dezagun negarra baliabide eraginkorra dela nazioarteko psikologo askoren eta hainbat terapiaren iritziz, eta eraginkorra izateaz gain beharrezkoa ere badela egoera emozional edo atsekabe gogorra eragin diguten prozesuetatik «sendatzeko»; kultura gehienetan, ordea, emakumezkoetan baino gehiago zigortzen da gizonzkoetan. Horregatik, gizonok zurrunagoak, ezkorragoak, gogorragoak eta itxiagoak izaten gara eta emakumeak malguagoak, irekiagoak, baikorragoak, zenbait gairen aurrean.

Guk, gizon bezala, badugu erantzukizunik geure burua sentimenduen kudeaketa zuzenean berriz hezteko lanean, gure berezko sentitzeko gaitasuna berreskuratzeko eta sentimendu horiek azalerratzeko, onarpenetik abiatuta eta ez ukapenetik, eta guk horrela jokatzear gain gure seme-alabak ere horrela hezi beharko genituzke, heziketa emozional osasuntsua eta egokia izateko. Era horretan, errespetutik, berdintasunetik eta maitasunetik heldu ahal izango ginateke besteengana, izutzen gaituzten eta ihes eginarazten diguten mundu afektibo/sentimentaleko esparruen beldur izan gabe: etxeko esparrua, zainketa esparrua, harreman afektiboen esparrua...

Gure esperientziatik, sentimenduen kudeaketa egoki hori funtsezko lana da gure maskulinitatearen **muin gogorra** (gure izaera zapaltzailea, erasotzailea, bortitza, gogorra, larderiatsua...) desegin eta gure gizatasun osoa baita, aldi berean, gure zapaltzaile rolei eta rol horiek gauzatzeari uko egitera gehien bultzatzen gaituena ere berreskuratzeko. Hots, gure barrenarekin, gure bihotzarekin, geurekin harremanetan egon ahal izateko.

5.1.2. Informazio zuzena eta hezkuntza egokia bermatzea. Gizon taldeak eta heziketa

¿Qué entendemos por información correcta?

Alde batetik, gu bizi garen gizarte zapaltzaile/esplotatzaile honetan, arpilatze ekonomikorako behar dituzten pertsonak izan gaitzen, ezkutatu, hutsaldu edo aldatu egin diguten **informazioa**, eta gizon-taldeetan egindako lan interesgarriaren ondorioz berreskuratu ahal izan duguna; feminismoak ikusezina zena ikusarazteko egin duen lana ahaztu gabe. Informazio hori honako **lau (sic*)** puntu hauetan jaso ahal izango genuke, labur-labur:

5.1.2.1. Gizonok geure buruaz egiaz dakiguna.

5.1.2.2. Maskulinitateari buruz egiaz dakiguna.

Gure ustez oso garrantzitsua da informazio horren berri ematea gizon-taldeetan, haien izaera edozein dela ere: garapen pertsonalerako taldeak, norbera ezagutzekoak, gogoetarakoak, terapiak edo parte-hartze sozialekoak. Ezinbestekoa da, gure iritziz, gertaeren beste bertsio bat

ezagutzea, eta gure izaerari eta nortasunari buruzko beste ikuspegi hori egunero erabiltzen has-
tea, gure gizatasun eta maskulinitate sexista eta zapaltzaileak desegiteko, eta norberak erabaki
dezan, inposatutako rola alde batera utzita, nolako pertsona izan nahi duen.

5.1.2.1. GIZONOK GEURE BURUAZ EGIAZ DAKIGUNA

Ondorengo baieztapen hauek gizon-taldeetan bizi izandako esperientzietan oinarritu ditugu,
eta, era batera edo bestera, gizon horiek beraiek berretsi dituzte. Aurreko gaietan bezala, ez da
ezinbestekoa denok ados egotea; aski zaigu orain arte ez bezalako ikuspegia azaldu eta edozein
motatako gogoeta egiten laguntzea.

Dena ondo joatea eta gauzak zuzen egitea gustatzen zaigu

Zapalkuntzaren atzaparretan erori aurretik, gizonok, edozein gizaki bezala, adimentsuak ginen; prest
geunden beste edonor errespetu osoz tratatzeko; mundua osoa eta zuzena izatea maite genuen, gi-
zarte berdintsu eta inpartzial baten aldeko pertsonak ginen. Prest geunden era egokian lan egiteko,
gizon eta emakume guztion bizitzak hobetzeko. Mundu hobe batean eta mundu hobe baten alde par-
te hartu nahi genuen, gizon eta emakume guztiekin bizimodurik on eta duinena -gure baliabideen eta
informazioaren arabera- partekatze asmo sendoarekin. Amets handi eta ederrak genituen.

Ahal izan dugun bezain trebe eta ditugun baliabide urriekin ahalegindu gara jasaten ditugun zail-
tasunek eta eragozpenek beste inor zipriztindu edo nahas ez dezaten, askotan beste zerbait dirudien
arren. Zapalkuntzak baliogabetu zizkigun ahalmenak berreskuratzen goazen heinean, gehiago hur-
biltzen gara egoera horretara.

Gainerako jendeaz arduratzen gara

Gure rola kontrakoa egitera behartu baino lehen, gainerako jendeaz arduratzea gustatzen zit-
zaigun, adeitsuak eta lagunarte zaleak izan nahi genuen, zapalkuntzarik jasan ez duen beste
edozein gizakik bezalaxe. Zenbat eta hobeto ezagutu eta ulertu jendea, orduan eta gehiago mait-
tzen dugu jende hori. Pertsonen artean harremanak izateko berezko era, errespetuarena eta
maitasunarena dela uste dugu eta horixe da nahi duguna. Beren buruez eta beren bizimoduez
pozik eta harro dauden emakumeak nahi ditugu. Umeak zaintzen uztea nahi dugu; beren ahal-
men eta gaitasun guztiak ezagutzen eta beren bidea egiten ere utzi nahi diegu, ziur baikaude
horixe izango dela onena neska-mutil guztientzat. Besterik gabe pertsonak izateaz harro dauden
gizonak, elkartasuna agertzeaz eta bizitzarekin konprometiturik egoteaz harro daudenak, nahi
ditugu. Besteek gutaz arduratzea eta hori erakustea ere gustatzen zaigu. Azken finean, maita
gaitzaten nahi dugu; besterik gabe, gure kidekoak maitatu eta haiekin elkaturik egon nahi dugu.
Eta, sexua? Zentzuzkoa denean; ez beti.

Mota guztietako sentimenduak sentitzen ditugu

Gure sentimenduetarako sarbidea galdu baino lehen, mota guztietako emozioak senti genitzakeen,
pertsona bakoitzarengan desberdinak izaten diren arren. Diren sentimendu guztiak nabaritzeko
gure ahalmenak eta gure nerbio sistema osoak hor jarraitzen dute, berriro ere lehenbailehen era
egokian funtzionatzen hasteko zain. Bizitzak eta bizitzako izakiek eta gauzek hunkitu, txunditu eta
liluratu egiten gaituzte, eta nahigabetu, ikaratu edo muturtu ere egiten gaituzte, beste edozein
pertsonari gertatzen zaion bezala; kontua da biziki baldintzatu gaituztela sentimenduak kudeat-
zeko moduan. Irrika bizian gaude emozio guztiak nabaritzeko gaitasun osoa berreskuratze-
ko, emozio horiek modu lasai, adeitsu eta onuragarrian adierazi ahal izan eta besteen sentimenduak
ere era berean jasotzen jakiteko.

Bizitzaz blai gaude

Sakonki maitatzen ditugu gauza ederrak: ongi eraikitako harresia, froga matematikoa, une musikala, marrazki ederra, lore polita, ahots eztea, maitasunezko poema, esku leuna, keinu sentibera. Mugitu egin nahi dugu, jolastu egin nahi dugu, erabat bizi nahi dugu, sortu egin nahi dugu, eraiki egin nahi dugu, gozatu egin nahi dugu. Eta mundu guztiarekin, harmonian, egin nahi dugu hori. Izugarri maite ditugu erronkak, gure mugak gainditzen dituztelako eta hesiak hausten dituztelako. Gu guztiok eta gutako bakoitzak ametsak eta itxaropenak ditu, eta horiek betetzea, ez da ametsa, helburua baizik. Bizirik gaude, bizi-bizirik, eta horrela bizi nahi dugu gainerako pertsonekin eta gure bizitza osoan. Ez zaizkigu muga zentzugabeak gustatzen inorentzat, ezta inork horrelako mugak sortzea ere.

Arrazoi asko ditugu pozik egoteko

Bizi garen sistema zapaltzaileak zentzugabekeria ugari eginarazi digun arren, beste gauza askotaz harro ere egon gaitezke: zerua ukitzen duten eraikuntzak eraiki ditugu, eta gure inguruko lurra antolatu eta gure alde ere jarri dugu. Lanean erabiltzen ditugun tresnak asmatu ditugu. Bi herrialde bereizten dituzten itsasoen gainean zubi erraldoiak eraiki eta itsasoaren azpitik ere elkartu ditugu. Bizitzak salbatzen dituen kirurgia sistema garatu dugu, baita munduko bi muturretan bi pertsona komunikatu ahal izateko tresnak ere. Espazioan hegan ibiltzea eta bizitza sortu dugu gure esku-hartzerik gabe iraupenik izango ez zuen lekuetan... Gure aztarna utzi dugu lurrean eta pertsonak bizi ahal izateko planetarik onena izatea espero dugu. Bihotz-bihotzez nahi dugu lurra zaindu, babestu eta lurreko baliabideak gizaki guztien artean gizalegez banatzea. Horrek zinez zoriontsu egingo gaitu.

Gutako bakoitza bakarra da, errepikaezina eta ordainezina

Gure irribarreak, malkoak, barreak, abestiak, gure maitasunak eta ametsak munduari oparitzen dizkiogun edertasunak dira. Gure presentzia bera ere garrantzitsua da munduarentzat, oraindik ulertzeko moduan ez bagaude ere. Gure inguruko gizon eta emakumeen bizitzetan eragiten dugu, eta ez gure ekintzen bitartez bakarrik, baita gure gogo eta borondate onaren bitartez ere. Bizitza bakoitza ordezkaezina da eta inoiz errepikatuko ez den zerbait sakratua. Pertsona bakoitza, maita dezaten eta errespetatu dezaten merezi duen norbait da eta horrekin konpromiso sendoa dugu. Planeta honetako izaki bakoitzaren existentzia ospatzeko eta horien bizitza ahalik eta modurik zuzen eta egokienean iraunarazteko irrikan gaude.

Oso desberdinak gara eta, aldi berean, oso antzekoak

Tamaina guztietakoak gara, hainbat koloretakoak, eta adin guztiak ditugu; milaka hizkuntzatan hitz egiten dugu eta oso gustu desberdinak ditugu. Eta den-denok gara gizonak, gizon osoak, bakoitzak bere izateko era berezia badu ere, aldezturik ezer bete beharrik izan gabe.

Eta, era berean, nahi bezain desberdinak izan gaitezke. Nahi bezain langile gogorak edo erretiratu lasaiak izan gaitezke. Edo guk nahi bezain gozo eta samurrak. Edo guk nahi bezain ausart eta inspiratzaileak. Guk nahi bezalako gizonak izan gaitezke eta guk ahal bezain onak. Ez dugu mugarik. Bihotz handikoak gara denok eta bihotz horretan gorde nahiko genituzke ezagutu ditugun pertsona guztiak, haien izaera gorabehera. Gutako inori ez litzaioke gustatuko gure ezaugarri bakar bat ere beste inori kalte egiteko erabiltzea.

Aurrerantzean nahi dugun bizimodua aukera dezakegu

Orain arte egin duguna edonolakoa izan dela ere, gizarteak esaten diguna esaten digula, zapalkuntza barneratu dutenek gutaz esango dutena gorabehera, beti aukeratu ahal izango dugu gure

bidea. Gure rolek eta rol horien babes-egiturek gure bidea oztopa dezakete, baina aukeratzeko ahalmena, gure bidea erabakitzeko ahalmena, ezin digute kendu. Nahi dugun bizimodua lortu ahal izateko, oztopoak gainditu eta denok elkarrekin lan egin beharko dugu, bai, baina gure bizimodua aukeratzeko gure kontua da, ez beste inorena. Eta, egia esan, tristeagoa da ahaleginik ez egitea, ahalegin horretan huts egitea baino. Gure esku dago eta guk egindako ahaleginaren esku gure amets horien guztien bila abiatu eta amets horiek betetzeko elkarri laguntzea. Baina badago ukalezina den zerbait: gauzak nola nahi ditugun erabakitzeko ahalmena gurea da, gurea besterik ez. Hori guztia emakumeekin batera erabaki ahal izatea gustatuko litzaiguke; eta horrela izatea komeniko litzaiguke, munduaren ikuspegi osoa izan nahi badugu.

Dirudiena baino lorterrazagoa da

Gure esku dago maite dugun jendearekin egon ohi garen lekuan bizitza berria eta duina sortzea; gure esku dago denboraren zapalketari muzin egin eta, gure rolek bestelakoa esan arren, bizirik gaudenaren edertasuna gogorarazten diguten gauzak egitea. Gure esku dago zapuzten gaituzten lanak aukeratu ordez, atsedean hartzen eta maitatzen ditugunekin egoten utziko gaituzten lanak hautatu eta sortzea. Gure esku dago gure seme-alabak behar bezala zaintzea edo seme-alabarik ez izatea aukeratzeko eta oso-osorik gizon izaten jarraitzea. Gure esku dago gure helburuak aukeratzeko eta horiek betetzen tinko ahalegintzea, beste inori kalterik egin gabe. Gure esku dago geure burua zaintzea eta bizitza luzeagoa, aberatsagoa, osasuntsuagoa, zoriontsuagoa izatea eta gehien maite ditugun pertsonekin bete-betean partekatzea... Gure esku dago maite ditugunak eta adiskide minak inguruan ditugula bizitzea, baita gure bihotzaren erdi-erdian nor ipiniko dugun aukeratzeko ere (gizon bat, bi... emakume bat, bi... adiskideak, seme-alabak, senitartekoak...). Pertsona guztiei bezala, guri dagokigu bete-betean bizitzea, beste inori legez dagokiona kendu gabe.

Gizonezkoen + emakumezkoen antolakuntza

Adierazitako guztia emakumeekin egin nahi dugu. Guztiz pertsona azkarrak eta arlo guztietan trebeak direla uste baitugu, guztiz duinak, ausartak, egokiak eta ahaltsuak direla, eta giza egoera guztietan elkartasuna agertzen dutenak; eta gai honetan, emakumeekin elkartuta lan egitea gustatuko litzaiguke.

Hori horrela izan dadin, antolatu egin behar dugu, batez ere, eta hasteko, honako bi eremu hauetan:

- Gizonok geure artean antolatu behar dugu, rol sexistak alde batera utzi eta rol horiek eragin dizkiguten kalteak konpontzeko; eta,
- Gizonok emakumeekin antolatu behar dugu, generoaren eta sexismoaren sistema zapaltzailea deuseztatzeko.

Oso garrantzitsua iruditzen zaigu emakumeen aitzindaritza sendotzea, eta, aldi berean, gizonezkoen aitzindaritza handiagoa izatea gure ekintza-ildo horietan, gizon eta emakume guztion artean ez diezaiegun kalte gehiago eragin, ez gizon-emakumei, ez aita-amei, ez maisu-maistrei, ez lagunei, ez politikariei, ez beste inori.

5.1.2.2. MASKULINITEARI BURUZ EGIAZ DAKIGUNA

Aurreko atalean ikusi dugun bezala, sexismoa sexuen arteko desberdintasun biologikoa oinarritzat hartuta eraikitzen da; badirudi bizi garen gizarte sistema honetan izan litezkeen bi genero bakarretan, emakumezko eta gizonezkoetan, pilatutako pertsona guztiak elkarren antzekoak direla edo antzekoak izan beharko luketela, eta arau horietatik kanpo gelditzen diren guztiak hutsegiteak direla. Maskulinitate hegemonikoa, desberdintasun hori –eta sistemak ateratzen

dion onura izugarria- legitimatzeko sorturiko ezaugarri eta jarrera sorta da. Maskulinitateak gizonak bete eta garatu behar dituen ezaugarriak eta jarrerak inposatzen ditu; hain zuzen, emakumeak zapalduta edukitzeko sorturiko rolek agintzen dituzten ezaugarriak.

Guk ez dugu onartzen pertsonak banatzen dituen genero-desberdintasun kualitatibo hori, eta are gutxiago jendea sailkatzeko, hots, zentzuzko oinarriak ez duten, baina bereizketak, banaketak, liskarrak eta bidegabekeriak eragingo dituzten hierarkiak eta sailketak inposatzeko erabiltzen denean.

Ez dugu onartzen desberdintasuna («bi sexuen» arteko antzekotasunak baino nabarmen txikiagoa), aldea edo ezberdintasuna azpimarratzeko eta gu elkarrengandik urrundu, hierarkizatu edo aurrez aurre jartzeko erabiltzen duten metodologiak. Beraz, mota horretako maskulinitateek ez dute, gure ustez, inolako zentzurik, sexismoa iraunaraztea eta bi generoak bereizita eta elkarren aurka edukitzea baino ez baitute lortzen.

Gizarteek testuinguru horretan eskaintzen dizkiguten gizon eta emakume ereduak ez digute balio. Pertsona izateko eredurik ez dagoen bezala -norbera baita norbera izateko eredurik onena-, ez dugu uste gizon izateko eredu estandarrik dagoenik, ezta egon behar lukeenik ere. Gizon ala emakume, norbera da gizon, emakume eta, azken finean, pertsona izateko eredu bakar eta errepikaezina.

Sistema horretatik kanpo, zentzurik izango al luke beste mota bateko maskulinitateren batek? Oraingo ez zaigu ez zentzuzkoa ez beharrezkoa iruditzen gizonak eta emakumeak biologikoak -jakina, helburu biologiko duinak- ez diren alorretan bereizteko joera hori. Orain arte sexu bat bestearen gainean jartzeko erabili da. Horrek ezin du horrela jarraitu.

Beharrezkoa ote da maskulinitatea zapalkuntzarik gabeko egoera hipotetiko batean? Ez dugu uste. Garrantzitsuena eta oinarrikoena, eskubide guztien subjektu, pertsona izatea izango litzateke. Gizon edo emakume izatea gertaera hutsa izango litzateke, ilehoria edo beltzarana izatearen pareko berezitasun bat; inola ere ez litzateke eskubideak, baldintzak, onurak, kalteak... banatzeko oinarritzat hartuko.

Badago gauzak egiteko modu hoberik. Ziur gaude horretaz..

6. OHIKO MASKULINITATEETATIK KANPO BALIZKO ZENBAIT JARRERA: INDARKERIATIK ALA MAITASUNETIK? GATAZKEN KONPONBIDEA

Azter dezagun jarraian zer aukera eskaintzen digun gizonezkoen baldintzapen nahaspila horretatik askatzeak.

NON IPINIKO ZAITUT? NIRE AURREAN ALA NIRE ALBOAN?

Galdera horrek islatuko luke gizon askok, batez ere agintaldi patriarkal hegemonikoaren pean jaio eta hazi garenok, bizitzan dugun jarrera. Orain arte harremanetan ikusi duguna zeharkatu ondoren, gizonok honako galdera hau oinarritzat duten bizipenak izan ohi ditugu:

Non zaude/non ipiniko zaitut, nire aurrean ala nire alboan? Hots:

1) Nire kontzeptu patriarkal sexistetatik abiatuta, aurre egin beharreko, zaindu beharreko, adi egon beharreko eta zugandik defendatu beharreko gizon gisa ikusten zaitut, edo, bestela, lehiatu eta eraso beharreko gizon gisa; ez zara ni bezalako... eta mehatxu, beldur, mesfidantza, arrisku edo inbidia eta gorroto arrazoi bihur zaitezke?

Beraz, gure arteko desberdintasunei begiratzen diet: ezberdina denari, zuk duzunari eta nik ez dudanari, edo nik zuk baino gehiago dudanari (zuk nik baino gehiago duzunari) eta nik zuk baino gutxiago edo txikiago dudanari (zuk nik baino gutxiago edo txikiago duzunari), nik zertan gaintitzen zaitudanari (zuk zertan gaintitzen nauzunari), edo... neurtu egiten zaitut (neurtu egiten nauzu), ospea galarazten dizut (ospea galarazten didazu), alde batera uzten zaitut (alde batera uzten nauzu), arbuiatu egiten zaitut (arbuiatu egiten nauzu), bertan behera uzten zaitut (bertan behera uzten nauzu), ahaztu egiten zaitut (ahaztu egiten nauzu), ezabatu egiten zaitut (ezabatu egiten nauzu), zapaldu egiten zaitut (zapaldu egiten nauzu), barregarri uzten zaitut (barregarri uzten nauzu)... eta, hortaz, **zure beldur naiz, ezin zaitut maitatu, nire beldur zara, ez zaitut ni maitatzen uzten (ez nauzu zu maitatzen uzten).**

Edota, bestela, ikuspegi hierarkiko nagusitik kanpo,

2) Nire alboan ipintzen zaitut, biok elkar harturik, gogoan hartzeko, lasai egoteko, fidatzeko, arnasa hartzeko, atsedean hartzeko, partekatzeke, jolasteko, amesteko... aliatu, lagun, gogaide, adiskide modura... nik zuri (zuk niri) erasotzeko eta nik zu (zuk ni) kritikatzeko arriskurik gabe, ez nire ez zure izuen beldur izan gabe, zu kritikatu eta neurtu gabe, zu zaindu beharrik eta zutaz susmorik izan gabe, zu neurtu eta kritikatu gabe, zu onartuz eta aintzat hartuz, zu animatuz eta zuregan sinetsiz? Eta, beraz...

Lotzen eta hurbiltzen gaituenari begiratzen diot, antzeko eta hurbileko, adiskide eta gizaki egiten gaituenari, eta, hortaz, **maite zaitut eta ni maitatzen uzten zaitut, zu maitatzen uzten nauzu.**

Lehenengo egoteko era gizarte kapitalistetan garatu ohi dugu. Gizonen artean, elkar ez maitatzeko eta elkarrekin estu eta larri eta besteengandik bereizirik egongo bagina bezala bizi izateko behar den tartea sortzen da. Egoera horretan, erraz bultza gaitzake estutasun edo larritasun horren lasaigarri modura edo besteekiko bereizketa egoera horretan lortuko ez dugun zorientasuna lortzeko bitarteko modura erakusten dizkiguten gauza material guztiak kontsumitzera (edariak, automobilak, koloniak...). Baina guk behar dugun hurbiltasun emozional, espiritual eta fisikoa itzuliko digun gauza materialik ez dago. Maitasunak ekarriko digu hurbiltasun hori, eta alderantziz, maitatzeko hurbil egon behar baita. Gainerakoa harremanen alerta-egoera da, edo «gerrilla aurrekoa», ezezaguna etsai modura ikusten baita, ez adiskide modura. Indarkeriaren haztegia da.

Bigarren egoteko erak itzuliko digu bizitza honetan bizitzeko zentzua, planeta honetan, zuretarren artean, egoteko eta lekua duzula nabaritzeko zentzua, baita, jakina, eginkizun edo opari bat ere: zu zeu izatea, besteak maitatuz eta besteei ere zu maitatzeko aukera emanaz. Hori da, antza denez, gure izaeran lor dezakegun handiena. Horrek bete dezake adin batean hainbat eta hainbat gizonek nabaritzen duten identitate, nortasun, emozio, espiritu, funtsezko hutsune hori.

Nire ustez, bigarren aukera horrek ez du inolako tarterik uzten indarkeriarako, ez genero, ez klase indarkeriarako, ezta indarkeria politiko edo pertsonalerako ere. Hori da minuturo gehien saiatu, landu eta praktikatu behar duguna, harik eta bigarren ohitura hori gutxienez lehena bezain indartsu bihurtu arte, harik eta bigarrenak lehena ordezkatu arte.

Ez da hori zehazki bizitzaren erritmo kapitalistak saltzen diguna: egin ezazu zeuk bakarrik,

azkar, ez zaitez inoren mende egon, izan zaitez independente, sendo, autonomo, gizonezko... Baina hori da zehazki gehien behar duguna: maitasun dosiak, ahalik eta norabide gehienetan.

Aukera baten edo bestearen artean erabakitzeke garaia da. Gizatiartu ezean betiko gizonak izaten jarraituko dugu..

7. EZ DUGU BEHAR ADINA AZPIMARRATU GIZONEZKO-OK IRABAZIKO GENUKEENA:

A. Besterik gabe bete beharko genituzkeen zenbait rol alde batera utzi eta galdu ahal izatea, irabaztea da jada. Orain arte erantzukizunez lepo -erantzukizun publikoak, materialak, politikoak, sozialak, ekonomikoak...- eta etxetik kanpoko bizitzako alderdi askotan lanpeturik bizi izan gara. Orain, erantzukizun horietako batzuk alde batera utzi edo partekatzeke modua dugunez, beste erantzukizun batzuek arduratu ahal izango gara. Hona hemen adibide xume batzuk:

- Gehien axola zaizkigun eta gehien maite ditugun pertsonekin -seme-alabak, familiako pertsona helduak...- harreman iraunkorragoak eduki ahal izango ditugu, maitasun maila ezberdinetan, lasaitasun eta elkartasun handiagoarekin, eta beren bizitzetan gehiago murgildurik. Zuzenago parte hartu ahal izango dugu pertsona horien zainketan eta heziketan, eta hori bera oso gertaera ederra da.

- Denbora gehiago gure bizitzarako, gure bikotekideentzako, gure gurasoentzako, gure lagun hurbilentzako... eta maite zaituzten eta maite dituzunekin sortutako elkarreraginaren gizatasun guztia geureganatzeko; denbora gutxiago gure artean lehiaketa, borroka, estresa, nekea, haserrea, tratu txarra, zapalketa... eragiten dituzten soldatapeko lanentzat, eta gure bizitzaren amaiera ekarriko duten gaitzen garapena eragiten dutenentzat.

- Bizitzaren ikuspegi orokorrari hainbeste begiratu beharrik izan gabe, aukera handiagoa eta denbora gehiago herri mailan bidezko zereginen alde parte hartzeko, eta aukera handiagoa gure auzoan, erkidegoan, herrian... harremanak izateko: aisiaren eta kulturaren kudeaketa gizon eta emakume guztientzat; etxebizitza eta ikasketak gizon eta emakume guztientzat; ingurumenari eta birziklapenari buruzko ardurak; proposamen osasuntsu eta bideragarriak gure erkidegoko hirugarren adineko pertsonentzat; jai eta ospakizun elkartzailen eta solidarioen...

- Denbora gehiago gaixoen edo etorkinen alde parte hartzeko, baita haurren alde ere, zainketa zer den jakin dezagun bere zailtasunekin eta bere alde positiboarekin; denbora gehiago osasun publiko duinari alde lan egiteko, baita gizarteko baliabideen eta gure auzoetako elkarrekin kudeaketa terapeutiko, sozializatzaile, gizatiartu eta ekologikoaren alde ere...

- Aukera eta denbora gehiago eguneroko harremanetan errespetua, estimua, berdintasuna, hurbiltasuna eta abar garatzeko, baita harreman horietaz gozatzeko denbora gehiago izateko modua ere.

- Parekotasunerantz aurrera egin nahi badugu, bestalde, lehenago genituen onura material horiek gehienak galdu egingo ditugu segur aski. Horrek ez du atzera bueltarik. Bidezkoa da, eta zuzena; onurak neurri berean gizon eta emakume guztientzat. Interesgarria da, orobat, kontuan hartzea abantaila horiek eta abantailak lortzeko rolen utzitako hutsunea beste mota bateko

onurek beteko dutela, gizatasun eta bizi-kalitate handiagoekin zerikusia duten onurek, hain zuzen ere. Hots, materialismoan eta lehiaketan ez, baizik eta gizatasunean oinarritutako abantailak irabaziko ditugu; zerbaitengatik gara gizakiak. Materialismo gutxiago eta humanismo gehiago.

B. Horrek berekin ekarriko du hainbesteko arriskua sortzen digun maskulinitate hegemonikoa alde batera uztea. Ondorioz, aukera izango genuke «gizonezko ahalguztidunaren» rol horretatik askatzeko: giza eta ekologia galera handiekin egoera bortitz eta zentzugabeetan ipintzen gaituen roletik askatzeko; harremanak, eskola, osasuna... bezalako esparru garrantzitsuetan, gizonok porrotera eraman gaituen roletik askatzeko; lan gehiago egiteko eta gehiago irabazteko, gehiago, garestiago, azkarrago saltzeko, hobea, lehiakorragoa, eguneratuagoa, modernoagoa, ospetsuagoa, aberatsagoa, prestuagoa izateko bazter guztietatik tinko eta sendo lotu eta estutzen gaituen roletik askatzeko; egiaz garen eta, hainbeste rolen artean itota dugun eta minuturo azaleratzeko irrikan dagoen gizakitik urrunago edukitzen gaituenetik askatzeko, hain zuzen. Hona hemen adibide bakan batzuk:

- Gizonok gure gain hartzen ditugun rolen ondorioz gertatzen den guztiaren gaineko erantzukizuna gure bizkar gainean hartu behar izatea alde batera uztea: nazioarteko gatazkak, nazionalak, gizarte gatazkak, pertsonalak; edozein esparrutako bidegabekeriak eta hondamendiak... Gauza horiek guztiak konpontzeko gaitasunik ez dugula onartzea, lasaitzea, erretiratzea eta oraindik kontuan hartu ez ditugunei -emakumeei, gazteei...- gauza horiei buruz pentsatzeko eta konponbide berri eta desberdinak aurkitzen saiatzeko aukera ematea, onuragarria izan baitaiteke gizon eta emakume guztiontzat.

- Ez guk, ez beste inork, ez gehiago bete behar izatea gure rolek inposatzen dizkiguten lan arriskutsu, zail edo zikinak: soldadu, torturatzailerak, toreatzailerak, militar, boxeolari, mertzenario, borrero, espioi...; ezta beste batzuk ere, itxuraz hain arriskutsuak ez direnak, baina urtero ehunka langileen heriotza eragiten dutenak: eraikuntza, garraioa, diamantegintza eta meatzaritza, objektu preziatuak, gerrakoak, eta abar. «Gizonezkoena eta hegemonikoa» ez den ikuspegi berriarekin, agian lana, gizarte, bizitza... antolatzeko beste era asko dagoela konturatu ahal izango gara, eta gaur egun gizon eta emakume guztiok izaten ditugun lan arriskuak, politika alorrekoak (hirigintzari, trafikoari, osasunari... dagozkienak) izan beharrik ere ez dagoela.

Egin beharreko aldaketa horren aurrean, gizonok gauza horiek ezagutzeak ez ezagutzeak baino gutxiago izutuko gaituela uste dugu, eta sexismoa suntsitzeko eta, hortaz, berdintasuna lortu nahi izateko bidean sakontzera bultzatuko gaituela. Uste osoa dut gizon eta emakume guztiok ulertuko dugula sexu eta genero zapalketak **ez diola inori mesederik egiten**, ezta gizona ere, zapalketa horretatik ateratzen dituzten «onurak» gorabehera. Puntu horretara helduz gero, sexismoa ezabatu eta gizon eta emakume guztientzako gizarte zuzenago bat lortzeko lana nahiko bideraturik egongo da.



gizonduz



EMAKUNDE
EMAKUNEAREN ELIZKOA ERAKUNDEA
INSTITUCIÓN DE LA MUJER

Eusko Jaureritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

ADINEKOAK ETA GENEROA: ADINEKO GIZONAK. AUKERA BAT ALDAKETARAKO

Susana Cebrián Quero / Inmaculada Quero Miquel

2012

AURKIBIDEA

1. Sarrera.	3
2. Gizonen bizi-prozesua. Zahartzarora iritsi arteko aldaketak.	3
3. Zaintza-kargen eta denboraren banaketa desberdina, eta horren egungo ondorioak adineko emakumeentzat eta gizonentzat.	8
4. Aldaketak egiteko aukera, gizonaren autonomiatik abiatuta, egoera bereziak iristen direnean:	15
4.1. ERRETIROA. Erretirora egokitzeko mekanismoak ematea, ikuspegi berdinzale baten arabera. Zahartze osasungarria.	16
4.2. ZAINZA. Adineko gizonak beren buruak eta gainerako pertsonak zaintzen inplikatu daitezen sustatzea.	18
4.3. GAIXOTASUNA. Adineko gizonak beren inguruneko gaixoak eta/edo men dekoak zaintzen inplikatu daitezen sustatzea.	20
4.4. BAKARDADEA. Alargunen eta banandu edo dibortziatuen kasuak, bereziki.	24
5. Erreakzioa eta dinamika pedagogikoak.	28
6. Gomendatutako irakurketa batzuk eta beste zerbait gehiago...	31
7. Bibliografia.	34

1 SARRERA

www.berdingune.euskadi.net web-ean irakur daitekeenez, Gizonduz Eusko Jaurlaritzaren ekimen aitzindaria da, lehendakariak gidatua eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak bultzatua, eta helburu du emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde gizonak kontzientziatu daitezen eta horretan inplikatu eta parte har dezaten sustatzea. Gizonduz terminoarekin ideia hau helarazi nahi da: berdintasunak emakumeen eta gizonen nortasuna osorik garatzen uzten du eta gure bizi-aukerak handitzen ditu, eta horri esker, pertsona hobeak gara, eta ondorioz, gizonak gizonago bihurtzen gara.

Testuinguru horretan sorturiko ekimenaren emaitza da eskuliburu hau, zeina maskulinitatea eskuratzeko bilakaera-prozesuan eta ikasbide honek egun 65 urtetik gorakoak diren gizonentzat dituen ondorioetan eta esanahietan oinarritzen den.

Irakurleak gizonen bizi-etapak aurkituko ditu ondoren, hain zuzen ere, beren maskulinitatea sortzen denetik rolak definitzeari dagokionez bizi-esperientzian dituzten une kritikoak eboluzioaren ikuspuntutik izendatuta: haurtzarora, nerabezarora, heldutasuna/aitatasuna eta adin heldua, zahartzarora.

Genero-berdintasunera hurreratzea. Helburu komun hori dute bai erakunde honek, bai beste erakunde batzuek, jaiotzean emakumeei eta gizonei izendaturiko sexuaren arabera esleitzen zaizkien desberdintasunak erauzten lan egiten dutenek, hain zuzen. Beste jarrera batzuk ere posible direla ikusarazteko, jarrera positibo eta proaktibo batez erakutsi behar da, eta, kasu honetan, helburu diren biztanleengana hurbilduz: gizonak eta 65 urtetik gorakoak. Berdintasunaren aldeko hezkuntzak ezin du bera izan eskolako umeentzat eta 65 urtetiko gorako gizonentzat, zeren eta gizon horiek metatu duten esperientzia beste parametro batzuekin bizi izan dute, gaur egungo neska-mutilek dituzten parametroak oso bestelakoak baitira. Baina helburua berbera da oraindik ere: sistema patriarkalak gizonezkoei izendatu dizkien pribilegioak kentzea, eta jakin dezatela zer onura ekarriko dizkien genero-desikasketak eta beste jarrera eta jakintza batzuk orain artean ezezagunak eskuratzeak, egunerokoari edo kanpoko gertaera bat tarteko paradigma aldatzea eragin dieten inguruabarrei aurre egiteko.

Horrela, ondoren datozen orrialdeak irakurriz jakingo duzue generoaren kontu honetan nondik gaitoen eta nolakoak garen, horrek zer ondorio ekarri dizkion adineko gizonari, autonomiatik abiatuta nola hasi onerako aldatzen, nola aurkitu tresna bereziak egoera jakin batzuetan baliatzeko, hala nola, erretiroan, zaintzan (norbere burua eta beste batzuk zaintzeko), gaixotasunean edo bakardadean.

Azkenik, jarduera pedagogiko batzuk aurkituko dituzu, taldeka abian jartzeko, eta, zu bezala, aldaketa hori egiten hasita egon daitezkeen gizonengana hurreratzeko.

2 GIZONEN BIZI-PROZESUA. ZAHARTZARORA IRITSI ARTEKO ALDAKETAK.

Zerk eragiten die gizonei eta emakumeei beren bizi-prozesuan eta garapen ebolutiboan? Badira teoria batzuk horren inguruan. Batzuk kanpoko faktoreetan oinarritzen dira, eta ambientalistak deitzen dira; eta beste batzuek, innatistek, giza gorputzaren barneko edo berezko faktoreei ematen diete garrantzia. Kasu bietan, gizonenean eta emakumeenean, zientifikoki bermatuta dago gizonen eta emakumeen joeren eta inguruneke eskaeren arteko gatazkari zor zaiola aldaketa ebolutiboa. Interakzio bat sortzen da, eta onartzen da garapen ebolutiboa eraikuntza-prozesu bat dela, non modu konplexuan eta dialektikoan jarduten duten hainbat faktorek parte hartzen duten.

Badakigu nola faktore biologikoek eta berezkoek hala kanpoko faktoreek –kulturek eragiten dituztela emakumeen eta gizonen artean dauden aldeak. Gizonen eta emakumeen artean dagoen desberdintasun kromosomiko eta biologikotik harago joanez, onartuta dago gizarteak gizonei eta emakumeei ezaugarri, sinismen eta itxaropen batzuk esleitzen dizkiela, gizon izateak eta emakume izateak esan nahi duenari buruz. Gizarteak sexu bakoitzari esleitzen dion hori generoa deitzen da, eta eraikuntza pertsonal eta psikologiko bat ere bada.

Gizabanakoen arteko berdintasunari buruzko teoriak, besteak beste Simone de Beauvoir filosofoaren testuen bitartez, XIX. mendetik aurrera onartzen dute ikuspuntu biologikotik emakume edo gizon jaiotzen garela, eta ikuspuntu kulturetik, gizon edo emakume izaten ikasi egiten dugula, feminitatea ikasi egiten dela eta maskulinitatea ikasi egiten dela.

Gizonek, genero-identitateaz jabetzeko, jokaera batzuk erabili behar dituzte, hain zuzen ere, gizartean gizonentzat egokitzen diren jokabideak. Gizon izateko eredu edo forma desberdinei **maskulinitateak** esaten zaie.

Nola eskuratzen da genero-identitate maskulinoa eta zer esanahi eta ondorio ditu adineko gizonentzat?

Galdera horri erantzun ahal izateko, eboluzioari buruzko ibilbide txiki bat egingo dugu, zeren eta bizitzaren etapa bat ere ez da hartu behar besteak baino garrantzitsuagozat, aldaketa ebolutiboak etenik gabe gertatzen baitira jaiotzetik heriotzara bitartean. Mundua ulertzeko eta munduan elkarri eragiteko ahalmena progresiboki garatzen da. Eboluzio-etapetako aurrerabideak ez dira zakarki garatzen, aurrerabide geldien sekuentzietan jarraituz baizik. Bizi-zikloaren aldiak etapa tipikoetan gertatzen diren maskulinitate-jabekuntzak continuum bat bezala ulertu behar dira, etapa guztietan mugitzen den continuum bat bezala, aurrerago ikusiko dugunez. Bai haurtzaroan, non “gizona naiz” ulertzeko ahalmenak agertzen diren, bai nerabezaroan, non ahalmen guztiak lortuta dauden eta helduaroko oinarri izango diren, egungo gizarte androzentrikoan gizonezkoaren rola hartzeko.

Baina, zer gertatzen da zahartzaroan? Pertsonak eboluzionatzeko ahalmenik ez duen une bat da, ala, aitzitik, adineko gizon batek ikasteko eta eboluzionatzeko ahalmena garatzen jarraitzen duen etapa bat da? Bizitzaren etapa berankorrenak eskuliburu honen oinarri direnak, hau da, azken helduaroa edo zahartzaroa, bizitza eta maskulinitatea garatzeko fase dira oraindik ere. Izan ere, agerian geratu denez:

- Helduaroan, ahalmen intelektualak egonkor mantentzen dira; zahartzaroan, berriz, egonkortasun hori gainbehera selektibo bihurtzen da, baina ez da galtzen, inondik ere.
- Zahartzaroan, informazioa prozesatzeko ahalmena moteltzen joaten da progresiboki, baina 80 urtetik aurrera baino ez da nabarmen moteltzen.
- Helduen ahalmen intelektualaren zati handi bat iragandako urteetan jasotako heziketa ren ondorio zuzena da.
- Helduaroan eta zahartzaroan gertatzen diren aldaketak dimentsio anitzekoak¹ eta norabide anitzekoak² dira.

¹ Kontuan hartu beharrekoak dira adineko gizonezkoan dauden dimentsio desberdinak, horien artean, jaso duen kultura patriarkala eta androzentrikoa.

² Ez dago norabide bakarrik aldaketan, prozesuak desberdinak izan daitezke gizabanakoen artean, adineko pertsonak bere ingurunean dituen senitartekoek edo pertsonen ematen dioten babesaren arabera, edo daukan sostengu edo laguntzaren arabera.

Genero-identitate maskulinoa hartzeko moduak zerikusi handia du identitate hori bizi-zikloan zehar jaiotzaren unetik egungo unera arte garatzeko moduarekin.

Gizonezkoengan maskulinitatea sortzen denetik rolak definitzeari dagokionez bizi-esperientzian dituzten une kritikoak ikusiko ditugu, eboluzioaren ikuspuntutik: haurtzaroa, nerabezaroa, helduaroa/aitatasuna, zahartzaroa.

HAURTZAROA. (0tik 12 urtera)

Jaiotzatik bertatik ari da garatzen, eboluzioz, prozesu kognitiboa. Prozesu kognitibo honetan zehar egile gehienek ustez hamabi urtera arte, gizakiek errealitatea ikasten, ulertzen eta interpretatzen dute, eta errealitatean jarduteko gai dira; eta azkenean, gaitasuna izaten dute nola jarduten dugun eta inguratzen gaituen munduaren zati garela konturatzeko.

Aldi honetan, mutil gisa heztea funtsezkoa da bizitzan zehar izango dugun antolamendu sozialean integratzeko; talde sexual zehatz batekoa, hots, mutilen taldekoa izatearen inguruan eraikitzen da identitatea. Ikaskuntza horrek, gainera, mundu dikotomiko eta eskusibo bateko kide izatea dakar: mutikoa da, neskatila ez delako.

Genero-identitateari buruz Kolberg-ek zuen teoriari jarraituz (1966,1969), hiru urterekin egoki jakiten da zein sexu-taldekoa garen, baita talde horrek zer ezaugarri dituen ere (ikasitako estereotipoak eta rolak). Hiru urte eta bost urte bitartean, jakintza hori egonkortu egiten da, eta mutikoak gizon bihurtzen dira (eta neskatilak emakume), kanpoko ezaugarriak sexu baten edo besteren arabera aldatuz. Bost urtetik zazpi urtera artean ulertzen da gizon izatea identitatearen ezaugarri bat dela, eta ezaugarri horrek desberdin egiten dituela; eta hori argiro eta beti ulertuko da bizitzan zehar.

NERABEZAROA (12 urtetik 18-20ra)

Nerabezaroa bizitzaren beste aldi bat da, non pertsonaren garapen fisiko, kognitibo eta psikosozialari eragiten dioten eraldaketa sakonak gertatzen diren. Nerabezaroa denbora-aldi bat da, non gizon helduak izateko rol eta arauetan hasteko erritoetara bultzatzen diren mutikoak.

Aldi honetan maskulinitateari dagokionez erdietsi beharreko lorpenak daude; hauek, hain zuzen ere:

- sexu bien arteko harreman berezituak gehitzea eta egonkortzea,
- izendatutako rol sexuala mugatuz,
- fisikoki nolakoa den onartuz,
- aldi berean, haurtzaroan lagun izan dituen figura helduekiko autonomia emozionala lortuko da,
- sozialki arduratsu jokatuz, sexu biologikoari izendatutako generoari dagokionez.

Zer posizio ikasi behar dituzte mutilek gizon bihurtu nahi badute, inbentario sozialak erabakitakoaren arabera? Ikasten diren eta gizonen izendatzen zaizkien nolakotasunak emakumeenak kontuan hartuta ikasten dira, hau da, ezaugarri horiek baztertzailak eta osagarriak dira elkarren artean, zeren eta rolak desberdinak eta hierarkizatuak dira, eta horietan harreman horizontalak egotea ezinezkoa da, eta elementu bakoitza balio txikiagoa duen beste elementu baten kontra definitzen da. Balio txikiagoa dute gizonen izendatzen zaizkien ezaugarriak konnotazio positiboa dutelako eta gizartean gehiago balioesten direlako.

HELDUA (20 urtetik 65 urtera)

Helduaroa nerabezaroaren ondoren datorren aldia da. Etapa onetan, genero estereotipo eta rolen inguruko gertaera, jakintza, informazio eta prozedura automatizatuak metatzen dira ordenatuta, artikulatuta eta antolatuta, eta ondorioz, heldu bihurtu den gazteak badu ideia orokor bat, badaki zer egin behar duen gizon izatearekin bat etortzeko, gizartean onartutako ereduaren barruan.

Gure kulturen zein genero-mandatu daude? Zein da gizartean onartzen den eredu hori? Labur erantzungo diogu galdera horri, zertzelada batzuk egingo ditugu gizon izatea zer den azaltzeko, haurtzaroan eta nerabezaroan ikasitako maskulinitatea nola identifikatzen den azaltzeko:

- Gizon heldu batentzat, garrantzitsuena pertsona maskulino bat izatea da batez ere, eta horrek, lehenik eta behin, emakume dela ukatzea esan nahi du. Feminitatea ukatzea, mundu femeninoarekin ez identifikatzea. Horrek emakumeei esleitutako rol eta estereoti poetatik urruntzea dakar (batez ere emozioez ari gara, eta norbere burua eta besteak zaintzeko gaitasunaz), eta itxura feminizatua duten gizonengandik edo beste gizon bat zuenganako sexu-desioa duten gizonengandik urruntzea. Gizon batek emakumeei esleitu zaien mundura hurbildu nahi badu ere, ez du homosexuala denik eman behar, itxura zain du behar du, zeren eta gizon izan behar du, baina baita gizon-itxura eduki ere.
- Gizon izateak ekimena hartzea esan nahi du, gizon-jarrera eduki behar da, ez da lerratu behar, erabakiak hartu behar dira, edo erabakiak hartu direlako itxura egin. Erakutsi zaie nez, arazo bat dagoenean, euren izango da azken hitza, baliotsuena delako, pisu handie na duelako, "etxeke jaunaren" hitza delako.
- Genero-mandatu horiengatik gizona lehian dabil etengabe. Gizona dela erakutsi behar duenez, etengabe borrokan ibili behar da gehiago jakiteko, hobe izateko, beti lehiakor izateko. Gainera, beharrezkoa bada, legimitatuta dago indarkeria baliatzeko, handitasun-botere hori lortzeko. Nahi duten oro lor dezaten hezten dira, horretarako indarkeria baliatu behar badute ere eta besteak menderatu behar badituzte ere (dela modurik sotilenean, dela modurik argienean eta oldarkorrenean).
- Botere-harreman horri esker, gainerakoek (emakumeek eta emagizonek) hartu ezin dituzten arriskuak har ditzakete, zeren eta gizartetik heltzen zaien mezua hau da: zenbat eta arrisku gehiago hartu, orduan eta gizonago. Horrek guztiak badu babesik: gizonak, arriskua hartzeko gertu egon ez arren, ez dute erakutsi behar gertu ez daudenik, ez dauka te huts egiterik.
- Gizonak inoiz ezin du esan ez dakienik; beraz, bat ere egonkorra ez den egoera batean dago, eta horregatik, autokontzeptua, errealitatea eta gainerakoei ematen dien irudia, ez da beti koherentea izaten, eta desberdintasun horregatik, liskarrak sortzen dira norbere buruarekin, familian eta gizartean.

AITATASUNA

Bizitzaren etapa honetan, garrantzi handiko beste gertaera bat bereziki aipatzea merezi duena aitatasuna da. Bizitzaren aldi honetan seme-alaben jaiotzari aurre egin behar zaio. Maskulinitatea garatzen laguntzeko, gizonetzko guztiek ugaltzeko gaitasuna dutela uste da.

Aurre-aitatasun arduragabeaz mintzo gara, oso matxista eta sexista den maskulinitatearekin estuki loturik dagoenean. Horrelakoetan, arduragabekeria ugalketan hasten da, sexu-harremanetan kondoia antisorgailu gisa eta sexuagatiko gaixotasunak ez transmititzeko metodo gisa erabiltzea errefusatzen denean. Maskulinitatea horrela baliatzen dutenentzat, hau da, koittoa kondoirik gabe egitera behartzen dutenentzat, aitatasuna haurdunaldien ondorio da haurdunaldiak nahita

edo nahi gabe izanda , eta umea jaiotzean, gizona aita bihurtzen da. Aurre-aitatasun arduratsua esaten dugunean, berriz, bikotekidearekin kontzienteki negoziatutakoaz ari gara. Gizon horien maskulinitatea ez da kaltetzen, zeren eta badakite maskulinitatea ez dela oztopo bikotekidearekin negoziatzeko eta akordioak hartzeko, guraso izateko erabakia hartzeko, esate baterako.

Baina, maskulinitate horrek ba al du eragozpenik aitatasuna baliatzeko? Guraso izatea, zentzu zabalenetan, ez da bakarrik seme-alabak izatea. Beharrezkoa da seme-alabak guraso biek zaintzea. Ikusi dugun bezala, eredu tradizional maskulinotik urrun geratzen da seme-alabak zaintzea, heztea eta haiekiko konpromiso emozionala hartzea. Ondorioz, oraindik ere, hori egiten dutenak gehiago dira amak, aita baino. Baieztapen hori ez dago soilik determinatzaile biologikoetan sustraitua, alderdi kulturalen ere sustraitua baitago, eta alderdi kultural horren arabera, emakumeak txikitatik trebatzen dira ama izateko, eta umetatik esaten zaie umeak nola zaindu. Gizonak, aldiz, emozioen eremu eta espaziotik kanpo uzten dira, eta aita onak izan daitezen trebatzen dira, hau da, etxea baliabide materialez ondo horni dezaten.

Aitatasuna aldarrikatzen ari den unean gauden arren, oraindik ere asko falta da eredu tradizionala gainditzeko, gizonak bere maskulinitateari dagokionez nola jokatu behar duen esaten dion eredu gainditzeko. Behar-beharrezkoa da, ordea, eredu hori aldatzeko lan egitea.

HELDUARO A ETA ZAHARTZAROA. (65 urtetik aurrera)

Zahartzaroa 65 urtetik aurrerako alditzat jotzen da, hori baita erretiroa hartzen den adina, hau da, adin horrekin ateratzen gara lan-mundutik, eta ondorioz, adin horrekin ekiten diogu bizitzaren beste fase bati. Maskulinitateari buruzko helburuak beteta daude bizitzaren une horretan, baina horrek ez du esan nahi hortik aurrera gainditu beharreko erronkarik ez dagoenik. Adineko pertsonak behar besteko autoefikazia eta autoestimua dauka gerta daitezkeen erronkei aurre egiteko, baina lortu duen ikaskuntza lerratuta dago generoa dela-eta esleitu zaizkion gaitasunei dagokienez.

Eta honetan, ikasitako generoari eta maskulinitateari dagokienez, eboluzio-faktore sozialek eta historikoez eragin handiagoa dute biologikoez baino, haiek ahalbidetzen baitute gizabanakoa ikaskuntza positibora eboluzionatzea, ikasitako hezkuntzan izandako gabeziei edo lerradurei dagokienez.

Gaur 65 urte duten gizon gehienek (beraz, 1947an jaiotakoek) aita eta amarekin eta neba-arrebez inguratuta bizi izan ziren haurtzaroan. Seguruenik, aitaita-amamaren bat biziko zen etxe berean edo herri berean. Gizonezkoak familiako hornitzaileak izango ziren; emakumeek, berriz, etxea eta umeak zainduko zituzten. Aitaita-amamek orduan zuten zeregina ez zen oraingoek duten bera. Eta gizon horiek ezin hobeto imitatu dute familia-nukleo bera: bikotekide egonkor bat edukiko zuten, eta ezkondu egingo ziren; orduan (1960tik aurrera) ezkontza soilik katolikoa izan zitezkeen, eta banaezina. Seme-alabak izango dituzten, eta ikusi dute nola seme-alaba horiek jada ez duten patroikultural hori errepikatu: banandu edo dibortziatu egin dira, bakarrik bizi dira, ezkondu gabe bikotekidearekin bizi dira, homosexualak dira, ... eta, ondorioz, haien kognizioak eta/edo usteak ere aldatu egin dira.

Ez da ahaztu behar bizitzaren etapa hau ez dela etapa hila edo estatikoa. Hainbat urte lehenago, zehazki 90eko hamarkadan, Bilakaeraren Psikologiako azterlanek (Baltes, Fernández Ballesteros) helduaroa eta zahartzaroa ahalik eta ondoen garatzearen alde egiten dute; beste ikuspuntu bat baliatuz, zahartzaro egokia edo zaharo arrakastatsua defendatzen dute.

Ikuspuntu hori baliatu nahi dugu eskuliburu honetan, beste eredu bat arrakastaz ikasteko: ikasitako maskulinitatea utzirik, gaur egun berdintasunaren alde dagoen testuinguruan sartzeko. Horretarako, rol maskulino tradizionala aldatzea goren duten faktore positibo batzuk daude:

oraindik ikas daitekeena, lortutako jakintza, bizirik egotearen poza, edo bizitakoagatik sariak eta oraindik bizitzeko dagoenak ematen duten zoriona.

Garrantzitsuena, zahartzaroko garapen ebolutibo normalari dagokionez, narriadura fisikoa eta mentala da, eta ondorioz, mendetasun pertsonala. Ohikoa izaten da sakrifizioa eta ahalegina eskatzen duten zainketak behar izatea. Horretarako, gizonak erabakigarritzat eta aitzakiarik gabekotzat dute beren zaintzarako gertu-gertuko figurak egotea, hau da, emaztea edo alabak. Gizonen ustez, emazteak edo alabak materialki eta emozionalki baldintzarik gabeak izan behar dute, eta askotan, gizonak euren burua zaindu behar luketena baino harago joanez.

Hurrengo atalean, egun helduaroan dagoen eta zahartzarora bidean den gizonak ikaskuntza horrekin zer ondorio izan dituen ikusiko ditugu. Eta ondoren, gizonaren autonomiatik abiatuta, aldaketak egiteko aukerak proposatuko ditugu. Izan ere, 65 urtetik gorako gizonak beren egitura intimoan –familian eta egitura sozialean gertatu diren aldaketei aurre egin behar izaten diete, genero-berdintasunaren alorrean izan diren aurrerabideak kontuan hartuta. Hori dela eta, esku-liburu hau irakurriz, aurrean daukaten etapari berdintasunez heltzen ikasiko dute.

3 ZAINZA-KARGEN ETA DENBORAREN BANAKETA DESBERDINA, ETA HORREN EGUNGO ONDORIOAK ADINEKO EMAKUMEENTZAT ETA GIZONENTZAT.

Ondoren, datu batzuk ikusiko ditugu, heziketa mota honek egun 65 urte baino gehiago dituzten pertsonen zer ondorio ekarri dien jakiteko. Grafikoen bidez, erraz konturatuko gara banaketa horrek gizonentzat eta emakumeentzat desberdintasuna sortu duela eremu hauetan:

Datu horiek Estatistikako Institutu Nazionalaren “Hombres y Mujeres en España 2010” argitalpenetik jaso dira. Hemen daude argitaratuta: www.ine.es

BIZTANLERIA ETA FAMILIA.

Gizon eta emakume kopurua aldatu egiten da adinen arabera. 45 urtera arte, gizonen euhnekoa emakumeena baino pixka bat handiagoa da adin guztietan. Adin horretatik aurrera, egoera alderantzikatu egiten da, eta emakumeen kopurua beti da handiagoa. Proporzio hori areagotu egiten da adinak aurrera egin ahala: 85 urtetik aurrera, gizonen kopurua bikoiztu egiten da.

Biztanleriaren egitura,adin-multzoka			
	% Varones	% Gizonak	Emakumeak/ Gizonak*100
Guztira	49,3	50,7	102,8
0-14 urte	15,6	14,3	94,5
15-29 urte	18,6	17,3	95,6
30-44 urte	26,5	24,4	94,8
45-59 urte	19,7	19,6	101,9
60-74 urte	12,9	14,1	112,8
75-84 urte	5,3	7,4	143,1
85 urte eta gehiago	1,4	2,9	209,1

Iturria: 2010eko urtarrilaren 1ean, egun Espainian dauden biztanleei buruzko estimazioak. INE

✓ 85 URTETIK AURRERA, EMAKUMEA GIZONAK HALAKO BI DIRA

Gora egiten du 65 urteko eta gehiagoko biztanleriak. Azken hamarkadetako bilakaera aztertuta, aldaketa handiak gertatu dira biztanleriaren banaketan, adinaren arabera. 1991-2010 aldian, 65 urteko eta gehiagoko biztanleen partaidetza nabarmen hazi da sexu bietan: gizonen dagokienez, % 11,6tik % 14,5era pasatu da, eta emakumeen dagokienez, % 15,9tik % 19,0ra.

✓ 65 URTETIK GORAKO PERTSONA GEHIAGO DAGO ORAIN, URTE BATZUK LEHENAGO BAINO.

Hilkortasun-tasek apur bat behera egin dute azken urteetan; sexuaren arabera alde nabarmena ikusten da hilkortasunean.

Bizi-itxaropena, jaiotzean, EBan

	2000		2007	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
Frantzia	75,3	82,8	77,5	84,4
Espainia	75,6	82,5	77,7	84,1

✓ GIZONEZKOEN HILKORTASUN-TASA HANDIAGO DA BETI.

Familiarik gabeko etxeak. Batez ere, pertsona bakarreko etxeak (% 94,1) eta familiarik gabeko beste etxe batzuk dira (% 5,9), 18 urtetik beherakoak egon edo ez. Pertsona bakarreko etxeen % 57,4tan, emakumea dago. Pertsona bakarreko familiarik nabarmen gora egin dute 2000-2008 aldian, baina gizon bakarrez osatutakoak gehiago, aldi horretan ia bikoiztu egin baitira. Gazteen eta helduen artean (54 urtera arte), ohikoagoak dira gizonekin osatutako pertsona bakarreko etxeak. Baina 55 urtetik aurrera, kontrakoa gertatzen da: ohikoagoak dira emakumez osatutako pertsona bakarreko etxeak. 35 urtetik 44 urtera, pertsona bakarreko etxeen % 69,5 gizonen osatua dago. Aitzitik, 65 urtetik gora, emakume bakarrez osatutako etxeak askoz gehiago dira.

✓ BAKARRIK BIZI DIREN GIZONEN KOPURUAK GORA EGINDA, BAINA EMAKUMEA DIRA BAKARRIK BIZI DIRENAK

Familiarik gabeko etxe motak

	2000		2008	
	Mila	%	Mila	%
Familia-etxeak ez direnak, guztira	1937,3	100,0	3199,2	100,0
Pertsona bakarreko familiarik	1864,4	96,2	3009,8	94,1
Pertsona nagusia emakumea dutenak	1204,4		1727,7	
Pertsona nagusia gizona dutenak	660,0		1282,1	
Familia-etxeak ez diren beste batzuk	72,9	3,8	189,4	5,9
18 urtetik beherakoak dituztenak	1,8		13,1	
18 urtetik beherakorik ez dutenak	71,1		176,3	

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkestaren ustiapena.INE

ERRETIRORA IRAGATEA ETA LAN-MERKATUTIK ATERATZEKO BATEZ BESTEKO ADINA.

Lan-bizitza zabalagoa da gizonentzat, emakumeentzat baino. Izan ere, gizonen % 48,8k 35 urtetik gorako lan-bizitza egin du. Emakumeen kasuan, 35 urteko lan-bizitza gaintzen dutenen ehunekoa 17,3koa da, nola norberaren konturako langileen kasuan, hala inoren konturako langileen kasuan.

Espainian, 2008. urtean, lan-merkatutik irteteko batez besteko adina 62,5 urtekoa izan zen.

✓ BATEZ BESTE, GIZONAK 62 URTE ETA ERDIREKIN ERRETIRATZEN DIRA, 35 URTETIK GORA LAN EGINDA

OSASUNA

Bizi-itxaropena biztanleen osasun-egoeraren adierazle egokia da, zeren eta gizarte garatuetan biztanleak gero eta gehiago bizi dira. Azken hamarkadetan adierazle hori nabarmen hobetu da aurrerapen mediko eta teknologikoei esker, elikadura-ohituretan eta bizi-baldintzetan gertatutako aldaketei esker eta biztanle guztiek osasun-zerbitzuetara jotzeko duten aukerari esker.

Jaiotzean bizi-itxaropenean zegoen desberdintasuna emakumeen alde haziz joan zen laurogeita hamarreko erdialdera arte. Alde hori arinki murriztu da azken urteotan: 6,8 urteko aldea 2000an, eta 6,4koa 2009an. 1991 eta 2009. urteen artean, gizonezkoek jaiotzean zuten bizi-itxaropena 73,5etik 78,0ra pasatu da, egungo demografia-bilakaerari buruzko kalkuluaren arabera (Estatistikako Institutu Nazionalak -INE- argitaratzen du bilakaera hori).

✓ GIZONEN HILKORTASUNA HANDIAGOA DA, FAKTORE BIOLOGIKOAK, BIZIMODUAK ETA ARRISKU JOKABIDEAK TARTEKO (sexua+generoa)

Helduen eta adinekoen bizi-itxaropena hobetzea funtsezko alderdia izan da azken hamarkaden bilakaeran. Adin horietan hilkortasun-tasa etengabe murrizteari esker, horrelako pertsona gehiago daude biztanleria multzoan. 1991-2007 aldian, 65 urteko gizonen bizi-etorkizuna 2,1 urtez gehitu da, eta emakumeena, 2,5 urtez. 85 urtekoen artean, 0,7ko gehikuntza izan da gizonei dagokienez, eta urtebetekoa, emakumeei dagokienez.

✓ BIZI-ITXAROPENA HANDITU EGIN DA ADIN AURRERATUETAN, BAINA ASKOZ ERE EMAKUME GEHIAGO IRISTEN DIRA ADIN AURRERATURA

Bizi-itxaropena biztanleen osasun-mailaren adierazle orokor gisa erabiltzeak ez du bizi-kalitateari buruzko informaziorik ematen; halaber, ez du adierazten biztanleak nola bizi diren ere: osasuntsu, edo desgaitasun nahiz mendetasun batekin. Osasuntsu biziko garen urteei buruzko itxaropenaz ari garela, urte horiek kalitateari buruzko informazioa ematen dute osasunari dagokienez, etorkizun dauden urteei dagokienez.

Pertsona bat osasuntsu (muga funtzionalik gabe edo desgaitasunik gabe) batez beste zenbat urte biziko den adierazten du. 2007. urtean, osasuntsu bizitzeari buruz jaiotzean zegoen itxaropena pixka bat handiagoa zen gizonentzat (63,2 urte), emakumeentzat baino (62,9 urte). 65 urterekin, gizonek 10,3 urtez osasuntsu bizitzeko bizi-itxaropena dute; emakumeek, berriz, 10,2 urtekoa.

Bizi-itxaropenaren bilakaera, adin aurreratuetan

	Bizi-itxaropena, 65 urterekin		Bizi-itxaropena, 85 urterekin	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
1991	15,6	19,2	5,0	5,7
1992	15,9	19,6	5,2	5,9
1993	15,9	19,6	5,1	5,8
1994	16,1	19,9	5,2	6,0
1995	16,1	20,0	5,2	5,9
1996	16,2	20,1	5,1	6,0
1997	16,3	20,2	5,2	6,0
1998	16,2	20,2	5,1	6,0
1999	16,2	20,2	5,1	5,9
2000	16,7	20,6	5,3	6,2
2001	16,9	20,8	5,4	6,4
2002	16,9	20,9	5,4	6,3
2003	16,8	20,8	5,3	6,2
2004	17,3	21,3	5,6	6,5
2005	17,2	21,1	5,5	6,4
2006	17,8	21,7	5,8	6,8
2007	17,7	21,7	5,7	6,7

Iturria: hilkortasun-etaulak. INE

✓ GIZONAK URTE GEHIAGO BIZI DIRA OSASUNTSU

Osasuntsu bizitzeko bizi-urteen ehunekoak, etorkizun dauden bizi-urteei dagokienez, handiagoa da gizonei dagokienez, bai jaiotzean, bai 65 urterekin. 2007. urteko informazioaren arabera, jaiotzean zegoen bizi-itxaropenaren urteen % 81,2 osasuntsu bizitakoak izan ziren gizonentzat; emakumeentzat, berriz, % 74,8. Hirurogeita bost (65) urtera iristean, bizi-itxaropenaren urteen % 58,2 osasuntsu bizitakoak izan ziren gizonentzat; emakumeentzat, berriz, % 46,1.

✓ GIZONAK EMAKUMEAK BAINO URTE GUTXIAGO BIZI DIRA, BAINA HOBETO

Osasuntsu bizitzeko urteak. 2007

	Gizonak		Emakumeak	
	Jaiotzean	65 urterekin	Jaiotzean	65 urterekin
Bizi-itxaropena (urteak)	77,8	17,7	84,1	21,7
Osasuntsu bizitzeko bizi-itxaropena (urteak)	63,2	10,3	62,9	10,0
Osasuntsu bizitzeko urteak/bizi itxaropena %	81,2	58,2	74,8	46,1


Iturria: Egiturazko Adierazleak, Eurostat, hilkortasun-etaulak, INE.

Osasun-egoera eta bizimoduak

Gizonek diotenez, emakumeek baino osasun-egoera hobea dute. Balioespen hau ehuneko 10 puntu handiagoa da gizonezkoei dagokienez (gizoneen % 74,8, eta emakumeen % 64,9). Hirurogeita lau (64) urtetik gorako pertsonen kasuan, gizoneen % 44,8k eta emakumeen % 30,6k adierazten du osasun-egoerari buruzko pertzepzio ona edo oso ona duela.

✓ **GIZONEK OSASUN-EGOERARI BURUZKO BALIOESPEN HOBEA DUTE. ADINAK AURREA EGIN AHALA, BEHERA EGITEN DU SEXU BIETAN.**

Hautemandako osasun-egoerari buruzko iritzia (16 urteko edo gehiagoko biztanleen %)



Iturria: Osasunari buruzko 2009ko Inkesta Europarra (Espainia).
Emitzen aurrerapena. INE

Diagnostikatutako gaixotasunak dituzten gizoneen ehunekoak txikiagoak dira: % 19,2k lepoaldeko edo gerrialdeko mina du; % 18k, hipertentsioa; eta % 14,6k, alergia.

Gaixotasun kroniko nagusiak edo bilakaera luzekoak, mediku batek diagnostikatuak (16 urte edo gehiagoko biztanleen %)

	Gizonak (%)	Emakumeak (%)
Lepoaldeko mina, gerrialdeko mina	19,2	19,2
Hipertentsioa	18,0	18,0
Alergia	14,6	14,6
Migraina edo buruko mina, ohikoa	5,8	5,8
Antsietate kronikoa, depresio kronikoa edo beste buru-asaldura batzuk	7,3	7,3
Asma	6,1	6,1
Diabetesa	6,3	6,3

Iturria: Osasunari buruzko 2009ko Inkesta Europarra (Espainia).
Emitzen aurrerapena. INE.

18 urteko edo gehiagoko gizoneen % 44,2k eta emakumeen % 29,2k gehiegizko pisua du, adierazitako pisu eta garaieraren arabera. Arazo hori maizago gertatzen da urte gehiago dituztenekin. Aitzitik, nahikoa pisu ez duten 18 urteko edo gehiagoko emakumeen ehunekoak gizonena baino


handiagoa da: emakumeak % 3,0, eta gizonak % 0,6. Desberdintasun hori nabarmena da 18 urtetik 24 urtera arteko emakumeekin (% 13,2; gizonak % 3,4), eta 25 urtetik 44 urtera artekoekin (% 3,1; gizonak % 0,3).

✓ GAINPISUA OHIKOAGOA DA GIZONENGAN

Emakumeen % 68,4k egunero jaten ditu frutak eta barazkiak; gizonei dagokienez, berriz, % 56,9k. Adinak aurrera egin ahala, sexu bietan gora egiten du egunero fruta freskoak eta barazkiak jaten dituztenen ehunekoak, baina emakumeen artean, askoz ere nabarmenago.

✓ GIZONEK EGUNEAN FRUTA ETA BARAZKI GUTXIAGO JATEN DUTE

16 urte edo gehiagoko biztanleen heren batek egunero erre izan du edo noizean behin. Gizonen % 32,5ek eta emakumeen % 22,2k egunero erretzen du.



**Iturria: Osasunari buruzko 2009ko Inkesta Europarra (Espainia).
Emitzen aurrerapena. INE**

✓ ADIN EHUNEKO GUZTIETAN, GIZONEK GEHIAGO ERRETZEN DUTE.

16 urteko edo gehiagoko biztanleen % 35,1ek ez du alkoholik edan azken hamabi hilabeteetan; emakumeen ehunekoa (% 47,3) gizonena baino handiagoa da (% 22,4). Edaten dutenen artean, % 12,7k egunero egiten du (gizonen % 20k, eta emakumeen % 5,7k).

✓ GIZONEK GEHIAGOTAN EDATEN DUTE ALKOHOLA EMAKUMEEK BAINO. % 20K EGUNERO EDATEN DU.

Emakumeak gizonak baino sarriago joaten dira medikuarengana (emakumeen % 40,9; gizonen % 28,6); alde hori nabarmenagoa da tarteko adin-multzoetan (25 urtetik 44 urterako emakumeen % 34,2, eta gizonen % 19,9).

✓ GIZONAK GUTXIAGO JOATEN DIRA MEDIKUARENGANA.

Desgaitasunen bat dutela adierazten dutenen artean, hamarretik sei emakumeak dira, eta desgaitasunen bat dutenak zaintzen dituztenen artean, lautik hiru emakumeak dira. Desgaitasunen bat duten pertsonak zaintzen dituen pertsonaren profila: emakumea, 45 urtetik 65 urtera bitartekoa, zaintzen duen pertsonaren etxe berean bizi dena.

✓ DESGAITASUNEN BAT DUTENEN ARTEAN, 10ETIK 4 GIZONAK DIRA DESGAITASUNEN BAT DUTENEN ARTEAN, % 75EK EMAKUMEA DU ZAINZAILA

Heriotzak

Gazteen artean, hilkortasuna askoz ere handiagoa da gizonen artean. 2008. urtean, heriotzen % 51,7 gizonenak izan ziren. Sexuen artean, alderik esanguratsuen 15 urtetik 29 urtera bitartekoen artean gertatzen da: heriotzen % 74,5 gizonenak izan ziren. Soilik 85 urtetik aurrera, emakumeen hilkortasunak gizonena gainditzen du, emakume gehiago iristen direlako adin aurreratueta.

✓ 85 URTETIK GORAKOETAN IZAN EZIK, GIZON GEHIAGO HILTZEN DA

Gizonen artean, heriotza-kausaren multzo handietan, tumoreak izan ziren lehen kausa (% 32,2), eta zirkulazio-sistemako gaixotasunak, bigarrena (% 27,8). Zehatzago, multzo handien barruan, gaixotasun-motaren arabera, bronkio eta biriketako minbiziak eragin zuen heriotza gehien, eta zirkulazio-sistemako gaixotasunen multzo handian, bihotzeko gaixotasun iskemikoak nabarmentzen dira (miokardioko infartu akutua, bularraldeko angina, etab.).

65 urtetik beherakoen artean, gaixotasun kronikoengatiko hilkortasun-tasa handiagoa da gizonen artean. 65 urtetik beherakoen artean, gaixotasun kronikoengatiko hilkortasun-tasa (100.000 laguneko) handiagoa da gizonen artean. Gaixotasun horiek osasunerako kaltegarri diren ohitura txarren ondorioz sortzen dira (dieta desorekatua, sedentarisismoa, droga-kontsumoa, tabakoa, alkohola).

✓ GEHIEN HILTZEN DIRENAK GIZONAK DIRA, GUTXIEN ZAINZTEN DIRELAKO, FRUTA ETA BARRAZKI GUTXIEN JATEN DUTELAKO, MEDIKUARENARA GUTXIEN JOATEN DIRELAKO ETA GEHIEN ERRETZEN ETA EDATEN DUTELAKO

2008an, kanpoko kausengatiko heriotzak gizonen heriotzen % 5,4 izan ziren, eta emakumeen % 2,8. Motordun ibilgailuen bide-istripuek eragindako heriotzen % 78,2 gizonenak izan ziren; beste garraio-istripu batzuetan, % 74,4. Bere buruaz beste egin zutenen artean, % 77,4 gizonenak izan ziren. Suizidio gehienak 30 urtetik 59 urtera bitartekoen artean gertatzen dira, sexu bietan.

✓ BAINA KANPOKO KAUSEK (ISTRIPUAK, ERORIKOAK, ERASOAK, SUIZIDIOAK) ERAGINDAKO HILKORTASUNA ERE HANDIAGOA DA GIZONEN ARTEAN

DELITUA

2008. urtean, kondenatu zirenen artean, % 91,3 gizonenak izan ziren.

Kondenatutakoak

Guztira	196.143
Gizonak	179.080
Emakumeak	17.063
Emakumeen %	8,7

Iturria: Kondenatuei buruzko Estatistika (2008). INE.

✓ ESPETXEAK GIZONEZ BETETA DAUDE. GIZONEK EGITEN DITUZTE DELITU GEHIEN

4 ALDAKETAK EGITEKO AUKERA, GIZONAREN AUTONOMIATIK ABIATUTA, EGOERA BEREZIAK IRISTEN DIRENEAN

ERRETIROA. Erretirora egokitzeko mekanismoak ematea, ikuspegi berdinzale baten araberak: zahartze osasungarria.

ZAINITZA. Adineko gizonak beren buruak eta gainerako pertsonak zaintzen inplikatu daitezkeen sustatzea.

GAIXOTASUNA. Adineko gizonak beren ingurunean gaixoak eta/edo mendekoak zaintzen inplikatu daitezkeen sustatzea.

BAKARDADEA. Alargunen eta banandu edo dibortziatuen kasuak, bereziki.

Urteak aurrera egin ahala adineko pertsona batek aurre egin beharreko egoera kritikoak bizi-prozesuaren ondoriozkoak deskribatzen dituzte egile gerontologo batzuek. Esaterako, Lafores-tek, zahartzearekin lotutako hiru krisi zehazten ditu:

- **Identitate-krisia:** zenbait galeraren ondorioz, autoestimua bera andeatu daiteke.
- **Autonomia krisia:** organismoak eta eguneroko jardueretan moldatzeko aukerak okerrera egitearen ondorioz.
- **Partaide izatearen krisia:** bizitza profesionalari eta gaitasun fisikoei eta bestelakoei lotu riko rolak eta taldeak, gizarte-bizitzari eragiten diotenak, galtzean nozitzen da.

Zahartzaroan, bereziki gogorrek diren esperientzia batzuk bizitzen dira, aurreko bizitzarekin haustea dakartenak. Bizipen horiek ondorio emozional larriak izan ditzakete.

a) Kabi hutsaren sindromea.

Seme-alabek etxea uztea, bizitza independente bati ekiteko; hori da adinekoek aurre egin beharreko lehen gertaera garrantzitsua. Gurasoek uste dute mendetasunen edo gaixotasunen bat sortzen zaienean seme-alabek behar duten laguntza emango dietela, eta be tebehar hori konplitzen ez denean, aita-amen eta seme-alaben arteko harremanak okertu egin daitezke, eta babesgabezia eta bakardadea sentitu daiteke.

b) Familia arteko harreman eskasak.

Adinekoek seme-alabekin dituzten harremanak kantitate aldetik eta -batez ere maitasunaren intentsitate eta kalitate aldetik eskasak direla hautematea arrazoi garrantzitsua izaten da etapa honetan frustrazioa sortzeko.

c) Ezkontidearen heriotza.

Alarguntzea izaten da adin aurreratuetan bakardadearen sentimendua sorrarazten duen eragile nagusia. Adineko gizona bere bikotekidearekin zuen laguntza eta afektibitate gabe geratzen da bat-batean, eta ondorioz, alarguntasunera moldatzeko arazo pertsonalak sortzen zaizkio: emozionalak ez ezik, materialak ere bai, eta baita etxeko lanei eta etxeko eta gizarteko bizimoduari dagokien denbora kudeatzerekin lotutakoak ere.

d) Lan-merkatutik irtetea.

Adinekoen bizitzan, lan-merkatutik irtetea da beste gertaera garrantzitsu bat. Erretiroaren ondoren, pertsonak astialdia izaten dute, eta, askotan, ez dute asmatzen nola bete. Erosa halmena galtzeak ere aisialdi-uneak izateko aukerak mugatzen ditu, baita gizarte harremanak andeatu ere. Horrek guztiorrek gizartean isolatuta geratzea ekar dezake.

e) Jarduera atsegingarririk ez izatea.

Besteak beste erretiroak eragindako astialdia betetzeko, aisialdiko jarduerak egin daitezke. Zahartzarora iritsita, lehenago egin ezin zitezkeen aisialdi-jarduera batzuk egin daitezke.

f) Aurreiritziak.

Egungo gizartean, hainbat aurreiritzi daude zahartzaroaren inguruan: hala nola, bizitza produktiborik ez izatea, sexu-esperientziarik nahiz sexu-beharrik ez edukitzea, ezertarako gai ez izatea, eta zaharkitua eta mendekoa izatea. Hala ere, adinekoek gizartean rol garrantzitsu bat izaten jarraitu ahal izateko baliabideak dituzte: esperientzia, gauzak erlaxatibizatze gaitasuna, objektiboki epaitzen jakitea eta esperientziak emandako jakituria, besteak beste.

Hori guztia ikusi ondoren, bizitzaren prozesuan adinak aurrera egin ahala aurre egin beharrekoak diren puntu garrantzitsuenetan jarriko dugu arreta:

4.1 Erretiroa. Erretirora egokitze mekanismoak ematea, ikuspegi berdinzale baten arabera: zahartze osasungarria.

Erretiroa da gizonezko baten sentimenean gehien eragin dezakeen gizarte-prozesuetako bat: lan egiteko bizi gairela pentsatuz hazten den batentzat, lan egiteari uzteak bizitzeko zentzurik gabe geratzea esan nahi lezake. Erretirora iritsi eta astialdi gehiegi izatea arazo bihur daiteke astialdirako denbora gutxirekin lanean ibili den batentzat.

Lanetik erretiratzeak galera handiak ekartzen ditu pertsonen bizitzan: adibidez, beren lankideekiko harremanak, lan-dinamika eta langile lege zuten estatusa galtzen dituzte.

Langileek, erretiratzen direnean, ebatzi beharreko problema batzuk izaten dituzte; garrantzitsuenak, honako hauek: estatus profesionala ordezkatu dezakeen estatus berri bat bilatzea; rolen sistema berregituratzea, estatus aldatzearen ondorioz; eta, lanaren bitartez egiten zen bezala, gizartean integratuta jarraitze beste modu bat bilatu behar izatea.

Erretiroa hartzea konplexua da, zeren eta hainbat faktore agertzen dira: langilearen adina, generoa, osasun-egoera orokorra, nortasuna mota, hezkuntza-maila, diru-sarrera kopurua, egoera zibila, familia arteko harremanak nolakoak diren, gizarte babesak, bizitzaren zati handiengan bete izandako lanbidea edo ofizioa, lanbide-gaixotasunak, metatutako lan-nekea, lana pozgarri izan den edo ez, lanak bete izandako lekua har dezaketen jarduerak, langileak lanari zer nolako garrantzia ematen dion, erretiroa planifikatzeko hartutako prebentzio-neurriak, erretiroari buruzko nahiak eta itxaropenak, erretiroa borondatez edo behartuta hartu den, etab.

Horregatik, erretiroa hartzen dutenak heterogeneoak dira, hau da, pertsona bakoitzak edo talde bakoitzak, bizitzaren zati handiengan bete izandako lanbide edo ofizioaren arabera eta horrekin batera gertatzen diren gainerako faktoreen arabera, patroi eta ezaugarri espezifikoak izaten ditu, eta ondorioz, nork bere bizipen partikularrak.

Erretiroaren fenomeno eta erretiroak langileengan dituen ondorioak aztergai izan dira eremu ekonomiko, politiko, laboral eta soziolaboraletan; hala ere, azterlan horiek, gehienak positibistak

izaki, erretiratuak eta horien agerbideak mikro mailako teorien barruan sailkatu nahi izan dituzte.

Horietan, kausa-ondorioa erlazioa egiaztatu nahi da. Ia ez dute kontuan hartu eraginpean daudenek zer ikuspuntu duten eguneroko testuinguruan. Erretiratuak langile ohien masa homogeneotzat hartzen dituzte, eta ez dute uste erretiratuek osasun-arazorik eta rol berrira egokitzeko arazorik dutenik, bizitzaren zati handiengan bete izandako lanbide edo ofizioarekin lotuta.

Emakumeak beste modu batean igarotzen dira egoera berrira. Izan ere, emakumeen belaunaldiek gizartean izan duten partaidetza gehiago lotu izan da etxearekin –hau da, ikusezintasunarekin-, ordaindutako lanaren merkatuarekin baino. Horregatik, emakume askok, “ezkonlagun soil” direnez, senarrarekin batera hartzen dute “erretiroa”. Egoera hori “gizona hornitzailea eta emakumea zaintzailea” ereduaren arabera diren bikoteetan gertatzen da; horrelakoak dira bikote gehienak egun 65 urte edo gehiago dituztenen artean. Kasu horietan, gizonezkoa familia-burua izaten da, eta ardatza, zeinaren inguruan osatzen diren gainerako kideen identitateak. Gizartearekiko lotura familia-buruaren irudi publikoaren arabera da, eta hark lan-bizitza uzten duenean, gizartearen gainerako kideak ere urrundu egiten dira gizarte-eremutik.

Denok ezagutzen dugu honelako kasuren bat: Anparok esan zidan denak okerrera egin duela senarra erretiratu zenetik. Berak bizimodua ondo antolatuta zuen; gainera, haren hitzetan, “emakumeak ez gara inoiz erretiratzen”. “Orain, aldiz, soldataren erdia dut, pentsioa hala geratu delako; gizona berriz, bikoiztuta”. Bat-batean, etxean duen senarra ernegatuta dago; atzetik du egun osoa; dena kritikatzeko, emaztearen elkarrizketari buruzko azalpenak nahi ditu, denaren gainean agintzen du, eta emaztea alboan izan nahi du une oro. “Horrela jarraitzen badu, banandu egingo naiz”. Ondorio hori ateratu zuen.

Beraz, egoera horretara ez iristeko eta **erretiroari beste ikuspuntu baten arabera aurre egiteko, egoera berria ikuspegi honen arabera planteatu behar da:**

Genero-ikuspegia aplikatuta, maskulinitateak ematen duen gizon-langilearen etiketa kendu daiteke. Orain badakigu identitate maskulinoa harago joan daitekeela, izaki aktiboak baikara, sortzaileak eta harreman zaleak. Horixe behar dugu gure bizitzak beteak izan daitezen. Eta horrek ez du adinik.

Jarduera mota, maiztasuna edo antolamendua aldatzea; horixe baino ez da erretiroa. Horixe baino ez. Erretiroa hartzen duenak aktibo, sortzaile eta maitale izaten jarraitu behar du.

Erretiroa bizi-prozesuaren zati da, eta gertatzen diren aldaketetara egokituz gero, erretiroa poztasunez biziko dugu.

“Mundua aldatzeari ekin baino lehen, egizu hiru ibilaldi zure etxe barruan”. Hala dio esaera txinatar batek. Erretiroaren ikuspuntuak denbora eskatzen du erretiroa iristean zer egin dezakegun hausnartzeko.

Ez dago okerragorik, egun batean jaiki, eta hau esatea baino: “ez daukat zereginik”.

Ikusi dugunez, hori beren identitate osoa eta, ondorioz, bizitza osoa lana egitearekin lotzen ikasi duten gizonezkoek gertatzen zaie, bereziki. Ondorioz, erretiroa hartzerakoan berriz zehaztu behar dute identitatea. Horri behar bezala aurre egiten ez diotenak nahastuta sentitzen dira aldi batean, batzuetan deprimetuta ere bai, beren bizitzari zentzurik aurkitzen ez diotelako; abailduta, bizitzarako proiekturik gabe geratu direlako.

Egoera horri beste ikuspuntu batekin, alegia, eskuliburu honetan proposatzen den ikuspuntu-

rekin aurre egin ezean, identitategabezia horren zuloa eta identitate-erreferentziak galtzean pairatutako nortasungabezia ahazten laguntzeko, ihesbide oker batzuk har daitezke: esaterako, alkohola edaten hastea edo gehiago edatea, taberna bere espazio publiko bihurtuz. Ikuspegia aldatu ezean, murriztu egiten dira ekimen berriei ekiteko aukerak eta denborarik ez edukitzeagatik gauzatu ez diren ekimenetan sakontzeko aukerak.

Beharrezkoa izango da lan-bizitzatik poliki-poliki deskonektatzea, oztopoak gainditzea, beste jarduera eta ordutegi batzuk –besteak beste finkatzen diren bitartean.

Bide eman behar zaio erretiratzeko joateari, prozesuaren amaierara “langile hornitzailea” lurperatuta iristea, mundu honetako herritar aktibo gisa birjaiota. Zer gorde nahi dugun eta zer aldatu gura dugun erabakita.

4.2 Zaintza: Adineko gizonak beren buruak eta gainerako pertsonak zaintzen inplikatu daitezten sustatzea.

Aurreko puntuetan esan denez, adineko gizonak, bere burua zaintzeari dagokionez, ez du planteatzen hezkuntza-arrazoia tarteko bere burua zaindu beharra. Gaixotasunak prebenitzeko neurriak hartzea, azterketa medikoak egitea... ez dago ikasi den identitate maskulinoaren barruan; izan ere, “kexatzea emakumeena da”, hala erakutsi zaie gizonari. Txikitatik, produktiboak izan daitezke hezi dira, eta askotan, lanaldi luzeak egin dituzte, ordu askotan jarduera fisiko gogorra eginez, oraingo teknologiarik ez zegoelako orduan; gainera, orduan ez zen atsedena hartzerik planteatzen, eta are gutxiago baja hartzea, oso arrazoi sendoek justifikatutako kasuetan ez bazen.

Beraz, gaixorik daudela esaten dutenean, benetan gaizkituta egon ohi dira; batzuetan, egoera kritikoetan iristen dira osasun-zerbitzuetara, eta beste batzuetan, itxoitzen geratzen dira luza-roan, “pasatuko zait” pentsatuz, eta horrelakoetan, diagnostikoa egin orduko, oso gaixotasun larria izaten dute, edo gaitza kroniko bihurtuta.

Bestalde, kontuan hartu behar da, jasotako heziketaren ondorioz emozio, sentimendu eta bizipen pertsonalen mundua emakumeen esku utzi izan dela, bikotekidearen esku; horregatik, emakumeak jakin izaten du zein den gaixotasunaren jarraipena, zein den tratamendua, eta noiz diren familia-medikuaren mediku-azterketak edo espezialistetarako hitzorduak. Gauza bera gertatzen da irudia zaintzeari edo higiene pertsonalari dagokionez, zeren eta emakumeen esku geratu ohi da: krema eman beharra dagoen, ile-apaindegira joan behar den, gertaeraren arabera zein arropa jantzi behar den, zer jan behar den, etab.

Eguneroko zainketaren gai nagusiak emakumeei lagatzeaz gain, aurreko kapituluetan ikusi dugun bezala etengabe genero-mandatuak ikasten ibiltzearen ondorioz, adineko gizonak egun baliotzat eta beren gizentasuna erakusteko modutzat daukate norberaren garbitasunerako ura eta xaboa soilik erabiltzea, bestelako produkturik erabili gabe, hala nola, lurrinak, larruazala hidratatzeko kremak edo desodoranteak, esaterako. Haien ustez, ondo egoteko eta itxura ona edukitzeko, batzuetan nahikoa izaten da orraztuta eta bizarra kenduta egotea.

Kultura patriarkala eremu askoren bidez sozializatzen da, esaera zeharren bidez ere bai, horra ere iritsi baita genero-mandatu hori. Euskal esaera batek dioenez, “gizon zatarra, arra”. Gizon askok betetzen du hori, itxura zaintzearen kontuak saihesteko.

Horretaz gain, adineko gizonak ez dute planteatzen noizbait euren buruaren zaintza bere egitea, ez eta familiako kideren baten zaintzaren ardura bakarrik edo beste batzuekin batera euren gain hartzea ere, edo eurak baino zaharragoa den norbait zaintzea. Argi eta garbi esan dezakegu gure kulturaren ez dela aukera baliotsutzat hartu izan gizonak emakumeak dauden leku berean

egotea, familia zaintzeko orduan. Familia amak zaintzen du, emazteak, alabak edo erranak, edo arrebak... eta azkenik, emakumezko ilobek eta bilobek.

Adineko gizonezkoak krisi-pertsonala izaten du bere buruaren zaintzaren ardura berak hartu behar duenean, edozein gorabehera tarteko (hori egingo duen seniderik ez duelako, edo alboan duen emakumeak mendetasunen bat duelako). Zaintzaren inguruan berriz hezten saiatzea proposatzen dugu, zaintzaren kultura-mendetasuna gainditzeko; askotan kanpoko laguntza behar izaten da nork bere burua nola zaindu ikasteko.

Kanpo laguntza esaten dugunean ingurunean bai familian bai auzoan hurbilen dauden emakumei laguntza eskatzeaz ari gara, edo erakunde publikoek edo pribatuak ahalbidetzen dituzten gizarte-baliabidetan laguntza eskatzeaz.

Hausnarketa horiek zera pentsarazten digute:

- Gizonak gustura al daude erretiroa hartu arte familiarentzat hornitzaile izaten, euren buruaren zaintza beste batzuen esku utzita?
- Zer egin genezake gizon horiek independenteago izan daitezen?
- Adineko gizonei zer tresna eman diezaiekegu euren zaintza pertsonalaz ardura daitezen, bai eurak bai ingurukoak hobeto sentitzeko?

Gure ustez, heldutasunera iristen diren adinekoak ahalik eta urte gehien bizi nahi dute. Beti izan duten bizi-kalitate antzekoarekin, zahartzaroko urte horietan autonomo eta independente izan nahi dute eguneroko zereginak egiterakoan, eta horretaz gain, aisialdia baliatu nahi dute, bai euren kontuetarako, bai senitartekoekin gozatzeko.

Esaten da kontua ez dela bizitzari urteak gehitzea, urteei bizitza ematea baizik; heldu osasuntsuak izan behar dira, bere bizitzarekin kontsekuenteak, sortzaileak eta harreman zaleak, independenteak. Adineko gizonezkoek pentsamendu-mota horiek dituzte, helburu hori dute. Inoren mende bizi beharra ez da atsegina. Emaztearen, alabaren edo emakume izaten den beste norbaiten mende bizitzea, horien zaintzapean egotea ... ez da atsegina; hala ere, normalean hori egiten dute, ez dutelako auto analisisirik egiten benetan hori nahi duten edo egoera aldatzeko zerbait egin dezaketen jakiteko.

Eskuliburu hau haiei laguntzeko tresna izan nahi da; betetzen duten rolari buruz hausnar egiten laguntzeko, eta erretiroa hartzen dutenean, ikuspuntua aldatu ezean eta kultura-mendetasun hori onartu ezean, haurtzaro moduko batera itzultzea onartzen dutela ikusarazteko, eta badakigu haurtzaro moduko horretara itzultzea ez dela gustukoa izaten gehienetan.

Desikasi egin behar dute familiarentzat hornitzaile izatearen zeregina, "gizon produktiboa" izatearena, eta orduan ikasiko dute etxean, eremu pribatuan, izango duten zeregin berria; eremu horretan, beren emozio, esperientzia eta jakintzekin esperimendu dezakete, beren buruaren onerako eta beren hurbileko jendearen onerako. Beren eguneroko zereginean garatu dituzten jakintzez mintzo gara. Adibidez, lagun-taldearekin txokoan, elkarte gastronomikoetan ... afariak prestatuz lortzen duten jakintza egunero aplikatu dezakete beren etxeetan, inork janaria prestatu zain egon gabe. Hainbatetan ibilgailua edo fabrikako makinak garbitzen nola, hala egin dezakete nork bere etxean ere. Gelako kristalak eta ibilgailuko haizetakoak garbitzea ez da desberdina.

Denontzat atsegina izaten da txukun, garbi eta zainduta dagoen norbaitengana hurbiltzea, garbi, koordinatuta eta sasoiaren arabera jantzita dagoen norbaitengana, usain ona duen norbaitengana hurbiltzea... Hortaz, gizonak zergatik egon behar izaten du inoren zain, esandako guzti hori

atsegingarri dela esan diezaion? Badakigu hori ez dela zaila. Seguruenik, lanean askoz ere gauza zailagoak egin izan ditu, inork gainbegiratu beharrik gabe. Beraz, pixka bat saiatuz gero, orain ere inork ez dio halakorik egin beharko (emazteak, alabak edo kontratutako emakumeak), egunean zer arropa jantzi behar duen erabakitzeke.

Gizon batek, alboan duen emakumea gaixotzen denean edo galera kognitibo baten ondorioz mendeko bihurtzen denean, berak gobernatu behar izaten du etxea, baina horretaz gain, bikotekidearen zaintzaren ardura hartu behar izaten du, eta, oro har, ez diote erakutsi hori nola egin.

Orduan, zaintzaile izaten ikasi behar du, egun batean bidaidetzat aukeratu zuen laguna ondo zaintzeko. Arreta hori bere gain hartu ahal izateko, laguntza eskatu beharko die bai senitartekoei, bai erakunde publiko nahiz pribatuei, zeren ondotxo dakigu zaintzaileak bere burua zaindu beharra duela beste batzuk zaindu ahal izateko.

Baldin eta etxean, gizonak erretiroa hartzen duenean, pertsona zaharrago bat esaterako bere gurasoak edo bikotekidearenak zaindu beharra badago, zaintzaren ardura bikotekide biek hartzea da onena. Ardura hori bikotekideari uzten badio, berdinzalea ez den aukera hautatzen du, eta horrek arazoak sor ditzake gerora. Urte asko dituen norbait zaintzea nekagarria da, ordu asko eman behar izaten dira zaintzan; ardura hori ezin du bikotekide batek soilik hartu, beste bikotekidea pasieran joaten den bitartean edo lagunekin kartetan dabilen artean.

Nola aldatu hori? Hori guztia oso erraz lor daiteke:

- aldatzeko gogoia eduki behar da,
- jarrerak malgutzeko gaitasuna eduki behar da, eta
- bizi-prozesuan gertatzen diren egoera berrietara moldatu beharra dago.

Orain artean emakumezko zaintzaileek egiten zituzten gauzetan inplikatzeari norbere burua zainduz eta bikotekidea zainduz, lagungarri da bizikidetzaren harremanetarako, eta elkarlanerako jarrerak ahalbidetzen ditu.

Adineko gizonak ekimenak eduki ditzake, sentitzeko duen gaitasuna gara dezake. Izan ere, orain arte, gizarteak ez dio horrelakorik egiten utzi. Hori dela eta, pertsona osoago, beteago, eta, ondorioz, zoriontsuago bat izateko aukera ikusi behar da bizitzaren etapa honetan.

4.3. Gaixotasuna/mendetasuna. Adineko gizonak beren ingurunean gaixoak eta/edo mendekoak zaintzen inplikatu daitezkeen sustatzea.

Aurreko puntuan zaintzaz hitz egin dugunean, aipamen arin bat egin dugu mendetasuna duten adinekoei buruz, baita horiek zaintzen dituztenei buruz ere; orain, ordea, gehiago sakonduko dugu gai hau: gaixotasuna eta mendetasuna.

Gaur egun, familia da zaintza-iturri nagusia mendetasuna duen pertsona batentzat. Pertsonak mendetasunezko beste egoera-motaren bat duenean (desgaitasun fisikoa, sensoriala, intelektuala, etab.), aldatu egiten dira soilik familiarrean ematen den zaintzaren kasuak: gutxi gorabehera % 50, desgaitasun intelektuala duten pertsonen kasuan, eta % 70, desgaitasun fisikoren bat duten pertsonen kasuan.

Ingurukoaren artean zaintzea diogunean, ezinbestekoa da familiako zaintzailearen figura aipatzea. Familiaren hurbileko ingurunean laguntzen dutenak dira. Familia gehienetan, pertsona bakarrak hartzen du zaintzaren ardura handiena.

Zaintzaile nagusi gehienak emakumeak izaten dira: emazteak, alabak eta errainak. Izan ere, gure herrialdean adineko senitartekoren bat zaintzen ari direnen artean, hamarretik zortzi emakumeak dira, 45 urtetik eta 65 urtera bitartekoak. Emakumea pertsonak zaintzeko gizona baino hobeto prestatuta dagoela pentsaraztera bultzatzen gaituzte jaso dugun heziketak eta gizarteak helarazten dizkigun mezuek. Badakigu hori dela zaintzaile gehienak emakumeak izatearen arrazoi nagusia. Pairatzeko, sufritzeko eta borondatez aritzeko gaitasun handiagoarekin lotzen da emakumeen identitatea.

Zaintzaren eremuan emakumeen nagusitasuna nabarmena den arren, gizonak gero eta gehiago parte hartzen dute adineko pertsonak zaintzen, bai zaintzaile nagusi izanda, bai zaintzaile nagusien laguntzaile izanda. Egoera progresiboki aldatzen ari den erakusgarri da hori.

Mendetasuna duten adinekoen zaintzaileak desberdinak izaten dira hainbat ezaugarriren arabera, eta ondorioz, zaintza-esperientzia bakoitza bakarra izaten da, beste guztietatik desberdina.

Zaintzaren esperientzia asko aldatzen da zaintzailearen eta zaintzen den pertsonaren arteko ahaidetasunaren arabera:

Ezkontidea zaintzaile

Bikotekide baten osasunak okerrera egiten badu, eta hark eguneroko zereginetarako la guntza behar badu, osasun hobea duen bikotekidea izaten da zaintzaile nagusi.

Egoera horien ezaugarri komunak:

- Bizitzan aldaketa dakarren edozein egoeratan bezala, senarra edo emaztea zaintzea ekartzen duen egoera berria zaila izan daiteke, eta etengabe egokitu beharra eskatzen du.
- Bikotekide batek laguntza eman behar duenean eta besteak jaso, tentsioa sor daiteke, harremanaren elkarrekotasun-maila lehenagokoa baino txikiagoa delako. Bien artean komunikazio eta jarrera egokia egoteak asko lagun dezake tentsio horiek apaltzen.
- Errazago onartzen da senarraren edo emaztearen laguntza, familiartekoen, lagun, auzokoen edo erakundeen laguntza baino. Izan ere, belaunaldiz belaunaldi transmititu tutako betebehartzat hartzen da, bai elkarrekin igarotako urteengatik maitasunaren erakusgarritzat ere.
- Senar zaintzaileek emakume zaintzaileek baino laguntza handiagoa jasotzen dute beste familiarteko edo erakunde batzuetatik.
- Askotan, emakume zaintzaileek ez dute beste familiarteko, lagun, auzo, edo erakunde ofizialen laguntzarik bilatzen edo jasotzen. Besteen laguntza ez onartzearen ondorioz, emakume horiek, sarritan, beren osasunak eta baldintzak uzten diena baino gehiago zaintzen dute, eta behar baino gehiago kargatzen dira.

Seme-alabak zaintzaile.

Zaintzailea semea edo alaba baldin bada, familia-lotura naturala dago mendetasuna duen pertsonarekin, eta horrek zaintzeko gertu egoten laguntzen du. Gehienetan, seme-ala bentzat talka emozional gogorra izaten da aita, ama edo biak beren kabuz moldatzeko gauza ez direla konturatzea; batzuentzat oso zaila izaten da aita-amak zaindu behar dituztela

onartzea; gainera, ustekabeen gertatzen da, eta eragozpen izan daiteke bihar-etzi egin nahi zituzten jarduera batzuk egiteko.

Normalean guraso eta seme-alaben artean egon ohi den maitasuna ez da egoten batzuetan, bai lehenago ere guraso eta seme-alaben arteko harremana ona ez zelako, bai harremanik egon ez delako, beste senitarteko batzuekin edo etxetik kanpo hazitako seme-alaben kasuan, esaterako. Horrek zailago egiten du mendetasuna duen adinekoaren zaintza bere gain hartzea.

Beste zaintzaile batzuk

Zaintzaileak mendetasuna duenaren neba-arrebak edo beste senitarteko batzuk badira, errazago onartzen da beste pertsona batzuen edo erakundeen laguntza.

Mendetasuna duen pertsona bat familian zaintzeko arrazoiak hainbat dira. Senitartekoak zaintzen dituzten pertsona gehienek ustez, betebeharrak moral bat da, ekidin ezinekoa; gizar- eta familia-erantzukizun bat dago, gizarte-arau batzuk daude, errespetatu beharrekoak.

Hala ere, ez da arrazoi bakarrik mendekoak senitartekoek zain ditzaten. Zaintzaileek beste arrazoi batzuk ere aipatzen dituzte:

- *Altruismoa*, hau da, zaintzen den pertsonaren ongizatea bermatzea, haren beharrak ulertzen eta partekatzen direlako. Zaintzailea bestearen lekuan jartzen da, eta bestearen beharrak, interesak eta emozioak sentitzen ditu.
- *Elkarrekikotasuna*, zaintzen duten hori lehen zaintzaile izan zutelako.
- Zaintzen duten pertsonak erakusten dien *esker ona eta estimua*.
- Iraganeko *erru-sentimenduak*: zaintzaile batzuek libre sentitzeko bidetzat hartzen dute zaintza, iraganeko egoerek eragindako erru-sentimenduak gainditzeko bidetzat: "Iraganean ez nintzen behar bezain ondo portatu amarekin. Orain ahal den guztia egin behar dut harengatik" esaten dute.
- Familiartekoren bat etxean zaindu ezean, familiaren, lagunaren, ezagunen... *gaitzespena ekiditea*.
- Familiaren, lagunaren, ezagunen eta *gizartearen onarpena lortzea*, zaintza-lana dela eta.

Logikoa dirudi pentsatzeak arrazoi batek edo besteak "pisu" handiagoa edukitzeak eragina izango duela emango den laguntzaren kalitatean, kantitatean eta moduan, bai eta zaintzaileak zaintza-lanetan jasotzen duen gogobetetze-mailan ere.

Kontuan hartu behar da zaintzaren esperientzia beti ez dela berdina izaten; aitzitik, denboran zehar aldatu egiten da, bai zaintzen den pertsonaren ezaugarrien arabera (adibidez, dementziak dituztenek aldaketak izaten dituzte, eta ondorioz, zaintza-moduak ere aldatu egin behar izaten dira), bai zaintzailearen ezaugarrien arabera (lan-eremuan eta bizitzan aldaketak gertatzen dira, etab.).

Mendetasuna duen pertsona bat zaintzeko gomendioak.

Mendetasunen bat duen pertsona bat zaintzeko ardurak handia eskatzen du, eta, askotan, zaintza-lana pertsona bakar batek egin behar baldin badu, gaitzespena sortzen da.

Egoera horiek saihesteko, hau gomendatzen dugu: aldaketa hasieratik onartu behar da, eta une horretatik aurrera, zaintza behar duen pertsona zaintzen nortzuek eta nola parte hartuko duten argitu behar da, bai eta zaintzaileen artean egitekoak eta ardurak nola banatuko diren ere. Familia berrantolatzea formula egokiena da alderdi horiek argitzeko, eta familiartekoa ahalik eta ondoen zaintzeko erantzukizuna nola banatu erabakitzeko. Beraz, gomendagarria da:

Familiarekin oro har:

Senitartekoen artean bilerak antolatzea. Bileretan, argi utzi behar da familiako kide bakoitza noraino konprometituko den zaindu beharreko pertsona zaintzen. Familiarteko bakoitzak izango duen laguntza-maila dela-eta, ahalegina egin beharko da etorkizunean arazoak eta erresuminak ez sortzeko, edo ahalik eta gutxien sortzeko.

Bikotekidearekin:

- Zaintzaren egoerak bikote harremanean nola eragin dezakeen aurreratu, eta bien artean horri buruz hitz egin.
- Bikotekidearekin hitz egin zaintzaren egoeraren ondorioz beren bizitzetan sortzen ari diren al daketen inguruan.
- Bikotekidearekin jarduerak egiteko denbora gorde.
- Bikotekideari eragiten dion zaintzari buruzko erabaki oro jakinarazi bikotekideari.

Seme-alabekin:

- Egoera azaldu, lasaitasunez eta zintzotasunez.
- Zaintzan lagundu nahi duten galdetu.
- Familiartekoa zaindu beharragatik, familia-bizitzan gertatzen ari diren aldaketak direla-eta nola sentitzen diren galdetu.
- Senitartekoa etxean zainduko den, eta laguntzeko gertu dauden. Baiezkoa bada, gomendagarria da etxeko lanak eta erantzukizunak banatzea.
- Seme-alabei eragiten dien zaintzari buruzko erabaki oro jakinarazi.

Beste familiarteko batzuekin, lagunekin eta auzokoekin:

Gizarte-harreman positiboak edukitzea lagungarria da zaintzaileen bizi-kalitatea hobetzeko. Gomendagarria da esperientzia atseginak ematea, haien ongizatea eta egonkortasun emozionala indartzea, zaintzaileek horrela jakingo baitute, batetik, funtsezkoa dela gizarte-harremanak izaten jarraitzea, ongi sentitu daitezen, eta bestetik, ahalegina egin behar dutela zaintzak irauten duten bitartean familia, auzotar eta lagunekin gizarte-harreman esanguratsuak mantentzeko; izan ere, barre egiteko, une onak igarotzeko, negar egiteko edo tentsioetatik askatzeko aukera izango dute hartu-eman horiek medio.

Profesionalekiko harremana:

Zaintzaileen eskubidea da zaintzarekin lotutako zalantzen eta gaien inguruan kontsulta egitea, bai osasun-eremuko profesionali (medikuei, erizainei), bai gizarte-zerbitzuetako profesionali. Osasun-eremuko profesionalak kalitatezko informazioa eman behar dute mendetasuna duten adineko pertsonak dituzten osasun-arazoen ezaugarriei buruz, bai eta behar dituzten zainketei eta horiek emateko moduari buruz ere.

Gizarte zerbitzuetako profesionalak gizarte-baliabideei zer informazio dagoen azaldu behar die zaintzaileei (adibidez, egoitzak, etxez etxeko laguntza, eguneko zentroak, atsedeen hartzeko programak), baita baliabide horiek nola baliatu ere.

Norbere burua hobeto zaintzeko aholku praktikoak:

- Astialdirik edukiz gero egin nahi luketen helmuga edo ekintzen zerrenda bat eduki. Horrela, astialdi hori iristen denean, zaintzaileak une atseginak ekarriko dizkioten helburuak eta ekintzak izango ditu.
- Beharrianak asetzen eta ondo sentitzen laguntzen duten jarduerak egiten jarraitu, hala nola, prestakuntza-jarduerak, kirolak, aisialdiko jarduerak, etab.
- Konpromisoa hartu jarduera horietarako denbora-tarte bat gordetzeko egunean, astean eta hilean.

4.4. Adinekoen bakardatea. Bakardadeari baikortasunez hel diezaioten sustatzea. Alargunen eta banandu edo dibortziatuen kasuak, bereziki.

Adinekoak, bizi-zikloaren bilakaera dela-eta, bakarrik egon ohi dira, eta zenbat eta adintsuago izan, orduan eta bakarrago.

V. Madoz-ek honela deskribatzen du bakardatea: "baztertuta egotearen, interakzioen mundu horretara sartu ezinaren uste atsekabetua; ondoez emozionala da, pertsona bat ez-ulertua sentitzen denean sortzen dena, edo besteek baztertuta sentitzen denean, edo gustuko jarduerak egiteko (fisikoak nahiz intelektualak) edo intimitate emozionala lortzeko lagunik gabe dagoenean".

Bakardatea ez da beti sentimendu negatiboa izaten. Beraz, bakardate objektiboaz hitz egin dezakegu, hau da, lagun faltari dagokionaz; hori beti ez da bizipen desatsegina izaten, zeren eta norberak bilatua izan daiteke, eta horrek autonomo eta independenteki bizitzeko aukera esan nahi du, familia-kargarik gabe bizitzekoa, une horretan seme-alabek beren familia osatuta izaten baitute, normalean. Bakardate-mota horrek aukera ematen du bizitzaren etapa horri beste modu batez aurre egiteko: nork bere burua gauzatuta, eta zahartzaroa aktiboa eta atsegingarria izan dadin planteatuz.

Baina bakardate subjektiboa ere badugu, bakarrik sentitzen diren pertsonak pairatzen dutena. Sentimendu horren beldur da adineko pertsona ugari. Egoera hori inoiz ez bilatzen.

ALARGUNTASUNA: ADINEKO PERTSONEN BAKARDADEAREN ARRAZOI NAGUSIETAKO BAT.

Emakumeak gehiago bizi direnez eta gizon zaharragoekin ezkontzeko joera dutenez, litekeena da emakumeek alargun geratzeko aukera gehiago izatea. Horregatik, emakume gehienentzat alarguntasuna eta, askotan horrekin batera etortzen den bakardatea, helduaroko zati normala izango da, adinean aurrera egin ahala, batez ere.

Hori dela-eta, alarguntasuna adineko batek bizi dezakeen bizi-gertaera mingarrietako bat da, zoriontsuak izan ez diren harremanetan ere bai (Lopata 2006).

Galeraren ondorioak bakoitzarentzat desberdinak izango diren arren, askorentzat, bereziki bakarrik bizi direnean eta lagun eta familiarterako gutxi dutenean, bakardatean bizitzen hastea eta horrek ekarri ohi duen sentimendu negatiboa kaltegarri izaten da osasun fisikorako eta psikologikorako (Sánchez Vera eta Bote Díaz 2007).

Elkarrekin urte asko eman direnean eta genero-rolen banaketa egon denean, ezkontidea galtzeak, bakardate ororen zailtasunak ez ezik, funtzio garrantzitsuak egiteko ezintasuna ere ekartzen du. Halaber, ezkontidearen heriotzak nabarmen jaitsi dezake beste bikotekidearen ongizate ekonomikoa (Zick eta Holden 2000; Burkhauser. 2005).

Emakume alargunek baino gizon alargun gehiagok aukeratzen du edo gogoko du beste harreman batekin hastea. Ez da harritzekoa, zeren eta alargun geratzean, emakumeak hobeto moldatzen dira bakarrik, eta horregatik, ez dute horrenbeste nahi beste bikotekide batekin hastea edo, agian, edo ez dute horrenbesteko premiarik.

Alarguntasunari buruzko gizarte-eraikuntza negatiboak daude oraindik ere, eta emakume alarguentzat gizon alarguentzat baino gehiago. Izan ere, gizonek bizitza-proiektu berri bati ekiteko dituzten premiak oso ondo ulertu izan dira betidanik (Sánchez Vera eta Bote Díaz, 2007).

Bakardadea eta gizarte-isolamendua leuntzeko estrategiak eta baliabideak:

Bakardadetik irtetea ez da soilik adineko pertsonaren edo haren familiaren erantzukizuna, gizarte osoarena ere bada. Gizartea arazo horretaz jabetu behar da, eta programa terapeutikoak sortu eta garatu behar ditu bakardadea eta depresioa ekidin eta kontrolatzeko; hain zuzen ere, depresioa detektatu, neutralizatu, eta batez ere, prebenitzeko.

De Ussel doktorearen azterlanaren arabera, bakardadea sorrarazten duten pentsamenduekin bateraezinak diren jarduerak egiten direnean prebenitzen edo gainditzen da adineko pertsonen bakardadea, jarduera horiek gizarte- eta familia-harreman atseginak lantzen laguntzen dutenean, bereziki. Pertsonak beste erantzun daude. Hortaz, pertsona bakoitzaren arabera irtenbideak proposatu behar dira, baita irtenbide kolektiboak ere. Bakardadeari aurre egiteko eta/edo hura prebenitzeko baliagarri izan daitezkeen baliabide batzuk azalduko ditut.

1) Adineko pertsona bakoitzaren giza baliabideak kontuan hartu behar dira.

CIS-IMSERSOk egindako azterlanean baieztatzen denez, bakardadean, adineko pertsonak telebista ikusten dute (% 28) edo pasieran irteten dira (% 23). Hala ere, besteekin harremanetan hastea dakarten jarduerak ez dira oso ohikoak. Bakarrik sentitzen direnean, adineko pertsonen % 5ek bakarrik hitz egiten du auzokoekin; % 3 bisitaren bat egitera, edo taberna edo kafetegiren batera joaten da; eta % 2 zaharren etxera. Bakardadea pairatzen duten pertsonak pasiboagoak izaten dira: etsi egiten dute (% 13), eta telebista ikusten dute (% 31), lagunduta sentitzen direnak baino maizago (% 9 eta % 26, hurrenez hurren).

Zahartzaroari aurre egiteko estrategiak desberdinak dira pertsona bakoitzarentzat: bakoitzak dituen baliabideen eta sentsibilitate eta interesen arabera dira. Hala ere, badaude baliabide batzuk estimulatuta bizitzeko beharrari erantzuten diotenak, bakardadean ez erortzen laguntzen dutenak. Esaterako, etxeko lanak egitea, telebista, irratia, praktika erlijiosoetara itzultzea edo horiek areagotzea, telefonoz hitz egitea, zaharrentzako zentroak (zaharrentzako gizarte- eta kultura-zentroak, eguneko arreta-zerbitzuak eta eguneko zentroak), kultur-, turismo- eta aisialdi-jardueretan parte hartzea, eta, gutxitan bada ere, beste bikotekide batekin hastea.

2) Familia-baliabideak

2.1. Familiak funtsezko zeregina du. Esan daiteke gizon edadetuaren gizarte-euskarri nagusia dela, maite diren pertsonetik harremanak eta horien babesa funtsezko baliabidetzat hartzen baitira bakardadearen kontra borrokatzeko. Aitaitaren rola oso irtenbide ona izan liteke familia arteko harremana hobetzeko.

2.2. Beste aukera bat adinekoei lagun egitea da. Hori lagungarri izan liteke egoitzetan dauden adinekoen gabezia afektiboak osatzeko, adineko horiek borondatez bisitatuz edo horiei telefonoz deituz. Adinekoei lagun eginez, konpromiso batez ere moral bat medio, familia batek edo pertsona bakar batek behar handiena dutenen premia afektiboak betetzen ditu. Programa horren bidez, boluntarioek lagun egitea egoitzetan bizidiren adinekoei, familia-sare eskasak dutenei edo halakorik ez dutenei. "Edad Dorada Mensajeros de la Paz" elkarteak program horietako bat du, "En

Familia” izenekoa. Programa horren bidez, familiak harremanetan jartzen dira egoitzetan bizi diren eta familia naturalaren babes emozional eskasa duten adinekoekin edo horrelako babe sik ez dutenekin.

3) Gizarte-baliabideak

3.1. Bakardadearen sentimenduari aurre egiteko, oso garrantzitsua izan daiteke lagunak izatea eta horiekin informazioa trukitzea eta aisialdiko eta astialdiko ekintzak elkarrekin egitea.

3.2. Horiek bezain garrantzitsuak dira boluntarior-tza-jarduerak, non elkartasuna eta besteei laguntzeko nahia norberarengana ere itzultzen den, eta horrela, beste pertsona batzuentzat baliagarri izateko premia asetzen da, zaurgarritasun-egoera handiengan dagoen batentzat garrantzitsua izatekoa. Boluntarior-tza 1993ko Plan Gerontologikoak bideratu eta gomendatzen du. Adineko pertsonen partaidetzari buruzko helburuetan, hau proposatzen digu: adineko pertsonak motibatu egin behar dira, bai bakarka bai taldean, borondatez parte har dezaten programa garatzen eta gizarte zerbitzuak ematen. Adinekoentzako 2003-2007 Ekintza Planak ere, 1. Helburuan, adineko pertsonak autonomoak izan daitezten eta komunitatean osoki parte har dezaten sustatzea gomendatzen digu, zahartze aktiboaren printzipioetan oinarrituta. Horretarako, estrategia hau jasotzen du besteak beste: adineko pertsonen gizartean duten partaidetza hobetzea eta indartzea, dauden ordezkari-tza- eta partaidetza-organoak finkatzea, eta beste batzuk sortzea; hartu beharreko neurrien artean, berriz, adinekoen boluntarior-tza sustatzea proposatzen du.

4) Gizarte langilea

Oso aukera ona da gizarte-langile baten laguntza izatea. Koordinatzeko egitekoa du, baina baita ikuskatzeko eta benetako prebentzio bat bideratzeko ere, adineko pertsonari dagokionez. Osasunaren alorreko profesional baten esku-hartzea eskatzen duen egoera-aldaketa bat antzeman dezake, baina, batez ere, pertsonari buruzko ikuspegi orokorra izaten du, une jakin batean adineko benetan nola dagoen eta egoera horiek zer bilakaera duten kontuan hartzen baitu. Ziur asko, aukera ona da isolamenduaren eta bakardadearen kontrako borrokan eta prebentzior-tzan.

5) Auzotarrekiko harremanak

Beste baliabide interesgarri bat auzotarrekiko harremanak sustatzea da. CIS-IMSERSOk egindako azterlanetan (3), adinekoek auzokoekin dituzten hartu-emanen maiztasuna ematen da aditzera: auzokoekiko harremanak nabarmentzen dira (% 80) lagun eta kideekiko harremanen aldean.

6) Hezkuntza-sistema

Hezkuntza-sistemaren batean sartu ahal izatea da laguntza gisa erabil litekeen beste ekimen berritzaile bat. Ekimen batzuetan, adineko pertsonen esperientzia balioesten da: esate baterako, eskoletan antzinako lanbideen berri eman diezaiekete umeei. Hala ere, truke mota hori ez dago behar beste zabaldua, ez da behar beste balioesten.

ADINEKO GIZONAK BANANTZEA

Gizona erretiratzen denean gertatzen den aldaketa onartu beharrak krisi-une bat ekartzen du bikote-harremanera. Madrilgo Bitartekaritza Elkartereko presidente María Luisa Pérez Caballerok ere hala uste du. “Gure egoitzara gizonak baino emakume gehiago etortzen dira informazio eske, bikotekideen artean urteetan ezkutuan egon diren arazoak larriagotzen direnean”, senarra erretiratu ondoren ia beti.

“Gizona erretiratzea ohiko moduan edo aurreratuta bikotekideen elkar bizitzaren etsai garbia da”. Hala dio Zarraluqui abokatuak. “Une zaila izaten da gizon askorentzat, non bizi-etapa berri

bat hasten den eta erabateko nahasmena egon daitekeen". Hala uste du Juan Luis Rubio Azcuek, Banandutako Gurasoen Elkarteko presidentea.

"Aspalditik huts egiten zuena areagotu egin daiteke elkarrekin gehiegi bizitzearen ondorioz", azpimarratzen du Rubio Azcuek. "Berdin gertatzen da udako oporrekin: irailean beti gehitzen dira dibortzio-eskaerak", gaineratzen du.

"Senarra erretiratzen denetik bikotean sakonki berregituratzen dira rolak; lotura sendoa baldin bada, gainditu egin daiteke, baina arazo-iturri ere gerta daiteke. Batzuetan, bigarren eztei-bidaia hasten da, eta beste batzuetan, benetako kalbarioa". Gerontologian espezializatutako psikologo María Dolores Ortizen hitzak dira.

Ana María Pérez del Camporen ustez, gizon askok ezin du zahartzaroa onartu, eta horren ondorioz, oraindik ere emakume gazteagoak bereganatzeko gauza dela erakutsi behar izaten dio bere buruari. Gizon horiek ez dute ezer jakiterik nahi petankara jolasteaz, eta pilula urdin baten laguntza dutela, ez diete uko egiten sexuaren plazerrei.

Oro har, denak bat datoz honetan: emakumeek gizonek baino hobeto aurre egiten diote banantze edo dibortzio baten ondoko egoera berriari; oso bakanak dira beste bikotekide bat bilatzen dutenak. Luis Zarraluqui-ren iritziz, "adin horretan bizitza berregitea aitor dezagun, oso zaila da, bai emakumeentzat, bai gizonentzat".

Hautura bat, adina edozein dela ere, beti izaten da traumatikoa, eta alderdien jarreraren eta heldutasun emozionalaren arabera gaindituko da. Emakumeek beste arazo bat ere izan dezakete, ekonomikoa, zeren eta, belaunaldi horietako ia gehienek bezala, etxean baino ez dute lan egin.

Edonola ere, nabarmendu duenez, emakumearentzat "askapen bat izaten da", eta gizartean eta familian duen babesaren arabera, "bakardadearen egoera berria ez dute karga moduan biziko". "Bakardadea berez ez da txarra. Ez da gauza bera bakarrik sentitzea eta bakarrik bizitzea. Bakardadea bikotekidearekin ere bizi daiteke", hala dio María Dolores Ortiz psikologoak.

Nire esperientzia profesionalari esker, hori hala dela esan dezaket. Izan ere, askotan, adineko gizonak adierazten du ezin dela bakarrik bizi lagunduko eta zainduko duen norbait alboan izan gabe, kultura-mendetasun horrekin sozializatu delako.

Horregatik, adineko gizonezkoa bakarrik bizi denean, arrazoia edozein dela ere (alarguntasuna, banantzea, familiarik ez izatea edo gertukoekin harreman onik ez edukitzea, etab.), erakundee-tara publikoetara zein pribatuetara jotzen du, gizarte-baliabideak eskatzeko, bakardade hori leuntzen lagun diezaioten.

Horregatik, desgaitasunen bat duen pertsonaren zaintzailea gizonezkoa denean gertatzen denean bezala, bakarrik dauden adineko gizonezkoak gizarte-zerbitzuetara joan daitezela laguntzen du gizarteak, emakumeak baino zaurgarriagoak direla uste duelako, kontuan hartuta bakardade-egoera horretan, bakarrik dagoena gizona denean puntu gehiago ematen direla baliabide bat esleitzeko orduan; adibidez, arreta integraleko zentro gerontologiko batean (eguneko zentroa, egoitza, babespeko apartamenduak, etab) plaza bat esleitzerakoan; baina lehentasuna dute, halaber, adindua bere ingurunean mantentzen duten baliabideetan, batez ere, etxez etxeko zerbitzuetan, non esate baterako, janaria etxera eramaten zaien, edo langile bat joaten den etxeko lanak egitera (etxea garbitu, arropa garbitu eta lisatu, erosketak egitera, etab.).

5 EREAKZIOA ETA DINAMIKA PEDAGOGIKOAK

Krisi-egoera horiek gainditzeko gakoak:

1. Adineko gizonezko bakoitzaren giza baliabideak kontuan hartu behar dira.

CIS-IMSERSOk egindako azterlanean baieztatzen denez, bakardadean, adineko pertsonak telebista ikusten dute (% 28) edo pasieran irteten dira (% 23). Hala ere, besteekin harremanetan hasia dakarten jarduerak ez dira oso ohikoak. Bakarrik sentitzen direnean, adineko pertsonen % 5ek bakarrik hitz egiten du auzokoekin; % 3 bisitaren bat egitera, edo taberna edo kafetegiren batera joaten da; eta % 2 zaharren etxera. Bakardadea pairatzen duten pertsonak pasiboagoak izaten dira: etsi egiten dute (% 13), eta telebista ikusten dute (% 31), lagunduta sentitzen direnak baino maizago (% 9 eta % 26, hurrenez hurren).

Zahartzaroari aurre egiteko estrategiak desberdinak dira pertsona bakoitzarentzat: bakoitzak dituen baliabideen eta sentsibilitate eta interesen arabera dira. Hala ere, badaude baliabide batzuk estimulatuta bizitzeko beharri erantzuten diotenak, bakardadean ez erortzen laguntzen dutenak. Esaterako, etxeko lanak egitea, telebista, irratia, praktika erlijiosoetara itzultzea edo horiek areagotzea, telefonoz hitz egitea, zaharrentzako zentroak (eguneko zentroak edo klubak), kultur-, turismo- eta aisialdi-jardueretan parte hartzea, eta, oso gutxitan bada ere, beste bikotekide batekin hasia.

1.1. Hezkuntza funtsezkoa da.

“Mutikoak ez dezala ezer egin”, esaten zieten umetan; gero, helduaro aurreratura iristen direnean, egoera zailean aurkitzen dira eta beren heziketaren zati izan den desberdintasunaren biktima bihurtu daitezke. Horregatik, oinarritzkoa da autonomoak eta independenteak izaten ikas dezaten. Yolanda Besteirok, Mujeres Progresistas Federazioko presidentea, onartzen du gizonak kaltetuak izan direla jaso duten heziketa patriarkalaren ondorioz, autonomia kendu baitiete. Lagundu egin behar zaie adineko gizonezkoiei, historikoki emakumeek egin dituzten zereginetan trebatzeko jarduerari, ikastaro edo tailerretan parte har dezaten. Eta emakumei ere irakatsi egin behar zaie adineko gizonezkoiei jarduerari horietan parte hartzen utz diezaieten.

2. Familia- eta gizarte-baliabideak edukitzea

Zahartze positibo bat garatzeko, gizarteak adineko gizonezkoiei aukerak eman behar dizkie independenteak izan daitezen, osasuntsu egon daitezen eta produktiboak izan daitezen. Halaber, garrantzitsua da segurtasun eta erosotasun handiagoa izan dezaten, ongizatea sustatuz eta ingurune egoki eta onuragarriagoak sortuz. Gehiago pentsatu behar da gaitzeari buruz desgaitzeari buruz baino; gizartean aktiboki parte hartzen eta laguntza ematen duten pertsonatzat hartu behar ditugu adinekoak.

Garrantzitsua da autonomia-galera lehenbailehen antzematea, eta behar diren neurriak ezartzea adinekoek ahalik eta independentziarik handiena izaten jarrai dezaten; horretarako, besteak beste telemedikuntza, telelaguntza eta domotika baliatuko dira, beharrezkoa denean.

Aurtengoa, 2012. urtea, zahartze aktiboaren nazioarteko urtea da. IMSERSOren Zahartze Aktiboaren Liburu Zurian (2011) azpimarratzen denez, bizi-eredu osasungarriak oso garrantzitsuak dira adin aurreratuetan ere jardunean jarraitu ahal izateko. Gaur egun, aurreko hamarkadetan baino askoz gehiago luzatzen dira pertsonaren gaitasunak, bizi-itxaropenak eta gizarte-bizitzaren eremu guztietan parte hartzeko aukerak.

Dokumentuan instituzio, erakunde, sektore, agente eta gizarte kolektibo guztien lankidetzaren eskatzen da, zahartze aktibo eta osasungarriaren kultura sustatzeko eta zabaltzeko.

Adierazle batzuk

- Adineko pertsonen % 53 beste jarduera batzuk egiten hasten da 65 urte bete ondoren. 1993an, 65 urtetiko gorako pertsonen % 9,5ek soilik ekin zion jardueraren bati erretiroa hartu ondoren.
- Gure adinekoen % 43k aktiboki eta osoki parte hartu nahi du espainiar gizartean.
- % 28 antolakunderen bateko kide da, eta % 8, zehazki, boluntariorza-antolamenduren batekoa.
- Adineko pertsonak argiro adierazten dute autonomo izateko nahia: % 87k ahalik eta luza roen bizi nahi du bere etxean, baina hartu-eman sendoak ere izan nahi ditu familiarekin; horien % 89k holako harrenak ditu. Horregatik, eta belaunaldien arteko elkartasunaren handia tarteko, bilobak zaintzen laguntzen dute (% 70).
- Gero eta adineko gehiago hasten da ariketa fisikoa egiten eta hezkuntza-prestakuntza jasotzen: adineko pertsonen % 86k ez ditu gainditu lehen mailako ikasketak; baina 2007an, adineko pertsonen % 8k adierazi zuen hezkuntza-jardueretan parte hartu izana.
- Adineko pertsonen % 45,5ek osasuntsu dagoela azpimarratzen du. Ehuneko hori 8 puntu eta erdi hazi da: 1993an, 65 urtetik gorakoek % 37k baino ez zuen aitortzen horrela sentitzen zela. Horrekin batera, osasun txarrekoak direla dioten ehuneko nabarmen jaitsi da tarte berean: % 24tik % 14,5era. Zifra horiek erakusten dutenez, osasunaren eta gizarte-ongizatearen alorreko politika publikoek zuzenean eragin dute bizi-kalitatea hobetzen.

IMSERSOren Zahartze Aktiboaren Liburu Zuriak, proposatzen dituen jarduera-ildoen artean, gizarte-maila guztiek lehentasun batzuk barneratu behar dituztela nabarmentzen du, horrela lortuko baitugu gertatzen ari diren aldaketa demografikoetatik datozen eraldaketei arrakastaz aurre egitea. Horren haritik, ehun proposamen egiten ditu. Beste askoren artean, honako hauek:

- Garapen indibiduala pertsonen bizitza-ziklo osoan luzatzen dela onartzea, eta horrek gizartean eragina duela.
- Ezarri beharreko politika ekonomikoak bizitza-ziklo osoa hartu behar du kontuan, pertsonen arteko harremanak bideratu behar ditu, eta denbora gorde behar du zainketa pertsonalerako, elkartasunerako eta gizarte-harremanetarako, horrek guztiorrek adineko pertsonen segurtasuna eta ekonomia hobetuko baitu.
- Adineko pertsonen buruzko kontzeptu jakin bat garatu, sustatu eta zabaltzea, hau da, hezketaren diren aldetik dagozkien eskubideei egokitua dagoena, tratatu desberdintasunik eta bereizkeriarik gabekoa.
- Gizartearen eremu eta maila guztietan aktiboki parte har dezaten sustatzea, eta belaunaldien arteko elkartasuna indartzea.

Bukatzeko, “trikimailu” batzuk proposatzen ditugu, adineko gizonezkoaren pertzepziotik bizitzari baikorki aurre egiteko, uste sendoa baitugu bizitzaren etapa hau onena izan daitekeela:

Psikologoek gomendatzen duten lehena “unera iristen denerako mentalizatuta egotea” da. Erretiroa denboraz prestatzea, eta zer jarduera egin nahi lukeen pentsatzea. Ekin aurretik probatzea ere bai. Fase honetarako oso baliagarriak izan daitezke erretirorako prestatzeko ikastaroak edo erretiroari buruzko aholkularitza-ikastaroak. Izan ere, testuinguru jakin batzuetan emaitza ona izan dute, eta, besteak beste, herrietako erakunde publiko eta pribatuek kontratatu izan dituzte.

Ondoren, funtsezkoa da jardunean jarraitzea. Esate baterako, Valentín Fuster kardiologoa, Mount Sinai ospitaleko (AEB) Institutu Kardiobaskularreko zuzendaria, aspalditik ari da behin eta berriz esaten: osasuntsu eta ahalmen guztien jabe direnek jardunean jarraitu behar dute erretiroa hartu ondoren.

Esate baterako, pintura-eskolak hartzea; hala egiten du Fernandok: 70 urte ditu, erretiratuta dago, Bankuko langile ohia da, eta aitortzen duenez, pinturaren zaletasuna oso hedatua dago haren belaunaldikoen artean: “margolari frustratuak gara”. Gimnasio batean izena ematea, museoak bisitatzea, sukaldean aritzea, edo bakoitzak nahi duena egitea. “Garrantzitsuena etxean ezer egin gabe ez geratzea da”. Hala gomendatzen dute teknikoeak, eta jardunean jarraitzen duten adinekoek ere hala berresten dute.

Hirugarren gomendioa: denbora zertan eman ez badakizu, besteei laguntzea daukazu. Lan-bizitzan lortutako jakintzak beste batzuen esku uztea edo boluntariora-motaren bat egitea. Horrek asko laguntzen duela diote.

Eta, azkenik: gizarte-harremanak lantzea, bai familiako kideekin, bai lagunekin; haiekin egotea edo lagun berriak egitea.

Ortiz doktorearen hitzetan: “Laneko erretiroa hartzeak ez du esan nahi bizitzatik erretiratzea”.

Joan Manuel Serratek, “Hoy puede ser un gran día” kantuan (grabazio bat jarri edo testua irakurri), hau zioen:

*Hoy puede ser un gran día
Plantéatelo así
Aprovecharlo o que pase de largo
Depende en parte de ti*

*Date el día libre a la experiencia
Para comenzar
Y recíbelo como si fuera fiesta de guardar
No consientas que se esfume
Asómate y consume
La vida a granel
Hoy puede ser un gran día
Duro con él*

*Hoy puede ser un gran día
Donde todo está por descubrir
Si lo empleas como el último que te toca vivir
Saca de paseo a tus instintos*

*Y ventílalos al sol
Y no dosifiques los placeres,
Si puedes, derróchalos*

*Si la rutina te aplasta
Dile que ya basta
De mediocridad
Hoy puede ser un gran día
Date una oportunidad*

*Hoy puede ser un gran día
Imposible de recuperar
Un ejemplar único,
No lo dejes escapar
Que todo cuanto te rodea
lo han puesto para ti
no lo mires desde la ventana
y siéntate al festín*

*Pelea por lo que quieres
y no desesperes
si algo no anda bien
Hoy puede ser un gran día
y mañana también....*

ZAHARTZEA BIZITZEA DA

6 GOMENDATUTAKO IRAKURKETA BATZUK ETA BESTE ZERBAIT GEHIGO...

Liburuak

Abuelos y nietos. C. Rico, E. Serra y P. Viguer. Pirámide, 2001.
Actividades físicas para mayores. Agustín Meléndez Ortega. Gymnos, 2000.
A propósito de las condiciones de vida de las personas mayores. IMSERSO, 2007.
Autonomía personal en la edad avanzada. Antonio Ariño. CAM, 2008.
Como ser mayor sin hacerse viejo. Enrique Miret Magdalena. Espasa-Calpe, 2003.
Cuide su cuerpo. Rocío Fernández-Ballesteros. Pirámide, 2002.
Cuide su mente. Rocío Fernández-Ballesteros. Pirámide, 2002.
Decálogos para vivir más de 100 años y otras menudencias. Loles Díaz Aledo. Popular, 1994.
El ser y el tiempo (Fondo de Cultura Económica), Martin Heidegger.
Entrena tu memoria: una guía práctica desde los 9 a los 99 años. Colette Bizouard. Paidós, 2002.
Zahartze Aktiboaren Liburu Zuria (IMSERSO) 2011
Envejecer bien: qué es y cómo lograrlo. Rocío Fernández-Ballesteros. Pirámide, 2002.
Envejecer con los demás. Rocío Fernández-Ballesteros. Pirámide, 2002.
Envejecer no es deteriorarse. Gonzalo Canal Ramírez. Panamericana, 1999.
Envejecer es vivir. Loles Díaz Aledo. Popular, 1993.
Envejecer, una antropología de la ancianidad. Josep María Fericgla. Herder, 2002.
Gerontología: Actualización, innovación y propuestas. Sacramento Pinazo y Mariano Sánchez (dirs), 2005

Guía de cuidados de personas mayores. Andrés Pérez Melero. Síntesis, 1999.

Jubilación. La vida sigue. Reflexiones sobre una tercera edad plena (Planeta), José María Carrascal, 2002.

La estructura social de la vejez en España. Nuevas y viejas formas de envejecer. Lourdes Pérez Ortiz. IMSERSO, 2006.

La España de nuestros abuelos. Amando de Miguel. Espasa-Calpe, 1995.

La generación sándwich: cómo compaginar el cuidado de los mayores con el de los hijos. Cristina Ruiz. Random House Mondadori, 2002.

La jubilación: una oportunidad vital. Ricardo Moragas. Herder, 2001.

Las personas mayores en España. IMSERSO, 2008

La vejez positiva: nunca es demasiado tarde para ser feliz. Alfonso J. Cruz Jentoft. La Esfera de los Libros, 2006.

Larousse de los mayores. Larousse, 2003.

Mantenerse en forma de mayor. Pilar Pont. Paidotribo, 2003.

Mayores con salud. Manuel Torreiglesias, Luis Gutiérrez. RBA, 1999.

Mis abuelos me cuidan. Joaquín Ybarra y Sacramento Pinazo. RTVE eds, 2009.

Nueva gimnasia cerebral: ...para llegar en forma a los 100 años. Le Poncin. Temas hoy, 1997.

Prepararse para cuidar a una persona mayor. Buscar, elegir y evaluar una residencia. Antonio Burgueño Torijano. Mira, 2002.

Psicología de la vejez. Carme Triadó, Feliciano Villar, coors. Alianza, 2006.

Señoras y señores: impresiones desde los cincuenta. Vicente Verdú. Espasa, 1998.

Sexualidad en la vejez. F.López y J. Olazabal. Pirámide, 1998.

Temas jurídicos relacionados con la enfermedad de Alzheimer y otras demencias. Antonio Martínez Maroto. AFAL, 2002.

Feminización de la vejez y Estado del Bienestar en España. Julio Pérez Díaz, REIS, 2006

Una estimación de la dependencia en España. Antonio Abellan y M Dolores Puga. RMG, 2004

Vivir la madurez con optimismo: la apasionante aventura de envejecer. Margarita Rivière. Círculo de lectores, 1998.

Literatura-ianak

Brooklyn Follies. Paul Auster. Círculo de lectores, 2006.

Diario de un jubilado. Miguel Delibes. Destino, 1995.

Diario de una abuela de verano. Rosa Regás. Planeta, 2004.

Donde el corazón te lleve. Susanna Tamaro. Seix Barral, 1998.

El abuelo. Benito Pérez Galdós. Alianza, 1999.

El amor en los tiempos del cólera. Gabriel García Márquez. Mondadori, 1997.

El cartero de Neruda. Antonio Skármeta. Plaza y Janés, 1996.

El crepúsculo de los dioses. Richard Garnett. Siruela, 1988.

El cuaderno de Noah. Nicholas Sparks. Salamandra, 2002.

El profesor. Frank McCourt. Círculo de Lectores, 2006.

El viejo y el mar. Ernst Hemingway. Planeta, 1991.

Historia de una maestra. Josefina R. Aldecoa. Anagrama, 1990.

Hombre lento. J. M. Coetzee. Círculo de Lectores, 2006.

La fuerza del destino. Josefina R. Aldecoa. Anagrama, 1997.

La hoja roja. Miguel Delibes. Destino, 1992.

La nieta del señor Linh. Philippe Claudel. Salamandra, 2006,

La sonrisa etrusca. José Luis Sampedro. Alfaguara, 1988.

Los aires difíciles. Almudena Grandes. Tusquets, 2002.

Martes con mi viejo profesor: una lección de la vida, de la muerte y del amor. Mitch Albom. Maeva, 1998.

Memoria de mis putas tristes. Gabriel García Márquez. Mondadori, 2004.

Primer y último amor. Torcuato Luca de Tena. Planeta, 1997.

Silla de anea. Pilar Doucastella. Mira Editores, 2003.
Tomates verdes fritos en el café de Whistle stop. Fannie Flagg. Círculo Lectores, 1993.
Un viejo que leía novelas de amor. Luis Sepúlveda. Tusquets, 1997.
Zapatos italianos. Henning Mankell. Tusquets, 2007

Filmak

Abuelo made in Spain. Pedro Lazaga. Espainia, 1957.
A propósito de Schmidt. Alexander Payne. AEB, 2002.
Cinema Paradiso. Giuseppe Tornatore. Italia eta Frantzia, 1988.
Conociendo a Julia. István Szabó. Britainia Handia, 2003.
Cuando menos te los esperas. Nancy Meyers. AEB, 2003.
Cuentos de Tokio. Tokio Monogatari. Japonia, 1953.
Descubriendo a Forrester. Gus van Sant, 2000.
Despertando a Ned. Kirk Jones. Irlanda, 1998.
El crepúsculo de los dioses. Billy Wilder. AEB, 1950.
El cartero (y Pablo Neruda). Michael Radford. Italia eta Frantzia, 1995.
El abrazo partido. Daniel Burman. Espainia, 2004.
El abuelo. José Buch. Espainia, 1925.
El abuelo. Jose Luis Garci. Espainia, 1998.
El hijo de la novia. Juan José Campanella. Espainia-Argentina, 2000.
El viaje de Carol. Imanol Uribe. Espainia eta Portugal, 2002.
El viejo que leía novelas de amor. Rolf Heer. Frantzia-Esp.-Hol.-Australia, 2001.
El viejo y el mar. Jud Taylor. Britainia Handia, 1989.
En el estanque dorado. Mark Rydell. AEB, 1981.
En la ciudad sin límites. Antonio Hernández. Espainia, 2002.
Historia de un beso. José Luis Garci. Espainia, 2002.
Innocence. Paul Cox. Australia, 2000.
La fuerza del cariño. James L. Brooks. AEB, 1983.
Last orders. Fred Schepisi. Britainia Handia, 2001.
Mejor... imposible. James L. Brooks. AEB, 1997.
Paseando a Miss Daisy. Bruce Beresford. AEB, 1989.
Space cowboys . Clint Eastwood. 2000.
Solás. Benito Zambrano. Espainia, 1999.
Tomates verdes fritos. Jon Aunet. AEB, 1991.
Una historia verdadera. David Lynch. AEB, 1999.
Un toque de canela. Tassos Boulmetis. Grezia, 2004.
Volver a empezar. José Luis Garci. Espainia, 1982.

Bideo laburrak:

¿Como quieren ser cuidadas las personas mayores?

<http://youtu.be/6Lvl5yDfZ8Q>

Recomendaciones para cuidadores de personas dependientes

<http://youtu.be/VNfeROx4MO4>

El perfil de la persona dependiente: Obra social de la Caixa

<http://www.youtube.com/watch?v=NcBEHaCddH0>

Sobre la soledad: una visión real y positiva

<http://www.youtube.com/watch?v=8qQGMae5RiE>

Existen fundaciones de ayuda a los mayores

<http://www.amigosdelosmayores.org/>

Claves para aumentar la esperanza de vida: Redes (E. Punset)

<http://youtu.be/XnpHcYU1nc8>

Pep Mascaró, anciano 102 años y bebé (Anuncio Coca Cola)

<http://youtu.be/ao6BkoNs17k>

Mí querido, mi viejo mi amigo (Canción de Roberto Carlos)

http://youtu.be/_5Ji6eMkXUg

Carta a mi viejo (Canción de Alberto Cortez)

<http://youtu.be/c4iPZ5e8Sjw>

7 BIBLIOGRAFIA

1. Madoz V. Soledad, en "10 palabras clave sobre los miedos del hombre moderno". Verbo Divino, Estella. 1998..
2. Bermejo JC. www.humanizar.es/formacion/img_documentos/soledad_mayores.doc (consulta: 2008ko martxoak 1).
3. Boletín sobre el envejecimiento. La soledad de las personas mayores. Observatorio de Personas Mayores. IMSERSO. 2000ko abendua.
4. Álvarez EA. La amistad en la edad avanzada. Geriátrika 1996;.
5. OMS. Salud y envejecimiento. Un documento para el debate. Boletín para el envejecimiento, Perfiles y tendencias. IMSERSO. Observatorio de personas Mayores. 2001eko azaroa.
6. Molinero S. Fragilidad en la esfera social. Rev Esp Geriatria y Gerontología 1997.
7. Sánchez JL, Braza P. Aislamiento social y factores físico sensoriales en la depresión geriátrica. Rev Esp Geriatria y Gerontología 1992.
8. Castro M^aP. La soledad, algo más que no vivir en compañía. Rev Mensajero 1995.
9. Bazo M^aT. La familia como elemento fundamental en la salud y bienestar de las personas ancianas. Rev Esp Geriatria y Gerontología 1991.
10. Laforest J. Introducción a la gerontología. El arte de envejecer. Barcelona: Herder 1991.
11. Iglesias De Usel J. La soledad en las personas mayores: influencias personales, familiares y sociales. Análisis cualitativo. IMSERSO. Madrid 2001.
- 12 Mensajeros de la paz. www.mensajerosdelapaz.com (consulta: 2008ko apirilak 5).
13. Plan gerontológico. www.boe.es (consulta: 2008ko martxoak 2).
14. Plan de Acción para las Personas Mayores 2003-2007. www.seg-social.es/imsero/normativa→ (consulta: 2008ko martxoak 10).
15. Virginia Henderson in Nursing Theories Practice Group.
16. Manual diagnóstico de enfermería, diagnósticos de NANDA (2001- 2002).
17. Zahartze Aktiboaren Liburu Zuria (IMSERSO). 17. zk. 2011.